Errectore Jaun baten instruc-
cinuac ezconduric vizi dan bere
Adisquide Necazari batentzat
bere eta bere Familiaren gobiernu
oneraco Jaungoicoaren Legue san-
tubagaz conforme.

Jaungoicuac beguiratu dau Zeru
tic, ecustiarren, ete daguan Guizonen
Semien artian Juiciosoric, edo bere bil-
la dabillenic. David Erregue eta Pro-
feta santubaren amairu garrengo Psal-
mo edo Cancinuan.

Jesus, Maria, eta Josef

Beti, neure biotzian Josiric zaucadan Aisquidia, deutsudan amorio eguiazcuac obligaitan nau, zuri ondo vizi izateco aviso batzubec emutera; eta, Jaungoicuac emunic zuri aimbeste capacidade, uste dot, artuco dituzula aviso oneic gogo eta vorondate onegaz, zugana amorioz betericaco biotz batetic urtenac dirian leguez; ez dot uste, ofendiduco zariala iñolaco moduz aviso oneicatic; zergatic, capacidade onecua bazara ere, ezin aiñ ondo ezagutu zeique zeure aciertubaceta uts eguitiac, nola zure oneraco eta gobiernuraco Jaungoicuac bere providencia santubagaz ifiñi izan dituban Christaun aic, zeñetatic bat zeure Gurasuacaz batera eta aicaz ostian uste dot, naizala neu.

Baduaza nire egunac; eta ni illagatic ere, vizico naitzatzu liburu onetan, emuten deutsudala ala zeuri nola zeure Jatorriai avisu, eta conseju santu oneic, zeñac milla bider obeto eracutsico deutsube Guizarteco barri, España guztia zeuc gulleriaz eta curiosidadez inguratuta baño: ez eguizu bada menosprecidadu zuri emutia uste ditudan conseju santu oneic, zeure vizitzan eta eriotzan ondo guertatu dequizun gura badozu;

bada euracaz Mundu onetaco beste Pamparrue ascoc baño obeto ſaquingo dozu Guizarteco barri, Erritic urten bagaric.

Engañau ezin ditequian, eta engañau ezin gaiquian Espiritu Santubat diño: dongaac nequez ontzeen dira; eta sensu edo ſuicio baguecuen numerua da cabu baguecua: egui laburra da au, Aisquidia; baña ſaquinduria andico eguia buruban ſuicioa daucan Christaunarentzat.

Mundu zabal onetan vizi dan bitartian edocein dago uts eguiteco peliguru andian batez ere besteren escandalo eta egemplu donguia diriala medioz; argatic artu dot asmua zuri emuteco Liburu onetan instruccino batzubet daucazun obligacinoric principalen gañian, eta zeure beguien aurrian ifinteco doctrina general batzubec, nundic erraz ete zeure entendimentuco neque guichigaz ezagutu daiquezun emen ſoten ez dirian eta zeure vizitzan guertatu aldequizun beste obligacino mueta guztiac ala Taungoicoaganaco, nola zeure Burubaganaco eta zeure Lagun Progimoacanaco, ſaquin daizun vide onen bitartez, nogaz zabiltzen eta zer pauso darabiltzun; eta uts eguiten badozu, erraz biurtu zaitian zeure obligacinuetaco vidiari ſarraiquetara; bada Guizonarena da uts eguitia, ba-

ña errorian firme egotia da sensu edo Anima
bagueco Animaliena: modu onetan zintzua
eta juiciosua leguez escarmentauco zaraiño-
ren buruban, eruac eta juicio bagacuac be-
ren burubetan escarmentaitan dirian bitar-
tian.

Bai, nere Aisquidia; fin santu onegaz artu
dot nere gañian neque eta lan guei au; eta ora-
iñ artu eguizu zeure gañian, nere neque eta lan
guei onetatic zuc etaratia gura dodan, frutuba eres-
teco, asmo vizi eta firme bat; eta zeure vizitza guz-
tico pausuac zucendu eguizu, Liburu onetan esa-
ten deutsudan leguez, emen aiquetara emuten
deutsudan, obligacinoco gauzac eguiten dituzu-
la; eta guztiac eguin daizunian, ez eguizu uste
gauza andiren bat eguin dozula; esan eguiozu,
bai, Jaungoicoari: ona emen, Jauna, Servitzari al-
per bat: Jesus Divinuac bere Evangelio santuban
aiquetara emuten deuscun leguez: zubec (esan eus-
ten bere Discipulubai) eguin daizubenian aguindu
iatzuben gauza guztiac, esan eguizube: Servitza-
ri alper batzubec gara; bacarric eguin ditugu, eguin
biar guituban gauzac: eta Humildade santu onetan
vizi zariala euqui eguizu esperanza guztizco bat,
aren Divina Magestadiagandic eresteco zeure ale-
guinaren sari beticuac eta fin baguecuac Zerube-
tan.

Vizi bedi Jesus guere biotzetan orain eta eternidade guztian: amen.

Equitera noian sallari asipena emun aurrian ifini gura deutsut, Jaungoicuac bere Escritura Sagraduban beste egui ascoren artian esaten deuscun, iru egui santu, zeure vizi guztian beti goguan erabilli daizun zeure gobiernu oneraco.

~ Lenengoa. Jaungoicoarena danac Jaungoicoaren verbac aiquetan ditu. San Juanen Evangelioco zortzigarrengo Capituluban.

f. 70 v. ~ Bigarrena. Mundu guztia ondatu biarrez ondaturic dago; zergatic ez daguan iñor equiaz pensaitan dabenic. Jeremias Profeta santubaren profecietaco amabigarrengo Capituluban.

~ Irugarrena. Bere falteen emiendaraco reprensinua emuten deutsan, Persona vorondate gogor bategaz menospreciaitan daben Guizonaren gañian etorrico da uste bagaco eriotza; eta ez da emendauco. Proverbioetaco Liburu Sagradubaren ogueta bederatzi garrengo Capituluban.

Religinua

Gure Religinua da Jesu Christo guere Criadore eta Redentoriarena (au da) Jaungoicoaren Seme viziac Guizon equinic Mundu onetan eracutsi euscun, siniste eta legue santuba, bere Ama Virginaren errai garbietatic guere guizatasuna arturic aguertu zanian, gu redimitara, eta no-

la vizi biar çuenduban exacuntera: siniste eta
legue santu au gordetia da, Mundu onetan dau-
caçun, çuere Languei auxerençoa, edo (beto esatiarren)
bacarra: emendic daucagu Christaunaren izen
zorionecua, zeña artu çueben Bautismoco Sacra-
mentu santuban; bada au çuere Ama Eliza San-
taren bitartez autortu çueben siniste eta Legue
santu au, çuere vizitza guztian exume gordetaco, gue-
re baiezcoa emuten çuentzala Jesu Christo çuere
Criadore eta Redentore Jaunari

Jaungoicuac, zeña bere obra guztietan da
guztiz Santuba, Mundu onen asiperian eta be-
re seiçarrenco egunian eguiñ eben Lurretic bere
antzera Adan çure lenengo Gurasua, emuten eut-
sala onetaraco, ezeberezetic eguinic, eta Espiritu
utsa zan, Anima bat jaquinduriaz, graziaz, eta
edertasunez betia; ifini eben, beretaco eta bere Ja-
toxi guztiendaco eguin eben, Lurreco Paraisuan, ze-
ña zan Mundu onetaco toqui bat atsegintasunez
betia, eta Zerueco zorionecotasunaren iduripen mira-
garrizcoa: emen lotan çueldituric Adan, quendu eut-
san bere Bularreco saiatz ezur bat, Araguiz bete-
etan eutsala bere toquia; Saiatz ezur onetatic eguin
eben, bere Lagun eta Emazte izan biarco eben, Eva
Emacumia, au ere bere Divina Magestadiaren antze-
cua, emuten eutsala onetaraco ezeberezetic eguinica-
co Anima bat Adanen diuñ ederra: oneic bioc dira
bada, Mundu zabal onetan vizi izan diran, oraiñ vizi dira
an, eta azqueneraño vizico diran Persona guztien lenengo
Gurasu bacar biac.

Aren Divina Magestadiac, ifinitic çure lenengo Ai-
ta Adan zoragarrizco Paraiso onetan, eta emuntic emen

bere Lagun eta Emaztetzat Eva, esanic guelditu dan modura, autortu eutsan Adaneri escuvidia, Paraisoco fruta mueta guztietatic jaateco; bat bacarra ucatu eutsan, bere Leialtasuna gauza guichian ecusiric, Zeruco Gloriara andic jausoteco asmuagaz, eriotzaric, eta beste naibaguetasunic batere irago bagaric ala berac, nola, beragandic sortuco zirian, ondorengo guztiac: baita ere esan eutsan, jaaten beeben, ucaquetan eutsan, fruta bacar artatic, illgo zala (au zan esatia) andic aurrera vizi biarco ebela Animaco eta Corputzeco eriotzaren bendian, eta, eriotza onec beragaz dacarren, naibaguetasun beticuen, eta Mundu onetaco beste naibaguetasun mueta guztien bendian.

Ainguerru madaricatu Diabrubac, bere arrotasun izugarri eta zorigaiztocoaren videz condenauric eta Zerutic botaric ecusi ebenian bere Buruba, besteren onaren ecusi ezinez beteric, artu izan eben asmua, Guizonari, Paraisoan eucan, zorioneco eta zoragarrizco edertasuna galdu eraguiteco; eta berialatic equin eutsan bere asmo dongaco Langueiari, itanquetan eutsala Evari modu onetan; zergatic Jaungoicuac aguindu deutsube, ez daguizubela jan Paraisoco fruta ~~mue~~ ~~ta~~ mueta guztitic? ichi biarrian Evac bere biotzeco atiac Diabrubaren itaune puzuniaz betericaco oni, erantzun eutsan onela: Paraisoan dagozen Arboletaco frututic jaaten dogu; baña, Paraisoaren erdian daguan, Arbolaco frututic, aguindu deuscu Jaungoicoac, ez daguigula jan, eta ez deiogula ucutu, ill ez gaitian: au entzunic Diabruba esan eutsan: ez zarai (au janagatic) iñolaco moduz

illgo: sinistu eutsan Eva gaiñuac Diabru guezur-
tiari; bota eben bere biotzetic eriotzaren gañeco
bildur santuba; zabaldu, eta Jaso zituban bere
escu desobedientiac, Jaungoicoac eragotziric eucan,
Arbolara; artu eben bere frututic, ecustian, ederra;
sartu eben aora; iritzi eutsan, Jatian ere, gozua, eta
Jan eben; emun eutsan ere bere Esposo Adaneri fru-
tu artatic; onec ere Jan eben; eta biac bata bestiaren
ondorian Jausi ziran desobedienziaco pecatu mor-
tal icaragarrizco onetan; onela, Apostolu San Pabloc
eracusten deuscun leguez, Guizon baten bitartez
sartu zan pecatuba Mundu onetan, eta pecatu-
baren bitartez eriotza; eta ala eriotza irago da
Guizon guztietara.

Jaungoicuac ecusi ebenian gure lenengo Guraso
bi onein desobedienciaco pecatu mortal au, bota zi-
tuban Paraiso eder artatic, eta oneicaz batera gu guz-
tioc, beren Jatorri dongac garian leguez; emendic dau-
cagu Evaren Vme desterraduben izen tristia: asosti-
an ichi eusten Zeruco atiac; eta emun eusten beren
pecatubaren saritzat, egotia eriotzaren bendian, eta
vizitza onetan ecusten ditugun naibaguetasun mue-
ta guztien bendian, gueldiquetan ziriala eurac, eta
euracaz batera beren Jatorri guztiac Animaco eta
Corputzeco eriotziaren azpian.

Azi zatar eta donga baten erru donguia ez da gueldiquetan azi artan bacarric, baizican lurrian erein ezquero jarraiquetan deutsa azi artatic sortzen dan Arboliari eta onegaz batera emuten daben frutu guztiari, orobat gure lenengo Guraso bi oneic Paraisuan eguin euben desobedienciaco pecatu mortal au ez zan bacarric guelditu beren Eguilla bietan, baicican jarraiquetan deuste beren ondorengo guztiai, eta anchiquetan ditu beren Jatorri guztiac ain gogorquiro, zein da Mundu onetan ez da iñor jaiten ez Emacumeric eta ez Guizacumeric pecatu [redacted] au bagaric: eta pecatu au da San Pablo Apostolubac aiquetara emuten deuscuna, esaten deuscunian: Adanegan guztiac eguin euben pecatu.

Pecatu [redacted] au, zeña dacargun guztioc gure aurrenengo Guraso bi onein erenciaz eta guere jaioqueraz, guere Ameen erraietan concebidubac garian instantetic, da, guc, fede santubac eracutsiric, pecatu originala esaten deutsaguna.

Guztioc bada gara concebidubac eta jaioac pecatu [redacted] original onetan bi bacarracaz ostian, zeñac dirian Jesu Christo gure Jauna, Guizona dan aldetic, eta bere Ama Virgina Maria Santisima: Jaungoicoaren fin bagueco ontasunac ezin artu eiquian beragana pecatu originalian concebi-

duricaco Guizatasunic; zergatic eza eta baia puntu baten gañian batera eta equiaz ezin aguertu litezquian leguez, orobat ere Jaungoicua eta pecatuba ezin egon zitezquian instante batian Jesu Christogan uniduric alcarregaz; baita ere Jesus Divinuaren Encarnacinua edo Guizon equitia izan zan guztia Espiritu Santubaren obra bacarra; Guizonac batere zer equinic euqui ez eben bere miragarrizco concepcinuan Ama Virginaren errai garbietan; ezin bada pecatu original onec billatu eiquian toquiric, bera deseguinquetara etorren, Jesu Christo gure Jaunagan.

Bere Ama Virgina Maria Santisima ere izan zan guztiz garbia eta pecatu original baguecua bere Concepcioan, baña Jaungoicoaren graciaz eta privilegioz, zeñac bague pecatu original onec jarraituco eutsan Señora oni beste guztioi leguez, eta anchituco eben; baña Jaungoicoac, bere Amatzat artzeco, equin gura eben, Emacume onen Concepcinoan eragotzi eben, pecatu original au urreraquetia, gure salvacinoraco artzera etorren, tormentu, afrenta, eta eriotza santubaren fin bagueco merecimentu santubaren bitartez; eta ala ez eben gura izan, bere Ama izan biar eben, Señora au izan zedin instante batian ere Diabrubaren Esclava pecatu original onen bitartez.

Pecatu original au parcatzaca iñor sartu ez da Zeruco gloriara, sartuco ere ez da.

Diabrubac bere Tarralla madaricatubacaz
eguin eben lenengo Zeruban Soverviaco pecatu
icarragarria; baita ere Paraisuan (esanic gueldi-
tu dan leguez) gure lenengo Gurasuac, Diabru gu-
zurti, sovervio eta emvidioso onec tentauric, eguin
euben desobedienciaco pecatu mortala: baña gu-
re Taungoicuac, zeñaren misericordiac diran
bere obra guztien gañeracuac, zor ez eutsala Gui-
zonari ezercho Aingueru galdubai baño gueia-
go, onei alde batera itziric, erruquitu zan Aingue-
ru donga onen engañuz estadu negargarrizcuan
sarturic eguan Guizonagaz; eta berialatic artu eben
asmua, deseguinquetaco Guizonac Diabrubaren
emvidiagaz bere burubari eguin eutsan calte ma-
daricatu oneic; eta ala aiquetara emun eusten gu-
re lenengo Guraso onei, bialduco ebela Zerutic be-
ren Salvatzallia, zeñac etaraco zituban Diabru-
baren bendetic, eta ideguico eusten beren desobe-
dienciac ichi eusten Zeruco atiac.

Ordutic bada bere Seme Jesu Christo gure
Jauna Curutzian bere vizitza emun bitartian ill
ziran Persona justo eta Taungoicoaren Adisquide
guztiac jachi ziran Limbora edo Abranen Senu
esaten deutsagun toqui batera, nun beren Anima
guztiz garbiac eta Purgatorioaren batere premina
baguecuac etorrico zan Salvatzalliari ichadeten eg

zen: esan dot: Purgatorioaren batere premina baque-
co Anima justoac; zergatic zorren bategaz Mundu
onetatic urteten euben Anima justuac lenago sartzen
ziran Purgatorioan, eta beren zor guztia pagaurric ira-
goten ziran ermendic Limboza, orain Zeruza zuceri-
an iragoten diran leguez.

Millaca urtiac iragoric, urreratu zan aren Di-
vina Magestadiac gure Redencinoraco bere gogu-
an erabagui[illegible]ric eucan demporа zorionecua; eta autor-
turic eucan leguez bialdu eben bere Semia, gu redimi-
toza; artu erain eutsan Guizonaren naturaleza
Ama Virginaren erruai garbietan Espiritu Santubaren
virtutez eta obraz; onela aguertu zan Mundu onetan,
bere Ama Virginaren erraietan bederatzi illa bete ira-
goric, gure Salvatzalle Santu au Jaungoico eguiazcua
zana Guizon eguiazcua eguinic; eta ifini eutsan bere
Aita Jaungoicuac Jesus izentzat, emun eutsan lan
gueiac escaquetan eben antzecua.

Aita Jaungoicuac bada bialdu ebenian bere
Seme Jesu Christo Mundura, emun izan eutsan
izu Oficio edo lan guei auzrenengoac; bata: gu redi-
mitia edo etzatia Diabrubaren bendetic, leena-
go bere vizitza guztico demporan eracutsiric izteen
euscula ala verbaz nola obraz bere Aitaren voron-
datia eta Zeruraco vidia: bigarrena: gure Abogadu
eta Defensore izatia bere auzrian: irugarrena: Mun-

du onen azquenian edo Juicio generalaren egunian
gure Juez bardiña izatia.

Jesu Christo gure Jaunac bere Aita Eternoa
ren guganaco erruquiz betericaco vorondatia a
ro eguitiarren, Munduban vizi izan zan ogueta
amairu urteetaco dempora laburrian eracutsi
eutsan pecatuz, pasinoz, eta vizioz ichuturic eg
an Guizonari bere Aita Jaungoicoaren voronda
te eta Legue santuba eta Zeruraco vidia, berac ar
taraco obraz cumplitan zitubala aoz eracusten zi
tuban gauza guztiac; eta Mundutarren aurrian
aguertzen zala bere vizitzaco eta andic aurrera
co languei guztietan, leenagoco demporetatic Patri
arca eta Profeta santubac Escritura Sagraduban
aren Divina Magestadiaren gañian esanic itzi eu
ben leguez: eguin zituban milagro guztiz andiac
bere doctrina eguiazco eta santubaren gañeco sinis
tia Mundutarren biotzetan sendoro sortzeco: artu
zituban Discipulutzat amabi Guizon gueien bat guz
tiz biarquinac eta batere Jaquinduria baguecuac, be
ragaz ibilli zitezen, eta bere vizitza, doctrina, eta
milagruen Testigu eguiazcuac izan zitezen; eta ifi
ni eusten Apostoluben izena; oneitatic bat izan zan
Judas esquer baguecua, zeña etorri zan azquenic
saltzera ogueta amar dirugatic bere Onguilla, Ma
sũ, eta Salvatzallia zan Jesu Christo gure Jauna;
eta Jaungoicoaganaco esperanza guztia galduric ur

catu eben bere buruba, onetan eguiten ebela peca-
tu ascoz andiagua, bere Onguilla Jesus Divinoa Etsa-
iai dirubacatic eta laztan guezurti bategaz saltze-
iagaz baño: Jesus Divinua Zerubetara igoric Es-
piritu Santuba etorri bitartian amaica Apostolubac
beste batzubecaz oracinuan egocela beren Buru eta
Aguintari San Pedroc esan eusten, beste batec sartu
biar ebela Jausi zan Judas madaricatubaren amabi
garren lecuba artzera, Espiritu Santubac esanic itzi
eben leguez David Profeta santubaren aotic; ifini zi-
tuben beren aurrian euracaz batera Jesu Christo-
ren vizitza eta mirari guztiac ecusi zituben Guizon
Justo bi; erregutu eutsain Jaungoicoari, aiquetara
emun eguiala, bi oneitatic zein zan berac gura ebe-
na sartu zedin Judasen lecuban; bota zituben erre-
guben ondorian suertiac Guizon Justo bi ain gañian;
Jausi zan suertia bi oneitatic Mathias zeritzonen
gañian; eta onela San Mathias gloriosua etorri zan
Apostolu izatera, eta Judasec galdu eben amabi gar-
ren toquia artzera.

Jesu Christo gure Jaunac eguin eben Apostolu guztien Aguintari eta Buru, San Pedro Apostoluba ifinten ebela Apostolu santu au bere Esposa eta gure Ama dan Eliza santaren cimentu guztiz errimetzat, ala bera, no-
la, bera ez zan demporan, bere toquira sartuco zan
Aita Santu Erromacua, zeña, nor nai dala, da bere

egunetan San Pedroren Sucesoria Dignidadian
Eliza Santaren Buruba, eta Jesu Christoren Vi
rioa emen Lurrian, noren aguintia Christaun gu
tiac dagoza obligauric eguitera salvauco badira.

Onela bere gauzac erabaguiric, eta Judegu-
ben Legue zar eta santuco mandamentubac agu
quetan euben guztia osoro eguinic emun eben, Gu
zona zan aldetic, bere vizitza Curutzian burdi
nazco ultziacaz oñac eta escubac josiric, pillosi
eta Lapur bien erdian, Gaitz eguillaric aurrenen
goa balizan leguez, itzulten ebela bere zanetaco
odol maitagarria eta guztiz adoragarria; eta be
re vizitzan, eriotzaco orduban eta ondoren eguin
zituban miragarriac arguitasun guztizcuagaz
aiquetara emuten eusten Judegubai, zala Jaun
goicoaren Semia, Jaungoicoa bera eta Guizon egui
azcua; eta erraz ezagutu eiquien egui santu au
bardin beren pecatu icaragarriac ziriala medioz
aren Divina Magestadiaganaco ecusi ezinac eta
gorrotuac ailaguiña ichutu ez balitu.

Dempora artan Gaitz eguillai emun oi zirian
eriotza mueta guztietic lotsagarriena zan Curutze
co eriotza, gaurco egunian Vrcamendia dan le-
guez; Jesus Divinuac bada emun eutsan bere Aita
Jaungoicoari eriotza mueta santu onetaco, eta erio-
tza onen aurrian irago zituban naibaguetasun

mueta guztietaco merezimentu cabu eta neurri ba-
guecuac guere pecatuben satisfaccinoraco eta gue-
re redencinoraco; bere zanetaco odol adoragarria-
gaz erosi guinduban beretzat, eta beragaz marcau
guinduban, Servitzari onac eta esquer onecuac le-
guez guere vorondate donguia, ucaturic bere vorondate san-
tubaren azpian beti vizi guindezen: bere eriotziagaz
deseguindu eben guere eriotzia: etara eben Curut-
ze santuco Arboliagaz beste Arbola bategaz Infer-
nuban catigu guelditu zan Guizona, urraque-
tan ebela gure contra emunic eguan condenaci-
noco decretuaren papera; eta quendu eben negar-
garrizco decreto au, Jositiagaz Curutzian: eta
quendu eutsan Diabrubari, Limbuan Munduba-
ren asipenetic arteraño catigu eucan Justo guzti-
ac, etaraten zitubala beragaz andic gloriara Tri-
unfo andian, eta Guizonari Guizonaren bitartez
emuten eutsala seculaco vizitza: onela Jesus Di-
vino onec eguin eben osoro eta betez betecian bere
Aita Jaungoicuac emun eutsan lenengo langueian
aguinquetan eutsan guztia, zeña zan gu Diabru-
baren bendetic etaratia, aurraz eracutsiric izteen
euscula bere Aitaren vorondate santuba eta Ze-
ruraco vidia.

Curutzian bere vizitza emunic ill zan instan-
tetic bere Anima santisima Jaungoicotasunagaz

uniduric Jachi zan Ynfernuetara; eta Limbuan
Mundubaren asipenetic arteraño sartu zirian e
bere etorrera santubari ichadeten egozen Anima
Justo guztiac etara zituban gloriara, esanic itzi
dodan leguez: arindu eusten Purgatorioan egozen
Animai beren penac; eta Condenaubai gueitu eu
ten beren tormentubac, larritu eta izuquetan zitu
la bere Magestade Divinoagaz ascoz gueiago: eta b
re Corputz santuba orobat guelditu zan Taung
cotasunagaz beragaz uniduric; zergatic Taungoi
coaren Semiac bein Guizon eguin ezquero ez dau
iñoiz ere beragandic bota guere naturaleziaren,
edo bere Humanidade santubaren soñecua.

Yll zanetic andic irugarren egunian viztu
zan Yllen artetic ez gueiago illteco, bere escuvide
bacarragaz biurquetan ebela bere Anima santis
ma bere Corputz santuco lengo toquira; baña aren
Divina Magestadiac Yllen artetic viztu zanian ez
eben gura izan deseguindu zitezen, gure pecatu
bac bere oiñ bietan, escu bietan, eta bularrian ide
gui eutsain bost zulo edo Llaga icaragarri aiec;
baizican gura izan eben, ideguiric egon zitezen,
viztu ezquero ere: eta vizturic andic berroguei ga
ren egunian bere Apostolubac beguira egozela Lla
ga santu oneicaz euracaz igo eben bere fin bague
co escubide bacarragaz eta besteren laguntasun ba

que Zerubetara, nun, Creduan autorquetan dogun leguez, dago Jasarriric Aita Jaungoico guztiz poderosoaren alde escumatatic; onegaz aiquetan dogula, Jesu Christo gure Jaunac Zerubetan Jaungoicua dan aldetic daucala Aitiac eta Espiritu Santubac añaco gloria, eta Guizona dan aldetic, beste odozein Bienaventuraduc baño gueiago.

Jesus Divino onec gugatic eriotza artzera Juan aurrian erregutu eutsan bere Aita Jaungoicoari esaten eutsala onela: Aita santuba, gorde eguizu zeure izenian, emun deustazun (Discipulu) oneic; izan ditezen (gugaz) bat, zu eta ni (gauza) bat garian leguez: baña ez deutsut erreguquetan euracatic bacarric, baita ere beren predicacinuaren bitartez nigan sinistuco dauben guztiacatic; guztiac izan ditezen bat, zu Aita nigan, eta ni zugan leguez, eurac ere izan ditezen gugan gauza bat: bere viztzaco beste demporaric ascotan erregutu eutsan Aitari gugatic; eta oraiñ ere Zeruban erreguquetan deutsa bere Aitari, bere erruquia gugana erestiarren; asmo santu onegaz ez zituban deseguindu gura izan bere Oiñ, Escu, eta Bularreco llaga aiec, viztu zanian; baizican deuscun amorioagatic gura izan eben eurac zabalic eta ideguiric zitubala igo Zerubetara bere Aitagana, aien bitartez bere aserria itzunguiric guganaco erruquira bigunquetiarren, eta gu ere llaga

mixagarri aetatic ate zabal batzubetatic leguez
sartu eta irago guindezen Jaungoicoagana bera
gan aco esperanza guztiz vizi eta andi bategaz guer
pecatu guztien parcacinuaren esque eta guere A
men salvacinuaren billa: San Juan Evangelista e
Apostolubac berac eracusten deuscu esan dodan
~ egui santu au; bada esaten dau onela: pecatu
~ eguin badogu, daucagu Aitagan Abogaduba Je
~ su Christo Justuba; eta bera da bitartecua guere
~ pecatuben parcacinoraco: onela bada guere Jesus
maitagarriac Munduban vizi zanian eguin ebe
eta orain Zeruban eguiten dau gure Abogadu eta
Defensoriaren oficioa zeña dan bere Aita Jaung
cuac emun eutsan bigarren langueia.
Zerura (esanic itzi dodan leguez) igoric aren Divi
na Magestadia, eta Limbuan catigu egozen Anima
Justo guztiac bere glorian triunfo andian sarturic,
dic amargarren egunian alcarrequin egozela Eche
batian Apostolu santu guztiac, bialdu eusten Esp
ritu Santuba, Zerura igo baño lenago autorturi
itzi eusten leguez; eta Espiritu Divino onec izio zitu
ban Apostoluben biotzac Jaungoicoaganaco, eta J
ungoicoagatic Lagun Progimo guztiacanaco amori
aren su gar gozoagaz; eracutsi eusten beren bate
neque bague eta instante batian Mundu onetaco izq
ta mueta guztiac; eta bere gracia santubagaz eguin
zituban Mundu onetaco tentacino mueta guztiac b

ño indartsubaguac pecatu mortalian jausico ez zirian moduban.

Jesu Christo gure Jaunac emunic onela guere Redencinoco obra miragarrizcuari bere azquenengo escuba eta bere Esposa Eliza Santari bere edertasuna, eguingo dau bere demporan gure Juez bardiña izateco bere Aita Jaungoicoagandic arturic daucan irugarren langueia.

Gu redimitara lenengo etorri zanian aguertu zan Aur bat eguinic guganaco biguntasunez erruquiz eta amorioz betexi eta Mundutar madaricatubac, beraganaco ecusi ezinez eta gorrotoz ichuturic, izan zirian bere Juez guztiz oquerrac, gurago eubela aiñ ona, onguilia, eguiazcua, eta mirari eguilia zan Jesus Divino au Curutzian eseguiric ecustia, Machino eta eriotza guilla zan Barrabas baño; argatic bada eta beste errazue justo ascogatic eguingo dau (Creduan esaten dan leguez) bere bigarren etorrera gloria, Magestade eta autoridade guztizcuagaz Mundubaren azquenian, viziac eta illac juzgaitara lenaz Zeruban eta Mundutar guztien aurrian zabalquetan dabela Curutze santubaren señalia; eta emungo deutsa bacoitzari emen vizi zanian irabazi ebensaria bardintasun guztizcuagaz; gure pensamenturic ezcutubena aguirian egongo da, ez dau itzico verba alper bategaz, ez da ere egarri danari ur otz pisquin bat emunagaz bere izen santuban, bacoitzac

irabazi daben saria emun bagaric: orduban izan
go da ezagutuba gure Jauna zein bardiña eta just
badan bere juizioetan, David Erregue eta Profeta sa
tubac aiquetara emuten deuscun leguez.

Juicio mueta bi dira Guizonac bere gañian ec
si biarco ditubanac: bata particularra bat illtend
necua; emen erabaguiten dau aren Divina Mages
tadiac bacoitzaren toquia eternidade guztiraco:
edo illten da bat pecatu originalagaz bacarric, eta
onen Animia izango da gloria eta pena baguecua
bere toquia izango da, Limbua esaten deutsaguna,
baña ez Limbo ura, zeña aiquetan dogun Abranen S
nubaren izenagaz, nora jachi ziran Mundubaren
asipenetic Jesu Christo Curutzian ill arteraño bate
re pecatu eta pecatubaren batere zor temporal ba
gue ill ziranen Anima justo guztiac, baizican be
te Limbo mueta bat, nora duazenac ez daube izan
eternidade guztian ez penaric eta ez gloriaric.

Yllten bada bat, uso errazoazcora ezquere be
ezagupera eta vorondate osoagaz eguin daben p
catu mortalen bategaz, onen Animia dua eternida
de guztiraco Infernuco suzco Leze icaragarri aieta
ra: azquenic illten bada bat Jaungoicoaren gracia
pecatu mortal bagaric, onen Animia bardin guz
garbia badago batere pecatu venial bague eta pec
tu mortal parcatubacatic Jaungoicoaganaco bate
zor temporal bague, zuzenian dua Zeruco glori
ra; baña ez badago guztiz garbia, lenago dua Pu

gatoriora, emen edo berez edo Munduban vizi diri-
anen obra onen laguntasunez guztiz garbituric igo
dedin emendic Zerura.

Bigarren Juicioa da generala, Mundubaren
azquenian, Mundutar (au da) Munduban bere asi-
penetic bere azqueneraño sortu izan dirian Guizon eta
Emacume, eta Zeruco Aingueru donga guztien gañian eta
guztioen aurrian guertatuco dana: emen vizi garia-
noc ezin jaquindaiquegu Juicio particularrian ba-
coitzac zer sari daroian edo zer toquitara doian; ba-
ña Juizio generalian, nola guertatuco dan guztien aur-
rian, guztien sariac eta toquiac jaquingo ditugu.

Juicio general onetara guztioc aguertu biarco
gara Munduban izan ditugun Corputz eta Anima-
caz euracaz, Jaungoicuac onetaraco aurraz viztzen
gaitubala; bai, nire Aisquidia: San Pablo Apostolu-
bac esaten deuscu: guztioc egongo gara Jesu Chris-
toren Tribunaliaren aurrian: ez da ez iñor guelditu-
co Tribunale santu onetatic irago bagaric: Ho! zeiñ
egun ederra eta poz andicua izango dan Juizioco
egun au Jaungoicoaren Aisquidentzat Zeruco Ain-
gueru on eta leialetatic asi eta beren Jarralla Mun-
dutar on guztientzat! eta zein izugarria Jaungoi-
coaren Etsaientzat Zeruco Aingueru donga beren
soverviaco gaiztaqueriac Zerutic botazitubanetatic
asi eta beren Jarralla Mundutar madaricatu guz-
tientzat!

Juicio general onetatic aurrera Corputz et
Anima eruango dogu eternidade guztiraco, An
mac bacarric arteraño eruan euben, Jaungoicoa
gandic Juicio particularrian arturicaco, ia salva
noco, edo ia condenacinoco sari eternua: egun oneta
tic aurrera ez da ere izango Purgatorioaren pre
minaric, Limbuaren preminaric izan ez dan legu
Jesus maitiac toqui santu onetatic Anima justu
guztiac bere gloriara etara zitubanetic ona.

Juicio general au, eguiaz guertatuco bada
ere, iñorc ez daqui, noiz izango dan; emungod
tu, bai, leenaz señaleric asco; oneitatic aurrene
guac edo nagusienac izango dira iru: lenengoa
catuba gueiquetia, eta Caridadia ascoren biotzeta
otziquetia: bigarrena Eliza Santaren Ministroac
predicaitia lenaz Evangelio santuba Mundu guztia
irugarrena Ante=Christoaren etorrera.

Lenengo señalia, zeña dan pecatuba gueiquetia
eta Caridadia otziquetia, guertaquetan danian, F
de santuba eta Esperanza ere guichitubagaz Juang
dira; zergatic pecatubaren ugaritasunac, eta Cari
dadiaren guichitasunac ondoren dacarde eta eu
caz Fede santubaren eta Esperanza eguiazcuaren
argaltasuna

Oneic onela driala, egui Fede santucua da, Jes
Christoren Esposa eta gure Ama Eliza Santa Ca
lica Apostolica Erromacuac iraungo dabela erri
Lurraren gañian Mundubaren azqueneraño; eta a

Mundubac dirauban bitarte guztian vizico dira
bere gañian Santubac eta Christaun eguiazcuac, ze-
ñac izango dira guztiz gorrotatubac; bada pecatu-
ba gueitubagaz, eta Fedia Esperanza eta Carida-
dia guichitubagaz duazen eran, Pecatari madarica-
tubac biotz guztitic eguingo daube aleguiña onianezin
badaube gaitzian, aaztu eraguiteco Lurraren gañi-
an Jaungoicoaren ezagupera eguiazcua eta Jesus
Divinoaren izen utsa bera, Jesus Divino onec bero-
nec esaten deuscun leguez bere Evangelio santuban:
ifinico zaitube (diño) leenago Juezen escubetan zeu-
ben Gurasuac, zeuben Senide, Aide eta Adisquidiac;
eta illgo zaitube; eta guztiac izango deutsube gorro-
to nire izenagatic; baña (nire contura) zeuben buru-
tic ez da galduco ule guizi bat.

Christaun eguiazcuac Dongueen aldetic bereen
gañian ecusi biarco dituben gaitz izugarri oneinon-
doren izango dira guerrac, Machinadac, Izurriac,
eta gosiac: onein ondoren ecusico dira ecusgarri izu-
garriac Eguzquian, Idarguian, Izarretan; eta Zeru-
bac eurac ere icaratuco dira; eta oneic guertatu ezque-
ro, gañian eta ondoren dira Mundubaren acabae-
ra edo azquena, Illac viztzeia, eta Jesu Christo gure
Jaunaren bigarren etorrera bere Juizio generala egui-
tera: dempora oneic ain guztiz izugarriac izango dira
zeinda Jaungoicuac Christaun justo eta eguiazcuai
izango deusten amorioagatic eta condenau ez ditezen

laburtuco ditu: onela guertatuco da, acabaitia batera Mundu au, eta Mundu onen gañeco Eliza Ama Santa Catolica, edo (obeto esatiarren) batera izango dira Mundubaren azquena, eta Eliza Ama Santaren aldaeria Mundutic Zerubetara.

Bigarren señalia, zeña dan Evangelio santubaren predicacinua Mundu guztian, guertatuco ere da Jesus Divinoaren bigarren etorrera santu onetaraco, eta au guertatu ezquero ondoren izango da Mundubaren azquena, bere Evangelio santuban aiquetara emuten deuscun leguez; diño bada: (nire) Erreinuco Evangelio au predicauco da Mundu guztian testimonioraco Jente mueta guztientzat (da esatia) autorquetaco Jente mueta guztiai Evangelioaren egui santuba: eta orduban izango da acabaera: baita ere Jesus Divinoa Mundura lenengo etorri aurrian San Juan Bautista gloriosua aguertu zan leguez, penitencia predicaitara eta guere Redentoriaren lenengo etorrera santuba aurraz aiquetara emutera, orobat ere bere bigarren etorrera santu onen aurrian etorrico dira guere biotzac guertaquetara bigarren etorrera santu onetaraco, pecatuben gañeco damutasun eguiazcobaten bitartez Enoc eta Elias Profeta.

Ante=Christuaren etorreriaren gañian, zeña izango dan Juizio generalaren irugarren aurrenengo señalia, San Pablo Apostolubac arguitasun guztizcuaga aiquetara emuten deuscu, ez gariala larritu biar, sinisturic, urrian eta guere gañian dala ia Juizioco

egun au; bada Apostolu santu onec diñuanez, lee-
nago eta egun onen urrian ecusi biarco dogu Fede
santubaren guichitasuna, Christaunac beren Ama
dan Eliza Santagandic igues equitia, eta Christaun
eguiazcuac leguez azqueneraño iraun gura dau-
benai persecucinua emutia; eta onein ondoren etor-
rico da Mundura Ante=Christoa Guizonic aldite-
quian madaricatubena; onen vizitza alde guztieta-
tic eta betez betezian izango da Diabrubac gura da-
ben leguezcua; izango da pecatubaren Guizona eta
condenacinoco Semia; ucatuco ditu Fede santuco mis-
terio guztiac, Jaungoicoa bera, eta Jaungoicoaren
izen utsa guezurrez daucain Idolo mueta guztiac;
eta azquenic esango dau bera dala Jaungoicua, eta
eguingo dau aleguin guztia, Mundutarrac ezagutu
daguien bera bacarric Jaungoicotzat, eguiten ditubala
onetaraco guezurrezco mirari guztiz andiac, eta
bere gaiztaqueria mueta guztiacaz engañaitan ditu-
bala Infernura duazen guztiac, zergatic beren salvaci-
noraco premina euben Egui santubari beren biotzetan
batere amorioric euqui ez eutsain: oneic ecusi ezque-
ro urrian da Juicioco eguna.

Guizon madaricatu onec ezin eguingo dau gura da-
ben guztiric bere mirari guezurrezcuacaz, batez ere Chris-
taun eguiazcuen biotzetan, zergatic Jesus Divinuac
onei deusten amorioagatic laburtuco deutsa bere egunac
vizitza quendubagaz; eta gueien salduco ditu bere

guezurrac egui anditzat beren vizitza otz eta nas
agaz artaraco guertaturic dagozen Mundutarren bi
zetan; eta ala izango ditu Tarralla guztiz asco; bañ
Jesus Divinuac demporaz ifinten gaitu contuban be
Evangelio santuban, beren guezurrezco lazuetan ja
~si ez gaitian: beguira (diño) iñorc engañau ez zaien;
~gatic asco etorrico dira nire izenian, esaten daubela
~Christo naiz: eta ascori sinistu eraguingo deuste: or
~ban iñorc esango baleutsube: ona emen Christo, edo a
~an: ez eguizube sinistu: esango baleutsube bada: ar
~nun daguan Christo desiertuban: ez eguizube urten
~(ecustera): ara onelaco Eche edo alaco Toquitan: ez egu
~zube sinistu.

Eguia bada ere, etorrico dala Juizio generalec
egun andi au, emuten ditubala aurraz esan ditudan
señaliac, Jesus Divinuac eracusten deuscu bere Evan
~gelioan, Jaungoicoagaz ostian iñorc bestec ez daqui
~la, noiz izango dan: guichi ere conturatuco dira aur
emungo dituban señaliacaz; bada esaten deuscu bere
~Evangelio santuban onela: Noenen egunetan guertat
~zan leguez, orobat izango da Guizonaren Semiaren e
~reria; zergatic Diluvioaren aurreco egunetan Gentia
~vizi zirian leguez, Jaaten, eta edaaten, ezconquetan, e
~ezcontzeetara emuten beren Ymiac, Noe Arcaan sar
~zan egun artaraño; eta, conturatu ez zirian (~~ez zirian~~)
~guez, guztiac acabau zituban, Diluvioa beren gañia
~etorteraño; orobat ere izango da Guizonaren Semiar

etorreria: orobat diño: Sodomaco eta Gomorraco Genti-
ac Zerutico subac beinguan deseguindu arteraño ar-
dura bagaric Jaaten eta edaaten euben; saldu erosiac
eguiten zituben; Arbolac ifinten zituben eta Eche bar-
riac eguiten zituben; eta beren gañian beinguan etorri
zan galdu biarra; orobat vizico dira Gentiac quezca
bagaric Juicio general onen aurrian.

Jesus Divinuac onela eracutsiric Apostoluben Bu-
ru San Pedro gloriosuac esaten deuscu: Jaunaren eguna
etorrico da Lapurraren antzera: beste aimbeste bere
Lagun San Pablo Apostolubac: Jaunaren eguna (diño)
Lapurra gabian leguez orobat etorrico da; zergatic
(Mundutarrac) esan daienian: oraiñ daucagu baquia
eta seguridadia: orduban etorrico da beren gañera us-
tez uste bagueco eriotza, seinguintzaco minac artu
oi dauben leguez Emacumia: eta ezin iguesic eguungo
daube eriotza onetatic

Emetic arguitasun guztizcuagaz ezaguquetan
dogu zein Atso ipuiñ eta guezur andiac dirian Jui-
cioco egunaren aurreco demporacatic esan oi diria-
nac Jente ez Jaquindunen artian; nola dirian: Lurrac
ez dabela emungo Bedarric Ganauben alimenturaco;
ezta ere Soruac fruturic Guizonen sustenturaco: Ema-
cumiac ez ditubela Aurric eguingo, eta onein antzeco
beste milla guezur

Mundu onec, nire Aisquidia, orain emuten di-
tuban frutu eta gira mueta guztiac, orduban ere

emungo ditu; bacarric bada esan dirian iru señal
aurrengoagazaz gañera ecusico dira guerrac, ma
chinadac, gosiac, izurriac, Lur icara andiac, baña
ez beinguan eta batera Mundu guztian, eta bai, Evan
gelio santubac diñuan leguez, Partidetan (au da) b
in batian eta bein bestian; baña Lurrac bere frutu
emungo ditu ia guichiago ia gueiago, oraiñ aña em
ezagatic; eta zegaz vizi daucainaceta zabal vizi di
an Jaungoicoaren bildur guichicuac gaurco eguni
an naibaguetasun onelacuacatic batere gogoraqu
tan ez dirian leguez Juicioco egunagaz, orobat ere or
duban, ecusiric, naibaguetasun mueta oneic leena
go ere sarritan Munduban guertatu diriala: izarra
Idarguiac eta Eguzquiac aguerquetan ditubenian b
ren arpegui izugarriac, orduban ere Munduco Jaqu
tsubac esango daube, leenagoco demporetan noizba
ten ecusi izan dala beste aimbeste, eta asico dira b
ren garoiñac urtzeen ezagutu guraric eta aiquetar
emun guraric Mundutar guztiai, zertatic sortzeen
rian eta sortu alditezquian mirari onerianac, Ju
zioco egunari garagarra Jaaten dagozen ascaco Ma
duac baño gueiago beguiratu bagaric, eta iñorc artze
badau aotan Juizioco eguna barre eguiten deutsaila b
rutic Jausiric daguan bateri leguez; eta onela Mundu
baren azquenac eta Juizioco egun andi onec ustez uste
bagaric eta beinguan artuco ditube azpian Munduta
rac, Lapurrac gabaz Echeetan sarturic artzeen ditu

leguez ¢heetacuac, andura bazquic lotan dagozen bi-
tartian; baña, oneic onela diziala, Jaungoicoaren bildur
santuban vizi dirian, Christauu onac eta equiazcuac, eu-
sirric, aiñ neguarri eta izuçarri andico gauza oneic ba-
ta bestiaren ondoren datozela, igarrico deutsai, ez daqu-
ala urrin Juizio generalaren egun andi eta gloriozo au:
Ita! nive Aisquidia; eta zeiñ egun izuçarriac izan biarco
dauben, Munduguztiaren azquena, eta, Jaungoicoac Pecu-
tarientzat eternidade guztiraco ezcutauric daucan, gau
izuçarria urretic aiquetara emungo deuscuben, egun one-
ic! osasun sendoco Persona bat gaitzez ill biarrac artzen
daberian, ecusten dozu, zeiñ arpegui edezra eucan osasuni-
an, eta zeiñ arpegui izuçarria emuten deutsan gaitzac ill
aurrian, baita ere oneteraco bier bitartian zembat egun, eta
gau, eta ondu estubac eta zatetrac Gaiso ac iziago oi dituban;
emendic igarri daiquezu, Aisquidia, esateco modura, zeiñ
arpegui exacutrico deuscun bere azquen aurrian, oraiñ ain
ichuturic gaucan, Mundu onec, baita ere nolacuac izan bi-
arco ete dauben, Mundu oni bere azquena gaitzez emun bi-
arco deutsain, aurretico urtiac, eguiac, eta gabac: bai; Jesus
Divinoac bere Evangelio santuban erabaquiten deuscu, izan-
go diziala, Guizonac Mundubar benenpotic arteraño beret-
zat ezaguitu dituban, demporaric izuçarrienac.

Juizio generalaren aurretico dempora oneic aitaque-
tan dizianian, Aisquidia, esan oi da: Ita! gure eguneta
beinic beiñ ez dira guertatuco: oraobat bada esango dauba
bere eguneta, dempora izuçarri oneic bereentzat ecusteco,
Mundura etorriac dizian Christauuac; eta ala ez daquiqu
eguiaz, gu ete gaudan edo ez, gure eguneta dempora izu-
çarri oneic ecusi biarco dituguruac, ala Jaungoicoac eta dau-
can ezcutauric dempora oneic gure ondorengoentzat: onela ai-
quetara eminic, Aisquidia, Jesus Divinoaren izu languc aur-
renengoac, guzien oraiñ, Jarraiquetara Religino santubaren
gañeco sallari.

Espiritu Santubac bada, (esanic gueldidu dau leguez) in-
dautu zituban ian Apostolu santuben biotzac Jesu Christoren
doctrinan eta Leguian, berialatic Apostolu santu oneic za-
baldu zirian Mundubar bacoitza bere aldetic, eta erein eu-
ben Mundu guztian beren predicazino, viritza, eta mizaria-
caz Jesus Divinoaren doctrina eta Leguc santu au, Fede
santubaren autormenagatic Martiri illten ziniala San Juan
Evangelistagaz ostiango beste guztiac.

Apostolu glorioso oneic itzi zituben Mundubar beren
ondorengo Sucesorentzat Obispo Taunac eta Sazerdotiac;
baña nola aien artian San Pedro zan guztien Aquintari,
eta Buru, oraobat San Pedro ill zaretic ona eta emendic
Mundubaren azquenerañ Evromaco Obispo Tauna izan
da, da, eta izango ere da, bacoitza bere demporan, San Pedro-

ren ondorengo ordecua, Obispo guztien Aguintaria,
edo Buruba, Aita Santu Erromacua esaten deut
saguna, Jesu Christoren Vicarioa emen Lurraren
gañian, eta, Eliza Ama Santa guztiaren Buruba
dan aldetic, Eracustzalla eguiazcoa, zeñac pecataria ba
da ere beste Christaun guztiac leguez, ezin utsic eguin
daique, Eliza Santaren Buruba dan aldetic, erabagui
ten deuscun, Jaungoicoaren doctrinan eta Leguian; zergaitic Jesus Di
vinoac berac dauca autorturic bere Evangelio santu
ban San Pedrori, eta onen ondorengo Ordeco guztiai, ba
coitzari bere demporan, Espiritu Santubaren laguntasuna eta arguitasuna, utsic eguin ez daguian, onela era
baguiten deuscun guztian, guc, salvaitaco, sinistu biar
dogun, doctrina, eta, gorde biar dogun, Leguia: badaqui
Aisquidia, Aita Santu Erromacoaren gañeco egui au (au
da) ezin utsic eguin daiquiala, erabaguiten deusun, Doctri
nan eta Leguian, ez dala oraiñguiño Eliza Santan eraba
gui Fede santuco eguitzat; eta ala baditu egui santu onec
Christaun Catolicotzat dagozenen artian, bere Etsaiac; ba
ña berentzat Etsai onein siniste guezurrezcoa; zergati
Eliza Santan dempora guztietan eta Nazino mueta gu
tietaco Eracustzalla guztiz ascoc eta pisuric andieneco
ac eracusten deuscube Aita Santu Erromacuaren gañec
egui au Fede santuco eguitzat, eta bere Etsaiac Eregetzat; ez eguiezu bada sinistu Etsai onei; igues eguizu, ba
euracandic zeure vizi guztian eta biotzetic, gura ez ba
dozu, Fede santuba ucaquetara etorri, eta ondoren Infer
nura Juatia: onetaraco, salvaitaco, sinistu biar dituzun, Fed
santuco eguien gañian, eta, gorde biar dituzun, Leguien gañ
an vizi zaite ichu ichuban eseguiric beti eta errime, Jesus
maitiaren Vicarioa, eta Christaun Catolico guztien Animeta
co Arzaina, dan Aita Santu Erromacuagandic; onela eguin
euben San Geronimo Elizaco Doctore jaquintsubac eta Zeru
co Santu eta Santac, emen vizi zirianian, biotzetic sinisque
tan eubela, eracutsi deutsudan, egui au.

San Pedro gloriosoa Jesus Divinoaren aguinduz Juan za
Erromaco Ziudadera; emen guelditu zan vizitzaz, Jesus mai
tiaren Evangelioa Jentil aiei eracusten, eta emen bertan irago
eben Curutzeco Martirioa Fede santubaren autormenagatic;
eta emendic dator, izatia Erromaco Obispoa (nornai dala)
bacoitza bere demporan, San Pedroren Ordecua, Obispo gu
tien, eta Eliza Ama Santaren Buruba, eta Jesu Christoren Vi
carioa emen Lurraren gañian, zeñari Christaun guztioc
ecarri biar deutsagu obedienzia, salvauco bagara; bad
oni obedienzia ucaquetia da, Jesus Divinoari berari ucaquetia

Apostolu santubac Mundu guztian erein eta za-
baldu ezquero Jesus beren Maiṡu eta Redentoria-
ganaco sinistia, bere doctrina eta legue santu grazi-
azcua, biotz leial eta errimiagaz doctrina eta legue san-
tu au sinistu eta gorde euben, guztiac salvau zirian; eta
oneicandic gugana Jesus Divinuaren doctrina eta legue
santuba herenziaz leguez jaachi eta irago izandira, be-
rac bere Esposa eta gure Ama Eliza Santan ifini izan
dituban bere Apostoluben Ordeco leialen bitartez, no-
la dirian Aita Santu Erromacuaren bendian vizi izan diri-
an Obispo Jaunac eta Sacerdotiac: eta orduban, orain,
eta Mundu onen azqueneraño doctrina eta legue santu
au beti errimiac izan dira, errimiac dira, eta errimiac
izango, dira; eta doctrina eta legue santu au daucai-
nac eta autorquetan dauben, guztiac eta ez bestec equi-
ten daube emen lurraren gañian, Jesu Christoren Espo-
sa eta gure Ama dan, Eliza santa, catholica, Apasto-
lica, Erromacua.

Apostolubac itzi bazituben ere Mundu onetan
beren Sucesoretzat Obispo Jaunac eta Sacerdotiac
ez equizu orregatic uste, Obispuac eta Sacerdotiac
Eliza Santan diriala escuvide batecuac, ez da ere
Obispuac izanagatic, daucaila Apostolubac leguez
pecatu mortalian ez jausteco Espiritu Santubaren al-
detico graciaren sendatasunic, eta, aec izan zituben,
due beste personalic asco.

Obispo Jaunac bacoitza bere Obispauban dira

betez betezian Apostoluben Suzesoriac, Eliza Santa gobernaitaco, premina dauben, escuvide guztietan eguia da; ezin balia ditezque beren escuvidiacaz, Eliza Ama Santac bere gobiernu onexaco ifiniric dauca Leguiacaz gañera, baizican eurac aguinquetan oleus ten leguez: Obispuac Aita Santu Erromacuagaz batera daucai Eliza Santaren Junta edo Concilioetan escuvidia, erabaguiteco gure Fede santuco gauzac, eta, Chris tauin guztiac gorde biar dituben, Leguiac ifinteco: Obispuac daucai escuvidia emuteco Sacramentu santu Ordenacua, Eliza Santaco Ministro izan biar dauben guztiai, baita ere Sacramentu santu Confirmacinoa cua Christauin Fiel guztiai; eta eguiteco Eliza santan, Consagracinoa eta Bedeincazino mueta batzubec esca guetan dituben, funcino santubac: onetan guztian dira Obispo Jaunac Apostoluben Sucesoriac, baña ez eurac Espiritu Santubagandic izan zituben beste Due per sonalic ascotan.

Sacerdotiac barriz dira Apostoluben Sucesoriac labuztasun gueiagogaz; bada Obispuac, eguiteco, esan ditudan, gauzac daucain, escuvideric ez daucai Sacer dotiac; eta Eliza Santaren gobiernuban ere ez dauca escuvide gueiago, beren Obispo Jaunac, Eliza Santaco Leguiac aguinquetan dauben modubau, emuten de ustena baño: aiquetara emun deutsut, nire Aitzquidia nola dixian Obispuen eta Sacerdotien arteco diferencia oneic, gure Religino santubac batez ere negarrezco de poxa oneitan daucan, Etsaiacatic, oneic ezagutu daguzu

erraz; eta, ezaguturic, euracandic igues eguin daguizun.

Eliza Santa, Catolica, Apostolica, Erromacua.

Capitulu onetan iracurtendozun guztian, nire Aisquidia, Eliza Santaren izena, ez dozu aitu biar Parroquia, Conventu, eta Ermitetaco Elizaric, baizican, Apostolubac eracutsi euscuben, eta Credoan sinisquetan, eta autorquetan dogun, Eliza, zeña dan beste gauzaric.

Eliza Santaren izen onec bere zabaltasun guztian aiquetara emuten deuscu ez bacarric, emen Lurraren gañian Corput eta Anima vizi garianoc eguiten dogun, Eliza, baita ere, Mundu onetaco vizitzatic Jaungoicoaren aisquidetasunian urten dauben, Anima onac eguiten dituben, Elizac ala Purgatorioan, nola Zeruban; bada Mundu au, Purgatorioa, eta Zeruba dira iru Foquiac, zeñetan daguan zabalduric Eliza Santa au; eta iru Foqui oneitaco Elizac eguiten daube Eliza Santaren Corputz bacar bat: lenengo Foquian (au da) emen Lurraren gañian vizi gara guztioc Corputz eta Anima, baita ere, Eliza Santaren Miembroac izanagatic, onac dongacaz nasturic; beste bietan barriz (au da) Purgatorioan eta Zeruban onac bacarric aurquiquetan dira, eta ez dago donguendaco lecuric, eta, Illac berendemporan piztubac izan arteraño, Animac bacarric batere Corputz bagaric.

Emen Lurraren gañian vizi dan Eliza Santari esaten deutsagu, guerran dabillen, Eliza; bada eguiaz beti vizi da, urraturic baquia, bere iru Etsai indartsubac dirian, Diabrubagaz, Mundubagaz, eta Araguiagaz, eta dabill, nundic azpiratu aldaiquian iru Etsai oneic, anchiquetiarren bere victoriaren Coroatzat Zeruco betico vizitza zorionecua.

Purgatorioco Eliza Santa da, Purgatorioco sutan guztiz garbitubac izan arteraño, dagozen Anima bedeincatuben Eliza, emendic guztiz garbituric eta ederturic igo daguien Zerura; bada Mundu onetatic urten beuben ere Anima oneic, beren iru Etsaiac azpiraturic eta Jaungoicoaren aisquidetasunian, orregaz guztiagaz guelditu zirian zor tem-

poralen batzuben azpian Jaungoicoaren Juztizia zorrotz eta bardiñaren aurrian.

Zeruco Eliza Santa da, emen beren Etsaiac azpiratu zitubelaco, betico saritzat Zerubetan Trinidade Santisimoaren arpeguia, eta bere gloria miragarrizcoa ecusten dagozen, Anima zorionecuen Eliza; bada emen Corput eta Anima vizi ziranian, beren obra onacaz eta Jaungoicoaren laguntasunagaz batera azpiratu zituben beren iru Etsaiac, eta urten euben Anima oneic Mundu onetatic batere zor temporal bagaric, edo, onegaz urten beuben, Purgatorioco sutan aurraz guztiz zurituric, igo euben Zerubetara, nun Jaungoicoac saritzat emuten deusten oraiñ betico Gloriaren coroa, Jesus bere Seme Divino ac Corputz eta Anima gloriaz Jantziric daucanagaz batera, guztien Buru dala Jesus maitia bera, zeñaren neurri bagueco merezimentuben bitartez anchitu dau Eliza Santa onec bere triunfoaren zoragarrizco Coroa au.

Oneic onela diriala, Eliza Santa Catolica Apostolica Erromacuaren izenagaz, Aisquidia, beti eta bacarric aiquetan dogu, oraingo Legue graziazcoan emen Lurraren gañian, esan ditudan, iru Etsaicaz guerran vizi dan, eta dabillen, Eliza; eta ala nic ere Capitulu onetan guztian Elizaren izenagaz aiquetara emungo deutsut bacarric, emen Lurraren gañian Mundubaren asipenetic ona guerran vizi izan dan, oraiñ vizi dan, eta emendic Mundubaren azqueneraño vizico dan, Eliza Santa au, Mundubaren asipenetic ona Eliza Santac izan dituban, iru Legue muetac, bacoitza banaan, aitaquetan deutsudanian: orobat esaten dan guztian: Eliza Santaren ustia: iritzia: aguinduba: sinistia: eracustia: Mandamentubac: Legueac: Sacramentubac: eta onein antzeco beste gauzaric asco Eliza Santagatic esaten dogunian, Elizaren izen onegaz aiquetan dogu, emen Lurraren gañian vizi izan dana, eta demporetan vizi dan, Eliza Santa au.

Eliza Santa onec bada euqui eben bere asipena gu

re lenengo Guraso Adanegan eta Evagan eta beren Fami-
liaco Seme Alabetan; emen ecusten dogu Abel Justuba,
Cain bere Anae Abel onaren Eriotzaguillia, Adan berabe-
re pecatubaren gañian eguiaz damuturic eta Jaungoico-
agana biurturic: Eliza Santa onec andic ona beti iraun
izan dau Lurraren gañian, eta iraungo ere dau Mundu-
baren azquenerañо

Guizonac pecatubaren videz bere lenengo zorioneco
edertasuna galdu ezquero, Eliza Santac bere asipenetic
~ ona ezagutu izan ditu beretzat iru Legue mueta, bacoit-
~ za bere demporan: lenengoa da Legue naturala esaten de-
~ utsaguna: bigarrena da Legue escribiduba esaten deut-
saguna (au da) Judeguben Legue zarra, bere demporan
ona eta santuba, baña Jesus Divinoaren eriotziagaz guz-
~ tiz deseguindu zana: eta irugarrena eta azquenengoa
~ da Legue graziazcoa esaten deutsaguna (au da) Jesus Di-
vinoac bere vizitzan emun euscuna, eta bere eriotza santu-
bagaz guztiz erabaguiric itzi euscuna, Munduba Mundu
dan, bitarte guztiraco.

Eliza Santac lenengo ezagutu eben Leguia beretzat,
izan zan Legue naturala; Legue au da, Guizonagaz
batera sortzen eta jaioten dana, eta Guizonari bere erra-
~ zoiaren arguitasunacberac eracusten deutsana; nola
~ dan: zeuretzat gura ez dozun gauzaric besterentzat
~ ere ez gura izatia: zeuretzat gura dozun gauza beste-
~ ri ere opa izatia; besteri vizitza ez quentzia: besteri be-
~ re gauzaric ez quentzeia: Jaungoico gure Jauna amai-
~ tia: guizurric ez esatia: Gurasuac onraitia: eta azquenic
~ Jaungoicoaren Legueco amar Mandamentubac aguin-
~ quetan dauben, guztia; argatic ere esaten deustegu
amar Mandamentu santu onei Legue naturaleco
Mandamentubac.

Legue natural onen azpian vizi izan zan Eliza
Santa bi milla eta gueiagoco urtetan; bada Legue
naturaleco lenengo estadu onec iraun eben Abran Patri-
arca santubaren Jatorrietan Moises Profeta santu-

baren demporaraño; eta, Jaungoicoaren ezagupera eguiazcoa eta Legue santuba eucain, beste Nazino batzubetan iraun eben, gure Redentore Jesu Christoren Leguea eta beraganaco sinistia Apostolubac Munduban zabaldu arteraño.

Legue naturaleco lenengo estadu onetan ez eguan Fede santuco Misterioen eta Jaungoicoaren Legue eguiazcoaren gañeco batere Libururic; bacarric bada, norberari bere Errazoiaren arguitasunac aiquetara emuten eutsanagaz gañera, Jaungoicoac berac eracusten eusten bere Jarrallai Fede santuco Misterioac eta bere vorondateco Legue santuba, batzubetan bere Aingueruben bitartez, beste batzubetan Familietaco Buru Patriarca santuben bitartez, eta beste batzubetan, bialquetan zituban, Profeta santuben bitartez; eta Jaungicoac onela bialquetan eusten Eracustzallacandic icasiric Familietaco Gurasuac eracusten eusten beren Berdecoai Guizalditic Guizaldira aren Divina Magestadiaren Legue santuba, eta beraganaco siniste eguiazcoa, gaurco egunian, iracurten ez daquien, Familietaco Gurasoac beren Familietacuai eracusten deusten leguez.

Onela eracusten eusten, Jaungoicoac berac, oraiñ eta beti lagunquetan deuscun leguez, orduban ere lagunquetan eusten bere grazia santubaren arguitasunagaz eta indarragaz, salvaitaco premiña zituben, Fede santuco Misterioac sinisquetaco, eta, gorde biar euben, Legue santuba gordetaco: eta onela Eliza Santaco Miembroac Guizon eta Emaçume bere lenengo estadu onetan gordetan zituben ez bacarric Legue naturaleco amar Mandamentubac, baita ere, guere errazoiaren arguitasunagaz gañera, eta gueren Animetaco indarracaz gañera dirian, Mandamentu sobrenaturalac, nola zirian, Fediaren, Esperanzaren, Caridadiaren eta Religino santubaren Virtutiac aguinquetan eusten, Mandamentubac; eta vizi zirian beti, Jaungoicoac gueroco demporetaraco esquinten eusten, Salvatzallia-

ganaco sinistian eta esperanzan: bazituban Eliza Santac dempora onetan ere Sazerdotiac, Jaungoicoari esquinten eutsainac, bere adorazino eguiazcoraco escaquetan zituban, Sacrifizio santubac; baña Sacrifizio santu oneic gueien bat zirian, ordutic aiquetan emuten eustenac, ichadeten egozen, beren Salvatzalle Jesus Divinoac gueroco demporetan bere Aita Jaungoicoari esquinico eutsan, Sacrifizioa ala Curutze santucoa, nola Mezasantucoa: bazituban ere bere Sacramentu muetac pecatuben parcazinoraco. Eliza Santac beretzat ezagutu eben bigarren Legue mueta izan zan Legue escribiduba esaten deutsaguna: onec ere iraun eben Abran Patriarca santubaren Jatorrien artian, edo (orobat dana) Judeguben artian milla eta gueiagoco urtetan; bada euqui eben bere asipena Moises Profeta santubaren demporan, eta bere azquena Jesus Divinoaren eriotzan.

Moises Profeta santu au izan zan bere egunetan Jaungoicoaren Aisquide guztiz andia; eta aren Divina Magestadiaren aguinduz etara zituban Abran Patriarca santubaren Jatorriac, eurac catigu eta gogorquiro Egipton eucan, Erregue Faraonen bendetic, eta santu zituban Promisioco Lurrian, eguiten zitubala onetaraco mirari asco eta andiac.

Guizonari bada bere demporetan, salvazinoraco premiña daben, Animaco sustentuba ondo emuten daquian, Jaungoicoac ifini eraguin eutsan Profeta santu oni Liburu sagraduban, Zeruba eta Lurra eta oneitaco gauzac bere gura izanagaz bacarric eguin zitubanetic asi eta bere egunetaraño Guizalditic Guizaldira Eliza Santan guertatu zirian, gauzaric aguirien eta aurrenengo guztien errazue bat; baita ere ifini eraguin eutsan Liburu sagraduban, bere Jentiac Egiptoco Erregue Faraonen bendetic urtenic andic aurrera gorde eguien, gura zituban, Mandamentu santu mueta guztiac: emendic dauca Eliza Santaren bigarren Legue onec Legue escribidubaren izena.

Onela Moises Profeta santubac, etararic Abran Patriar-

caren Jatorriac Farawnen bendetic, arteraño Legue na-
turalian vizi zan, Eliza Santa oni itzi eutsan Jaungo
icoaren aguinduz escribiduric aurrera gorde biarco
eben Legue santu mueta guztia:

Legue escribidu eta santu onetan egozen iru Man-
damentu mueta: lenengoac eta aurrenengoac zirian,
Eliza Santac bere arterañoco lenengo Legue naturale-
co estaduban gordetan zitubanac; oneic Jaungoicoac
berac escribiduric emun eutsan Moises santubari; ar-
gatic ere esaten deustegu beste alde batetic Legue na-
turaleco Mandamentu onei Jaungoicoaren Legueco amar
Mandamentubac: bigarrenac zirian erabaguiten zitube-
nac dempora artaco Sazerdote eta Altaraco Servitzari
muetac, Sacrifizio eta Sacramentu muetac, eta, oneta-
raco guztiraco gorde biar zirian, zeremonia mueta san-
tu guztiac: irugarren Mandamentu muetac zirian, Jue-
zai ~~[illegible]~~ eracusten eustenac, nola erabagui Eliza Santa-
co Miembroai beren arteco auziac, ala ondasunen gañe-
cuac, nola eguin eiquien beren gaiztaquerien gañecuac,
eta zer moduz equin biar zituben beren artu emunac
Eliza Santac bada, Aisquidia, bere Legue natu-
raleco lenengo estadutic irago zanian Legue escribidu-
ricacuaren bigarren estadura, ez eutsan itzi bere lena-
goco Legue natural santubari, itzi ere ezin eiquion, eta
itzico ere ez deutsa Mundubaren azqueneraño eta Lur-
raren gañian vizi dan bitarte guztian; zergatic Legue
santu au, Guizonagaz batera sortzen eta Jaioten dan le-
guez, ez da batere aldacorra: bacarric, Eliza Santa Le-
gue batetic bestera iragotiagaz guertatu zana, izan zan,
arteraño bere biotzian Josiric eucan Legue santuba aur-
rera Jaungoicoaren escuz escribiduric artzeia, eta one-
la escribiduric bere beguien aurrian euquitia, eta one-
gaz gañera, Jaungoicoac Moises bere Profeta santubari es-
cribidu eraguin eutsan, beste Mandamentu mueta bi-
en azpian sartzeia, eta gueldiquetia.

Legue santu au da, Judeguben Legue zarra esaten
deutsaguna: Jesus Divinoac berac Guizona zan aldetic
gorde eben Legue santu au, ula guizi baten ere batere
utsic eguin bagaric; Legue au gorde euben ere, Jesus Di-
vinoa Curutzian ill baizen leenago, bere Ama Maria
Santisimac, San Juan Bautistac, Apostolu santubac, eta San

Jose gloriossac; bada zirian Judeguibac, eta Judeguiben Jator-
pi santubac; baña azqueric Legue santu au, lenengo Leguc
naturaleco Mandamentu santubacaz ostian, beste guztia
zaantu zan, eta illtera etorri zan Jesus Divinoa Cumutzi-
an illaqaz batera; eta ez bacarric ill eta desequindu zan
Leguc santu au Jesus Divinoaren eriotziaqaz batera, bai-
zicar ere ardic aurrera, bere biqarren Mandamentu muetac
gordetan zituben, guztientzat etorri zan izatera guztiz
caltetsuba, eta bere Jaincalleen Animen Illtzallia; ez Jesus
Divinoa Cumutzian illic beriala, baizicar Zerubetara igoric
andic arte batzubetara (ain da) bere Apostoluibac, Espiri-
tu Santubaqaz indarturic, bere Leguc graziazco au, ze-
ñian oraiñ vizigarian, Murdubar zabaldu eubenetic
aurrera:

Esan deutsut, Aiusquidia, Judeguiben Leguc escribi-
du eta zan au, lenengo Leguc naturaleco Mandamentu-
bacaz ostian, ill zala beste guztia; zergatic Leguc natura-
leco Mandamentu santubac, batere aldacorrac ez diria-
nac leguez, baizicar Guizonaqaz batera beti vizi diria-
nac, ez zirian ill eta desequindu Jesus Divinoaren eriotzi-
aqaz; arqatic Mandamentu santu oneic, Jesus Divinoa
ill ezquero ere, ain indartsubac gueldidu zirian Eliza
Santan bere irungarrengo Leguc graziazco onetan Mun-
dubaren azqueneraño, nola zirian lenengotic aurreraño:
esan deutsut ere, Judeguiben Leguc escribidu eta zan au
Jesus Divinoaren eriotziaqaz batera ill zala Eliza Santan,
zituban, beste Mandamentu mueta bien aldetic, eta etorri
zala guztiz caltetsuba eta bere Jaincalleen Animen Illtzal-
la izatera, bere biqarren Mandamentu muetac aurrera
gordetan zituben, guztientzat; zergatic, Jaungoicoac Leguc
santu onetaco biqarren muetaco Mandamentubetan Eliza
Santari erabaqui eutsan, Sazerdozioa, Templo bacarra, Sa-
crifiziosac, Sacramentubac, Jaiequnac, eta Zeremonia san-
tu guztiac betez betezian eta guztiz aquisian aiquetara
emuten euben, gueroco demporetan aquertuco zan, Leguc
Jmaille barri eta gure Redentore Jesus Divinoa, bere Cu-
mutzeco Sacrifiziioa eta Meza santucoa, gaurco Jaiac, Sa-
cramentubac; eta, Leguc graziazco onetan daucaqun, Miste-
rio santu guztien Espillu eta iduriper eder bat zirian; eta aiec

esquinten zituben, Misterioac eçuiaz çuentatu ezquero, ez ecarren errazoiac, auxera biparren muetaco Mandamentu baiec gorderetia; argatic alde onetatic Leçue escribidu au eçuin zan Jesus Divinoaren eriotziagaz bere Jaurrallentzat çuztiz caltetsuba eta Animen illtzalla; bada Leçue au gorde gura izanagaz beste bagaric ucaquetan dau batec betezian Jaunçoicoagaraco eta bere Seme Jesus Divinagaraco siniste eçuiazcoa: Leçue escribidu santu onen iruparren Mandamentu muetac barriz deresquindu baizirian ere Jesus Divinoaren eriotziagaz batera, Mundu onetaco Aquintariac ala Eliza Santaciac, nola Erreçue, Prinzipe, eta Emperadoriac, bacoitzac bere escuideco çauzetan, berriro aquindu daiquenac diza, beren bendecuen onac escaquetan deusten guztian; zergatic oneic ez euben aiquetara emuten çuenoco demporetaraco Misterioric, eta bacaric ifini zituban Jaunçoicoac, Juezac Gaitzequillai beren irabazia, eta ondasunen gañeco auzietan bacoitzari beria emuteco, eta beren ordeco artu emuretaraco.

Ineçaz ostian aren Divina Magestadiac Eliza Santari, Leçue escribidu onec iroun eben bitarteco, beste Profeta santuben bitartez auxoaz emun eutsan bere Escritura sagraduban, bere Seruia çueroco demporetan Guizon equitiaren, onec emunço eutsan, Leçue barri eta grazia zazcoaren, bere Redenzinoco langueiaren eta ondoren ço Misterio santu guztien barri guztiz arquiac eta erabaquiric eucan, demporan; equin zan Guizon, beraçoco demporetatic esanic equan, modura; auretic bere Ausquide San Juan Bautistaren bitartez zabaldu zituban bere etorreraren batziac; equin zituban mirari guztiz andiac; ifini ebendçue barria, guztia çuçanaco erruquiz, amorioz, eta grazia betia; eta equin zituban çauza guztiac, lenazanchinetaco demporetatic Escritura Sagradubau esanic eucan, modura, emendic ula quizi baten inten bagaric; eta azquenic, Poncio Pilatos Presidentiac autorturic, beraçaraco çorroz eta ecui ezinez ichuturic eçozen, Judequen batzuben eta beren Aquintari nagusienen escuidia, Curutzian Josiu ill auxiar, esan eben: acabau da (Redenzinoco langueia eta Profetac nire gañian esanic itzi eubena): onela bere eriotza santubagaz guelditu zan Judeguben Leçue escribiduba eta zeruco deresquinduric, eta Eliza Santa iraço zan, oraiñ daucan, grazia azco Leçue orretara, zeña dan azquenengoa eta iruparrena.

Eliza Santaren izcunian, Moises Profeta santubaren bitartez izan eben, Legue escribidu eta zarrari esaten deutsagu Jaungoicoaren Testamentu zarreco Legue santuba, eta, Jesus Divinoac emun deutsan, oraingo Legue graziazco oni esaten deutsagu Jaungoicoaren Testamentu barrico Leguia: emen Testamentutzat aiquetan dogu guere artian, Guizonac, bera ez dan demporaraco, bere gauzen gañian vizitzan eracusten daben, azquenengo voronda-tia; eta Testamentubac artzen dau bere indar guztia, bere Eguillia illagaz batera; eta, bat baño gueiago eguinic beucan, azquenengoac darua indar guztia, eta leenagocoac deseguinduric gueldiquetan dira: au berau guertatu zan esateco modura Jaungoicoaren Testamentu bietaco Legue mueta bioneicaz; eguin zan Guizon; eguin eben bere Testamentu barria, eta onegaz ill zan Curutze Santuban, onen bestegaz gueldiquetan zala bere Testamentu zarreco Legue escribiduba guztiz deseguinduric, eta bere Testamentu barri eta azquenengo onen Legue graziazco au bere indar guztiagaz.

Esaten deutsagu Eliza Santaren irugarren eta azquenengo Legue santu oni graziazco Leguea; zergatic Jesus Divinoac bere pasio eta eriotza santuco neurri bagueco merezimentubacaz esquini eutsan bere Aita Jaungoicoari, gure pecatuben zorrac parcazinoraco escaquetan euben baño, sari ascoz ugariagua; beragaz itzungui eben, bere Aitac gugana guere pecatubacatic eucan, aserre santuba; biurtu eutsan Guizonari, bere culpaz galduric eucan, Ondasun eternoac; eguin zituban Guizonaren eta bere Aitaren arteco baquiac; eta azquenic bete guinduban, alzituban, mesederic andienacaz, eguiten guindubala bere Senide eta bere Aita Jaungoicoaren Seme graziazcoac, edo adoptivoac; eta au guztiau, batere zorric ez euscula, eta, bai, euscun, amorioagatic: guztia da bada parcazinoco, erruquizco, eta graziazco Legue zoragarria.

Eliza Santac, oraiñ daucan, eta irugarrena dan, Legue graziazco onetan iraungo dau errime Lurraren gañian Mundubaren azqueneraño, bere Esposo Jesus Divinoari amorioz loturic; alperric Mundu guztia jaguico da, eta Infernuco atiac ideguico dira, Eliza au iraunt si guraric; bere gora berac izango ditu, leenagoco demporaric ascotan leguez; baña azqueneraño errime egongo da: bai, Aisquidia; au eguiera-baguia da Escritura Sagraduban, eta Jesus Divinoaren Evangelio santuban.

Jaungoicoaren Legue eguiazcoa, eta beraganaco siniste eguiazcoa daucain, Guizon eta Emacume guztien Congrega-

zino edo Iuntta au, zeña dan, emen durnaren gañian le-
enagoco Legue bietan vizi izan dan, eta orainco graziaz-
co iuganen Legue onetan vizi dan, Eliza Santa, ez da
zeuri iñoiz leenagoco Legue bietan aimbeste edertasune-
gaz, zeinda ecusten dan, iuganen Legue graziazco one-
tara iragozanetic ona: lenagoco Legue bi aietaco ac, Iaun-
goicoac gueroco demporetaraco esquinten euscen, beren Sal-
vatzalle eta Redentoriari begiratuagatic eutsain Espillu
batetic eta illun pe batetic legiez, eta beragatanaco illun peco
siniste eta esperanzan vizi zirian; onela Iaungoicoaren gra-
zian illten zirian, guztiac salvaitan zirian; aurrenengo sal-
vau zan Abel justuba, Adan Pecatari damutuba, orobat u-
te da ere, salvau zalà bere Amazte Eva beste aimbesteco pe-
nitenzia eguiazco baten bidez: baña ala oneic, nola beren
ondorengo, salvau zirian, Iatorri guztiac catigu gueldiga-
tan zirian Iustuen Limbuan, eta Purgatoriorako zorren
batzubec beeroien ere, onei erantsiric, Purgatoriotic iraga-
ten zirian Iustuen Limbo onetara; eta emen catigu egon ziri-
an, Iesus Diosac, Infernuetara jaachiric, andic etara zituban
arteraño co dempora guztian: gueiago; leenagoco Legue bi aie-
tacuac guichitan entenduben berentzat Elizaren izen andia eta
aguirria, eta, bai, guelen bat Iaungoicoaren Pueblo aren edo
Sinagogaren izen beenagocoa.

Eliza Santa bañiz, iragozanetic ona bere, orain dauean,
azquenengo eta iuganengo Legue graziazco onetara, beste
edertasunian auzquiguetan da leenagoco aldian: aiec le-
guez ez deutsagu begiratuagatic guelen Salvatzalle Iesu-Cristo
Sindari esseinetic, Espillutic, eta illun peian, etorquizuneco ga-
uziari leguez, baizican betezian, Idazqui betiac Espiritu
ani begiratu oi deutsan antzeria: gure beragatanaco sinis-
tiac izan bian dau betezecuac, salvauco bagara; zergatic
gure Redenzinoco obra miragarrizco au ez da Eliza Santa
beste Legue bietan leguez, etorquizuneco gauza, baizican in-
guertatuticaco gauza; eta onen Misterio santubac Elizan
tan dagozaia aguirian, eta beguien auzpian, eta ez, leena-
goco Legue bietan leguez, illun peian: orainco Legue grazi-
azco onetan illten dirian Iaungoicoaren Aitzaguide guztiac
duaza zuzenian Zeruco gloriara, edo Purgatoriora, eta
emendic Zerura, eta ez, leenagoco Legue bietan leguez, gló-
ria bagueco Limboco Carzelara, badaia, pecatubac ichi
euscen, Zeruco Atiac Iesus Diosac ideguiric eta zabal
duric dauca, baita ere Iustuen Limboa utziturik eta
ichiric: azquenic, Legue graziazco ora iragozanetic ona itzi
ric aldebatera leenagoco izenai, beti aitzu izan dau beren

~zat Elizaren izen gooragocoa; eta ala deritzo oraiñ Eliza,
~baña ez nola guracua, baizican Eliza Santa, Catolica, Apos-
~tolica, Erromacua: bai, nire Aisquidia; Jesus Divinoaren
~Esposa eguiazcoac emen Lurraren gañian gaurco eguzian
~izen eta izan oneic guztioc dauca: norc naic bada, Aisqui-
dia, izen eta izan onein arrastuetatic erraz iguerri deiquio,
ete dan edo ez bera Eliza Santa onen Miembroa; eta orobat
neque asco bagaric ezagutu daique, Eliza Santa oneta-
tic campora vizi dirian, siniste guezurrezco dun guztiac,
Christaunen izena euquiagatic, nola dirian, guero aitatu-
co deutsudan, Eregiac, oneicaz zeure vizitzan iñoizco dem-
poran naastu ez zaitian, baizican biotz guztic euracandic
urrin eta beti iguesi ibilli zaitian, ichiric zeure beguiac
beren azal ederrai, eta zeure belarriac beren verba legunai.

Aita Astetec bada, Jesuita zanac, Aisquidia, ondo
daquizun leguez, beguiraturic Eliza Santari oraiñgo Le-
gue graziazco onetan, bere miragarrizco doctrinaco Car-
~tilla laburrian itanduric, zer da Eliza? erantzuten deut-
~su: da Christaun Fiel guztien Congregazinoa, edo Juntia,
~zeñaren Buruba da Aita Santu Erromacua: ona emen,
Aisquidia, nun daucazun, verba guichitan esanic, eta ai-
quetara emunic, zer gauza dan, Lurraren gañian Legue
graziazcoaren irugarren estadu onetan vizi dan, Eliza San-
ta au.

≈ Eliza oni deritzo Santa; zergatic, daucan, sinis-
tia, Misterioac, Sacrifizioa, Sacramentubac, eta Leguiac
guztiz santubac dirian, eta, gu ere santubac eguiteco, guz-
tiz indartsubac, eta leenagoco Legue argal bi aietacuac
≈baño ascoz indartsubaguac dirian: deritzo Catolica;
zergatic, bere arguitasun andiagaz Eguzquiaren urtaie-
ratic bere sarrerarañо Mundu onetaco gau illunian ar-
gui eguiten daben, Idargui betia eta ederra dan; baita
ere, zergatic eguiaz salvau gura dauben, guztiac etorri
biar dauben Eliza Santa onetara, Bautismo santubaren
≈bitartez bere Miembroac eguiten diriala: deritzo Aposto-
lica; zergatic, Jesu Christoc Eliza Santari emun eutsan,
Legue graziazco au bere Diszipulu Apostolu santu-
bac ereiñ, eta zabaldu euben Mundu guztian beren
predicazinuacaz, mirariacaz, eta beren Zanetaco Odo-
~la eguiaren autormenagatic pozic itzuliagaz: deritzo
≈azquenic Erromacua; zergatic Eliza Santa au vizi dan,
bere Burutzat ezaguquetan daben, Aita Santu Erroma-
cuaren bendian, eta berari ichatsiric.

Eliza Santa onec ezagutuetan dau bere Burua Aguintari eta Esposo bacantzat Jesu Christo gure Jauna eta Redentoria; baña, nola gure arauizco begietatic ezcutau zan; bada, Jaungoicoa dan aldetic, toqui guztietan auruquiquetan bada ere, Guizona dan aldetic, baccarric auruquiquetan da Zeruban, Bienaventuradubac eusten daubela, eta Sacramentu Santisimoco Altarracuan, guc ecusi ezin dauquegun moduban, errazoiac ecarren, Jesus Divinoac gure izteia emen Elizaren gañian bere ordeco eta Vicariotzat, emen gugaz eta guere artian vizi eta dabillen, bat, onen bitartez vizi guindezen bere Divina Magestadiari loturic eta bere bendian, eta izan ez guindezen, bata vide batetic eta bestia bestetic ibilli oi dirian, burua bagaco Erreinu batecuac leguez, noiz jarraitu ez daquigula; eta ala itzi euscun bere ordeco eta Vicariotzat lenengo San Pedro Apostoluba, eta, onen ondoren, Aita Santu Erromacua esaten dentzagun, Erromaco Obispo Jauna, bere ordian eta izenian bacoitza bere eguneta izan zedin emen Elizaren gañian Eliza Santaren Burua eta Aguintari: orra nun daucazun Aiguidia, Eliza eguiazcoaren izenac eta izanac, baita ere izen eta izan andi onein arrasto guztiac erabaguric, aguinian, eta zeure beguien aurrian.

Eliza Santa au da emen Eliaren gañian Jaungoico eguiazcoaren vizi toquia, eta Echia; Eche santu onetara etorri biar dau Mundu guztiac Jaungoico eguiazcoaren eta salvazinoaren billa; Eche santu onetatic campora vizitzaco azquenengo arnasiac arrapaitan daben, guztia condenauco da, Diluvioco denporan, Eliza onen ispillu eta iduripena zan, Noe Patriarcaren Archatic campora egozen, guztiac ito zirian leguez; bacarric bada, nola (bere toquian esango dodan leguez) Bautismo santuco Sacramentuba dan Arte bacarra,

nundic sartzen garian Eliza santaco Eche miragar-
rizco onetara, bat uso errazuazcora ezquero salvau-
co lizateque, bere culpabagueco ezinen batec erago-
tzico baleutsa, eguiaz deseaitan daben Bautismo
santuba errezivitia; eta onela illgo baliz, bere peca-
tu guztien gañeco damutasun eguiazcua, Articulu
Fedeco Misterio-santuben ezagupera, eta sinistia, eta
Jaungoicoaganaco amorioa daucala; zergatic onela-
cua ia bere deseoz eta vorondatez Eliza santa oneta-
co Eche barruban eguan.

Da ere Eliza santa au mendi altu baten gañi-
an eta zimentu guztiz errimiacaz eguinic daguan
Ciudade andi eta eder baten guisara, erraz eta ur-
rinetic ecusten dana; Ciudade santu onetara igo
biar dau, Jaungoicoa, bere egui santuba, eta bere
vorondate santuco leguia ezagutu eta jaquin gu-
ra daben, guztiac, zergatic emen bacarric eracus-
ten dira, gura dauben, guztiai, eta emendic campo-
ra iñun ere ez.

Jesus Divinoac eguin eben bere Esposa eta gu-
re Ama dan Eliza santa au bere egui santuben
Depositaria; eta emun eutsan escuvidia, guri era-
baguiteco (premina daguanian) salvaitaco sinistu
biar ditugun, Fede santuco eguiac, eta gorde biar
ditugun, bere vorondate santuco mandamentubac
edo leguiac; eta autortu eutsan bere Espiritu Divi-
nuaren asistencia, batere utsic eguin ez daguian

guri gauza onerianac erabaguiten deuscun guzti-
an, onela mututuric gueldítu ditezen, egunoro ia be-
re Echeco Familiatic, ia bere aldamenian eta inguru-
ban canpotic jaguiten dirian, Etsai madaricatu guz-
tiac, illundu eta deseguindu guraric Lurraren ga-
ñetic Jaungoicoaren egui santuco arguitasuna, eta
guri aguirian ifintiarren, eguiaren arpeguiagaz sal-
du gura deuscuben, guezurrac: bai, nire Aisquidia;
guere Animetaco gobiernuban ichu ichuban jausi biar
gara guere Eliza Ama santaren esanera; bada Jesus
Divinuac berac esaten deuscu Elizaren esanera jau-
~si gura ez dabenagatic, euqui daigula onelacua, Ja-
~ungoicoaren ezaguperaric ez daucan Jentil bat ba-
~liz leguez: eta ala Eliza santa au beti izango ere da,
~ Apostolu San Pabloc diñuan leguez, eguiaren pilaria,
~eta errimetasuna.

Eliza Ama Santac erabaguiten deuscu gauza oneic edo
ia bere Buru dan Aita Santu Erromacuagaz batera
eta onen bendian vizi dirian Christandade guztico
Obispo Jaunen junta edo Concilio generaletan, edo ia
bacarric Aita Santu Erromacuaren bitartez, bere Bu-
ru eta Aguintari dan aldetic, escaturic erabagui au-
rian Jaungoicoari bere Espiritu Divinoaren arguitasu-
na eta Eliza santaco Ministro jaquintsu eta Jaungoi-
cozco batzubei erabaguitera doian gauza aren ga-
ñeco beren ustia eta dictamena; bada onela eta ez
beste moduz erabaguiten dira Eliza santan gure Fede santuco

gauzac; eta ala bardin Obispo batec bacarrian edo bic edo iruc beren arteco Junta edo Concilioan supitoco premina baten (ascotan guertatu dan leguez Eliza santan) erabaguico balitube gure Fede santuco gauzac, onein erabaguitiac ez leuque izango, Eliza santa guztico sinistia beraganaquetaco, indarric, Aita Santu Erromacuac bere bacarrian, edo beragaz batera Christandadeco Obispo guztien Junta generalac eguiazcotzat emun arteraño erabaguite au; zergaitic Obispo Jaunac gure Fede santuco gauzen gañeco Juezac badira ere, bacarrian utsic ez eguiteco Dueric ez daucai Aita Santu Erromacuac leguez, zeñari, Eliza santa guztico Buruba dan aldetic, bacarric eta bacarrian utsic ez eguiteco Jesus Divinuac daucan autorturic bere Evangelio santuban Espiritu Santubaren laguntasuna; argatic Aita Astetec doctrina Christianaco bere miragarrizco Cartillan itanquetan dabenian; zer gauza dira Christauna leguez daucazunac eta sinisquetan dituzunac? erantzuten dau: Eliza Santa Erromacuac daucanac eta sinisquetan ditubanac: eta erantzuten dau onela, Erromaco Eliza santa onetan dagualaco, Jaungoicoaren egui santuco ur gozoa, beñere loitzaca emuten deuscun, Yturri miragarrizcoa.

Eliza Ama Santa onec baditu bere Esposo Jesus Divinuac emunic beste gauzaric ascotaraco escuvidiac, baña guztiac gure oneracuac: oneitatic bat da, bere Mandamentu santu Divinoac obeto gorde eraingo

deuscubela deritzon Leguе eta Mandamentu barriac
ifinteco daucan escuvidia, zeñaren bitartez dauca
emuric gauzaric ascoren gañian bere Leguiac eta Man-
damentubac; onerianetaticuac dira Elizaco bost Man-
damentubac esaten deustegunac: eguia da; Eliza San-
tac escuvidia daucan leguez guri Mandamentu san-
tu oneic ifinteco, orobat dauca ere escuvidia leen be-
xac ifiniac quentzeco; baña onerian escuvideric bate-
re ez dauca Jaungoicoaren Leguеco amar mandamen-
tu santuben gañian, zeñac beti oñian egon izan dira,
oñian dagoza, eta egongo ere bai, Lurraren gañian Gui-
zona vizi dan bitarte guztian.

Eliza Santac, guri mandamentu eta Leguе one-
ic ifinteco daucan vidia, da, Fede santuco gauzac era-
báguiteco daucan, vide a bera, esanic itzi dodan leguez
eta ala ifinten ditube mandamentu eta Elizco Leguе
oneic Christandadeco Obispuac Aita Santu Gromac-
cuagaz batera beren Junta edo (orobat dana) Concilio
generalian, edo ia Aita Santu Gromaccuac bacarric;
eta onela Elizan ifinten dirian mandamentubac aguin-
quetan deuscuben gauzac eguitera Christaun guzti
oc gaoza obligaurric pecatubaren azpian, bardin gue-
re culpa bagueco, ez/agguinac edo batec esagozten ez badeuscu,
edo mandamentubaren indar guztia desequinduric
eta oazturic ez badago Eliza santan leenagoco dempo-
ra luzeetaco beste oituera batezgaz, Obispo Jaunac eta
batez ere Aita Santu Gromacoac daquiela, eta manda-
mentubac barriztau bagaric gueldiquetan diriala: Obispo
bacoitzac ere bere Obispauriaco bacarric ifini daique bere Leguе edo

mandamentu moduren batzubec.

Ecusiric dago, nire Aisquidia, Eliza Santa onetatic campora ez daguala iñorentzat salvazinoric, ecusi daigun bada orain, Eliza santa onen barruban vizi dirian Christaun Catolico guztiac salvaitan ete dirian: emen, nire Aisquidia, onac eta dongac batera eta nasturic vizi gara; Eliza Santa Lurraren gañian da Ychaso zabalian bota oi dan Sara andi baten antzera, zeñian jausten dirian batera Arrain mueta onac eta dongac, Soro baten antzera, nun Gariagaz batera etorri oi dirian Bedar dongac ere, eta Sabi baten antzera, nun batera azi oi dirian Arbola zuzenen eta oquerren gueiac; eta ala Eliza Santa barruban, bere Miembro dala viziagatic, bacarric salvauco da, bere vizitzaco azquenengo arnasaren azquenengo instanteraño errime irauten dabena obra onetan eta Jaungoicoaren amorio santuban; edo pecatu mortalen batzubetan jausi bada, penitencia eguiazcua demporaz eguinic Jaungoicoaren gracian illten dana; onelacuai bacarric jarraiquetan deuste ondoren beren obra onac betico descansu eta atseguintasuneraco Zerubetan; beste guztiac, uso errazuazcora bague batiaturic illten dirianacaz ostian, condenaitan dira: diñot: demporaz penitencia eguiazcua eguinic illten dana; zergatic bere vizi guztian gaizqui vizi izan dan batec, ill aurrian penitencia eguiazcua Confesino on baten bitartez, edo, auezin badau, acto Contrizonoco eguiazco baten bitartez eguin badaique

ere, eta onela salvau, erremedio onein ustian azque-
neraño gaizqui vizi danac beretzat euqui begui be-
~ re Jocuba; bada gueien bat guertatu oi da nolaco vizit-
~ za alaco eriotza.

Jesus Divinoac eracutsi euscun Sinistia eta Leguia

Guere Religino santubaren gañeco Capitulubaren
asipenian esanic itzi dot, nola gure aurrenengo lan-
gueia edo (obeto esatiarren) bacarra Mundu onetan
dan, Jesus Divinuac eracutsi euscun, sinistia eta
Leguia gordetia; eta orain esanutsi gura deutsut, ni-
re Aisquidia, zer siniste eta Legue eracutsi euscun
Jesus Divino onec.

Zeruraco vidian zuzen ibilteco, gure lenengo
Laguna eta Ychuaurrecua da, Jaungoicuac gure biot-
zetan sortzen daben, Fede santuco virtutia; zeñagaz si-
nisquetan ditugun, Eliza Ama Santac, Jaungoicoac
errevelauric, eracusten deuscun, egui santu mueta guz-
~ tiac; Fede santu au bague ez dala posible, esaten de-
~ uscu San Pablo Apostolubac, Jaungoicoari gusto ema-
~ tia; zergatic Jaungoicoagana doianac sinistu biar
~ dau, daguala Jaungoicoa, eta au bere billa dabiltze-
~ nentzat dala sari Emallia; argatic diño Jesus Divi-
~ nuac bere Evangelioan, sinisteric ez daucan Guizona
~ condenauco dala: Fede santu onen ondorengoa da Espe-
ranza santuco virtutia, zeñagaz Jaungoicoaren gra-
zia santubaren laguntasunaren eta guere obra onen

bitartez esperaitan dogun anchiquetia Zeruco onda-
san eternuac; utsa lizateque sinisquetia, esperanza-
ric ez bagueuca; Diabrubac eta Condenaubac ere sinis-
quetan ditube gure egui santubac, baña beren tormen-
tu gueiagoraco, utsa valio deustelaco beren sinistiac:
Fediaren eta Esperanzaren ondoren dator Caridade
santuco virtutia, zeña dan virtute santu guztien ga-
ñecua, virtute mueta guztien biotza eta Aguintaria,
eta zeñagaz Jaso eta eruaten dogun Jaungoicuaren
vorondateco eta bere Curutze santuco piñu guztia, ama-
itan dogula aren Divina Magestadia gauza guztien
gañian, eta aren Divina Magestadiagan guere Lagun
Progimo guztiac guere Burubac leguez; Caridade san-
tu onetatic sortzen dirian obra on bagaric bada illa
dago gure Fede santuba, eta guere Esperanza ere alper-
ra.

Itzain batec bere Ydiacaz cargaren bat burdian
nunbaitera eruan gura dabenian, lenengo guertaquetan
dau
burzilla, ondoren eraazten deutsa bere punta bietan
chirricac, gañian ifinten deutsa burcama zabala,
ezarten deutsa deritzon carguia, Ydiac uztarrian
lotzen ditu, eta onela carguia eruan eraiten deus-
te, bera Ydi aurreco dala: orobat Jaungoicuac gugaz
eguiten dau, salvazinoco videtic eruan biar dogun
carguia eruan eraiteco; guertaquetan deuscu gue-
re biotzetan Fede santuco burzilla, Esperanza san-
tuco chirricac, eta Caridade santuco burcama zaba-

la; ezarten deuscu guc eruan aldaiquegun añaco carga eta ez gueiago; lotzen gaitu bere bildur santuco uztarri bigunagaz; eta onela eruan eraguiten deuscu bere vorondateco eta Legue santuco carga ariña Caridade santuco burcama zabalaren gañian, bera dala batere utsic eguin ezin leiquian gure Ydi aurreco guztiz zintzua; eta ala, nire Aisquidia, ez gaitian izan Ydi nagui eta alperren antzecuac; zergaitic ez garian santuco Zeruco gloriaren zelai eterno eta zoragarrizco aietara, baizican Infernuco Mataderia izugarrizcora.

Ez da, nire Aisquidia, nire asmua, zuri Liburu onetan doctrina Christiana eracustia, baizican Aita Asteteren Liburu labur eta andian icasiric daucazun doctrinaren gañeco ezagupera zabalagobat emutia.

Eliza Santan bere Legue naturaleco eta Legue zar edo escribiduricaco estadu bietan salvaitaco beti izan da guztiz preminacua Jaungoico bacar bateganaco sinistia: au berau bada eracutsi euscun Jesus Divinuac bere ondorengo beste misterio santu guztiacaz batera

Chistaun guztioc chiquin eta andi Jaquintsubac eta Jaquinduria baguecuac salvaitaco Jaquin eta sinistu biar ditugun misterio santu guztiac ifini zituben Apostolu santubac, Creduaesaten deutsa-

gun, errazue labur baten, guztioc erraz eta neque bague icasi daiquegun moduban; errazue labur onetan daucazu, nire Aisquidia, amalau Articulu Fedeco guztiac eta gueiago ere bai: oneic ondo icastia, sinisquetia, eta ezaguquetia zuc eta zulacuac asco daube; oneitatic batzubec orainguinoco Capitulubetan aiquetara emun deutsut, eta ondoren gueiago aiquetara emutera nuatzu.

Gure Jaungoico bacar au da Corputz bagueco Espiritu utsa, eta bacarra, Arpeguico beguiacaz ecusi ezin daiqueguna, fin bagueco perfeccino santidade ontasun Jaquinduria eta poderioa beragaz ditubana, eta alacua azquenic, Zeruco Bienaventuradu guztiac pensau eta esan aldaiquien baño, excelentiagua eta admirabliagua, eta ditu beragaz, ez euquitia baño euquitia obiago dirian, ontasun mueta guztiac.

Jaungoico bacar onegan dagoza iru Persona diferentiac, Aitia, eta Semia, eta Espiritu Santuba; Jaungoicua Aitia, Jaungoicua Semia, eta Jaungoicua Espiritu Santuba; eta iru Persona oneic, beren artian diferentiac, dira naturaleza izate eta sustancia bat bacarra (au da) Jaungoico bat bacarra, eternua (au da) asieraric eta azquenic ez daucana, eguia bera, eta egui guztiaren Iturri gozoa.

Jaungoico bacar au, Aitia eta Semia eta Espiritu Santuba, Trinidade Santisimua bera, da, ecusten ditugun eta ecusten ez ditugun, Criatura guzti-

en Çuillia; beragan diraube, vizi, eta dabiltza, izatia, vizitza, eta ibiltia daucain, Criatura guztiac; bere obra guztietan da guztiz santuba, ula guzi baten utsic eguin ezin leiquiena, eguneroco gauza guztiac zuzenquetan ditubala, gugandic ezcutauric daucan, bere providencia santuraco Iuizioacaz, eta ala eguiten ditruban gauza guztiac, obiaquac dira eguiteco, eguin bagaric gueldiquetaciiac baño, eta eguin bagaric izten ditubanac eguiteco baño ez eguiteco obiaquac dira, guc ezagutu ezin badaiqu gu ere, nola izan alditezquian; eta, Iaungoiiac gu gan aiñ gorroto ditruban, pecatu mueta guztien malizia oso eta betez betezecua da, guc sarraitu biar deutsagun, bere voronclate santubaren bendian egon gura ez izatia, guere voronclate donguiari sarraiqueiarren.

Iaungoico bacar au Aitia eta Semia eta Espiritu Santuba Trinidade Santisimua bera da ere Guizonaren azquen Fina; bada eguinac gara bere antzera, eta eternidade guztian bera alabaitaco eta gozaitaco, aurreragoesango dodan leguez: eta zoragarrizco eta miragarrizco Fin santu au archiquetaco gure vide eta bitarteco bacarra da Jesu Christo gure Iauna Iaungoico eta Guizon eguiazcua, Iaungoicua dan aldetic Amaric ez dabena baizican Aita, eta Guizona dan aldetic Aitaric ez dabena baizican Ama, eta au Virgiña eta Donzella garbi beti za-

la eta gueldiquetan zala, Jesu Christo bere errai gan-
bietan sortzeian, faiotzian, eta faio exquero.

Trinidade Santisimoco bigarren Persona bada
Jaungoicoaren Seme bacara eta equiazcua zana eter-
nidade guztitic, Jaungoico equiazcua, eta bere Aita
eta Espiritu Santuba duin eternua, eta fin bagueco
ona, fantzi zan gure Guizatasuneco naturaleziagaz
demporan; eta illcorra ez zana equin zan gure amo-
rioz illcor, eta Munduco onetaco miñ, naibague, eta lot-
sari mueta guztien senticor.

Esaten dogu, equin zala Guizon equiazcua Es-
piritu Santubaren obraz, zergatic bere Incarnazino-
co Misterio santu au izan zan amoriozco obra, eta
Eliza Santac verba equiteco arturic daucan modura
esaten dogu, amoriozco obrac diriala Espiritu San-
tubarenac, poderiozco obrac Aita Eternuarenac, eta
saquinduriaco obrac Seme Divinoarenac diriala
esaten dogun legez; baña, Jaungoicuac berazgandic
camporra equiten dituban, gaitza guztietan bardin
equiten daube iru Persona Divinuac, batac aña besti-
ac; eta ala Incarnazinoco Misterio santu au izan
zan Trinidade Santisimo guztiaren obra mirazarriz-
cua, gueldiquetan zala bacarric Guizon equiazco equi-
nic bigarren Personia, zeña dan Semia; ara nola: bat
soñecua fazten daquala beste bic laguncuco baleutsai,
bera bacarric fantziric gueldituco lizateque, izana-
gatic iturena faazteco obra; orobat bada esateco mo-

dura guelditu zan Semia bacarric gure Guizatasu-
neco soñecuagaz Jantziric, izanagatic Encarnazi-
no santu au Trinidade Santisimo guztiaren obra.

Eliza Ama Santaren Fede eta siniste eguiazcu-
ac ezaguquetan dau Jesu Christo gure Jaun Ja-
ungoico eta Guizon eguiazco onegan Persona bat
bacarra, eta au Divinua, Guizatasun eguiazcua-
gaz Jantzia eta uniduba; eta ala erabaguiric dau-
ca eregiatzat, esatia, Jesu Christoc daucala Gui-
zona dan aldetic ere beste Persona Humano bat:
orobat Eliza Ama Santaren siniste eguiazcuac era-
gozten deuscu, esatia, Jesu Christo, Guizona dan al-
detic, dala Jaungoicoaren Seme adoptivoa, Mundu
onetaco beste Justo guztiac leguez; bada bacarric
eracusten deuscu Jesu Christo bat, eta au Jaun-
goicoaren Seme eguiazcua, Guizatasun eguiazcu-
agaz Jantzia, eta uniduba, eta Guizon eguiazco
eguiña.

Eliza Ama Santac ezaguquetan ditu bere Es-
poso eta gure Jaun Jesus Divino onegan natura-
leza bi, bata Divinua, bestia Humanua, Entendi-
mentu bi, bata Divinua, bestia Humanua, voronda-
te bi, bata Divinua, bestia Humanua, Divinuac Ja-
ungoico eguiazcua dan aldetic, eta Humanuac Gui-
zon eguiazcua dan aldetic; baña memoria bat bacar-
ra, eta au Humanua, Guizon eguiazcua dan alde-
tic bacarric; bada Jaungoicua dan aldetic ez dauca

Memoriaren premiñaric; zergatic bere beguien aurrian dauca eta ecusten ditu ala iraguac nola orainguac eta etorquizun dirian, gauza guztiac.

Jaungoicoaren Semia Guizon eguitia Ama Virginaren errai garbietan Señora onen Virginidade guztizcoaren batere calte bagaric izan zan instante bateco obra miragarrizcoa; bada Trinidade Santisimoac eguin eben Señora onen adoletic Corputz bat; ezeberezetic eguin eben Anima bat; Corputzari unidu eben Anima au; eta, onela uniduric egozen Corputz eta Animiagaz Jantzi zan Jaungoicoaren Semia eta Jaungoico eguiazcoa, gueldiquetan zala euracaz uniduric, gure Naturalezia arturic, eta Guizon eguiazcoa eguiñic; baña leen duin Persona bat bacarra eta au Divinoa Trinidade Santisimoco [redacted] iru Personetatic bigarrena; Guizon eguiazcoa zan, aldetic, batere Persona Humano bagaric, baizican bere Jaungoicotasunagaz gañera Naturaleza, Memoria, Entendimentu, eta Vorondate Humanuacaz; Jaungoicoaren Semia Ama bagaric, eta Guizon eguiazcoa Aita bagaric; Guizona zan aldetic bere Aita baño guichiago edo chiquinago, eta Santu guztiac eta Ainguerru guztiac baño andiago, eta, Jaungoicoa zan aldetic, bere Aitagaz eta Espiritu Santubagaz bardin, eta izate bat: bai, Aisquidia; Jaungoicoaren Semia onela Guizon eguiazco eguinic gueldiquetia Espiritu Santubaren obraz bere Ama beti Virginaren errai garbietan guertatu zan instante batian, Jaungoicoac ala gura izanagaz beste bague.

Jaungoicoaren Semiac, Guizon eguin ezquero, dauca Jesu Christoren izena; oneic, batera esaten badira era, eguiaz dira izen bi, Jesus, eta Christo; Jesusen izena dauca, gure Salvatzallia dan aldetic, eta Christorena, Espiritu Santubaren duez, virtutez, eta graziaz betia izan zan aldetic; Jesusen izena izan eben zuzenian Zerutic; bada Ainguerru San Gabrielec berac, Encarnazinoco Misterioaren gañeco albistia Zerutic ecarri eutsanian Ama beti Virginari, esan eutsan, Jesusen izena izan biarco ebela, beragandic Jaiço zan, Aur Divinoac; Christoren izena berriz eucain Judeguben Legue zarrian, Espiritu Santubaren doiac eta grazia aiquetara emuten eben, Olio santubagaz ungitan zirian, Jaungoicoaren urrenengo Guizacumiac, nola zirian Sazerdote nagusiac, eta Erreguiac; eta Christoren bigarren izen au dauca, ungituba edo guztiz betia izan zalaco Espiritu Santubaren Due eta graziagaz: Jesus Divino onec izan eben ere beste izen bat; bada Ysaias Profeta santubac leenagoco demporetatic esanic itzi eben, bere izena izango zala Manuel; eta guztiz ederquiro etorquion izen au; zergatic esan gura dau izen onec: Jaungoicoa da gugaz.

Jesus Divinoaren Anima, czeberezetic eguina izan
zan, instantetic unidu zan Jaungoicotasunagaz, ecusten
eben Jaungoicoaren arpeguia; eta argatic lenengotic zan
gloriaz betia edo gloriosia: bere bat bere Corputz santuba
lenengo instantetic unidu zan bere Anima gloriosiagaz, bai-
ta ere Jesus Divinoaren Jaungoicotasunagaz; argatic Corputz
au, ere izan zan lenengotic gloriaz betia edo gloriosoa, glori-
ac Corputzari emuten deutsan bere erru guztiacaz, zeñac
dirian lau, eta dira Corputz gloriosoaren lau dotiac esaten
~ deustegunac: ecusten dozu, Aisquidia, gure Corputzac, vi-
~ ziric dagozenian, aurrenengo beren ondoez eta min mueta guz-
~ tietan senticorrac diriala: bigarren, ezin irago daubela, Corputza
daucan, beste gauzaric baterian bestera, beste Corputz onec lecu
~ eguiten ez deusten bitartian: irugarren, eubenez ez daucaila
~ batere arguitasunic: eta laugarren, berez diriala gauza pisu-
bac, aidian berez egon ezin dirianac, uretan ere ondarrera
duazenac: bai, Aisquidia; gure Corputz viziac eta gloria bague-
cuac eubenac ditube lau gauza mueta oneic; baña, gloriagaz
jantzi ditezenian, ez daube izango lau gauza oneitatic batere,
baizican lau gauza oneitan gloriac eguingo ditu gure Cor-
putzac beste alderacuac, eta beste [redacted] mueta batecuac, aur-
~ renengo batere senticor ez dirianac gaitz eta mintasun mue-
~ ta guztietan, eta illcor ez dirianac: bigarren, edozeiñ beste
Corputz, burdiña sendozcoac izanagatic ere, baterian beste-
ra irago daiquien moducuac, Corputzac eurac ala iragua no-
la iragoten dana, batere icararic eguin bagaric, eta guztiz oso-
~ ac dagozela batere calte bague: irugarren, Eguzquiaren du-
~ iñ garaco arguitasunez betiac: eta laugarren, batere pisu
bagacuac, ur gañian eta aidian eubenez egon ditezquia-
nac eta ibilli ditezquianac, orain Lurraren gañian gu ga-
biltzen duiñ errime edo errimiago: Jesus Divinoaren Cor-
putza bada bere lenengo instantetic izan zan gloriosoa, glori-
ac Corputzarentzat daucala, esan ditudan, bere lau erru mu-
eta guztiacaz; baña aren Divina Magestadiac bere neurri ba-
gueco jaquinduriagaz eta escuvidiagaz atzera eraguin eus-
ten bere vizitzan gloriaren erru onei; eta ez eben gura izan,
lau erru oneic eta Animaco gloria guztizcoa bere Guizatasu-
nera osoro eta betezian irago zitezen, batez ere, bere Anima-
ren barrenian naibaguiac euquitia, eta bere Corputza min-
tasunetan senticorra, eta illcorra ere izatia, eragotzi eiquion,
gloria guztizcoa eta bere lenengo erruba; bada, euscun, neurri
bagueco amorioagatic bere vizi santu guztian ez eutsan lecu
eguin gloriaren erru mueta oni ez bere Corputzian eta ez bere
Animan; beti vizi izan zan guertaturic, eruateco gugatic min-
tasun eta naibaguetasun mueta guztiac, baita ere bere vi-
zitza emuteco; eta ala emun eben bere vizitza Curutzian, ira-
goric arteraño bere Gaitz Eguillen escutic bere Corputz eder eta

guztiz senticorrian ezin gueiagoco mintasun izugarriac, eta orobat bere Animaren barrenian edo ondarrian ezin gueiagoco naibaguiac, bere goienian gloriaz betia beguan ere.

Jesus maitiac batzubetan eguin eusten lecu, Corputz guztien artian senticorrena zan, bere Corputzian gloriaren beste iru erru muetai; eta au eguin eben, bere Magestadiaren neurri bagueco anditasunac, eta gure beraganaco siniste eguiazcoac ala escaquetan euben, batzubetan: onela, Mundura jaioco zanian, urten eben bere Ama Maria Santisima beti Virginaren Errai garbietatic, errai santu oneic guztiz ichiac, osoac, eta garbiac egozela, eta bere Ama Virgiñaren batere miñ bague, Eguzquiaren arguitasunac Cristala baterian bestera irago oi daben, modura, Cristala bera len duiñ osoric eta batere calte bagaric gueldiquetan dala: orobat Taborco mendian bere iru Diszipulu San Pedro, Santiago, eta San Juan Evangelistaren aurrian aguertu zan, bere Arpeguia Eguzquiaren antzera ederra eta arguia, eta bere Soñecuac Edurra duiñ zuriac zitubala: orobat bere Diszipulubac Ychasuan arrantzan ebilltzen, Ontzira juan zan oñez uraren gañian, liorrez Lurraren gañian gu ibilli guindezquian duiñ errime edo errimiago: eguia da; vizi zala, eguin eusten lecu bere Corputz senticor eta illcorrian gloriaren iru erru mueta onei videz leguez, eta ez iraupenez edo egoeraz, baizican ondoren atzera sacaquetaco, aren Divina Magestadiac gura ebenian; eta ala dempora oneicaz ostian bere vizitzan, Animatic Corputzera berez beti irago biar eben, gloria au euqui eben catigu leguez bere Anima barruban, Corputzera zabalquetan itzi bagaric; au guztiau zan bere escu guztiz poderosoaren gauza guztiz milagrosoa, eta gure beraganaco siniste eguiazcoac ala escaquetan ebena; bai, Aisquidia; aren Divina Magestadiac bere vizitzan esan, eta eguin zituban gauza batzubec, Jaungoico eguiazcoa zan leguez, eta beste batzubec, Guizon eguiazcoa zan leguez, guri bata eta bestia eguiaz sinistu eraguitiarren; zergatic gauza jaquiña da, ezin salvau guindezquiana, sinistu bagaric biotzetic, Jesus Divino au dala eternidade guztitic Jaungoico eguiazcoa, eta dala Guizon eguiazcoa, demporan eguiña: bacarric bada, Illen artetic viztu zan, instantetic irago zan bere Anima Santisimatic Corputzera gloria au bere lau erru guztizcoacaz eta betetasun guztian egoeraz eta iraupenez eternidade guztiraco.

Siniste santu oneicaz ostian Jesus Divinoac eracutsi euscun beste egui santuric asco, baita ere barriztauric itzi euscun, Eliza Santaren asipenetic arteraño beti errime eracutsi eta sinistu izan dirian, guztiac: oneitatic bat da, Aisquidia, Guizacume bacoitzac eta Emacume bacoitzac, bere Amaren Sabelian vizitza asiten daben, instantetic daucala Anima bat, Espiritu utsa, illcorra ez dana, eta, Jaungoicoa Jaungoico dan, eternidade guztian iraungo dabena, zeña

Corputzian egotiagan dago Lurraren gañeco guere vizitza labur au; eta orobat vizitza onen azquena, edo gure eriotza dago, Anima onec Corputzetic urtetiagan: ez gara, ez, nire biotzeco Aisquidia, Zacurren eta Mendico Zezenen antzera eguiñac, batere siniste bagaric aien modura vizi dirian, ascoc, izatia, gura dauben lezcoac; Ita!

Gueiago: eracutsi euscun ere Jesus Divinoac, Mundubaren azquenian biurtuco ditubala Anima guztiac, bacoitza, Munduban vizi zanian, euqui eben, Corputz artara bertara; eta onela viztuco gariala guztioc, eternidade guztian ez gueiago illteco: au da, Credoaren azquenengo Articuluben artian sinisquetan dogun, Araguiaren Resurreczinoa.

Onela vizturic, Corputz eta Anima, onac Juango dira Zerura, eternidade guztiraco Jaungoicoaren glorian sartzera; eta au da sinisquetan doguna, Creduaren azquenian esaten dogunian: Seculaco vizitza: eta bere bat dongac, Corputz eta Anima, Juango dira Ynfernura, eternidade guztian Jaungoicoaren Justizia adoragarriaren eta aserre santubaren pisu izugarria eruatera; eta onein eternidade guztiraco negar garrizco vizitza au eguiaz Seculaco vizitza bada ere, Escritura Sagradubaren eta Eliza Ama Santaren izcunian Seculaco vizitzaren izenagaz aiquetan dogu, onac Zeruban, Jaungoicoa ecusten eta amaitan, euquico dauben, betico vizitza zorionecoa, eta dongac Ynfernuban euquico dauben, Seculaco vizitza zorigaiztocoa aiquetan dogu Seculaco eriotziaren izenagaz.

Orobat eracutsi euscun ere Jesus Divinuac, beragan ifini biar dogun, Esperanza santuco virtutiac, Zeruco ondasun eternoac anchiquetaco, izan biar dabela bere grazia santubagaz eta guere obra onacaz batera, guere Animen salvazinoco langueian beti emuten deutsagula lecuric aguiriena, eta aurrenenguena bere grazia santubari, eta ondorengoa guere obra onai, Necazarion

batec bere soruan frutu onac artzeco emun oi deutsan leguez aurrenengo lecuba Jaungoicoaren laguntasunari eta ondorengua bere izerdi eta nequiari: ego bi oneic ez daucan esperanza da guezurtia, eta, Jesus Divinuac eracutsi euscun, siniste eguiazcua ucaquetan dabena; eguia da eta Fede santucoa, Jaungoicoaren vorondatia dala, gu salvaitia, ez dabela ere gura, Pecataria condenau dedin, baizican, beragana biurturic, salvau dedin, eta gueuc euroc baño ascoz gueiago gura deuscula seculaco vizitza au emun; bada gure amorioz Guizon eguin eta Curutzian ill zan, eta gura izan eben gurequin gueldi-tu Sacramentu santu Altaracuan, gure Animac, bera dan, guztiagaz sendaquetiarren; ala ere ez da bere vorondatia iñor salvaitia, norc berac gura ez dabela; izten gaitu bada guere vorondatera; gura dau, ezagutu daigun bera graziaren Emalle bacartzatzeñaren laguntasun bagaric ezin pauso bat emun daiquegu salvacinoco vidian, eta ezagupera onegaz beragana Juan gaitian Oracinuaren bitartez, onela escaquetan deutsanai esquiniric daucan, bere gracia santubaren billa, eta onela, sendaturic, obra onetan vizi gaitian, gaiztaquerietatic igues eguinic: onelacua da Jaungoicuac gure biotzetan ecustia gura daben Esperanza (au da) humildia, errimia, eta sendoa, ezaguturic daucagula beti, ezin iñolaco moduz euqui gueiquiala, Jaungoicoaren guganaco erruquia dan garaco, esperanzaric, eta galtzen ez dala iñor Jaungoicoaren aldetic, baizican nor beraren culpa guztizcuagaz Necazari donga eta alper baten antzera.

Jesus Divinuac eracutsiric, sinisquetan dogu ere bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santan Santuben Comunioa (au da) Jaungoicoaren gracian dagozen guztiac, batac bestiagatic eguin oi dituben, oracino eta obra onetan daucaila parte, Arbola bateco igartubagaric dagozen, adar berde guztiac daucain leguez parte, itsatsiric dagozen Troncoco, zumuan; bada, Caridadia daucan, Justubac ez ditu beretzat bacarric eguiten bere erregubac eta obra onac, baita ere Eliza Santaco beste Miembroacatic: Santuben Comunio onetaco frutubac ere dira, Eliza santaco tesoro espiritualetic irabazi oi ditugun, Yndulgencia santubac.

Santuben Comunio onec dauca bere sustraia Sacramentu santubetan, batez ere Bautismoco eta Comunioco Sacramentu santubetan, zeñen bitartez eguiten dogu guztioc Eliza Santaren Corputz au, eta gaoza bata bestiagaz uniduric eta itsatsiric caridadez, guere Buru sustrai eta tronco dan, Jesus Divinoagan. eta Corputzeco ontusuna zabalquetan da Miembro guztietara.

Baita ere sinisquetan dogu pecatuben parcazinua (au da) Eliza Santan dagozela erremedioac guri pecatu mueta guztiac parcaquetaco; oneic dira Jesus Divinoac itzi euscun zazpi Sacramentubac, emuteco guri onein bitartez pecatuben parcazinuagaz gañera bere gracia eta virtutiac, batez ere Bautismoco eta Penitenciaco Sacramentubac, zeñen bitartez parcatuezin litequian, pecatu muetaric ez da eguiten Mundu onetan.

Eguia da, nire Aisquidia, eta Fede santuco eguia, Jesus Divinoaren pasino santuco merezimentubac gure pecatuben parcazinoraco diriala fin baguecuac; baña irabazico baditugu merezimentu santu oneic, errezividu biar ditugu Sacramentu santubac, zeñac Jesus Divinuac ifini zituban bere Esposa Eliza santan, guri bere merezimentu oneic emuteco, Iturritzat, onein bendian (esateco modura) quiltza azpian leguez izten euscula bere pasino santuco fin bagueco merezimentubac; eta ala Sacramentu santu onein bitartez emuten deuscu bere merezimentu oneic, eta oneicaz guere pecatuben parcazinua, bere gracia, graziaren aumentuba, eta virtute santubac, obra onac eguiteco, eta Zeruco gloria irabazteco.

Aiquetara emun deutsut, nire Aisquidia, ia Religinoaren gañeco Capituluban, ia Eliza Santaren gañeco Capituluban, ia oraingo onetan Articulu Fedeco misterio santubac, batez ere Creduan dagozen leguez, zuc, salvaitaco, dozun gara; bada misterio santu oneic guztioc Jaquin, sinistu, eta autortu biar ditugu, salvaitaco: baña misterio santu oneicaz gañera zabaldu biar dogu guere sinistia, Eliza Ama Santac sinisquetan dituban, gauza guztietara; eta ala sinistu biar ditugu, Escritura Sagraduco Liburu eguiazcotzat Eliza Santac erabaguiric daucan, Liburu guztietaco egui santu guztiac, baita ere Jesus Divinoagandic gugana aotic aora etorri izan dirian egui santu guztiac Escritura Sagradu-

ban ifiniric egon ezagatic, eta azquenic egui santu one-
in aurrian Eliza Santac premina ordubetan gure one-
raco erabagui izan deuscun eta erabaguiten deuscun
Fede santuco gauza guztiac: egui santu oneic Creduan
dagozenacaz ostian zeintzubec dirian banaan saqui-
tia eta ain errazoia emutia ez da, nire Aisquidia, zu-
retzat, eta zu lezco saquinduria baguecuentzat; ba-
ditu Eliza Ama Santac Doctoriac edo Eracustzallac,
zeñac premina ordubetan eracutsico deutsuben Ze-
ruco vidian utsic eguin ez daizuben saquin biar ditu-
zuben egui santu guztiac: orain guazen esatera zermo-
duz sinistu biar ditugun Fede santuco Misterio oneic.

Fede santuco misterioac guere beguicaz ecusten
ditugun gauzac baño eguiazcuaguac dira eta alacu-
ac azquenic, zein da ezin izan ditezque Eliza Santac
sinisquetan dituban moduban baño; zergatic Jaun-
goicoa bera da eracutsi izan deutsana, orain sinisque-
tan dituban, misterio guztiac ia Ainguerruben bitar-
tez leenagoco Patriarca eta Profeta santubai edo iabe-
re Seme Jesus Divinoaren bitartez Apostolu santubai;
eta oneic ondoren Eliza Santa guztiari; eta nola Jaungoi-
coa dan fin bagueco saquintsuba, ezin ezcutau litez-
que bere ezaguperatic eguiac eta guezurrac, eurac diri-
an leguez, ezin utsic eguin leique bere fin bagueco saquin
duriagaz, ezaguquetan dabela guezurra eguitzat eta
eguia guizurtzat; eta beste aldetic nola dan fin bagueco
ona eta eguia vera, esaten deuscun, guztia da eguia, eta
ezin izan diteque beste modutara.

Fede santuco misterioac dira Jaungoico guztiz poderosoaren obra miragarrizcuac, gure ezagueriagaz gañecuac, burraren gañian bizi garian bitartian ilbiar dituga (San Pablo Apostolubac diñuan leguez) Fediaren serviziorako guere entendimentubac, eta onela ichu ichuban siniztu ecusi ez doguna eta ecusten ez doguna; zergatic Jaungoicoac errevelauric Eliza Amasantac ala eracusten deuscun; onetan dago gure Fede santuco merezimentu guztia, eta onela siniztu gura ez dabenac ez dau jaquingo, baizican uts eguingo dau, Jaungoicoac Zerurako ifini deutsan, vidia: Zerura guazenian, an ecusico dituzu, eurac dirian leguez, emen siniztu dituzun, Fede santuco misterio oneic; eta an ecusico dogu, zala eguiazcoa, emengo siniste santuba.

San Pablo Apostolubac Mundubar bizi zala Zerura Jaungoicoac jasoric eta an entzunic Misterio andico verbac Guizonari esatia lizito ez dirauac, guztia bere ezeberetasuna ezaguturic, diadar eguiten dau onela: Ho! Jaungoicoaren Jaquinduriaco eta Sabiduriaco aberastasunaren anditasuna! zein ezagutu ezin litezquianac dirian bere juizioac eta bere vidiac ezin jaquin litezquianac! Jaungoicoaren aurrian bada jaquintsu eta ascotacua izan gura dabenac emen ezeberetzu biar dau bere buruba Apostolu santu oren antzera; zergatic bere buruba jaquintsutzat badauca, asico da bere Entendimentu laburrari nasaitasuna emuten, neurtu gura-

ric, Jaungoicoac beragandic ezcutauric daucan, Fede santuco misterioac, eta ezagutu eta Jaquin guraric, nola izan alditezquian; eta etorrico da Fede santuba ucaquetara, Guizonic Jaquintsuben batzubecaz guertatu izan dan leguez, beren sovervia guztizco au dala medioz; bai, nire Aisquidia, altura guztiz andi batetic beera beguira zuzenian Jasarten danaren saria gueienetan izan oi da buruba zoratu, beera Jausi eta illic gueldiquetia, orobat bada guertatu oi da, Fede santuco misterio oneic nola izan alditezquian, ezagutu guraric dabillenari.

Gure Fede santuco misterioac ez dira Munduonetaco modeen antzeracoac, gaur bai eta biar ez; alperric ascoc sinistu gura ez ditube; alperric Zeruba Jausico lizateque Lurrera eta Lurrac igoco leuque Zerura; alperric gauza guztiac beren toquietatic urtengo leuquie, Jaungoicoa eta bere verba santuba atzo leguez gaur ere eta eternidade guztian, eta aiñ eguiazcuac, zeinda Apostolu San Pabloc berac dauca biotza, esateco guri onela:
~ naiz gueuc eracusten badeutsubegu, edo naiz Zerutic
~ Aingueru batec eracusten badeutsube, eracutsi deut-
~ subegun (doctrinatic) campora, onelacua madarica-
~ tuba izan dedilla.

~ Ca bada, nire Aisquidia, Jesu Christo barriric
~ etorrico ez da Mundura, ezta beragaz ostiango Ja-
~ ungoicoric ere; zure Aitaren eta Aita Asabaren dem-
~ poretan vizi zan Jesu Christo, bera zan araiñegun
~ eta atzo, da gaur ere, eta izango ere bai eternidade

guztian; alperric España guztiac ucatuco leuque egui au, sinistiaren ucaqueta onec ez deutsa quenduco Jesus Divinoari bere izate gloriosoa, eta gure gañian eguingo daben juizioa; ez eguiozu bada iñolaco moduz emun lecuric zeure Echian inoizco demporan, siniste santu onetaco bere doctrina ez dacarren, Personari; eta ez bacarric ez deutsazu onelacuari zeure biar, zeure Echian sartzen; baizican ere ez deutsazu eguin biar Diosalic batere; gogortasun au, nire Aisquidia, ez daniria, baizican San Juan Apostolu eta Evangelistac eracusten deutsuna.

Negar garrizco gauza da gaurco egunian iragoten dana: beren escumaco escuba zein aldetatic daucain ez daquien Ordiac, Lujuriosoac, Ycazquiñac, Caldaraguiñac, Capadoriac eta pecatuz betericaco Atso eta Emacume gazte galdubac erausten deuste gure Fede santuco misterio andi eta ezcutau onei, beren arteco artu emuneco gauza eze berez batzubec balirian leguez: Ha! igues eguizu, nire Aisquidia, onelacuacandic zeure Etsairic andienacandic leguez, eta onegaz ostian entzun edo jaquin ezquero Personaren batec esan edo eguin dabela Fede santuco misterioren baten contraco gauzaren bat, ainbat lasterren salatu biar dozu onerian Persona Inquisizinoco Tribunale santura, Españan pecatu mortalaren eta escomunio nagusiaren azpian aguinduric daguan leguez: Ho! eta zenbat Zapo eta Suga dagozen orain beren zuluetan sarturic Tribunale santu onen

bildurrez! Jaungoicuac bada aimbat luzaruen oñian euqui daguiala; zergatic Fediaren Gaztelu santu au quendu ezquero, Suga eta Zapo oneic beren zulueta-tic bildur bague urtenic beren siniste bagaco veneno indartsubagaz illgo lituquie asco, Fede santuco vizit-za quendubagaz.

Ecusiric, nire Aisquidia, zer siniste eracutsi eus-cun Jesus Divinoac eta zer moduz gorde biar dogun siniste santu au, ecusi daigun orain, zer Legue era-cutsi euscun, aen aguinduba eguinic salvau guinde-zen. Jesus Divinuac eracutsi euscun Leguiac dira bat bacarra, eta asco: bat bacarra sustraian eta troncuan; eta au da amorio santuco Legue bacarra: amauco dozu (diño bere Evangelio santuban) Jaungoicoa zeure biotz guztitic eta zeure Progimua zeure buruba leguez: Legue bacar onen aguinduba eguin ezquero, aren Divina Ma-gestadiac bere Escritura Sagraduban aguinquetan deus-cun guztia eguinic daucagu; zergatic Caridadiaez da beste gauzaric Jaungoicuaren aguindu guztiac eguitia baizen; eta, obra on bagaric illic egongo lizatequian, Fede santu onec Caridadiaren bitartez igues eraguiten deuscu gaiztaquerietatic, eta emun eraguiten deuscu obra onac: dira asco Jesus Divinoaren Leguiac; zergatic Arboliaren tronco batetic adar asco Jaioten dirian leguez, orobat ere Caridade edo Amorioaren Legue bacar onetatic Jaio-ten dira beste Legue asco, salvaitaco premina ditugun,

obra onac eguitia, aguinquetan deuscubenac.

~ Oneic dira Jaungoicoaren Legueco amar manda-
~mentubac esaten deustegunac; amalau obra misericor-
~diazcoac Progimoaren preminetan aguinquetan deuscu-
~ben, Leguiac; eta guere vizitzan artzen ditugun Estadu
~bacoitzari aren Divina Magestadiac ifiniric daucan, Le-
~guiac: eguia da; iru Legue mueta oneic guztiac dira bat
(au da) Jaungoicoaren Legueco amar mandamentu san-
tubetan (onei sustraitic eta barrutic beguiratu ezquero)
aiquetan dirianac; ala ere izentau deutsut iru Legue
mueta oneic, nire Aisquidia, zeure arguitasun gueia-
goraco, bacoitza banaan.

Iru Legue santu mueta oneicaz ostian eta oneic
obeto gorde eraguiteco, Jesus Divinuac itzi eutsan be-
re Esposa eta gure Ama dan Eliza Santari, escuvidia ifinteco, gu-
ri gura zituban, Leguiac, Eliza Santaren gañeco Capi-
tuluban esanic itzi dodan leguez; eta ala escuvide onen
bitartez emunic dauca eta preminia daguan guztian
emuten ditu bere Leguiac, ia Christaunac garian alde-
tic, edo ia Christaunac leguez daucagun Estadubaren
aldetic, obeto eguin daigun, beste iru Legue muetac agui-
nquetan deuscuben, guztia; oneitatic aguirienac eta Chris-
~taun guztien artian Jaquinenac dira Eliza Ama Santa-
~ren bost mandamentubac esaten deustegunac, eta Chris-
~taunac garian aldetic, aguindu deuscunac.

Eliza Santac, ifinten dituban, Leguiac quendu ere ba-
daique, preminiac ala escatu ezquero; baña ezin ezer
aguinduco deusca bere Esposo Jesus Divinoac ifiniric dau-

can iru Legue santu mueta aien caltian; bada oneic be-
ti bat dira, eta guere izatiagaz batera Ameen sabeletic
dacargunac guere vizitzen azquenengo instanteraño;
eta argatic ez dira beñere aldacorrac; zergatic Jesus
Divinua ez da vizi bere Esposa Eliza Santaren bendian,
bai Eliza Santa bere Esposo Jesus Divinoaren obedienzi-
an.

Eliza Santaren Leguiac aguinquetan daubena
eguin bagaric itzi daiquegu eta au pecatu bague, aien
aguinduba eguitia danian caridade, guere vizitza, osasun, hon-
ra edo interesen calte andian; baña, nire Aisquidia, ez
dozu zeure vizitzan iñolaco moduz zeure Buruz eraba-
gui biar onerian gauza piñuric, baizican aurraz esca-
tu biar dozu zeure Confesoriaren edo arteco danaren
iritzia, jaquiteco, ete dan edo ez eguiazcua, daucazun,
motivoa, Eliza Santac aguinquetan deutsuna, eguin ba-
garic, izteco.

Badaquit, nire Aisquidia, esango deustazula ora
in, beraz eguin daiquet nic neure Familiagaz biarra ur-
teco eguzari guztietan, baita ere guelditu daiquet neu-
retzat Soruetan artzen ditudan frutu guztien amar-
ren eta primiziac; zergatic, gauza bi oneic aguinquetan
deustain Eliza Santaren, Legue biac dira nire interesen
calte guztiz andicuac: Ha! nire Aisquidia! orrela verba
eguiten daube gaurco egunian Fede guichico Christaun
epel eta donga ascoc; onerian verbac dira, Eliza santari
bere Eche barruco eta campoco Etsaiac eguiten deutsain,
sauncac: baña zuc zeure vizi guztian igues eguizu Era-

custzalla madaricatu onelacuacandic; eta gorde eguizu aimbat leialtasunic andienagaz Eliza Santaren Legue bi oneic bestiacaz batera: Eliza Santa ez da aiñ buru guichicua, zeinda ezaguquetan ez dituban calte mueta oneic; ez da ere aiñ gogorra eta erruqui baguecua bere Seme Alabentzat, zeinda calte onein bitartez gosiac illten ecusi gura dituban; gura dau bai, bere Seme Alabac izan ditezen esquer onecuac aren Divina Magestadiaganaco, emuten deusten Ondasun espiritual eta temporalacatic, eta ezagupera santu onegaz irago daguien, urtiac daucan, Eguzariac Jaungoicoaren biar espiritual eta santubetan, Corputzezco biarra alde batera itziric; eta artzeen dituben frutubetatic esquini deiuen beren amarren primiziac, Eliza Santan daucan, bere Ministroen alimenturaco: Eliza Santac ezagutu izan ditu Legue mueta bi oneic ala Legue naturaleco estaduban nola Legue zar eta escribiduricaco estaduban; eta ez dau izan gura orain daucan estadu graziazco onetan esquer guichiagocua, Jaungoicoaren aguinduz lenagoco estadubetan gordetan zituban, Legue bi oneic bere Seme Alabai barriztaubagaz, zeñac, gordetan badituzu Jaungoicoaganaco Fede oso bategaz eta leialtasun guztizcuagaz zeure vizitzan, eguingo deutsuben, calte andia izango da, zu eguitia zorionecua Mundu onetan eta bestian.

Jaungocoaren aguindubac edozein modutacuac diriala humildaderic andienagaz eta ichu ichuban eguin biar ditugu, batere saquin gura bagaric, zer motivogatic aguindu ete daben onerian mandamentu eta Leguia; ba-

da au izango lizateque, Jaungoicuac aña saquin gura izatia; au izan zan Paraisuan gure lenengo Gurasuengaldu biar guztia; Diabrubac esan eusten: zergaitic Jaungoicoac eragotzi deutsube onelaco fruta saatia? santu zirian curiosidadian saquin guraric, zergatic; eta galdu zirian, mandamentu santuba urraturic: Abran Patriarca santubac eucan, Ysac eritzon, Seme bat, eta Jaungoicuac autortu eutsan, Seme onen bitartez Zeruban Yzarr[illegible] emungo eutsala, bere ondorengo Jatorriac; eta, emuric onela bere verba santuba, aquindu eutsan, quendu equiola vizitza Ysac bere Semiari, artian ezcontzaca equiala; Abran santubac, entzuric Jaungoicoaren aquinduba aiñ benetan eta aiñ biotzetic amaitan eben, Semiari vizitza quentzeia erabaqui eben, Jaungoicoaren esana equitiarren ichu ichuban; eta, vizitza quentzeco demporan, Zeruco Aingueruba tec eragotzi eutsan, ecusiric aiñ gogo sendsa, Jaungoicoaren aquinduba equiteco, bere biotza erdibiraquetan eutsan, gauzan, eta (queiago zana) Seme onen bitartez bere Jatorriac Zeruco Yzarrac diñ ugari izango ziriala, siniscuric equian, demporan: ea bada, nire Aisquidia, sarraitu deisgun Abran Patriarca santu onii, eta ez gure lenengo Gurasuai Jaungoicoaren aquindui eragututa ichu ichuban equiten, saquiric, aquinduric izteeco, aquindu bagaric baño.

Sauza bat esan gura deutsut, nire Aisquidia, aurrac eta da: Jesus Divinoac Juizio generalian onai eta dongai emungo deusten sentencian, bere izu legue mueteta tic bigarrena bacarric izentaitan deuscu (au da) obra mi

sericordiazcuac aguinquetan deuscun Leguia; bada, diñuanez bere Evangelio santuban, onai emungo deuste se-
~culaco gloria; zergatic gaiñuac, eta Carzelan egozenac vi-
~sitau zituben; pillosic egozenac jantzi zituben; gose eta
~egarri ziranai jaten eta edaten emun eusten; eta zerga-
~tic Campotar edo Erbesteco videzcoai Ostatuba emun eus-
~ten: dongai barriz emungo deuste pena seculacoa; zer-
~gatic obra misericordiazco oneic eguin ez eusten, premi-
~ñan aurquiquetan zirian, Progimoai; eta ez dau agotan artzen onetaraco gaiztaqueriaric batere, nola dirian juramentu alperrac, maldizinoac, eriotzac, lujuriazco ziquinqueriac, lapurretac, eta murmurazinoac, ez gaiztaqueria oneitatic edozeñegaz bat condenauco ez dalaco; baizican iñorc uste izan ez daguian, gaiztaqueriaric batere eguin bagaric vizi izatiagaz bacarric salvau ditequiala, aldituban obra misericordiazcoac, premiñan daguan, Progimoari eguitiari itziric: Ho! nire Jaungoicoa! eta zeimbat dagozen Mundu zabal onetan uste onetacuac!

Oraiñ, nire Aisquidia, guazen equitera, Legue santu oneic aguinquetan deuscuben, gauzen gañeco sallari: Capitulu onetan bacarric izentauco deutsut, zulacuen artian guichi ezagutubac, eta jaquiñac dirian, eta guztioc eguin biar ditugun, gauzaren batzubec, Jesus Divinoaren Leguia gordetaco; eta ondorengo Capitulubetan, batez ere Penitenziaco eta Matrimonioco Sacramentubac, Gurasuac, Progimoac, eta Curutzia aitaquetan deutsudanian, nire laburtasunian, aldodan, arguitasunic gueienagaz aiqueta-

ra emungo deutsut, zuretaco dan gara, Legue santu oneic aguinquetan deutsubena, eguiten, Jaquiteco.

Jaungoicoac Eliza Santaren Legue naturaleco eta escribiduricaco estadu bietan, bere siniste eta Legue santuba Lurraren gañian ereiteco Guizonen biotzetan, artu izan eben predicazino santuco vidia; eta vide au berau artu eben gure Redentore Jesus Divinoac, Legue graziazco estadu onetan ere; argatic Apostolu San Pabloc aiquetara emuten deuscu, Jaungoicoaren vorondatia dala, Mundutarrac zoraqueriatzat daucain, predicazinuaren bitartez salvaitia, beragan eguiaz sinisquetan daubenac: Eliza Ama Santac bada, icasiric bere Esposo Jesus Divinoagandic, Jarraiquetan deutsa predicazino santuco vide oni beroni, aren Divina Magestadiaganaco sinistia eta bere Leguia Munduban zabalquetaco, eta, zabalduric, guere biotzetan sustraiac ezarri eraguiteco.

Jesus Divinoa berroguei eguneco barubacaz Desiertuban gosetu zanian, Diabrubac, tentaitiarren, esan eutsan: Jaungoicoaren Semia bazara, aguindu eguizu, Arri oneic Ogui biurtu ditezen: au entzunic Jesus maitiac erantzun eutsan: (Escritura Sagraduban) escribiduric dago: ez da vizi Guizona Oguian bacarric, baita ere Jaungoicoaren aotic urteten daben verba mueta guztian: bai, nire Aisquidia, Corputzaren alimentuba Oguia dan leguez, bere bat da gure Animen alimentuba Eliza Santaco Ministro leialac predicaitan deuscuben Jaungoicoaren verba santuba; eta, Evangelio santubac eracusten deuscun leguez, verba santu au ascoz errutsubago da, gu salvaitaco, bat Illen artetic vizturic, beste Mun-

~duban iragoten dirian, gauzen gañian emun aldeique-
~gun, barri guztiac baño, Fede bagueco edo guichico Ch-
ristaunen batzubec ala uste ez badaube ere: eta ala Ja-
ungoicuac guri bialdu aldaiquian castiguric andie-
netatic bat da guri ucaquetia bere verba santuba, Amos
~Profeta santubaren aotic esaten deuscun leguez: begui-
~ra: datoza egunac, diño Jaunac; eta bialduco dot gosia
~Lurrera ez Oguiaren gosia ezta Vraren egarria, baizican
~Jaunaren verbia entzuteco (gosia eta egarria) Ho! eta gu-
re Jaungoicoaren zein aserre izugarria dan au!

Predicazino santu au eguiten deuscube Aita Santu
Erromacuagandic asi eta bere bendian vizi dirian, Obis-
po guztiac, eta oneic bialquetan dituben, Predicadore
Misionero eta Parroquietaco Errectore Jaun guztiac,
eracusten deuscubenian, Eliza Ama Santac Jesus Di-
vinoagandic icasiric daucan, siniste eta Legue eguiaz-
cua; baita ere predicazino santu au eguiten daube
Confesoriac, Familietaco Burubac, beren bendecuac
Jaungoicoaren bildur santuban ezi eta euquiteco ari-
duria daucain, Aguintari guztiac; eta azquenic eguiten
deuscube predicazino santu au Zeruco Santubac ere,
Munduban eguin zituben, beren vizitzacaz, eta gure sal-
vazinoraco escribiduric itzi zituben, Liburu santube-
tan, batez ere Escritura Sagraduco Liburubetan.

Orain, nire Aisquidia, Jesus Divinuac zure salva-
zinoraco ifiniric daucan Legue santuco vidiari sarrai-
tuco badeutsazu, ez zaite izan, Eliza Santaco Ministro
leialac eguiten dituben, sermoiac entzuteco, iguñecua;
~zergaitic, Espiritu Santubac diñuanez, Jaungoicoaren Le-

~guia ez entzutiarren bere belarriac ichiten ditubana-
~ren Orazinua izango da madaricatuba; izan zaite,
bai, sermue oneic entzuteco, eta entzuten dozuna egui-
~teco zalia; bada Legue santubaren Entzule bacarrac
~ez dira izango onac Jaungoicoaren aurrian, baizican
~Legue entzunaren Eguilliac diranac; eta orobat zaletu
biar dituzu onetara zeure Familiaco guztiac, beti begui-
raquetan deutsazula (nor nai dala sermoia eguiten da-
bena) ez bere tonadiaren orriari, baizican, eracusten da-
ben, doctrina santuco frutubari.

Guertatu liteque, leen Ministro leialac ziranac Eli-
za Santan, Obispuac eta Sazerdotiac izanagatic ere, igues
eguitia Aita Santu Erromacuaren bendetic, beren buru
eta Aguintaritzat ezagutu gura ez daubelaco; baita ere Je-
sus Divinuaren Fede santuba ucaquetia: eta orain itandu-
co deustazu, nire Aisquidia, ¿lizito ete dan onelaco Sacer-
dotiaren edo Obispuaren Sermue, eta Mezac entzuten ego-
tia, eta onelacoren bategaz confesaitia? erantzuten deut-
sut, dala pecatu mortal, onelacuen Sermue eta Mezac
entzutia, eta onelacuacaz confesaitia, bardin badaqui ba-
tec, Aita Santu Erromacuaren bendetic igues eguiña edo
Fede santuba ucatuba, eta errore onetan vizi dana, dala
onerian Sazerdote eta Obispua; eta orobat aitu biar da au
ez badago ere besteric, norc sermoiac eguin, eguzari egu
netan besteric norc Meza esan, eta eriotzaco orduraco
beste Confesoreric onerian Sacerdote eta Obispua baño
onein veneno errutsuba bere belarrietatic biotzera sarturi
Animaco vizitza eternua quendu ez deguion.

Onerian Sacerdote eta Obispuac arteraño onac eta
Eliza Santaren Ministro leialac bazirian ere, orain be-
ren erroriac ezagutu gura ez dituben bitartian dira

Eliza Santaco Arboliaren adar igar eta ebagui batzu-
bec, zeñacazco comunicazinoa batez ere guere Religino
santuco eta gueren Animetaco gauzen gañecua eragoz-
ten deuscun gogorquiro Eliza Ama Santac berac; dira, ez arte-
raño leguez Animetaco Arzainac, baizican, Ardien soñecua-
gaz estaldu dirian, Otso amorratu batzubec, Artaldiac zatique-
tan dabiltzenac, Christaun argalen, bereen, eta jaquinduria
baguecuen, baita ere jaquintsu arro eta viziosuen artian calte
izugarriac eguiten ditubenac; eta azquenic dira gure Ani-
men Lapurrac, eta alditezquian Etsairic madaricatube-
nac, zeñacandic, Jesus Divinoac bere Evangelio santuban
aguinquetan deuscu, gorde gaitiala.

Guere Religino santuban daucagun, Jesus Divinoaren
Leguiac aguinquetan deuscu ere, sarritan eguitia gue-
re vizitzan acto Fedeco, Esperanzaco, eta Caridadecuac; zer-
gatic Jesus Divinoac ez euscun emun Bautismo santuban
iru virtute Divino eta sobrenatural oneic, alperric euqui gue-
ian, eta bai, guere biotzetan noizian bein viztubagaz, euracaz
Jaungoicoaganaco vidiari errime jarraitu deiogun: noi-
zetic noizera eguin biarditugun pecatu mortalaren azpian
iru virtute santu onein actoac, ez dago gauza erabaguiric;
baña beinic bein gauza erabaguia da Eliza Santan, urte
bete osoa iragotia batec, onerian actoac eguin bagaric, da-
la pecatu mortal; argatic, onen gañian verba eguiten dauben,
Eracustzallac esaten deuscube, eguin daigula acto santu oneic,
urtiac daucan, Igandia eta Jai eganic andien guztietan, ez le-
guearen aldetico Mandamenturic onetaraco dagualaco, baizi-
can zergatic uste dauben, onela eguitia dala videric onena, ba-
tere utsic eguin bagaric, Leguearen aguinduba guztiz ondo gor-
detaco.

Eracustzalla oneic euroc, guztiac ao batetic erabaguiten
deuscube dempora batzubec, zeñetan pecatu mortalaren az-
pian eguin biar ditugun iru virtute santu onein actuac; bata
da illgo garian aurretic, edo illteco vide urreren baten aurqui-
quetan garianian, dempora artaraco euqui, eta jaquinian

eçon ezqueroa, zer orduetan vizi dan; zergatic çauza saqui-
ña da, ez çaviala iñoiz aiñ premina andian auzquiquetan,
nola ordu onetan, Jaungoicoaçana doucaçun, siristia, espe-
rança, eta, beraxi zor deutsaçun, amorioa çuere biotzetan viz-
tzeco, zabalquetan doçula amorio au Proçimo çuztiacana,
Çtsaiac izan açatic ere, equin deusçuben, çaiztaqueria guz-
tiac biotzetic parcaquetan deustequla, eta, çuenic equin deus-
tequnacatic, parcazinoa beretan escaquetan deustequla, bar-
din beenaz equinic ez badaucaçu lanquei çuztiz premiñaco
~ co au: biçarren demporia da, viso errazvazcuan sartzen da-
~ nian Christauna; bada orduric Christaunac esquini biar
deutsa bere Persona eta vizitza guztia Jaungoicoari, ezin
ditequian, çauza, izu virtute santu oneic bere biotzian viztu ba-
~ çaric: eta viçarren demporia da, Diabruac estuquetan çai-
tubanian, izu virtute santu oneitatic edozein ucatu eraquin
guenic (cerren sartzen da Çtsaicanaco amoriosa ere); bada ordu-
bat viztu biar dogu çuere biotzetan virtute santu a bera, zeni-
an Çtsaiac edo çuere çuria donçuiac estuquetan çaituban,
pecatu eraquin guenic; baña au aiquetan da, ez badaucaçu
çu beste videric, estutasun artatic pecatu baçoric urteteco, viz-
tute aren actoa equiñaçaz baño: zulacuac, Atisquidia, errazone-
tan çauri oi dira escrupulubetan, eta, santuric bein, nequez urtes
oi daube escrupulubetatic; ara bada vide errazia, Çtsaiaçazco ezari eta baiçai al-
~ ra zatar onetatic iques equiteco: Çtsaiaçazco ezari eta baiçai al-
~ de batera itzi biar deutsazu, eta ichinic bein betico zeure Animaco
~ belarriac, piso equin biar deustezu zeure escuarteco langueiari
~ Fede santuco çauzen çañan darian estutasuna, ez deutsaz iñoiz
~ eraantsun biar zuzenian; baizicaçu bein bacarric, eta betico esançe
~ deutsazu: nic sinisquetan dot, Eliza Ama Santa Catolica Apos-
~ tolica Çromacuac sinisquetan daben, çuztia ez çueiaçe eta ez
~ quichiaçe: azquenic equin biar dozu ichu ichuban zeure Confe-
sore aditubaren esana onerian demporan: au da bada vide erra-
za, Çtsai çuezuztia eta arroa lotsaturic eta mututuric iteco.
~ Çsan daiçuedazu orain, Atisquidia, ez dot nic nire vizian
~ aitu onerian Çaguerie, ez da ere, nola eguiten dirian acto oneic;
~ eraatsuten deutsut oren çañan, ez daucazula orregatic, zerça-
~ tic estutu, eta quezcaric batere artu; ez dou iñore acto Fedeco
~ obiaçoric eguiten, Apostolu Santubac eracutsi euscuben, Credoa
~ biotzetic esanaçaz baño, ez da ere Çsperanzaco, eta Caridadeco
~ acto obiaçoric ala Jaungoicoaçanaco nola Proçimo çuztiaca-
~ naco amoriosaçaz, Jesus Divinoac eracutsi euscun, Aita gu-
~ aren Oraxino ederra biotzetic esanaçaz baño; orobat acto Con-
~ trizinoco bat equiaz eguiten daberac: equiaz viztzen ditu bere
~ biotzian izu virtute santu oneic; ez daço, ez, aquinduric, acto on-
~ ic eguindaigula, Doctrinaco Cartillaren azquenian arguitasun
~ guaiaçoraco bonaan itsinic dagozen, modura; bacoitzac eracutsa
~ deutsa bere modura Jaungoicoari bere siniste, esperanza eta amo-
~ rioa; eta onela zuc ere, deçuea ez zequiala, eguindazu ederquio
~ dequiaren aguinduba.
Jesus Divinoaren deçue santubac aguinquetan deuscu
çuztiçi pecatu mortalaren azpian, equitia Munduco Çmpera-

dore Errege eta Prinzipiai beren esanac edo aguindubac, orobat onein bendeco Juez guztiai, Errietaco Alcateric dan chiquienari, eta, Justiziaco zigorra jasoten daben, Aguazilic arlotienari, guri aguinquetaco escuvidia daucain, gauza guztietan, dongac eta gaiztuac badira ere onerian Aguintariac, bardin pecatu ez bada aguinquetan deuscuben gauza; bacarric eguin daiqueguna da, Juez beerago bategandic, vide bagaric erabagui deuscula auziren bat, uste dogunian, bere ondorengo Juez nagusiaguagana humildade guztizcuagaz juatia, deseguindu deigun, bestiac bere vide bagatasunagaz eguin deuscula, ala erabaguiten auzia, uste ditugun, caltiac.

Pecatu icaragarria bada izango lizateque, onelaco Aguintariai dongac izanagatic ere gorroto euquitia, eta beren gorrotoz Machino jaguitia, Machinadac jasotia, eta Machinuai lagunquetia; aitu eguizu, nire Aisquidia, Apostolu San Pabloc zer esaten deuscun onen gañian: Anima guztia (diño) egon bedi Escuvideric andienen bendian; zergaitic ez dago Escuvideric Jaungoicoagandic baño (Munduban) erabaguiric dagozen gauza guztiac Jaungoicuac erabaguiac dira; eta ala Escuvidiari atzera eraguiten deutsanac Jaungoicoaren vorondatiari atzera eraguiten deutsa; beraz Jaungoicoaren vorondatiari atzera eraguiten deutsanac berac bere burubarentzat irabazten dau eriotza Seculacua: argatic egon zaitezte Aguintarien bendian, ez bacarric onein aserriaren bildurrez, baita ere (zeuben) Concienziagatic.

Ecusi dituzu, nire Aisquidia, Machinada negar garrizco oneic Franziaco Erreinu guztian, Españan ere bai guere ateetan Vitorian eta Vilvaon; beñere bada ez zaite

nastu onelaco Machinadetan, besteric onetaraco puztuba-
gaz, edo laguntasuna eguinagaz; eta bai saquingo bazeu
besteren batzuben asmua Machino saguiteco, azpitic emun
biarco dozu contu, demporaz, gaitza eragotzi daiquianari,
eta contu emute au eguin biarco dozu zeure Confesore, Errec-
tore edo beste Guizon suiziosoren baten bitartez; bacoitzac
bada bere aldetic dana eguiten ez badau, su oneriana it-
zunguiteco, indarra artu baizen leenago, eguiten dau pe-
catu.

Jesus Divinoaren Leguiac ez bacarric aguinquetan
deuscu, esan ditudan Dignidade eta Malla goicoetan
dagozenen aguindubac eguitia, baita ere aguinquetan
deuscu, euracatic, guere Gaitz Eguillac badira ere, aren
Divina Magestadiari erreguquetia.

Guertatu liteque, Erreinu bateco Jente guztia sagui-
tia Machino, Franziaco Erreinuban ecusi dogun leguez;
eta indar gueiagoren bitartez beren Erregue eta ondoren-
go Aguintari eguiazcuac quenduric, onein escuvide eta
aguinte guztia batere vide bagaric eurac artzeia; ¿ eguin
ete daiquegu pecatu bagaric vide bagaco Aguintari eta Er-
reguiaren aguinduba? ¿ eta onetaraco escaquetan deuscu-
ben juramentu santuba eguin ete daiquegu? onen gañian
erantzuten deutsut, nire Aisquidia, dala pecatu guztiz
andia, lenengotic bat bere vorondatez sasartia Machinu-
en aldetic, eta ez Erregue eta Aguintari eguiazcuen alde-
tic; bada onei eguin biar deustegu eta ez bestiai aldogun la-
~~gun~~ laguntasuna, Machinuac beriagaz urten ez daguien;
baña bardin nor beraren culpa bagaric saso badira bein vi
de bagaco aguintiagaz, eta bat azpian artu badaube, onec
eguin daique escaquetan deutsain obedienziaco juramentu-

ba, baita ere, aguinquetan deutsain, guztia, pecatu ez bada aguinduricaco gauza; zergatic, pecatu dan, gauzaric ezin batec eguin leique, ez eguitiarren, vizitza quendu gura badeutsai ere; bestela Infernura juango da, pecatu onegaz illten bada.

Jesus Divinoaren Legue santubac aguinquetan deutsa ere Christaun bacoitzari uso errazuazcora sartzen danian jaquin daguiala Doctrina Christianaren lau partiac; baña ondo jaquin biarco ditu Christaun bacoitzac lau parte oneic.

Martirio santuba

Guere Religino santuban Jesus Divinoac ifiniric daucan Leguiac aguinquetan deuscu, leenago guere vizitzac galdu daigula, aren Divina Magestadia ofendidu baizen; bada Jaungoicua amaitiac gauza guztiaz gañian ori berori eta ez beste gauzaric aiquetara emuten deuscu.

Eliza Santaren leenagoco demporetan Martiriac zirian, guere Fede santubaren Etsai zirian, Juez madaricatuben aurrian errimetasun andiagaz autorquetan eubenac Jesu Christo gure Jauna; eta beraganaco siniste santubaren autormenari esan oi eutsain Martirioa: baña gaurco egunian Martirio santuba da, autormen onegatic Juez madaricatubac Jesus Divinoaganaco gorrotoz bateri emuten deutsan, pena mueta guztien eta ondorengo eriotzaren sufrimentuba vorondate onagaz bere vizitzaren azquenengo instanteraño, Jesus maitiari deutsan amorioagatic; biar da bada, Martirioa eguiazcua izateco, batec vizitza quentzeia, bestiac vorondatez bere vizitza emutia, eta onetaraco bien aldetico motivoa (au da) Jesus Divino-

aganaco bataren aldetic gorrotua eta bestiaren aldetic amorioa; iru gauza oneic bagaric ez dago Martirio eguiazcoric.

Esanic itzi dot, nire Aisquidia, aurrenengo Capituluban, Mundu onetaco Emperadore, Erregue, Principe, eta ondorengo Aguintari guztien aguindubac eguin biar ditugula, eguitia pecatu ez dan guztian: orain itanduco deustazu; Jauna: bardin aguinquetan badeustai, ucatu daidala Jesu Christo gure Jauna, bere Fede santuba, eta Leguia; bestela vizitza pena; vizitza ez galtzeiarren, ao utsez ucatu neique, Jesus Divinuaganaco sinistia eta amorioa neure biotzian errime josiric daucadala? iñolaco moduz ez, nire Aisquidia: zergatic, ao utsez ucaquetia batec Fede santuba, da pecatu guztiz icaragarria eta Fede santubac berac eracusten deuscuna; Jesus Divinuac esaten deuscu bere Evangelio santuban: ni autorquetan nabena Guizonen aurrian, nic ere autortuco dot Zerubetan daguan nere Aitaren aurrian; eta ucaquetan nabena Guizonen aurrian, nic ere ucatuco dot Zerubetan daguan nere Aitaren aurrian: ez diño: ni autorquetan nabena, edo ucaquetan nabena neure aurrian, baizican Guizonen aurrian, onetan aiquetara emuten deuscula, biotzaz leguez aoz ere autortu biar dogula aren Divina Magestadia, bere Etsai dirian, Munduco Juez madaricatuben aurrian, onegatic vizitza quentzen badeuscube ere, bardin gura badogu, Zeruco glorian beretzat ezagutu gaian bere Aitaren aurrian: egui au Eliza santan eta Christandadeco guere Religino santuban da Fedeco egui erabaguia; eta au dudan ifintia, da Fede santuba ucaquetia: San Pedro Apostolubac ere negar malco andiac itzuli zituban onerian pecatubagatic, bere Maisu Jesus bildurrez ucatu ebenian ao utsez.

Munduco Aguintariac bada naiz eguiazcuac, naiz, Machino jaguiric, Jente indarrez eguiazcuen escuridiac vide bagaric artu dituben, Aguintariac diziala, ifinten bazaitube estuasun onetan, edo Fedia ucaquetaco edozizitza galtzeco, leenago zeure vizitza emun biarco dozu, Fede santuba ao utsez ucatu baño, zulacuen artian ascoc (sarritan entzun deustedan leguez) ala uste ez badaube ere: eguia da; onelaco Aguintari Fede santuba ucatu eraguin gura deutsubenen escubetan jausi baño leenago, albadozu igues eguin bian dozu, eta ezcutau zeure buruba aldozun toquian, Jesus Divinoac gure egempluaco igues eguin eben leguez ascotan bere billa vizitza quentzeco ebiltzen Judegubacandic, onein escuvetan jausteco, bere Aitac erabaguiric eucan, dempora etozzi auzuan: eta ala esaten deuscu bere Evangelio santuban: perseguitan zaitubenian Ciudade orretan, igues eguizube beste batera: baña anchiquetan bazaitube, autortu biarco dozu aoz, ucatu eraguin gura deutsuben, Fede santuba, eta ondoren emun, onegatic quentzeen deutsuben, vizitza: orain, Aguintaria ez bada, zeure Fediaren errazoia escaquetan deutsuna, baizican aguinte bagaco beste edozein, zure barruco barri jaguin gura dabenen bat, onelacuari erantzun daiquiozu, zu zerc sartzen zaitu orretan? edo oro bat mutu baten antzera izago zaitezque auzzera, ezercho erantzun bagaric; baña oni ere ez ucatu zeure Fedea. ao utsez, salatuco zaitubau bilduzzez.

Apostolu santubac eta onein ondoren Eliza Santan orainguino izan dizian Martiri santu guztiac onela sinis-

tu euben Jesus Divinoaren Leguia bere Fedia autor-
quetiaren gañian; eta ala Guizonac, eta Ꝛmacumiac, gaz-
tiac, eta zarrac millaca dira, lotsari guztiz andiac, eta
pena izugarriac irago ditubenac, eta ondoren beren
zanetaco odola itzuliagaz beren vizitzac emun ditu-
benac, euracatic Curutzian illzan, Jesus biotzecua
biotzaz leguez aoz ere autorquetiarren; eta, nola odo-
la itzuliagaz Juan dan Munduban, ala Juan da Fede
santuba zabaldubagaz, eta sustrai erremiac ezarri-
agaz Mundutarren biotzetan; beren biotzetan ondo jo-
~siric eucain Jesus Divinoaren esana: ni ucaquetan na-
~bena Guizonen aurrian nic ere ucatuco dot neure Aita-
~ren aurrian: bestela guere eta Jesus Divinoaren arteco
tratu au ezin izan zitequian bardiña, guc bera ucatu
Munduban, eta berac gu autortu Zeruban.

Ao utsez Fede santuba ucaquetan dabenac eguiten
deutsa Aguintari madaricatubari, esque dan, guztia; ba-
da gueiagoren esque ez daoco; eta aozco ucaqueta onen ja-
quindirn dirian eta entzueria daucain Christaun guzti-
en biotzetan besteren egemplu donguiaren bitartez ar-
galduco lizateque Fede santuba; nire contura; Aisquidia, Apostolu san-
tubac eta ondorengo Martiri gloriosuac aozco ucaquetia-
ri equin baleutsai, Jesus Divinoa anchinatic eguan az-
turic Lurraren gañian: biotza bada Jaungoicoarentzat
premiñacua da; eta aozco aguiria, biotza ez dacusten,
Mundutarrentzat.

Ꝛsan daiquedazu orain, nire Aisquidia: ¿ Jauna: one
laco estuasunian Aguintari madaricatubac bateri batez
ere Ꝛmacume gazte, honesta, eta bildurti bateri emun dei-

quion lotsari, min garratz, eta eziotza izugarriari begi-
za egon bagaric, obe ez da, batec bere Burubari vizitza
quendu, Jaungoicoagaz ondo daguala? ez iñolaco moduz,
Aisquidia: bada au izango lizateque pecatu guztiz andia;
eta, onela beren burubai vizitza quentzen deusten, guztiac
dituza zucenian Infernura, bardin bururic jausita dagoze-
la izan ez bada, beren burubai vizitza quentze au; iñori vi-
zitza quentzeia pecatu andia bada; nola izango ez da, ba-
tec bere burubari quentzeia? ez dago aiñ Progimo urric, no-
la dan nor bera bere buruba rentzat; argatic Eliza Arma
Santac ere aguinduric dauca, onelacuen Corputz illai ez de-
quiela Lurric emun Lecu santuban (bai da) beste Christaun
leial defuntuben Corputzac santuric dagozen, toquian, baizi-
can campuan beste edozein toquietan Asto eta Mando illen
artian bada ere; ascoc equi au ondo ezagutu eta sinistuco
baleube, ez lizateque jausico (sarritan eciusi oi dituqun leguez)
beren burubai vizitza quentzeco, negargarrizco zoraque-
rian: Christaunac galdu biar dau bere vizitza Jaungoicoa-
ren, edo beste Guizon baten edo beste uste bagaco gauzaren ba-
ten aldetic, equinic beti aurraz (Jaungoicoac aguinquetan da-
ben leguez) beragan dan, guztia, bere vizitza gordetaco eta
luzaquetaco, bera galtzeco eta laburquetaco, videtic igues
equinagaz; au da, batec Jaungoicoaren voromdatera bere vizit-
za galtzeia, eta bere Animari gorroto santuba euquitia, Jesus
Diriuac esaten deuscun leguez; eta onela bere Animiari bere
Corputzetic jareguiten deutsanac Jesus maitiaren amoriоz,
gordeetan ditu bere vizitza, bere buruba, eta bere Animia se-
culaco vizitzaraco.

Munduco Aguintariac, esango deustazu, asco daquie, eta bein Christandadia quentzera asiteraño, oquertu ezquero, niri eta nilacuai larregui baquian itzico deuscube; eta beren gorroto guztia euroi eta eurolacuai, gure Animetaco Arzainac dirian aldetic, euquico deuste; zergatic badaquie, Arzaina Ardien ingurutic quendu ezquero, edo azpiraturic beren bendera ecarri ezquero, onen bendeco Ardiac berez datozela ſaustera Otsuen aguinetara; eta nic eta nilacuac zer eguin daiquegu, guere inguruban edo gañian ez badaucagu Animetaco Arzain leialic, eta, bai, ugari liburu onen ogueta emeretzi garrengo oſiaren espaldan eta urrenguan berorrec aiquetara emuten deustan, leguezco Arzain ucatubac, guezurtiac, eta Animetaco Otso lapurrac? Ha! nire Aisquidia! eta zeiñ egui andia diñozun, zu eta zulacuen galdu biarra onelaco dempora negar garrizcuetan datorrela zeuben gañeco Arzain leialac quentzetic, eta, itzi enian, Arzain ucatubac eta guezurtiac iztetic! baña zeure Animaco beguiac ondo zabalic erabilli biarco dituzu, ecusteco, eta ezaguquetaco Arzain ucatu oneic, eta, ezaguturic, euracandic igues eguiteco; baita ere Arzain leialen bat billaquetaco; eta mesede au gau eta egun Jaungoicoari escatu biarco deutsazu ainbat confianzaric andienagaz; eta ondoren pecatu mueta guztietatic igues eguinic preminan dagozen Progimuai eguiezu aldituzun obra misericordiazcuac: eta nic emuten deutsut verba Jaungoicoaren aldetic, ez zaitubala itzico Otsoaren aguinetan, eta eruango zaitubala Zeruco videtic zuzen bere escutic, ſausten itzi bagaric.

Jesus Divinuac esaten deuscu onela bere Evangelio santuban: esaten deutsubet zubei nire Adisquidioi: ez zai-

tezte bilduatu Corputzeco vizitza guentzen dauben oneica-
tic, eta onegaz ostian, gueiago zer eguin, ez daucainacatic: era-
cutsico deutsubet bada, noren bildur izan biar zariain: aren
bildur izan zaitezte, zeñac Corputzeco vizitza guendu ezgueio,
dauca escuvidia, Infernuza botateco; ala esaten deutsubet: onen
bildur izan zaitezte: bai, nire Aisquidia; euqui biar deutsagu
bildur santu au bacarric, guere Corputzeco vizitza guendu-
baren ondorian, guere Animac Infernuco leze izugarri aieta-
ra botateco escuvidia daucan, Jaungoicoari, eta ez besteri: guz-
tioc daquigu, usteric guchien dogurian illgo gariana, eta
vizitzaiaz batera gura eta gura ez, emen billatu ditugun, Mun-
du onetaco gauza guztiac emen itzi biarco ditugula; eta zora-
queria andia izango lizateque, Christaunac onei ez itzi gura
izatia vozondatez, Jesus maitiac aguinguetan deutsanian,
bera ucaturic, bere Itsai vizi izatiaren, noizeraño ez daqui-
an, demporra labur baten; au eguiten dau bada, Martirio santu-
bari vide dongatic igues eguiten deutsan, Christaunac.

Nola Martirio santu au dau Jesus Divinoaren aiñ gus-
to andico gauza, bere poderio guztia zabalquetan dau, Mar-
tirio onetaraco vidian daguan, Christaunari laguinquetaco,
pozic irago daguian Martirio santuco lotsariac, miñ garrat-
zac, eta azqueric eriotza, Eliza Santaco Martirietan ecus-
ten dogun lequez; eta ala obra santu au gueiena edo guztia
da, Jesus Divinuac bere graccia santubagaz gugan eguiten
dabena, guc guere aldetic dana eguinagaz beste bague.

Martirio santu onetaraco vidian daguan, Christaunac
ez ditu uztu biar bere garoñac, zer itaune eguin leiquion Ju-
ez edo Aguintari madarricatubac, eta berac zer erantzun
ete leiquion, asmaitiaren; Jesus Divinua bera da, onela esa-

~ ten deuscuna Evangelio santuban: eruaten zaitubenian (Jus-
~ tiziaren escubetara nire gorrotoz) ez zaitezte Jasarri asmaitan
~ nola edo zer verba esango dozuben; zergatic ordu artan emun-
~ go iatzube, zer verba esan biar dituzuben; bada zubec ez za-
~ rai, verba eguiten dozubenac, baizican zuben Aita (Jaungoi-
~ coaren) Espirituba da, zubetan verba eguiten dabena: emun
biar deutsa, bai, aren Divina Magestadiari humildade guz-
tizcuagaz esquer andiac, Martirioraco vidian ifiniagaz eguin
deutsan, mesede andiagatic; escatu biar deutsa bere Gaitz-
eguilla eta Etsai dan, Juez edo Aguintari madaricatubaren
onagatic eta parcazinuagatic, berac aurraz parcaquetan de-
utsala eguiten deutsan, gaitz guztiac; erregutu biar deutsa
aimbat confianzaric andienagaz bere gracia santubaren la-
guntasuna, Martirioco coroa zorionecua anchiquetaco;
eta, eriotzaco orduban aurquiquetan dan beste edozein Christa-
unaren antzera, confesau eta comulgau biar dau pecatu mor-
talaren azpian, bardin badauca, Caridade au eguin gura de-
utsan, Sazerdote Catolico eta leialen bat, eta izten badeutsai egui
ten languei santu oneic; eta onetaraco eraric ez badau, euqui
biar dau bere pecatu guztien gañeco damutasun sobrenatura-
la, naiz Contrizinocua, naiz Atrizinocua.

~ Jesus Divinoac diñuanez bere Evangelioan, azquenerañо
~ errime diraubana bere amorio santuban, au salvauco da; onela
guertaturic bada iragoten dabenac Martirio santu au aren Divi-
na Magestadiaganaco amorioz, errime daguala bere vizitzaren
azquenengo instanteraño, bere zanetaco odolagaz ifinten dau bere
Animia Edurra baño zuriago, Ychasuan ur tanta aña millue pe-
catu mortal leenago beucan ere; eta onen Animia Purgatoriora ba-
garic dua zuzenian Zeruco gloriara; zergatic Martirioac Bautis-
moco Sacramentubaren antzera parcaquetan ditu pecatu mueta
guztiac eta beren pena eterno eta temporal guztiac: Ho! Martirio
santubaren zorionecotasun parebaguecua!

Eliza Santatic campora vizi diranac

Eliza Santan bacarric eracusten da, eta billaque-
tan da Zeruraco vidia; eta ala, Eliza Santatic campora vizi diri-
an, guztiac dabiltza urrin Zeruraco vide santu onetatic, eta con-
denaitan dira: oneic dira Eregiac, Apostatac, Zismaticuac, Ju-
degubac, eta Jentilac; baita ere Escomunio nagusiagaz loturic
dagozenac, Eliza Santac, ecusiric beren gaiztaquerien gañeco emi-
endia eta satisfaczinoa, bere Ministro nagusien bitartez Escomu-
niotic ascatu arteraño.

Eregiac, Apostatac, Zismaticuac, zuzenian Eliza Santatic
igues equinac badira ere, equiaz batiaturic dagozen leguez,
Christaunac dira, baña Christaun ucatubac, eta Soldadu Fro-
petatic igues equiten dauben, Desertorien antzeracuac; ezin sal-
vau ditezque bada, beren guezurrezco sinistiac ucaturic, eura-
catic dumuturic, eta, siniste equiazcoa autorturic, biurquetan
ez badira, beren Ama dan, Eliza Santaren amoriozco Altzo-
ra, nundic igues equin euben.

Eregiac esaten deustegu, Eliza Santac sinisquetan ditu-
ban, equiric gueienac autorturic, bat edo beste ucaquetan ditu-
benai: Apostatac esaten deustegu, Eliza Santac sinisquetan
dituban, Fedeco equi guztiac, edo equiric nagusienac eta aur-
renengoenac ucaquetan ditubenai: eta Zismaticuac esaten de-
ustegu, Aita Santu Erromacua Eliza Santaren Buru eta Aguin-
taritzat ezagutu gura ez daubenai; bada izanic Eliza Santa-
ren Buru bat eta Jesu Christoren Vicario bat bacarra, eta au
Aita Santu Erromacoa, equi santu au ucaturio, beste Buru ba-
ten bendian vizi dirian, Christaunac, Fede santuco beste Mis-
terio edo equi guztiac sinisquetan baditube ere, dira Eregiac,
Zismaticuac esaten deustegunac: oneic guztioc bada, Eliza
Santac Fede santuco equitzat erabaquiric daucan, gauzaren
bat edo beste, Jaquinian sinistu gura ez badaube, ez daucai Fe-
de santuco virtuteric, galdu daube, bai, virtute sobrenatural,
eta Divino au, zeña bague eziñ iñor salvau diteque; eta, beren bio
biotzetic campora eracusten badaube beren siniste baguetasu-
na, nolacua dan beren siniste baguetasuna, alaco izena daucai
(esanic itzi dodan leguez) ia Eregiena, ia Apostatena, edo ia Zisma-
ticuena; Eliza Santaren Miembroac izatiari izten deutsai; Eliza
Santac berac ere bere Legue santubetan botaten ditu oneic guztioc
bere Altzotic eta Echetic Escomunio nagusiagaz loturic; eta, eriot-
zaco orduban edozeiñ Confesorec absolvidu badaiquie beren peca-
tutic eta Escomunio nagusitic, ordu onetatic campora Erromaco Aita

Santubac bacarric dauca onetaraco escuvidia.

Eliza Ama Santac ez bacarric, Fede santuba ucaquetan dauben, Christaunac izten ditu lóturic Excomunio naguiagaz, baita ere, Fede santuba ucaquetan ez dauben, beste Christaunic asco, bardin eguiten baditube beste Christaunen Animaco eta Corputzeco caltéraco diriuan, gauztaquería izugarrien batzubec: onelacoac bada Eliza Santac dagúbotaten bere Eleutic (cau da) beste Christaun Catolicoen artetic, eta ucaquetan deuste Excomunio nagusi onen videz beste bere Miembroacazco comunioa Sacramentubetan, Meza santuban, eta onerian beste ondarun espiritual batzubetan, baita ere, Munduonetaco vizitzan eguneroco guertatu oi dirian, beste gauzaric ascotan; eta, ala Excomunio naguesi oneqaz lóturic dagozen Christaunac, Fede santuba ucaquetan daubenac izan ezagatic, ez dira Eliza Santaren Miembroac, Eliza Santac berac, ecusiric beren emendia, eta gaizqui eguiñen gañeco daunaria, [illegible] beren Excomunio naguesitic asceatu arteraño eco, bitarte guztian: eguiaz batzaturicaco beste guztiac, Fede santuba Fede santuba ucatu bagaric, guztiz dongaro vizi diriranac ere, dira Eliza Ama Santa onen Miembroac.

Judegubac eta Gentilac batzatzacac dira; eta aurgatic ez dira oneic izan beñere Eliza Santa bacar onen Miembroac, Erege, Apostata, Zismatico, eta Excomulgaubac izan dirian leguez; au aiquetan da, Eliza santa bacar au, orain dauean, Legue graziozcoa inago zanetic ona; bada esanic guelditu da, Eliza Santaren lenagoco Leguian Judegubac ziriala bere Miembro eguiazcoac.

Judegubac dira, Moises Profeta santubac emun eustenac, legue escribidu eta zarrari jarraiquetan deustenac: aquirian dago, Legue santu onen azquena zala gure Redentore eta Salvatzalla Jesus Divinoa; etorri zan bada, beren Leguecac esquiten eusten, Legue Gnalle barri eta Salvatzalle gozo au; biotz eta soxondate oneco Judegubac ezagutu euben Jesus Divino au beren Salvatzalletzat, eta beragan sinistu euben; baña beste Judegu zatarric ascoc ichi zituben beren Animetaco belarriac, Jesus Divinoaren eguiari eta aimberste mirarini, beragaraco gorrotoz ichuturic; eta azquenic ereatu eutsain Poncio Pilatos Presidentiari, Cruzifican josirric quendu eguisla vizitza Guizon ari; zan Pilatos au Gentila, ala ere ezagiquetan eben Jesus Divinoaren ontasun guztizcoa, eta Judegu ben ecusi ezina zala escavide onetaraco sustrai guztia; iquiñ eben, eta larriquetan zan, Jesus maitiari vizitza quentzeagaz; eta Judegu Machino oneic, larritasuna quentzearen Presidentiari, diadarca esan eutsain: bere Odola (izan bedi) gure gañian eta gure Semeen (edo Jatorrien) gañean: onela, beren Leguiaren Sabeletic (esateco modura) urten eben, Salvatzalla maitagarri auricatu euben; bere Odol adoragarrian leitu zituben beren escu madaricatubac; madaricatu zituben

beren Burubac eta beren Jatorriac; eta azquenic guelditu ziri-
an beren Legue zar eta illian, izango ez dauben, beste Salvatzalle
bateri ichadeten: bai, Aisquidia; Judegu zatar eta donga oneic di-
ra, gaurco egunian Judegutzat ezaguquetan dirianen, Guraso
eta Maiñu madaricatubac.

Jaungoicoaren ezaguperaco Jentiac, bein dongatu ezquero, bes-
te guztiac baño dongaguac izatera datoza; ala Judegu oneic ere,
ondoren gaiztaqueria mueta guztiac eguitiari equinic, Jentilac
eurac baño, zeñen aguinduben azpian vizi zirian, neurri bagueco
dongaguac izatera etorri zirian; argatic guztiz laister ecusi eu-
ben beren gañian, Jesus Divinoa Curutzetic eseguiric illten ecusti-
arren, beren Burubai eta beren Vmiai ezarri eusten, madarica-
zinuaren erru izugarria; bada Erromaco Emperadore Jentilac,
asperturic, beren bendian vizi zirian, Judegu onein gaiztaqueria
izugarriacaz, artu euben asmoa, Nazino zatar au galtzeco; oneta-
raco, Jesus Divinoa ill zanetic, berrogueigarren urtian bialdu zitu-
ben beren Soldadu Tropac Jerusalengo Ziudadera; Soldadubac
inguratu euben Ziudadia alde guztietatic, Judegu neurri bagaguac
[illegible], beren Legue illac aguinquetan eusten, Pazcuaco Jaiandia
gordetara, erbestetic etorriric zirian, demporan; artu euben Ziu-
dadia; irago zituben ezpatacaz Emacume eta Vmetarañaco guz-
tiac; lurrera bota euben Ziudade guztia; gueiago zana, banatu
euben, Salomon Erreguiac Jaungoicoaren aguinduz eguin eben,
aiñ mirari andico Templo santubacar ura, zeñetic campora, ora-
ingo Eliza Santa bacar onen Ispillu vizi bat zan leguez, ezin es-
quini eicuen Judeguben Sazerdotiac Sacrifiziorie aren Divina
Magestadiari; quendu euben, Moises santubac eguin eben, Tes-
tamentu santuco Cucha, zeñaren aurrian Jaungoicoac, aguertu-
ric bere poderio guztizcoa, azpiratu eta deseguindu zituban sar-
ritan bere Pueblo santubaren Etsaiac; eta azquenic bota zitu-
ben, Jerusalenetic campora vizi zirian, beste Judegu guztiac be-
ren Errietatic eta Echeetatic; eta onela Judegu Machino oneic
beinguan guelditu zirian Sazerdote, Templo santu, Testamentu-
co Arca, Legue, eta Erregue bagaric; eta arrazquero milla zaz-
pireun eta aimbeste urteetan vizi dira banaturic Lurraren ga-
ñian beren Errietatic campora batian aguirian bestian ezcutu-
ban, aldauben moduban eta aldauben Bazterretan, beti cauti-
verioan, eta Mundu guztiac gorroto deustela: onela, Jesus Divi-
noari gorrotoz itzuli eraguin eutsain, Odol santuba eta adora-
garria Jausi zan beren, eta bereen Vmien gañian, zeña dan, esa-
nic itzi ditudan, beren madaricazinuaren eta gorroto ichubaren
erru izugarria; bai; beren pecatuba eta gaiztaqueria izugarria
Arpeguian eta guztiz aguirian daucai.

Judegu oneic, nire Aisquidia, guztiz madaricatubac eta
Christaun Catolicoi gorroto andia deuscubenac dira; bada,
beren artian vizi zan, Jaungoicoac beren neurri bagueco biotz go-
gortubacatic itzi eusten alde batera, eta ifini eben bere vizi lecu-
ba, eta Erreinuba, beren Salvatzalletzat bialdu eusten, bere Se-

me Jesus Divinoagan eguiaz sinisquetan dauben, guztien biotzetan, naiz Sinistzalla oneic izan ditezela Judegubac eta onein Jatorriac, naiz izan ditezela Jentilac eta Jentilen Jatorriac, nola garian gu: eta beren guganaco gorrotoric andiena sortzen da; zergatic biotz guztitic autorquetan eta ezaguquetan dogun Seculaco vizitzaren Emallatzat eta guere Salvatzalle eguiazcotzat Jesus Divino au berau, zeñari eurgan (Gurasoen) blasfemuac, guezurtiac, eta gaitz eguillac guezurti blasfemo eta gaitz eguillatzat Curutzian vizitza quendu eraguin eutsain guezurrez, gorrotoz, eta ecusi ezinez: Ho! Jesus neurri bagueco santuba eta guztiz maitagarria! Ho! Judeguben ichutasuna eta gogortasun icaragarria!

Jentilac esaten deustegu, Jaungoico eguiazcoaren eta bere Legue santubaren entzueraric eta ezaguperaric ez daucain, Jente mueta batzubei: oneitatic batzubec eguiten ditube, Errazoiac eta beren Legue naturaleco Mandamentubac eracusten deusten, obra onac, baita ere, eragozten deusten, gaiztaquerietatic igues eguiten daube, San Pablo Apostolubac aiquetara emuten deuscun leguez, esaten deuscunian: Legueric ez daucain, Jentilac berenez eguiten ditube, Legueco gauzac diranac: onerian Jentilac bada izango daube Jaungoicoaren graziaren laguntasuna, bere ezagupera santura etorriric salvau ditezen; zergatic gure Fede santuban gauza erabaguia da, Jaungoicoaren aldetic ez gariala beñere galdubac izango; eta ala, euregan eta beren aldetic dana eguiten dauben, onerian Jentilac Jaungoico guztiz onac bere grazia santubagaz ecarrico ditu bere ezaguperara, eta Bautismo santubaren videz Eliza Santaren Miembro eguiazcoac izatera: beste Jentil mueta batzubec barriz vizi dira, batere lotzacaco biotz nasai batzubecaz gura dauben, guztia eguiten daubela, alde batera itziric, Errazoiaren arguitasunac eracusten deusten, guztia: eta onelacuacatic esaten deuscu San Pablo onec beronec: Legue bagaric pecatu eguin dauben, guztiac, Legue bagaric condenauco dira.

Ecusiric, Aisquidia, zeintzubec dirian Eliza Santa bacar onen Miembroac, eta zeintzubec ez, premiña dozu jaquitia, zer Legue edo Mandamentu ifini deutsun Eliza Ama Santa bacar onec beronec, naastu ez zaitian, campotic vizi dirian, Etsai madaricatu oneicaz; bada oneic gugaz batera vizi dira Lurraren gañian, eta gauza jaquiña da, Eliza Ama Santa bacar onetatic campora ez daguala salvazinoric iñorentzat: bardin badaucazu jaquinian zeure bendian, edo iracurten badozu, oneitaticoren batec Religinoco edo Fedeco gauzen gañian etararicaco, Liburu edo Paperen bat, gueldiquetan zara loturic Escomunio nagusiagaz; eta eriotzaco ordutic campora Aita Santu Erromacuacbaño bestec ezin ascatuco zaitu Escomunio onetatic: ezin euracaz disputaric artuco dozu Religinoco eta Fedeco gauzen gañian; au Eliza Santan Obispo Jaunen, eta oneic bialquetan deusten, Misioneruen langueia da bacarric: ezin egongo zara beren guezurrezco Religinoco Zeremoniai beguira, ez da ere, eguiten dituben, Sermoiac entzuten: ezin euretatic iñor artuco dozu zeure Echeraco Nescame edo Morroetzat; ezin zeu ere edo zeure Familiacoric egon zaitizquic beren Echeetan Mirabetzat: au guztiau aguinquetan de-

~uscu Eliza Ama Santac bere Leguetan, siniste guezurrezco
~Jente madaricatu onein veneno ichascorragaz galdu ez gaiti-
~an: urrin bada, Aisquidia, ibilli zaite beti onelacuacandic.

Oneic onela diriala; zer esan daiquegu gaurco egunian ecusi oi dirian plaza Guizon arro batzubecatic? atzo Arto pus-quiñ bat aora zer eruan ez eucainac, zembat Jangoico diri-an eta ondo zeñaquetan ez daquienac, eguin izan dituben errialen batzubecaz (eurac daquie nola) duaza Baionara be-ren Vztaridien ondoren, aculubac escubetan ditubela, edo Zaldi gañetan gabetic goizera Caballero eguinic; eta an edo-zeñegaz eta edozein verba mueta esatera Jasarten dira, eta epeltasun andiagaz, edo aimbat barrez egoten dira, entzuten gure Religino eta Fede santuco Misterioric andienen gañian alditezquian verbaric oquerren, eta donguenac; eta ondoren eurac ia videtan, ia Ostatubetan, ia Tabernetan, ia Plazabizcar-retan dempora irago garri egon oi dira esaten beren Lagu-nai barrez eta barre eraguinagaz, Baionan Santi Espiritu-co Judegubacaz euqui zituben disputac Fede santubaren ga-ñian: eta barre eguiteco gauza dana; Baionan gure Fede san-tubaren gañian gaizqui verba eguiten dauben, guztiac Fonto Lapico onein ustian dira Santi Espirituco Judegubac: igues egui-zu bada, nire Aisquidia, onerian Plaza Guizonacandic; berent-zat beren errialac, eta beren ascotacotasuna.

Esango dozu zeure artian, nire Aisquidia, ¿zertaraco Reli-gino santubaren eta oni darraiquion gauzen gañian orrembeste erautsi? norentzat? eta Necazari bat naizan onentzat? Ha! nire Aisquidia! larguichi da, esan deutsudana gaozen demporetara-co; eta orrembeste Jaquitia premiña dozu, uts eguin ez daizun Zeru-raco vide zuzena, eta vide onetatic oquerturic artu ez daizun Infernu-raco vidia, iñoizco demporan Españan guertatuco baliz, Inglaterran eta Olandan guertatu zana, eta atzo guere beguiacaz Francian ecusi doguna: Jaungoicuac bada gorde daguiala Españaco Errei-

nu zorioneco au ecusgarri arerianetatic, eta oñian euqui deigula, daucagun, Gobiernuba eta Ynquisizinoco Tribunale santuba.

Eldu gara, nire Aisquidia, dempora zatar eta negargarrizcuetara, zeñetan ia Fede santuba, guere salvazinoraco dan, arguitasun bacarra illundubagaz doian, Esperanzia bada ez badacua, Caridadia guichitubagaz, eta pecatuba pecatubaren gañian gueitubagaz; au da bada Evangelio santubac aiquetara emuten deuscun Juizioco egunaren iru señale aurrenenguetatic bat.

Gaurco egunian ecusten dira Christaun epel batzubec, Ho eta zembait! zeñac, esaten deuscu Espiritu Santubac, asico dala botaten bere aotic, batec bota oi daben antzera, estomangubac artzen ez deutsan, Janaria: Christaun batzubec edozein soñutara danza eguiten daubenac, Christaunen izena eta azala bacarric, eta barrubac utsic daucainac; eta poztzen dirianac, beguiacaz ecusten dituben, gauzacaz bacarric, aimbeste Yzar ederregaz, Ydarguiagaz, eta Eguzquiagaz Josiric ecusten dauben, Zeru miragarrizco onetan batere zer eguinic, eta zer ecusiric ez baleucain leguez.

¿Nundic etorri da Franciaco galdu biarra? ¿nundic Españari aimbeste negar garri eta Jaungoicoaren azote, nola dirian gose, izurri, lur icara andiac, eta guere egun guztietan ecusten ditugun bata bestiaren ondorengo guerrac, beñere guelditzaca? Ha! nire Aisquidia! ez da, ez gure Jesus maitia, Christaunen izen bacarragaz eta azal utsagaz beretzat ezagutuco gaitubana; bera da, erabaguiten deuscuna egui santuau bere Evangelioan: esaten deustan guztia (diño): Jauna, Jauna: ez da sartuco Zerubetaco Erreinuban; baizican Zerubetan daguan nire Aitaren vorondatia eguiten dabena, bera sartuco da Zerubetaco Erreinuban.

Ea bada, nire Aisquidia; Christaunac beti zain egon biar badaube, Diabrubaren atzamarretan Jausi ez ditezen, iñoiz ez gueiago orain eta emendic aurrera baño, batez ere Ja-

milletaco Burubac eta Gurasuac: dempora guztiz zatarrac dira oneic, Munduco pompa eta zoraquerietan batec bere biotza ifinteco: ez eguizu bada itzi, nire Aisquidia, zeure escutic Aita Asteteren doctrinaco cartillari; ez da ere Eliza Santan Ministro leialac eguiten dituben, aldituzun, sermoiac entzutiari, batian eta bestian icasten dituzun, gauzac, sinisturic, eguiteco asmo edo gogo eguiazco bategaz; onetaraco sermue bacoitza entzun aur guztian emun biarco deutsazu irago labur bat zeure biotzian, Jesus Divinoac, bera inguratu eben Sabela, eta, titia edaten emun eutsain, Bularrac zorionecuac ziriala, diadarca esan eutsan, Emacume bateri erantzun eutsan, egui santubari verba oneicaz: obeto esatiarren, zorionecuac dira Jaungoicoaren verbia entzuten eta gordetan daubenac; lenengo entzun eta ondoren gorde entzuna; zergatic, bat eguiaz zorionecua izateco, ez dago beste videric au baizen, lenago aiquetara emunic itzi dodan leguez, Jesus Divinoac eracutsi euscun, siniste eta Leguiaren gañeco capituluban.

Guizonaren azquen Fina

Guizonaren azquen Fina da Jaungoicoa bera; bada eguina da, Zerubetan Jaungoicoaren arpegui eder eta zaragarrizcua eternidade guztian Aingueru leialacaz batera ecusten egoteco, eta bera alabaitaco eta bedeincaquetaco.

Trinidade santisimuaren aurrian Bienaventuradubac aiñ edertasun andiagaz inguraturic aurquituco dira, zeinda izango dirian edertasunian Eguzquiaren antzecuac, Jesus Divinuac aiquetara emuten deuscun leguez bere Evangelio santuban: Justoac (diño) beren Aitaren Erreinuban Eguzquiaren antzera dist eguingo daube: berac ere Taborco mendira igoric eracutsi gura izan eustenian bere iru Apostolu San Pedro, Santiago, eta San Juan Evangelistari bere Corputz gloriosuaren Arguitasuneco dotia,

~ eracutsi eusten bere arpeguia Eguzquia duiñ arguia, eta be-
~re erropac Edurra duiñ zuriac; edertasun onec pozen pozez
guztiz zoraturic izten zitubala iru Apostolu aiec batez ere San
Pedro; Jesus Divino au da bada Guizona dan aldetic bere Es-
posa Eliza Santaren eta Bienaventuradu guztien Buruba.

Zorionecua bada izango da egun ura, zeñian Jaungoi-
coaren fin bagueco arguitasunac inguratuco gaituban alde
guztietatic, eta iragoco gaituban barrutic eta campotic, eguiten
~ditubala beste aimbeste Eguzqui eder, zembat Bienaventura-
~du dagozen Zerubetan.

Mundu zabal onetan aiñ urrinetic argui eguiten dar
ben Eguzqui bacar batec aimbeste arguitasun zabalquetan
badau; nolacua izango ete dan Zeruco arguitasun ederra
Jaungoicoaren aurrian aimbeste millue Eguzquiacaz, zem-
bat millue Bienaventuradu dagozen? Ho! eta zein egun zorio-
necua izango dan, eternidade guztian iraungo daben, egun
au! egun bacarra, zeñari ez darraiquion gauric eta biarco
egunic; zeñian ez otzac eta ez beruac daucai zer eguinic, ez
euriac, ez edurrac, ez trumoiac, eta ez negubac daucai sarre-
raric; zeñian Jaungoicoaren arpeguico arguitasun ederra
azpico Lañuac beñere estalduco ez dauben; eta zeñian azque-
nic Bienaventuradubac pozen pozez ain zoraturic aurquitu-
~co dira beren zorionecotasunagaz, zeinda milla urte berentzat
~izango dira, guretzat atzo irago dan, eguna leguez.

Egun eder eta zorioneco au gure gañian zabaldu de-
dinian, eguiaz guertatuco da gugan David Erregue eta Pro-
~feta santubac esaten eutsana Jaungoicoari: zure arguitasu-
~nian ecusico dogu arguitasuna: virtutetaco Javiaren Ziuda-
~dian ecusico ditugu (gauzac) emen etzun (eta sinistu ditugun
~leguez)

Guztiz ederra, gloriaz betia, eta maitagarria da Zerube-
taco Erreinu au, zeñian Jesu Christogaz batera erreinaitan dau-
ben Bienaventuradu eta Santu guztiac; ez daucai batere quezca-

ric, Lapurrac ostuco deustenic, daucain, zorionecotasuna; ez daucai ere bildurric, Diabrubac beren inguruban gueiago ibillico dirianic, ez da ere Mundubac eta Araguiac gueiago guerra eguingo deustenic: millueca dira Erreinu eder onetan vizi diranac Anra eta Guizon Nazino eta Lenguage guztietacuac, contau ezin litezquian gara, San Juan Evangelistac esaten deuscun leguez.

Nolacuac dirian Erreinu baten vizi dirian Jentiac, alacua izan oi da Erreinuba bera; nolacuac izan biar ete dau bada Zerubetaco Erreinu eder onec? emen ez dago iñor gaiñoric, ez errenic, ez manchuric, ez ichuric, ez begui bacoitzic, ez gorric eta ez muturic, ez zarric eta ez umeric, ez ichusiric eta ez zororic, ez arloteric eta ez billaunic: guztiac dira emen Ainguerubenantzecuac, osoac, ederrac, osasun onecuac, eta guztiac edade batecuac (au da) Jesus Divinoac illen artetic vizturic artu eben bete-tasunera biurtubac; guztiac dira Jaquintsubac, aberatsac, eta noblecua andicuac; iñorc ez dauca batac bestiaren ecusi ezinic, ez da ere, bestiac daucan, zorionecotasun gueiagoren begui luzetasunic; zergatic Corputzeco oñac, Miembro guztien artian beerenac izanagatic, ondo aurquiquetan dirian leguez beren toquian, gorago dagozen escu eta burubari begui luzetasunic batere ez deustela, eta bai onein osasunagatic aleguiña eguiten daubela, berena bacarra balizan leguez; eta au guztiau guertaquetan da, Anima bat bacarra dalaco, Corputzeco Miembro guztiai bacoitzari bere toquian vizitza emuten deustena; orobat eta ascoz gueiago guertaquetan da au berau Zeruco Erreinu eder onetan, nun, dagozen, guztiac eguiten daube Corputz bat bacarra, eta Corputz bacar oni Seculaco vizitza emuten deutsan, Anima bacarra da. Jaungoicoaren Espiritu Divinoa; bada Jaungoicoaren Espiritu Divino onec ain asia eta betia izteen dau, beren daguan, Bienaventuraduba bere toquian bere zorionecotasun guchiagogaz, nola goien daguan Maria Santisima bere gloria gueiagogaz;

eta beren dagozenac poz eta atseguin andia artzen daube goragocuen zorionecotasun gueiaguagaz, beren eguiazcua balizan leguez.

Erreinu zoragarrizco onetan vizi dirian guztiac daucai pensamentu bat, zeñagaz dagozen Jaungoicoaren izate Divinoari beguira, bera consideraitan eta contemplaitan; eta orobat guztiac daucai vorondatiaren aldetic gura izate bat, zeñagaz, inguraturic dagozen leguez alde guztietatic Jaungoicoaren ondar bagueco amoriozco Ichasuagaz, amaitan dagozen, ezaguquetan dauben, bere fin bagueco Ontasuna, amaitan daubela aren Divina Magestadia beren burubac baño gueiago, beren burubac eta alcar Jaungoicoagan; eta onela vizi dira Jaungoicoagaz bat eguinic, guztien Buru dala Jesus Divinoa: orain Animac bacarric daucai zorionecotasun au; eta beren Corputzetara sartu edo biurtu ditezenian Mundubaren azquenian, Animetatic eta Animen bitartez iragoco da Corputzetara ere, eurai daoquion, gloria, Corputz glorioso batec euqui biar dituban lau dotiacaz; baña orain, orduban eta andic ondorengo eternidade guztian Jaungoicoaren arpeguia ecustia, bere izate Divinoa contemplaitia, eta bere fin bagueco ontasuna amaitia dira bacarric Animaren lan gueiac eta ez Corputzarenac; eta ala, Bienaventuradu bacoitzaren Corputza Eguzquia duin ederra eta arguia izango bada ere, ezin ecusico dau Jaungoicua Corputzeco beguiacaz, baizican bere gloria guztia Jaachico da zuzenian Jaungoicoagandic Animara, eta Animatic iragoco da Corputzera.

Erreinu eder onetan daguan, vizi moduba verbaguichitan aiquetara emutiarren, emen billaquetan da eriotziaren bildur bagueco vizitza Seculacua, batere izerdi eta neque baguecua, batere auzi, negar, eta garrasi baguecua, eta Janariaren edariaren eta Jantziaren batere premina baguecua; emen iñor zarquetan ez da, ez da ere beñere iguindu eta aspertu daucan vizi modubagaz; eta azquenic Erreinu eder

onetan dagoza ondasun, poz, eta atseguintasun mueta guzti-
ac, eta atsecabe eta naibaguetasun mueta guztiac dan chiqui-
nenac ere guztiz urrin igues eguiten daube Erreinu eder onetatic.

Onerian Erreinuren bat balegu Mundu onetan, Ho! nire
Aisquidia! izango ete lizateque bat, ara vizi izatera Juan gu-
raco ez leuquianic, Ichaso guztiac iragoric Mundubaren azque-
nera Juatia premina baliz ere? ez nire ustian; laster bacoitzac al-
daben moduban equingo leusquio Erreinu artaraco vidiari, be-
re dituban gauza guztiac salduta edo galduta baliz ere: ea ba-
da, nire Aisquidia; gure Religino eta Fede santubac eracusten de-
uscube eta esquinten deuscube eguiaz Erreinu zoragarrizco
au, eta ez daigun galdu guere naguiqueria eta gaiztaqueriacaz;
guere aldetic dana eguiaz eguiten badogu, eguiaz ere anchituco
dogu Erreinu au.

Jaungoicoarentzat eguinac garian leguez, gure languei-
ric aurrenengoa edo (obeto esatiarren) bacarra Lurraren ga-
ñeco vizitza labur onetan da, bera eta bere Erreinu santuba bil-
laquetia; argatic Jesus Divinuac bere Evangelio santuban, era-
gotziric Mundutarrac Janaren eta Jantziaren gañian ifini oi da-
uben ardura larreguia, aguinquetan deuscu, billatu daigula
lenengo Jaungoicoaren Erreinuba; eta Santa Martac salatu eut-
sanian bere Aizpa Santa Maria Madalena, sugatian bere Divi-
na Magestadiarentzat Jana guertaquetan laguntasunic egui-
ten ez eutsalaco, aiquetara emun eutsan, erabillela banatu-
ric bere biotza gauza guztiz ascotara, izanic gauza bat bacar-
ra preminacua; eta (Santa Martac uste ez ebena) Jauso eutsan
gora bere Aizpa Mariaren aldia onentzat; zergatic, Martac us-
te eben leguez, ez eguan alperric bere Aizpa Maria, baizican beret-
zat preminacua zan gauza bacarraren billa eguan, eta guztia
urturic eta deseguinduric aren Divina Magestadiaganaco amo-
rioan: Escritura Sagradu guztian Jaungoicoac ere bere Profeta
eta Apostolu Santuben bitartez ez da asperquetan, guri aiquetara
emutiagaz languei aurrenengo eta bacar santu au.

Azquen Fin santu au anchiquetaco, eta Zeruco Erreinu zorioneco au billaquetaco Jaungoicoac emun deuscu bacoitzari Anima bat bere antzeracua espiritu utsa eta illcorra ez dana, aiñ gurari eta auterizte anditacua, zeinda Jaungoicoac bacarric ase eta bete leiquian, eta Jaungoicoa beragaz ez daucan bitarte guztian Zeruco eta Lurreco gauza guztien Jabe baliz ere, ez lizateque iñolaco moduz bere vorondateco gogua gueldituco aseric eta beteric, zergaitic, Jaungoicoac eguinic daucan, gauza guztiac ia batera, ia bacoitzac banaan emun aldeiquioen, atseguintasun mueta guztiacaz gañeracua dan bere gogoa, zeña bacarric, bere azquen Fin dan, Jaungoicoac betez betezian aseric izten dau, baña aiñ betezian, zeinda, Jaungoicoagan euquico dituban, atseguintusacaz ostian ezin bere gogoa zabalduco da beste gauzatara; bai, nire Aisquidia, nic nere modura zerbait esanagatic zuri Zeruco vizitzaren gañian ezin aiquetara emungo deutsut, ezin zuc ere Munduban vizizarian bitartian ezagutu zeique, norañocuac dirian, Jaungoicoac bera emen amaitan daubenentzat gorderic daucan, ondasunac; egui au ez da niria baizican San Pablo Apostolubarena.

Onetaraco Jaungoicoac emuten deutsa Anima bacoitzari bere iru Potenciac, Memoria, Entendimentuba Ainguerubeñ antzera, ona eta gaitza ezaguquetaco, eta Vorondatia gaitzari igues eguinic onari sarraiquetaco, eta, Aita Astetec eracusten deuscun leguez doctrinaco Cartillan, guztiacaz Jaungoicua bere graziaren laguntasunagaz batera ezaguqueta- eta amaitaco; baita ere emuten deutsa Animiari Corputz bat bere bost sentidubacaz, viztu daguian, eta, errazoiaren bendian erabilliric, beragaz vizi dan bitartian, guztiagaz Corputz eta Anima bere vorondate santuba eguin daguian: oneicaz ostian aren Divina Magestadiac gure oneraco eguinic daucan Criatura guztiai aguinquetan deuste, izan ditezen gure Servitzari leial batzubec, eta escutic artuta leguez eruan gaien beren Eguilla eta guere azquen Fin santubagana; oneitatic aurrenenguac dira, aren Divina Magestadiac emuten deuscun guere Ainguerui Guardacu-

ac, bacoitzari beria: Ho! gure Jaungoicoaren guganaco fin bagueco amorioa eta erruquia!

Guere azquen Fin santu au eta Zerubetaco Erreinuba erraz anchiquetaco, Jesus Divinoac Zerura igo baizen lenago itzi euscun zazpi Sacramentu (aurrerago esango dodan leguez) zeñen bitartez sortzen dituban gure Animetan Fediaren Esperanzaren eta Caridadiaren iru virtute sobrenatural eta Divinoac, parcaquetan deuscun pecatubac, emuten deuscun, bere Etsai izatetic bere Aisquide izatera ecarten gaituban, gracia santuba, gueiquetan deuscun gracia santu au, eta, esaten deutsagun, bere laguntasuneco beste gracia mueta bategaz indarquetan dituban guere Animac bere vorondate santuco vide guztietan.

Oneicaz guztiacaz esquer onecua izan biarrian Jaungoicoaganaco, eta bere Erreinu santuba billatu biarrian, bardin, nire Aisquidia, azquetan bazara beragaz, zerez bazina leguez; eta bere Erreinu santuraco vidiari itziric zeure vorondate dongaco vidiari jarraiquetan badeutsazu, condenauco zara baña zeure culpa guztizcuagaz; eta eternidade guztian iraungo deutsun suzco labe gori artan nai eta nai ez emungo deutsazu Jauncoari bere gloria eta alabanza bere justizia bardin eta adoragarriagatic, Zeruban Bienaventuradubac vorondate guztizcuagaz emuten deutsain leguez; Erregue on bateri aiñ ondo alabanza emuten deusten leguez ala Vrcamendi batetic eseguita dagozen Eriotzaguillac, nola beren neque, jaquinduria, leialtasun, eta ontasunagaz irabazi dituben Dignidadetan dagozenac.

Edade, estadu, eta oficio guztiac dira onac Zeruco Erreinuba billaquetaco eta guere azquen Fin santuba anchiquetaco: daucazun estadubac, nire Aisquidia, beteetan dau eta bete izan dau zeruba (esateco modura) Santuz; Christaunic gueienac ezconduric vizi dira, eta Jaungoicoaren bildur santuban vizi badira Ho! zeimbat Santu Zeruraco! eurac beren bende eta ondorengoacaz: ¿zer esango deutsut daucazun Necazaritzaco Oficioagatic?

Ha! nire Aisquidia! bere gañeco Capitulubau aiquetara emun-
go deutsudan leguez, dozu Ofizio guztietatic ónena Zeruco Erei-
ba billaquetaco; berac eracusten deutsu eguneco, zer moduz
billatu biar dozun Zerubetaco Ereinuau; Jaungoicoa bera
da zugaz batera ala Saquetaco nola Animaco Necazaria;
Jesus Divinoac esaten deutsu egui santu au bere Evangelioan:
nire Aita Necazaria da:; zer eguiten dozu bada zeure Neca-
zaritzaco Ofizioan Agustu onac anchiquetaco? aquixian dago;
eguiten dituzu zeure ereitiac ez vidiaren ez arriaren gañian,
eta ez arantza artian ere, baizicar frutuba emungo deutsun
Soroco lurraren gañian; bere demporetan satza ezarriric jor-
xaquetan dituzu, eta zeure aldetic dan guztia eguiric ixten do-
zu ezin dozun beste guztia Jaungoicoaren bizcarrera eta ardu-
rara, beragandic Agustu on bat anchiquetaco, uste osoan; au be-
zau eguizu zeure Animaco langueietan; eguizu, zeure aldetic
dan, guztia; eta itzi eguizu gañerauntzacua Jaungoicoaren biz-
carrera, escaquetan deutsazula aimbat Federic sendoera-
gaz eta humildade guztizcuagaz, lagundu deizula bere gra-
cia santubagaz, eguiten, zeurez eguin ezin dozuna; eta eguiaz
zu Juango zara Zeruco Ereinuna eta anchitico dozu zeure
azquen Fin santuba; ez zara ez galduba izango Jaungoicoa-
ren aldetic, Fede santubac eracusten deuscun leguez.

Baña bardin Necazari alper eta nagui baten antzera
necatu guna ez badozu, Jaungoicoaren langueiac eguiten zeure
Animaco soruan; bardin zeure Animaco Soro au badaucazu
batere orma edo esi bagaric vide baten antzera, lecu emuten dews-
tezula zeure biotzeco gogo mueta guztiai, bardin Munduco on-
dasun eta aberastasunen arantzacaz betetan badozu, bezen
Jave izan biarrian, zeure azquen Fin santuba anchiquetaco, be-
zen Serwitzari ichu bat eguiten zariala; bardin zeure pecatu
eta gaiztaqueriacaz gogorquetan badozu zeure Animia arria-
ren antzera. nola gura dozu, Jaungoicoac, zeure biotzian erei-
ten dozun, bere verba santubaren aziiari emun eraguia degui-

on frutu onic? Ha! nire Aisquidia! ez eguiozu escatu Jaungoi-
coari milagroric premina gabe, zeuc eguin gura ez dozulaco
aldozuna, eta premina dozuna.

¿sango deustazu, nire Aisquidia; nic ondo biotz guztitic
gura neuque salvaitia: nic erantzuten deutsut Fede santubac
eracutsiric: Jaungoicoac ere biotzagotic gura dau, zu salvau
zaitian: esango deustazu: ni, ori ondo sinisturic, vizi naiz; ba-
ña, Jauna, Jausi naiz pecatu asco eta andietan, bere manda-
mentu santubac sarritan ausiten ditudala, eta (gueiago dana)
luzaro vizi izan naiz onela, eta bildur naiz: erantzuten deut-
sut ere onen gañian: Jaungoicoac condenau gura izan bazindu,
bere escuban eucan, lenengo pecatu mortala eguin zebenian; itzi
eguiozu bada orrembeste calte eguiten deutsun bildur donga
orri, eta eguiaz damuturic biurtu zaite aren Divina Magestadia-
gana Confesino on baten bitartez; zeure pecatu guztiacaz azturic
artaco zaitu bere Aisquidetzat; onetaraco eta aurrera bere aisqui-
detasunian irauteco premina dozun bere graziaren laguntasuna
eguiaz emungo deutsu, zeure aldetic dana eguinic Fede oso bategaz
escaquetan badeutsazu; zergaitic, ¿liza santan Fedeco gauza era-
baguia dan leguez, Jaungoicuac ez dau gura Pecatariaren eriotza
Seculacua, baizican beragana biurtu dedin eta vizi dedin, eta one-
rian Pecatari biurtu batec atseguintasun gueiago emuten deuste Zeru-
co Ainguerubai beste laroqueta emeretzi Justoc baño; aitu biar do-
zu, nire Aisquidia, baña benetan, Jaungoicoac zeure gañian artuba-
gaz doian luzapen ori guztiori dala zure oneracua deutsun bere
fin bagueco erruquitic sortuba dan leguez; eta ez daquizu Jaungoi-
coaren erruqui edo biguntasun onec ots eguiten deutsula eta emu-
ten deutsula ichaipen au guztiau penitencia eguiazco bateraco? ez zai-
te vizi bada, zeure biotz gogortubagaz irabazten dozula Jaungoicoa-
ren aserria bere aserriaren eguneraco: au guztiau ez sinisquetia
da Fede santuba ucaquetia: eguia da; Jaungoicoac ez deutsu gura eta
gura ez Jarraitu eraingo esquinten deutsun bere gracia santubari;
au zeure escura izten deutsu; eta ala galtzen dan Pecataria, bere es-
cuco obra dongacaz eguin dituban Sareetan izango da arrapauba
Infernuco calabozuetaraco, eta bere pecatu eta gaiztaqueriac ichico
deutsai aoa Jaungoico Justo eta artezaren aurrian.

Guztiac gura daube salvaitia, ez dago bat au gura ez
dabenic; baña, nire Aisquidia, Jesus Divinuac eracutsiric
daquigu, Mundu zabal onetan guichi duazela Zeruco vide-
~ tic eta asco Infernuco videtic; Zeruco Erreinubac Munduco
~ Necazaritzaiaren antzera nequia escaquetan dau, eta neca-
~ quetan dirianac arrapaitan daube Zerubetaco Erreinu au; gue-
ienac gura daube salvau, Mundubac eta Araguiac esquin-
ten deusten atseguintasun dempora guichicuac eta guezurrez-
cuac beren Burubai ucatu bagaric, eta au ezin ditequiana
da; ez daube batere necatu gura beren vorondate donguiari
atzera eraguiten, lecu eguitiarren Jaungoicoaren vorondate
santubari beren biotzetan, izanic Zeruco vidian lenengo emun
biar dan pausua, norc berac, pecatubetaraco macurturic dagu-
an leguez, bere vorondateco gogo dongac sacaquetia, eta bere Bu-
rubari ucaquetia; eta guichic artu gura daube aldapa au igote-
co neque ariña; argatic guichi salvaitan dira: ez dago beste vi-
deric inozenzia edo penitenzia baño; eta oneic dira neque guracuac.
Jesus Divinuac Zeruraco eracusten deuscun vide au ez
~ da aiñ estuba, zeinda ascoc uste dauben: nire uztarria bigu-
~ na da, eta nire pisuba ariña, esaten deuscu bere Evangelioan:
Zeruric eta Infernuric ez balego ere, da videric onena, Mundu-
co vizitza labur au atseguintasun gueiagooaz iragoteco; Infer-
nuco vide nasaitic dabiltzenac ascoz vide estubaguetatic da-
biltza: esan eguidazu Aisquidia; beretzat eta bere Familia-
rentzat zer Jan eta zer Jantzi ez daucan, Necazari alper eta na-
gui batec, ala, errazuazco nequia eguinic, bazterrari beretzat
eta bere Familiarentzat zer Jan eta zer Jantzi emun eraguiten
deutsan, Necazari zintzo batec darua Mundu onetaco vizit-
zan vide estubagua? uste dot, erantzungo dozula, Necazari na-
guia dabillela vide estubagotic Necazari zintzua baño; orobat
esaten deutsut bada, Infernuco vide nasaitic dabiltzen Pecata-
ri ichubac Munduco vizitza labur onetaraco ere Jarraiquetan
deutsaila vide ascoz necosoagoari eta estubaguari, Zeruco vide
estutic dabiltzen, Christaun onac baño; egui au ondo ezagutu eu-
ben lenagoco demporetan Jaungoicoaren ezagupera bagueco Filo-

sofo Jentilac ere.

Infernuco vidia azaletic eta lenengo beguiratu baten da nasaia, baña barrutic eta ondo beguiraturic da guztiz estuba eta necosua; Zeruco vidia barriz azaletic beguiraturic da estuba; eta barrutic beguiraturic da nasaia eta neque guichicua Mundu onetaraco ere: Christaun onaren biotza da Ychaso baquioso eta gueldi daguanaren antzecua, donguiaren biotza barriz da guztiz aserraturic daguan Ychasuaren antzecua; beguiratu eguiozu, Aisquidia, Christaun donga bateri edozein vizio muetaren aldetic, eta ecusico dozu bere biotza, Ychaso aserratubaren ur amillen antzera, beti burrucan bere artian, bere vorondate dongaco gogo dongac ezin anchituric, eta anchitu ezquero, beriala beste batzuben billa dabilela, leenagocuacaz azturic, asperturic, edo iguinduric. izan diteque Munduban onen vizitza gogor eta esturic? Justoaren biotza barriz ecusico dozu beti gueldi eta baquian; eta, noiz baitenicaraquetan bada, da Ybaico pozu chiquin bat icaraquetan dan antzera Aize indartsubagaz, ur azala bacarric eta ez gueiago, eta Aizia guelditubagaz batera beriala gueldiquetan da baquian; izan diteque Munduban onen vizitza bigunic eta nasairic? Ha! nire Aisquidia! zabaldu eguizu orain Fede santuco beguiac, eta beguiratu eguiozu oneicaz zeure Jesus Divinoari, eta, onec esquinten deutsun, Seculaco vizitzaren sari eternoari, eta ecusico dozu, zein errazue andiagaz esaten deutsun bere Evangelioan: nire uztarria biguna da, eta nire piñuba ariña.

Jesus Divinuac Zeruco vidiaren Jarrallai arinquetan deuste beren nequia bere grazia santubaren laguntasunagaz, eta, onela arinquetan deusten, nequiaren saritzat esquinten deuste gueroco gloria eternoa, zeña (Apostolu San Pabloc eracusten deuscun leguez) guc emen irago aldaiquegun neque, naibague, eta atsecabe mueta guztien aldian sari guztiz andiagoa eta ugariagoa da: Infernuco vidiaren Jarrallai barriz, beren Jave dirian, pecatubac eta gaiztaqueriac aimbeste iguiñ dauben, nequia, arindu biarrian, gueitu eguiten deuste, milla bat atsecabe ecarten deuste, eta azquenic esquinten deusten saria

da eriotza eternoa Infernuco suzco leze negargarrizco aie-
tan; au da bada Mundu onetan vide nasaitic dabiltzenen
saria eta azquena; emen gaizqui eta bestian gaizquiago.

Ho! nire Aisquidia! gure Religino santubac daucan
edertasunic andiena da, gauzia dan leguez esatia, eguia
pillos pillosic artez eta zuzen guztiai eracustia, ascoc igu-
iñ badaube ere; ez daqui ez, miñ labana daucan Guizona-
ren antzera, bacoitzari zer entzun gura daben, esaten, Eli-
za Santatic campora vizi dirianac esan oi deuscuben modu-
ra beren guezurrezco ipuiñacaz: ea bada; Jarraitu eguiozu
biotzetic eta benetan Religino santu onec eracusten deutsun,
azaletic estuba eta barrutic nasaia dan, Zeruraco vidiari;
emen ascoz obeto vizico zara neque guichiagogaz, eta anchi-
tuco dozu zeure azquen Fin santuba, zeña dan Jaungoicua.

Zeruco vide oni equiteco, Aisquidia, guertatu biar dozu
~ zeure biotza Aur baten antzera, eta Aur bat duin humildia
~ eta esaneguillia biurturic, premina dozu, euquitia vide san-
tu onen Eracustzalla on bat, emen Lurraren gañian zugaz ba-
tera vizi dan Eliza Santaco Ministro leial eta Jaquintsubat,
nola dan zeure Errectore Jauna, edo onegaz ostian zeure Confe-
sore artuba; eta Sacramentu santu Confesinocuan zabaldu
biarco deutsazu zeure Animaco Arzainoni zeure biotza be-
re biur une guztiacaz; eta Jarraitu biarco deutsazu humilda-
deric andienagaz, eracusten deutsun, vidiari, zeure Jaquin-
duria ucaturic, ezercho ez bazequian leguez bere esana eguí-
tia baño beste gauzaric; bada onela dauca Jesus Dwinuac era-
bagui ric, gu salvaitia Eliza Santaren estadu Legue graziazco one-
tan; eta Zeruco Santu eta Santa guztiac ere, emen vizi izan zi-
rianian, onela Jarraitu eutsain Zeruco vidiari; beste moduz
Adan pecatariaren Jatorria zarian leguez, eta pecaturaco ma-
curtuba, bazeuca ere, Zeruco Ainguerubac eta Bienaventura-
dubac daucain, garaco Jaquinduria, zeure Burubari deutsazun
amorio ichubac eta zeure biotzaren gora berac laister galdu-
co zinduquie, eta Zeruco videtic iragoco ziñateque erraz In-
~ fernuco videra: onela bere Jaquinduria ucaturic vizi biarco

-dau emen, Jaungoicoaren aurrian jaquintsuba izan gura
-dabenac San Francisco Asisen Diszipulubaren antzera, ze-
ñac, Santubac ala aguinduric, ifini eutsan Ortuban Aza lan-
darac sustraiacaz gora eta buruz bera, gurago ebela one-
tan bere jaquinduria ucatu, Santubari, escaquetan eutsan
obediencia ez ucaquetiarren: Zeruco vide santu onec beti aguin-
quetan deuste ere beren Jarrallai biotz alegriac eta batere
melancolia edo tristura baguecuac.

Jesu Christo gure Jauna bitarteco bacarra, azquen Fin santu au anchiquetaco.

Liburu onetaco iru lenengo capitulubetatic aguiri da,
Jesus Divinua dala bitarteco bacarra, Guizonac, pecatuba-
gaz galduric eucan, bere azquen Fin santuba anchiquetaco;
ala ere, nire Aisquidia, emen aguiriaguan ifini gura deutsut
egui santu au, aiquetara emunagaz, zertan daguan bere bi-
tartecotasun au.

Gure lenengo Gurasuac galdu euben Paraisuan berenaz-
quen Fin santu au, ofendidubagaz andiro aren Divina Ma-
gestadia desobedienziaco pecatubagaz, gueldiquetan ziriala
ala eurac nola ondorengo beren Jatorri guztiac calte izugarri
onegaz, eta Jaungoicoa gugana aserraturic.

Jaungoico gure Jauna fin bagueco ona eta santuba da;
eta ala pecatu onen eta ondorengo mortal guztien malicia,
ofendiduric gueldiquetan dan Jaungoicoaren aldetic, da fin ba-
guecua; bada nolacua dan, injuriauric urteten daben, Perso-
nia, emen ere alacua izan oi da injuriaren andi chiquina; ba-
tec bere Lagun bateri eta bere Erreguiari emuten deutsan be-
lar ondocuac ez dira bardiñac; Lagunaren injuria bestiaren aldian chiquina
da, baña Erreguiarena guztiz andia, gaiztaqueria mueta bat
eta bardiña izanagatic bietan, eguiten dabenen, aldetic:

Gugana onela aserraturic eguan Jaungoicoaren aisqui-
detasunera ezin biurtu guindezquian, emun bagaric aurraz

berari eguinicaco injuria edo ofensiaren satisfaccino oso bat, itzunguiteco onegaz, gugana eucan, aserria: Guizon utsac ezin emun eiquion aren Divina Magestadiari, bere fin bagueco injuriac escaquetan eben, garaco satisfaccinoric; eta ala berez eternidade guztiraco galduric guelditucо zan Ainguerru donga eta pecatariacaz batera, Jaungoicoaren Semiac billatu ez baleu, calte izugarri au deseguinquetaco, vidia.

Euscun erruquiagatic, gu galduric, ez ecustiarren, eternidade guztiraco, bere vorondate guztizcuagaz esquini eutsan bere Aita Jaungoicoari, emutia, Guizonac eguinicaco injuriac escaquetan eben, garaco satisfaccino fin baguecua; bada, Guizon utsac emun eiquiona, laburra dan leguez, ezin izan zitequian zorra duiñ bardiñecua; onetaraco, nola Jaungoicoa zan aldetic ez zan senticorra eta illcorra, artu eben asmua, Guizon eguiteco; vide onen bitartez, Guizon utsac ezin eiquiana, Jaungoicotasunagaz uniduric emun eguion bere Aitari, injuriaren bardiñecua izan biar eben, satisfaccino fin bagueco au: aguertu zan bada bere demporan Mundura, fin bagueco santuba zana, Pecatariaren antzeco soñecuagaz jantziric (au da) Guizon eguiazco eguinic; eta Jentil eta Judegu madaricatuben escubetatic miragarrizco pazienzia eta humildadiagaz artu zituban naibague, miñ, lotsari, eta azquenic eriotza inozentiagaz emun eutsan bere Aita Jaungoicoari gure pecatu guztien satisfaccino fin baguecua eta ugaria, eta, bere izen santuban sinisquetan dauben, guztiai escubidia, Jaungicoaren Semiac izateco, deseguinduric izten zitubala onela Diabrubaren asmazinuac, eta gure aiñ calte andicuac zirian, bere obra madaricatubac: Ainguerubac pecatu eguin euben, Guizonac ere bai; eta, aiei baño guri zorguei ago ez euscula, aiei itziric beren galdu biarrian, gugaz erruquitu zan; eguiten ebela onetan milagro guztiz andiagua, gauza guztiac ezeberezetic eguitiagaz baño; bada oneic, aguindubagaz beste bague, eguinic aguertu zirian, baña, bere Etsai zan, Guizon Pecataria bere Aisquide eta Seme izatera ecarrico beben, ezeberez tu biar izan eben, Curutze baten Gaitzeguillien antzera eseguiric illteraño; au da Jaungoico guztiz poderosoaren obraric andiena.

Jaungoicuac bada bota zituban gure pecatubac bere Seme Jesus Divinoaren sorbalda gañera, eta batere pecaturic euqui ezin eiquian ontasuna bera, eta ontasun guztiaren Emallia bete eben gure pecatubacaz; eta oneicatic, bere Seme bacarra eta eguiazcua izanic, zatitu eta ondatu eben Curutze baten Pecatari andi baten antzera, illic ecusi arteraño, gu Pecatarioc sendatu eta viztzeiarren, eta guri, onela galduric gueucan, bere Seme graziazco en izena eta izatia emutiarren bere Seme Jesus Divino onen bitartez: Ho! Jaungoicoaren guganaco ondar bagueco erruquia eta amoria, zeñagaz esquinten deuscun bere Seme Jesus Divinoaren pasino eta eriotza santuco fin bagueco merezimentubac, gueure eguiazcuac baliran leguez, onein bitartez, gura dauben, Pecatari guztiac erraz anchitu daguien, bere Semiac eta bere Seme Divinoaren Senidiac izatia! baña Ho! pecatubaren erruizugarria, Jaungoicoaren ondar bagueco erruqui eta amorio onegaz azturic, beren vorondate donguiari Jarraiquetan vizi, eta illten dirian, Pecatarientzat! entzun beguie negar garrizco Pecatari oneic, Jesus maitiac, Calvarioraco vidian bere erruquiz negarrez ecusi zituban, Emacume batzubei erantzun eustena: Jerusalengo Alabac (esan eusten) ez eguizube gura, negar eguin nire gañian, baizican negar eguizube zeuben gañian eta zeuben Umien gañian; zergatic (zuben pecatubac nire Guizatasuneco) egur berdian onela eguiten badaube; zer guertatuco da, (pecatubacaz) igarturic daguan, Egurrian? Ha! Aisquidia! eta zein ichutubac vizi dirian Pecatariac Munduban!

Onela, nire Aisquidia, Jesus Divinuac, bere Aita Jaungoicoaren Bildots manso bat eguinic, eta gure pecatubetaco uliacaz estalduric, itzungui eben bere Justizia santubaren Pecatariacanaco aserre guztia, eta guelditu zan bere aurrian vide eta bitarteco bacartzat, guc, pecatuben bitartez galduric gueucan, azquen Fin santuba anchiquetaco: onela dago ezcutauric eta gorderic Jesu Christogaz batera Jaungoicoagan gure seculaco vizitza, eta aguertu dedinian gure Animetaco vizitza Jesus Divino au, gu ere aguertuco gara beragaz batera Zeruco glorian.

~ Ez dago Zerubaren azpian beste izenic, zeñian salvau
~ gaitezquian, Jesus Divinoaren izen santuba eta bacarra ba-
~ ño; bera da, guc sinistu biar dogun, Eguia; Jarraitu biar
~ dogun, Vidia, eta, billatu biar dogun, Animetaco Vizitza se-
~ culacua: Jesu Christo graziaren bitartez beragaz ez dau-
can, Christaunac ez Eguiric, ez Videric, eta ez Vizitzaric dauca,
baizican guztia illunian, vidia galduric, eta illic dago: ea
~ bada, Aisquidia, Jesu Christorenac izatia gura badogu, Lur-
~ raren gañeco vizitza labur onetan vizi eta ibilli biar gara
~ bera vizi eta ibilli izan zan antzera; erontziric Adan peca-
~ tariagandic dacargun Guizon zar au (au da) ucaturic guere
~ vorondate don ga guztia, Jantzi biar gara, Zerutic Jaachi zan, Guizon barri
~ eta santu Jesus Divino onegaz (au da) eguin biar dogu bere vo-
rondate santu guztia, quentzen ditugula, berac bere vizi le-
cuban (au da) guere Animetan gorroto dituban, guizur
batere calte bagueco, eta, pensamentuzco dan pecaturic chi-
quinetatic asi eta andienetarañaco, guztiac; eta eguiten di-
tugula alditugun obra on guztiac, baña, berari, eta ez Mun-
dutar zoruai, ondo irizteco, asmo eguiazcuagaz; onetara-
co premina dogun grazia santubaren laguntasuna escatu bi-
ar deutsagu bere izen santuban Jaungoicoari iraupen, humil-
dade eta Federic aimbat sendoenacaz; eta azquenic Juan
biar gara aimbat sarrien Sacramentu santubetara, zeñac
dirian Jesus Divino onec itzi euscun Yturriac, gure Animai,
pecatubac parcaturic, edaaten emuteco bere virtute eta gracia
~ santubaren ur biguna eta gozoa, batez ere Sacramentu san-
~ tu Altaraco edo Comuniocua, nun eracusten daben Jesus mai-
~ tiac, gugaz bat eguinic vizi izateco, daucan, gogo neurri bague-
~ cua: onela vizi bagara, Aisquidia, Jantzico gara Jesu Christo-
~ gaz soñeco erropa bategaz leguez; euquico dogu bere Espiri-
~ tu Divinoa, izango gara beriac, eta bere pasino eta eriotza ino-
~ zentiaren merezimentu fin baguecuen bitartez anchituco do-
~ gu, pecatubagaz galduric gueucan, guere azquen Fin san-
~ tuba.

Animaco Etsaiac

Anima gaiñoac emen Lurraren gañian dauca iru Etsai, guerra eguiten deutsainac, eta bere azquen Fin santuraco vide zuzena galdu eraguin gura deutsainac: iru Etsai oneic dira Diabruba, Munduba, eta Araguia; iruretatic gogorrena eta ichascorrena da Araguia; zergatic beste biacandic igues eguin daiquegu, baña Araguiagandic ez, vizi garian, bitarte guztian.

Diabruba

Jesus maitiac, gugatic artu zituban, atsecabe eta eriotza santubaren bitartez esquini eutsan bere Aita Jaungoicoari ondar bagueco merezimentubac gure pecatuben parcazinoraco eta satisfaczinoraco; quendu eutsan Diabrubari, Limbuan catigu eucan, Justo guztiac; sartu zituban oneic Zeruban; emengo atiac zabalduric itzi euscun; Lurraren gañian bere izen santuban sinisquetan dauben, guztiai, Jaungoicoaren Semiac izateco escuvidia emun eusten; eta, onmiragarrizco au eragotzi gura deuscuben, Animetaco iru Etsai eta Lapur oneic azpiratu zituban, eta guri ere, bere antzera azpiraquetaco Etsai oneic euroc, grazia ugariac esquinten deuscu.

Diabru au da Sierpe zarura, Paraisuan gure lenengo Gurasoai pecaturaco vidia eracutsi eustena; arrazquero onetan dabil, ibillico ere bai, Munduba Mundu dan, bitarte guztian; deuscun, gorrotoari eta ecusi ezinari itzico ez deutsa: bere Lagun eta Servitzaritzat arturic Munduba eta Araguia, dabill, nundic jausi eraguingo deuscun pecatu mueta guztietan, eta ez dauca baqueric, gu, pecatuban jausi eraguiñic, galduric ecusi artian: galdu uste izan eben, ondar bagueco Ontasuna bera zan, Jesus Divinoa, berroguei eguneco baraubacaz goseturic ecusi ebenian, pecatuban jausi eraguiteco, Amutzat artzen zitubala, aren Divina Magestadiac bere Aragui inozentiaren aldetic eucan, gosia, eta, Mundubac beren Jarralla eta Adisquidiai esquinten deusten, guezurrezco andinaitasuna; nori bada, Aisquidia, uste dozu, baquian itzico deutsala, pecatuban jausi ezin zitequian, neurri bagueco Ontasunari eta ontasun mueta guztien Emalliari pecatuban jausi eraguin gura izan eutsan, Diabru madaricatu onec?

Eiztari eta Arranzale guztiz iratzarriaren antzecua da;

beti dago zaiñ eta beguira, Jaquitiarren, bacoitza zer humoretaco dan, zer videtatic dabillen, eta zer gauzaren zale dan; eta urrinetic dua ifiniagaz bacoitzari bere biotza gueien poztuco deutsain, gauzacaz estaduricaco Amu zorrotzac eta errutsubac; eta arrapaitan ditu Humildade guichicoac dirian, Christaun epelac, berecoiac, buru aguiri eta iritzicoac; bai; Aisquidia; onerianen artian eguiten ditu Diabrubac calteric andienac: ez dauca Etsai onec, zer eguinic Christaun birao guilla, Ordi, Eriotzaguilla, Lujurioso, eta Lapurrac dirianacaz, ez da ere, Eliza Ama Santa bacar onetatic campora vizi diriala, esanic itzi ditudan, guztiacaz; bada oneic guztioc bere bendian dauca: bere asmo guztiac ifinten ditu, mundic Zeruraco vidia galdu eraguingo deusten, Jaungoicoaren bildur santuban vizi gura daubenai; eta, bein birritan iru bider eta gueiagotan azpiraturic urten agatic, ez da lotsaquetan, eta asperquetan; berriz eta berriz equiten deutsa bere lanari, emen vizi garian artian.

Apostoluben Buru eta Aguintari San Pedro Apostolubac esaten deuscu: Anaiac, izan zaitezte errazuazcoac (Janian eta edanian, eta beste gauza guztietan) eta egon zaitezte zain; zergatic zuben Etsai Diabruba dabillen inguruban Leoe amorratubaren antzera, nor irauntsi aldaiquian, billa; eraguin eguiozube atzera, sendoac Fedian (irauten dozubela): bai, Aisquidia; Diabru zatar onen guganaco vorondatia [illegible] da eta ez besteric; ondo equian bere barria Eliza Santaren lenengo Buru San Pedro gloriosoac, Etsai onen gañian onela esanic, bein eta betico, itzi euscunian; eta Christaun guztioc beñere aaztzaca euqui gueian San Pedroren esan au, Eliza Ama Santac berac ere, bere egunoroco Ofizio santuba errezau [illegible] da uben, guztiai arrasaldetaco Completetaco Ofizio santubar[illegible] asi penian beguien aurrian ifinten deuste au berau, eurac, au[illegible] e nengo Josiric beren biotzetan Diabrubaren gañeco San Pedroren doctrina au, eracutsi deguien ere beste Christaun fiel guztiac, guztiac vizi ditezen Jaquinian, nolacua dan Diabru madarica[illegible]

Diabru onec, Aisquidia, guganaco aiñ vorondate do[illegible] bada ere, ez gaitu batere icaratu biar; zergatic Etsai ascotacua eta sendoa da bacarric, bere Animaco beguiac Araguiaganaco eta Mundubaganaco amorioaren lo pisubagaz beteric dauca Christaunarentzat, eta da guztiz nabarbena eta argala, Jaungoicoaren bildur santuban eguiaz vizi gura daben Christaunarentzat; aiñ argala da, eta aiñ ezeberezac dira bere asmazino guztiac, [illegible] ezin Jausi eraguin deiquegu pecatu venialic dan chiquinenian, [illegible] chiago pecatu mortalian: Mundu onetaco guerretan asco, gura e[illegible] tic illic Jausi oi dira, ez ala Animaco guerran; bada [illegible] Jaungoicoaren graziagaz bere escuban dauca, Etsai zatar au azpiraquetia; baña zegaz? Aita Astetec erantzuten deutsu: Orazinoagaz eta Humildadiagaz.

Irazimua

Irazimua eta Humildadia dira Senide bi beren artian aiñ ondo alcar artubac, nun ezin auzquitu diriian bata bestia baque, eta arma bi aiñ indartsubac, zein da eracaz normaic azpiratuco ditu Infernuco Diabru guztiac, beinguan pilloca baletoz ere, bat iraultsi guraric; eta ez bacarric azpiratuco ditu Diabru guztiac, baita ere beren Lagun eta Serbitzari, diriin, Munduba eta Aragnia.

Ondo ezagutuetan dozu, Aisquidia, zeure Necazaritzaco Ofizioan ezin architu leiquiala iñoiz Agustu oric, bere adetic dan guztia ondo eguin bagaric eta ondorengo Jaungoicoaren laguntasun bagaric; baita ere ezagutuetan dozu, Necazaria, eta, berac eguiten dituban, lan guei guztiac utsac diriala, Jaungoicuac eguin biar deutsan, laguntasunaren aldian, laguntasun au utsian gueldiquetan bada ere, Necazaritic, eta onen requeric ez dagozen, lecuban; zergaitic, San Pablo Apostoluac eta guere Entendimentuco arguiac aiqueta-ra emuten deuscuben leguez, ez ereiten dabena, ez Landaria Lurrean sartzen dabena, eta ez, igartu ez dedin, bere dempora-ra etorri ura ezarten deutsana da ezer, baizican, erretia eta ugaritasuna emuten daben, Jaungoicua: au guztiau bada eta ezaguzaz gueiagogaz ezagutu eta sinistu biar dozu, iragoten dala, euze Animiaren salbazinoraco eguin biar dituzun, lan guei guztietan.

Necazaria eta bere izendi guztiac utsac dira, Jaungoicoac emun biar deutsan, laguntasunaren aldian; azcoz utsagarac dira, Christauac bere salbazinoraco eguiten dituban, lan guei guztiac, Jaungoicuac oretarako emuten deutsan, bere grazia santubaren aldian; au ondo ezaguturic esan San Pablo Apostolu gloriosuac, esan ezcuniau: Jaungoicoaren grazia-ra naizana: ondo ezaguturic esan San Apostolu glorioso onek, ueraz eta bere izatez ez eucala beste gauzaric pecatuaren pecaturaco macuntasuna baño, Soroco Lurrac berez Necaziari arantzac eta bedar dongac emuten deutsan leguez.

orobat Necazariac bere izerdiac emungo ez balitu, Soroco ve-
dar dongac quentzen, eta azi onac ereiten, utsian gueldituco
lizateque, Jaungoicuac emun guria deutsan, laguntausuna;
berte aimbeste Christaunac necatu guria ez badau, bere Ani-
maco Sorotic vizioetaco arantzac eta vedar dongac quent-
zen, eta virtute santubetaco azi onac ereiten, Jaungoicoa-
ren grazia santuba utsian gueldituco lizateque; au ondo
~eguian Apostolu onec beronec, esan euscurian: Jaungoicoa-
~ren grazia ez da nigan alperra egon: bestiac baño neque
~queiago eguin dot, baña ez nic, baizican Jaungoicoaren
~graziac nigaz batera: arpatic ere bere vizitzaren azquere-
rutz esaten eutsan pozagaz bere Diszipulu San Timoteo
~Obispuari: ondo guerra eguin dot, (neure) vidiaren azque-
~nera etorri naiz; Fedia gorde dot: gañerantzacuan gor-
~deric dago ninetzat, Juez bardiñac (Juizioco) eguin artan
~saritzat emungo deustan, Justiziaco Coroa.

Necazari zintzo eta biar guin on batec zembat eta
obeto bere Soroco lanac obeto eguinagaz doian, aimbat gue-
iago indartubagaz dua; orobat Christaunac zembat eta
obeto erantzunagaz doian Jaungoicoaren graziari, aimbat
queiago indaroquetan da, eta grazia agariagoac anchiquetan ditu.

Necazari on batec biar ditu bere esperientac, Soro-
co lan queiac eguiteco, nola diran Laia, Achur eta beste
onelaco batzubec; Christaunac ere ono bat premina ditu On
zinoa eta Humiloladia, bere Animaco Sorotic Laia eta Achur
santu oneicaz, azpiraturic, bere izerdiaren Etsai dan, Diabru
ba, quentzeco arantza eta vizioetaco vedar donga guztiac,
eta ondoren, ereinic virtutetaco azi onac, artzeco obra one-
taco Agustu ugaria: onela San Pablo Apostolubac, leen guz
tiz pecatari eta Christauren Etsai guztiz andia, Damascora-
co vidian eroian Zaldi gañetic Jesus maitiac luzera ezar-
ri eberiau, Humildade santuco laiagaz idegui eben bere biot-
za ondar ondarreraño, esaten eutsala Jesus Maitiari: Jau-

na: zer gura dozu, nic eguin daidan? eta ondoren eguin eutsan Oracino santubari, Jesus Divinoagandic erestiarren, bere biotz ala guertatuban ereitia eta sortzeia, gura zituban, virtute santu mueta guztiac; eta aurreraco bere vizitza santu guztian ez eusten jaregui bere Animaco escutic arma santu bi onei; onen antzera eguin izan daube emen, orain Zeruban dagozen, Santubac; eta orobat guc ere aien antzera eguin biarco dogu, bacoitzac bere modura: bai, Aisquidia; aiñ antz andia daucai gure Mundu onetaco vizitza natural labur onec, eta guere Animetaco graziazco vizitza espiritual eta sobrenaturalac; eta, biac oñian euquiteco, premiña dirian, Necazaritza mueta biac.

Jaungoicua da bada vizitza mueta bi onein Emallia; baña, guere izate natural au daucagun aldetico, ordena naturalian aren Divina Magestadiac badaqui emuten Mundu tarrai, escatu bagaric ere, daucain vizitza, eta, au oñian euquiteco, premina dituben, Necazaritzaco frutu onac, ecusten dogun leguez, beragaz aazturic vizi dirian ascogaz, eta ascotan onei ugariago emuten deustela bere Aisquidiai baño; beragaz barriz bere grazia santubaren bitartez daucagun, vizitza espiritualaren aldetico ordena graziazco eta sobrenaturalian escavide humildiaren bitartez eguin gura deuscu, eguiten deuscun, laguntasuna: eta egui bat esatera nuatzu onen gañian, Aisquidia; zeure Necazaritzaco Ofizioan zuc aleguina ondo eguinagatic, Jaungoicuac, ala guraric, emun leiquezu urte chaar bat; bada ez dauca autorturic bere verba santuba, zeure aleguinari erantzun biar eutsan, urte ona emuteco; zeure salvazinoraco lan gueian barriz zeure aldetic dana eguin ezquero, eta escaturic humildade eguiazcuagaz bere grazia santubaren laguntasuna, ezin ucatuco deutsu; zergatic onetaraco autorturic daucan bere verba santuba; egui au dudan ifintia, da Fede santuba ucaquetia.

Guztioc bada jaioqueraz eta guere izatez gara Pecatariac eta pecaturaco macurtubac; eta ala guztioc gaoza Jaun-

~ goicoaren grazia eta errruquiaren premiñan; argatic aren
Divina Magestadiac esaten deuscu Oseas Profeta santu-
~ baren aotic: zure lagguntasuna nigan bacarric auzquique-
~ tan da: eta Jesus Diviñac bere Evangelio santuban: ni ba-
~ guc ezin eguin daiquezube ezer: au ondo ezaguturic Da-
~ vid Erregue eta Profeta santubac Jasoten zituban Orazino
~ eta Humiltadiaren bitartez bere Aiñaco beguiac Zeruco
~ Mendi eternoetara, Zeruba eta Lurra eguin zituban, Jaun-
~ goicoagandic bacarric datozzen, laguntasunaren billa: beste
aimbeste eguin euben, Mundubat vizi izan ziñanian, Zeru-
co Bienaventuradubac, eta orobat eguin biarco dogu guc
ere, bacoitzac bere modura, salvauco bagara.

Guztioc bada gara Mundu onetan, Jaungoicoac emun
biar deuscun, virtute eta grazia santubaren premiñacuac;
ezagupena santu au daucanac, eta aren Diviña Magesta-
diaren auzpera doianac, premiña ditubar, ondasun espiri-
tual onein esque, eguiten dau Orazinoa; anchituco dau,
escaquetan daben, graziaren laguntasuna; eta onela ser-
datuzic errez azpiratuco dau Diabruba; baña Orazinoa-
gaz aztuzic vizi dana, errez datoz Jaustera Diabruba-
ren atzamarretara; zergatic Jaungoicoac ez daqui la-
guntasunic eguiten, escaquetan ez deutsanari; gozoto
deutsa Pobre soverviosari; Mundubat ere beguiz ezin
iñoc ecusi oi dau orreian Pobrezic: Diabruba arlotia eta
soverviosa da, eta orobat gura gaitu, gu ecusi arlotiac eta so-
verviosac; argatic bere asmazino guztiac dira, mundic era-
gotzi deiquegun Orazino santuba, eta, mundic galdu
exaquin aldeiquegun, Humiltadia; eta Christauna, arma bi
onei edo bietatic batexi (itzi ezpiñexo.) galdu ez dago, Diabrubaren Jaxtal-
la eta Jaungoicoaren Etsai izatera, datoz: bere premiñia eza-
guquetan dabenac, premiñatic etaraco dabenagana dua
esquian; eta esquian doianac ezaguquetan dau premiñia;
baña premiñaric ezaguquetan ez badau; nola Juango da Ja-
ungoicoagana esquian? eta, premiñia ezaguturic, ez badua,
esquian, Jaungoicoagana; nola urtengo dau, daucan premiñatic?

Emendic da guztiz aguiri, Aisquidia, zeiñ Legue edo Mandamentu estuba daucagun Christaun guztioc, bacoitzac bere banaan (au da) Christauna izanagaz beste bague, Jaungoicoari Orazino eguiteco: norc naic bere Errazoiaren arguitasun utsagaz ezaguquetan dau bere gañian, Orazino eguiteco, daucan, Mandamentu estu au; bada norc, Jentila baliz ere, ezaguquetan ez dau, bere vizitzaco ona eta adiñona ez daguala bere escuban, baizican, gauza guztien Eguilla eta Jabe danaren, escuban? eta, anchitu gura dituban, onac escatu biar deutsala beren Jabiari? ascoz gueiago bada Fede eguiazcoaren arguitasun santubagaz Christaun Catolicoc ezaguquetan dogu Orazinoaren gañeco Mandamentu estu au, eta Mandamentu oni jarraitu biar deutsaila, Mundu onetaco eta eternidadeco vizitzan ondo izatia gura dauben, guztiac: bai; Aisquidia; Escritura Sagradu guztia beteric dago Orazinoaren gañeco Mandamentu natural, Divino, eta sobrenatural onegaz; eta ondoren zerbait aiquetara emungo deutsut, nola dan, eta nola gorde ditequian Mandamentu santu au.

Jesus Divinoac berac, guri Zeruraco vidia eracustera etorri zan leguez, aurrenengo gorde eben Mandamentu au, sarritan ala egunez nola gabez, Guizona zan aldetic, Orazino eguiten eutsala bere Aita Jaungoicoari gure oneraco eta gure vizitzaren Ispilluraco, batez ere Jetsemanico Baratzan, ecusi ebenian, urreratubagaz etorrela bere gañian bere Aitaren Justiziaco zigorra gure pecatubacatic; misterioz betericaco azquenengo Afaria bere Diszipulubacaz euqui eben, gau santu artan eruan zituban beragaz Baratza onetara, Faborco mendira, bere gloriaren iduripena ecusi eguien, eruan zituban, bere iru Diszipuluric maitienac San Pedro, Santiago eta San Juan, emen ecusi eta icasi eguien, Faborco gloriara eruango zituban eta eruango guinduban, vide zuzena eta arteza; bere Anima santisimaren barrenian eucan, larritasuneco estutasun andi artan erabaguiric bere vorondatia bere Aitaren vorondatera, bere iru Diszipulubacandic bacarturic, eguin eutsan bere Aitari iru bider Orazino, guri eracustiarren, zer eguin biar dogun guere atsecabetaco demporetan, eta, guere Orazinoaren bitartez Jaungoicoac guri eguiten deuscun, mesederic andiena dala, guere biotzac gaitzac quendu bagaric, bere graziagaz nasaiquetia eta indarquetia, gaitzac bere izen santuban iragoteco: bere lenengo Orazino aldia eguinic, biurtu zan bere iru Diszipulubacana; billatu zituban irurac lo piñuban; eta esan eusten; egon zaitezte iratzarriric, eta eguin eguizube Orazino, sartu ez zaitezten tentazinuan: orra bada, Aisquidia, nola Jesus Divinoac, Guizona zan aldetic, gorderic ederquiro Orazinoaren gañeco Mandamentu au, itzi euscun ere ederquiro barriztauric bere premiña guztizcoa, tentazinoaren videz pecatuban jausi ez guindezen.

~ Gure Jaungoicoa Familiaco Guraso andi au izatez bera bacarric da ona, bere obra guztietan santuba, bere esquinte eta verba guztietan leiala; eracusten dau bere poderio guztizcoa, beti guri parcaquetan eta gugaz erruquiquetan: beti emuten deuste Escatzallai, beren merenzimentubac eta escavidiac dirian baño, Ondasun andiaguac eta ugariaguac: da ondar bagueco aberatsa, erruquiorra, eta emallia, berari biotz osoagaz escaquetan deutsain, guztiai bere Ondasunac emun guracua; ezin bada guere premiñetan utsic bial-

duco gaitu, escatu ezquero Fede sendo eta Esperanza humil-
de bategaz; aitu eguiozu, Aisquidia, Jesus Divinoari bere Evange-
lio santuban: escatu eguizube (esaten deuscu) eta emungo zaiz-
quizube; zergatic, escaquetan daben, guztiac artzen dau; bar-
din zubec izanic (Jaioqueraz) dongac, zeuben Ymiai emuten ba-
daquizube (bestec) emunicaco Ondasunac, zembat gueiago zeu-
ben Aita (Jaungoicoac) emungo deuste Zerutic Espiritu ona
escaquetan deutsanai? bai, Aisquidia; Orazinoa datorizate-
ra eguiten dabenarentzat laguntasun andia, Jaungoicoarent-
zat alabanzaco Sacrifizioa, eta Diabrubarentzat, izuquetan
daben, Azotia.

Orazinoan Jaungoico guztiz poderosoari eracusten deutsa-
gun, beraganaco sinistiac eta esperanziac lotzen deutsai bere
Justiziaco escuba, eta ifinten daube aren Divina Magestadia, erru-
quiz beteric, gugana beguira; ascaquetan deutsai bere Escu emal-
lia, eta emun eraguiten deutsai, merezi ez ditugun, Ondasunac: bai,
Aisquidia; (esateco modura) Jaungoicoa, izanic guztiz poderosoa, da-
tor azpiraturic gueldiquetara gure Orazinoagaz, bardin bere aur-
rian errime bagaoza, premiña dogun, bere laguntasun santubaren
esquian; ecusten dituzu zeure Echian, zati bagaric Juaten ez
daquien, Pobre guztiz ichaascor eta gogaicarri batzubec, eta bo-
ta ezin ditazunac zerbait bagaric; esaten badeustezu: ez dau-
cat, zer emun: ordu osoetan bada ere berriz eta berriz escaquetan
daube; eta azquenic gogait eraguinic zerbait emun eraguiten
deutsube: onela gura gaitu bada Jaungoicoac, izan gaitian gu-
re beraganaco escavidetan, moduric ascotara Jesus Divinoac
bere Evangelioan aiquetara emuten deuscun leguez; eta ala, Ja-
ungoicoac bein, birritan, eta gueiagotan ucaquetan badeuscu, es-
que garian, mesedia, izan ezquero au gueren Animen salvazino-
raco, iraun biar dogu bere aurrian esquian siniste sendoagaz
esperanza errimiagaz, eta biotz bigun eta humilde bategaz; eta
ez gaitu, ez, utsic bialduco: Zeruco Santubac, emen vizi zirianian,
ondo equien Jaungoicoaren barria gauza onen gañian, eta urte
osoac iragoten zituben, gauza bat bacarra aren Divina Magesta-
diari escaquetan, anchitu artian escaquetan eutsaina, eta one-
la anchiquetan euben esque zirian baño ascoz gueiago; guc ere
bada, Aisquidia, onela eguin biar ditugu guere Orazinoac, batez
ere ezaguturic, aren Divina Magestadiac ascotan daquiala, lu-
zaquetan, guri, escaqaquetan deutsagun, mesedia eguitia, gu-
re biotzetan viztu eta gueitu eraguitiarren beraganaco sinistia
esperanza, eta Caridadia; San Pablo Apostolubac escatu eutsan Je-
su Divinoari, quendu eguiola bere gañetic, bere Araguiaren alde-
tic Diabrubac emuten eutsan, estuasuna, eta ez eutsan escavide
oni itzi, entzun artian: asco dozu (Pablo) nire grazia.

Ascotan aren Divina Magestadiac aiquetan ditu gure Ora-
zinuac, onein videz eguiten deuscula, escaquetiagaz batere go-
goratu ez garian, mesediac, itziric alde batera escatu deutsa-
gunac, oneitatic batere autortu bagaric; Elias Profetac, Fobias eta
Job santubac, atsecabez inguraturic ecusi zirianian, eguin eutsain
Jaungoicoari beren escavidiac; baña ez euben anchitu escatu eube-
na, eta bai, beren gogoan irago ezin eiquien garaco, beste mesede
guztiz andiago batzubec: Ho! nire Aisquidia! guere Orazino ar-
galen bitartez zeimbat Ondasun Jaungoicoac emuten deuscun,
eta ala Corputzeco nola Animaco zeimbat gaitzetatic egunoro eta-
raten gaitubau, eta guc batere uste ez dogula!

Guere sinistiaren eta esperanzaren neurrira izan oi da ere guere orazinuaren erruba, Jaungoicuac beti gueiagogaz erantzuten badeuscu ere: izanic aren Divina Magestadia fin bagueco erruquiorra eta Emallia, guere sinistiaren eta esperanzaren laburtasunac laburquetan eta lotzen deutsai bere escu Emalliac; Jesus Divinoa bere Errira Juan zan batian esaten deuscu Evangelio santubac, ezin eguin izan zitubala, gura zituban, mirariac Gaiŝuac sendaquetan, Gente aiec beraganaco siniste guichi edo laburra eucailaco: gure beraganaco siniste eta esperanzaren anditasunac barriz ascatu eta zabaldu eraguiten deutsai bere escu santu Emallac; argatic, Gaiŝuac sendaquetan eguin zituban, mirari guztietan aiquetara emuten deuscu, Gaiŝuac edo beren ordeco Escatzalle Guraso eta Aidiac beragan eucain, siniste sendoac (esateco modura) eta ez berac sendatu zitubala; sendatu eben bateri esan eutsan: zuaz baquian; zeure sinistiac sendatu zaitu: beguietaco arguia escatu eutsain Ychu batzubei aurrazitandu eusten; sinisquetan dozube, nic zubei mesede au eguiteco escuvideric daucadala? eta, erantzunic, baietz; emun eusten esque zirian beguietaco arguia: bere Semiarentzat osasuna escatu eutsan, Aita bateri esan eutsan: bardin sinistu albadaiquezu, sinisquetan dabenentzat ezin ditequian, gauzaric ez da: eta onela beste bere mirari guztietan beguiraquetan eutsan, mesediac escaquetan eutsainen, beraganaco sinistiari; eta ala esanic itzi euscun bere Evangelio santuban: escaquetan dozubenian sinistu eguizube, artuco dozubela, esque zariain, guztia; eta ala guertatuco iatzube: Jaungoicoa bada Lecu guztian dago, eta edozein lecu eta ordutan batec bere buruba ecusten dabenian, Diabrubac pecatuban Jausi eraguin gura deutsala, bardin badua beragana siniste eta esperanza sendoagaz laguntasunaren billa, izango dau eguiaz esque dana; eta igues eraguingo deutsa Diabrubari bere ingurutic.

Jesus maitia nola dan gure Animen salvazinoraco bitarteco bacarra eta bere Aitaren aiñ biotzecua, bere izen santuba da indar andicua, guc eresteco Jaungoicoagandic, escaquetan deutsagun, gauza; berac esanic itzi euscun bere Evangelio santuban: zerbait escatu badeiozube Aitari nire

~izenian, emungo deutsube: argatic Eliza Ama Santac, onela icasiric, bere egunoroco escavidiac eguiten deutsa Jaungoicoari bere Seme Jesu Christo gure Jaunaren bitartez, eta izenian.

Naturalezaco ordenan Jaungoicoac iñori, Necazari ona izateco, eta Soroai frutu onac emun eraguiteco, ez deutsa aguinquetan, eguin ezin daiquian, gauzaric, orobat, gure naturaleziagaz gañera dan, graziazco ordena sobrenatural onetan iñori, Christaun ona izateco eta virtute santubetaco obra onac eguiteco, ez deutsa aguinquetan, ezin eguin daiquian, gauzaric, baizican guztia eguin daiquiana; bada guri bere mandamentu santubac aguinquetiagan
~ bere vorondatia da, guc eguitia aldogun guztia, ezin dogu-
~ na eguiteco, escatu bere laguntasuna; eta berac lagunque-
~ tan deuscu, eguin aldaiqueguneraño, guerez ezin doguna: au Eliza Ama Santac Fede santuco eguitzat erabaguiric dauca Frentoco bere Conzilio general azquenengoan; eta ascoz eguiazcuagua da, Jaungoicuac, bere mandamentu santubac gordetaco eta Christaun onac izateco, onela emuten daben, laguntasuna, Necazari on bateri eguiten deutsan demporale oneco laguntasuna baño; zergaitic Necazariari ez deutsa autorquetan laguntasuna bere verba santubaren azpian; baña bai, Christaun ona izan gura dabenari, eguinic beragan dana eta escaturic laguntasuna ezin daben guztiraco; eta ala Aisqui
~ quidia, esaeria dan leguez, vizi biar gara Jaungoicoari er-
~ reguquetan eta escuco mazuagaz zapalquetan, Jaungoi-
~ coa gugaz eta gu Jaungoicoagaz gariala, igues eraguin deiogun Diabrubari guere ingurutic; bada gauza onen gañian lo daguanac, nequez izango dau Gloriaric.

Eguinic Jaungoicoari guere orazinua edo escavidia ez gara beñere guelditu biar jaquin guraric, autortu ete deuscun edo ez, Jaungoicoac, escatu deutsagun gauza; zergatic au da gurari alper bat, Diabrubagandic sortuba, onic batere ez, eta bai calte andiac eguiten deuscuna guere Animetan
~ eta ala guelditu biar gara guere baquian, itziric guztia, guri
~ ondo gura deuscun eta gure gañeco arduria daucan, Jaungoi
~ co guztiz onaren bizcarrera.

- Orazinua da Animiaren igoera Jaungoicoagana, edo Jaungoicoagana Animia jasotia: eta ala, Orazinoa bere zabaltasun guztian aitu ezquero, edozein gauza oneraco Jaungoicoaganaco biotz jausote guztia da Orazinoa.

Orazino au da asco modutacua; baña batzubei alde batera itziric, bacarric aiquetara emungo deutsut emen, Aisquidia, Christaun guztioc (Mandamentuba daucagun leguez) eguin biar ditugun, Orazino muetac, salvauco bagara.

~ Onerian Orazinuac dira iru: lenengoa da, zeñagaz Jaungoicoari emuten deutsagun, daucan, ondar bagueco Ontasunagatic zor deutsagun, alabanza; eta oni deritzo Alabanzaco Orazinoa: bigarrena da, zeñagaz emuten deutsagun aren Divina Magestadiari, zor deutsagun, esquerrac, eguin deuscun eta eguiten deuscun, mesediacatic, Humildadiaren gañian verba eguiten dodanian aiquetara emungo dodan leguez; eta oni deritzo esquerretaco edo Grazietaco Orazinoa: eta irugarrena da, zeñagaz Jaungoicoari escaquetan deutsagun, premiña ditugun, mesediac ala gueretzat nola besterentzat; eta deritzo oni escavideco Orazinoa: Aita Astetec, Jesuita zanac, doctrina Christianaren gañeco bere Cartilla laburrian aiquetara emuten deuscu irugarren Orazino mueta au, itanduric ¿zer gauza da Orazinua? erantzuten deuscunian: da, Jaungoicoari Animia jauso, eta mesediac escaquetia: baña gauza jaquiña da; Jaungoicoari mesediac benetan escaquetan deutsanac aurraz edo ondoren guien bat eguingo deutsa aren Divina Magestadiari beste Orazino mueta biac ere (au da) emungo deutsa, zor deutsan, alabanza bere ondar bagueco Jaquinduria, Escuvide, Justizia, Erruqui, eta beste Ontasun mueta guztiacatic; baita ere emungo deutsa, zor deutsan, esquerrac, beragandic artu izan dituban, eta artzen dituban, mesediacatic; bada iru Orazino mueta oneic nequez aurquitu oi dira bata bestia bagaric; bai, Aisquidia; Orazino mueta batac besteraco vidia zabalquetan deutsa, Jaungoicoaren aurrian Orazinuan daguan, Animiari.

Eliza Ama Santac egunoroco Misterioetan eta Santuben Jaietan bere Ministroen bitartez eguiten deutsa Jaungoicoari iru Orazino mueta oneic; eta ala guc ere, Aisquidia, onetan jarraitu biar deutsagu, guere Ama dan, Eliza Santari; bai; guere Errazoiaren arguitasunac, eta Christandade santuco Legueac betezian eracusten deuscube Christaun guztioi, Christaun Catolicuac izanagaz beste bagaric, daucagun, premina guztizcoa eta estuba, iru Orazino mueta oneic aren Divina Magestadiari eguiteco; onetaraco daucagun, Mandamentu santu au Jaungoicoac berac ere Escritura Sagraduco lecuric ascotan erabaguiten deuscu.

Zeruco Santubac, Munduban vizi ziranian, ez zirian asperquetan, beren escavidetaco Orazinuac eguiñagaz gañera, eguitiagaz ere aren Divina Magestadiari beste Orazino mueta biac, beren biotz guztitic bialquetan eutsain, ala alabanzaco, nola esquer edo grazietaco lanzada vizi batzubecazcar-

rotasunaren aize madaricatubac ecuquetan eusteni-
an, esaten euben, San Miguel Ainguerubac Diabrubari
~ erantzun eutsana: nor Jaungoicoa bezelacoric? San Fran-
~ zisco Asisec gau asoac iragoten zituban, esaten bacarric: ne-
~ re Jaungoicoa, eta gauza guztiac! San Franzisco Salesen eta
~ beste Santu ascoren esaera guztiz sarritacua zan: vizi bedi Je-
~ sus: eta Santu eta Christaun on guztien esaera beticuac, eta
~ sarritacuac izan dira: bedeincatuco dot Jaungoicoa dempo-
~ ra guztian; beti bere Alabanza nire Mingaian: nic zegaz eran-
~ tzun neiquio Jaungoicoari, eguiten deustan, mesede guztia-
~ catic?: bedeincatu eguizu, nire Anima, Jaungoicoari, eta nire
~ Errai guztiac bere izen santubari: bedeincatu eguizu, nire Ani-
~ ma, Jaungoicoari; eta ez zaite aaztu nai bere mese guztiacaz: eta
zer esan deguizudan, gura dozu, nire Aisquidia, Christauna-
ren señalia dan, Curutze santubagatic? Ha! Jesus Divinoac Cu-
rutzian gure Animetaco Etsaiac azpiratu zitubanetic ona
Christaun Catolico izan dan, guztiac beti beguiratu izan de-
utsa Curutziaren imaginari eta señaliari erru andico gau-
zatzat, Diabrubari igues eraguiteco; bai, Aisquidia; argatic
Christandadiaren lenengo asipenetic Christaun on eta Catolico
guztiac ain laztan eta maite izan daube Curutziaren Imagiña
eta señalia, ifinten eubela Altaretan, Echetaco ate eta venta-
na burubetan, beren vizi lecubetan, beren uetan, soroetan, baz-
terretan, videtan, eta Errien sarreretan; eta ezer eri escuric ezar-
ten ez equien, aurraz Curutze santubaren señalia eguin baga-
ric, baña ederquiro eta biotz guztitic, eta ez, asco Christaun zatar-
~ rec eguin oi dauben, modura: bada, onela biotzetic eguiten dan Curu-
~ tziaren señalia batetic da, guere Salvatzalle Jesus maitiac gu-
~ gatic Curutzian artu eben, eriotziaren gogorazino vizi bat, eta
~ Diabru arroac, au ezin ecusiric, igues eguiten dau; eta bestetic
~ da, guere Redentore Jesus Divinoari eguiten deutsagun, Orazi-
~ no labur bat, eta beragaz daucan derautsadan, iru Orazino mue-
~ ta oneic (au da) escavidecua, alabanzacua, eta esquer edo grazie-
~ tacoa: baña Eregiac, Aisquidia, eguiaren iduripen guezurrezcoa-
~ gaz quendu gura deuscube Curutziaren Imaginac eta señaliac,
~ baita ere Santuben Imagina guztiac; ez eguiezu bada sinistu.
Curutziac eta Santuben Imaginac Guizonen escuz eguiñac di-
ra, eta eubenez batere poderio eta erru bagacuac: ifinten dira Alta-
retan eta beste lecuric ascotan, liburu isill batzubac leguez, iracu-
rten ez daquienac ere, aiec ecusiric, gogoratu ditezen guere Reden-
tore cegaz eta Redenzinoco misterioagaz, eta Zeruco glorian dagozen Santuba-
caz; emuten deustegu Santu onei onra eta reverenzia beren Imagine-
tan: eguiten da Orazino Imaginen aurrian Zeruco Santubai, eta onei ere
guere bitartecoai leguez; zergatic Jaungoicoa bacarric da gauza on
eta mesede guztien Jabia, Yturria, eta Emallia, eta berac autortu
bagaric, bere Aisquide Santubac ezin emun daiquie ezer: ecusten
ditugu Jesus Divinoaren eta bere Ama beti Virginaren Imagina
mueta asco, beren vizitzetaco eta ondorengo Misterio ascori eran-
tzuten deustenac, baita ere Erri eta Lecu onetaco edo besteco Santo-
Christoac eta Ama Virginac; baña, Aisquidia, guztiac, naiz izan
ditezela Milagroz aguertubac, naiz Guizonen escuz ifiniac, dira Ima-
gina uts batzubec, eta guztiac aiquetan emuten deuscube, Zeru-
ban dagozen, Jesus Divino bacar bat, eta bere Ama Maria Santi-
sima beti Virgina bacar bat, eta ez daucai ez Animaric eta ez vizitza-
ric. Jaungoicoac gure biotzetan beraganaco aimbat esperan-
zaric indartsubena sortzeiarren, eta, guere escavidiac

berari eguiteco, aimbat gueien poztzeiarren, ez bacarric gura dau, guc bera guere Aitatzat ezaguquetia, baita ere aguinquetan deuscu, Aitaren izenagaz berari de eguin deiogula, bere Seme Jesus Divinoac eracutsi euscun leguez, bere ao sagradutic urtenicaco, guere egunoroco Aita guriaren Orazinuan: bai, Aisquidia; Jesus Divinoac berac ere, Guizona dan aldetic, ezaguquetan gaitu bere Evangelioan Christaun guztioc bere Senidetzat: zubec guztioc (esan eusten bere Diszipulubai) Senidiac zarai; zergatic, Zerubetan daguan, zuben Aita bat bacarra dan: Zerubetan daguan, nire Aitaren vorondatia eguiten daben, guztia au da nire Anaia eta Arreba: eguiaz bada, Aisquidia, an uste dogu, daucagula guere aguintia, nun daucagun guere Anaeren bat escuvide andiacaz; bazeuca zeure Senideren bat Erregue, usteco zeuque erestia beragandic, gura dozun, guztia; zeure Animaren salvazinoraco premiña dituzun, gauzetatic escatu ezquero bada, zer eretsico ez dozu Gloriaco Erregue, Erregue guztien Erregue eta Aguintari guztien Aguintari dan, zeure Anae Jesu Christogandic, eta bere eta zeure Aita Jaungoicoagandic? batez ere, aurraz bazuaz, bitarteco billa, Ama beti Virgina eta Pecatarien Ama dan, Maria Santisimagana?

Esaten dodan guztian, Aisquidia, gu gariala Jaungoicoaren Semiac eta bere Seme Jesu Christoren Senidiac, ez eguizu aitu, gariala Jaungoicoaren Semiac bere Seme Jesu Christoren antzera; bada gu ez gara bere Semiac izatez, Jesu Christo gure Jauna dan leguez, eta emen gu guere Aita eta Amaren Seme eta Alaba izan oi garian leguez, baizican bere graziaz eta adopzinoz, nundic ere daucagun Jaungoicoaren Seme graziazcuen eta Adoptibuen izena eta izatia, batec, emen bere Seme ez daben, bat bere Semetzat artuco baleu leguez, deutsan, amorioagatic, eta erruquiagatic; eta onen antzera da, gu bere Seme Jesus Divinoaren Senide graziazcoac izatia ere.

Ez dago dempora erabaguiric, zeñian, Orazinuaren gañeco daucagun, Mandamentu estu onec pecatubaren azpian aguinquetan deuscun, Orazino eguitia; ala ere Illa betian edobian Orazinoagaz aazturic vizi dan, Christauna, batez ere, Animaco Etsaiac, pecaturen baten jausi eraguiteco, asco estuquetan dauben, demporetan, vizi da aazturic bere Animaren salvazinoagaz; bai, Aisquidia; beti gara argalac eta pecaturaco macurtubac; argatic ere gure betico premiñac escaquetan dau, beti Orazinoan egotia, Jesus Divinoaren aotic eta bere Apostolu San Pabloren aotic guero eracutsico deutsudan leguez.

Escavideco Orazinuan Jaungoicoari escaquetan deutsagun, mesediac dira bi modutacuac: batzubec guztiz premiña ditugunac, guere Animen salvazinoa anchiquetaco, eta argatic aguirian guztiz onac dirianac aren Divina Magestadiaren honra eta gloria gueiagoraco; onerianac dira Fediaren, Esperanziaren, eta Caridadiaren Virtutiac, eta beren ugaritasun sendoa, Humildadia,

Pazienzia, Cortidadia, Justizia, eta, Animan premiña
dituzun, beste Virtute santu mueta guztiac; baita ere, gu-
re Animetaco Otsaiac azpiraquetaco, premiña doguin,
graxia santubaren laguntasuna: onelaco gauzac badadi-
rian ezquero aquirian Jaungoicoaren gloria eta honraraco,
baita ere guere Animen salvazinoraco premiñacoac, esca-
tu biar deutsagun aren Divina Magestadiari biotz guztitic
~ eta osoro edo betezian (au da) batere muzarri bagaric, gu-
~ re salvazinoraco onac badira, esan bagaric, eçeiten deut-
sagun, escavidian.

Bizaren mesede mueta dira, Jaungoicoaren honra gue-
iagoraco eta guere Animen salvazinoraco, batere premiñacoac izan ezagaz gañera, onac izan ditezquian, legez, cal-
tetsubac ere izan ditezquianac escaquetan ditubarentzat,
eta Jaungoicoac bacarric daquianac, nolacoac dirian, escaque-
tan deutsan, bacoitzarentzat; oneic dira Mundu onetaco hon-
ra, Dignidade, eta Ondasunac, Corputzeco osasun sendoa, in-
dar exutsubac, vizitza luzia, Animaco potenzia viatzarriac,
Arrric ez daucan, Matrimonio barentzat Seme edo Alabac,
eta, onein antzeco dirian, beste gauza on guztiac: aquirian da-
go, gauza oneic guztioc beren izatez onac diriana; baña ez dago
aquirian, Mundoco gauza on oneic ez daucan arentzat,
eta Jaungoicoari escaquetan deutsan, bacoitzarentzat be-
re Animaren salvazinoraco onac ala dongac izango ete
dirian; bai; Atsquidia; ¿zembat Christauk eder ecusi oi
dira gauza oneic bagaric, eta euracaz zembat Pecatari
izugarriac? ascotan gazteric illten dana salvaitan da, zar-
xaro luze bat anchiturik, condenauco zana; orobat asco, aqui-
te, honra, Dignidade, eta ondasun andien artian vizi dira-
la, condenaitan dira, esquian, biarquiñ, beren begoquico
izerdiagaz, eta bestaren aquindubaren azpian vizi zirala,
euraz salvauco ziriacac; beste aimbeste Aun bagaric sal-
vauco ziriac, Guraso asco condenaitan dira, beren Aur-
xac gauzaqui aziaren videz; eta beste ascorentzat Corputze-
co gaitzac eta ondoezac izan oi dira beren salvazinoraco, eta
osasun sendoa beren condenazinoraco; ¿zembat, beren po-
tenzia izatzarriacaz arrotzric, condenaitan dira, lotuba
guacaz salvauco ziriacac? iñor ez daqui bada, bizaren me-
sede mueta oneic Jaungoicoaren honra gueiagoraco eta nor-be-
raren salvazinoraco onac izango ete dirian edo ez; argatic one
xiaur mesediac escaquetan deutsagun guztian aren Divina Ma
gestadiari, escatu biar deutsagu aimbat Federic sendoagaz,
bai, baña beti Muzarri bat ifinten deutsagula guere esavidian,
≈ eta da, bardin izango badira, bere gloria gueiagoraco eta guere An
≈ men salvazinoraco; zergatic Escritura Sagradutic daquigu, Jaun
~ goicoac batzubetan, escaquetan deutsaiozana asseriatuzic, gaitan
~ quetan deustela onesiaz mesediac; nundic ere San Agustin gloria-
~ tzuac esaben deuscun, Jaungoicoac bere asserien aiquetan ditubala
~ batzuben Oraxinoac, bere esaniquian ucatuco leuskeenac.

~ Esan zeiquet orain, Aisquidia; Jauna; oneic onela di-
~ ala, nic escatu neiquio aren Divina Magestadiari, beingu-
~ an eguin naquiala Santu andi bat; bada au, aquirian dago da-
~ la gauza ona nire Animiaren salvazinoraco: ez iñolaco mo-
~ duz, Aisquidia, orerian escavideric, erantzuten deutsut; zerga-
tic ori escaquetia izango lizateque, Jaungoicua tentaitia,
escatubagaz, bere grazia santubaren ordena sobrenaturalian
gu salvaitaco daucan, videtic urteric, zugaz eguin daguian
batere premina bagueco milagro bat, escatuco bazeutza le-
guez, emun deguzula zeure Necazaritzaco ofizioan urte
on bat eta aberatsa lurreco frutubetan, zeu batere necatu
bagaric, Lurra maniatan, ereiten, sorraquetan, eta premina
diuian beste languei mueta guztietan: eguia da; Jaungoico guz-
tiz poderosuac, ori eta gueiago eguiteco, escuidia badauca;
baña gu, onac eguinic, salvaitaco daucan, vidia ez da, gu bein-
guian eta guere neque bagaric Santu andi eguinic, iztecua, bai-
zican, gu nola guazen erantzunagaz bere grazia santubari, ala
daqui ere, gu iragoten virtute santu batetic bestera, eta onac iza-
tetic obiaguac izatera, Necazari on bateri ordena naturalian
languei batetic bestera iragoric demporiaren demporaz urte ona
emuten daguian leguez: Jaungoicuac onerian mirariac, berac
eritzon, batzubetan Eliza Santaren oneraco eguin izan ditu,
ala ordenanaturalian, nola bere grazia santubaren ordena sobre-
~ naturalian ifinirie daucan, videtic urteric; baña guc ez deutsa-
~ gu escatu biar onerian gauzaric, baizican, guztiac salvaitaco,
~ ifinirie daucan, vide santuban guere aldetic dana, gueuc egui-
~ nic, lagundu deigula bere grazia santubagaz, onac izateco,
~ eta onetic obiaguac izatera iragoteco: ez da, Aisquidia, egui
~ au nic asmauba, baizican Jesus Divinoac exacusten deus-
~ cuna, Mundu guztiaren salvazinoraco artu zituban, anabi
~ Apostolubetan; Cuiutzian ill baizen lenagoco urte batzube-
~ tan beragaz exabilli zituban; exacutsi euxten bere Aitaren so-
~ rondate santuba; euxac nola erantzuten eutsain bere gra-
~ eguitiai (chiquinac bazirian ere) itzi eraguiteco; ez zituban ba-
~ da beinguian eguin Santu andi, baizican eguinagaz esuan zitu-
~ ban, guztien salvazinoraco daucan, videtic Espiritu Santubaren etor-
xenarano; ala ere aietatic batec saldu eben eta beste batec necatu
eben; ala zuc ere ez eguezu eguin, Santu andi bat afaz izateco, escabideric.

Escaric itzi dot, Orazinua dala iru modutacua (au-
da) Jaungoicoari alabanzac emutecua; esquerrac emutecua;
eta escaridiac equitecua; orain esaten deutsut, Aisquidia,
~ iru Orazino mueta oneic eguin ditezquiala bi modutan; ba-
~ta aoz, eta bestia biotzez bacarric, aoz ezer esan bagaric:
~ aozco orazinuari esaten deutsagu Orazino Vocala; eta aoz
ezer esan bagaric biotzagaz bacarric equiten diarari esa-
~ ten deutsagu Orazino mentala; eta au obiagua da aoz equi-
~ ten dan Orazino vocala baño; ala ere iñorc bere baraan eta
bacarrian ez dauca bere gañian Leguerric, edo Mandamen-
turric, Orazino Mentala equiteco, baña bai, ascuen iruitzian,
aozco Orazinoa equiteco; eta ala Escritore guztien iruitzian
norc naic bere baraan eta bacarrian, Orazino equiteco dau-
can, Mandamentu santuba gordetan dau, aozco Orazino Vo-
cala ondo eguinagaz; eta ez da ain gauza erabaguia, gorde-
tan ete dan edo ez Orazinuaren gañeco Legue santu au, biot-
zezco Orazino Mentala bacarric eguinagaz aozco Orazino
bagaric: orazino equiteco bi modu oneic aitatu deutsudan
ezquero, Aisquidia, bien gañeco ezagupera pusqui bat
emutera nuatzu.

Orazino Vocala edo aoz equiten dana entzuten do-
zuvian, Aisquidia, aitu biar dozu, ez, ao utsezco Orazinoa,
baizican, biotzagaz batera equiten dan, Orazinua atenzi-
noz eta devozinoz; bada Intendimentuaren aldetico
atenzinua eta Voluntatiaren aldetico gogo devotoa Jaun-
goicoaren servizio santuraco beragaz ez dituban, ao utse-
co orazinua eta utsa guztia da bat; Lagun bi oneic baga-
co aozco Orazinua izango lizateque bacarric Espanac
eta Miña erabiltia, eta onei, verba equiten daquian Loro
baten antzera, otsa eraguitia; onela Orazino dongaro
equiten euben Judegubacatic esan eben Jaungoicoac Isa-
~ias Profeta santubaren aotic: Jente onec honrautan nau
~ Espanoicaz, baña beren biotza nigandic urrin dago; eta
~ au berau arpequian emun eusten Jesus Divinoac bere
~ demporaco Judegubai: eta ala obiagoa da, Jaungoicoari
biotzetic esaten deutsagun, Pater noster bat bacarra, edo
Maria Santisimari biotzetic esaten deutsagun, Ave Ma-

nia bat bacarra millue bat Pater noster eta millue bat Ave Maria guere vorondatezco devozino bagacuac baño; au ondo ezagutuco eta sinistuco baleubé Christaun mueta ascoc, batez ere Jmacumeren batzubec, ez lituquie aiñ aziñ eta aiñ demporá luzian exabillico beren Miñac eta Espiritac, ainbat Pater nosterric eta Ave Mariaric guelen eta Exorsazionic luzinac nola nai(ezan) esatiarren, eta esatez aspertu ezin dirala, go dana) beren biotzetan laztan ditubela, beren eta beren Familien eta beren Echien aiñ caltez andicuac dirian, oituera zatarric asco, eta, onein Estalquillatzat baque guezurrezcoaren gaiztaqueriagaraco amorioz esan oi dituben, iñoren calbe bagaco milla bat guizur, beren ustian, santubac, baña eguiaz pecatubac; zergatic dirian guizurriac, eta beste pecatu ascoren Ytzuri madaricatubac, beste lecu baten esanigo deutsudan leguez: Ha! nire Aitzquidia; zembat obeto eguingo leuquien onerian! Santu eta Santa guezurrezcoac eta guezurtiac, eguiaz Santu eta Santa izateco, vidiari benetan jarraituco baleutsai, eta onetaraco (guztiz premiña dan leguez) gorroto euquico baleuste biotzetic baque guezurrezcoari, beren oituera zatarrai, eta, onein Estalquilla dirian, guizur madaricatubai, eta amoriox beguiratuco baleuste, Christaunac dirian aldetic, eta beren Estaduben aldetic, beren gañian ecusten dituben, Leguе eta Mandamentu santu guztiai! bai; onela eguingo baleubé, Orazino labur aquacaz izanagatic ere, sarriagotan eta biotz obiaquacaz escatuco leosquie aren Divina Magestadiari, beren oituera zatarrai alde batera itziric, eguiaz Santubac izateco, premiña dauben, bere graziaren arguitasuna eta laguntasun santuba; baña, danabilden, videtic ez ditube eta-ra gura Oñac ula guizi baten lodiezan ere, eta gura daube, Jaungoicoaren Adisquidiac izan, bacarric Orazino luziac nola nai iraunt-siagaz.

Orazino Vocala, edo aozcoa, biotzagaz batera eguiten dana, gure Arimetaco Etsaiac arpiaturic, salvazinua archiquetaco, ona izanagaz asiten, da ere guztiz ona izan gauzatzeco: bata gure Anima baguia Jaungoicoagana viztzeco eta iratzarteco: bigarrena Guizona, dan guztia, Corputz eta Anima Jaungoicoaren alabanzan eta serviziо santubaz egoteco: eta irugarrena aoz aiquetara emuteco, Animatic ascotan Corputzera zabaldu oi dan Jaungoicoaren aldetico atzequintasun ugaria, David Erregue eta Profeta santubac aiquetan emuten daben leguez, esaten dituban, verba oneitan: poztu da nire biotza, eta atzequintasunez betе da nire Minguoia. Jesuco Santubac, Maria Santisimaren semeac, Aitzquidia, Jaungoicoagandic mesede andiac eta asco etsaiten badeusube ere, gure bitartecо uts batzubec dira; argatic emaracaraco gure Orazino eta escaride guztiac dira, gugatic eta gugaz batera Jaungoicoari eregutu eta escatu deguioen, gura dogun, mesedia: Jesus maitia bar-riz, gure Defensoria, Abogaduba, eta bitartecua eta bacarra, nurdic Ytzuri batetic leguez jaioten dirian Santuben bitartecotasunac, izanagaz astian da ere gauza guztien Jabia, mesede eta ontasun mueta guztian ondar baguecо Aurria eta Amallia; argatic bere Espasa eta gure Ama Eliza Santac bere Aita Jaungoicoari bere izenian eta bitar-

tez escaquetan badeutsa ere mesediac, Jesus maitiari bera-
ri zuzenian Orazino eta escavidiac eguiten deutsan guztian,
ez deutsa escaquetan, bere Ama Maria Santisimari eta beste
Santubai leguez, gugatic erregutu, eta escatu daguiala, baizi-
~ can gugaz erruquitu dedilla, eta emun deguigula, esque gari-
~ an, mesedia: bai; Santuben mesedia da, gugatic Jaungoicoari er-
reguquetia, eta Jesus Divinoaren mesedia barriz Orazino eguiten
ten deutsainentzat da, mesediac eurac autorquetia; eguin biar
deutsagu bada guere Orazinoac eta escavidiac, Jaungoicoa eta
Guizon eguiazcoa eta gure Redentoria dan, Jesu Christori, ez San-
~ tubai leguez, gugatic erregutu daguian, baizican gauza guztien
~ Jabiari leguez, autortu deigun, escaquetan deutsagun, mesedi-
~ ac. Jaungoicoaren Semia, ondo daquizun leguez, Aisquidia,
aguertu zan Munduban Guizon eguinic, gu Diabrubaren ben-
detic etaratera, eta guri nola vizi biar gueben, eracustera; one-
taraco, Guizona zan aldetic, eguin eben obraz alde guztietatic be-
re Aita Jaungoicoaren vorondatia, beste gauzaric ascoren arti-
an eguiten eutsala sarritan aozco Orazinoa edo Vocala gure
oneraco, eta guri eracustiarren; eta bere Diszipulu Apostoluben
~ escavidez eracutsi euscun, Orazinoa izan zan Vocala edo aoz-
~ co Orazino mueta (au da) guere egunoroco Aita guriaren Ora-
~ zino gozoa; bada Jesus maitiac, izanagatic ere bardiñian Orazino
Mentala obiagoa Vocala baño, gurago izan eben, guztientzat eracus-
ten eben, Aita guriaren Orazino eder au izan zedin Vocala batetic,
guztiac chiquinac eta andiac, Jaquintsubac eta Jaquinduria ba-
guecuac erraz icasi eta eguin eguien, eta bestetic, Orazino santu
au, sarritan dabillela guere aoetan, obeto Jasiric guelditu dedin gue-
re biotzetan, eta, entzuten deuscuben, beste guztien biotzetan; ez eben
gura izan, ez, guere biotzetaco barruban eta [illegible]cutuban bacarric eguin
gueian Orazinoric onen au: Maria Santisimari eguiten deutsagun,
Ave Mariaren eta Salviaren Orazinoac Vocalac dira; Eliza Ama
Santac ere guere premiña guztietan Jaungoicoari eguiten deut-
san, Errogativac Orazino Vocalac dira; eta azquenic, Orazinoa-
ren gañian verba eguiten deuscuben, Eracustzalletatic ascoc esa-
ten deuscube, Christaun guztioc ez bacarric daucagula, Orazino
eguiteco, Mandamentu estuba, baizican ere daucagula, aozco Ora-
zino edo Vocala eguiteco, Mandamentuba, beste ascoc eracusten
badeuscube ere, Orazino mueta bietatic edozeñegaz naiz Vo-
calagaz naiz Mentalagaz Christaun bacoitzac, Orazinoraco
daucan, Mandamentu estubaren gordetan dabela aguinduba; baña guztiac
batera eta ao batetic eracusten deuscube, norc naic Orazino Vo-
cal ondo eguiñagaz gordetan dabela Orazinoaren gañeco Man-
damentu santu au, eta ala Orazino Mentala datorrela izatera
Christaun bacoitzarentzat vorondatezco Orazino mueta.

Orazino eguiten dogunian zabaldu biar ditugu guere esca-
vidiac gueretzat leguez guere Progimo guztientzat ere, batez
ere Eliza Santaren Miembroac dirianentzat, beguiratu baga-
ric ete dirian gure Adisquidiac, ala Etsaiac; bai; Caridade egui-
azcoac ala eracusten deuscu; Jesus Divinoac berac ala eracutsi
~ euscun, eguiten, Orazino guztien artian onena dan, Aita guriaren
~ Orazinoa; Eliza Ama Santac ere, icasiric bere Esposo Jesus maiti-
agandic, onela guztiacatic Jaungoicoari Orazino eguiten,
bere egunoroco Misterio santubetan guztiacatic erregu-
quetan deutsa, eta orobat Ave Mariaren bigarren par-

tian eta Salvian eracusten deuscu guri, gugatic le-
guez beste guztiacatic Maria Santisimari eta onen bi-
tartez aren Divina Magestadiari errequiquetan; ar-
gatic esaten deuscu Santiago Apostolubac: errequtu
eguizube batac bestiacatic, salvau zaitezten.

~ Orain esango deustazii, Aisquidia; beraz nire ba-
~ carreco premineta eta nire Aide edo Aisquide batzuben
~ premineta ezin nic escatu neique Jaungoicoaren lagun-
~ tasuna Pater noster, Ave Maria, eta Salveco Orazinuen bi-
~ tartez niretzat bacarrian, edo nire Aide edo Adisquide-
~ ren batentzat, guztientzat bardin errequtu biar dan erque-
~ ro: bai, Aisquidia; erantzuten deutsut; escatu daiozu
Orazino santu onein bitartez Jaungoicoari, zeuretzat pre-
mina dituzun, bacarreco mesediac, oxobat zeure Aide, Ais-
quide, edo zeure Etsaiaren batentzat, Jesus Divinuac aguin-
quetan deuscun leguez, Etsaiacatic ere Orazino eguitia; ba-
ña, aitatu dituzun Orazino santu orreic eguiten dituzun-
an, mesede bacarrecoac escaquetaco, eta beti, esan bianco
dituzu espiritu agaz beragaz, zeñagaz Jesus Divinuac
eta bere Esposa gure Ama Eliza santac eracutsi deuscu-
ben, eta, zuc Orazino santu orreic eguitiaren bitartez Ja-
ungoicoac beste guztiai eta edozeñexi eguin guna deus-
ten eta deutsan, mesedien batere calte bague.

~ Espiritu Santubac esaten deuscu: Orazino aurrei-
~ an guentatu eguizu zeure Animia; eta ez eguizu gura
~ izan Jaungoicoa tentatuan daben Guizonaren antzecua:
eta errazue andiagaz esaten deuscu au; bada edozein
Atabaleroc ere, ots ona etara daguian, beti guertaquetan
dau bere Atabala, Jo aurrian; eta ala Orazino eguitera
doianac, eguin aurrian, batu biardau, Munduco gauze-
tan eta bere escu arteco lanetan banaturic eta zabalduric
dauzkan, bere biotza; zeñaturic ifini biar dau bere Espiri-
tuba Jaungoicoaren aurrian (au da) Fede santuco be-
guiacaz beguiratu biar deutsa, toqui guztietan aurquique-
tan Jaungoico fin bagueco onari, eta, ezaguturic ez da-
bela merezi bere aurrian egotia, eta guichiago beragaz

verba eguitia, izanic Pecatari esquer baqueco bat, humildau eta beeratu biar dau bere Buruba ainbat guien, eta ondoren eguin biar deutsa bere Orazinoac ainbat esperanzaric sendoenagaz; baña, nola Guizona Lurraren gañian argala dan, ~~eta bere~~ eta bere buruba guztiz ariña, bere biotzac sarritan igues eguin leiquio Jaungoicoaren aurretic, bere gogoco edo escuarteco gauzen ondoren; orazinuan daguenac bada au ezagutu ezquero, bere biotzeco baquia batere galtzaca biurtu biar dau aren Divina Magestadiaren aurrera, emendic igues eguin eben, biguntausun agaz beragaz, eta berriz eta berriz Orazino bitartian au onela guiertatu agatic, Orazino santuba aldeo onetatic izango da ondo eguiña: au guztian esanic gueldiquetan da ala aozco Orazinoraco nola Orazino Mentaleraco.

Orazino luzia nola ez dan ain erraz ondo eguitia, zeinola laburra; argatic uste dot, Atisquidia, zuretzat eta zulacuentzat, Mandamenturic edo deguezic ez daguian guztian Orazino luzeraco, Orazinoric onerac dira, la sarritacoac, eta laburrac, devozinoz erraz eguin leizquianac.

Toquiric onena Orazino eguiteco guztioc daquigu dala Jaungoicoaren Templo edo Eche santuba, eta Orazinoraco Corputzaren aldetico egoeric onena belaunico; baña, oneic onela izanagatic, Orazino santuba eguin leique edozein toquitan eta edozein Corputzaren aldeco egoeratan, zeñetan eta zeñagaz bat ez lizateguian lotsatuco verba eguiten errespetoco Personaren bategaz; eta ustez uste bagaco preminaren batec beinguian artuco baleu bat, orduban eguin biarco dau bere Orazinoa aldaben toquian eta aldaben egoeragaz.

Orazino eguitera doianac, bardin pecatu edo vizio andiren bategaz auzquiquetan bada, aurraz bota biarco ditu bere biotzetic, eguaz gorroto deustela, bardinga ba badau, Jaungoicoac aitu deguion bere Orazinoa; da

vid Erregue eta Profetac aiquetara emuten deuscu egui au,
esaten deuscunian: bardin ecusi badot nire biotzian gaiz-
taqueriaren bat, ez dau Jaungoicuac (nire erreguba) aitu-
co: eta eguiaz; zer zoraqueria izan diteque andiagoric, ba-
tec, bere vorondatez aserraturic daucan, eta aserraturic
euqui gura daben, Jaungoicoaren aurrera mesede esque
suatia baño? argatic gaiztaquerietan eta iñoganaco gorro-
tuan vizi dirianac, gaiztaqueriai eta gorrotuari itzi gura
ez deusten bitartian. ez beguie uste, beren Orazinuac Jaun-
goicoaren aurrian ondo aitubac izango diriala: ala ere
onerian Pecatari gogortubac sarraitu biar deuste beren Ora-
zinoai, batez ere Eliza Santaren izenian eguiten dirianai,
nola dirian Paternosterra, Ave Maria, eta Salvia; bada one-
in bitartez guertatu liteque, Jaungoicuac bere fin bague-
co erruquiagaz argui eguitia Pecatari gogortu onei, ur-
ten daguien beren negargarrizco gogortasunetic, eta on-
doren eguin daguien Orazinua, eguin biar dauben le-
guez.

Jesus Divinoac esaten deuscu bere Evangelio
santuban: premiña da, beti Orazinuan egotia, eta ez
beñere asperquetia: orobat bere Apostolu San Pabloc
esaten deuscu: Orazinuan egon zaitezte, guelditu ba-
garic (au da) beñere aspertu bagaric Orazinuan egotia-
gaz: au gaizqui aituric Christaunen batzubec eracutsi
izan daube, guere vizitza guztico instante guztietan Ora-
zinuan egon biar dogula; baña, utsic eguin ezin leiquian,
Eliza Ama Santac erabagui izan ditu onelaco Eracustza-
llac Eregetzat, eta beren guezurrezco doctrina au Eregui-
atzat: Jesus Divinuac bada eta bere Apostolu San Pabloc
onegaz aiquetara emun gura deuscubena da, artu eta
euqui biar ditugula guere vizitzan dempora erabagui
batzubec, Jaungoicoari sarritan Orazinoa eguiteco, es-
quinten deutsagula guere egunoroco pensamentu, ver-
ba, eta obra guztiac bere honra eta gloria gueiagoraco;
onela beinic bein, Jesu Christoren Esposa eta gure Ama
dan, Eliza Santac aiquetan dau betico Orazinuaren gañeco
Legue santu au.

Edozein Estadutan eta edozein Ofiziotan Christaunac erraz gorde leique beti Orazinuan egoteco Legue santu au, Eliza Ama Santac eracusten deuscun leguez; eta ala zuc ere, Aisquidia, zeure Necazaritzaco Ofizioan, eta Matrimonioco Estaduban erraz eguin daiquezu beti Orazinuan egote au; San Pablo Apostolubac berac eracusten deutsu onetaraco vide erraza; bada esaten deuscu Christaun guztioi: edo jaten badozube edo edaten badozube, edo beste edozein gauza eguiten badozube, eguizube gauza guztiac Jaungoicoaren gloriaraco: eta beste lecubaten esaten deuscu: edo esaeraz edo obraz eguiten dituzuben gauza guztiac eguizube Jesu Christo (gure) Jaunaren izenian, esquerrac bere bitartez emuten deutsazubela Jaungoicoari eta Aitari: au onela eguiten badozu, Aisquidia, beti Orazinuan egongo zara; eta au onela eguitia ez da neque; ara nola.

Goizetan uguetic jaguiten zarianian zeñaturic, Fede santuco arguitasunagaz Jesus crucificaubaren aurrian zagozela ecusiric, ifini zaite bere oñetan belaunico edo beste egoera erraznazco baten; eta humiltasun guztizcuagaz escaturic gau artaco zeure pecatu eta ofensa guztien parcazinua, emungo deutsazu esquerrac, gaba iragoric egun artara ecarri zaitubalaco; ondoren escatuco deutsazu bere grazia santubaren laguntasuna, eguna iragoteco pecatu bagaric bere amorioan; esquinico deutsazu egun artaco zeure pensamentu, verba, eta obra guztiac bere honra eta gloriaraco; botaco dituzu egun artaco zeure ardura guztiac aren Divina Magestadiaren bizcar gañera, ala zeu, nola zeure Familia, zeuben languei, Ganau, bazter, eta zeuben gauza guztiac; eta eretsi daguizun aren Divina Magestadiagandic, onetaraco premina dozun, laguntasuna, ifinico deutsazu bitartecotzat bere Ama Maria Santisima, esaten deutsazula biotzetic Ave Maria edo Salve bat, edo bere Aita ordeco San Joseph, edo zeure Ainguerru Guardacua, zeure Bautismoco Santuba, edo zeure devozinoco beste edozein San-

tu, esaten dozula biotzetic Paternoster edo Ave Maria bat, zeure bitarteco Santubac emuan daguian zeure exegubac aren Divina Magestadiaren aurrera: au guztiau Credo bi edo iru esaten dirian bitartian eguin litequian gauza da:

Onela eguinic ſaguieraco languei eder au, ſiza eguzu batera eta ſiza eguzu bestera Chori cantari baten antzera, Icheco lanqueiac zeure biotzeco pozian eta biguntasunian aimbat uqarien eta onduen eguitera eta eraguitera; bada Necazari batec gauza ascotara eta bizcoz inboraten ditubala guiratu bear dau, beragan dan guztia eguinic bere arduta eta quezca guztiac Jaungoicoaren bizcarrera, David Profeta eta Profeta santubac guztioi, eta bacoitzari baraan esaten deuscun leguez: bota eguzu (esaten dau) Jaungoicoaren pañera zeure arduria; eta berac escutic euquico zaitu: egun bitartian gogoratu biar zara batzubetan, ſaguieran aren Divina Magestadiari bere honra eta gloriaraco eguin deutsazun zeure pensamentu verba eta obra guztien esquiñagaz, batez ere zeure iguiñ andico gauzaren batzubec quentaquetan iatzunian, nundic naicuac diriala, edotenzinoren batec inguraquetan zaitubanian, pecatu chiquiñeracua bada ere, gogoratze au izan dequizun, zeure goizeco esquintia gordetaco, Acuba zorrotz bat.

Iguna aldozun inozenziaric guienagaz iragoxic errezauco dozu aimbat devozinoxic onenagaz zeure Familiagaz batera zeure Errosario santuba afal aurrian, eriac emuten daben guztian; uquera Juan aurrian gaba iragoteco Animaco eta Munduco Etsaien aldetico batere calte bagaric, eguingo dozu, goizeco ſaguieraraco esanic itzi deutsudan, languei ederra, lenago eguiten dozula zeure eguin artaco Conzienziaco esamina labur bat, gogora ecarten dituzula izu gauza; bata Jaungoicoac eguin artan eguin deutsun mesediac ala beste guztiacaz bateraciac nola zeuri bacarrian eguin deutsunac: bigarrena, eguin artan eguin dituzun obra onac: eta irugarrena, eguin artan eguin dituzun pecatu mueta guztiac chiquinac izanagatic,

lenengo biacatic Jaungoicoari zor deutsazun esquerrac humiltasun andian emuteco; eta irugarrenacatic, eguiaz damuturic, eta aurreraco emiendaren gañeco asmua arturic, escaquetaco aren Divina Magestadiari guztien parcazinua.

Onegaz ostian, Aisquidia, egunac dituban iru jan ordubetan Maian jasarten zarianian jan aurrian errezauco dozu devozinoz zeure Familiagaz Pater Noster bat eta Ave Maria bat, eta beste aimbeste janaren azquenian Maitic jaguiteco demporan: orobat Erloju osua entzuten dozun guztian esango deutsazu devozinoz Maria Santisimari Ave Maria bat: azquenic Ave Marietaraco Campaia joten daubenian Parroquian egun sentian, eguardian, eta illunqueran errezau eraguingo deutsazu Familiari devozinoz Ave Maritacuac.

Ave Marietaco devozino santu au aitatu deutsudan ezquero, Aisquidia, premina deritzot aitaquetia ere Aita Santu Erromaco Benedicto izen onetaco amaixu garrenac, devozino au zabaldu zedin, autorturic itzi zituban Indulgenzia ugariac: oneic dira egunorocuac eta Yllian beinguac; egunorocuac dira eun eguneco Indulgenziac; eta Yllian beingocoa da Indulgenzia plenaria; egunoroco Indulgenzia au autorturic dago Ave Maritacuac, Parroquiaco Campaia onetaraco joten daubenian, belaunico ifiniric batec devozinoz errezaitan dituban aldi bacoitzeraco, naiz dala egun sentian, naiz eguardian, naiz illunqueran, Jaungoicoaren grazian daguela, edo, pecatu mortalen bategaz aurquiquetan bada, contrizinoco damutasuna daucala; erreguquetan deutsala aren Divina Magestadiari, deseguindu daguian Eregiia, Prinzipe Catholicoai beren arteco baquia emun deguien, eta sendatu daguian guere Eliza Ama Santa; Indulgenzia au irabazi leique batec egunian iru bider, Ave Marietaraco joten dauben iru demporetan: Yllian beingoraco Indulgenzia Plenaria autorturic dago, norberac au irabazi gura daben, Yllaren egun bateraco bacarric; batec bada zein egunetan irabazi gura daben Ylleco

Indulgenzia Plenaria au, egun onetan confesaunic eta comulgaunic, eta belaunico errezaunic devozinoz Ave Maritacuac bein, Campaia onetaraco soten daubenian, naiz egun sentian dala, naiz equardian, naiz illunquetan, eta Jaungoicoari erreququetan deutsala, leen esan dituban, iru gauzetaraco, irabazico dau Yllian beingo Indulgenzia plenaria au; ez da aquinquetan egunoroco Indulgenzia au irabazteco Confesinoric eta Comunioric; baña bai, Yllian beingo Indulgenzia plenaria au, nore berac gura daben, egunian irabazteco, preminacuac dira Confesinua eta Comunio santuba.

Indulgenzia oneic irabazteco (esanic itzi dodan) Aita Santubac aquinquetan dituban Ave Maritacuac errezau biar dira onela: belaunico ifiniric Campaiac onetaraco derautsanian esango dau: Angelus Domini nunziabit Marie; et conzepit de Espiritu Santo, eta ondoren errezauco dau lenengo Ave Maria: berriz esango dau: Ecce Ancila Domini; fiat miqui secundum berbum tuum; eta ondoren errezauco dau bigarren Ave Maria: eta azquenic esango dau: et Berbum Caro factum est; et abitabit in nobis; eta ondoren errezauco dau irugarren Ave Maria: eta onegaz ostian aquinquetan daben errequba esanic quelditu dirian Eliza Santaren iru preminacatic equiteco, errezau baño ez dauca iru bat Pater naster eta iru bat Ave Maria edo ia Ave Marietacuen ondoren, edo ia Rrosarioaren ondorengo Orazinuen artian edo ia egun barruban noiz nai eta nun nai batez exe Comunio santuba errezividuric Echera biurtu baizen lenago; bada Aita Santubac dau esaten noiz eta Corputzaren aldetico zer egoeragaz egun biar dan azquenengo errequ au Ave Marietacuacaz astiangua; ez dau exe esaten zeimbat Orazino egun biar dan onetaraco; eta baderitzot, orrenbestegaz equiten dozula, Indulgenzia oneic irabazteco, preminadozun, gaza Orazino.

Badaquit, Aisquidia, iru Ave Marien aurreco latineco berbac gaizqui escribidu deutsudana; baña eguin deutsut onela Jaquinian, escrividu dituban leguez zuc asmauric, esan daguizun, Latin daquienac esan oi dauben leguez: Angelus Domini nunziabit Marie ed conzepit de Espiritu Santo esan gura dau: Jaunaren Ainguerubac emun eutsan albistia Mariari; eta conzebidu eben Espiritu Santubagandic: Ecce Anzila Domini; fiat miqui secundum berbum tuum esan gura dau: ona emen Jaunaren Esclaba; guertatu bequit, zuc diñozun leguez: et Berbum Caro factum est; ed abitabit in nobis esan gura dau: eta (Jaungoicoaren) Semia eguin zan Guizon; eta vizi izan zan gure artian: aguirian dago bada, berba santu oneicaz adoraitan dogula Jesus Divinoaren Encarnazino santuco Misterioa; eta onetaraco Ainguerru San Gabrielen eta Maria Santisimaren artian irago zirian miragarrizco verbac, eta ala Aita Santubac zabalquetiarren aimbat gueien Christaunen biotzetan Misterio santu oneganaco eta Maria Santisimaganaco devozino eguiazcua, itzi zituban autorturic aiñ Indulgenzia ugariac, guichic irabazten baditube ere, izanic aiñ errazac irabazten.

Egunian beingo esan deutsudan Orazino santu oneic, Aisquidia, eguiten guztiz errazac dituzu, eta zeure Necazaritzaco Ofizioaren batere calte baguecuac; eguia da; ez daucazu Mandamentu edo Legueric onetaraco; baña dozu vide guztiz erraza, Orazinuan beti egoteco daucazun, Mandamentu edo Legue santuba gordetaco, eta Jaungoicoari zor deutsazun, alabanzac eta esquerrac emunagaz eretsi daguizun, premina dozun, laguntasuna azpiraquetaco Diabruba, bere ascotacosun guztiac deseguinduric: bai, Aisquidia, Necazarientzat Orazino laburrac, baña sarritacuac eta biotzezcuac, eta ez luziac ariñ ariñ esan oi dirianac; bada ariñtasuna eta devozio eguiazcua beren artian Etsaiac dira: Ha! nire Aisquidia!

egui santu oneic, ondo ezaguturic, gordeco balitube as-
coc, batez ere Emacumeren batzubec, obeto Orazinoa
eguingo leuquie, eta ez lituquie ain̄ maite izango beren
oituera zatarrac, eta, onein Estalguillatzat esan oi ditu-
ben, guizurrac (beren ustian) santubac; zergatic dirian
[redacted] baquiaganaco amoriotic sortubac, eta iñoren calte
bagaric esanac; baña erdi erditic guizur guztiz mada-
ricatubac; zergatic dirian guizurrac, Espiritu Santubari
atzera eraguiten deustenac, baque ez onaganaco, baizican,
Jesus maitiac, deseguindu dedin, gura daben, baque don-
guiaganaco amorio zatarretic sortubac, eta azquenic ichi-
ten deustenac Familietaco Burubai vide eta ate guztiac,
beren Bendecuen oituera zatarrac eta gaiztaqueriac era-
gozteco, eta argatic, izan alditezquien, calteric andieneco
guizurrac: Ho! Demonioaren Santu eta Santu ascotacuac
ifinten daquienac beren usteco guizur santu oneicaz Fa-
milietaco Aguintariac beguiac ichiric, lotan, eta ezpaneta-
tic bera adurra dariela! gueiago: ez lirateque ere ecusico
aimbeste, Mundu onetaco Ondasunacaz ichuturic, gauza
guztiac berentzat bacarric eguinac baliran leguez, ezegaz
ase ezin ditubenac beren biotzac, eta Progimoari, artzen
daben, arnasa utsa ere opa ez deutsainac: ez lirateque
ere ecusico aimbeste Buruiritzi, beren biotzac arrotasu-
neco aiziagaz pusica baten antzera puzturic darabilde-
nac, eta Lurrian ozta Oñac ifinten ditubenac, Mundu-
tarren beguietan aiquetara emutiarren, zerbait diriala:
ez, nire Aisquidia; Orazinoa obeto eguingo baliz, bacoitzac
izango leusquie amorio gueiago Progimoai, gorroto gueia-
go bere oituera zatar guztiai, eta, Jaungoicoaganaco amo-
rioagaz eta bildur santubagaz arrotasuneco aize mada-
ricatuba botaric, ecarrico leuque bere biotza obeto tolezta-
uric, eta batere biurune bagaco arteztasun guztizcoagaz sant-
ziric.

Orazino Mentala

Esanic, Aisquidia, zer gauza dan Orazinoa; zembat
modutacua; Orazino eguiteco daucagun, Mandamentu es-
tuba; zeiñ on andico gauza dan aozco Orazino ondo eguiña;
eta nola Eracustzalla ascoren iritzian Christaun guztiocda-
ucagun Mandamentu estuba, Jaungoicoari aozco Orazi-
noa edo Vocala eguiteco, errazoiac dacar, oraiñ zerbait
esatia Orazino Mentalaren gañian; eta ala nua, onen gañe-
co ezagupera labur bat zuri emutera.

Orazino Mentala Eracustzalla guztien iritzian da
berez Orazino mueta obiagoa, aoz eguiten dan, Orazino
Vocala baño; eta orobat guztien iritzian biotzezco Orazino
mueta au ez da Christaun bacoitzarentzat batere premiña-
coa, baizican sorondatezcoa, norberac bere Estadubaren
aldetic edo beste moduz onetaraco Mandamenturen bat ez dau-

can bitartian.

David Jaunaren eta Profeta santubac esaten deusku, Jaungoicoaren Leguian gabaz eta eguiaz meditaitan daberá dala zorionecoa, eta au izango dala, Jaunac mugan ifiniric daquian, Arbolia leguez, zeñac emungo daben bere demporan bere frutuba: Jeremias Profeta santubac barriz esaten deusku: ondatu biarrez ondaturic dago Munduba; zergatic ez daquian iñor juizioz pensaitan daberic: Ho! eta zeiñ eguiandiac dirian oneic, Espiritu Santubarenac dirian leguez; bai, Atsquidia; Jaunaren Mentalaren videz sarritan benetan eta eguiaz bere biotzeco beguiac ifinten ditubaraac Jaungoicoaren Mandamentu santubetan, bere Seme Jesus Jaunaren vizitza eta pasino santubetan, eta guere azquenengo lau Novisimoetan, zeñac dirian Muerta, Juizioa, Zerubа, eta Infernuba, anchituco ditu aren Divina Magestadiagandic graxia ugariac, emungo ditu bere demporetan obra oneri frutubac, eta izango dala zorionecoa; zergatic aldian eta beragaz erabillico ditu, obra oneraco bizkortuco dauben eta pecatu mueta guztietatic atzeratuco dauben, Aculu zarrotzac: baña gauza santu oneicaz aazturic vizi dana nola galduco ez da? pecatutic atzeratu daiquian, batere Aculuric ez dauca, eta, bai, pecaturaco daucar, macurtasunac berac azpiraquetan dau.

Jaunaren Mentala da, aoz verbaric batere esan bagaric, batec bere biotz barruban bacarric Jaungoicoari eguten deutsana; bada nork naic bere biotz barruban esan daiquie, aoz verba eguinagaz esaten daben, guztia; au nola izan alditequian, edozeñec bere barruban nagoten dauretic errez ezagutu daiquie.

Jaunaren Mentalian guere biotzac obeto erdiraturic, eta erabaguiric gueldi quietan diran: obeto ezaguquetan ditugu guere barrubac eta Jaungoicoaren eguiac eternoac; Fedeac, Esperanzac, Caridadeac, Humildadeac, eta penitencia ditugun, beste virtute santu mueta guztiac ere surtzen deruskagoac ezaxii oi ditube guere biotzetan; badaezco Jaunaren agaz architu albadaiquegu mesede oneic guztioc, obeto eta errazago aretutu daiquegu Jaunaren Mentalaren videz; zergatic aozco Jaunagan ez deutsagu ainbeste lecu emuten Consideracino santubari, nola Jaunaren Mentalian.

Apostolu Santiagoc esaten deusku: unaratu zaitzte Jaungoicoari; eta Jaungoicoa zuben unera etorriko da: eta nola unera quieta au dan, guere biotzac eguten dau, lanquera, aldeorietatic ere aozco Jaunaren agaz batu Mentala vide obiagoa da, Jaungoicoagana gu unera que

taco, eta Jaungoicua gugana; baita ere Orazino santu onen bitartez onduen ezaguquetan dogu Jaungoicoaren vorondatia; nundic ere au obeto gorde daiquegun, eta nundic azquenic onduen anchitu daiquegun guere Animen salvazinua, neurriac artzen ditugu, Munduco negozioetan ondo urten gura dauben, guztiac neurriac artu oi dituben leguez, aurraz ondo pensaubagaz; argatic Orazino biotzezcoa edo Mentala berez da ascoz obiagua aozcoa baño.

Santidaderic andienera igo izan dauben eta gaurco egunian Altaretan beren Ymaginen bitartez adoraitan dirian Santu eta Santac beren aozco Orazino santubacaz ostian guztiz maite euben Orazino Mental au, egunic eta gauric gueienac iragoten zitubela Orazino mueta onetan; emen (esateco modura) Jaungoicoagaz bat eguinic gueldiquetan zirian, eta miragarrizco atseguintasunez beteetan eusten Jaungoicoac beren biotzac, jasoten zitubala egunetic egunera Santidade andi, eta guztizco batera.

~ Orazino Mentala aitu leique bi modutan; bata, bere zabaltasun guztian, eta onela Jaungoicoaganaco Animiaren biotzezco edozeiñ igoera considerazino santu batzuben bitartez, da Orazino Mentala: bigarrena, ordenan eguin oi dana, onetaraco eracutsi oi dirian, reglac gordiagaz, edo ia ordu lauren edo ia ordu erdi edo ia ordu bete bitartian, bacoitzac, onetaraco Mandamenturen bat ez daucan bitartian, zembat demporan Orazinuan egon gura daben.

Orazino Mentala aiquetan bada lenengo moduban, Christaun guztiac aurquiquetan dira, eguiteco, premiñan, salvauco badira; bada ezin iñor salvauco da, Jaungoicua amaitan ez dabela, ez da ere pecatu mortalen baten jausi dana, eguiaz damuturic Jaungoicoagana biurquetan ez dan bitartian; eta gauza jaquina da, Jaungoicoaganaco amorio santuba, edo pecatuben gañeco damutasun eguiazcua, ondo confesaitaco, beren

biotzetan sortuco daduben guztiac, bacoitzac bere modu-
ra, aurraz eguin biar ditubela onetaraco considerazino
santu batzubec; eta au eguitia da Orazino Mentala, be-
re zabaltasun guztian aitu ezquero, zeña dan lenengo mo-
duban aiquetan dan Orazino Mentala; baña izen onegaz
ez dogu gueien bat aiquetan, bigarren moduban aique-
tan dan, eta eguiten dan, Orazino Mentala baño beste-
nic.

Bigarren moduco Orazino Mentala, zeña bere
izate guztian da izen onetacua, eta izen onegaz gue-
ien bat aiquetan dogun, da ordenan eguiten dana,
onetaraco eracusten dirian, exregloc batec gordetan
ditubala; Orazino Mental au eguiteco Christanda-
deco Religino santubac iñoiz bere bacarrian ifini ez
deutsa Mandamenturic edo Legueric, Orazino egui-
teco, guztientzat ifiniric badauca ere; eta ala Christa-
sun guztiac eguiten daube aozco Orazinua edo Voca-
la, eta aozco Orazino santubagaz gañera batzubec
(au da) Christaunic guchienac dira Orazino Mentala
eguiten daubenac, obiagua bada ere aozco Orazino
santuba baño.

Orazino Mental onen gañian, Aisquidia, nic
esan aldeiquezudan guztia eta gueiago billatuco
dozu San Ygnaziogaren Egerziziotaco ensquerazcoli-
buruban, eta arquitasun, labortasun, eta Espiritu obia
quagaz esanic, nic esan aldeiquezudan baño; ala ere
aotan artu dodan ezquero, ez deritzot ondo, zerbait
zuri (aldodan moduban) esan bagaric gueldiquetia.

Baderitzot, Aisquidia, zeure sizitzaco dempo-
rario ascotaraco izango dozula on andicua, enquitia
Orazino Mental santu onen gañeco ezagupera pusquin
bat; nola dirian confesoitara juan gura dozunian, zeu-
re pecatuben gañeco damutasun eguiazcua zeure bi-
otzian sortu zeco, Orazino mentalian jarriric, conside-
razino santu batzuben bitartez; comulgau aurrian
eta comulgau astian ichasteco zeure biotza edo Espi-
rituba Jesus Diosnoaren biotzari edo Espirituboni, eta

etarateco Comunio santutic, Jesus maitiac zugan ecusi gura dituban, obra onetaco frutubac; Meza santuba aozco Orazinuagaz baño obeto entzuteco Jesus Divinoaren vizitza edo pasino santuco pausoren batzuben gañian meditaubagaz, eta Comunio espirituala eguinagaz Meza santubaren gañeco Capituluban esango dodan leguez; zeure ondoezen baten aoz verba eguiteco adoria galduco bazeu, Jaquiteco, zeure biotza nola Jaso Jaungoicoari, eta nola bialdu aren Divina Magestadiari zeure Animiaren ondarretic suspirio santu batzubec ia amoriozcoac, ia bere vorondate santuba zeure ondoez artan ontzat emutecuac, edo zeure pecatuben gañeco damutasunezcuac; Jai egunetan ere Meza entzunagaz gañera iragoten Jaquiteco dempora pusquin bat edo ia Novisimoren baten gañeco meditazinuan, edo ia Jesus maitiaren vizitza eta pasino santuco misterio edo pausoren baten gañeco considerazinuan; eta azquenic egunoroco zeure lanetan eta naibaguetasuneco ordubetan Jaquiteco, zeure Animiaren ondarrian Jaungoicoari Orazino labur batzubec eguiten, iñorc igarri bagaric.

Orazino mental santu au eguiten da aoz ezer esan bagaric Animaco iru Potenziacaz bacarric, zeñac dirian Memoria, Entendimentuba, eta Vorondatia; ara nola: Memoriac ifinten deutsa Entendimentubari bere beguien aurrian considerazino santu batzubetaraco gueiac; eta Entendimentubac guei onein gañeco considerazino santu batzubecaz, onetaraco Jaungoicoac argui eguinic bere grazia santubagaz, iratzarten dau Vorondatia ia pecatubacanaco gorrotora, ia Jaungoicoari bere erruquia escaquetara, ia aren Divina Magestadia alabaitara eta amaitara, ia bere mesediacatic esquerrac emutera, edo ia ala beretzat nola besterentzat mesediac escaquetara, zer afecto muetara Jaungoicoac bere graziaren arguitasunagaz lagunquetan deutsan, gauzacarbara bertara.

Orazino aurrian guertatu biar dau batec bere Animia, Liburu onen iruroqueta seigarren ojaan eta bere

espaldaan esanic itzi dodan leguez; eta ala guerta-
turic, bardin badaqui iracurten, eta badauca medi-
tau gura daben, gauzaren gañian, verba eguiten da-
ben, Liburu devoto edo espiritualen bat; artuco dau
Liburuba, eta iracurrico ditu, meditau gura daben, ga-
uzaren gañian, daucan, considerazino batzubec; ondo-
ren Liburuba alde batera itziric asico da, bere Entendi-
mentubagaz discurritan, iracurri dituban, considera-
zino santu aien gañian: bardin iracurten ez badaqui,
edo Libururic ez badauca, ecarrico dau Memoriara
meditazinoraco puntu espiritual aberats bat (auda)
nori nai, considerazino ugariac eta erraz eguiteco, gue-
iac emungo deutsan, puntu zabal bat; eta onen gañi-
an asico da eguiten, Fede santubac eracusten deus-
cun, considerazino santu batzubec; bada Fede san-
tubaren arguitasunagaz, doctrina Christiana ondo
daquian, Christaunac, iracurten jaquin ezagatic, izan-
go ditu considerazinoraco puntu guztiz aberatsac lau
Novisimuetaticedozein, naiz Eriotza, naiz Juizioa, naiz
Infernuba, naiz Zeruba, zeñetan edozein Christaunec
billatuco dau, zer considerau asco, erraz, eta bere on an-
diraco; bada Espiritu Santubac ez deutsa alperric esa-
ten Christaun bacoitzari, naiz iracurten daquiala, na-
~iz ez: zeure obra guztietan goguan euqui eguizu zeu-
~re Novisimuac; eta ez dozu eguingo pecaturic beñere.

Orobat iracurten jaquin ezagatic norc naic izan-
go dau meditazinoraco puntu aberatsa eta ugaria Je-
sus maitiaren vizitza eta pasino santuba; bada San
Pablo Apostolubac ez eusten esan alperric Corintioar-
~rai, ez ebela uste izan, beren artian berac equiala ezer
~ere Jesu Christo baizen, eta au curutzetic eseguiric: bai,
nire Aisquidia, au zan San Pablo Apostolubaren ja-
quinduria guztia, eta onec izan biar dau Christaun
guztien jaquinduriac, icasi daquien jaquinduria
onen bitartez Jesus Divinoaren antzera vizi izaten, eta
beren Etsai Diabruba, bere Lagun bi dirian, Munduba
eta Araguiagaz batera azpiraquetan, egon ditezen gue-
ro beragaz eternidade guztico Glorian.

Orobat, iracurten Jaquin ezagatic, norc naic izan-
go dau considerazinoraco puntu aberatsa eta ugaria
noberaren creazinoco eta Eliza Santaren Miembro izate-
co Jaungoicuac eguin deutsan mesediac, izanic, Jaungoi-
cuac Mundu zabal onetan eguin dituban, aimbeste Cria-
turen artian bere antzecua, beste Criaturen Jave izate-
cua, eta, zeñari servitaco, beste Criatura guztiac dauca-
in beren Eguilliaren aldetico Mandamentuba, Zeruco
Ainguerubac eurac ere bai; eta azquenic, bere antzera
eguin dituban, Criatura onein artian ere Jaungoicoac
ecarri dabena bere ezagupera santura, bere Seme adop-
tivo eta Eliza Santaren Miembro izatera, itziric, bere gu-
gandic ezcutauric daucan, Juizio santubacaz zorionecotasun au bagaric aimbeste Mundutar: puntu oneic eta
beste onelaco batzubec guztiz aberatsac dira edozein
Christaunentzat, considerazino santu eta ugariac egui-
teco.

Onela guertaturic, eta iracurriric edo goguan ar-
turic, considerau gura daben, puntuba, asico da biotz-
eco pozagaz, eta, Jaungoicuac lagunduco deutsan, es-
peranza errimiagaz eguiten puntu aren gañeco consi-
derazino santubac, itziric alde batera, Misterioren bat
nola izan alzitequian, ezaguquetaco eta Jaquiteco, gura-
ri alper eta donga guztiac, eta daucala bere Entendi-
mentuba ondo loturic eta ichatsiric Fede santuco eguiai;
eta Juango da discurso batetic bestera meditaubagaz,
bere vorondatia Jaungoicoaganaco afecto edo suspirio
santu batzubetara onduen iratzarri ditequian, modu-
ban; eta onela iraungo dau bere discursuetan edo me-
ditazinuan ordu lauren edo ordu erdi edo gueiaguan,
berac, Orazinuan egoteco, asmua artu daben, dempora
bitarte guztian; au nola izan oi dan, aitu eraguiteco, Ais-
quidia, ara, ifintera nuatzun, ondorengo orazino Mentala.

Batec meditau gura badau Jesu Christoren Ja-
iotzia, asiten da bere Entendimentubagaz discurritan,
nor dan Jaioten dana, eta consideraitan dau, dala, Gui-

zon eguin izan dan, Jaungoicoa bera, eta onegatic admiraitan da: consideraitan dau ondoren toquia, nun jaio zan, eta ecusten dau Asca bat, nun egozen Ganaubac loturic, eta onegatic admiraitan da: consideraitan dau, zer demporatan jaio zan, eta ecusten dau, jaio zala, negubac daucan, demporaric gogorrenian, eta admiraitan da: consideraitan dau, jaioten danaren euquiac norañocuac dirian, eta ecusten dau, Jaungoico au, Aur eguinic, daguala Asca baten Ganau bien erdian, estalduric zapi zatar batzubecaz, bereetara etorriric, eta iñorc Ostaturic emun gura ez eutsala, eta admiraitan da: consideraitan dau, nola jaio zan, eta ecusten dau, urten ebela bere Amaren entraña garbietatic bere Virginidadiaren batere calte bagaric, Eguzquiac Cristal bat baterian bestera batere calte bagaric irago oi daben modura, baita ere bere Amaren batere miñ bagaric, eta beste Emacume guztiac beren Sein jaiotzetan irago oi dituben beste naibague guztietatic batere bague, eta admiraitan da; eta mirari onein guztien considerazinuagaz iratzarten dau eta bigunquetan dau bere sorondatia, eta eguiten ditu jaioten dan Jaungoico eta Aur eguiazco Jesus Divino oneganaco amoriozco actuac, eta artzen ditu proposito santu batzuben bitartez, aurrera obeto amaitaco, neurriac, eta emuten deutsa azquena Orazinuari, guero esango dodan leguez: egemplu onegaz uste dot, Aisquidia, aituco dozula, zer moduz eta nola batec eguin biar daben bere Orazino Mentala beste edozein Misterio edo beste edozein punturen baten gañian.

David Erregue eta Profeta santubac Jaungoicoaren alabanzaraco Canzino baten aiquetara emuten deuscu Orazino Mentalaren erru miragarrizcoa onela: berotu da (esaten dau) nere barruban nire biotza; eta nire meditazinuan izioco da suba: Orazino Mentalian daguanaren barruban eta biotzian considerazinuagaz ascotan izio oi dan, su au da ouztiz arguia, biguna, eta gozoa,

ifirten dau Animia arquitasun andian, ezaguqueta-
co ondo Jaungoicoaren eguii eternuac, eta bere biguntа-
sun eta gozotasunagaz iratzarten dau, Orazinuan da-
guanaren, Yorondatia afecto edo suspirio santu batzube-
taraco, zeña dau Orazino mentalaren lenengo fututuba, ba-
ña ez bacarra eta azquenengoa, guero esango dodan leguez.

Orazinuan daguanac ez dau indarric batere eguin
biar, su au bere biotzian izioteco, ez da ere bere Yoronda-
te baguia iratzarteco; onetaraco deseo larreguiari ere al-
de batera itzi biar deutsa; eta bacarric eguin biar dabe-
na da, Jarraitu bere biotzeco aldaben baqueric andiena-
gaz bere considerazino santubari, eta, onen bitartez Jaun-
goicuac izioten badeutsa bere biotzian su mixagarrizco au,
lecu emun biar deutsa, eta, su santu onegaz beroturicaco
Yorondatiaren ondarrian Jaiotoren dirian, Jaungoicoagara-
co afecto edo suspirio santubai Jarraitu biar deuste: es-
tadu onetara etorri ezquero Orazinuan daguana, itzi biar
deutsa, discurso edo considerazino gueiago eguitiari be-
re Entendimentubagaz, eta auxeraco lanac eguingo ditu
bere Yorondatiagaz, emen sortu izan dirian afecto santu-
bai, Jarraiquetan deustela, eta oneitan eta oneicaz gozatu, berotu, eta sendatu bi-
ar dau aimbat gueien bere Animia; bacarric bada, ecus-
ten dabenian itzunguiric bere Yorondatia afecto edo sus-
pirio santu oneitaraco, bere biotzac igues eguin deutsalaco
beste ganzatara, naiz dala bere culpaz naiz bere culpa
bagaric, biurtu biar dau bere Espirituco baguian, eguite-
za considerazino aiec, zeñaren bitartez Jaungoicoac irat-
zarri eutsan Yorondatia afecto santu aietaraco, eta, ber-
iz billaturic oneic, itzi biar deutsa Entendimentubaren
aldetico considerazinoari, eta Jarraitu biar deutsa (len
esanic itzi dodan leguez) bere Yorondatiaren aldetico
movimentubari; zergatic, considerazinoaren edo medita-
zinoaren bitartez batec ~~batec~~ billatu gura daben, gauza
onchitu ezquero, ez dauca gueiago, zer aren billa ibilli.

Batzubetan guertaquetan da, Orazino Mentalian batec, consideraitaco artzen daben, guei edo puntubaren gañeco lenengo discursuagaz iziotza bere barrubar Jaungoicoaren su santuba, eta su onec viztzeia bere vorondatia afecto edo suspirio santu oneitaraco; beste batzubetan, daroian, gueiaren gañeco discursuetan santu bagaric, gogora etorri oi dan, beste edozein discurso santu batezgaz Jaungoicoac daqui izioten guere barrubar bere su santuba, eta onegaz viztzen guere Voxondatia; bada aren Divina Magestadiac ez dauca loturic bere grazia santubaren aize maitagarria, batec meditaitaco, daroian, gueiari, edo onen gañian eguin aldaiquian, discurso ascori, edo guichiri; eta ala noiz nai eta nundic nai aren Divina Magestadiac bere graziaren aize santubagaz izioten deutsala bateri bere Animiaren ondarrian su miragarrizco au, itzi biar deutsa, bere Entendimentubagaz gueiagoco discursoac eguitiari, eta aurreraco lanac eguin biar ditu, su onegaz iratzarriric eta izioric daucan, Voxondatiagaz: baña, noiz baiten onela guertatu albaditeque ere, Jaungoicoac uste bagaco grazia au eguingo deutsan, ustian ez dau iñorc asi biar bere Orazino Mentala, aurraz iracurri bagaric, albadau, eta ezin badau, goguan artu bagaric consideraziñoraco gueia edo puntuba.

Çsanic itzi dot, Orazino Mentalaren lenengo frutuba dala iziotia gure barrubar su santu bat, zeñagaz beroturic Voxondatia iratzarten dan, bialquetaco Jaungoicoari afecto edo suspirio santu batzubec, baña ez dala au frutu bacarra eta azquenengoa; eta eguiaz; bada au guztiau da uda barrian Arboliac etara oi daben lora ederraren artzeracua, zeña, bardin, galduric, fruturic emuten ez badau, utsa aña da; oxobat bada Orazino Mentalaren lenengo frutu au utsian gueldiquetara dator, bardin sortzen ez badau Voxondatian, Jaungoicoa obeto amaita-

co eta noberaren emiendaraco deseo eguiazco bat, zeña dan Orazino Mentalaren azquenengo frutuba.

Orazinuari azquena emun aurrian ecusico dau, zerc vizioc edo pasinoc guerraric gueien eguiten deutsan, eta eragozten deutsan, Jaungoicoaganaco amorioan gueitubagaz aurrera suatia; eta, vizio mueta ori zuzenian deseguinquetacoa, dan, Virtute santuba bere biotzian sortzeco, neurriac artuco ditu, proposito, artaraco dirian, batzuben bitartez, zeñac oñian ifinteco bere demporetan, eguingo dau, beragan dan, guztia; eta, virtute santu au anchiquetaco, premina daben, laguntasuna escatuco deutsa aren Divina Magestadiari aimbat confianzaric andienagaz: ara nola.

Laister aserraquetaco humore vizicua danac artu biar dau asmo firme bat, saqaquetaco eta atzera eraguiteco ocasinuetan, aserrian erraz eta laister sartu eraguiten deutsan, bere biotzeco vizitasunari, eta gozaquetaco bere biotza aimbat biguntasunic andienagaz: arrotasuneco aiziaren zale danac artu biar dau asmo errimia, bere gauza guztiac eguiteco Jaungoicoaren izen santuban, eta ez Mundutarren beguietan ondo iriztiarren; santzi modacuen ondoren beren biotzac urturic darabildenac, aiec ezebereztzat euquiteco eta alde batera izteco asmua: Buru iritzi eta Berecoiac dirianac beren Lagun Progimuai, eurac duin baño gueiago izan ezagatic, humildaitaco propositiuac, iŝillic gueldiquetan diriala errazoia euquiagatic ere, batez ere onetatic ez badator, eubenagaz ez urtetia baño beste calteric: Lagun Progimuacanaco erruqui guchicuac dirianac, beren preminetan aldauben, laguntasuna eguiteco, propositiuac, gaiŝo dirianian ere visitaubagaz; eta onela beste edozein vizio mueta guztietan: ez diñot ezer, vizio nagusietan sarturic vizi dirianac artu biar dituben, propositiuen gañian, nola dirian Ordiac, Lujuriosoac, Vengativoac, Murmuratzallac, iñorenagaz vizi dirianac, Maldizientiac eta beste onelaco asco; bada ez dago aiñ ezagupera guichicoric, onelacuen eta quizurtien propositiuac nolacuac izan biar dauben, ondo ez daquianic.

Onela, premina daben, virtutia Jaungoicoari escaturic, eta emiendaraco propositua arturic, emun biar deutsa aren Divina Magestadiari esquerrac, Orazino artan eta bere vizi guztian eguin deutsan, mesediacatic, eta escatuco deutsa, berac ala Orazino artan nola bere vizi guztian eguin deutsan, uts eguite guztien parcazinua; eta onela emunic azquena bere Orazino Mentalari zeñaturic Juango da bere lanetara asmo errimiagaz, bere proposito santubac beren demporetan gordetaco.

Sarritan izentau ditudan Vorondateco afecto santu oneic batzubetan Animan bacarric iragoten dira, eta beste batzubetan beren ugaritasun edo noberaren humore modubaren videz zabalquetan dira Corputzeco sentidubetara ere; Confesinoaren gañeco trataduban biotzeco damutasunagatic esango dodan leguez; eta ala ez dauca iñorc ezer estutu batere, afecto santu orrelacuetan bere beguietatic negar malco gozoac itzulten ez baditu; bada ascotan sentimentu gozo onerianac izan oi dira Animiarentzat, on baño calteguei agocuac, Ezti utsa Ogui bagaric Corputzarentzat izan oi dan leguez. Batzubetan bat egon oi da Orazino Mentalian Arri baten guisara, batere Memoriaric, Entendimenturic, eta Vorondateric ez baleucan leguez; onela daguanac uste dau, onetan iragoten daben, demporia alperric galtzen dabela; baña ez da ala; bada, bere culpaz ez bada, ez dauca zergatic estutu; ez deutsa ere itzi biar, Orazino Mentalian egotiari, onetan emuten deutsala aren Divina Magestadiari atseguintasun andi bat, Erregue bateri bere Palazioan daucan, Vulto eder batec emuten deutsan leguez; onela batec ecusten dabenian bere buruba, aimbat humildaderic andienagaz noizian bein esan biar deutsa: Jauna, ona emen Servitzari alper bat; quendu eguizu nigandic Animaco ezebereztasun eta ligortasun au; baña ez bedi guertatu nigan, nic gura dodan leguez, baizican zuc gura dozun, moduban: onenantzera Jesus Divinoac bere pasinuaren aurrian Getsemanico baratzan bere Aitari iru bider eguin eguin eutsan Orazinua, baita ere beste Santu ascoc urte asoetan, Jaungoicuac eurai beren biotzetaco poza emun arteraño.

Etsaiac guztiz ondo daqui, Orazino Mentala zeiñon andicua dan guretzat; eta ala bere asmazino andiac dira, nundic quenduco deuscun on au; baña asmazino oneic deseguinquetia, izten dot Confesore aditu baten gobiernu onera.

Humildadia

Humildadia da Orazinuaren Senide aiñ maitia, zein da bata bestia bagaric ezin egon ditezque, eta Diabruba azpiraquetaco aiñ preminaco Virtutia, zein da au bagaric vizi dan, guztia da Diabru sovervioaren Servitzaria.

Jerusalengo Templo santura Publicanuagaz batera Juan zan Evangelioco Fariseoac, Orazino eguitera, eucan bere buruba Santu anditzat; eta asi eben bere Orazinua, Jaungoicoari graziac emunagaz, eguin ebelaco bestiac baño obiagua, baita ere beragaz batera sartu zan Publicanua baño obiagua, eta arrotasunez beteric emun eutsan esatiari, eguiten zituban, obra on guztiac: baña zer on uste dozu, Aisquidia, etara ebela Guizon onec Orazino onetatic? biurtu zan bere Echera Jaungoicoaren aserrian; au izan zan bere Orazino humiltasun bagecuaren frutuba: Publicanuac barriz ezaguturic, eguala burutic oñetaraño pecatuz beteric Juan zan Templo santubac eucan toqui urrin batera, eta an beguiac Zerura Jasoteco arpeguiric ez eucala Joten eben bere bularra damutasunaren erruz, eta escaquetan eutsan aren Divina Magestadiari: euqui begui erruquia ni Pecatariagaz: au izan zan Templo santuban egon zan dempora guztico Orazinoa; eta esaten deuscu Jesus Divinuac bere Evangelio santuban, biurtu zala Publicano au bere Echera pecatubac parcaturic Jaungoicoaren aisquidetasunian; eta emuten deuscun errazoia onetaraco da, zergatic goraquetan dabena bere buruba izango da beeratuba, eta bere buruba beeraquetan dabena izango da gora Jausoa: Ho! Humildadiaren erru miragarria!

Humiltasun santu onen videz leen Pecatari andi zan Santa Maria Madalena Jesus maitiaren oñetan gueldi tu zan beinguan Santa andi bat eguinic; orobat Calvarioco Mendian Lapur bi aitatic ona, curutzian Josiric eguala Jesus onaren aldamenian, izanic arteraño ala Lapur bata,

nola bestia pecatari guztiz andiac; eta beste bere Laguna guelditu zan eta ill zan bere gogortasunian, Humildaderic bestiac leguez ez eucalaco: ez dago bada, Aisquidia, Orazino eguiazcoric Humiltasun bagaric, ez da ere Humildade eguiazcoric, Orazino eguiteco, preminia bateri ezagutu eraguiten ez deutsanic; eta ala zuc ere, Aisquidia, Jaungoicoari eguingo deutsazun Orazinoac ez deutsazu eguin biar zeure biotzeco arrotasunian, baizican Humiltasunian, ezaguquetan dozula zeure ezebereztasuna, eta pecataritasuna; eta escaquetan deutsazula zeure pecatu guztien parcazinoa, ala ezaguquetan dituzunena, nola ezagutu bague bere begui Divinoen aurrian eguinic daucazun guztiena.

Humiltasuneco Virtute au da ere, Diabrubari lotsaturic igues eraguiteco, aiñ preminacua, zein da au bagaric vizi dirian guztiac dira Diabru soverviaren Jarralla eguiazcoac: soverviaco vizioa eta Humildadeco Virtutia dira señale eguiazcuac ezaguquetaco guere modura, ete garian Diabrubaren edo Jesus Divinoaren Jarrallac: Diabruba izanic lenengotic Jaungoicoaren escuco Criaturaric ederrena, esquerrac ertun biarrian bere Onguillari, arrotu zan bere edertasunagaz, uste izan eben zerbait gueiago, zan baño, izatia; eta ala artu eben asmua Jaungoico bere Onguillia duin gara izateco; eta soverviaonegaz galdu zan, eta bere gogo eta asmazino guztiac dira, nundic eguingo gaituban bere antzera Soverviac, guere Onguilla Jaungoicoagandic igues eraguinic: Jaungoicuac barriz, izanic bere izatez, eta bera bacarric andia, gura izan eben ezeberezquetia, Curutze baten Gaitzeguilla bien erdian eta Gaitzeguillaric aurrenengoa balizan leguez illteraño, humildaitan zala onetaraco bere Criatura guztiai ez bacarric onai, baita ere dongai, eracustiarren guri, humildiac eguiaz izaten, eta Humildadeco videtic eruatiarren gu beragana, nogandic Diabrubac soverviaren videz igues eguinic eracutsi euscun beste aimbeste eguiten; ez dago bada, Aisquidia, Diabruba azpiraquetaco beste videric Jesus maitiac era-

cutsi Euscun Humildade santuco vidia baño; aiñ premi-
nacua da.

Aingueru Leial guztien Buru San Miguel Ain-
guerubac ondo ezagutu eben Humildade santuba-
ren premina andi au, zabaldu ebenian Zeruban Hu-
mildadeco Bandera; bada bere Onguilla Jaungoico-
ari zor eutsan alabanza eta esquerrac emunagaz
~erantzun eutsan Diabrubari aguitz; nor Jaungoi-
~coa lezcoric? eta au esanagaz batera Jaungoicoaren
aguinduz bota eben betico Zerutic Diabruba bere Jar-
ralla guztiacaz, eta bera bere Lagun Leialacaz guel-
ditu zan Zeruban betico glorian: orobat David Erre-
gue eta Profeta santubac aiquetara emuten deuscu
Virtute santu onen premina andi au, esaten deuscu-
~nian Jaungoicoaren alabanzaraco Canzino baten: nor
~Jaungoico gure Jauna lezcoric, zeña vizi da Altura (Ze-
~rucoetan) eta beguiraquetan deuste Zeruban eta Lur-
~rian humildiac dirian gauzai? bai, Aisquidia; aren
Divina Magestadiaren fin bagueco Anditasunac eta On-
tasunac igues eraguiten deuste arroquetan dirian guz-
tiai, eta urreraquetan izten deuste humildaitan dirian
guztiai; nundic Santiago Apostolu gloriosua dator
~esatera: Jaungoicoac Sovervioai atzera eraguiten de-
~uste, eta emuten deuste (bere) grazia Humillai.

Aren Divina Magestadiac ecusiagatic bere Ama
izan biarco eben Maria Santisimagan Virtute mueta
guztiac eta ezin gueiagoco ontasunian, gueien iraba-
zi eutsana bere biotza izan zan ~~bere~~ humiltasuneco Vir-
tute santuba, Señora onec beronec Jaungoicoari mese-
de onegatic esquerrac emuteco etara eben Canzinuan
~aiquetara emuten deuscun leguez: zergatic beguiratu
~deutsan (diño) bere Esclavaren Humiltasunari: eta ala
orobat izan zan Señora onec erantzutia Aingueru
~San Gabrieleri: ona emen Jaungoicoaren Esclava; guerta-
~tu bequit, zuc esaten deustasun leguez: beriala Jachi
zan Jaungoicoaren Semia bere Erroi garbietara, gure Na-

turaleziagaz jaaztera; aimbesteraño Humildadeco virtute onec irabazten deutsa Jaungoicoari bere biotza: ecusi daigun orain, zer gauza dan Humiltasuneco Virtute miragarrizco au, zembat modutacua dan, eta zertan daguan, bat humilla izatia.

~ Humildadia da, norc berac, bere argaltasuna eta ~ ezebereztasuna ezaguturic, bere Buruba ezebereztzat ~ vorondatez euquitia, eta amorioz, bestia baño gui- ~ chiagotzat daucala, beeraquetia; Soverviaco Vizioa bar- ~ riz da, norc berac euqui gura izatia bere Buruba bes- ~ tienac baño gueiagotzat.

~ Espiritu Santubac esaten deuscu, pecatu guzti- ~ en sustraia dala Sovervia, eta Sovervia onen asipena ~ daguala batec bere Eguilla Jaungoicoagandic igues ~ equitiagan: beraz vizio madaricatu au deseguindubi- ar daben Humildade santuba da, nire Aisquidia, Virtute guztien sustraia eta ontasun guztien zimentu errimia; eta Humildade santu onen asipena Guizonen biotzian dago bere Eguilla Jaungoicoagana, nogandic igues eguin eben, biurquetiagan.

Humildadeco virtute santu onetan guere Entendimentubac eta Vorondatiac daucai zer eguin; Entendimentuba sartzen da, guere argaltasuna eta ezebereztasuna ezaguquetara, eta ondoren ezagupera onen videz guere Vorondatia sartzen da, guere Burubac amorioz ezebereztzat euquitera.

Virtute santu au bi modutacua da; bata preminacua, zeñagaz batec igues eguiten deutsan Soverviaco vizioari, eta iguiñ dituban eguiaz bere merezimentubacaz gañeraco, aguinte, honra, eta anditasunac: bigarrena da vorondatezcua, eta au da, zeñagaz batec, ecusiric bere uts equitiac, pecaturaco macurtasuna, eta oneraco bere aldetic daucan indarbagatasuna, ez bacarric iguiñ ditu bere merezimentubacaz gañeco aguinte honra eta anditasunac, baita ere bere merezimentubac duin garacoac eta guichiago dirian Escuvide, Honra, eta Anditasun guztiac, gurago dabela

beetic eta ezcutuban vizi, gora zerbait igoric Jaungoicoaren Tribunalian zer ecusi gueiago euqui baño.

Ecarri biar deutsa batec Humildadia Jaungoicoari beragatic, eta Lagun Progimuai Jaungoicoagatic: San Pedro Apostolubac esaten deuscu: humildau zaitezte Jaungoicoaren Escu guztiz poderosoaren bendian: bai, Aisquidia; au San Pedro gloriosuac esan bagaric ere, guere Entendimentuco Arguitasun naturalac berac eracusten deuscu; Jaungoicoari bada ecarri biar deutsagu aldogun Humildaderic andiena, larreguiaren aldetic beñere utsic eguingo dogun batere bildur bague; zergatic ezin beñere humildauco gaitzaco aren Divina Magestadiari, bere fin bagueco Ontasunac eta Anditasunac escaquetan deuscuben gara: Jaungoicoaganaco humiltasun bagaric ezin iñor salvau diteque.

Lagun Progimoacanaco Humildade santubac dauca iru malla: lenengoa da, batec bera baño gueiago danari humildaitia gauza artan, zeñian bestia dan gueiago, eta bera duin gara dirianac baño gueiagotzat ez bere Buruba euquitia: bigarrena da, bera duin gara danari humildaitia, eta bera baño guchiago danaren gañera ez igo gura izatia: irugarren mallia da, bera baño guichiago diranai humildaitia, eurac baño guichiagotzat daucala bere Buruba, bere biotzian daguan Humildade guztiz andiaren erruz: Humildadeco lenengo malla da preminacua guztientzat, Diabruba azpiraquetaco; bada malla onetara eldu ez dan Christauna, da eguiaz sovervioa, eta Diabru Sovervioaren Servitzari eguiazcoa; eta malla lenengo onetatic zeimbat doian bat Jaachiagaz beste malla bietara, aimbat urrinago bere aldamenetic igues eraguiten deutsa Diabrubari.

Jaungoicoaganaco Humildadian, esanic itzi dot, ezin utsic eguin daiquegula larreguiaren aldetic; bacarric bada emen uts eguin daiquegu guichieguiaren aldetic; baña Lagun Progimuacanaco Humildadian uts eguin daiquegu alde bietatic ala guichieguiaren aldetic, nola larreguiaren aldetic; eguia da; guienetan uts eguiten dogu gui-

chieguiaren aldetic; ala ere uts eguin daiquegu, larre-
guian besteri humildaubagaz, batez ere bat larregui hu-
mildaitatic bere bendecuac, itzala galduric, gura dauben
guztia eguiteco, eguac artzen baditube; bada gauza ja-
quina da; bardin bat humildaitatic Lagun Progimuac
eguac artzen baditu soverviaraco eta pecaturaco,
edo ez deutsa humildaderic eracutsi biar, edo, ecarten
badeutsa, eguin biarco dau au alaco prudenziagaz
nun bere humiltasunetic bestiac ezin artuco deutsan
soverviaraco videric; au goguan euqui biar dau-
be Familietaco Buru eta Guraso dirianac, batez ere
vide bagaco verba edo gauzaren bategaz beren bende-
coren bat ofendidu badaube, jaquin daguien neurriac
artzen, eta, emun biar deutsain, satisfaccinoraco humil-
daitan, bestiac itzala galduco ez deusten moduban:
baña, Aisquidia, onerian gauzaren gañian bildurren
bat daucazunian, ez dozu erabagui biar gauza zeu-
re buruz, baizican billatu biar dozu zeure Confesore
aditubaren iritzia, eta, esaten deutsuna, eguin.

Perfeccinoco edo ontasun guztizco vidiari, Santu-
bac eguin euben antzera, jarraiquetan deutsain, guz-
tiac jarraiquetan deutsai Humildade santubari ez
bacarric premiñacoa danari, baita ere vorondatez-
coari, eta daucan bere iru malla guztietan; eta egui-
az zembat eta berago bat doian jaachiagaz Jaungoico-
aren eta Progimuen aurrian vorondatez eta amorioz,
aimbat urrinago botaten dau bere biotzetic soverviaco
co arrotasuna, eta bere Eracustzalla Diabruba.

Bai, nire Aisquidia; zimentu bagaco Echia, berez
eta laster dator jaustera, orobat Christaunaren vizit-
za Humildadeco virtute santu bagaric; batec zembat
gorago jaso gura daben Echia, eta pisu gueiago ezarrte-
co gogua daucan, aimbat Zimentu errimiaguac ifin-
ten deutsa Lurraren azpian, izanic Eche ondo eguin-
go dan aren lenengo langueia, errime beeraquetia, ondoren
errime gora iguagaz juan dedin; orobat bada eguin

biar dau Zeruco goietara igo gura daben Christaunac; lenengo ezarri biar deutsa bere vizitzaiari Humiltasuneco Zimentu santu errimia, beeraquetan dabda Mundu onetan bere Buruba aimbat gueien vorondatez eta amorioz, eta ondoren Juan biar dau iguagaz virtute santu batetic bestera; zergaitic emen goitic ibilli gura badau, ezin igoco dau Jesus maitiac eta humildiac Humildadiaren gañian ifiniric daucan Zeruco Ciudade guztiz miragarrizcoaren Vezino izatera, baizican Zimentubac uts emunic Jausico da Ynfernubaren ondarrera: au Fede santuco eguia da, nire Aisquidia.

Humildadeco virtute santu au ez bacarric da, Jaungoicoaren beguietan onac eguiten gaituben, beste Virtute santu mueta guztien zimentu errimia, baita ere beren Estari sendoa, zeñagaz Christaunac bere virtute eta ontasun guztiac ezcutaitan ditu ez bacarric Mundutarren beguietatic, baita ere noberaren beguietatic, bacarric aguirian gueldiquetan diriala Jaungoicoarentzat eta ez besterentzat; eta ala Christaun eguiaz humildia danac eguiten deutsa Justizia Jaungoicoari, bere burubari, eta Lagun Progimuari; Jaungoicoari, uste izanagaz, bardin badauca gauza onic, daucala, berac merezi ez daben Jaungoicoaren fin bagueco erruquiaren videz; bere burubari, uste izanagaz, ez daucala berez pecatuba eta pecaturaco macurtasuna baño besteric; Lagun Progimoari, uste izanagaz beste guztiac bera baño obiaguac; bada ez da iñor izango, dan zatarrena ere, zeñian aurquituco ez dan, norc berac ez daucan ontasun muetaren bat, eta zeñagatic batec uste ezin leiquian, bera baño ascoz obiagua izango lizatequiala, bardin izan baleu, berac izan daben, Jaungoicoaren aldetico laguntasuna, eta orobat ez dala eguin iñoiz, eta eguiten Mundu onetan gaiztaqueria ain madaricaturic, zeña berac eguingo ez leuquian, Jaungoicoac bere escutic itzi ezquero.

Ecusten dozu, Aisquidia, nola sutaco chingarrac edo

illinti izioac, eguiten dauben, Autsagaz estalduric gueldiquetan dirian; eta onela gorderic egoten dira autsaren azpian, iñorc ecusten ez ditubala, preminaco demporetan berriz vizturic eguin daguien beren lanac; orobat bada Jaungoicoaganaco eta Lagun Progimoanaco amoriozco subac eta onec izioten dituban beste Virtute santu mueta guztiac sortzen daube noberaren biotzian Humildade santuco ezebereztasuna edo Autsa, zeñagaz gueldiquetan dirian estalduric, ezcutauric, eta ondo gorderic, ia nor beraren arrotasunac edo ia besteren Miñ labanaren aize madaricatubac deseguindu ez daguien, baizican beren demporetan berriz vizturic eguin daguien bacoitzac bere lanac.

Humildade santubac ez deutsa iñori eragozten artzeia, baizican premiñan ifinten dau, eta pecatubaren azpian, artzeco bere Aguintari eguiazcuaren escutic honrrac eta escuvidiac, bere Aguintariac aguinquetan badeutsa, eta gura eta gura ez artu eraguiten badeutsa onerian onra eta escuvidiac, uste izanagatic ere, diriala bere merezimentubacaz gañeracuac; bada, estuasun onetara bat etorri ezquero, izango lizateque guoien bat sovervia Humildadiaren iduripenagaz ezcutauba, ez artu gura izatia onerian honra eta escuvidia; Jesus maitia izanic Jaungoico, eta Guizon eguiazcua, etzin zan bere Diszipulu San Pedroren oñetan, oneic garbiquetaco asmuagaz; San Pedro guizaiñuac au ecusi ebenian, guztia izuturic, bere Humildade andiaren erruz esan eutsan; Jauna, zuc niri garbiquetan deustazu oñac? ez deustazu garbituco eni beñere oñac (zan esatia) ez deutsut itzico beñere nire onac garbiquetan: au entzunic Jesus onac erantzun eutsan: ez dozu nigaz zer ecusiric izango, bardin garbiquetan ez badeutsut oñac: orduban esan eutsan San Pedroc: Jauna, ez bacarric nire oñac, baita ere escubac eta buruba, eta itzi eutsan bere oñac garbiquetan: orobat Juan zanian San Juan Bautistagana, batiatuba izatera bere escutic Jordango ibaicouretan, bere Humildadiac eragotzi eutsan, Jesus Divinoaren

gañeco escuvide au artzeia; baña, ecusiric Jesus maiti-
aren onetaraco vorondate erabaguia, batiatu eben: bai,
Aisquidia; Humildade eguiazcuac, Aguintari eguiazcua-
ri ecarri biar deutsagun, obedienziaren aiñ batere calte
bagacuac izan biar dau.

Humiltasun santu onec izan biar dau, Aisquidia,
ez ezertaraco gogoric eta arretaric ez daucan, biotzetic sor-
tubac, eta billac, baizican vorondatezcuac, amoriozcuac,
batere billtzen ez dan, biotz batetic sortubac, eta Jesus Di-
vinoari ondo ichaatsiac, eta poz onecuac; ecusten dozu,
nola, lurrian ozta oñac ifin dituban Aur bat, Amac escu-
tic artzen dabenian, dabillen pozic eta Jausico dan batere
bildur bagaric, orobat bada Humildade santu onec ifinten
gaitu gu ere, Jesus Divinoari aimbat esperanzaric sendoe-
nagaz betericaco erregu eta escavidiaren videz guere escu-
bac luzaquetaco, eta emuteco, preminan; eta berac oraturic
escutic gabiltza pozic bere vorondate santuco vide guztie-
tan.

Esanic bada Liburu onen iruroqueta amazazpi gar-
ren ojaren ostian eta ondorengoetan, zer gauza dan, eta
zembat modutacua Humildadia, ez da neque, Aisquidia,
igartia, zertan daguan, bat eguiaz humilla izatia; ala
ere verba guichitan aiquetara emungo deutsut: bat egui-
az humildia izatia dago, bere burubari vide bagaco
amorioa ucaturic, eta gorroto santubat euquiric, besti-
ac baño beerago vorondatezco vizi izatia amaitiagan:
asco dira, humildadia azaletic eracusten daubenac; ba-
ña azal eder onegaz billaquetan daube beren burubaca-
naco amorio vide bagacua, eta Proximoaren aldetico on-
ra eta alabanzac, edo (dongago dana) beren gaiztaque-
ria madaricaturen batzubec; onelacuac gaizqui humil-
daitan dira, eta ozta batec, eurac azaletic aiquetara
emuten dauben leguez, bera baño guchiagotzat euqui gu-
ra ditu, eta edozein gauzatan ucuquetan deuste, ia be-
ren narrubac ezin azpian artu ditu; eta ala ez daucai
eguiazco Humildaderic batere.

Eguiaz humildia danac inorc (esan oi dan leguez) bere erropan ucutuagatic, ez dau galtzen bere biotze-co baquia, ezaguturic aimbeste eta gueiago Jaungoi-coaren aurrian irabaziric daucala; eta beguiratu-ric Jaungoicoaren onriari eta Progimoen onari da-tor guztien Esclavo eta Servitzari leial bat izate-ra, vide onetatic anchitu daguian, bestiac baño an-diagua izatia; ez naiz ni, Aisquidia, Munduba-ren Jarrallac alde batera izten dauben, vide au, an-dienac izateco, eracusten dodana; baizican Jesus Di-vinoa bera da esan eustena bere Diszipulubai: zuben artian andiena eguitia gura dabena izan bedi zuben Servitzaria.

Esan dodan guztia Virtute santu onen gañian utsa da esan alditequian alderaco; bada beste bazter zaba-lic asco dauca emen eracusten ez deutsudanac; ala ere, Aisquidia, uste dot, orainguino esan deutsuda-nac eta ondoren esatera nuatzunac Virtute onen gañi-an badituzula premina dozun gara, Soverviatic eta bere Eracustzalla Diabrubagandic igues eguiteco: bada zeure ofiziocuen eta vizimoducuen artian Dia-brubac, Mundubac, eta Araguiac Humildade oni ifin-ten deutsain Amu mee, zorrotz eta indartsubac (aur-reco aldiac egunoro eracutsi oi deuscun leguez) eta oneic urrinetic ecusteco, vidiac eracustia, deritzot, zu-retzat ascoz obiagua izango dala, Virtute santu onec dituban beste bazter zabalac zuri eracustia baño: onetaraco beguiratu daigun lenago Jesus Divinoaren Yspillu miragarrizcuari.

Evangelio santuban daucagu Christaun guzti-oc Jaungoicoaren betez betezeco Mandamentu bat, ze-ñian esaten deuscu: au da nire Seme maitia, zeñian ifi-ni dodan nire biotza; entzun eguiozube berari: entzun deiogun orain bere Seme Jesus Divino oni, zer esaten de-uscun: icasi eguizube nigandic; zergaitic naizan biot-zetic biguna eta humildia: au esaten deuscu bada;

eta, gu (gura eta gura ez leguez esateco modura) bere esa-
nac entzun eta eguiteco preminan ifintiarren, artu eben
asmua, beragan sinisquetan dauben guztiac berari
(au da) Jaungoicotasunagaz uniduricaco bere Guiza-
tasunari errime ichasteco, Mats adarrac errime icha-
tsiric dagozen leguez beren Mats orpoari; argatic esa-
ten deuscu bere Evangelioan: ni naiz Maats (orpo) egui-
azcoa; eta nire Aita da Necazaria: nigan fruturic
emuten ez daben, Mats adar guztia quenduco dau;
eta, frutuba emuten daben, guztia garbituco dau, fru-
tu gueiago emun daguian: ni naiz Maats (Orpua) zu-
bec (Maats Orpo onen) adarrac; nigan daguana eta
ni beragan, onec dacar frutu asco: eta onetaraco Ais-
quidia, zer vide, uste dozu, artu ebela Jesus Divinoac?
Ita! Fede eguiazcoagaz beguiratu bategaz bacarric
bat pozen pozez zoraquetan daben vidia; eta da, Sa-
cramentu guztien artian andiena eta miragarriena dan,
Sacramentu santu Comuniocoan bera zan guztia guel-
diquetia Mundubaren azqueneraño, eta bera errezivi-
taco amorioz ain Mandamentu gogorraren azpian, ze-
inda erabaguiric itzi euscun, ez guebela anchituco Se-
culaco vizitzaric, errezivitan ez bagueben eta amorio-
oz, guero bere lecuban esango dodan leguez: zer vide
obiagoric artu eiquian Jaun Divinoac, gu beragaz bat
eguiteco, eta berari errime ichaasteco, Maats adar ber-
diac beren Orpuari errime ichatsiric dagozen antzera?

Eguin eben onetan Jesus Divinoac, Aisquidia, ze-
uc zeure Necazaritzaco ofizioan eguiten dozuna;
ecusten dituzunian zeure bazterrian Arbolaren batzu-
bec emuten deutsubela iguiñ dituzun frutu gozagac,
ebaten deutsazu adarrac, Juaten zara zeuc gura di-
tuzun frutu mueta onac emun oi dituban Arbola ba-
tegana, quentzen deutsazu mentubac, eta sartzen
deustezu, frutu gozaga berezcuac emuten eutsuben,
Arbolai, onela izten dituzula ucaturic berezco Natura-
lecia, eta biurturic, artu eraguiten deustezun, Mentu-

ben Naturalezara, aurrera emun ez deguizuben iguiñ zituban berezco frutu gozagaric, baizican zeuc gura dituzun frutu mueta onac: orobat bada eguiten dau Jesus Divinoac bere Aitaren eta Espiritu Santubaren unioan gure Animetan; mentuquetan gaitu Comunio Sagraduban beradan guztiagaz, onela guere biotzetan errime oraturic daucagula Mentu Divino au, sacatu daigun pecaturaco macurtasuna, eta emun ez daigun, guerez emungo guituquian arrotasuneco, eta emetic sortzen dirian pecatu mueta guztietaco frutu saminac, baizican Mentu Divino onen biotzetic Jaioten dirian neurri bagueco Caridade santuco eta beste Virtute mueta guztietaco frutu gozoac, beren Zimentu eta Estalqui dan, Humildade santubagaz batera: zerus-te dozu, Aisquidia, eguingo dabela gure Animetaco Necazari Jaungoicoac, bardin ecusten baditu Maats adarren batzubec igarturic eta fruturic emuten ez daubela, bere Seme Jesus Divinoaren Maats orpotic igo biar leusquien, Humildadeco ur gozoric ez daucailaco? zer, frutu gozagac emuten deutsain, Arbola dongai, bardin ecusten baditu, beren arrotasuneco ur madaricatubaren bitartez dagozela artu gura ezta bere Seme Jesus maitiaren Mentu Divino au? aguirian dago, zer eguingo deusten; eguingo deuste, zeuc eguingo zeusquiena zeure bazterrian ecusico bazitu onerian Maats adar igartubac, eta, Mentu onac artu gura ez deutsuben, Arbola dongac; ebaguico zituque eta sutara botaco zituque; guri ere orobat eguingo deuscu guere Animetaco Necazari Jaungoicoac; ebaguico gaitu, eta Infernuetaco betico sutara botaco gaitu.

Beguira, beguira bada, Aisquidia, eta irubiderbeguira, ondo eta errime oraturic euquitiagaz zeure biotzaren gañian Jesus maitiaren Mentu Divino au, eta beragandic icastiagaz, zeure barruba puztu aldaiquian arrotasuneco aize madaricatuba zeugandic botatera, eta erabiltera zeure biotza ondo toleztauric Humildade santubagaz; zergatic gure Religino santu-

-ban Fede santuco gauza erabaguia da, Jesu Christo-
-ren Espirituba ez daucana ez dala au beria; ala bei-
nic bein eracusten deuscu Apostolu San Pabloc; arga-
tic ere Apostolu onec beronec esaten deuscu: Jantzi zai-
tezte Jesu Christo gure Jaunagaz: bai, Aisquidia; ba-
tec Jantziten dituban soñeco Erropacaz estalquetan
eta beroquetan dituban leguez bere Araguiac, eta fru-
tu donguetaco Arbola bat Jantziten dan leguez frutu
onac emuten dituban Arboliaren mentubacaz; orobat
Jantzi, estaldu, berotu, eta ifini biar ditugu Jesu Chris-
to gure Jaunagaz guere Animac, frutu onac emuteco,
vidian; eta au ez eguitetic etorrico gara izatera ez Jesu
Christorenac, baizican Diabrubarenac.

Premina dan ezquero, Jesus maitiagandic icastia
biotzetic bigunac eta humildiac izaten, ecusi daigun
nola aren Divina Magestadia izan zan biotzetic bigu-
na eta humilla: bere vizitza santubaren barri ondo equi-
an, San Pablo Apostolubac bialquetan gaitu onetaraco
Jesus maite onen Escolara, eta ifinten deuscu beguien aur-
rian laburtasun andiagaz bere biguntasun, Humildade,
eta neurri bagueco Caridadiaren gañian esan aleiquian,
-guztia; ara bada, Aisquidia, nola esaten deuscun: be-
-te eguizube nire pozaren neurria, (guztioc) biotzbat,
-Caridade bat, (guztioc) batera, vorondate bat dauca-
-zubela, eguin ez daguizuben ezer erroiduban, eta ut-
-sa (dan) arrotasunian, baizican humiltasunian ba-
-tac bestia nor bera baño gueiagotzat daucazubela,
-beguiraquetan deustezubela bacoitzac ez bere gauzai,
-baizican bestienai (au da) bere onari leguez bestienari
-ere: bada[illegible] zubegan gura izan eguizube, Jesu Chris-
-togan guertatu zan, au, zeña, egonic Jaungoicoaren Na-
-turalezan, ez eben uste izan, zala lapurretia, bera Ja-
-ungoicoaren gara izatia, baizican ezebereztu eben bere
-Persona, artzen ebela Esclavoaren Naturaleza, egui-
-nic Guizonen antzeracua, eta aguerturic naturale-

~zaz (eguiazco) Guizona: humildau eben bere buruba
~eriotzaraño, gueiago (dana) Curutzeco eriotzaraño;
~argatic ere Jaungoicoac jauso eben, eta emun eutsan
~izen guztien gañecua dan izena, Jesusaren izenian Be-
~laun guztia macurtu dedin, eta Nazino mueta guz-
~tiac, autortu daguien, daguala Jesu Christo (bere)
~Aitaren Glorian: orra zein ederquiro Apostolu santu onec
bialquetan gaituban guere Maiṡu Jesus Divinoaren es-
colara, eta zein laburtasun andiagaz eracusten de-
uscun, Escola santu onetan Maisu Divinuac eracus-
ten deuscun Virtute santu mueta guztiac, batez ere
Caridadia, biotzeco biguntasuna, eta Humildadia be-
re ondorengo sariagaz, guc ere beste aimbeste icasiric
jarraitu deiegun Virtute santu onei, bere Sariaren antze-
co Sariaren esperanza eguiazcuagaz pozturic.

Onela eracutsiric guere Maiṡu Jesus Divino onec
Guizon arroari Humildadeco vidia, ¿nola izan aldite-
que, Aisquidia, Christaunaren izena daucanac, eta
eguiaz Christauna izan gura dabenac lecu emutia be-
re biotzian arrotasuneco aize madaricatubari? ba-
ña ala ere, obeto ezagutu daguizun, eta erraz ecusi
daguizun, Diabrubac Mundubac eta Araguiac Hu-
mildade santu oni ifinten deutsain, Amu errutsu-
bac, meiac, eta ezcutucoac, ecusi daigun, Jesus mai-
tiac Humildadeco vidiari jarraiquetiarren eguin zitu-
ban gauzaren batzubec, onei ondo beguiraturic igarri
deguiozun, nun egon ditezquian ezcutauric zure aiñ
calte andico Amu meiac eta errutsubac.

Aren Divina Magestadiac bada, izanic eguiaz
fin bagueco andia eta santuba, Guizon eguingo bazan,
alzitequian goienic andienetic jaatsiric, ez eben batere
susumaric euqui, Donzella baten sabelian bederatzi il-
la betian egoteco: artu eben Amatzat Virtuteetan alzi-
tequian aberatsena bai, baña ondasunetan Mundu-
tarrac ezeberezian euqui oi dituben Emacumetatic
bat, orobat Aita ordecotzat Guizon santuba bai, baña

vizico bazan, bere besoco biar eguinaren beguira egoan,
Ofiziale bat: Jaioco bazan, egonic Betlengo Ziudadian, Er-
besteco guztientzat Ostatuba, ez eguan [redacted] etorri bar-
riac zirian, bere Amarentzat, eta Aita ordecoarentzat; eta
ala, Jaioco zan, gabian Juan biar izan euben, Ziudadetic cam-
pora eguan, Portale batera: Jaio zanian bere lenengo Cumia
izan zan Asca loi bat, zeñian egozen Ganaubac; onela beree-
tara etorriric beriac artu gura ez eubela: berari vizitza quen-
tzeiarren, Erodes Erreguiac Betlenen, eta Ziudade onen ben-
deco Erri guztietan urte bico eta urte biz beraco Mutico guz-
tiac illtiari emun eutsanian, bere Ama Maria Santisima-
ren, eta bere Aita ordeco San Joseren besuetan Egiptora
igues eguin biar izan eben: zerbait andi eguiñic eta urtee-
tan sarturic, bere Ama Maria beti Virginac eta Aita ordeco
San Josec, ondo equien leguez, nor zan, ez eucain biotzic,
ezer aguinquetaco; ala ere, bere Aita Jaungoicoaren hon-
riac eta Guizonaren Salvazinoac escaquetan eutsain lan-
gueiac eguinic, beti eguan beren bendian, eta beren voronda-
tetic eseguiric, languei santu aien caltian ez zirian, esan
guztiac eguiten eustela: bere Aita Jaungoicoaren aldian ez
eucan ezertan bere Odolaren aldetico aidetasuna; eta ala bein ba-
tian egon zan Jente artian, ezagutu gura ezta leguez bere Amat-
zat eta Aidetzat, aien artian egozen, bere Odoletico Ama eta Ai-
diac, eracusten eustela Jente aiei bere Diszipulubac, eta esaten eus-
tela modu onetan: ona emen nire Ama eta Senidiac;
zergatic, Zerubetan daguan, nire Aita (Jaungoicoaren) vo-
rondatia eguiten daben edozeiñ au da nire Ama Anae
eta Arreba: bere Aita Jaungoicoaren vorondatiari beguiraturic
vizi izan zan guztien ala onen nola dongueen Servitzari leial
bat eguiñic: aurretic obraz eracusten eusten, aoz ondoren era-
cutsico eusten, guztia: artu zituban bere Familiaraco ama-
bi Guizon, bere Diszipulubac eta Apostolubac esaten deuste-
gunac; ¿baña zer Guizon muetac, uste dozu, Aisquidia, artu zi-
tubala; eta zertaraco? artu zituban Guizon mueta batzubec, Mun-
duban batere aguiriac ez zirianac ez Odolian ez Ondasunetan eta
ez Jaquindurian, baizican, Mundubac ezertan ez eucan, Ar-
ranzale guizaso batzubec; eta oneic ere, ez Mundu onetan bere
burubari atseguintasuna eta eria emutiarren, baizican, bera
Zerubetara igoric, bere Legue graziazcoa Mundu guztian
zabaldu eguien gure salvazinoraco, bere egunetan vizi za-
la bere Diszipuluben Esclavo eguinic, eta eurai bere voron-
date santu guztia eracusten necaquetan zala bere vizitza-
co egun guztietan, onetaraco humildaitan zala, belaunico

Lurrian etzinic beren Oñac garbiquetaraño, eta, (gueiago za-
na) bera diruz saltzeco asmuac erabillen, Judas mada-
ricatubari ere bai bestien artian: bere Aita Jaungoicoaren
vorondatiagatic ez eben Josi beñere bere biotza Munduone-
taco Guizon eta Emacumeri, maitien zitubanai ere; eta ala
ecusi ebenian, berari Jarraiquetan eutsainetatic batzubec
izten eutsaila, zerbait aitatu eusten bere amabi Diszipulubai,
~ eurac ere Juan gura ete euben? onen bestegaz, guztien Buru zan,
San Pedro guizajuac, guztiz izuturic eta larrituric, erantzuten
~ eutsala beste guztien izenian; Jauna; nogana Juango gara? vi-
~ zitza eternoco verbac daucazu; eta guc sinistu dogu, eta eza-
~ gutu dogu, zu zariala Christo Jaungoicoaren Semia: guztiz
maite zituban Aurchoac; eta aguindu eusten bere Diszipulubai,
~ ez eguiela eragotzi, baizican itzi eguiela onei, beragana etor-
~ ten, aiquetara emuten eustela, Aurrac beren ezagupera ba-
gatusanian eta ez Jaquinian vizi eta humildaitan dirian ant-
zera vorondatez eta Jaquinian emen vizi eta humildaitan
dana dala andiena Zerubetaco Erreinuban; ecusten dozu,
Aisquidia, Aurren vizitzaia; zeiñ pozic dabiltzen euqui
ezquero beren Amen bularretan gura aña titi zer edan,
edo nola nai eguinicaco catillu bat zopa zer Jan; ze-
iñ ardura guichi daucain modaco Jantziagaz, gustora-
co Janagaz, urriagaz, zidarragaz, Munduco andinai-
tasun eta aberastasunacaz, beren eta besteren Corputzen
galantasun eta edertasunacaz; nola gurago dituben ecusi
beren Ama eguiazcuac, zapi zatarracaz Jantziric egonaga-
tic ere, eta ichusiac izanagatic ere Munduco Erreguinaric
andiena, aguiriena eta ederrena baño; zeiñ Esanguillac
dirian, eta bestec eguiten deusten, gaitzaren zeiñ aazcor-
rac, beriala duazela beren Gaitzeguillacana beren Aisqui-
diacana leguez; onenbestegaz aiquetara emuten eusculaguz-
tioi, Zeruban andiena izan gura dabenac emen vorondatez
eta Jaquinian eguin biarco dabela, Aurrac beren ezagupe-
rabagatasunian eta ez Jaquinian eguiten dituben, gauza
oneic, eta (gueiago dana) erabagui euscun, ez guiñiala sartuco
Zeruban, emen Aur onein antzera humildaitan ez bagara: Gui-
zona zan aldetic iguiñ zituban besteren aldetic alabanzacola-
~ bantasunac; eta ala, Maisu onaren izenagaz zerbait itanduent-
~ san, bateri erantzun eutsan: zer esaten deustazu ona? bat
~ (bacarra) da ona; eta Jaquindaguizun (au da) Jaungoicoa:
orobat iguiñ zituban Mundu onetaco andinaitasunac;
eta ala igarriric, Judegubac bein batian beren Erreguetzat
ifini gura eubela, Jente artetic igues eguin eben, bera ba-
carric Juan zan Mendi batera; eta ezcutau zan: emengo Erregue eta Empera-
dori-

ai trubutoac emun eusten, eta aguindu euscun, beren bendian vizi guiniala, eguin deiegulabeste aimbeste: aguindu euscun, entzuteco, gaizqui vizi eta ondo eracusten deuscuben, bere Ministroen Sermoiac, eta eguiteco, esaten deuscuben, gauza guztiac: izanic gauza guztien Tabia, vizi izan zan iñorc on eguinaren premiñan batere (esateco) aberastasun bague, gu bere gauzacaz aberasquetiarren guere Animetan: Animaco eta Corputzeco osasuna escatu eusten guztiai emun eusten; baña ez dairacurten bere Evangelio santuban, iñorc aberastasunic escatu eutsanic, ez da ere, berac Munduco aberastasunac iñori emun eutsanic: Munduco gauzetan sartu guraizan ez eben; eta ala Legitimen gañeco auzi bat erabaguiteco mesedia escatu eutsan bateri, ez eutsan autortu: izanic Taungoico eta Guizon eguiazcua, eta Munduban sortu alditezquien Guizon guztiac baño andiagua, ezan iñoren gañian beñere arrotu, ez eben iñor ezeberezian euqui; eta bai, Soldadu Ofiziale baten Esclabo gaisoric oian eguan bat ecustera juateco gogua eracutsi eben, eta bere Tabiaren neurri bagueco humiltasunac eragotzi eutsan: iñorc entzun ez eutsan beñere, Mundubac bere guezurrezco Evangeliotic bere Tarrallai eracutsi oi deusten, aiñ jaquinac dirian, esaera andi bi oneic: jana gustora eta jantzia modara: izanic bere jana eta edana, alzana, Garagar Oguiac jaaten zirian Familian, eta au, ez Gariric artzen ez zalaco eurac ebiltzen Errietan; bere modaco jantzia bere Ama Maria Santisimac eguin eutsan Tunica bat bere Corputz sagraduba burutic (au da) sorbaldetatic oñetaraño estalquetan eutsana: aberastasunen billa iñoiz ibilli ez zan; eta, bai, leen esan dodan Legitimen gañeco auzi erabaguitia escatu eutsanari erantzun eutsan: gorde zaitezte codizia mueta guztitic; zergatic baten vizitzaia ez dago, daucan, Ondasunen ugaritasunian: berroguei egunian barutu zan; gosetu zan; Diabrubac iru bider tentau eben, eta iruretan Fede santubac Escritura Sagraduban eracusten deuscun iru

egui santugaz lotsaturic atzera bialdu eben: ez eut-
san iñori labantasunagaz bururic legundu; baizican
guztiai onai leguez dongai ere, chiquinai leguez andi-
enai ere beti esan eusten eguia, bacoitzac bere salva-
zinoraco premina eben leguez, eta iñori bere honra eta
fama quentzaca, eta ez, biotz dollor eta gorrotoz beteric
daucain ascoc asan oi dauben leguez; zer? nic orri egui-
ac esan bagaric itzi? ez: uste daubela, beren gorroto
eta arrotasunaren erruz ez dala pecatu, eguiacaz bat
bere aurrian lotsaturic eta honra bagaric izteia, edo
bere ostian fama quentzeia: eguia esanic ezan beñere
berecoia izan, aren gañian ezari eta baiari aurrera (as-
coc eguin oi dauben leguez) erausten eutsala; ez eben
ere eguin beñere juramenturic, esaten eben eguia sinis-
tu gura ez eutsainian, sinistu eraguiteco; baizican bein
esanic eguia gueldiquetan zan bere biotzeco baquian:
ez zan ibilli bazterric bazter, ecustiarren, eta ecusia
izatiarren, eta Guizarteco barri jaquitiarren, baizican
vizi izan zan bere Aita Jaungoicoac aguindu eutsan
Errietatic eta vorondatetic urten bagaric: aren diadar-
ric entzun ez zan Errietaco Cale, Eche, eta Plazetan; eta
Cañabera brinzatu bat ausiteco biotzic izan ez eben;
ain biotz bigunecua zan; bacarric bada ecusi zan aser-
re santu bategaz beteric, Jerusalengo Templo santuban
billatu zitubanian, saldu erosia erabilden, batzubec;
au ecusi ebenian, bota eusten eucain mai, eta aiñuari
guztiac, eta eguinic Cordel batzubecaz azote modura
etara zituban eurac guztiac ere andic, esaten euste-
la beren arpeguian; nire Aitac Orazinoraco daucan
Echia zubec biurtu dozube saldu erosico eta Lapur
Eche; aitatu dot au, Aisquidia, zer erreverenzia eta de-
vozinogaz egon biardozun Jaungoicoaren Eche edo
Templo santubetan, ezagutu daguizun: ez eben jaquin
zer zan naguiqueria; eta eguin eben guztia izan zan
bere Aita Jaungoicoaren honraracua, eta gure Ani-
men salvazinoracua: nola orazinoan egon oi zan

baña guretzat eta guri eracustiarren, bere lecuban esanic itzi dot: pecatubac guere biotzetan desequinqueta ra etorriric, besteri pecaturaco vidia escandaloaren bitartez naiz verbaz naiz obraz emuten deutsanagana gorroto andia eracutsi eben: baquiaren amorioz, eta ez beste moduz guizurric dan chiquinena esan ez eben: Emacumiacaz verbaitan bacarrian egoten ez zan; eta ala bere Diszipulubac bein batian Samariaco Emacume bategaz iturri bateco pozubaren aldamenian bacarrian verbaitan billatu eubelaco icaratu zirian; eta esaten dau Evangelio santubac, icaraquetan ziriala edo mira andia eguiten eubela bere Diszipulubac, Emacumiagaz verba eguiten ebelaco; eta aguirian dago, ez ziriala ala icaratuco, leenago orerian oituerarric ecusi baleube beren Maisu Divinoagan; eta Emacume onegazco bere verba santu guztiac izan ziriran, bere pecatuben, eta egui santubaren ezagupe-rara ecarteco, verbac: Munduco Aguintarien bildurrez ao utsez ere ez eben ucatu iñoiz bere Aita Jaungoicoa, ez eben ere urten bere vorondate santuco videtatic illteraño, Aguintari madaricatuben esanetara iñoiz jausi bagaric, pecatu zan gauzan: azquenic (gueiagui ez luzaquetiarren) Judeguben Sacerdote eta Aguintari batzubec bere ontasunagaco ecusi ezinez eta gorrotoz ichuturic artu euben asmua vizitza quentzeco beren Onguilla bacar oni, eta (gueiago zana) bere Familiaco bat iñorc artaracotzat ez eucana eta aimbeste mesede zor eutsana Juan zan euracana, eta saldu eusten aren Divina Magestadia ogueta amar dirugatic; au Judas Apostolu traidoria; eta Munduban sortu zan Guizonic alzitequian madaricatuben onec euqui eben biotza laztan estubat emuteco Jesus maitiari Jetsemanico baratzan Orazinuan eguala escubac erazteco aurrian; au ecusiric Jesus maitiac euqui eben puzunia guztia izan zan;

beraganaco amorioz beteric biotza, beste laztan
estu bat emutia Diszipulu galdubari, esanagaz, Ais-
quidia, laztanagaz saltzen dozu Guizonaren Semia?
ondoren escubac erantziric Gente madaricatu aic be-
te euben aren Divina Magestadia belarrondocoz chuz
ucabilcaz, beguiac estalduric, eta alzituben lotsa-
ri mueta guztiacaz; Tribunal batetic bestera erabil-
li euben guztien barregarri eta burlagarri eguinic;
azotez zatitu eutsain bere sorbaldac; arantzazco
coroiagaz burlazco Erregue bat eguinic Josi eutsa-
in bere buru Divinoa; eta azquenic bere soñeco er-
ropac erontziric Josi euben Curutzian burdinazco
ultziacaz bere Escu bietatic eta Oiñ bietatic beste La-
pur bien erdian bera Lapurric aurrenengoa balizan
leguez: onela Josiric erruquituric bere Ama Maria
Santisimaren bacartasunagaz emun eutsan bere
ordian Semetzat bere Diszipuluric maitiena eta
Evangelista San Juan, lagundu eguion bere vizit-
zaco preminetan; Seme on guztiac eguin biar dau-
bena beren Gurasuacatic beguiraquetia, ori bero-
ri eguin eben; eta erreguturic bere Aita Jaungoi-
coari bere Ylltzallien parcazinuagatic artu eben
eriotza beren escubetatic eta euracanaco amorioz,
onela biurquetan eustela bere Gaitz eguilla guz-
tiai gaitzagatic ona, maldizinuacatic bendizi-
nua, eta gorrotoagatic amorioa: Jaioteco demporan
Portale bat bere Echia, bere oia Asca bat, bere aldamene-
co Lagunac Ganau bi; eta illteco demporan ez Zeru-
ban eta ez Lurrian bere egoera, bere Echia aidian,
bere Oia Curutzia, eta bere Erropa pillosic Jente
guztien aurrian, eta bere aldameneco Lagunac La-
pur bi, eta bera erdian aurrenengotzat, gurago eu-
bela Judegu madaricatubac emun libertadia Bar-
rabas Eriotzaguilliari Jesus Divinoari baño: eta
onela ill zan bere vizitzaco eguric erdiac asotu bagaric,

Jareguiric (esateco modura) bere Jaungoicotasunari, be-
Animiari, bere vizitzaiari, eta gauza guztien bere Ja-
betasunari, eta Judegu bere Etsaien ustian Munduban
sortu alzitequian Guizonic zatarrentzat: onela Jaungoi-
co au fin bagueco andia eta santuba Zeruco goienetic Jaa-
chi zan vorondatez Munduco ezebereztasunic andienera,
guc, ezeberezac izanic, beragandic icasi daigun, humildi-
ac izaten, eta biotz bigunecoac.

~Jesus Divinoaren ezebereztasun miragarrizco au
~Mundubaren Jarralla arroentzat izan zan zoraque-
~ria, bere Etsai Judegubentzat escandaloa, baña egui-
~az salvau gura daubenentzat Jaungoicoaren virtutia
~eta grazia; ala eracusten deuscu San Pablo Apostolu-
bac; argatic Jesus Divinoac ere bere Evangelio santu-
~ban esanic itzi euscun: zorionecua da, nigan escan-
~dalizauba izango ez dana, (au da) nire vizitzaco eta
eriotzaco humildadia ontzat daucala, izanic ni vi-
zitza bera, vizitzaren Jabia, eta vizitzaren Emallia,
ni ala illten ecustiagaz icaraquetan ez dana, eta ni-
re gauza oneic neurtzen ez ditubana, Diabrubac,
Mundubac, eta Araguiac eracusten dauben arrota-
sunagaz, baizican Fede santuco espiritubagaz, Ja-
ungoicoaren Seme humillac leguez, au da zorione-
cua.

Ezebereztasun miragarrizco onegaz aren Di-
vina Magestadiac, bere Ama Maria Santisimac
Aur Divino au bere Sabelian eucala Espiritu Santu-
baren inspirazinoz esanic itzi eben leguez, eracutsi
eben burdinaz Curutzian Josiricaco bere besoetan po-
derio guztiz miragarrizcua, banaquetan zitubala
Mundu onetaco Arro guztiac bere biotzeco Espiritu-
bagaz, Aize indartsu batec banaquetan dituban le-
guez, aurrian artzen dituban, samar guztiac, botaten
zitubala Poderoso sovervioac beren Jasar lecubetatic,
eta Jasaten zitubala humildiac: bai, Aisquidia, pode-
rio santu eta miragarrizco onegaz itzi zituban guztiz

zapalduric eta azpiraturic Diabruba Munduba eta Araguia; ¿baña zertan ete egozen ain poderio andiraco bere indarrac? bere virtute santubetan, Aisquidia; eta ala bere poderio andi au izan zan virtetaco poderio neurri baguecua batez ere Caridadeco, Pazienziaco, eta Humildadeco virtutena, zeñac dirian Curutze santuban eracutsi euscun iru virtute aurrenenguac: Ho! Poderio miragarria, eta bere poderio guztizcuaren obraric andiena, eta Ynfernura duazen Mundutar arro guztientzat ezcutatuba! bai, nire Aisquidia, onelacua izan zan aren Divina Magestadiaren besoco poderio santu au bere ezebereztasunic andienian.

Esan deutsut, eta ifini deutsut, Aisquidia, zeure beguien aurrian, guere Maiñu Jesus Divinoac humildadeco vidian eguin zituban neurri bagueco gauzetatic pusquin batzubec, onei beguiraturic beren arguitasunagaz urrinetic ecusi daguizun, Diabrubac eta bere Servitzari Mundubac eta Araguiac zeure vizitzan eta Ofizioan ifini eta ezcutau deiquezuben, arrotasuneraco Amu meiac eta errutsubac, eta, Maisu Divino onen Yspillubari beguiraturic, Jaquindaguizun igues eguiten, eta Diabrubari atzera eraguinic, igues eraguiten; bada Fede santuco gauza Jaquina da, Diabrubac gugandic igues eguingo dabela, bardin Orazinuagaz eta Humildadiagaz atzera eraguiten badeutsagu; lotsaturic laister Juangoda, bai; berriz eta berriz guerora etorrico bada ere, eta nundic usteric guchien dan lecutic.

Onela bada icasi biar dogu guztioc Jesus Divinoagandic (berac aguindu euscun leguez) izaten biotzetic bigunac eta humildiac: eguia da; ezin elduco gara bere Humildadeco neurri bagueco neurrira; ala ere bere laguntasunagaz batera bacoitzac bere aldetic dana eguin biar dau, aimbat urren emuteco bere neurri santu oni Arraera Jocaquetan daubenac eguiten dauben leguez, noc arraiari urren emun; eta onela guztioc irabazico dogu.

Çsango deustazu orain, Aisquidia, nola Aguintariac eta Familiaco Burubac gorde leiquie Humildadeco virtute santu au beren bendecuen artian, izanic euzac baño gueiago escuvidian? ederquixo, Aisquidia; ara nola: besteen gañeco escuvide, edo aguintia artzen dauben, Christaun guztiac artu biar daube, Jaungoicoaren zorondatia eguitiarren bacarric, ezaguturic, bere epeltasun, arreta bagatasun, eta ardetabagatasunaren videz bere berdecuac eguiten dituben pecatu eta gaiztaqueria guztiac Jainico diziala bere bizcarrera Jaungoicoaren aurrian; eta ez daube artu biar orerian escuvidenic, aiquetara emuteco: ni naiz emen Buru eta Aguintaria: eta ala ez ditube poztu, puztu, eta arrotu biar beren biotzac besteen gañeco escuvide edo aguintiagaz, baizican aimbat humillago vizi biar daube Jaungoicoaren aurrian, zembat eta ezagutuetan dauben gueiago, erantzun biarco deutsaila aren Divina Magestadiari bere Tribunale sartuban ala beren Burubacatic, nola beren bendecuenacatic: au eguiaz siniesturic eta beren bendecuen argaltasunagaz erruquituric lagundu biar deuste aldauben guztia, beren onari gauza guztietan beguiraturic, aurrenengo Jaungoicoaren zorondateco Legue sartuba ondo gorde daguien, pecatu dan gauza guztia (dan guzurric chiquiena) eragozten deustela; eta ondoren premina dauben Jaina eta Jantzia emuric eracutsi biar deuste Mundu onetan aimbat inozenziaric gueienagaz beren oguia irabazteco vide bat; beñere ez bigunegui, bendecuac gañera igo ez deguien, ez da ere gogorregui, bildu ez deguion; aurraz euzac gauza guztietan beren obracaz eracusten deustela, ondoren aoz; beti beren bendecuen biotzetan sortzen daubela euzacanaco amorioa eta itzal santuba; aguindu guchi, bacarric premina dirianac; eta bein aguindu ezgueroco gauza eraguin bagaric ez itzi; castiguric motivo eta eguibagaric beñere ez, eta emuten deustena euzacanaco erruquii andiagaz, obiagotzat ezagutuetan dituben la,

onela castigaitan dituben, bendeco oneic beren burubac baño: Ho! Aisquidia; eta zein ederquiro Aguintariac eta Familietaco Burubac gordetan dauben Humildade santuba beren bendecuen artian, onela eguin ezquero!

Guztioc bada chiquin, eta andi, Aguintari eta bendeco, bacoitzac bere toquian eta bere modura Jarraitu biar deutsagu biotzetic virtute santu oni, eta aimbat pozagoric, zeinbat eta ezaguquetan dogun, daucanmirariacaz gañera Jaungoicoaren aurrian, dala ere guztiz preminacua, emen ere alcarregaz ondo vizi izateco; millueca ere badira humildiac Erreinu baten, guztiac ondo alcar artzeen daube, eta alcarregaz ondo vizi dira; arrotasunagaz puzturicaco Personac barriz, bi bacarrac izanagatic Erreinu zabal baten, ezin alcar ecusi daube; eta, bardin badaucai bacoitzac, bere arrotasunari Jarraiquetaco vidia eta indarrac, ez dira gueldiquetan, bata edo bestia azpiraturic urteteraño; beti gorago igo gura daube, ezin ecusi gura daube beren gañian Aguintariric, eta beren ezurracaz beñere baqueric ez daucai, eta beti beste guztiac baño gueiago gura izatiagaz, eta goragotic ibilli gura izatiagaz, zeña dan ezin anchitu daiquien gauza, sartzen ditube beren burubac, urten ezin dauben, nartzetan, humildiac ondo datozen bitartian ala beren Lagun humildiacaz, nola beren gañetic ibilli gura dauben, Arro guztiacaz.

¿Guizonic galantena zer da, Aisquidia, Mundu onetan? Animiaren aldetic ez dauca bereric beste gauzaric pecatuba eta pecaturaco macurtasuna baño; eta Corputzaren aldetic da Lora eder baten antzecua, gaitz labur baten Yzotzac dempora guichi barru Lurraren azpira botaco dabena, Lur biurtu dedin, leen Lurra zana: ez, ez da berez gueiago Guizonic aguiriena eta galantena; beste gauza onic badauca, ez ditu beriac, baizican arguitasunaren Aita Jaungoicuac emunac, baña ez euracaz

Luziferren antzera arroquetaco, baizican San Miguel Ain-
gueru Leialen Aguintari humildiaren antzera bere Onguil-
la Jaungoicoaren vorondate santuba obeto eguiteco: egui
au ez da niria; San Pablo Apostoluba da, Aisquidia, itan-
quetan deutsuna; zer gauza (on) daucazu, (bestegandic)
izan ez dozunic?; eta (bestegandic) izan badozu, zeiten ar-
roquetan zara (iñogandic) izan ez bazeu leguez? au esa-
ten deutsu, zu baño guichiago diriala uste dituzun, eta
Mundubac ezebereztzat daucan, Christaun argal, errema-
ñuso eta Potencia lotubago dunen gañian iñoiz arrotu ez zai-
tian: eta ala egui bat beste ascoren artian biotzetic sinistu-
ric vizi biar dozu beti; eta da: zembat eta Corpotz osasuntsu-
bagua, errutsubagua, eta galantagua, eta zembat ascatu-
baguac edo iratzarriaguac izan dituzun Animaco Poten-
ziac Jaungoicoaren escutic, aimbat humillago vizi biar
zara, guztiacaz aimbat onduen aren Divina Magestadia-
ren vorondate santuba eguiten dozula, Jaquinic, bere es-
cu santutic izan dituzun, due ala Naturalac nola gra-
ziazcuac izango dituzula, emun biarco deutsazun, con-
tu estubaren neurria, eta ez zaitubala ezagutuco beret-
zat, bardin, bere Tribunale santura zuazenian, esquin-
ten ez badeutsazu, due orreicaz zuc eguitia, gura zitu-
ban, irabazte santu ugariac Zerubetaco Erreinubaren bil-
la; nire biotz guztitic eguia esaten deutsut: zuc baño Po-
tencia lotubaguac eta due laburraguac daucan Chris-
tauna ariñago iragoco da Jaungoicoaren aurrian zu ba-
ño, baita zu ere ni baño.

Humildade santubac eragozten deuscu, guerecoiac
eta guere iritzicuac izatia (au da) ichubac guere iritzian,
guere iritziaren Jarralla ichubac, aiquetan daubenen iritzi
eguiazcoari alde batera itziric, beste edozeñec aña edo
gueiago aiquetan dogun ustian; Espiritu Santuba da, Ais-
quidia, esaten deutsuna: Semia, ez eguizu ezer eguin Con-
seju bagaric, eta eguin ezquero ez zara damutuco; eta no-

la Conseju Emalla asco dirian, guichi eguiazcua emun lei-
quienac, eta bacoitzac beria, dan zatarrena izanagatic,
onentzat daucan, besterenagatic saltzeco ez daucana, ar-
gatic, utsic eguin ez daguizun, aiquetara emuten deut-
~su, zeure Conseju Emalliac izan biar dabela millatic bat
~artzen dozun bacarra.

Gauza jaquiña da, Conseju Emalliac izan biar dabela
aurrenengo Jaungoicoaren bildur andicuac, eta ondoren,
bere iritzia escaquetan deutsain, gauzan adituba, eta ba-
tere labantasun bagaric eguiaz emungo dabena, jaqui-
nagatic ere, emun biar daben, iritzia izango dala escaque-
tan deutsanaren iguiñecoa; eta ala Munduco gauzetan
Conseju Emalletzat billatu biar da bere jaquinduriaren
Aguiria daucana gauza artan, zeñaren gañian batec bil-
latu gura daben, utsic ez eguiteco, premina daben, argui-
tasuna; eta Animaco gauzetan guere Conseju Emalle
izan biar dau Confesore aditu batec: baña zergatic as-
coc daucain Mundu zabal onetan jaquinduria bagaric
beren jaquinduriaco Aguiria beren eta beste ascoren cal-
te andian; eta zuc eta zulacuac, euqui ezquero onerianen
bat Aide edo Adisquide, ez daquizuben juaten beste-
gana argana baño, eta bestela ere ez daucazuben pre-
mina dozuben arguitasunic, nor noraño dan, ezaguque-
quetaco eta jaquiteco, esaten deutsut, Aisquidia, juan
zaitiala premina dozunian zeure Confesore adituba-
gana edo Errico Errectore Jaunagana, azterrenac art-
zera, jaquiteco, norc emun leiquezun esque zarian
Consejuba eguiazen, zuzenen, eta artezen; eta billatu
ezquero onerian Conseju Emallia, jarraitu biarco de-
utsazu bere esanari, bardin bera, bere Aide ur, edo
Adisquide andiren bat ez badabiltza beste alderen
batetic, zuc escuartian darabiltzun, gauzaren billa
berentzat.

Besteren iritzia billaquetaco preminan ifinten bagai-
tu Humildade santubac, guere gauzetan utsic eguin

ez daigun, ezertan ez dogu ezaguquetan premina andi au
aimbeste, nola dan guere Animen salvazinoraco Jarraitu
biar deutsagun vide santuban, nun bere buruz dabillena
laister dator Jaustera Diabrubaren atzamarretan bere ichu-
tasun andiagatic eta bere biotzaren gora beracatic; eta ala
esaten deutsut, Aisquidia, vizi zaitiala alde onetatic guz-
tiz eseguiric zeure Confesore aditubaren iritzitic, promes
edo votoric dan chiquinenic eguitera iragoten ez zariala,
berari itandu bagaric, eta berac ontzat emun bagaric, ecu-
siagatic ere zeure buruba estuasunen baten, edo zeure biot-
za Jaungoicoaganaco amoriozco berotasunen baten, zeu-
re biotzian arteraño ecusi ez dozun, gauza barriren bat irago-
ten balizan leguez; Apostoluben Buru San Pedo gloriosuac, on-
do icasiric eucan leguez biotzaren gora bera oneic, contuban
ifinten gaitu, utsic eguin ez daigun onerian berotasunetan:
eguia da; Jaungoicuac asco gura dau, guc berari eguitia er-
razuazco promesac, eta onela eguin azquerocuac gorde-
tia; baña eguia ere da, guztiz iguiñ ditubala errazue ba-
gacuac, eta bein ondo eguin azquerocuac ez gordetia;
zergatic dan pecatu, lenengo Mandamentu santuban era-
gozten deuscuna.

Jesus maitiac eta humillac aiquetara emuten deuscu be-
re Evangelio santuban, Jaungoicuac iguin ditubala Guizo-
nen ustian emen andiac eta izen andicuac dirian gauzac; ar-
gatic San Pablo Apostolubac esaten deuscu, vizi gaitiala, ez
gauza andiac eta ots andicuac guere gogo edo buruban
darabilgula, baizican gauza humil edo beeracuai ichaas-
ten gariala: beguira bada, Aisquidia; Jausi ez zaitiala ar-
rotasun mueta onetan; Jaungoicuac bere videtic urtengo ez
dau, eta nundic emen eta ingurubetaco Errietan Guizonic
aguirientzat urtetia uste dozun, Aisquidia, andic urten
zeique Chori Maloric andienac eta Jaungoicoaren aurre-
raco zer ecusiric gueienecuac; Humildade santubac beti
eguiari beguiraquetan deutsa, eta ez Guizonen iritzian an-
diac eta izen andicuac dirian gauzai; Jesus Divinuac Jerusa-
lengo Templo santuban bein batian Ofrendara dirubac botaten

zitubanai beste batzubecaz batera beguira eguala, ecusi zituban Aberats batzubec asco botaten, baita ere oneinartian Emacume Alargun bat, Zurico bi bacarrac botaten; eta beguira egozenai esan eusten: eguiaz esaten deutsubet Emacume onec beste guztiac baño gueiago bota izan dau; zeiñ guichi onela usteco euben Ofrendaric ugarienagaz poz zirianac; eta badaquizu, Aisquidia, zergatic Alargun onec aiñ guchi botiagaz beste guztiac baño gueiago bota eben? zergatic Zurico bi aic bacarrac botiagaz emun eben eucan guztia; baña Aberatsac, asco bota beuben ere, gueiagozaz guelditu zirian.

Humildade santubac eragozten deuscu, guere vorondatia euquitia ichaatsiric ezagupera asoagaz eta saquinian eguin oi dirian pecatu mueta guztiai, alditequian chiquinena izanagatic ere; emendic da aguiri, zein guichi humillac dirian, besteren argaltasunaren bizcarretic bere aurrian edo ostian barre eguin zalac dirianac, eta baquiaren amorioagatic iñoren calte bagaco guizurrac esaten dituben, ac ezer ere iguiñago ezdaubela baque eguicua bera baño; zergatic, eguia esanic, premina dauben, lotsaia bat, entzuteco edo, daucain, oituera zatar bateri izteco biotzic ez daucain, eta onela beste asco, milla bat pecatu venialetan batere ardura bagaric eta saquinian sausi oi dirianac; Saldu erosia darabillenac, maravedi ascori sareguiten badeuste, laister ecusico dau bere gañian calte andia, baita ere Chindurri ascoc inguraquetan dauben Arbolia laister dator galtzera; orobat bada onerian Humildade guichico Christaun epelac, beren biotzetan saquinian eta ardura bagaric pecatu venial ascori lecu emuten deustenac, erraz datoza saustera pecatu andietan, eta onela galtzera.

Espiritu Santubac esaten deuscu: Justuba zazpi vider sausico da: eta Isaias Profeta santubac aiquetara emuten deuscu, gure ontasun guztiac Jaungoicoaren aurrian diriala flusua daucan Emacumiaren Zapi loitubaren antzecuac, egui santu oneic eguiaz ezaguturic eta sinisturic San Pablo Aposto-

~lubac bere Humildade andiaren errubagaz, bere biotzac ezer-
~tan salaquetan ez beben ere, ez eucan bere buruba ontzat; ba-
~da Jaungoicua da (esaten eben) ondarretic ezaguquetan nabe-
~na: bacarric Jesus Divinoagaz ostian Maria Santisima izan zan
bere vizi guztian beñere pecaturic dan chiquenenian jausi ez za-
na eta Zeruco eta Lurreco beste edozein Criatura baño obiagua;
eta ala eguiazco Humildadiac ifinten dau Mundu guztia, beren
burubac pecataritzat ezaguquetaco preminan; argatic Santuric andienac
euqui ditube beren burubac Pecatariric andientzat, ifinten zitu-
bala beren Humildade guztizcoac autormen onetaraco presidian;
Pecatari andienac barriz, beren ez jaquinac edo arrotasunac ichu-
turic, euqui izan ditube beren burubac onentzat, batere humilda-
deric ez eucailaco; onela batere pecaturic eguiten ez daubela, us-
te dauben, Christaun epelac, guizurra sinisturic, eta Jaungicoa-
ren egui santutic urrin vizi dira, Justubac eta Santubac Jesus
~maitiac eracutsiricaco egunoroco escavidiagaz: parcatu egui-
~guzu gure zorrac, guc guere Zordunai parcaquetan deuste-
~gun leguez: egunetic egunera Justubago eta Santubago eguiten,
ill arteraño, vizi dirian bitartian.

Humildadeco virtute santu onec Mundu guztiari era-
custen deutsa, ezaguquetan, bestec eguiten deutsan zor
ez deutsan, mesediac, eta vorondate onecua izaten eguiten
deutsagana, autorquetan deutsala, beragandic izan ditu-
ban, mesediac, eta esquerrac euracatic emuten deutsala;
~bestela izango guiñateque Ganau baltzen antzecuac, gue-
~re Onguilliari batere beguiratu bagaric mauca mauca
~jaten dogula, aurretic ifinten deuscuben, guztia; onerian, es-
quer baguecuac, eta ezagupera baguecuac quentzen de-
uste beren Onguillai mesediac aurrera eguiteco gogo
guztia, eta agorquetan ditube mesedien emuna daucain
beren Onguillien Yturri gozoac.

Onela, Aisquidia, eguiaz humillac izatia gura badogu,
izan biar gaitzaco beti, beti, baña beti ill arteraño guere Ja-
ungoicoari ezagupera, vorondate, eta esquer onecuac, ins-
tanteoro (~~[illegible]~~) eguiten deuscun, mesediacatic, vizi gari-
an, dempora guztian, nola naicuac izan ditezela mesede oneic:

onetaraco Jaquin biar dozu, Aisquidia, ez dala Munduo
netan guertaquetan gauzaric ez andiric eta ez chiquiric,
ez dala ere icaraquetan Arbeliaren onri bacar bat
ezeztan utzic eguin ezin leiquian, Jaungoicoaren voxonda-
te bagaric; eta ala Fede eguiazcoac eta Eliza Ama
Santac eracozten deuscube sinisquetia eta esatia Mun-
duban Jazcallac sinisquetan eta esaten dauben leguez:
~ au, bai, casualidadia: au, bai, fortunia: au, bai, fatuba:
~ au, bai, ez biarra: au, bai, ala biarra: bada gauza guz-
~ tietan ala onetan nola adiñonetan siniztu eta ezagutu
~ eraquiten deuscube Jaungoicoaren escu maitagarria,
~ izaric gauza guztiac gure oneracoac, bardin badeutsagu
~ aren Divina Magestadiari armonio eguiazco bat: au
onela Jaquiniz, iru mesede mueta dira, Jaungoicoac egui-
ten deuscuac: lenengoac dira onen gañian leguez don-
gueen gañian ere bardin zabalquetan ditubanac, nola di-
cian Eguzquiaren, Euriaren, Aiziaren, Lurraren eta bere
beste Criaturen aldetic emen guztioc onac eta dongac bar-
din artzeen dituguin mesediac: bigarrenac dira, Jaungoi-
coac bacoitzari bere banaan eta bacarrian eguin deus-
tan mesede aguiriac: irugarrenac dira gaitzaren eta ai-
bapuiaren izenagaz emen aiquetan dituguin mesediac,
nola dirian guerrac, gosia, izurriac, Corputzetaco gaitz-
ac, Itsaioen aldetico estuasunac, eta guere gauze-
tan eta andasunetan ecusi oi dirian calte eta galdu bia-
rac.

Lenengo mesede muetac, aguirian dago, Aisquidia, diziala Jaungoicoac batere zor ez deuscunac, bere On-
tasunetic sortubac, eta betez betezian mesedetzat eza-
guquetan dituguinac; eta Christaun dongac, Judegubac,
Ereziac, eta Jentilac izi badira ere guztiz azturic me-
sede oneicaz, berez sortubac balirian, edo zor balitza-
ten leguez, ez da errazue, Fede santuco arguitasunagaz
izi dirian Christaun eguiazcoac aien artzeco esquer
bagueraac izatia mesede oneicatic beran. Onquilla Fa-
unjoicoari: au ondo aiquetan emuten deusten Jauriel Ar-

regue eta Profeta santubac, esaten deustenian Zeruco eta Lurreco Criatura guztiai, eta guertatu oi dirian gauza mueta guztiai, alabau eta bedeincatu daguiela beren Jabe eta Eguilla Jaungoicua; bada au esatiagaz Animaric eta ezagupezaric ez daucain Criaturai, ez deuste eurai esaten, baizican guri, noren oneraco eguin izan dituban eta eguiten dituban aren Divina Magestadiac; argatic Eliza Ama Santac ere ifini euscun Maico Orazinuac san ordu guztietaraco, guc ala sanaren asipenian nola azquenian Orazino onein bitartez emuteco Jaungoicuari zor deutsagun vorondate ona, ezagupera, alabanza eta esquerrac, bere aguinduz bere Criaturac guztien gañian bardin zabalquetan deuscuben mesede mueta oneicatic: au onela izanic; zer esan diteque, Aisquidia, Maian sasartian eta Maitic saguitian zeñaqueta utsagaz gogoraquetan ez dirian Christaunacatic? Ha! gorde zaite zu, orrelacua izatetic.

Bigarren mesede muetac batec bere gañian ezaguquetan ditubanian, berari bacarrian Jaungoicuac guztiai bardin eguiten deustenagaz ostian eguiten deutsanac, ez dot uste, Aisquidia, izango dala ain ezagupera guichico eta biotz dollorreco Christaunic, zein da eracutsico ez deutsan bere Onguilla Jaungoicoari beragandic izan dituban mesede aguiri oneicatic; ezagupera eta vorondate ona bein batian amar Leprosoc escatu eutsain Jesus maitiari asasuna; emun eusten esque ziriana, eta sendatu zituban; baña oneitatic bat bacarra izan zan esquerrac aren Divina Magestadiari emutera etorri zana; au ecusiric Jesus maitiac aiquetara emun eben beste bederatzien esquerbaguetasun andia, esaten ebela: amar (beren Lepratic) garbitu dira; eta beste bederatziac nun dira? Campotar au baño besteric billatu ez da biurtu zedinic, eta Jaungoicoari gloria emun eguionic: beguira bada, Aisquidia, izan ez zaitiala bederatzi onein antzera esquer baguecua; emun eguiozu, bai, Jaungoicoari bere mesediacatic esquer humildiac, eta bizcorrago eguin zaite aimbeste mesede eguin deutsun Jaungoico onaren vorondatia egunetic egunera obeto gordetaco.

Irugarren mesede muetac, Aisquidia, dira
Curutziaren izenagaz aiquetan ditugunac; eta
ala Curutziaren gañeco Capituluban esango deutsu-
dan guztia emen esantzat aitu biar dozu; emen ba-
carric Eliza Ama Santaren siniste eguiazcuagaz
batera esaten deutsut, gaitz bacarra eta alde guz-
tietatic gaitza Jaungoicoaren, Ainguerubeu, eta Mun-
duco Justoen beguietan dala guere vorondate osoa-
gaz eguiten dogun eta eguin biar ez gueuquian pe-
catuba; gaitzaren izenagaz emen aiquetan ditugun,
beste gaitz mueta guztiac, Corputzeco eriotzia be-
ra ere, dira onac eta preminacuac Jaungoicoaren
Providenzia santuban, eta argatic gure oneracuac
ere: eguia da; ez deustegu beguiraquetan mesede
mueta onei lenenguai eta bigarrenguai leguez; aic
gura ditugu; oneic iguiñ ditugu; aien billa gabiltza
onein iguesi; aiecatic Jesus Divinuac eracutsiric Aita
guriaren Orazinuan escaquetan deutsagu Jaungoi-
coari, emun deigula, eta beste oneic quendu daguia-
la gugandic: emendic dago aguirian, Jaungoicoac
guri ez emutia gaitz oneic, dala mesede andia; be-
in emunac, guc escaturic quentzeco, quentzeia da-
la mesede andiagua; eta quentzaca bere izen santu-
ban iragoteco laguntasuna guri emutia da bere mese-
de guztien artian andiena, eta bere Aisquideric andie-
nentzat gorderic daucana: gaitz mueta guztiac baeda
gure mesederaco izatera datoza Jaungoicoa amaitan ba-
dogu, lenengo eta bigarrengo mesede mueta guztiac
calte andicuac izatera datozen leguez, Jaungoicua
amaitan ez daubenentzat.

David Erregue eta Profeta santubac esaten deus-
-cu: bedeincatuco dot Jaungoicoa dempora guztian, be-
-ti bere alabanza nire Miñian: da esatia: nola nai Ja-
ungoicoa ibilli dedilla nigaz, nic beti bedeincatuco,
eta alabauco dot bera; eta errazue andiagaz, Aisqui-
dia; zergaitic nola nai vizi gariala, ez dauca instan-
teric, zeñian ezer zor ez deuscun Jaungoico Onguilli-

aren mesediac inguraquetan ez gaituben; eta beste aldetic ez daqui emuten, guere pecatubacaz irabaziric daucagun, aña naibague, ezda ere jaso aldaiquegun baño gueiago, eta oneic ere gure mesederaco: argatic, David santubac esaten deuscun leguez, eta Justo guztiac eguiten dauben leguez, vizi biar gara, beti ezagupera, eta vorondate onecuac Jaungoicoaganaco, esquer humildiac emuten deutsagula bere mesede muetaguztietan.

Jarraitu eguiozu bada, Aisquidia, aimbat onduen Humildade santuco vidiari, emen eracutsi deutsudan, eta ondorengo Capitulubetan, eriac emuten daben guztian, eracutsico deutsudan leguez; eta zuc itzico dozu azpiraturic eta lotsaturic Diabruba, bere Servitzari leialac dirian, Mundubagaz eta Araguiagaz batera; onela eta ez beste moduz euquico dozu Jesus maitiaren Espirituba, izango zara emen bere antzecua, eta bere Aita Jaungoicoac, San Pablo Apostolubac erabaguiric itzi euscun leguez, artuco zaitu bere Gloriara: baña nola gure Anima gaiñua alde guztietatic Arrotasuneraco vidiacaz inguraturic daguan, eta vide oneic Mundutarren beguietan ederrac eta zabalac dirudien, Humildaderaco vidia barriz estuba eta illuna, argatic premiña andian aurquiquetan zara, eta gara, Jaungoicoari escaquetaco sarritan eta biotz guztitic bere arguitasuna, ezaguquetaco, eta bere laguntasuna ezaguturic jarraiquetaco Humildadeco vide oni, jausi bagaric.

Jaungoicoaren aurrian ibiltia

Eguiaz Orazinoa eguiteco, eta eguiaz Humildia izateco, Aisquidia, ez daucazu vide obiagoric Jaungoicoaren aurrian ibiltia baño: vide santu au eracutsi euscun Jaungoicoac berac Legue Naturaleco estaduban, Sinistzalla eguiazco guztien Aita Abraneri esan eutsani-

~an: ibilli zaite nire aurrian; eta izan zaite alde guz-
~tietatic ona: iñor ezin izanditeque ona Orazino eta
Humildade bagaric iñolaco moduz; beraz bat alde
guztietatic ona izateco vidia bada Jaungoicoaren
aurrian ibiltia, da ere videric onena, bat Orazino-
an eta Humildadian vizi izateco, zeñac bague
ez dago ona izateric.

Bai, Aisquidia; Jaungoicoaren aurrian bere
Animia darabillen Christauna berez dator bere ere-
bereztasuna eta argaltasuna ezaguquetara, eta vo-
~rondatez eta amorioz bere Buruba beeraquetara
~Jaungoico guztiz poderosoaren bendian, escaque-
tara premina daben laguntasun santuba, bere ar-
galtasun andia sendaquetaco; eta ez da erraz arro-
tuco, ez da ere aiñ erraz etorrico, Diabrubaren, Mun-
dubaren, eta Araguiaren amu labanac iraunstera,
beren Esclavo eguinic.

Jaungoicoa, fin bagueco ontasuna beragaz da-
ben, Espiritu bacarra da, batere Corputz baguecua,
Corputzaren batere antz baguecua, eta Corputze-
co beguiacaz ecusi ezin daiqueguna; ez dago bere
Criaturetan berac ecusten ez daben gauza ezcutuco-
~ric; eta ala ecusten dirian eta ecusten ez dirian gau-
~za mueta guztiac dagoza bere begui santuben aur-
~rian eta aguirian; bere Espiritu Divinoac nun nai
aurquiquetan gariala, alde guztietatic inguraque-
tan gaitu, Ychasoco Arraina urac alde guztietatic
inguraquetan daben leguez, bere Gloriaren eracuts
lecuba bere Aisquidientzat Zeruba bada ere; eta naiz
Aisquide, naiz aserre euqui daigula aren Divina Ma-
gestadia, beti gabiltza bere escu santu artian, eta
ezin igues eguin daiquegu: baña ez da au, Jaungoi-
~coaren aurrian ibiltia; baizican acto Fedeco baten bi-
~tartez guere Entendimentubagaz egui santu oneic
~sinisturic, berac bere aurrian garabilgun leguez,
~guc ere bera guere aurrian erabiltia beraganaco vo-

~rondate on bategaz; eta onela guere vizi guztico pen-
~samentu, verba eta obrac eguitia, berari guere aur-
~rian beguiraturic; au da bada Jaungoicoaren aurrian
ibiltia, berac Abran Patriarca santubari esan eutsan
leguez.

David Erregue eta Profeta santubac orobat era-
~custen deuscu vide santu au, esaten deuscunian: billa-
~tu eguizube Jaungoicoa; eta indartu zaitezte; billatu
~eguizube beti bere arpeguia: da esatia: ibilli zaitezte
beti Jaungoicoaren aurrian, eta beragana amorioz
jasoric zeuben biotzac, Orazinuaren eta Humilda-
diaren bitartez eretsi eguizube, indartuco zaituben,
bere grazia santubaren laguntasuna eta sendagarria.

Aguirian dago, bere Erreguiaren aurrian daguana zein iratzarria egongo dan, bere esan guztiac eguiteco, alditubar era guztiac eguiten deutsala, esquina guztietara ondo beguiraturic, lecu ez emutiarren, Erreguiac iguiñ daben, gauzaric dan chiquinenari, eta zein itzal andiagaz ibillico dan bere aurrian; au onela eguiten badau, Arrac laster jango dauben, Erregue baten aurrian daguanac; zer eguin biar ez dau, Aisquidia, Erregue guztien Erregue dan Jaungoico viziaren aurrian vizi eta dabillen Christaun eguiazcuac? Ha! Christaun ascoren biotzetan daguan Fede santubaren laburtasun andia!

Jaungoicoaren aurrian ibilte onec premina ditu guere Entendimentubaren eta Vorondatiaren aldetico langueiac: Entendimentubagaz eguin biar dogun
~langueia da, acto Fedeco baten bitartez Jaungoicoa-
~ren aurrian daguala sinisturic berari beguiraquetia;
~eta Vorondatiagaz eguin biar dogun langueia da, amo-
~riozco biotz bat aren Divina Magestadiari eracustia: baña Entendimentubagaz eguin biar dozun languei onetaraco, Aisquidia, ez eguizu beñere zeure burubagaz artu, ezagupera laburreco Christaun batzubec beren Animen eta Corputzen caltian vide onetan artu oi dau-

ben, nequeric, chipiquetan dituzula zeure Garoñac, artu guraric Jaungoicoari bere Criaturaren baten antza, guero antz onetan beguiraquetiarren aren Divina Magestadiari zeure aurrian; onetan batzubec eguiten daubena da, eta obeto, Jaungoico eta Guizon eguiazcoa Jesus maitia Curutzetic eseguiric, edo bere vizitza edo pasino santuco beste Misterioren baten beren imaginazinuan artzeia, beren aurrian balego leguez, eta onela bere aurrian ibiltia: eguia da; Jaungoicoaren aurrian ibilteco vide au obiagua da, bere Criaturaren baten antza arturic ibiltia baño; ala ere demporiaren demporaz buruba argalquetara dacar.

Esan deutsut, Aisquidia, ez daguizula artu, Jaungoicoaren aurrian ibilteco, bere Criaturaren baten antzagaz beguiraquetaco, nequeric; zergatic batetic neque mueta onec erraz quenduco leusquezun zeure Espirituco baquia, eta argalduco leusquezun laster zeure buruba; eta bestetic bere Criatura guztien artian bat aurquiquetan ez da, bere antzen bat guc artu deiquiogunic, ez da ere ezagutu daiquianic ez Zeruban eta ez Lurrian, norañocua dan bere fin bagaco, ondar bagaco, eta neurri bagaco Ontasuna; bada bere antzeracuac dirian Aingueruben eta guere Animen ere antz eguiazco bat artzeco, biar dan, arguitasunic ez daucagu, ecusten ditugun, Criaturetan.

Jaungoicoaren aurrian ibilteco videric onena eta errazena zuretzat eta norentzat nai Entendimentubaren aldetic uste dot dala, (esanic itzi dodan leguez) acto Fedeco baten bitartez sinisturic eguiaz Jaungoicoaren aurrian vizi zariala, berari ere Fede santubaren arguitasunagaz bacarric eta garbiro beste gueiagotan santzaca beguiraquetia zeure Espirituco aimbat biguntasunic eta baqueric andienagaz, onetaraco batere indarric eguin bagaric; bada Animaco gauzac ez dira besoco indarracaz eguiten dirianen antzecuac; eta bein onetan asi ezquero zube-

lacuac, laster datoza galtzera Espirituco baquia, eta sartzen dira escrupulubetan.

Jaungoicoaren aurrian Entendimentubaren aldetico langueiagaz ibilte bacarra utsa da Christaunarentzat, barclin iratzarten ez badau bere Vorondatia, aren Divina Magestadiaren Mandamentubac aimbat leialtasunic andienagaz gordetaco, eta beraganaco amorio santu bateraco; argatic lenagoco ojaren arpeguian esan deutsut, Aisquidia, devozino santu onec Entendimentuco langueiagaz ostian premina dabela Vorondatiaren aldetico langueia ere, zeña dan, amoriozco biotz bat aren Divina Magestadiari eracustia; bada gure devozino mueta guztiac izan biar daube, guere Vorondatia zuzenquetacuac, eta ontzecuac; eta au eguiten ez dogun bitartian, utsa da beste guztia.

Iratzarriric bada onela, Jaungoicoaren aurrian dabillenaren, Vorondatia, ecusiric dago, poztzen eta bizcorquetan dala bere gogua, aimbat onduen bere Mandamentu guztiac gordetaco, aimbat gueien bere aurrian humildquitaco, eta bere Animaco eta Mundu onetaco estuasun guztietan aimbat confianzaric andinagaz aren Divina Magestadiari escaquetaco bere grazia santubaren laguntasuna, bere pensamentu berba eta obra guztiac zuzenquetan ditubala beti Jaungoicoaren vorondatera: emendic sortzen zirian, Santubac beren Destierro onetatic, gabac eta egunac eucain, ordu eta demporaric gueienetan beren biotzen ondarretic, zerura botaben zituben, Liburu onen iruroqueta bi, iruroqueta amabi, eta iruroqueta amalau garren ojetan afecto edo suspirioen izenagaz aiquetara emun deutsudan, aiñ lanzada ugariac; batec esaten eutsan: Jauna; ez bedi eguin nire Vorondatia baizican zuria; ez nic gura dodan leguez, baizican zuc gura dozun leguez; beste batzubec: Jauna; euqui eguizuni Pecatari onegaz erruquia:

beste batzubec: vizi bedi Jesus; eta onela bacoitzac bialquetan eutsan aren Divina Magestadiari, beraganaco amorioz eta humildadez betericaco bere biotzaren ondarrian sortzen zirian, suspirio santubac.

Ecusiric bada, Zeruban orain dagozen, Santu eta Santac, utsic ezin eguin leiquian, Jaungoicuac, bere ain Aisquide andia zan Abran Patriarcari eracutsi eutsan, vide au, alde guztietatic onasizatia anchiquetaco, artu euben eurac ere biotz guztitic gogua, vide oni jarraiquetaco; eta onela jarraituric etorri zirian eguiaz ezaguquetara, zein erru andicua dan Jaungoicoaren aurrian ibilte au, pecatu mueta guztietatic igues eguiteco, eta ontasun guztizcora igoteco premina zituben Virtute santu mueta guztiai beren biotzetan sustrai errimiac ezarri eraguiteco; argatic ain Santu andi izatera etorri zirian, eta guri ere eracutsiric itzi euscuben biotz guztitic vide au onentzat, eta errazentzat, alde guztietatic onac izatera etorteco: bai, Aisquidia; esan eguidazu; nola izan alditeque, onela Jaungoicoaren aurrian dabillen Christaunac lecu emutia bere biotzian pecatubari, ecusiric, beguira daguan Jaungoicoac, berialatic vizitza quenduric, bota daiquiala betico Infernuco toqui izugarri aietara?

~ Badaquit, Aisquidia, esango deustazula: nic sinisquetan dot eguiaz, Juangoicoaren aurrian bat ibiltia dala erru andicua, ontasun guztizcora igoteco; baña nola izan alditeque, bat beti ibiltia Jaungoicoaren aurrian, batez ere Necazari bat, nori bere biotz guztia osquetan deutsain bere vizi biarrac, bere egunoroco languei ugariac eta necosuac, eta bere Familiaren gañeco arduriac? vide santu onec bada dirudi ona bacarric Corputzagaz necaquetan ez dirianentzat, eta Familiaren gañeco ardura andiric ez daucainentzat: erantzuten deutsut onengañian: Jaungoicoaren aurrian beti ibilte au, Santubac eguin eta eracutsi euscuben modura, Christaun mueta guztientzat da guztiz erraza.

Abran Patriarca santuba eta David Erregue eta Profe-
ta santuba, zeñac ezaguquetan ditugun vide santu onen Era-
custzallaric aurrenengotzat, izan zirian, Aisquidia, zu leguez
Ezcondubac, zuc baño Familia ascoz ugariaguen gañeco ardu-
ria eucainac, eta zuc daucazun eta euqui aldaiquezun baño
beren biotzac ostu eiquien gauza ugariaguac eucainac, zeri
beguiratu egunaz eta gabaz, batez ere David Erreguia Erreinu
guztiz zabal bategaz eta bere vizitzaco demporaric onenian
Etsaiz inguraturic barrutic eta campotic; Abran santubac ere
urtenic Jaungoicoaren aguinduz bere Familiagaz bere Echetic
bere Erritic eta bere Aide guztien artetic, nora ots eguiten eut-
san ez equiala, ecusi biar izan zituban Erreinu eta Jente atzi-
ac, eta onein artian naibague ugariac; ala ere biac ederquiro
jarraitu izan eutsain Jaungoicoaren aurrian ibiltiari, eta vide
santu onetan billatu zituben beren illuntasun guztietan zoragar-
rizco arguitasuna, eta beren estuasunetan zabaltasun guz-
tizcua: au ecusiric eta onegaz pozturic ondorengo Santubac
eguin izan daube beste aimbeste; eta ala aiñ Santu andi izatera
etorri izan dira.

Orazinuan beti bat egotia, eta Jaungoicoaren aurrian beti
ibiltia (esateco modura) dirudie gauza bat; bada Orazinuan
eguiaz beti daguana dago ere eguiaz beti Jaungoicoaren aurri-
an; eta orobat esan diteque Jaungoicoaren aurrian beti dabille-
nagatic, daguala beti Orazinuan: baña, Aisquidia, Orazinua-
ren gañeco Beti au nola aiquetan dan, esanic itzi deutsut Liburu
onen iruroqueta seigarrengo ojatic asi eta iruroqueta amargar-
rengo ojaraño; eta orobat Jaungoicoaren aurrian beti ibilte au ez
dozu aitu biar, verbac eurac aiquetara emuten deutsuben es-
tuasun guztiagaz, beti artan, beti artan, eta beti artan, beste gau-
zari beguiratu bagaric, zeure buruba ligorquetan dozula; ez da
au Jaungoicoaren aurrian beti ibiltia; aren Divina Magestadi-
ac ere gorroto deutsa, bere aurrian onela beti ibiltiari.

Orazinuaren gañian, Aisquidia, aitaturic itzi deutsudan, oje-
tan esaten dodan leguez, goizetaco jaguieretan, Jaungoicoaren
aurrian ifiniric, bere pensamentu, berba, eta obra guztiac, eta be-
re estuasun eta naibaguetasun mueta guztietaco Curutzia aren
Divina Magestadiari bere honra eta gloria gueiagoraco esquin-
ten deutsana, eta beren demporetan, Jaungoicoari beguiraturic,

eguiten ditubana, esquini deutsan leguez, Jaungoicoaren
aurrian dabil: tentazino co ordubetan eta beste edozein pre-
mina ordubetan, Jaungoicoari beguiraturic, aimbat confian-
zaric andienagaz beragana doiana, laguntasunaren esque,
gorroto ditubala biotzetic pecatu mueta guztiac beren oca-
siniacaz, baquiaren amoriosagatic esan alditezquian gui-
zonic (bere ustian) santubenac ere, eta ontzat emuten dabe-
la Jaungoicoaren sorondate mueta guztia, Jaungoicoaren
aurrian dabil: eguna eta gabaz, Jaungoicoari beguiratu-
ric, aimbat onduen eta bere biotzeco pozic andienagaz egui-
ten ditubana, bere Estadubac eta Ofizioac escaquetan
deutsain lan guei mueta guztiac, Jaungoicoaren aurrian da-
bil: Jaungoicoari beguiraturic, Progimuari, bere Etsaia ixan
agatic ere, bere premina mueta guztietan aldaben laguntas-
una amoriosz eguiten deutsana Jaungoicoaren aurrian
dabil: noizian bein eguinoa bere biotzaren ondarretic Jaun-
goicoari amoriozco (sarritan aitatu ditudan) lanzada batzuben
bialquetan deutsana Jaungoicoaren aurrian dabil: bere paitz
eta ondo ez guztiac, Jaungoicoari beguiraturic, aimbat lastes-
ren batateco, beragan dan errazuazco alegiña eguiten dabe-
na, itziric gañeruntzaco guztia bere escu santubetan, Jaungoi-
coaren aurrian dabil: azqueric, Jaungoicoari beguiraturic,
eguna eta gabaz bere Conputzari emuten deutsana, errazu-
azcoac dirian, Jana, edana, Jantzia, eta atseepenac, eta bere
Espiritubari errazuazco dempora inagogarriac, Jaungoica-
ren aurrian dabil; bada aurda, Aisquidia, eta ez beste gauza-
ric Jaungoicoaren aurrian ibiltiben eta ara bian doguin ontasuna,
eta emen esan deutsudana, eta onetaraco esan deiquezudana
Jaungoicoaren laguntasunagaz batera edozein Christauec,
bacoitzac bere modura, eguin daiquiana, eta eguin biar da-
bena da.

Santubac, onela vizi ziriala Jaungoicoaren aurrian emen
Lurraren gañian, erein zituben beren biotzetan ontasun guztizco-
raco premina zituben virtute santu mueta guztiac, deseguindu-
ric beren vizio eta pecatu mueta guztiac; eguin zituben beren
Borondatiac Jaungoicoarenagaz bat, eta guertatu eutsain beren
biotzetan aren Divina Magestadiari, gure biotzetan ifini gura
daben Erreinuba, osoro eguiten eutsaila bere esanac eta eguin-

dubac: Ho! Aisquidia; eta zein zorionecuac dirian emen onela
aren Divina Magestadiari guertaquetan deutsainac bere Er-
reinu santuba! bai; Jesus maitiac esaten eusten Judeguben
Fariseoai: Jaungoicoaren Erreinuba zuben barruban dago: gu-
re biotzetan eta gerere Vorondatetan ez azalian, guere barru-
ban eta ez campuan; eta ala guere biotzetan guertatu biar de-
utsagu bere Erreinuba, eguiten dogula ez, Diabrubac, Mundu-
bac eta Araguiac eracusten deuscubena, baizican aren Divi-
na Magestadiac eracusten eta aguinquetan deuscuna, beti
bere aurrian gabiltzela, esanic itzi dodan leguez.

Onela Jaungoicoaren aurrian beti dabiltzenac eguingo di-
tube beren egunoroco edozein languei ascoz obeto; euquico dau-
be beren Espiritubetan baque gueiago; billatuco daube Jaungoi-
coa urrian, eta beren alde escumatatic; ecusico daube eguiaz,
zein ona dan Israelgo Jaungoicoa biotz zuzenecuac dirianentzat,
eta zein biguna eta gozoa dan bere Espiritu Divinoa, Ertia bera
baño gozoagua, eta, beren Vorondatiac bat eguinic Jaungoicoa-
renagaz, ez daube guraco beste gauzaric Jaungoicoa bera;
eta bere vorondate santuco gauzac baño, vizi modu onegaz
guztiz pozic eta zoraturic iragoten ditubela negarrezco toqui
onetan beren egun laburrac; eta, bardin noizbaiten Jaungoi-
coa dempora pusquin baten edo ia beren culpaz edo ia beren
leialtasuna ecusteco (sarritan eguin oi daben leguez) euracan-
dic ezcutaitan bada, esaten daube, David Erregue eta Profeta
santubac esaten ebena: egunaz eta gabaz Oguiaren orde izan
ditut (nire beguietaco) negar malcuac, itanquetan deustain
bitartian egunoro; nun da zure Jaungoicoa? eta ondoren, Er-
regue santu onec beronec eguin eben leguez onelaco dempo-
ran, beren barrubetan guztizco baque eta confianza andiagaz
Orazinuan zabalquetan daube eta banaquetan daube beren
Anima Jaungoicoaren aurrian, Edarrabatetic jausten dan,
ura zabaldu eta banatu oi dan antzera Lurraren gañian,
Jaungoicoa leen leguez beren biotzen gañian arguitu artera-
ño; eta onela bere aurrian beti vizi dirian eta dabiltzen oneic
emen Lurrian asiten dira zorionecuac izaten, eta emuten deut-
sai, Zeruban eternidade guztian iraungo deusten, Zorioneco-
tasunari bere asipena.

Munduba

Ecusiric, nire Aisquidia, Jaungoicoa gure Orazinua-
caz bigunquetan dala, guri premina dogun, laguntasuna
eguitera, eta Zeruban leguez ala Lurrian ere bere ondar
bagueco Anditasunac beguiraquetan deustela amorioz
biotz humildecuac dirianai, gordetan ditubala, gure Ani-
metaco lenengo Etsaia dan, Diabrubaren bendian jaustetic,
eta Orazinoraco eta Humildade santu onetaraco daucagun,
Jaungoicoaren aurrian beti ibiltiaren vide erraza; guazen
orain zerbait esatera, Diabrubagaz batera Zeruraco vide
zuzena galdu eraguiten deuscun, eta gure Animetaco bi-
garren Etsaia dan, Mundubaren gañian.

Mundubaren izenagaz guere Animen Etsaitzat aique-
~tan dira, lenengo eta aurrenengo, eternidadiari batere be-
~guiratu bagaric, emengo gauzai beren biotzac josiric eta
~ichaatsiric darabilden, Mundubaren Esclavo eta Jarral-
~la donga guztiac; eta ondoren Munduco Criaturac ala be-
~guiacaz nola Corputzeco beste edozein sentidugaz ezagu-
~tu aldaiquegunac, Eguzquitic asi eta Lurraren azpirañoco
~guztiac; oneic guztioc dira bada, Zeruraco vidia galdu era-
guiten deuscubenac, eta Mundubaren izenagaz guere Ani-
men Etsaitzat ezaguquetan ditugunac.

Badaquit, Aisquidia, berialatic erantzungo deusta-
zula: ondo dator, Mundu onen Esclavo eta Jarralla dongac
guere Animetaco Etsaiac izatia; baña nola izan alditeque,
Jaungoicoac eguin zituban, gauzac, izanic berez onac, eta gu-
re oneraco eguiñac, gure Animetaco Etsai izatera biurque-
tia? eguia da, Aisquidia, Jaungoicoac Mundu onetan eguin
zituban gauza guztiac Munduba bera ere, diriala onac, eta
gure oneraco eguiñac; ala ere guere Animetaco Etsaiac
izatera datoza, baña ez beren aldetic, baizican guere biot-
zac oquerreraco daucain macurtasunaren aldetic, orain
aiquetara emungo deutsudan leguez.

Jaungoicuac Mundu onetan eguin zituban gauza guz-
~tiac daucai erru mueta bi; bata urrenecua, eguin zitu-
~banian emun eustena; bada gauza bacoitzari emun eut-
san bere izate eta erru bananguac; bedar mueta bacoitza eguin

eben
bere izate bananguagaz, eta bata gauza bateraco erruba-
gaz eta bestia besteraco, orobat lurra, eta arria, aizia, ura,
eta suba, Arbola mueta asco, Egazti, Arrain, eta Animale
mueta asco, bacoitza, zertaraco eguina dan, artaraco; erru
urreneco, banango, eta lenengo au etorri lequiquio gauza
bacoitzari ez bacarric Jaungoicoac emun eutsan izatiaren
aldetic, baita ere Eliza Ama Santaren aldetic, eta Guizona-
ren Jaquinduriaren aldetic, onetaraco daucan eta berez ona
dan Ofizioren baten videz; Eliza Santaren aldetic urac, be-
re izatetic ez daucan erruba, bedeincaturic dauca, Diabruba-
ri igues eraguiteco, eta guri pecatu venialac parcatu era-
guiteco, eta onela beste gauzaric ascotaraco Eliza Santac
daqui ezarten bere bendizinua Jaungoicoaren beste Criatu-
raren batzubei: Guizonaren Jaquinduriaren aldetic Ofizio-
ren baten videz, zeure Necazaritzaco Ofizioan ecusi oi do-
gun leguez; soruan sortu oi dirian Nar eta bedar dongac
daucain lenengo errubetatic bat da, lurrari indarra quendu-
ric frutu onac emuten eragoztia, eta Necazari onac eguiten
dabena da; etaraten ditu sustraitic guztiac, eguiten ditu er-
returac, su emunic galdu eraguiten deuste beren izatiaren
aldetic eucain erru mueta guztiac, eta auts biurturic, eta
onetaraco euracaz batera lurra erreric, artu eraguiten de-
uste, leen ez eucain, lurra ontzeco, erruba; orobat ecusi oi
da Arguintzaian, Arotzian, Errementaritzaian, Erlojero, Vo-
ticario, Quimico, eta beste edozein, berez onac dirian, Ofizio mue-
ta guztietan: Jaungoicuac eguin zituban Mundu onetaco Cria-
tura mueta guztiac daucain bigarren erruba da goienengua
eta azquenengoa (au da) guztiac banaan eta batera guri di-
adarca eracustia beren Eguilla Jaungoicua, eta gu escutic
arturic leguez bere grazia santubaren bendera eruatia, gue-
re azquen fin santuba anchiquetaco.

Mundu au eta Mundu onetaco Criatura guztiac bada,
Aisquidia, berez onac diriala, eta gure oneraco eguiñac, dato-
za izatera guere Animetaco Etsaiac, daucain erru mueta bi
onei alde batera itziric, emun gura deustegun guztian, ez dau-
cain, beste erru muetaren bat; baña au guertaquetan da guere
Yorondatiac oquerreraco daucan macurtasunaren aldetic.

Munduco Criaturac daucain lenengo errubari aldo batera izten deutsai, Criatura oneitan, edo ia Jaungoicoaren aldetic, edo ia Eliza Ama Santaren aldetic, edo ia Guizonaren jaquinduria berez ona danaren aldetic ez daucain, eta euqui ezin leiquien, erruren bat billatu guraric dabiltzen, ezagupera guichico eta vorondate dongaco Christaun guztiac; onelacuac bada ecusi oi dira, Aisquidia, gueien bat zure Ofiziocuen artian, eta Christaun beeretan; urraquetan daube Jaungoicoaren Legueco amar Mandamentubetatic lenengua, eta, bardin beren ezin bagaco ez jaquinen batec guichiquetan ez badeuste Jaungoicoaren aurrian pecatubaren anditasuna, eguiten daube pecatu icaragarria, Superstizinocua, edo Sorguinderiacua deritzona: onerian uts eguiteren batzubec izentauco deutsut, jaquinian egon zaitian, eta lecuric emun ez deiezun zeure biotzian; zergaitic sarritan guertatu oi dirian, eguiten ditubanaren, batere quezca bagaric, eta bai, Evangelio santuco gauzac baño errimiago sinisturic, eguiten dituben, uts oneic ez diriala utsac, baizican eguiac; eta ez dago iñor siniste guezurrezco oneitatic etara daiquianic: onerian uts eguitiac dira Odei aserretaco demporetan sinistu eta esan oi dituzuben milla bat guizur Conjuruaren eta Conjurua eguin oi dauben Eliza Santaco Ministroen gañian; uste dozube, Aisquidia, Conjuradore onac bere escuban daucala, Odeia (dan aserriena ere) noiz gura deseguindu, edo, nun gura daben, bota eraguitia, daucan, puzunia guztia; eta au guizur andia da, eta onen gañian sinisquetan dituzuben beste guizur guztien sustraia; Conjurua bada ez da beste gauzaric baizican Eliza Ama Santac ifiniric daucan erregu edo escavide mueta bat, bere Ministroen bitartez Jaungoicoari Odei demporan eguiteco, quendu edo deseguindu daguian Odeia guere Persona, Eche, Ganau eta Bazterren batere calte bagaric; eguia da, conjuro onetan aurquiquetan dira Diabrubacanaco aguinte, mueta batzubec, Eliza Santaren izenian bere Ministroac aimbat confianzaric senduenagaz eguin biar deustenac, bardin, Jaungoicoac (batzubetan itzi oi deusten leguez) itziric, eurac

badira, guzti calte eguitiarren, Odeia etara daubenac, itzi deguien beren asmo madarikatubari; eta Confesio au bada, ñabar ascoz obiagia, dia Odeia calte bagaric deseguinquetaco, beste edozein Christaunec bere bacarrian Jaungoikoa-zi eguiten deutsan exregubac baño; baña ala ere beñere ez dau aiñ exki andicia Confesio santu au, edozein toquitatic eguin dedilla, zeñ da Jaungoicuari escubac lotuco deutsan, guria dabena, ez eguiteco; au da bada, Aisquidia, eguia, eta Confesiuaren eta Confesiadorien gañian beste gauzarik ez-niusquetia da Jedian argal egotia; Odei demporan oneitan so oi da ere Campaia, ¿ baña zertaraco uste dozu, Aisquidia, dala au? ¿ Odeia deseguinquetaco, indarren bat daucalaco Campae sote onez ez iñolaco moduz; bada saquintsu guztien iritzian on baño calte guiagocua da Campaiaren otsa Odei demporan; bacarric bada ontzat emun oi da Eliza santan Campae sote au Odei demporan, Campaia onetaraco consagratuba darian, eta [illegible] beste edozein Campae soten darian, aldauben Christaunac juan ditezen Elizara, Jaungoikoazi ere guquetara, eta Elizara juan ezin diriianac, bacoitzac bere bacarrian daguan toquitic exregutu deguien, itzunqui albadaguie bere guganaco aserre santuba; au bere equia da, nire Aisquidia, ¿ eta zeñ artian nor da, egui oni alde batera izten ez deutsanic, bacarric beguiraturic ete dezan tsan edo ez Confesioraco Campaiac? ¿ eta nora guaza Odei demporako guizun sinisqueta oneicaz, bazdin Odei aserniac ecusi oi dirian alderen batetic aurquiquetan bada, iñorc ondarric ez dequion, leze andirен bat, nire gazte demporan Oñatin, Estudio etan nebillela, entzun oi neben leguez Gaiztazuluaren izena daucan leze batequatic? entzuten neben bada, leze onetan Diabrubac bizi diriala, santu eta urten ibilten diriala batez ere Odei aserria daguanian, urlia Anzainegaz eta berendiagaz au guztatu zana eta bestia, eta beste onelaco milla bat Atsoripuiñ ume artian ere dempora iraco gazti esaten Christaun batec lotsatubi ar leuquiana: Ha! Aisquidia! Gaizta zuto eguiazcuac dira Maldiziente, Juramentuquilla, Blasfemo, Guzasuacanaco itzal eta amorio bagueco, Jocalari, Azar, Erroidu zale, Lujuriaso, Ordi, Lapur, Murmuzatzalla, eta beste guzanaco gorrotuan bizi diriaren Jaungodare madarikatu guztiac.

Orobat: bat luzaro ondo ez daguanian, eta izen bagaco gaitzagaz, erabilten dozube goian beian bere oia, eta billaturic an zuben beguitanzinoco Gaizquinen gauzaren batzubec, artzen dituzube, eta, Vidacrutzeren batera eruanic, erretan dituzube; au ere uts eguite icaragarria da; onen ondoren bardin Atso zarquinen bat eta arpegui zatarrencoa esquian badabil, beriala dau bizcarrian, gaitz guztiaren Eguilla, Sorguina, eta Gaizquina izatia; eta Errian ots au banaturic batzubec guztiz gaizqui eta gogorquiro artzen daube beren Echeetan Esqueco au, eta beste batzubec (eta dira gueienac) emuten deutsai, daben, izen donguiagatic bacarric eta Taungoicoari beguiratu bagaric, daucaina eta ez daucaina, autortu eraguiten deutsaila ez dirian millabat gauza eta guizur ia bildurrez, ia aŝuari ugariaguac izango dituban pozian; nun dira onen ondoren Aquelarreco barriac, edo ia Catu biurturic urlia demporatan Urliari eta Berendiari au eta bestia eguin eutsana, eta berari beso, edo ancaren bat ausiric, eta ichian itziric, edo igues eguinic, Persona ori urrengo egunetan ecusi izan zala, bere anquia edo besua ausiric? ¿ eta oneic onela sinisquetan dituzubela, esan leique, daucazubela Fede eguiazcoric? Ha! eta uts eguite batetic zembat uts eguite datozen!

Orobat: batec, galdu badau gauzaren bat, edo ostu badeutsai, artzen dau, eta oquerquetan dau lau maravidico edo zortzi maravidico bat, eta ifinten dau San Antonioen Imaginaren aurrian, edo botaten dau Animen cuchara, bein baño gueiagotan ecusi dodan leguez; ¿ baña zertaraco, uste dozu, Aisquidia, dala au? berari ostu deutsain, edo berac galdu daben, gauza daucan, Personia, biurtu bagaric, oquertu dedin, eta ibilli dedin oquerturic, berac onetaraco bota izan daben, diru oquertubaren antzera; entzun leique beste onenbeste Christaun artian? au, bai, Santu pisua, ondo irabaziric daucana, Altara baten egotia, baña San Miguel Ainguerubaren azpian. ¿ eta nun dira Diabrubaren aldetico Asdrubac, gauza galdubac billaquetaco? Orobat: zubelacuen artian, Aisquidia, asco dira, Beguizcua, Evangelio santuco gauzac baño errimiago, sinisturic dagozenac, eta beguitan arturic daucainac; onelacuac bada, bardin (esateco modura) gordinic san leiquian beren

Aurren bat, edo guei anditaco Ganau Guel ederren bat gabetic
goizera ondo ezen bategaz ecusten badaube, zer dauben ez da-
quiela; beriala esaten daube, Beguizcua daube; eta ondoren
asiten dira, azterrenac etaraten, nor izan alditequian, Beguiz-
cua eguin deustena, Jaquitiarren; eta laster, eta inguru asco
emun bagaric, Joten daube Beguiz eguin dabenagaz; Aurra
osasun onian eguala Sorguin izenecoren batec ecusi beben
gaisotu aurrian, bera da, Aurra galdu deustena Beguiz-
cuagaz; eta orobat Ganau Guela gaisotu aurrian ecustera
Juan dirianetatic batec ecusteco demporan esan ez beben:
~San Antonioc bedeincatu daguiala: bera eta ez besteric da,
Beguiz eguin deutsana; au onela Jaquinic duaza, beguiz
eguin deustela, uste daubenagana; garbitu eraguiten deut-
sai bere escubac; eta guero edan eraguiten deuste ur au Aur
edo Ganau Guel gaisuari, sendatu ditezen; eta (gueiago dana)
ascoc beren Aurrai sartu oi deuste Colcuetan Ycatzac, iñorc
Beguiz calteric eguin ez deguien; bai, Aisquidia, onelaco si-
niste guezurrezcuac dabiltza, asco zabalduric zubelacuen
artian; Persona nagusia danian, izen bagaco gaitz luzia-
gaz gaisoric daguana, Gaizquiñac ditu; onelacuac izan oi di-
ra Ethico eta Fisico guztiac; eta Aurra danian, luzaro gai-
so daguana, Beguizcua dau: baña ez dira onen bestegaz
gueldiquetan onelacuen astaqueriac; baizican beriala azter-
renac etaraten asiten dira Jaquitiarren, zer Fraile edo zer Aba-
de dan Cutun Guillaric onena, eta Bendizino Emalleric one-
na, deseguinquetaco Gaizquinen eta Beguizcuen erru don-
guia; eta Jaquinic, legua asco vide Juatia premina bada
ere Gaisoaren Animaco, Corputzeco, eta Fraticaraco calte
andian, argana duaza Gaisuagaz batera, Juan albade-
di iñolaco moduz, eta Juan ezin bada bere Erropacaz eta
Ontziacaz Cutuncho baten eta bendizinocho baten esque;
eta Sazerdote Juiziosoren batec onelacuai eguia eracutsi gu-
~ra badeuste, gueien etaraten dabena euracandic, da: Ha
~bada Jauna! gauza onac gauza charric ez dacar: eta
onen bestegaz gueldiquetan dira, beren siniste guezurrez-
co Zapua barruban gordetan daubela: Ea, Aisquidia; ez
eguiezu lecuric emun zeure Familian onerian siniste mada-
ricatubai; ez deutsut esan gura onegaz, Eliza Ama San-

ex daucala
tac, ifiniric Orazinoac, bendizinoac, eta Ꞩantzelio santubac Gaiñeratzat; badauca, bai; baña nire pecatariatasuniar bere Ministroa nauzan aldatic nire languei guztiac ondo eguiteco premiña dodan arguitaraiña emuten deustan (Manual Romanua esaten deutsaquin) libura santuban Gaiñiac ecusteza noian demporaraco ez Cutunic aotan antzen deust, eta ez eracusten deust nola eguin bear dirian; ez da ere Gaizquinic eta Beguiztonic, ez da ere, onein exui dongoia deseguinquetaco, Bendizinoric: noztubec bada, Ausquidia, saltzen deutsube Arneretaco ipuiñ enzeic ain egui anditzat? Ita! eta zein, obea bat eguingo leuquien onezian Gaiñiac edozein gaitz muetagaz aunguitu ditezela, emango balitube Jaungoicoaren santuban beren ondo ez guztiac Jesus cruzificaubaren antzeza, bere escu santutic etorriac dirian legez; eta Medicu eta Barberuen esaniac eguinagaz ostian, eternidadiari beguiraturic, eta onetaraco ondo guentaturic, escatuco baleitsai beren Errectore Jaunari edo beste edozein Sazerdotezi, Eliza Ama Santa Catolica Apostolica Erromaciac ifinitic daucan Orazino, Bendizino eta Ꞩantzelio santubac eta siniste santubagaz bezagaz, zeñagaz ifinizituban Gaiso guztientzat bardin, onein nidez, Jaungoicoaren exuquiia exetsinic, sendatu ditezen Animan eta Corputzian!

Orobat: beguiza dagozenac, bat faioten donian, zer Izozrec daucan aguinte indar, edo exuric andiena, Jaquitiaren, onela faioten dau, Arrazo zer oituzetaco ura izango dan, andi eguinic: bat Gazte donian bere escu zabal bietaco arraetatic ezagutu gura dauben ac gueroco demporetaco aren gañeco bazzi onac edo adiñonac: Santuan Bautistaren gau leeneco gaberdian bezen Sorbetaco Candubac eta bedar dongac ebaten ditubenac, guciago sortu ez ditezen: Santu glorioso onen egunaren goizian eta ez beste demporaraun beren Aurtz eta beste Ganaubai iguesi eraquiten deustenac, gaiñotu ez ditezen: Ꞩgazti edo Chorien chirriporren, Chacurren auduri en eta Ganauben Orroien zain dagozenac, Jaquiteco oneitatic beren Personen edo beste batzuben gañeco etorquizunaco bazziac; eta onein antzeco beste milla guizon zubi laciien artian siniste ric vizi dirianac, ura andiac eguiten

ditube: esan eguidazu; zubelacuen artian Anima Fidelien zembat
prozesino ecusi oi dira? ¿eta Purgatorioco zembat Anima
arguitu oi dira, beguitanzinoz betiac edo vorondatez guezur-
tiac dirian, Emacume ascori, esaten deustela, onelaco edo
alaco Meza etara beguira dagozela, andic urteteco? ez diñot,
Aisquidia, au dala Jaungoicoarentzat ezin ditequian gau-
za, eta noiz baiten eguiaz guertatu ez dana, baña, bai, zubela-
cuac, batez ere zuben arteco Emacume argalac gauza onein ga-
ñian gueienian edo beti guizurra eguitzat beguitanduric, edo
guizurrac asmauric, besteri guizurrac sinistu eraguiten ibilli
oi diriala; ez dira onelaco gauzac, erraz sinistu biar dirianac;
bada aren Divina Magestadiac Anima bacoitza, Corputzetic ur-
teten daben eran, eruaten dau, irabaziric daucan, toquira, eta an
ondo gorderic izten dau, urten ezin daiquian moduban, gura aga-
tic ere: ¿norc ezaguquetan ez dau bada, onerian guezurrezco
sinistiac illunquetan daubela guere Fede santubaren argui-
tasun guztia, eta izten daubela ichusituric bere edertasun mira-
garrizcoa? onela Munduba eta Munduco Criaturac berez onac
eta gure oneraco eguiñac datoza izatera Animetaco Etsaiac, dau-
cain beren lenengo eta aurrenengo errubai alde batera itziric, ez
daicain beste erruren baten billa dabiltzen, guztientzat: itziric
bada alde batera, Eliza Santan aiñ lotsari andico gauzac di-
rian, guezurrezco siniste madaricatu onei, gueien bat buru ar-
galeco eta ezagupera laburreco, eta Fede santuban argal dago-
zenen, eta Emacume beguitanzinoz betericaco batzuben asmazi-
no utsac dirian leguez, guazen oraiñ, zerbait esatera, Mundu-
bac eta Munduco Criaturac daucain beren bigarren goienengo eta
azquenengo errubaren gañian; emen, bai, Aisquidia, ecusten diria-
la uts eguite izugarriac Christaunen artian; ala Guizacumiac, nola
Emacumiac, ala ondasun baguecuac nola Aberatsac, ala Chiqui-
nac nola Andiac, ala zerbait daquiela uste daubenac nola batere ja-
quinduria baguecuac, ala Animaco Potenzia anditacuac nola chiqui-
necuac, edozeiñ Estadu eta Ofizioetacuac diriala, datoza emen uts
eguitera, emuten deustela Mundu oni, eta Mundu onetaco Criaturai, ez
daucain, erruba, aazturic guztiz beren goienengo eta azquenengo bi-
garren erru santubagaz, eta, negar eguiteco gauza dana, bacoit-
zac, besteri gaitzic eguin bagaric, eta bere irabazi eguiazcoagaz
ondo dabillen ustian, eta bestec beragatic gaizqui ez deritzon, mo-
duban.

Mundubac eta Munduco Criatura guztiac ala beguiacaz
ecusi ditezquianac, nola ecusi ezin ditezquianac Jaungoicogu-
re Jaunagan daucai beren asipena eta azquena; bai, Ais-
quidia; berac eguin zituban; beragandic urtenac dira, eta be-
ragana duaza Guizonaren videz: emendic dator, Mundubac
eta Munduco Criaturac euquitia bacoitzac bere banaan eta
guztiac batera beren goienengo bigarren erru santu bardiñ
eta bacar bat, bacoitzac bere banaan eta bacarrian daucan, erru
bacar lenengoagaz ostiangoa: Mundubaren bada eta Munduco
Criatura guztien goienengo bigarren erru santu bardiñ eta bacar au

~da, guri eracustia eta ezagutu eraguitia beren Eguilla Jaungoi-
~coa, daucan, bere ondar bagueco Ontasunagaz batera; eta ondo-
~ren gu, escutic arturic leguez, aren Divina Magestadiagana zu-
~zenquetia eta eruatia: esatera nuatzu, Aisquidia, nola; asico nai-
tzatzu erru santu onen lenengo partetic, zeña dan guri eracustia
eta ezagutu eraguitia beren etagure Eguilla Jaungoico ondar bagueco
ona. Jaungoicoaren escu guztiz poderosotic urtenicaco Criatura one-
ic (eguia da) ez daucai gure antzeraco Mingairic, verba eguiteco;
alde onetatic isillac dira; baña eguia ezagutu gura dauben eta oneta-
raco beren Animetaco belarriac zabalic darabilden guztiai diadarca era-
custen deuste beren Eguilla Jaungoico ondar bagueco ona, eta ascoz
aguitzago Pecatarien gortasuna dan baño; Criatura bacoitzac banaan
~eta guztiac batera diadarca esaten deuscube: ez gara guerez eguiñac;
~bestec eguin gaitu: onela bada, Aisquidia, beguiacaz ecusten ditu-
gun Mundu onen eta Munduco Criatura guztien izcuniaren videz, begui-
acaz ecusi ezin ditugun, Jaungoicoa eta bere neurri bagueco Ontasuna
ezaguturic ecusten dira, alaco moduz ere, Jaungoicoa eta bere neurri
bagueco Ontasun au, beguiacaz ecusten ditugun, Mundu onen eta Cria-
tura guztien izcunia mueta onen videz ezagutu gura ez dauben, Jen-
tilac eurac ere ezin escusaric emungo daube; ez da au, Aisquidia,
nic asmauricaco, gauza, baizican guere Errazoiaren arguitasunac era-
custen deuscuna eta ezagutu eraguiten deuscuna; onela beinic bein
San Pablo Apostolubac Erromaco Jentilai, Jesu Christogan sinisturic
egozen, demporan escribidu eusten, carta sagraduban erabaguiric itzi
euscun egui santu au, eta leenagotic Espiritu Santubac berac Jaquin-
duriaco Liburu sagraduban esanic eucan egui santu au berau: bai,
Aisquidia; onela Mundu onec eta Mundu onetaco Criaturac, bacoitzac
banaan eta guztiac batera, diadar ezinda aguitzaguac eguiten deuscu-
be, guri ezagutu eraguitiarren beren eta gure Eguilla Jaungoico guztiz ona;
Jesus maitiac ere bere Evangelio santuban sarritan auquetara emuten de-
uscu Zerubetaco Erreinuba, guere beguiacaz ecusten ditugun Mundu
onetaco Criaturen eta gauzen iduripenacaz eta ispillubacaz, onein videz
guere Animac jasotiarren, ecusten ez ditugun, Jaungoicoaren eta bere gau-
za santuben ezaguperara eta amoriora.

Beguiacaz ecusten ditugun, Mundu onec eta bere Criatura guzti-
ac, Aisquidia, berez Mingai baguecuac eta isillac badira ere, bere gañi-
an vizi dan, Guizonari beren Eguilla Jaungoicoaren eta bere gauza santu-
ben gañeco Festiganza aiñ aguria eta erabaguia emuten deutsai, zeinda,
beren gañeco considerazinoari lecu pusquin bat bere biotzian emun ez-
quero, erraz etorri diteque, gauza guztien Eguilla dan, Jaungoico
santubaren ezaguperara; argatic Zeruco Santu guztiac, emen vizi zi-
ranian, aiñ maite izan euben Mundubaren eta emengo Criatura guz-
tien gañeco considerazino au, etaraten zitubela emendic millueca
errazoiac, gauza guztien Eguilla Jaungoico ondar bagueco ona
amaitaco, alaboitaco, eta esquerrac emuteco bere neurri ba-
gueco mesediacatic, batez ere San Agustin Obispoa, Eliza San-
taco Doctore jaquintsuba, eta Jaungoicoaganaco amorioz guz-
tiz izioa; Santu andi onec bada bere bacardadeco verbeen gañe-
~co Liburuban esaten dau, itandu eutsala Lurrari; zu zara
~nire Jaungoicoa? eta Mingai bagueco bere izcunia isillian erant-
~zun eutsala: ez naiz ni; baizican zu esque zarianac, eta zuc billa-
~tu gura dozunac eguiña naiz; billatu eguizu nire gañetic: itandu
~eutsala ondoren Ichasuari; zu zara nire Jaungicoa? eta orobat
~erantzun eutsala: ni ez naiz; baizican zuc billatu gura dozunac

~eguiña; billatu eguizu nire gañetic: orobat Lurreco eta
~Ychasoco Criatura guztiac, escaturic bere Jaungoicoaren
~gañeco barriac, erantzun eutsailla: berac eguin guindu-
~ban; billatu eguizu gure gañetic: ondoren itandu eutsala
~Eguzquiari: ¿zu ete zara nire Jaungoicoa? eta erantzun
~eutsala: ez naiz ni; baizican berac eguiña; billatu eguizu nire
~gañetic; eta orobat erantzun eutsailla Ydarguiac, Yzarrac,
~Zeru zabalac berac, Aiziac eta Criatura mueta guztiac: eta
~azquenic esaten dau, Criatura guztien bardin erantzute
~au dala beren Eguilla Jaungoicoaren gañeco Festiganza
~guztiz aguiria eta erabaguia; onela, San Pablo Aposto-
lubac, aitatu dodan, carta sagraduban esaten daben le-
~guez, ecusten ditugun Mundubaren eta Criaturen sidez
~ezaguquetan ditugu, ecusten ez dirian, beren Eguilla Jaun-
~goicoa bere ondar bagueco Ontasunagaz batera, eta bere gau-
~za santu guztiac: ojala, Aisquidia, Lurraren gañian sizi di-
rian Guizon eta Emacume guztiac ideguiric baleucai beren Ani-
metaco belarriac, entzuteco, Mundubac eta Munduco Criatu-
rac diadarca emuten deusten, beren Eguilla Jaungoicoaren
gañeco barri santu oneic, edo (obeto esatiarren) Jaquiñian eta
beren vorondate osoagaz ichi, sortu, eta gortuco ez balitube
beren Animetaco belarriac, ez entzutiarren diadar santu
oneic; ez litugue, ez, Lurrac ecusico bere gañian ez Eliza
Ama Santa barruban, eta ez emetic campora Jaungoico
eguiazco, bacar eta santu oneganaco batere ezagupera eta
esquer bagueco aimbeste Guizon eta Emacume: badaqui,
bai, Pecatariac, dan Jaquintsubena, aberatsena, escuvide-
ric andienecuena izanagatic, Mundu guztico Aquintari ba-
carra izanagatic, illcorra dana, ezin luzatuco ditubala bere
egunac eriotziaren aurrian, ezin emun leiquiola bere Corput-
zari uleguizi baten lodieraco luzeraric, ezin eguin leiquia-
la bere buruco uliac zuriac edo baltzac, ezin apainduco da-
la aiñ ederquiro, nola Jaungoicuac apainquetan daben cam-
poco Lirio bat, eta ezin eguin leiquiala, egaraz dabillen, Elcho
bat; badaqui ere, Mundubaren obra miragarrizco au bere
gabacaz eta egunacaz bere negubacaz eta udaacaz, aim-
beste millue Criaturac batac bestiari aiñ bardin alcarri be-
ti erantzuten deutsailla, berez sortuba ezin izandiquiala,

ez da ere berac, bere Gurasuac, edo bere Asabac eguiña;
itandu bequio bada oni; norc eguiñ ebela obra miragarriz-
co au, uste dozu? eta zertaraco, uste dozu, zagozela zeu
bere erdian, bere Jabe ifiniric, eta, emuten deutsun, zoragar-
rizco servizioagaz atseguin attzen? Pecataria emen isillic
gueldiquetan da; ez daqui, zer erantzun, eta ez dau sartu
gura auzi onetan, eguia ezaguturic, eta atseguintasun
mueta guztietaraco nasaitasuna bere vorondatiari ucatu-
~ric, ecusi ez daguian bere buruba (David Erregue eta Pro-
~feta santubac aiquetara emuten deuscun leguez) ondo vizi
~izateco premiñan: Ha! Pecatari gor eta ichuba! etorrico da
dempora, zeñian artuco daben, bere vorondatezco gortasu-
nagaz irabazi gura dituban, sari guztiac; orduban, baña be-
randu, ezagutuco dau, Mundu onen eta Criatura guztien
Eguilla dan, Jaungoico bacarra eta santuba.

Munduco Criatura onein goienengo eta azquenengo bi-
garren erru santuba ez da bacarric (orain esanic itzi dodana)
guri diadarca eracustia gauza guztien Eguilla Jaungoico
~bacarra eta santuba, baita ere da, gu, escutic artuta leguez,
~onela eracutsi gura deuscuben Jaungoico bacar eta santu
≈onen bendera eruatia: esan eguidazu, Aisquidia; zertara-
co, uste dozu, Jaungoicoac eguin ebela Mundu au bere Cria-
tura guztiacaz, eta gu bere gañian guztien Jabetzat ifini
gaitubala? ez badaquizu, zer erantzun, San Agustin glorio-
~so onec beronec eracusten deutsu, eta aitu eguiozu: eguin
~zituban (diño) Criatura oneic guztioc gure Corputzarentzat,
~Corputza Animiarentzat, eta Animia beretzat: orra zein
verba laburretan erabaguiten deutsun Santu glorioso onec
zuretzat aiñ orapil andico zeritzon itaunia; eta, laquin gu-
ra badozu sustraitic egui santu au Fede santuco eguitzat, ai-
~tu eguiozu San Pablo Apostolubari berari: gauza guztiac (esa-
~ten deuscu) dituzube zeubenac ala Munduba, ala vizit-
~za, ala eriotza, ala oraingo gauzac, nola etorquizunecu-
~ac; zergatic gauza guztiac zubenac dira, zubec Chris-
~torenac, eta Christo Jaungoicoarena: Apostolu glorioso
onec bada San Agustinegaz batera aguirian ifinten deutsu,
Aisquidia, Jaungoicoaren escutic urtenicaco, Criatura one-
ic, beragana, beren azquena dan leguez, biurquetaco, daroi-
en, vidia, eta, artaraco emuten dauben, inguruba; baña ingu-

ru au zuzen emungo badaube, gauza Jaquiña da, guc gue-
re biotzetaco atiac zabaldu biardeustegula, eta ez deuste-
gula ichi biar ate oneic, irago ditezen gure bitartez, beren Equi-
lla eta azquena dan, Jaungoicoagana (esan gura deutsut) Ja-
ungoicoac, bere Criaturen Jabetzat gu ifiniric Mundu one-
tan, beren servizioacaz eracusten deuscun mesedia, ona
eta erruquia ezaguturic, emun biar deutsagula aren Di-
vina Magestadiari bere autormena eta esquerrac, aimbat
onduen bere vorondate santubaren azpian vizi gariala; arga-
tic David Erregue eta Profeta santubac Jaungoicoaren ala-
~banzaraco Canzino baten asipenian esaten deuscu: autortu
~eguiozube Jaungoicuari; zergatic dan ona; zergatic dan
~eternidaderaco (guzti) bere (guganaco) erruquia; eta ondoren bere
ontasun eta guganaco erruquiaren Aguiritzat izentaitan
~deuscu, bere Jaquinduria andian eguin zituban, Zerubac eta
~Lurra, Eguzquia, egunaz argui eguiteco, eta Ydarguia eta
~Yzarrac, gabaz argui eguiteco, eta gauza oneic banaan izen-
~tau bacoitzian ondoren beti diño Canzinuaren asipenian le-
~guez; zergatic dan eternidaderaco (guzti) bere guganaco erruquia:
bai, Aisquidia; onela Mundubac eta Munduco Criatura
oneic, beren Eguilla Jaungoicoa diadarca guri eracutsiagaz
ostian, eguiten deuscuben beren zoragarrizco servizioacaz be-
ren Eguilla santubaren aguinduz, escutic artuta leguez, erua-
ten gaitube bere bendera, zeña dan, esanic guelditu dan,
Mundu onen eta Mundu onetaco Criatura guztien goienen-
go eta azquenengo bigarren erru santuba.

Oneic onela Jaquinic, Aisquidia, ez da neque, ezaguque-
tia, nola izan alditequian, Mundu au eta bere Criaturac, iza-
nic gure oneraco eguiñac, etortia, gure Animetaco Etsaiac iza-
tera: bardin bada daucain bigarren goienengo eta azquenengo
erru santu oni alde batera itziric vizi bagara, datoza gure Ani-
metaco Etsaiac izatera. emen guere vizitzan, eta guero Juizioco
demporan Jesus Divinoaren Tribunale santuban, salaquetan
daubela guere ichutasun eta esquerbaguetasun andia; eta
erru santu oni alde batera itziric vizigara, guere Animaco
belarriac sorturic eta gorturic darabilgun bitarte guztian, ez ent-
zutiarren, guri aiquetara emuteco beren Eguilla Jaungoicoa, egui-
ten dituben diadarrac; baita ere ezagutu agatic beren videz gu-

re Jaungoicoa, onen aguinduz beren servizioacaz emuten de-
uscuben, atseguintasunari guere biotzaz ichaatsiric, beragaz
zoraturic, ichuturic, eta ordituric leguez, emen vizi garian
bitarte guztian, batere beguiratu bagaric, aimbeste zoraquetan,
ichuquetan, eta ordiquetan gaituban, atseguintasun au emu-
ten deuscun, Jaungoicoaren escu santubari: Ha! nire Aisqui-
dia; eta zeimbat onerian Christaun vizi ete dirian Eliza San-
ta barruban ere! eta, negar eguiteco gauza dana, Munduco
Criaturetatic mesederic gueien izan ditubenac, ondasunic
gueienecuac, escuvideric eta jaquinduriaric andienetacu-
ac ere bai! onela vizi dirian guztiac ideten deuste Mundu-
bari eta Munduco Criaturai beren biotzetaco atiac, etabe-
tez betezian zabalduric atiac eguiten deuste onguietor-
ri andia, santu ditezen; eta ondoren biurquetan ditube
ichitera atiac, irago ez ditezen, beren Eguilla eta azque-
na dan, Jaungoicoagana.

Christaun onerianac itzulten daube beiaz gora, Jaun-
goicoac bere Criaturetan ifiniric daucan, neurri santu guztia;
berac, guztien asipena dan leguez, gura dau ere izan guz-
tien azquena; Mundubaren eta Mundicco Criatura onein
asipenian batere zer ecusiric euqui ez dauben Christaun
ichu oneic barriz gura daube eurac izan guztien azquena, Jaun-
goicoari alde batera itziric: Jaungoicoac eguin zituban Cria-
tura oneic gure oneraco eta servizioraco, eta gu, beren Ja-
biac leguez izateco; eta Christaun ichu oneic barriz egui-
ten ditube beren biotzetaco Jabiac Mundu au eta bere Cri-
aturac, biurturic eurac, onein Servitzari eta Esclabo ichu
batzubec izatera, eta Jaungoicoari alde batera iztera edo-
zein demporatan Criatura onei deusten vide bagaco amori-
oagatic; nola izango ez dira bada Munduba eta bere Criatu-
rac Animetaco Etsaiac Christaun ichu onerianentzat?

¿Ecusten dozu, Aisquidia, Ardaua, aiñ ona izanic
berez, zembitentzat dan Animaco Etsai gogorra, botaten
ditubala Ynfernubaren ondarrera, larreguian bere zale
dirian Ordi guztiac? ¿eta, aiñ gauza ona dan, Ardao au aiñ Et-
sai andia izatia batzubentzat, zertan ete daguan? gauza
jaquiña da, ez daguala Ardauagan, baizican Christaun
donguiac dongaro eta gaizqui bere calte andian gauza

diñ ona zorondatez edo atiagan: au beraz esan eguzu-
bada, Aiçquidia, Munduz onetaco beste edozein Criatu-
rac emuten daben, atsegintasunagaz, orduzuic leguez,
zoratuzic, onetan beren azquen Fina, ifiniric, eta, azquen
Fin eguiazcua dan, Jaungoico santubagaz aaztuzic, vizi di-
zian, Christoun donga çuztiacatic, eta, oneic beren Jaungoicot-
zat bioztian daucaiin, Criatura mueta çuztiacatic: zembat Gaz-
te, Guizon eta Amacume iduriqen edezaecuac, batez ere osa-
sun sendocuac, eta euquidunac, edo euqui ustecuac badira,
ecusi oi dira, zoratuzic beren usteco edertasunagaz, daucai-
na eta ez daucaina Vrazi emuten deutsailla, gueiquetiaz-
zen beren edertasuna, eta, apaindubago ifini biazzian, ichu-
siago ifinten ditubela beren burubac? zembat Fripanero, be-
ren Sabelac Jaungoicotzat aztuzic, dozenabilderac beren
çtazziac beti idequiric Sepultura zabal baten antzera, sartu eta
ezcutaitan ditubela errazue bagaco fan edanacaz, premiña
goçozzian aunquiquetan dizian, ascoren fama eta fantzia,
dempora baño len, beren biotz gogorracaz vizitza quentzen deustela, eguna eta ga-
baz asmau ezinic, zegaz equin baldaiquien beren estetan
aimbat costuzic gueieneco sits ugariena eta onena? zem-
bat Munduz onetaco euquiai eta izatiai beguiraquetan de-
ustenac beren Jaungoico, eta, iñorc gaitzic equin ezin leiqui-
on, indar izugarrico Ziudade eta Gaztelutzat, eta dabiltzenac,
diruba diruban gañian pillaquetan, eta hazienda hazien-
daren gañian gueiquetan, beti, zembat euquiago, eta gosiago,
artexaño ezer eren Jabe ez balinan leguez, Pobziac millaca
iraunsoiten ditubela? zembat buru initzicuac, doctrina Chris-
tiana ez daquienac, eta dabiltzenac Erriric Erri, Campuac
eta bazterrac ecusten, Guizarteco barri (zubec esaten daqui-
zuben leguez) icastiazzen; eta, Guizon andi equin ustian, biva-
quetan dizianac, Astabarzio eta Demonio andi batzubec equi-
tric? eta onein antzera beste zembat onelaco vizi dira, Mun-
dubagaz zoratuzic, eta bere Equilla Jaungoico santubagaz
aaztuzic? eta onetan çuztian Mundubac eta Mundoco Criatu-
rac daucai culpa? ez iñolaco moduz, Aiçquidia, baizican,
bere Criaturetan Jaungoicuac çuretzat ifinizic daucan, neu-
zi santubaren azpian vizi çuza ez daubenan, gaiztaqueri-
ac. Badezitzat, Aiçquidia, onenbestegaz ezagutuco dozu-

la, Munduba eta bere Criaturac, betez betezian eta zuze-
nian beguiraquetan badeustegu, diriala onac eta gure one-
raco eguiñac; eta bacarric albotic leguez sartzen diriala,
Animetaco Etsaiac izatera, oquerreraco guere voronda-
tiac daucan, macurtasunaren videtic; egui au, errazoiac
eta Fede santubac berac ere eracusten deuscubena, da.

Munduco Criatura oneic, albotic leguez beguiraturic,
sartzen dira Animetaco Etsaiac izatera ez bacarric, izentau
ditudan, Persona eta Christaun donguentzat, baita ere, Jaun-
goicoaren vorondateco neurri santuban zuzen eta artez Ze-
ruraco videtic ibilli gura dauben, guztientzat: Diabrubac eta
Mundubaren Jarralla ichubac, Jaungoicoari osturic Criatu-
ra oneic, guezurrez, eubenac balirian leguez, esquinten
deuscube, eta, arma guztiz indartsutzat arturic Criatu-
ra oneic, euracaz egunoro eta instanteoro Zeruraco vidi-
an labandu, eta pecatuban Jausi eraguin gura deuscube;
Jesus maitia berroguei eguneco barubacaz gosetu ondo-
ren, Diabrubac bere neurri bagaco arrotasunagaz uste
izan eben, beste edozeñeri leguez, aren Divina Magestadia-
ri ere, pecatuban Jausi, eraguitia; eta ala, mendi altu ba-
tetic Mundu onetaco Erreinu guztiac eta beren edertasu-
na eta anditasuna eracutsiric, guezurtiac, beriac balitu-
ban leguez, esan eutsan aren Divina Magestadiari: one-
~ ic guztioc emungo deutsut, bardin (Lurrian) etzinic ado-
~ raitan banauzu: ¿zer deritzozu, Aisquidia, Diabruba-
ren esquinte oni? ¿eta, esquinte onegaz aren Divina Ma-
gestadiari (ezin zitequian gauza) pecatuban Jausi era-
guin gura izan beutsan, guezurti madaricatu onec zuri
eta niri baquian itzico deuscula, uste dozu? ¿zembaite-
ri esquinte laburraguacaz pecatu izugarriac irauntsi era-
guiten deuste, udaco beroacaz basobatur otz edaaten dau-
ben, duiñ gogoz? ¿eta zer guertatuco da, bardin, Diabruba-
gaz ostian, bere esanguilla Mundubaren Jarralla ichu, mil-
lueca dirian, oneicaz Aisquide bagara, eta batere susuma
bagaric gauza anditzat icasten Jasarten bagara, eguia-
ren azalagaz estalduric, eracusten dituben, beren Legue ma-
daricatubac?

Ea bada, Aisquidia, vizi izan zaite, baña beti, zeure
vizitzaco egun eta gau guztietan zaiñ zeure gañian, sortu

ez dequizun zeure biotzian zeure burubaganaco, Mundu
oneganaco, eta Mundu onetaco Criaturacanaco amorio
larreguiric, ibilli zaitian beti, Jaungoicoac bere Criaturetan
guretzat ifiniric daucan, neurri santuban: onetaraco Jarrai-
tu eguiezu leialtasun guztiagaz, Diabruba azpiraqueta-
co, preminacotzat eracutsi deutsudan, Orazinoco eta
Humildade santuco vidiai; eta oneicaz ostian beti goguan,
beñere aaztu bagaric, erabilli eguizu, San Pablo Apostolu-
bac guztioi, guere biotzetatic amorio larregui au quent-
~zeiarren, esaten deuscuna: Emaztiac daucainac (diño)
~vizi bitez, ez baleucain leguez; eta, negarrez dagozenac
~negar eguiten ez baleuben leguez; eta atseguintasunagaz
~pozian vizi dirianac, atseguintasuneco pozic ez baleucain
~leguez; eta (zerbait) erosten daubenac, erosi dauben (gau-
~za) ez baleucain leguez; eta Mundu onegaz valiatan diria-
~nac ~~[illegible]~~ valiaitan ez balirian leguez; zerga-
~tic Mundu onen iduripena iraguaz dua: miragarrizco ver-
bac dira oneic, Aisquidia, eta guichigaz asco eracusten de-
uscubenac, bardin badarabilgu guere Animetaco belarri-
ac iratzarriac, zuzen eta gogoz entzuteco; onetan bada
Apostolu santu onec, berac eguiten ebena, eracusten deus-
cu; onela berac Mundu oni eta bere Criatura guztiai be-
guiratu izan eusten bere vizitzan ostico peco samarrac,
eta Satsac baliran leguez, Jesu Christo irabaztiarren, eta
emengo irabazte guztiai Jesu Christoren aldian, bere cal-
tiac balirian leguez; onela beguiratu izan eusten Mundu-
bari eta Criaturai bere oneracuac, bere Servitzari, eta Escla-
vo leialac baliran leguez, eta bere Burubari guztien Jabe,
eta Jesus maitiaren Servitzari eta Jarralla ichu bat zan
leguez; argatic ez eutsan beñere bere biotzian lecuricemun
euracanaco amorio larregui eta vide bagacuari, eta, bai,
erabilli eben beti bere biotza guertaturic, Jareguiteco gau-
za guztiai, bere vizitza eta Animari ere, bai, Jesu Christo-
ganaco autormen eta amorioagatic; eta ala Jaregui eus-
ten, Martiri ill zanian; onela azquenic ibilli zan beti, Jaungoi-
coac bere Criaturetan guretzat ifiniric daucan neurri santu-
ban: orobat eguin biar dogu guc ere; bestela galdubac gara; Je-
~sus Divinoada esaten deuscuna bere Evangelioan: bere Ai-
~tari eta Amari niri baño gueiago gura deutsanac, ez nauni

~ merezi; eta bere Semiari edo Alabari niri baño gueiago
~ gura deutsanac ez nau ni merezi: eta beste lecu baten
~ esaten deuscu: zubetatic edozeñec (bere biotzetic) bota—
~ ten ez baditu daucan gauza guztiac (da esatia) bere vi—
~ zitza eta Anima ere, ezin izan diteque nire Diszipulu—
~ ba.

Aisquidia, egui santu oneic ala dira, eta, Mundu onetaco Ondasunetan eta anditasunian beren biotzetaco baquia eta atseguintasuna daucainentzat guztiz saminac badira ere, ezin Cacuacaz macurtuco ditugu guere vorondateco gogoacana, baizican Jaungoicoaren grazia santubaren laguntasuneco Cacuagaz zuzendubiarco ditugu euracana guere vorondate macurtubac; Ulicbaguegontzen leguez Munduraco, eta Munduba bere Criaçaz guretzat, Jesus Divinoari zor deutsagun, autormen eta amorioagatic; argatic San Pablo Apostolubac esaten deuscu: Jesu Christogatic Mundubaniretzat Curutzian Josiric dago eta ni Mundubarentzat: argatic ere Santiago Apostolu gloriosuac Fede santuco eguitzat erabaguiric itzi euscun, Mundu onen Aisquide izan gura dabena eguiten dala Jaungoicoaren Etsai.

Oneic onela diriala, Aisquidia, ez neuque gura, gaizqui aitu daguizun: Jaungoicoac ez deuscu eragozten Mundu onetaco Ondasunen Jabe izatia, eta guere besoetaco biar eguiñagaz, bacoitzac bere Ofizioan, aldogunavide onetic irabaztia; eta, ez daucanac eta ezin dabenac irabazi, bere premina eguiazcuetaraco daucanari escaquetia; ez deuscu, ez, onerian gauzaric eragozten, baizican Mundu onetaco euquiai guere biotzac Jositia, guertaturic vizi gariala, euracanaco amorioagatic Jaungoicoa guztiaz gañera ez amaitara, eta Lagun Progimoa guere Burubac leguez, beren preminetan erruquitu bagaric, eta aldogun moduban lagundu bagaric; eta gueiago aguinquetan deuscu, guere gogoac asiac eta betiac erabiltia beti, egunoro bere Providenzia santubagaz emuten deuscunagaz, eguinic onetaraco aurraz vide onetic, (esanic itzi dodan leguez) gueregan dan, errazuazco aleguin guztia, gueiagoraco beguiluzetasun bagaric, guere egunoroco Curutzia Jausoric Jarraiquetan deutsagula Jesus Divinoari.

~ Onela bagabiltz, Aisquidia, Jesu Christogaz jan-
~tziric gabiltza; Munduba eta bere Criaturac urre gorriz-
~cuac dira guretzat; vizi gara Jesu Christorentzat; illten
~gara Jesu Christorentzat; eta ala naiz vizi gariala, naiz
~illten gariala, beti Jesu Christorenac gara; eta bere eta gue-
~re arteco saldu erosiac urtengo deuscu (esateco modura)
~bardiñac (au da) aren Divina Magestadiac Curutzian ero-
~si guinduban leguez, bera zan guztiagaz, jareguiric bere
~Criaturai, bere vizitzari eta Animiari, eta bera zan guz-
~tia gueldituric Sacramentu santu Comuniocoan, gu bera-
~gaz bat eguiteco, orobat, gu garian, guztia esquinico gai-
~tzaco, jareguiric aren Divina Magestadiaganaco amori-
~oagatic Mundubari eta Munduco Criaturai, guere vizi-
~tzai eta Animai, zeña dan, bere eta guere arteco saldu
~erosiac escaquetan deuscun, gauza, bardiñac urteteco.

Ecusiric bada, nola Munduba eta bere Criaturac
berez onac eta gure oneracuac albotic leguez datozen
gure Animetaco Etsaiac izatera, eta nola beguiratu biar
deustegun eurai, Zeruraco vidian euracanaco amorio
larreguiac labandu eraguinic, pecatuban jausi ez gaiti-
an, esan daigun orain zerbait, Mundubaren eta bere
Criaturen Amatzalla eta Jarralla ichuben gañian, zeñac
dirian, zuzen zuzenian eta betez betezian Mundubaren izena-
gaz aiquetan dogun, guere Animetaco bigarren Etsaia.

Jesus maitiac bere pasio santuco demporan, Pila-
~tos Aguintariac itandu eutsanian; zu zara Judeguben
~Erreguia? beste itaune bategaz erantzun eutsan; eta Pila-
tosec, erantzunic Jesus Divinoaren itauniari, ondoren itan-
~du eutsan; zer eguin dozu? orduban Jesus maitiac erant-
~zun eutsan: nire Erreinuba ez da Mundu onetacua: eta
eguiaz, Aisquidia; zergatic, etorri bazan ere Zerutic, bere
Erreinuba ifintera, ez eben ecarri Ezpataric eta beste arma
muetaric onetaraco, Mundu onetaco Erreinuben Jabiac eca-
rri oi dituben leguez, baizican bere arma guztiac izan ziri-
an Virtute santu mueta guztiac, batez ere Humildadecua
eta Caridadecua, zeñacaz lotu gura izan zituban bere
Erreinuco guztien biotzac beragana; eta, nola bera, Erreinu
santu onetaco Aguintaria eta Legue Emallia, zan Zerutic
jaachia eta Zerura biurtu biar ebena, ala emun zituban,

Legue santu guztiac izan zirian Zerucoac; eta, bere Jaunaldi esquiniz euscen, sariac eta Ondasunac guztiac zirian Zerucoac, eta Mundu onetaco beren vizitzaren ax-querian artu biar ditubenac; argatic errazue andiagaz-erantzun eutsan Jesus maitiac Pilatosori, bere Erreino-ba ez zala Mundu onetacoa.

Mundu zabal onen gañean vizi dirian guztiacaz bada, Aisquidia, eguin daiquegu Erreinubi bacarrac, onela obeto ezagutuqueticanen, guere Animetaco bigarren Etsaia dan, Mundu au: bata Jesus Divinoaren Erreinuba, zeña dan Eliza Ama Santa Catolica Apostolica Erroma-coa, emen Lurraren gañean bere iru Etsaiacaz beti guer-ran dabillena: bigarren Erreinuba Mundu onen Amatza-Ua eta Jaunalla ichubena; zeñac dirian Munduburen izena-gaz zuzenian aiquetan dogun guere Animetaco bigarren Etsaia:

Asi dodan saill au zuzi obeto aiquetoza emuticoan, oñian izten dodala, Eliza Ama Santaren gañian eracutsi deutsudana, esanagaz, bere barruban vizi diriala Chris-tauen onac eta dongac; bada donga oneic ere bere Mien-broac dira; orain esaten deutsut, emen Lurraren gañian vizi dan, lerengo Erreinu santu oni Zerucoco beguiratu biar deutsazula, Religinuetaco Nobiziabai leguez, Reli-giuan profesa eguiteco: Religinuetan ecusten dituzu No-vizio batzubec, beren Echeetara biurquetan diriala beren asondatez, ecusiric, ez dala eguiten vizi modu a beren-tzat; beste batzubec iuteten daubela, Religiosuac eu-rac botaten ditubelaco profesaco demporan, ecusiric beren obra eta vizitzagaz ez deustela ondo erantzuten aurtorquetan dituben Religinoco Legue santubai; eta bacarric profesa eguiten daube, Religiosuen izitzian eta iustian Religinoco Legue santubai beren obretan anteraño ondo erantzun deusten, Novizio onac: orobat guertaquetan da emen Jesus Divinoaren Erreinu santu onetan Zerucoco profesaraco (au da) Zeruco gloriaan sartze-co; guere vizitzaren azquenengo arnasaren azquenen-go instanteraño dirau gure Novizaubac, eta ondoren-go instantia da gure profesaco demporia, demporia, guret-zat noiz izango dan, eguiaz ez daquigunа; Erreinu santu

onetaco Novizioaric campora aurquiquetan dan guztia profesaco demporan (au da) ilten danian, gueldiquetan da Jesu-tic campora Infernuco suzco toqui negargarrizco aietan, naiz beñere sartuba ez dala Jaincu santu onetaco Noviziauban, nola dirian Judegubac eta Tentalac, naiz, Noviziau onetan bein sarturic, uiten dabela campora, ucaturic bere siniste equiazcua eta Legue santuba, nola dirian Apostatac, Jaregiac eta Zismaticuac: orobat Jaincu santu onetaco Noviziau bazu onetan izi izan dan guztia, profesaco demporan bere Legue Jmalla eta Aguintari Jesus Divinoac emanten badau, bere obracaz gaizqui erantzun deutsala eta erantzuten deutsala Jaincu santu onetaco Legue eta siniste santubari, ez dau artaco Jesuco Ordenan eta emateraco; onezianac izan oi dira Christau Catolico donga guztiac, ondo siniztu eta gaizqui izi dirianac; eta emendo deuste bere Jesuco profesa mirazarrizcoa bacarric, amen, bere Jaincuco Noviziau santu onetan ifiniric daucan, siniste equiazco eta Legue santubai edo inozenziaco videtic edo penitenzia equiazcoaren videtic beren izitza eta obracaz azqueneraño ondo erantzun deustenai, eta ez besteri.

Religino baten bada profesa equiteco onac eta autuac dira bacarric, beren Religinoco Leguiac ondo gordetan dituben, Noviziac; ala esan daiquegu, euzac bacarric diriala equiaz Noviziac; beste guztiac barriz ala Religiuan sartu ez dirianac, nola bein sarturic vozondatez uiten dauben profesa baño lenago, nola, uiten bagaric, Noviziauco Leguiac gorde gura ez dituben ac, Religiosoac bota biaco dituben modubau beren Jcheetara, bardiñac dira (esateco madura) beren izi modubetan, guztiac gueldiquetan diriala bardiñac, gura dauben equiteco, escuidatan; eta esan daiquegu, iru Persona mueta onaic equiten daubela Noviziu equiazcuacandic beste Corputz mueta bat: orobat, Aisquidia, daroiadan saill onetan bacarric eta ez gueiago, eta, emen exacutsi gura deutsudan, equiac obeto zuriaiquetaza emateco, eta ez gueiagoraco esaiten deutsut, emen Jaincuaren gañian, dagozela, izentau deutsudan, Jaincu bietatic lenengoa, zeña dan Jesus Divinoarena, equiten daubela bacarric Christau onac eta equiazcuac, Jesuco profesa santubaraboazten, equiaz izi dirianac, beste guztiac barriz, Chris-

taun Catolicuac izanagatic, gaizqui izi badira, Christaun Catholicuac ez diranacaz batera eguiten daubala bigarren Jesreinuba, zeña dan Mundubaren Jaunalla ichubac eguiten daubena; eta ala beguiratu bia deutsazu bigarren Jesreinu madarikatu oni zabaldunic ez bacarric Eliza Santatic campora, baita ere Eliza Santa barruban.

Onela Mundu zabal oren gañian izi dirian Persona mueta guztiacaz eguinic Jesreinu bi bacarrac, bada ill arteraño, Zeruco profesa santuba anchiquetaco duin gaza eguin daiquian, peritenzia eguiazcuaren badere calte bagaric; eta onela esabaquiric (aiquetaco modura eta ez beste modutan) Jesreinu bi bacar oneic, gauza aguiria eta faquiña da, Asquidia, bigarren Jesreinu au, zeña dan bere Amatzalla eta Jaunalla ichubena, dala lenengo Jesreinubaren, zeña dan Jesus Divinoarena, Jesusai guztiz esabaquia, eta Mundubaren izenagaz zuzenian aiquetan dogun guere Arimetaco bigarren Jesusa.

Lenengo Jesreinuba, Mundu onetan izi bada ere, ez da Mundu onetacua lenagoco ofiaren aurrian eta ostian esan deutsudan esazeiacatic: Jesreinu santu onetaco Legue Jesallia eta Maisuba da Jesus Divinua; ifini zituban, legue guztiac izan zitzian alde guztietatic onac eta esazuazcuac; eracutsi eben bere Aita Jaungoicoaren voluntate santuba, eta eguin zituban eta eguiten ditu bere Jesreinuco guztiac bere Senidiac eta bere Aita Jaungoicoaren Seme Alabac, eta beragaz batera Zerubetaco Ondasun eternen herederoac; eta ala bere Jaunalla guztiac, ucaturic berengo gozo donga guztiac, zuzenquetan ditube beren voluntatiac, Jesus Divinoac emun euzten, legue santubacaz, eta eracutsi euzten, Evangelio santuco eguiacaz; eta, Zeruco Ondasun eta vizitza Seculacuari beguiraturic, daucai Mundu au Destierro eta Negarrezco Valletzat; argatic Salvatzen Onazinuan Ana betian esaten deutsai bere Ama beti Virgina Maria Santisimari: Jesusen Ume desterratubac: eta: Negarrezco Valle onetan: emen, San Pablo Apostolubac eracusten daben leguez, ez daucai, izi izateco, zuzdade izanpenecoric; baizicar dabiltza, guero aguertuco dan, beste zindade baten billa, faquinian izi dirala, ere deseguinquetan bada izi lecu onetaco beren lanezco fede au,

~ daucaila Jaungoicoagandic beste Echebat ez Guizonen
~ escuz eguiña, baizican eternua Zerubetan: argatic emen
vizi dirian bitartian beguiraquetan deutsai Mundu oni, videz gau-
za andi baten billa eta noizerañoco demporia izango dauben
ez daquiela ariñ duazen, Persona zintzo batzubec videeta-
co Ostatubai beguiraquetan deusten modura; Erreinu one-
taco Jabe dan, Jesus Divinoac Munduco vide onetatic bialquetan dituban
guztiai ez deuste emuten bardin ondasunac videco gasturaco, batzu-
bei emuten deuste berendaco duiña, beste batzubei beren-
daco baño gueiago, eta beste batzubei ez deuste ezer emuten;
baña aguinquetan deuste onei, escatu daguiela Ostatuco
gasturaco Humildadiagaz, berendaco baño gueiago arturic
daucanai; eta onei aguinquetan deuste, beren gueiaguagaz
eguin deguiela ez daucanai beren Ostatuco gastuba, era-
gotziric ez daucainai, beren escuz daucainai quentzeia, eta
onei, ez daucainai ucaquetia: onela Erreinu santu onetan guz-
tiac vizi dira pozic, batac bestia amaitan daubela Jaungoico-
agan eta Jaungoicoagatic, zabalquetan daubela amorio san-
tu au beren Erreinutic campora vizi dirian guztiacana, beren
Gaitzeguillac izanagatic, batez ere beren artian ondo sinistu-
ric gaizqui vizi dirianacana.

Jesus Divinoac bere Erreinu santu onetan vizi dirianenda-
co ifiniric dauca Estadu mueta asco, bacoitzac onduen deri-
tzonari jarraiquetaco, baita ere bere gobiernu oneraco languei
mueta guztiz asco; eta ala ez dau gura, iñor naguiquerian
eta alperquerian vizi dedin, baizican bacoitzac artzen da-
ben Estaduco eta Ofizioco langueietan, errazue dan gara, neca-
tu dedin, bere nequiagaz irabazi daguian aldaben gara: arga-
tic Erreinu santu onetaco guztiac ez daquie, zer dan alper-
queria; eta beguiraquetan deutsai Alperqueriari gorro-
toz, pecatu mueta guztien Iturri ugaria dan leguez; baña,
gauza miragarria dana, vide onetic bacoitzac irabazten dau, al-
daben, gara, aberasquetaco egarri bagaric eta bai Jaungoicoaren voronda-
tia eguitiarren; eta orobat, onela bere aldetic dana eguinic, badator-
go aberastasunac vide zuzenetic, artzeen ditu, eurai biotza bate-
re ichaatsi bagaric, eta bai euracaz Jaungoicoaren vorondatia
obeto eguitiarren, eta premiña eguiazco dunen artian amori-
oz eta pozic zabaldubagaz Zeruba erostiarren; bada Erreinu
santu onetan Aberatsac ere badira, pillosic badarabilde ere
beren biotzac, botaric beren izatiacanaco amorio vide bagacuen

soñeco madaricatuba, Mundu oretan Abfilez puruta baten Jabe ez dan Diabru guezurtiac, eurracaz darabillen, burruncan billatu ez deguioen soñeconic, mundic oratu eta Lurrera ezarri; burrucara pillosic datorrenari eurac ere pillosic arpegui emuten deutsai; beste moduz ez da bardiña burruqueria.

Jreinu santu oretan vizi diriran guztiac beda bildur dira aberastasunac eguiten, eta eguiñac enguiten; batian eta bestian ecusten ditube vide asco zabalac, eta labanac pecatubetaraco: aberastasunac eguitiaren gañian entzuten deutsai Espiritu Santubari esaten, aberasqueiaco añi-dabillena ez dala izango inozentia (ain dai) pecatu mortal-baquecna, baita ere entzuten deutsai esaten, zoriones-dala, urriaren billa ibilli ez dan, Guizona: orobat entzuten-deutsai San Pablo Apostolubari esaten: aberastu guna dan-benac sausten dira tentazinuan eta Diabrubaren lazuan, eta deseo alper eta caltetsu ascuetan, zeñac daraman-Guizonac, ondotzan eta condenazinuan sartzera: orobat entzuten deutsai San Jeronimo Elizaco Doctore saquintsubari esaten: Aberatz guztia edo da donguia edo donguiaren Heredeuna: orobat entzuten deutsai Quevedo Guizonsaquintsubari esaten: Mundubar zoriones-diac dira Infernuban errestan dagozenen Semiac (dagesatia) emen ondo vizi dirala, eurac aberatz izteiaren, Aitmac galdu zituben, Gurasuen Semiac; orgatic dira bildiia, aberastasunac eguiten: aberastasun eguiñac enquitiaren gañian barruz entzuten deutsai, beren Maisu Jesus Diuinuari esaten beregan-gelio santuban: aberastasunac dira Narduiac, ruin sausten dan Gal alia eriaagaz batera ioten dan lequez, orobat ere-itoten da Jaungoicoaren verba santuba aberastasunaren autian vizi donaren biotzian: baita ere entzuten deutsai esaten: nun daguan zeure Jesoria, an dago ere zeure biotza: baita ere entzuten deutsai esaten: zein nequez dirubac dauzcanac santuco diran Jaungoicoaren Jreinubar! da esatia: zein nequez salbuco diran beren dirubetan espe-ranza ifiniric vizi diranac! eta, Aisqui dia, non da au? eta alabanco dogu, diño Espiritu Santubac: orgatic ere Jreinu santu oretaciac dira bildur aberastasun eguiñac enguiten, eta beren esubetara, eurracariaco egoera baganic, ifioiz vide zuretic badatoz, baquiaquetan deuste, eurracaz Zeruco Dodasun eternoac ekasteco, Jaungoicoac emun deusten videtzat;

eta alaz oneic nola beste guztiac Jesusen santu onetan, bacoitza bere Ofizioco eta Estadueo languetan enazue dan gana necaturic, vizi dira aberastasunacanaco batera eguin bagaric eta asiac eta betiac beren eguneroco jantziagaz, zegaz estaldu beren Anaiac, eta aguneroco Oguiagaz zuzu edo baltz, zegaz vizi, eta beren belarriac guztiz entzume ichiric eta gorputzic, bigarren Jesusenganac eguiten deusten, eguiandi baten azalagaz estaldu eac, esaera guzuntzat: jantzia modara eta jana gustora, zeñacaz ichuquetan dituben milluca, Mundu onetan aguiniac, eta beren bunu izitzinac izan gura dauben, ez ahal dan, batez ere beren puzunia ezaguturezin leiquen artan, nola zazian zu eta beste zenbat Ofiziocuac.

Eguiaz, Aitzquidia, esan eguidazu: zer Aberats batec ula guiza baten ucutu ezquero, gueldiquetan da Humildade eta Armonio santuben aldetic? zein bere ugaritasunaren erdian jesusen da, premina eguiazco eta oparretan auzquiquetan dizianen, aldetic? zein sartzen ez danic vizitza onetaco arrotasun mueta guztietan? Ha! David Jesuseque eta Profeta santubac esaten deuscu: aberastasunac ezuz badatoz, ez eguzube biotza aetan jasi: au eguiten dauben Aberatsac bada, beren biotzetaco Tesoro ac Zerubetaco Ondasun betiquetan itzinen ditubela, onec bacarric dira, eta ez beste Aberatsic, arrotu bagaric batere, eguiten dauberac Jesusen santu onetan, esan dodan, guztia.

Mundu zabal onen gañian vizi dirian Persona mueta guztiac ala Jesusen baten nola bestian daucain, bacoitzaren vizi modubari beguiraturic, ecusten dogu, best gauzatanaco izan oi diriala emengo aberastasunac: bata, zor eguinazcoai erantzuteco, zorren izenian aiquetan diriala aien Divina Magestadiac aguinquetan deuscun, gustaquizun eta entzat dezian guztiac, naiz diriala Justiziaco virtute santuac santubac, naiz Caridade santubaren aldeticnac, eta lenengo Jesusen santu onetan onetaraco bacarric izan oi dira aberastasunac eta ez beste gauzatzaraco; onetaraco, bacoitzac bere aldetic, batez ere Familietaco Burubac emen eguiten daube alaguiña, aimbat gueien izabaztaco videzuzenetic, aimbat zintzuen iragoteco, eta aimbat gueien aurraraquetaco gueldica gueldica; bada entzuten deutsai Espiritusan-

~ rubari esaten: ariñ eguiñicaco aberastasuna deseguin-
~ duco da; baña gueldica escubagaz batzen dana izango
~ da errimia: argatic esan deutsut Aisquidia: gueldica
~ gueldica: bigarrena, alperquerian vizi izateco: irugar-
~ rena; Jan eta edan galanquiro eguiteco: laugarrena, be-
ri Modaco Jantziacaz eta auñuaricaz bere Persona Fa-
milia eta Echia aldaben gueien apainduric eta edertu-
~ ric erabilteco: eta bost garrena, dirubac bata bestiaren
gañian toleztauric euquiteco, onei noizian bein beguira-
tu batzubec eguiteco, eta gueitubagaz eruateco, biotzic
ez daucala, andic zurico erre bat urtzeco ez bere oni-
an eta ez Lagun Progimuen onian, onela bere dirubac Ja-
ungoicotzat arturic opa ez deutsala ez bere burubari eta
ez besteri ordu on bat preminaric andienetan ere, eta ala
beti vizi dala, [redacted] Jaungoicoaren, bere burubaren,
eta Lagun Progimo guztien Etsai izugarri bat eguinic,
erdi biraquetan deutsala bere biotza aiei itzi biarrac,
eta, norentzat izango dirian, bera ez dan, demporan, ez Ja-
quitiac: aberastasunac daroien azquenengo lau vide one-
ic lenengo Erreinuban ezaguquetan dira dongatzat, eta,
izan oi dituben, beste vide donga guztien sustraitzat; eguia
da, Aisquidia; Erreinu onetaco Legue santubac ez deutsai
eragozten aberastasunen Jabiari nasaitasun gueiago erra-
kuazcoa ala bere soñian nola maian, baña bai larreguia; zer-
~ gatic larreguiac dacar arrotasuna, eta arrotasunac Jaun-
~ goicoaren Leguiari alde batera izteia, bigarren Erreinuban
ecusi oi dan leguez.

Erreinu santu onetan (eguia da) ez dago Jantzi erabagui-
ric, Araguiac estalquetaco, ez da ere Jan erabaguiric, vizi iza-
~ teco; Jantziac ere ez dau eguiten Personia; ala ere Jantziac
~ eta Janac gueien bat erantzuten deutsai Personiaren biot-
~ zari; eta Tiligero Jantziagaz dabillenagatic esan oi da, Ti-
~ liguerren buruba eta biotza daucala; eta, nola Jesus Di-
vinoaren Espirituba daucainac bacarric dirian Erreinu
santu onetacuac, oneic, Espiritu humilde oni beguiraturic
eta, Mundu onetan vizi zanian, eguin eta eracutsi zituban,
gauzai, Humildade santubaren azquenerutz esanic itzi
dodan leguez, neurtzen ditube beren vizi modubac ala

Jantzian, nola Janian eta beste gauza guztietan amorioz eta humildadez betericaco Jesus Divinuaren Espiritubagaz; eta ala ezin artu dau indarric beren biotzetan, bigarren Erreinu-cuac, Jantzia modara erabilteco, eta Jana gustora eguiteco, er-razue andiaren azalagaz estalduric emunic daucain, Leguiac: ¿eta nola izan diteque Erreinu santu onetan Legue onec indarric artzeia? entzuten deutsai beren Maiñu Jesus maitiari esaten be-re Evangelioan: ez eguizube ardura andiric euqui, esaten do-zubela; zer Jango dogu? ¿edo zer edango dogu? ¿edo zer Jan-tzico dogu? zergaitic Jaungoicoaren ezagupera bagueco Jenti-lac dabiltza gauza onein guztien billa: eta ondoren esaten de-ustela; zergaitic daucazube Jantziaren gañeco aimbeste ar-dura? entzuten deutsai, Mundu guztiari eguia eracustera, bialdu eben, bere Diszipulu Apostolu San Pablori esaten: euqui ezquero (Janariac), zegaz guere vizitza oñian euqui, eta (Jantziac), zegaz guere Araguiac estaldu, ez doeicaz asiac egon gaitian [redacted]: ez dau esaten Apostolu santubac: euqui ez-quero modaco Jantziac, zegaz Araguiac estaldu, edo zabaldu, eta Janariac gustora edo auquera guertatubac, zegaz vizi, za-tiac baño, oni ezarten deutsain, Baracatzac diru gueiago deroio-ela; baizican Janariac, zegaz vizi, eta Jantziac, zegaz Ara-guiac estaldu: gueiago; ecusten daube ere, Evangelio santu-ban esaten dan, Aberatsa, Legue oni Jarraituric, Infernura Juan zala, ¿nola bada Erreinu santu onetacuac poztu ditez-que, Jantzia modara eta Jana auquerara aguinquetan da-ben, Legue oni Jarraiquetara? batez ere ezaguturic, Legue oni Jarraiquetan deutsan Familia batec benetan, urtiaren erdira-co edo lenago urtzeen dabela, urte osoa batere dollorqueria bagaric iragoteco premina daben gara diru edo gueiago. norc asmau leique, Legue onec ondoren beragaz dacarren, zora-queriac eta ondamendiac? Ha!

Erreinu, bi oneitan ala lenenguan nola bigarrenian zabal-duric dabiltzen esaera batzubec eracusten deuscube, da-la Lapurra daucana baño gueiago gastaitan dabena (au ai-quitan da, vorondatez eta premina gogor eta eguiazco bagaric danian); zorua, daucan, guztia gastaitan dabena; eta, bacar-ric dala zintzua, daucana baño, guchiago gastaitan dabena: nola bada, Aisquidia, lenengo Erreinu santu onetaco guztiac dirian zintzuac eta eguiaz zintzuac, Echiac, Erriac, eta Errei-

~ nu osoac galtzera dacarren modaco Jantziaren eta gusto-
~ raco Janaren gañeco Legue madaricatu onen izen bacarra
~ entzutia ere iguiñ daube, eta, bai, Jaungoicoari eta Jaun-
goicoagan beren burubai eta Lagun Progimuai deusten
amorio eguiazcoaren subagaz beroturic, barre eguiten
deuste Legue onen Jarralla ichubai eta onein barriai, aren
Divina Magestadiac Mundu onetan ere sendaquetan de-
ustela beren Echiac eta betetan deustela milla bat bendi-
zinoz, eta azquenic Zeruco ondasun eternuac emuten
deustela, Legue onen Jarralla ichubac emen Hospitale-
ra duazen bitartian, eta ondoren Infernura, bardin pe-
nitenzia eguiazcoren bitartez zintzoturic lenengo Erreinu
santura iragoten ez badira.

Erreinu santu onetacuac ere (eguia da) ez dabiltza, Cho-
ri Malo Jantziric, orain iruregun edo lauregun urte ziriane-
co Jantzi muetacaz, eta orobat Jango daubena guertaque-
tan daube, beren Sabelac iguiñ izango ez daben moduban,
eta Janac on eguingo deusten moduban; baña, oneic Negar-
rezco Valle eta Destierro onetan eguiten dauben, Jantzi eta
Jan onetatic vide guztiz urrina dago, Legue onec beren Ja-
ralla ichubai eracusten deusten, Modaco Jantzira eta gusto-
raco Janera: lenengoac daucai, erraz aseetan dan, gogoa, eta
guichigaz iragoten dira; Legue onen Jarralla ichubac bar-
riz beñere aseetan ez dan goguagaz dabiltza, eta, Legui-
ac escaquetan deusten, aimbeste ezeberezqueriacaz on-
daquetan ditube beren Echiac, eta izate guztiac; zergatic
premina dituben ezeberezqueria oneic ascoz gorago billa-
quetan ditube ichu oneic, lenengo Erreinucoac darabilden,
Jantziraco eta ifinten dauben Mairaco premina dirian,
gauzac billaquetan dirian baño, onetan bertan ere ezaguque-
tan dogula, Neurtzalla bardiña eta arteza dan, Jaungoico
guztiz santubaren miragarrizco Providenzia; bada Ero
oneic, Pecatariacatic Espiritu Santubac esaten deuscun
~ leguez, emen ere lur Joric iragoten ditube beren atseca-
~ biac gauza aien videz, zeñen bitartez pecatu eguiten
~ dauben, batez ere dempora negargarrizco oneitan, zeñetan
~ gauzac zembat gorago aimbat amorru gueiago Legue oni
~ Jarraiquetaco; eta ala ecusten dogu gaurco egunian, Legue
onec indarra andia artubagaz doiala, galdu biarrian: guei-

ago; nola Legue onen Ymallac beren bigarren Jreinuban eracusten dauben vidia, andiac izateco, dan vizitzaco arrotasuna, eta, vide onen Jracustzallatzat ifinten dituben, Ichu aurreenac dizian Araguiaren eta Requien gogo lan-
~ egniac, ala aguirian dago, munduic sortuba dan Jantzia, no-
~ dana eta Juna gustora, aguinqueta au; baita ere, aguirian dago, ortaraco
~ beren Jazalle ichubai ezcaquetan deuzten, ezeberezqueriacaz ezeba-
~ rezian eiqui eraquiten deustela Jaungoicoaren Legue san-
~ ba; au da bada ondoren dacarren ondatu bian guztia: nola bada Jaunalla ichu oneic, beren Ichiac galdubagaz ostian, gal-duco ez dituba beren Animac, eta Juango ez dira Infernuta?

Onegaz guztiagaz ecusi izan dira lenengo Jreinu san-tu onetan santidade andico Persona guichi batzubec, Modi-azen eta gustoraco Jaunaren gañeco Legue oni Jazraitu deut-sainac; baña guichi, Aisquidia; eta oneic ere beren vozon-datecuac ez zirianac; eta, iguiñ eubela beren biotzetan Legue au, gordetan euben bere aguinduba, equitiazren, beren vo-zondatiac ucaturic, betez betezian pecatu ez zan, gauzan aien vozondatia, noren bendian vizi zirian, eta eragoztian-zen vide onetatic gaitz andiagoren batzubec; onelaeuentzat Legue onec batere puzuniric ez dauca, baizian vozondatez beren Jaunalla ichubac dirianentzat; zergatic Jreinu santu onetan batec, betez betezian pecatu ez dan, gauzan obedienzia ichuba ecarten deutsa bere Gurasoai eta Gurasoc ordeco guzti-ai, eta orobat, pecatu dan, gauzan ez daqui eraquetan ez Aitaric, ez Amaric, eta ez beste Gurasoc ordecoric, eta onein-sa-ric equiten ez daqui: modaco Jantziac, berez deuonestua ez bada, berazi otsian eta bacarrian beguiraturic, ez dizudi dacarrela pecaturic iguiñ daberentzat, eta, bacarric bere Va-gusiaren aguinduba equitiazren, daraabillenentzat; bere puzu-nia, eta, ondoren dacarren, guztia da, ori ala aguinquetan, da-utsaraentzat, eta bere Jaunalla ichubac vozondatez dizian beste guztientzat:

Legue au Jreinu santu onetan iguiñ bada ere, badira-n-dempora aguiri pusquiñ batzubec, zeñetan bere esana zer-bait equiten dan: Jesus Divinoac, guere Animacaz equiten daben, bere Desposorioa Jrangelio santuban guzi aiquetara emutiazren ifinten deuscu Jrenegue baten iduripena, zeñac bere Semiari escondu zanian eguin eutsan Jrtziac; eta diño,

Jaungue sartu zala, ecuitzera, Maian sauarritzat, egozenac, eta ecuri ebela [redacted], eguiala bat eguinasi erantzuten ez eutsan soñecuagaz Jantziric, eta auerraturic bota ebela maitic lotsari andiagaz: Judit Jmacurria guztiz abaratsa, Corputz alzitequian edezenecua, baña Animaco Virtutetan edezagua, eta guztiz santa zan; alarguntzuric eguan ia untetan, iñoc ecusten ez ebela esateco modura; ala ere, beti Pueblocoai Holofernes madarikatubac bere izugarrizco Jeguzituagaz eguin gura eutsan, gaitz icaragarriac eragozziarren, [redacted] zituban [redacted] joariic edezen guztiac, eta itziric alde batera arterañoco Jantziai, Jantzi zituban madaco soñecoric onenac, edertu eben eta apaindu eben alaben guztia, berez eucan, Corputz edezia, eta, onela aguerturic Holofernesen aurrera, ebagui eutsan buruba: eguiada; onexian dempora aguiriac noberaren vizitza guztian edo iñoiz guertaquetan ez dira, edo aiñ guichi, nola dan, Jan pauziari ezarten dan, Gatza, motelequiac urten ez daguian.

Legue madarikatu onen puzunia, eta beragaz ondoren dacarren, gaitia batere igarri baiguric eta beti gozotan edoten dana da; azgatic gazte gaztetatic Guizacume eta Jmacumen artian aimbeste Jazralla eguiten ditu; eta onelic ez daube ezaguquetan puzunia au, beren gañian dempozioaren dempora ecuri artian eguin deusten calte izugarriac; eta osala Jazralla guztiac Jausico balira ezagupera onetaco demporaz, emendau ditezen; ¿zergaitic uste dozubada, Aisquidia, lenengo Jaincuu santu onetaco Aguintariac, guztiai verbaz leguez, obraz ere nola vizi, eracusteco, langueia artzeen dauben, Directore, Abade, Religioso, Religiosoai ere, bai, eragotzi deustela Legue madarikatu au ala Janian, nola Jantzian, eta aguinduu deuste, ibiltzia Jantziric beti batere modo baguco soñeco itzaltzu batez gaz? ez da neque, oni erantzutia.

Bigarren Jaincuco aç, aiñ biotzecuac ditruben, baren diruboi beguizaturic, guztiac benetan gozoto euquibian leuquie Legue madarikatu oni; bada, Aisquidia, oraiñ zatoz zu Mundura esateco moduban; baña niri onaiñ burueo ulliac urdinquetan eta Jausten asita daucat; zuc baño baztar eta Jente gueiago ecuiric nago ez neure gurez, baizican nire Gurasuen CJaungoicoaren Glori-

anguerta ditezela) esana equitiarren; eta ez dot ecusi
oraindio (daquidala) diru ascoren Jabe dan, Personaric, arro
Jantziric dabillela, eta, bai, soñeco aguiriacaz arro Jantzi-
ric dabiltzenac ezagutu izan ditut Zurico erre bat baga-
ric, nun egon ditequian diruba, beti amesetan, eta zorrez
arrotasunez, eta vizioz betiac; onelacuen escubetan Jaus-
ten dirian dirubac, ugariac izanagatic, beti ecusi izan ditut Aur
dun, Aurra equiteco daguan, Emacume baten antzera;
~ Jaioten da Arrotasunaren izeneco Alaba; aziten da, eta,
andi danian, indarrac equinic, aserraquetan da bere
Amagaz, botaten dau Echetic, eta bera gueldiquetan
da Echeco Aguintari dirubac uñaturic; ¿ecusten da beste gauzaric, Aisqui-
dia? ¿Ama Alaba oneic beren artian aimbat onduen al-
car artu daguien, aleguin guztia eguin dauben Guizonic
Jaquintsubenac, iratzarrienac, eta Jocaeraric onenecu-
ac zer anchitu daubela, uste dozu? ecusiric, ezin eguin
daubela ezer, guelditu dira Zaragozaco Eche santuba-
ri beguira, eta artu daube araco vidia; au eta ez beste-
ric da, anchitu daubena: ¿eta ez besteric? Alaba bat edo bi-
baaarric euquiagatic, ezin Echetic etaratia bere demporan,
izten ditubela Yme zurtzac baño oquerrago, Izecocho equi-
nic, Santuben Imaginai Jantzi erontziac equiteco nai eta
nai ezeco donzellatasunian, Oñezcoric gura ez ditubela,
edo (obeto esatiarren) Oñezcuentzat prestu ez diriala, eta
Zaldizcoric ez daucaila; bai, Aisquidia, au ere anchique-
tan daube Legue madaricatu onen Jarrallac, euqui ascoren
Jabiac izanagatic, ecusi oi dan leguez: ¿eta zer guertatuco liza-
teque, Legue onec Necazari baten biotzian bein sustraiac ezar-
rico balitu? alperric izango lizateque Basaerri on bi, iru, edo
gueiagoren Jabia, bere andi naitusinian eta ezin izanian eta-
raco leuque bere burubagaz Pecatari andi bat, eta beragaz ba-
tera beste aimbeste Jaungoicoaren Etsai, zeinbat Yme dau-
can bere bendian.

Esango deustazu, Aisquidia, Necazaria zarian leguez:
~ Ha! Jauna; berez dator, bai, modaco Jantziaren eta gustora-
~ co Janaren gañeco Legue onec sustrairic ez ezartia Necaza-
~ ri baten biotzian, naiz dala derautsan lenengo Erreinu san-
~ tu onetacua, naiz bigarren Erreinucua; zergatic bere vizi biar-
~ rac eragozten deutsa modaraco Jantzia eta gustoraco Jana,

~gura izanagatic ere; eta aldaben moduban iragotiac emu-
~ten deutsa zer eguin: ondo diñozu, Aisquidia; baña ez
~da guertaquetan ala; Egerzito baten berreun edo irureun
~milla Guizonena izanagatic Jantzian da aguiri norzein
~Erregimentucua dan, norc zer Ofizio eta Aguinte daucan;
~¿gaurco egunian barriz, lenaz batec ezaguquetan ez ba-
~ditu, norc soñian ezagutu leique, Necazari arazo batzu-
~bec, ete dirian Necazariac, ete dirian Necazarien Semi-
~ac, ala Mercatari edo Andiquiren batenac? ¿Arazo one-
~rian batec [illegible] urten ezquero bere Jantzi aguiriagaz, ecus-
~ten da, Aisquidia, beste gauzaric Basaerrietan, Gazti-
~ac (ojala Familiaco Buruba ez baliz) baqueric ez emutia
~baño Echian, arterañoco Jantziac, beren Guraso, eta Guraso
~ordeco onen aguinduba eta eguin guztia ezertan ez dau-
~caila, eta, oneic naiz gura naiz ez, isillic edo aguirian era-
~guiten ditubela Arazo aren antzeco Jantziac edo ara-
~zoaguac? ¿batez ere baderitzo bere Personiari eta Basaer-
~riari beste Arazuenari duin aguiriac edo aguiriaguac,
~beti iritzi oi deusten leguez? ¿eta nora guaza, bardin be-
~ren Lagun putz Emallaren batzubec esaten badeuste, zu-
~lezco Mutil moduzco eta Maiorazgo aguiri batec agui-
~riago ibilli biar dau, zu zabiltzen baño? ¿au guztiau zer
~da, Aisquidia? eta ecusten dogu beste gauzaric? Ha! eta
~zein modu ederra, lenengo Erreinu santu onetacua izateco!
Erreinu santu onetaco Gazte guztiac bada, moduzcuac
eta Basaerri aguirietaco Maiorazgo aguiriac izana-
gatic, bildur dira, onerian gaiztaqueriac eta zoraque-
riaric eguiten; zergaitic entzuten deutsai Espiritu San-
~tubari esaten: Jaungoicoren bildur izan zaite; eta gor-
~de eguizu bere Mandamentubac; zergaitic onetaraco
~da Guizon guztia, eta Jaungoicoac ecarrico ditu Juiziora
~eguiten dirian gauza guztiac naiz onac naiz dongac, ba-
~coitzari bere irabazia emuteco: uste dot, Aisquidia,
onenbestegaz ezagutuco dozula, modaraco Jantziaren ga-
ñeco Legue onec ezarten badaquiala bere sustrai errimi-
ac Necazarien biotzetan ere; oraiñ zerbait esan daigun gus-
toraco Janaren gañian.

¿Noiz, eta zer Echeetan ecusten da, daucaina eta ez
daicaina urtzeia, eztarritic bera iragoten dirian, ez gauza-
caz, gaurco egunian eta Basaerrietan ecusten dan baño
~gueiago? ¿nun gaurco egunian Familia ondo erabilteco pre-

~miña dirian urte guztiraco Zezina eta Vrdai untso onen
~ordian ecusten dira aimbeste ez gauza eta gozo garri, nola
≈Basaerritan ecusten dirian? goizetan zerbait artuco badau-
≈be, Ychasuagaz andico aldetic etorri biar dauben milla-
≈ca legua videetan Azucar, Cacao, eta Canelagaz eguiten
≈dan ziquili macaliari beguira dagoza; egarri dirianian,
≈eta beren ondo ez guztietan, eta Campoco Jenteren bateri ar-
≈pegui emun biardan guztian ur pusquin bat edaten ez da-
≈quie Azucar pasta bagaric; eta au artzeiarren, zembait vi-
≈der egarri ez diriala egarriquetan dira? ¿nun aimbeste Ca-
~ja, Conserva, eta Vizcocho zeinda Basaerrietan? eta onein
~ondorengo Ardao on, Anisete, eta Aguardientezco Limetac Basaerrie-
~tan ecusten ez dira? zerbait aguiriac dirian Necazarien-
~tzat batez ere beren Emazte eta Echecoanreentzat, vizi iza-
~teco, utsac dira orain Basaerri on batec emuten deusten
~Esne, Arrautza, Ezti, Zezina, Vrdai, Gari, Arto, Baba, Gar-
~banzu, India baba, Ortu gauza, Gaztaña, eta bazterrac uga-
~ri emuten deusten beste frutu mueta guztiac eta Garauben
~irabaziac; oneic guztiac, beren izerdiaren frutu maitagarri-
~ac, urtiaren erdiraco edo leenago aguirian edo gueien bat
~isillic urtzen dira Chocolateruen eta Confiteruen Echee-
~tan, Fendetan, Fabernetan, Aguardiente eta Mistela Feguie-
~tan, beti aurraz epetan eta ascoz gorago darioela ez gauza
~oneic, guero beren Izerdiaren frutu miragarrizco oniecaz
≈erantzuteco, ¿baña zer preziotan? Ha! onela beren Familie-
~tan billaquetan ez da, zegaz beren Sabeletaco gosia ill, eta
~zegaz arretaz biarra eguin; au zer da, Aisquidia, gustora
~satia eta edatia baño? eta au ecusten ez dozu gaurco eguni-
~an Basaerriric ascotan? nola onela vizidirian Necazariac
~Zaldiz Juango ez dira Ospitalera eta ondoren Infernura, bate-
~re erruquiric ez daucaila beren Vmiacaz, Servitzariacaz,
~eta, premina gogorrian aurquiquetan dirian, Progimuacaz,
~diruba eruan garri eta bestetaraco ez dirian, ezeberezquerie-
~tan daucain, atseguintasun labur bategatic? onelaco Neca-
zariac bada Jarraitu biar deuste itziric vizi modu zatar
oni, ala Jantzian nola Janian, eta gauza guztietan, Erreinu santu lenengo onetan
vizi dirian, Necazariai; eta erdi Bazterregaz eta Haziendagaz
erabillico ditube ascoz obeto beren burubac, eta Familiac, eta
premiña eguiazcuetaraco aurreratuco daube ascoz gueiago.

Nafarruaco Erreinuban dago, Aisquidia, Roncal de-
ritzon, Valle bat; da laburra, emuten dituban, frutubetan,
Personac vizi izateco baño, Ganau lecu obiaguac dira Val-
le onetaco Erriac eta Bazterrac: emengo Gentiac daucai
Oial Fabrica batzubec, nun ioten dituben bertaco Ganauben
uliacaz Capuchinuen habitubaren coloreco Oial batzubec
~ baña arguiago edo sarsago ioac; eta daucai ifinita Leguia,
~ Abade, Religioso eta Religiosacaz ostiango beste guztiac ala
~ Guizacumiac nola Emacumiac ala Chiquinac nola Andiac
~ ala Pobriac nola Aberatsac santzi ditezela bacarric Oial
~ mueta onegaz eta ez bestegaz; eta aiñ gogorquiro gorde-
~ tan daube Legue au, zeinda, campotic Valle artara naiz
~ dala aldaeraz, naiz dala ezcontzaz duazen, guztiai gor-
~ de eraguiten deusten Legue au gura eta gura ez; eta beste-
~ la bialquetan daube etorri zan videtic, izanagatic ere Ema-
~ cume aberats, buru iritzoa, eta modara santziten oiturica-
~ co bat; ala vizi dira Jente oneic beti santzi modu bategaz,
~ eta beti modara. Ho! Legue miragarria! Jaungoicoac ba-
ño bestec ez daqui, zeiñ on andicua dan Animaco eta Mun-
duco ondasunetaraco: san edanen gañian, eguia da, ezdau-
cai Leguenic; baña au ere eguiten daube santziaren ant-
zera beren Ganauben frutubacaz, eta beren Lurrac emuten
deusten frutu laburracaz; ez duaza iñora beren san edane-
taraco, eta bai beren Ganaubac eta onein uliacaz eguiten di-
tuben Calzaerdi ugariac saltzera; campora diruric emuten
ez daube, eta bai errial ederric asco campotic dacarde; an
ardaoric gueien bat ecusten ezda Meza santuba esateco
ez bada; gañeruntzaco Ardao, Aguardiente, Mistela, Olio,
Azucar, Cacao, Canela, eta oneicaz eguiten dirian diru eruangar-
riric edo guztiz ezaguquetan ez dira, edo bacarric erreme-
dioetaraco, Botiquetaco gauzac duiñ, guichi; eta gauza mi-
ragarria dana, izanic Valle au aiñ laburra bere frutubetan,
guztiac gueien bat ondo vizi dira, batzubec ondasun andita-
cuac ere ecusten dira, eta, entzueria daucadanez, iñun Esque-
~ co guichiago ecusten ez dira Valle onetan baño; zer deritzo-
~ zu, Aisquidia, vizi modu oni? uste dot, erantzungo deusta-
~ zula: guztietatic onena: bada orain, Jesus maitiac erabagui
~ ez beeben ere vizi modu au bere Erreinu santu onetaraco, Valle
~ onetaco Gentiac gordeetan dauben estutasunian, saquin biar do-
~ zu, bere Erreinu santucuac dirian Familietaco Burubac, ba-

~coitzac bere Ofizio, Estadu, eta Familian Jarraiquetan deut-
~sailla Valle onetacuen antzeraco vizi modubari, eta onetara-
~co bacoitzac bere Familian ifinten ditubela aien antzeraco Le-
~guiac ala Jantziaren nola Jan Edanaren gañian, neurtzen ditu-
~bela beti gauza oneic eta beren vizi modu guztiac beren urteoro-
~co euquiacaz edo irabaztiacaz, eta, beren Familiai batere dollor-
~queriaric eracutsi bagaric, aurreraquetan daubela urteoro, al-
~dauben, guztia beren eta Lagun Prõgimuen premiña eguiazcue-
~taraco: bai, Aisquidia, au ala da.

~ Lenengo Erreinu santu onetaco Gazte guztiac, naiz moduz-
~cuac eta euqui anditacuen Vmiac, naiz bestelacuac vizi di-
~ra, pecatu ez dirian, gauza guztietan eseguiric ichu ichuban
~beren Gurasuen edo Guraso ordecuen vorondate eta aguindu-
~tic ala beren Jantzian eta Janian, nola beren ibillera guztietan
~gabaz eta egunaz, beñere beguiac (esaeria dan leguez) illundu
~bagaric; zergaitic laugarrengo Mandamentu santuban eza-
~guquetan dauben aien vorondatia eta aguinduba Jaungoico
~santubaren vorondatetzat, eta aguindutzat; baña, pecatu
~dan, gauzan ucaquetan ditube beren Gurasuac, Guraso orde-
~cuac, beren Emaztiac, oneic beren Esposoac, beren Vmiac, eta Se-
~nidiac, eta azquenic daucain beren Animac ere bai, beren Le-
~gue Emalla eta Eracustzalla Jesus maitiaren Diszipulubac
~eta Esanguillac izatiarren.

Erreinu santu onetaco guztiac, andienac izateco, artzen
dauben, vidia, da, beren burubac vorondatez eta amorioz chi-
quinquetia, beeraquetia, eta Aurcho bat duin Esanguillac iza-
tia, eta bestere Servitzari eguinic amorioz ibiltia; zergatic en-
tzuten deutsai Jesus maitiari bere Evangelio santuban esaten:
~zuben artian andiena eguitia gura daben, edozein izan bedizu-
~ben Servitzaria: baita ere entzuten deutsai esaten: eguiaz esa-
~ten deutsubet; bardin biurquetan ez bazarai eta eguiten ez
~bazarai Aurchuac, ez zarai santuco Zerubetaco Erreinuban;
~bada edozein beeraquetan dala Aurcho ori leguez (aurrian eu-
~can, au esaten ebenian) au da andiena Zerubetaco Erreinuban:
¿zer deritzozu orain, Aisquidia, Basaerri aguirietaco
Maiorazgo batzuben ibillerai ezcondu aurrian eta ondoren, puñica
puztu baten antzera Charri erria baño arruago aguerquetan
diriala? ¿oneic zeiñ Erreinucuac ete dirian? O Jala onelacuac ifini-
co balira Errota bateco Astozain edo (obeto esatiarren) Astuen

orde Errotaco zorro guztien eruan ecarria beren bizcarre-
tan eguiteco, ezagutu daguien beren ezebereztasuna, eta Jesus
santu eta humildiari sarraiquetaco eguiaz daucain premina
andia; guchiago lizateque au eta ascoz, Jaungoicoac eguin eu-
tsana baño Nabucodonosor Erreguiari, ecusi ebenian zoratu-
ric eta arroturic bere Erreguetasunagaz; bota eben Jentrartetic
basuetara eta mendietara, eta aetan erabilli eben zazpi urte-
tan Pistia mueta guztien artian lurreco bedarracaz vizi zala
Ydien eta Beien antzera, bere Corputz guztia ulez Ganauben
antzera santziric, eta bere biatzetaco Azascalac ere guztiz lu-
zaturic; eta ezagutu eraguinic onela bere escu guztiz podero-
sua biurtu eben bere Erreguetasunera: guchiago ere lizate-
que David Erregue eta Profetari eguin eutsana baño, ecusi
ebenian zerbait arroturic bere Erreinuban guerraraco eu-
can Gente indar izugarriagaz; bada bere escura itzi eut-
san iru gaitzetatic bat zein gura eben, guerra, gosia, edo
Yzurria, eta David guizasuac artu eben Yzurria, eta ala
bialdu eutsan Jaungoicuac: zer da bada onein aldian,
Errotan Asta zain, edo zorruen eruan ecarria bere biz-
carrian, Maiorazgo, Basaerritar arro bat, eguiten, ibiltia?

Nola aurreco aldiac egunoro Erreinu santu onetan
bigarrenian ere bai eracusten deuscun, ecusiac ecusi guria
eta entzunac entzun guria dacardela, Espiritu Santubac be-
rac ere eracusten deuscun egui santu au, esaten deuscuni-
an: Beguiac ez dira asperquetan ecustez ez da Belarriac
ere entzutez: lenengo Erreinu santu onetacuac, ezaguturic
egui santu oneic, eta bat ez dala biurquetan bere Echera
aiñ ona, zeinda urten eben, Guizonen artian ibiltera; bada
Guizonen artetic gueien bat biurquetan da Guizon guichiago
eguinic; iguiñ daube edo (obeto esatiarren) bildur dira, Erri-
ric Erri eta Munduric Mundu ibilten, eta beren Seme Ala-
bac bialquetan, Guizarteco barri icastera, Guizon andi urten
daguien, batez ere Necazari dirianac: eta ala Erreinu san-
tu onetacuac artzen dauben vidia, Guizarteco barri icas-
teco eta Guizon andi urteteco, da, beren burubac ezaguque-
tia, beren Confesorien oñetara eta Jesus Divinoa Comunio
santuban humildadez eta amorioz beteric errezivitara sar-
ritan suatia, sermoiac entzutia, eta Liburu santu batzu-
bec iracurtia, Gurasuen bendian vizi diriala, bacoitzac bere
Ofizioco langueiac ederquiro eguiten ditubela; ez, Aisquidia,

ain baño vide obiagoric ezaguquetan ez, Jreinu santu onetan, Guizarteco barri icausiric Guizon andi urteteco, bere Gurasoen aguindubac edo erraztue onen batec, beste videren batzu jarraiquetaco, preminan bat ifinten ez daben bitartian; baña ordubau ere jarraitu bian deutsa aldaben gaza beste vide santubatzu; beste moduz laztan etorrico da bat bigarren Jreinuccoa izatera; ¿zergaitic uste dozu, Aisquidia, zuze Aita naquisic, ainbeste baxter ecusiric bere demporan, ain ondo guze izitzian erantzun izan deuste, eta erantzuten deuste Jreinu santu onetacco legueiai, eta ain ederquiro jarraitu izan deutsa, eta gaur ere jarraiquetan deutsa bere Necazaritzaiari, zeinda erazoiagaz Jreinu santu onetaco beste Necazari guztiac artu daiquien beren Ispillutzat? ez eben beñere urten Jchetic bere gurgaz, baizican bere Gurasso eta Seride defuntuben esanac equitiarren, eta bere azquenengo ibilteric andiac, bere Seme biai laguntquetiarren, eroien, vidian, negarjez otzera biurtu ez zitezen: baña beren gurgaz, eta bacarric Guizarteco barri jaquitiarren, Jriric Jrai eta baxteric baxter dabiltzanac Ho! eta zein guchitan ontzeen diruac! gueienetan edo beti datoza Guizarteco gaiztaqueriac aldian ditubela Jchetic etara, euben ontasun pusquina ere gabiric; Jaun pilla batzu, Jabe, baparic daguan, bitartian batec beguiraquetan badeutsa, ez dau ecusten Lastra, Aotza, eta Buina baño besteric; onein artian beste gauzaric aguiri ez da; orobat bada, Guizarteco barri jaquitiarren, Jriric Jrai doiuac gueien bat edo beti ecusten dabena, da Guizarteco lastra, aotza, eta buina, Gal ale guichi edo batez, eguna gatic ere; eta ala dator Jchera Asto guztiz indartzu batean antzera jaro aldaiquian Guizarteco ezebezequerietaco eta guezurrezco jaquinduriaco lastor eta aotzez beteric, eta ascoz ezebezegago eguiric, Jchetic uste eben ain baño.

Eta bada Jaun! esango deustazu: gutacuen arteco camporra urtetia, Guizarteco barri zerbait icasteia, guaien bat izan oi da, Jcheraco izango dana bialquetia Jadal Jrai batera urte bizitzaco edo izuraco, icasi daguian Jrdera pusquin bat, Jaunai eta Abadiai: si Señor eta no Señor, arantzuteco dan gaza: Ho! nire Aisquidia! ¿eta zeiñ guichi beguiraquetan deutsazube zeuben eta zeuzoen Semen onazi! au zer da beste gauzaric, guezen Amen Sabeletic dacarquin Jusquazaxco izcuntia eder utsagaz Gente artian aguerquetaco daucagun lotsa eracutsi, eta, Jrdera gaizqui icasiagaz, zerbaitan-

do daquienai ederquiro barre eraquitia baño? eta oneta-
raco zembait caite ez datoza? nun da demporra oneta guz-
tian ibiltia Gaztiac Gurasuacanaco itzal santu bagaric, as-
can loturic dagozen, Ydi batzubec andic ascaturic ibilli ai di-
zian antzera, itzpic Necazaritza maitagarriari, eta equi-
tic, Jchuian izan ezin leiquian, Jaintzi, Jan, Jdan, eta gañeun-
tzaco Ybillera mueta guztiai? Jndera pusquin bat baño gua-
tago icastera ez bialdu cian zeuben Semiac, cuqui eta era-
billi eguzube zeuben Jchetan, zeurocanaco itzal santuba-
zen berdian, eta, guzco gorde biarco dauben, vizi modu san-
tuban; eta mola nai icasico deutsube: si señor eta no señor:
erantzuteco lain Jndera.

Lenengo Jrreinu santu onetan badira saldu erosi-
tic vizi dirian Personaren batzubec; ala ere Jrreinu oneta-
cnac bildua andiagaz beguiraquetan deutsai vizi modu
-ori; entzuten deutsai Jspiritu santubari esaten: Arri pilla
-baten erdian zuta ifinten dan Aga bat estuquetan dan ant-
-zera izango dala ere estutuba pecatuba saldu erosien
-erdian edo bitartian; badaquie ere, Jesus Divinoac, Jesu-
salengo Templo santutic bota zitubanian gauza labur bat-
-zuben saldu erosian billatu zitubanac, beren arpeguian
-emun euzten, pecatu andi bietatic bata zala lapurretia;
argatic bada deutsai ainbeste bildur saldu erosico vi-
zi modu ori; baña Ito! nipe Jaungoicua! vizi modu oni Jrrei-
-nu onetan Jarraiquetan deutsain, guztiac zein artezcac diti-
-an berez, preziu, nausi, pitin, eta saltzen dituben gauzen antzu-
-nian! zein leialac beren verbetan, eta artu emun guztietan!
-zein erruqui andicuac dirian preminan auzquiquetan diria-
-nacaz! eta azquenic zein zuzen bialquetan dituben be-
-ren izabaxte guztiac Destierro onetatic beren Zerubetaco
-Jrri santuza, nun ez, Lapurrac quenduco deusten, eta ez, Se-
-nac eta ez Ordezac galduco deusten, bildurric daucain; es-
cuic ez deustela, Lequeac erogozen dituben, eta vida bagaco, izabatiac!
Jrreinu santu onetan, Guizacumiac Jmacumiacaz ba-
tera eta nasi vizi gaza, bata bestia baque Mundu one-
tan ezin sozku guindezquian lequez, [illegible]; ala ere Jrreinu santu
-onetaco Guizacume guztiac Jmacume mueta guztiai, eta
-on bat emengo Jmacume guztiac Guizacume mueta gusti-
-ai daucai itzal santu eta guztiz andi bat, baña Jrreinu one-
-taco Legue eta aituera santubaren batere calte baque cua; eta
-ala, Legueac eta aituera santubac eracusten dauben [illegible]
-[illegible] ez daube gura Guizacumiac Jmacumi-
-acaz, ez da ere oneic Guizacumiacaz egon, eta ibilli, naiz bacu-
-zian, naiz Gente artian; bada batac bestiani deutsai bildur san-
-tu andi bat; eta, ñoiz premiñac ala escaturic, edo aituera san-

~tubac ala eracutsiric, bata bestiagaz egotia eta ibiltia gueita-
~quetan bada; ez daquie bata bestiagaz egoten eta ibilten, premiñi-
~ac escaquetan daben, demporan baño gueiago, eta bitarte orie-
~tan guztian ere, bacoitzac beren beguiac eta Anaquiac Jaungoi-
~coaganaco bildur santubagaz fariric, eguiten deutsai alcarri
~verba aimbat laburrenac, eta premiñazcuenac, oneic ere ez, hu-
~morе oneco Ama batec bere aurrian jolasen dabiltzan, eta maite
~dituban ume bico edo iruco Seme Alaba batzubei eguiten deuston,
~izcuntia bigunagaz, baizican, batac bestiari zor deutsain, dezal san-
~tutic sortzeen dan, izcuntia eguiazcuagaz, bacarrian izanagatic ere,
~eta ondoren diruza aimbat lautsuan bata bestiagandic, bacoitza
~etorri zan, bere videtic, Jaungoicoac eragotzinic dauzcan, gauzaroco
~usainic dan chiquinenic alcarri emun bagaric ezeutan, eta bai,
~alcarri esanic, eta equinic aren Divina Magestadiaren aguinduco
~eta zorondateco gauzac, eta, pitzat daramaten, moduban.

Zerbeinu santu onetaco guztiac benetan eta biotzetic da-
ube maite Proximo guztiocunaco erruquiia beren premi-
ña eguiazcuetan; eta ala daquie, batac bestiari estaloque-
tan bere premiñac, aimbat moduric onenian eta pozic be-
re daucanetic emuten deutsala, zegaz estaldu, baña beti
eta beti beretic, eta, bacoitzari beria emuteco aguinquetan
daben, Justizia santuco Institutiaren batere calte bague;
eta ala zor eguiazcuaren calte andian ez daquie exer-
emuten premiñan daguanari, artzeco duna aberatsa
izanagatic ere; emen aurrenengo da, bacoitzari beria,
emutia; eta ondorengua da, bere eguiaz daucanetic alda-
ben moduban eta pozic besteri bere premiñetan lagunque-
tia: emen, Aiuquidia, Justizia santu au aiñ estu gordetan
da, zeinda emengo Juez guztiac beren aurrian dabiltzen au-
zi guztietan ez daucai bacoitzari beria emutiaren gañian Po-
briacanaco batere erruquiric, ez da ere Aberatsen arpeguia-
ren batere itzalic; bacoitzari ichu ichuban emuten deutsai
beria, Aberatsa Aberatsago eta Pobria pobriago, edo Abera-
tsa Pobriaren lecuban, eta Pobria Aberatsaren lecuban quel-
diquetia premiña bada ere: gueiago, bardin, Jaungoicoac baño
bestec jaquin ezin daiquian moduban, besteren gauza batari
escuza etorrico ballaco, bera premiñan aurquitzagatic ere,
beriala duna Fabiaren billa; eta, jaquinic eta billaturic, emu-
ten deutsa bere gauza, sarric escatu bague: gueiago; bardin
batec emuten badeutsa besteri diruren batzubec, bere premi-
ña estaloquetaco, onembeste demporan barau edo aldabenian
atzera biurquetaco, verbia emunic, ez daqui bere demporan es-
caquetan zor dunari, emun eutsana baño gueiago, zor dunac
berac, diruba escaquetaco demporan, gueiago esquiniapatic ere,
eragazago emun eguian: bai, Aiuquidia; besteren gauza, Justizia
santu orien vide bagaric ucentu ezin leiquion, aiñ gauza santuba da.

~ Erreinu santu onetaco guztiac, Espiritu santubari ent-
~zunic, beguiraquetan deutsai beren esaera, ibillera, eta obra
guztietan beren izen edo fama onari; eta ala ez deutsai lecu-
ric emuten berez gaizqui dirudian gauzari, guichiago gaizquia
danari; baña beren esaera, ibillera, eta obra guztiac eguiten
ditube Jesus maitiaren izenian eta bere vorondate santuba
eguiteco asmo utsagaz, eta arnasa uts bat emuten ez daquie
beren izen ona, eta besteren iritzi ona, eta alabanza irabaztiar-
ren; zergatic badaquie, Jesus maitiac onelacuai erantzungo
~deustela: artu zeuben Munduban zeuben obra onen saria: sa-
ri au da, Mundutarrac beren gauza guztietan billaquetan da-
uben izen andico queia; argatic emen quee madaricatu oni
igues eguitiarren beren obra on guztiac eguiten ditube al
dan ezcutubenian, egunen erdian eta Erri guztiaren aurrian eguin
biar dirianac ere, beti beren biotzetaco asmua zuzen eta
artez ezcutaitan daubela Jesus maitiarentzat bacarric;
orregatic ere, Necazari onac, Fardelac garia jango deusten,
bildurrez ereitiari izten ez deutsan leguez, orobat Erreinu
santu onetacuac iguesi dabiltzen, alabanzaiaren bildurrez
~ez deutsai izten al dituben obra on guztiac eguitiari, eta one-
~la beren obra onacaz argui eguitiari Progimuai, ecusiric, beren
~obra onac alabau daquien, ez beren Eguillac, baizican Zeru-
~betan daguan, Eguilla onein Aita Jaungoicoa, eta beren alde-
tic iñorc icasi ez daguian aren Divina Magestadia amaitaco
~baño beste videric: bai, Aisquidia, emen gura da biotz ona eta
~ezcutucoa bacarric Jaungoicoarentzat, eta izen edo fama ona
~Progimuentzat, baña Jaungoicoagan eta Jaungoicoagatic ba-
~carric.

~ Espiritu Santubac esaten deuste Erreinu onetacuai: ez
~eguizu alabau Guizona, vizi dan, bitartian: eta ala eguiten da-
ube, beren biotzetan sortu ez dequien labanqueriaco vizio
madaricatuba, eta alabaitan dan Guizonaren biotzian, gogo-
co larria bateri emuten deutsan, Arrotasuna; bacarric bada
daquie alabaitan, beraganaco Caridade eguiazcuac artan
ifinten ditubanian, nola dan, Miñ dongac, bere fama edo izen
ona ostico pera bota guraric, ecusten ditubenian; eta orobat
informeren bat escaquetan danian; baña emen, ona leguez, da-
quien, gauza donga eguiazcua daquie esaten, eguiaren es-
que dan Personiac, ez Jaquiñetic etorri aldequion, caltiac era-
gozteco, dan gara, eta ez gueiago: ez Aisquidia; Erreinu onetan
ez dira ezaguquetan Labaña zorrotzaren antzeco Miñ dongaric, ez da
ere Jabuez betericaco Miñ labanic; Miñ zorrotzac Labañia-
ren antzera ebaten badeutsa bateri bere izen edo fama ona,
~esaten deutsa San Francisco Salesec, ez daguiala galdu be-
~re biotzeco baquia; zergaitic fama izan oi dan buruco uliaren
~antzecua; sustrai errimia badauca uliac buruban, zeimbat
~ondoragotic ebaten daben Labañiac, aimbat erruzago urten oi
~dau berriro, orobat izen edo fama onac bardin norberaren vi-
~zitza onian sustrai errimiac ezarriric badauca; eta ala bestec

batari fama quentzen deutsanian, fama galdu dabena isillic eta baquian gueldiquetan daqui, eta leen baño izen obiagaz dempora guichi barru egotera datoz: beste aimbeste Santu glorioso oriac beronec alabauba dan Personiari esaten deutsa: egon dedilla isillic, bere burubagatic esan baganic ez gauza oric eta ez dongaric; onela onduen botaco dabela bezagandic Arrotasuneco aizia, eta gordeco dabela alabanzaren aurrian, aiñ premiña andicia daben, bere biotzeco humildade eguiazcua: eta ala eguiten dau alabauba danac: araiñ, Aisquidia, oneic onela izanic, zer deritzezu puñica puztu baten antzera beren biotzac Arrotasunaren aizi agaz puzturic dabilden Persona asconi, vizi diziala aldituben alabanzac anchiquetan, eta onegaz ostian baren burubac alabaitan? eredizian Bazaerritarren artian onerian Gaztaña arroric, beren exeberezqueriac eta notzac dañuetaraño jauso ezinic, ibilli oi dizianic? eta oneicaz zerecusi oi da, Mugumuratzallaren batec azpian antzen baditu? ez bestenic, Aisquidia, puñica puztu bat batec aiñ azpian antzen dabenian, ecusi oi dana baño.

Jesus maitia ez zan ibilli Guizonen aldetico alabanzaren billa, bacoitzari, zer entzun gura eben, ala esaten eutsala, eta bacoitzaren voronda teco aiziari jarraiquetan eutsala, ez onelacoric; baizican, guztien Serbitzari humilde bat eguinic, eguin eben, eta guztiai zuzen eta ontez eracutsi eusten bere Aita Jaungoicoaren voronda te, santuba, eta onegatic asculen gorotzan jausi zan (au da) asco bera ri gorroto izatera etorri zan: onobat bada, Aisquidia, bere Jesusen santuco guztiac ezaguquetan daube, zoraqueria andico eta ezin diteguian gauza dala, guztiac ondo deritzuen moduban vizi izatia, esatia eta eguitia; ezaguquetan daube ere David Profeta santuban ere eracutsiric, Jaungoicoac daseguinduco ditubala, Murdutzaren voronda tera onela vizi diziaren, ezurrac; ertzuten deutsai nian Guizonen voronda tera vizi bearrizten ez ziratequie izango Christoren Esclabuac daucai ere Elizaco Doctore saquintsuban Gerogoinogaz batera onerian guztiac beren Etsai bipun, baña zan, ez dabiltza Guizonen aldetico ondo ibiltzi, izen on, eder famaren billa, bacoitzari, nola ertzun gura daben, ala esaten deutsala, eta, beragaz ere ez galtzeiaren, bere voronda teco aize muetan guztiai amen, etagi Señor esanagaz, jarraiquetan deutsela; ez daquie, ez Aisquidia, onelaco gauzaric; baizican, ostenic Jaungoicoaren voronda te santuba beren pensamentu, esuba, eta obra guztietaraco neurri ezinetzat, vizi diza Jaungoicoaren eta Jaungoicoagatic beren Prochimo guztien Serbitzari aldituriquian humildiac eguinic, ez berencoiac, baizican beraren esa-

nera eta vorondatera amorioz erraz Jausten daquienac, Ja-
~ ungoicuac ontzat daroian gauzetan, eta moduban, batac bes-
~ tiari eguiten deustela aldauben on guztia, norc berac bere-
~ tzat guraco leuquian leguez; onela vizi diriala, ez deutsai
batere beguiraquetan Guizonen ondo edo gaizqui iritziari,
eta bai bacarric aren Divina Magestadienari.

~ Azquenic lenengo Erreinu santu onetaco Jaquinduria
≈ guztia da, eguia, dan leguez, ezaguquetia, amaitia, eta Jaz-
≈ raiquetia: iñoren gauzaric ez deseaitia, baizican berac dau-
≈ canetic premiñan daguanari biur une bagaric ere emutia,
≈ Etsaia bada ere premiñan daguana: gaitzari onagaz eran-
≈ tzutia, gorrotuari amorioagaz, maldizinuari bendizinoa-
≈ gaz, eta Gaitz Eguilla eta Maldizino guilla oneicatic Jaungoi-
≈ coari erregutubagaz, biotzetic parcaturic onei: biotz gogorra-
≈ ri biotz bigunagaz, eta berba gogorrai verba bigunacaz
≈ erantzutia: baque iguiñecuacaz baquiosua, eta Arruacaz
≈ eguiaz humildia izatia; eta au guztiau emen eguiten, doube voron-
≈ datez eta biotzetic, eta ez nai eta nai ezian, besteric ezin dau-
≈ belaco, bigarren Erreinocuen artian guertatu oi dan leguez:
≈ onela bada vizi dira Erreinu santu onetacuac (San Pablo Apos-
≈ tolubac esaten daben leguez) bigarren Erreinucuen iritzian
≈ ezer ez balequien modura, burutic Jausiric dagozen batzu-
≈ ben modura, Jaungoicoaren aurrian izatiarren eguiaz Jaquin-
≈ tsubac.

Erreinu santu onetacuac izanagatic, eguiaz ez daquie
zeiñ Erreinutacuac dirian, zembat dempora daucain Zeru-
co profesa santuba eguiteco, ez da ere dempora santu artan
~ zein Erreinutan aguertuco dirian; eta, bai, badaquie, Jesus
~ maitiac bere Evangelio santuban eracutsiric, ascoz guichia-
~ go diriala Erreinu santu onetacuac bigarren Erreinucuac
~ baño, lenengocuan asco badira ere, argatic beren vizi guzti-
an dabiltza bildur santu andi bategaz, itzi bagaric Orazino-
~ co eta Humildadeco arma santubai, eta orain, dempora dau-
~ cain bitarte guztian, Caridade santutic sortzen dirian, al-
~ dituben obra on mueta guztiac eguitiari, gaiztaqueria mue-
~ ta guztiai alde batera itziric; zergatic Fede santuco gauza
~ erabaguitzat daucai Erreinu santu onetaco guztiac, siniste
~ eguiazcua edo Fede santuba obra on bagaric illa daguala gue-
~ re Animetan; emen iñorc ez dauca Miñian gauza bat, eta biotzi-
an beste bat, ez da verba ederren ondorengo obra zatarric; ez da
entzuten ere guezurrezco baquiaren amoriozco guizur estal-
~ guilla madaricaturic: emen beti atzera eraguiten deuste begui-
~ en eta Araguien gura larreguiari, eta vizitzaco Arrotasunari,
~ eta oneitatic sortzen dirian, beste vizio mueta guztiai: eta Erre-
~ inu onetaco edertasun guztia da barrucua (au da) biotzeta-
~ co ontasuna: onela Jesus maitiaren Erreinu au, emen vizi dala, ez
~ da Mundu onetacua: guazen orain bigarren Erreinura.

Bigarren Jreinu au da beste betezian Mundubaren izenaigaz aiquetan dogun gueré Ariimetaco bigarren Jesaia; aucaz andiago eta zabalago da, lenengo Jreinu santuba baño, au andia eta zabala bada are: bigarren Jreinu au da, zeña aiquetara emuten deuscun San Juan Jvangelistac, esaten deuscunian: eta Mundubac ez eban ezagutu Jaungoicoaren Semia Guizon eguinic: Jreinu au bada Mundubat vizi da, eta guztia Mundu onetacua da; bot, izanagatic Jesus Amac Santuaren Miembroa, eta lenengo Jreinu santuco siniste eguiazcua daucana, bardin obraacaz ucaquetan badau, guztia da, eta bigarren Jreinu onetacua, vizi dan bitartian penitenzia eguiazcuagan bitartez iragobaditeque ere lenengoza; eta orobat diñot Jesus santatic carrpona vizi dirian guztiacatic, iragoditezquiala lenengoa, eguiaz sinisturic Jesus maitiagan, eta ordoren, premiña dirian guztiac eguinic.

Jesus maitiac bere egunetan, bigarren Jreinu onetacuac zirian, Judegu batzubei esan ciusten: zubec Aita Diabruba gandic zarai, eta zeuben Aitaren gurac eguin gura dituzube: beraz, Aisquidia, Jreinu onetaco Aita, Jreque eta Maiñuba da Diabruba; au onela Jaguin ezquero, aquirien dago Mundubaren etsaitasun guztia: Munducuac bada beren Aita Diabrubac eracutsiric beguiraquetan deutsai Mundu oni beren vizi lecu, Jreri, eta Zinddetzat eta ez Destierrotzat, beren ohtzeguintasuneco eta zorionecotasuneco Joquitzat eta ez Negarrezco Vallatzat; onetaracuac ere dira beren Aita eta Jreque Diabrubac emuric daucan, bacoitzaren gogoco Leguiac; emen bacoitzac daucan, Leguia da bere gogoa; aiqatic Mundu onec ucaquetan dau lenengo Jreinu santuco Jaquinduria guztia, eta dauca anguen vizi modu guztia, asmau alditequian, zoraqueriatic andienentzat: Mundu onetan billaquetan dan edo daguan guztia, esaten deuscun San Juan Jvangelista eta Apostolubac, dala Araquiaren gura donguia, Beguien gura donguia, eta vizitzaco Aprobetasuna: ipui gauza oneic dira bada, mundic sortzen dirian beste gaiztaqueria mueta guztiac; Mundu onetaçuac bertere bildur bagaric emuten dira edozein ziquiñi macaiacoaldu erosiari, aimbat laztasren aberasquetiaren; zergatic uste dauben, zorionecua dala Chinchinac daucana, ez daguala Chinchinac lequezco Noblezia ric, onei eta oneic daucanai guztiac Agur eguiten deustela, eta Chapela eraxten deustela, eta, egonari bego deritzo esanagaz, ez daquie errial bat iñori emuten, atzera berte bigaz edo irugaz biurtu dan modubaño; emen ez da gueiago esquetan, zergatic ezin dan; amen dujuria mereta guztiac; eta, verbaten baten esatiaren, zazpi pecatu Capitalac emen vizi dira indaz andian, baita ere modaraco Jantzi aren eta gustoraco Janaren gañeco Legue indaztuba emenzea da.

Diabrubac bada Munduco oneracoaz lenengo Jesucristo santucoai eguiten deustena da, Jesusen iratzaiii eta eragotec Paza Jso ichu batecoaz eguiten deustena. Nagusi gogorracen iguesi altzaco diracen, Jesusi, jiraten dau Jso ichuba, iraago lecuba daucain lecuco, Arbola adar baten; eta bera javaraten da Arbolaren azpian ezcutuban; eta, Jso ichubari dagozala adbeni punta batetic, icara bat ede berce eraquiten deutsa, Jso altzac dagozela ecusten ditubanian; au ecusiric beste Jesusec, etziten dira guztiac beren Laguntasun ichubaren inguruban; eta ardubaii Jesusiac bere tiruna eguinic Jso pillara, illten ditu asco; au berau, eta ez quichiago da Diabrubas Munduban ichubacaz lenengo Jesucristoai eguiten deustenagoraiii, Aisquidia, daucazu demporia, erabaguteco, zeinsi Jesucristoa izan guna dozun; ustedot erabaguico dozula, lenengo Jesucristo santucua izatia; benetan eta biotzetic bada erabagui eguiteu, zergatic, ez autzaurric, ezaguqueran dozula Jaungoicoa, obracaz ucaqueran badozu, guizontia zarrala, esaten deustu San Pablo Apostoluboc.

Oneracoaco aitu eguiozu San Juan Apostolu eta Evangelistari, nola esaten deustun: ez eguizube deseau Munduba, eta, Munduban dagozen, gauzoc; zergatic Munduban dagoan guztia da Anaguiaren guna dongua, beguien guna dongua, eta vizitzaco Arrotasuna: eritzun eguiozu ere San Pablo Apostoluboai, nola esaten deustun: ez eguizube jarraitu (zeuben aitunera eta vizi Munduban) Mundu onu: eta, beren aitunetan ezagutu guna badituzu, zeintzubec diraen Mundutar oneic, aitu eguiozu San Pablori berari: izango dira (diño) beren buruban arnatzatzalliac, codiziosiac, jaquiac, sovewiosac, blasfemiac, Gurasoiçanaco obedienzia baguecoac, esquer baguetiac, gaiztoac, erruqui baguecoac, baque baguecoac, alaerzac, lujuriosiac, biotz gogorrecoac, biguntasun bagacoac, Bagimuen Saltzallac, letsa bagatuac, arroac, eta atseguintasunen Arnatzalle gueiago diraiiac Jaungoicoaren baño, eguiaz ontasunaren iduripena daucaiiac, baña bere izatia ucaqueran daubenac: gues eguizu oneicandic: esan bere Discipulu San Timoteo Obispoari: aitunera oneic eracoc eta vizitasun gueiagogoaz aiqueran emuten deuscu Espiritu Santubac Mundutar ichu onein aotic: eraguntzric bada ichu oneic, beren vizitzaco dampora labuna eta gogoicarria dala, esaten daube, baiter illgo gara, jan eta edan daigun, bete gaitzan Adao onez, lujuriagoz, eta atseguintasun mueta guztizacoz; au da, gue Mundu oneratic etorra daiqueguna; ez daucu iñor beste Mundutic biraqueran danic: guera Justizia guztia izan bitez guere gogoac eta indarrac; ez deijun parcatu Pobrioai, Imaculado alaguneari, Justo edo inozente danari, ez deiogun ere batere itzallic ecarri beren biruboc zuritunic dau-

~ zuin Aguza zarrau: oneic eta onein antzeco beste esaerauc
asco aiquetara emuten deusca Espiritu Santubac Mundu-
tar jchu onein aotic: onelacuen urgurutic bada, Aisquidia, be-
ti iques, eguizu, beren oituretaco tiuacaz Diabrubac Anima-
co vizitza quendu ex deguizun; eta bigarren bere Jreinu
~ maidaricatu onetara irago ez zaitian; bat- beti guelditu oi
~ da, bera azpiraquetan daben aren bendian bere Jesclavo eta Ser-
~ vitzari eguinic: ecusi eguizu esaten dautsudan guztia Libru onen
laraguitic Jreinu maidaricatu onetan andiena izan oi da Alca-
be, andien gogorrena, eta gogorren indarric gueien daucana;
Asia ere meienetic aten oi da, Jrazoia eta Justizia gueien
bat Aberatsen aldetic daguala: emen arnasu uts bat ere
ez da iñori emuten duan: emen dira berba ederrac eta obra
dongac, Miña batera eta biotza bestera, batac bestiari urric
emuten ez deutsaila: ala ere, Aisquidia, nola daucain, bere-
go Jreinu santuenac leguez, Jrazoiaren arquitasuna, ezagu-
quetaco, zer dan eguia, eta zer dan ona, baita ere Jaranda-
tia, on ezagutubaz Jarraiquetaco, ez dira dongac eta pera-
tubac, oneic eguiten dituben, gauza guztiac; badaquie, bai,
eguiten obra on batzubec ere, baña Zerico gloria traba ezteco
duiñ ez direnac; zergatic Jreinu onetaco gueienac dira Fe-
de santu bagacuac, eta guztiac Caridade santu bagacuac, eta
gauza jaquiña da, Caridade santuba dala gure Animetaco
vizitzaiaren eta guere obra on guztien Animea eta vizitza.

~ Jmengo edertasun guztia da azaleccua, camposua, eta
~ beguiacaz ecusten dona, batere ez bazuecua, eta biotzetaua,
~ eta olan, azaloc usain gozoz beteric, eta beren biotzac darabil-
~ dela atsoguiac eta ziquiñaguiac, beren Jstiac utziquetaco, Jo-
~ quiac egon oi direnan baño, ifinten daube beren zorionecotasun
~ guztia, aguiai dirian gauzetan; ecusten baditube Nazino ba-
~ teco Semiac beren gauzetasunian gordinic jan leizequian modu-
~ cuac, Arbola dandara guztiz eder batzuben antzera; beren
~ Alabac guztiz ederric, eta apaindubac Temple eder baten an-
~ tzera; beren Jchiac goian beian betiac, atsegiñ emuteco gau-
~ za mueta guztiacaz, bacoitza bere toquietan, eta batac besti-
~ ari ederquiro erantzuten deutsaila; beren Ardiac eta Beiac
~ guztiz guizenac, eta beti arnari eta ugradun, beren Zindade
~ eta Jrietaco plaza eta calecan diadar bat entzuten ez dala,
~ giñ baquiarenac guztiac; beren vidiac eta Ormac jauzten ez di-
~ zian modubar guztiz erime eguiñac; aua bezian esaten dau-
~ be, dala zorionecua, antzasun oneic guztiac daucan Nazino
~ au; baña guzurtaitan ditu Dauid Jrregue eta Profeta santu-
~ bac, erantzuten deutsenian Mundutar jchu onei: zorionecua
~ da Nazinua, zeñaren Jabia dan bere Jaungoicoa: eguia da,

~Aisquidia, ichu oneic, oraiñ vorondatez ichudirian oneic, ecu-
~si daguienian, aimbeste amaitan dituben, Criatura oneic
~guztiac, Egerzito izugarri baten antzera armauric, Jagui-
~ten diriala, eta, Jaungoicoaren aldetic ifiniric, eurac beren
~artetic eta Mundu onetatic botaten ditubela, eta beren In-
~fornuetaco Sueternuetan sarturic, ecusten ditubenian, lenengo Erreinu san-
~tuco guztiac Zeruco glorian sartzen diriala, orduban eguiaz eta
~nai eta nai ez zintzotuco dira, eta ezaguturic beren uts
~eguitiac autortuco daube; eta esango daube: beraz gu ga-
~ra uts eguin dogunoc: bai, Aisquidia, au ondo irabaziric
~euquico daube; bada orain burla eta barre baño besteric
~eguiten ez deuste lenengo Erreinu santuco guztiai.

Araguia

Araguia da gure Animen irugarren Etsaia Diabru-
baren eta Mundubaren Senide ondo artuba, gu galtzeco, ba-
ña beste biac baño ascoz indartsubagua eta dongagua; zerga-
itic beste biac campotic dabiltza, eta euracandic igues
eguin daiquegu; Araguia barriz gugaz dabil, vizi garian
bitarte guztian, guere Eche barruco Lapurra da, eta, ill ar-
tian, ezin igues eguin daiquegu onegandic.

Araguia, guere Corputza dan leguez, da berez gau-
za ona, guere Animen Lagun leiala, eta Jaungoicoagan amo-
rio santu bat zor deutsaguna; eta ala, Christaunac, gorroto
deutsala, bere Araguiari eguiten badeutsa Jaquiñian eta
vorondatez calte andiren bat, eguiten dau pecatu guztizan-
dia; bai, Aisquidia, au ala da: itanduco deustazu orain; zer-
tan dago bada, Jauna, Araguia izatia bere Animiaren aiñ
Etsai gogorra? esango deutsut, zertan daguan.

Corputza edo Araguia eguiña da Animiaren bendian
egoteco, Animia Errazoiaren bendian, eta Errazoioa, oni Jarrai-
quetan deutsan Vorondatiagaz batera, Jaungoicoaren grazia-
ren bendian egoteco; onela vizi zirian Paraisuan gure lenen-
go Gurasuac, pecatu eguin baño lenago; baña, esanic dauca-
dan desobedienziaco pecatu mortalian Jausi zirian instante-
tic, Guizon guztia Corputzian eta Animan guichitu, eta zatar-
tu zan, ecusten ditugun, gaitz mueta guztiacaz; oneitatic bat
izan zan, Araguia berialatic Jaguiten asitia, bere Animiari,
zor deutsan, obedienzia ucatu guraric; eta andic ona ala da-
bil, ibillico ere bai Mundubaren azqueneraño Araguiau;
zergaitic oien pecatu mortala, beren Jatorrietan Origina-
la esaten deutsagun, au bere erru mueta donga guztiacaz
guztioc dacargu guere Amen Sabeletic Jaioqueraz; emendic
dator Araguia izatia gure Animen Etsaia; eta pecatu original
au bere pena eternuagaz batera parcatu agatic ere Sacramen-

tu santu Bautismocuan, beste bere erru dongac (au da) Mundu onetan iragoten ditugun naibaguetasun mueta guztiac oñian gueldiquetan dira, Jaungoicoaren grazia-gaz Jesus maitiaren bitartez deseguindubac izan artera-ño norberaren vizitzan, eriotzan, eta Araguiaren resur-reccinuan; eta ala, oneitatic bat dan, Araguiaren jaguita-sun au oñian gueldiquetan da; bai, Aisquidia; au Eliza Santan Fede santuco gauza erabaguia da.

San Pablo Apostolubac, batiaturic, eta Apostolu eguinic, ondo ezaguquetan eben Araguiaren jaguitasun au, Erro-macuai, bialdu eusten, carta sagraduban esan eustenian: billaquetan dot nire Miembroetan beste Legue bat nire Animaco Leguiari atzera eraguiten deutsana: Miembro-etaco edo Araguiaren Legue au (Apostolu santu onec bero-nec esaten deuscun leguez) da pecatuco Leguia, eta peca-tubaren Leguia (edo erruba) da eriotza seculacua: emen-dic sortzen da berac esaten deuscuna, Araguiac edo gue-re Corputzac gura izatia, Animiac iguiñ dituban, gauzac, eta Animiac gura izatia Corputzaren iguiñeco gauzac: bai, Aisquidia; oneic ere Fede santuco egui erabaguiac dira; au da, bada guere Animiaren eta Araguiaren arteco guerra, Lurraren gañian vizi garian, bitarte guztian.

Guerra onetan ondo urteteco vidia jaquin gura badozu, Aisquidia, entzun eguiozu Apostolu oni beroni esaten de-uscunian: Anaiac, zor dunac gara ez Araguiari, Aragui-ac gura daben modura vizi izateco; zergaitic, Araguiaren gurara vizi bazarai, illgo zarai; baña, bardin Animiagaz sacaquetan badituzube Araguiaren obrac (edo gura dongac) vizico zarai; zergaitic Jaungoicoaren vorondatera zuzen dabiltzenac, oneic dira Jaungoicoaren Semiac: guere Ani-maco vorondate onagaz bada beti atzera eraguin biar de-ustegu Araguiaren gura zatar guztiai, Zeruco glorian santu-co bagara; beste moduz, bardin gure Animiac, Jaungoicoa-ren vorondate santubari alde batera itziric, jausi gura ba-dau, bere Esclava eta Servitzari dan eta izan biar daben, Araguiaren gura madaricatubac eguitera, gueldiquetan dala Araguiaren Servitzari eguiñic, izan biarrian bere Aguin-tari santubat, illgo gara (au da) Ynfernura juan gara, Anima eta Corputz, lenengo Animia Corputzetic urteten dabenian, eta Juizio generaletic aurrera Animiagaz batera Corputza ere bai: au guztiau ere Fede santuco egui erabaguia da.

Araguiaren gura donga oneic ondo sacaquetaco Animaco gura santubacaz jarraitu biar deutsa guere Vorondatiac Errazoiaren arguitasunari, guere Entendimentuco Errazo-

iac Fede santubaren arguitasunari, eta onela, guere
~ Animac dagozela, Jaungoicoac bere Seme Jesu Christo-
~ ren bitartez esquinten deuscun, grazia santubaren ben-
dian, atzera eraguin biar deustegu guere Vorondate-
co gura santubacaz Araguiaren gura zatarrai: bai,
Aisquidia; au da vidia, eta ez dago besteric, Araguiaren
gura donga oneitatic ondo, eta irabazte andiacaz urtete-
co; egui au ondo ezaguquetan eben Apostolu San Pabloc, itan-
~ duric bere burubagatic; norc etaraco nau eriotza oneta-
~ co Corputzetic? erantzun ebenian: Jaungoicoaren grazi-
~ ac Jesu Christoren bitartez: baña Fede santuco eguiaere
da, norc berac bere Vorondateco guran daucala, Jaun-
goicoac guztioi esquinten deuscun, grazia santu oni be-
re biotzian lacu emun, berari jarraitu, beragaz Aragui-
aren gura zatarrac sacatu, eta ondo vizi; edo alde batera
itzi grazia santu oni, berari jaregui, Araguiaren gurai
jarraitu, eta gaizqui vizi; onela dauca Guizonac bere escu-
ban, gura badau, ondo vizi eta salvau; eta salvauco da, nor
berac, [redacted] bere aldetic dana, eguiten daben, guztia.

Araguiac guien eguiten dabena eta eguin daiquia-
na, da, Animiari bere gura zatarrac aurrian ifintia; baña
au guztiau ez da pecatu, baizican pecatutic sortuba eta pe-
catura eruan gura gaitubana; eta ezin daique gueiago; onen bes-
tegaz gueldiquetan da, eta Jaungoicoaren bildur santuban
vizi dan Christaunari zabalquetan deutsa vide guztiz na-
saia, Zeruco gloriaraco irabazte ugariac anchiquetaco;
bada, Araguia jagui bazan ere, obedienzia Animiari uca-
tu guraric, ez eben urten guztiz bere obedienziatic; bere ben-
dian vizi da, eta, bere aguinduba eguiteco, dago; eta ala da-
qui eguiten bere Animaco Vorondate erabaguiaren aguin-
dubac; eta Animiaren languei santu mueta guztia da, be-
ra daguala Jaungoicoaren grazia santubaren bendian, be-
re bendeco Araguia ere erabiltia bere bendian, ucaque-
tan deutsala errazuetic camporaco escavide edo gura
guztiac, eta eraguiten deutsala, errazoiac eta Jaungoico-
ac eracusten deuscuban, gauza guztiac: onela, Lurraren ga-
ñian vizi dan, Christaunac eguiten dau, Jesus maitiac Evan-
~ gelio santuban esaquetan deustena bere Jarrallai, ucaque-
~ tan dau bere buruba (au da) bere gura zatarrac, jasoten dau
~ bere naibaguetaco Curutzia, eta jarraiquetan deutsa be-
~ re Maisu Divinoari; eta dan guztia Corputz eta Anima
izango da Eternidade guztian Zorionecotasun guztiz
ugari: eta miragarriaren Jabe: au da bada, Aisquidia, San

~Pablo Apostolubac eracusten deuscun leguez, bat vizi izatia
~emen, erontziric beragandic Guizon zarra eta azalecua (au
~da) Adanegandic dacarren bere izate pecataria, eta Jant-
~ziric Guizon barriagaz (au da) Zerutic gure salvazinoraco
~etorri zan Jaungoicoaren Seme, eta Guizon eguinic Jesu Chris-
~to deritzonagaz, eta barruco Guizon fin bagueco santu onec
~gura daben leguez; eta Corputzez eta Animaz santuizatia.

Araguiaren gura donga oneic, Aisquidia, ez bacar-
ric dira, aren Divina Magestadiac bere seigarrengo Man-
damentuban ucaquetan deuscun, pecatubac eguiteco, bai-
ta ere, beste Mandamentu santubac urratubagaz, beste
edozein pecatu mueta eguiteco; Araguiaren gura donga
oneic beti daucai, zer ecusi zazpi pecatu Capitaletan gui-
chiago edo gueiago, urragotic edo urrinagotic; argatic Apos-
tolu San Pabloc, Galaziacuai bialdu eusten, carta sagradu-
~ban aiquetara emuten deuscu, Jaungoico guezurrezcuac
~edo Ydoluac adoraitatic asi eta eguin oi dirian, beste peca-
~tu mueta guztiac diriala Araguiaren obrac; au nola izan
alditequian, erraz ezagutu daiquezu, Mundubaren, eta,
Munduban vizi diricin, Erreinu biaren gañian esanic
itzi deutsudan, gauza guztietatic, baita ere, emen ondo-
ren esatera noian, gauzetatic: eguia da, Aisquidia; Ara-
guiaren guraric aguirienac, ugarienac, eta indartsube-
nac dira, seigarrengo Mandamentu santubac eragozten
~deuscun, pecatubetaraco; eta ala Christaunac, beti egon
~biar badau zain eta iratzarriac, Araguiari ucaquetaco bere
~gura donga guztiac, gueien egon biar dau iratzarriac, uca-
~quetaco Lujuriazco atseguintasun mueta guztiac; bada
~Jaquiña da Eliza Santan, onerian edozein atseguintasun
≈mueta, Matrimonio santutic camporacua, dala pecatu mor-
≈tal, izan ezquero aurraz ezagutuba eta Vorondatezcoa, eta,
≈gueiago dana, onetan bat ichuturic vizi ezquero, beste peca-
≈tu mueta guztiai escu ugaria emuten deustena: bai, Aisqui-
~dia; onerian Araguizco atseguintasun bacoitza ola beti peca-
~tu andia, naiz dala Guizon eta Emacume artian, naiz dala
≈Emacume utsen artian, naiz Guizacume utsen artian, naiz
≈norc berac bere bacarrian Vorondate utsagaz, edo beste mo-
≈duz; eta pecatu au bacarric izan oi da veniala edo chiquiña,
~ezagupera eta Vorondate osocua ez dan aldetic; onen gañi-
≈an asco dago, zer esan; baña izten dot guztia Confesore adi-
≈tubarentzat; orain guazen aurrera.

Diabrubac, Munduba, eta Araguia Animetaco ira Et-
sai oneic azpiraquetaco, eracusten dira Eliza Santan bacoitza-
rentzat bere Arma bananguac, Aita Astetac bere miragarriz-

co doctrinaco Cartillan eracusten deuscun leguez; Diabruba azpiraquetaco, esanic itzi ditudan, Orazinua eta Humil-dadia; Munduba azpiraquetaco, Orazinuagaz eta Humil-dadiagaz ostian bere arrotasun eta ezeberezqueriac eze-bereztzat euquitia, eurai ez beguiraquetia eta bai alde batera izteia; eta Araguia azpiraquetaco, beste ¢tsai bi orreic azpiraquetaco dirian, Armacaz ostian eracusten dira Barubac, Azotiac, eta Araguiaren Latzitasuna: iru Arma mueta oneic batac bestiari erantzuten deutsai, eta al-car escuba emuten deutsai, iru ¢tsaiac, alcar ondo artu-ric, batac bestiari escuba emuten deutsain leguez, Animia galtzeco: bai, Aisquidia, Araguiaren Jaguitasunari eta gura dongai atzera eraguin eta ¢rrazoiaren bendian sacatu gu-ra dituban Christaunac premiña dau, bere Araguiari emu-tia osasunaren batere calte bague naibaguetasun oneic, edo onein erruco besteren batzubec.

¿Burdin Aria, Achurra, eta Laia bere gañian ecus-ten ez dituban Lurrac zer frutu emuten etau, Aisqui-dia? aguirian dago; zembat Lurra dan senduagua eta errutsubagua, aimbat arantza dui eta Nardui sen-duaguac eta errutsubaguac emuten ditu. ¿zer frutu ba-da emungo deutsula, uste dozu, Aragui ondo achenicaco, eta ondo arturicaco baten Lurrac, iguiñ dituban naibague-tasun orreicaz sacaquetan ez bada? David ¢rregue eta Profeta santubac Taungicoaren alabanzetaco bere Canzino sagradubaten. guztiz ederquiro aiquetara emuten deuscu onerian Aragui ondo artubaren Lurrac emun oi dituban fru-tu samiñac: ez dagoza (diño) Guizonen nequian; eta ez dira Guizonacaz necatuco; argatic arrapau ditu Soverviac; estal-du dira beren gaiztaqueriagaz, eta dongatasun izugarriagaz; urten deuste guizentasunetic leguez beren gaiztaqueriac; irago dira, Araguiaren gurai Jarraiquetara: orain begui-ratu eguizu, Aisquidia, zertan daguan, Guizona Jaustia, aiñ madaricatuba dan, vizi modu onetara; bada Profeta santu onec onetaraco errazue bacartzat esaten deuscu: ez dagoza Guizonen nequian, eta ez dira Guizonacaz necatuco: zer deritzozu, dala, bat Guizonen nequian ez egotia eta Guizonacaz ez necaquetia? ez beste gauzaric, baizican be-re burubari era eta gura guztiac eguitia, Araguiari, iguiñ dituban, miñ latzitasun, eta beste edozein naibaguetasun muetaric, batere eracutsi bagaric: bai, Aisquidia; au eta ez da bes-teric, bat Guizonen nequian ez egotia eta Guizonacaz ez necaquetia.

Çliza Ama Santac bada, Guizonari eracustiarren, Guizonen requiaz egoten, Guizonaccaz batera recaquetan, eta onela Araquia Animiaren bendian enquiten, aquinduric daucca, edozde batera ezquerroco (au dia) oquela bat urte aso daucain, Guizon eta Emacume guztientzat urteorroco barau equnac, eta, araqui gauzaric ez /aateco, equnac: San Pablo Apostolubac esaten deuscu, zuriagaz eciarten ebela Corputza, Animiaren Sewitzari leial bat izatera; Zeruco Santu eta Santac ere, amen vizi ziranian, quentzeiarren beren Araquiai, osticadac botateco, indarrac, equiten zituben barau andiac; barau ez ziranian ere eta beti /aquiten ziran Maitic, queiago /aateco gogua eucailla; beren loa laburra zan, eta au ere ez euben equiten oietan, baizcan lurraren gañian, edo beste lecu gogor batzuben gañian; oneiaz ostian emuten eusten beren Corputzai azotien, zilizioen, eta asunaren naibaquiac, onela beren Animac sendatu zitezen, eta beren Araquiac, argalduric, eta, osticadac botateco, indarrac galduric, beti egon zitezen beren aquintzai Anima sendoen azpian; bana equiten zituben gauza oneic guztioc beti beren osasunaren batere caltebaque, eta, beren Cristadubetaco eta Ofizioetaco lanqueiac escaquetan eusten, indarraren batere caltebagaric, onetaraco beti vizi ziriala beren Confesorien esanetic ichii ichuban eseguiric, utzic ezetan equin ez equien: queiago; ondo equien, eta ezaquetan euben, au guztiau utsa zala, gordetan ez bazituben ondo beren Sentidubetaco leioac; eta olaí bacarric ideten zituben Jaungoicoaren vorondateco gauzetaraco, eta ichiten zituben, vorondate santu onetatic compraciac ziran, beste gauza guztietaraco, beren Corputzetaco sentidu oneitatic santu ez equien Animetaco eriotza.

Çliza Ama Santaren baraubac eta Santu eta Santen mortificazino mueta gogor aiec ez dira Christauen mueta guztientzat onac; bana Corputzeco sentidubac ondo gorderic erabiltia, zeña bague utsa dan beste edozein mortificazino mueta, ez bacarric dia Christauen mueta guztientzat ona, baizcan da gauza guztiz premiñacua, Araquia, bere gura dongai atzera exaquinic, Animiaren bendian exabilteco eta enquiteco: badoquit, Aisquidia, Necazcari batecaz verbaitan naquiana, eta, Jaungoicoac aiñ laztan eta maite daben, Necazaritzaco lanquei ugariac eta gogorrac batez ere alde oneitan escaquetan daubela Necazaritaren aldetic Corputz ascatuba, osasuntsuba, eta indartsuba; argatic equiaz esaten deutsut, zeure Ofizio mirabarrizco orren lanquei gogorrai escubac gogotic ezaten deustezun bitartian ez diziala zuretzat ez baraubac, ez azotiac, ez zilizioac, eta ez Corputzeco beste oneiaun naibaquiac; Çliza Ama Santac ere ontzat dauna, zuc eta zulacuac ez etaratia, Christauen guztientzat pecatu mortalaren azpian aquinduric daucain, baraubac; ez daucazu bada, Aisquidia, zer baterik quezcaric enquii olde onetatic, ez da ere bequilizetasunic batere Santuben mortificazino gogor aiei; onein ordeco asco dozu zeure Necazaritzaco Ofizio santuba; bardin, berangaz

dacaarren, neque eta izerdi ugariac emuten badituzu Jesus Divinoaren izerian eta beraganaco amoriozi; bai; onela eguiten badozu, eguiaz egongo zara Guizonen neguian, Guizonaz batera necatuco zara, eta zeure Necazaritza santubaren videz enguico dozu Arraguia Animiaren bendian, eta Animia Gurazoiaren bendian Jaungoicoaren laguntasunagaz batera; baña zeure Necazaritzaco Ofizioagaz ostian guztiz premiña dozu, zeure Corputzaren bost Sentidubac ondo gorderic exabiltzia, Araguia enguru gura badozu zeure Animaren bendian; au eguiten ez dozun bitartian, izango dituzu zeure Araguiaren aldetic asticada andiac eta ugariac, Santubacenac izango zituben leguez, beren mortificazino gogor guiecaz ostian gorde ez balitube ondo beren bost sentidu Corporalac: sentidu oneic dira (ondo daquizun leguez) entzutia, Belarriacaz, ecustia Beguiacaz, uraiñ eguitia Sudurracaz, Ahoagaz gusto artzea, eta Escuz edo beste moduz ucuquetia.

Sentidu oneic ondo gordeco badituzu, Aisquidia, ez zaite ibilli, zeure Necazaritzaco Ofizioari gaizqui erantzuiten deutsan, bigun tasunaren billa zeure Jauntzian, Diau eta Maian; bada Jobsantubac esaten deuscu, ez dala billaquetan (Jaungoicoaren) laguntasuna, bigun vizi diriaren Luxurian: gueiago; Eliza Ama Santac eguinetan escaquetan deutsun alperqueria santuba ez eguizu ahoscoren antzera alperqueriari iraqo Zuquin zulnetan sarturic, jaaten eta edaten, jocuban, edo dongago diriari gaizetan, edo fiestaric fiesta, baztarric baztar, edo Zuric Zuri, ecustiaren, edo ecusia izatiaren, entzutiaren, edo entzuna izatiaren, edo, dongago diriari gaizen atzen; baizican iraqo biar dozu alperqueria santu ari zeure Animaco lanquei santubetan, Jaungoicoac eta Eliza Ama Santac gura dauben leguez; eta ondoren artu daiquezu, zeure biotzá nasaiquetaco, erraztuazcoac eta onac diriari, demporia iraqo gari batzubec; onela pecatubari zeure Sentidubetaco Leioac ichi biar deutsazu; bada Espiritu Santuba da esaten deutsuna, peliguruba maite dabena, peliguruban galduco da.

Mingaia bere lecuban esango deutsudan leguez, Aisquidia, da guere Corputzeco Araguiaren Zati chiquin bat, ondo gordetan badogu, Ontasun andietaco Itzuri gozoa, eta, gaizqui gordetan badogu, gaiztaqueria mueta guztien Itzuri atsa; argatic Santubac beren Sentidubacaz gañera gordetan zituben beren Mingaiac guztiz ederaquiro; onela eguizu zuc ere, gura badozu, zeure Araguia exabiltia zeure Animaren bendian.

Seigarrengo Mandamentu santuco gauzen gañian zeure Sentidubac eta Mingaia ondo gorde gura baditzu, eguin biar dozu libururen onen eun eta amalau garren Ofiaren azquenian eta amarengaren asiperian esanic itzi deutsudana; esanic ere itzi deutsut eun eta ogei garren Ofiaren arpeguian, dala pecatu mortal edozein onerian atzequintasun mueta Matrimoniotic campora, Vorondate asco coa izango: eta oraiñ esaten deutsut, atsequintasun mueta oneic besteri gogoa ecarri eraquiteco, esan oi diriari verbac, eguin oi diriari guiñubac, eta beste edozein aiquetara emute mueta escuz, masuz edo beste modutan diriala, Aisquidia, gueien bat edo beti pecatu mortalac, izan ezquero Vorondate asocoac, eta aimbat calte gueiago co pecatu mortalac, zembat eta lotsa eta gueizca guichiagogaz ascoren aurrian esan eta eguin oi diriari; Hotzoi gaizto co Chaistauac, Jesus Divinoari bere vizitzaren costuz erosi coac Animac ain ondura guichiagaz Demonioarentzat Escandalozaren videz lapurquetan dabiltzenac! ez dituzu bada, Aisquidia, zeure Mingaia, Begiac eta beste Sentidubac ezertan aimbeste atzeratu eta sacatu biar, nola zeure edo besteren Araguia viztu edo iratzarri leiquien gauza aiñ laban oneitan; bai; eguizu onela, eta izango dozu zeure Araguia Animiaren Laguntzia la emen eta Zerubon.

Sacramentu Santubac

Liburu onen berrogueta amabi garren ojan esanic itzi deutsut, Aisquidia, nola, guere azquen Fin santuba anchiquetaco, Jesus maitiac, Zerubetara igo baizen lenago, itzi euscun zazpi Sacramentu, zeñen bitartez sortzen dituban guere Animetan Fediaren Esperanzaren eta Caridadiaren iru Virtute Divinoac, parcaquetan deuscun pecatubac, eta an ondoren esaten deutsudan, mesediac eguiten deuscun.

Jesus maitiaren pasio eta Eriotza santubaren erruba, gure pecatubac deseguinquetaco, eta gu salvaitaco, ondar eta neurri bagacua bada ere, utsian guelditucо lizateque erru santu au, bacoitzac emen vizi dan bitartian irabazico eta beraganatuco ez baleu erru santu au: aren Divina Magestadiac bada, gura euben guztientzat irabazi bere fin bagueco merezimentu santu oneic, ifini zituban bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santan zazpi Sacramentu santubac zazpi Yturri leguez, zeñac ugaritasun andiagaz emuten deusten edaten merezimentu santu onein, eta onein bitartez grazia santubaren ur gozoa eta miragarrizcoa, beren Animen salvazinuaren egarria eguiaz daucain, guztiai: bai, Aisquidia; oneic dira, Ysaias Profeta santubac ascoz leenagoco demporetatic aurraz aiquetara emunic itzi euscun Yturri eta ur miragarriac, esan ebenian: edango dituzube atseguintasunian urac Salvatzalliaren Yturrietatic: eta ala guere Salvatzalle dan Jesus maitiaren vizitza, pasio, eta eriotza santuco fin bagueco merezimentubac, berac gura daben leguez, guriac izatia, gura baditugu, ezagutu biar ditugu bere Sacramentu santuben iturri miragarrizco oneic, eta guere Animetaco egarri santu bategaz Juan biar gara Yturri oneitara, edatera, gure salvazinoraco premiña ditugun, ur gozuac.

Aita Astetec doctrina Christianaren gañeco bere miragarrizco Cartillan esaten deutsu, Aisquidia, Sacramentubac diriala, Jesu Christo gure Jaunac ifini zituban, señale batzubec, emuteco guri onein bitartez bere grazia eta virtutiac; eta ondo esaten dau; bada dira señaliac, erraz ezagutu daiquegunac guere Corputzeco Sentidubacaz, onela jaquiñac izan zitezen Guizonarentzat bere salvazinoco vide oneic; baña ez dira señale utsac, eta ezeberezian gueldiquetan dirianac, baizican erru santuz betiac, eta eguiaz emuten daubenac, aiquetara emuten dituben, grazia eta virtute santubac, bardin batec, eurac errezivitaco demporan, bere culpaz eragozten ez badeuste.

Sacramentu santu oneic ere diriala zazpi esaten deutsu, eta diriala zazpi oneic Bautismoa, Confirmazinua, Peniten-

zia, Comunioa, Estremaunzinua, Sazerdotearen Ordena, eta Matrimonioa; eta ondo diño; bada Eliza Ama Santac Trentoco Ziudadian euqui eben Conzilio generalian (edo orobat dana) bere Obispo Jaun guztien juntan, Aita Santu Erromacua Buru zala, erabaguiric itzi euscun Fede santuco eguitzat, Sacramentubac Eliza Santan ez diriala gueiago, ez da ere guichiago zazpi baño; eta izentaitan ditu, izentau deutsudan, zazpi oneic; eta orobat erabagui eben zazpi izentau deutsudan, oneitatic edozeiñ bere bacarrian dala Sacramentuba; eta ala, Aisquidia, au onela eguiaz eta biotzetic sinisquetan ez dauben, guztiac ucaquetan daube Fede santuba, eta dira Eregiac.

~ Esaten deutsu ere Aita Astetec beronez, zazpi Sacramentu oneitatic lenengo bastac diriala premiñacuac Christaun guztientzat, salvauco badira (au da) obraz errezividu biar ditubenac, albadaube; edo, obraz ezin baditube errezividu, euqui biar daube Vorondatiaren aldetico gura eta deseo eguiazco bat, errezivitaco: eta eguiaz, Aisquidia, nola esan daiquegu, salvau gura dabela, Jesus maitiac onetaraco aimbeste naibagueen videz eta aimbeste erruquiz itzi zituban, bost Sacramentu santu oneitatic edozeiñ bere demporetan, artu aldaiquiala, gogoric ez daucalaco, artzeiari izten deutsan, Christaunac beste azquenengo biac barriz, zeñac dirian Ordenaco eta Matrimonioco Sacramentubac, aguirian dago, diriala Eliza Santa guztian bai, premiñacuac, baña Christaun bacoitzarentzat bacarrian guztiz vorondatezcuac; zergatic dirian Sacramentu bi oneic, erabaguiten ditubenac, errezivitan ditubenen, vizitzaco estadubac, eta gauza jaquiña da Eliza Santan, bacoitza bere banaan eta bacarrian guztiz dala bere vorondatecua, artu gura daben, Estadubaren gañian.

Jesus Maitiac [redacted] Sacramentu onein Eguilla eta Emallatzat itzi zituban Apostolu Santubac eta onein Sucesoriac Sacramentu santu Ordenacuaren videz, nola dirian, Aita Santu Erromacuaren bendian beren demporetan vizi dirian, Obispo Jaunac eta Sazerdotiac, baña Jesus Divinua bera gueldiquetan zala Sacramentu onein Eguillaric eta Emallaric aurrenengotzat; argatic Sacramentu santubac, beren Emallac emen Eliza Santan bardiñac ez badira ere merezimentubetan aren Divina Magestadiaren aurrian, bardiñac dira beren errubetan, nor nai dala, emuten dituban, Obispua, eta Sazerdotia; eta, gueiago dana, beren Emallac pecatu mortalian balegoz ere (onelaco gauzaric, Emallacatic ez dau iñorc uste izan biar) eurac emuten dituben, Sacramentubac beren erru santubeta-

tic ez daube ezer galtzen; zergatic ez dagoza eseguita emengo Emallen merezimentubetatic, baizican, Emallaric aurrenengua dan, Jesus Divinoaren merezimentubetatic; eta ala, San Pedro Apostoluba emen vizi baliz, Sacramentu Bautismocua eta beste edozein onec emun, edo, pecatari andi bat dan, beste edozein Sazerdotec, guztia bardin; Sacramentuba izango lizateque guztiz santuba, eta erru miragarrizcua, ondo guertaturic artzera, datorrenentzat: bai, Aisquidia; onerian Emalla zatarrac, ondo guertaturic Sacramentuben esque datozenentzat, dira, toqui illunian dagozenentzat Candela izio bat dan, antzeracua; Emallia da Candelia, onec bere gañian daucan, Arguia da Sacramentuba, eta, toqui illunian Candela izioaren arguitasun onen ontasunari beguira, dagozenac dira, Sacramentubac, ondo guertaturic, errezivitan ditubenac; Candela izioac bada bacarric bere burubari calte eguiten deutsa, baña toqui illunian bere arguitasunian dagozen guztiai eguiten deuste on eta mesede andia; orobat eguiten deuste Emalla zatarraren escutic datozen Sacramentu santubac, ondo guertaturic, eurac artzen dituben, guztiai; calte guztia da Emalla donguiarentzat, eta Sacramentubaren on eta mesede guztia da ondo errezivitan dabenentzat; arriazan gañetic Ortu ondo maniau batera doian urac frutu onac emun eraguiten deutsa; ez dau galtzen, onetaraco daucan, erruba urac, arri gañetic iragoagatic, eta arria len duin gogor edo gogorrago guelditu agatic ere; orobat dira, Aisquidia, Emalla donguiaren escutic datozen Sacramentu santubac.

Emacumiac, Eliza Santan, sugezinoco estaduban vizi dirian leguez, dagoza icasteco eta ez eracusteco vidian; argatic Jesus Divinoac ere bere Sacramentu santuben Emalla bacartzat ifini zituban Guizacume utsac (au da) bere Diszipulu Apostolubac, eta, oneic ordenquetan zituben, ondorengo Guizacumiac Obispo eta Sazerdotetzat; bai, Aisquidia; bere Ama Maria Santisima, Jaungoicoaren azpian dagozen, Criatura guztien artian onena, Jaquintsubena, eta santena da, eta zanaren Divina Magestadiaren demporan; ala ere ez eutsan emun, Sacramentubac eguiteco, escubideric, baizican Arranzale pobre batzubei, nola zirian gueien bat bere Apostolubac; eta andic ona dirau, eta iraungo dau Mundubaren azqueneraño escuvide santu onec, Sacramentu Ordenacuaren videz Apostolu aien Sucesore beren demporetan eguiten dirian, Guizacumetan, nola dirian ordenquetan dirian Obispo Jaunac, eta Sazerdotiac; aiñ bacarra, gura izan eben Jesus maitiac, izan zedin

Guizacumientzat Sazerdotearen Ordenaco Sacramentu santuba, eta, onec bera artzen daubenai, beste Sacramentubac equiteco, emuten deusten, escubidia (ex dot serba equiten premiña ordubaz, ençaiyniac eta nore nouic emun daiquien Bautismo Sacramentubagatic) zein da, Obispo Jaunen batec, orain guiño Eliza Santan iñore equin ez daben, equiteco osmua artuzic, ordenaco Sacramentu santuba emun guna balendora, ençacumeren bateri, utsian faurico lizateque guztia; eta onelaco Zeremoniaren ezin guztia izango lizateque, Obispua, eta Obispuaren uts equitia entzat daroian, ençacumia condenaitia.

Eliza Santan Obispo Jaunac daucai escuride guztizcua, emuteco beren bendeco Christaunai Sacramentu santubac, eta oneitatic bi, zeñac dirian Confirmazinoco eta Sazerdotearen Ordenaco Sacramentubac, Obispuac bacarric emun daiquienac, dira; eta alaz Obispoz ordenaturic ez dagoian Sazerdote uts batec ezin equin eta emungo ditu Sacramentu bi oneic; emun guragatic ere, utsian faurico lizateque bere Zeremonia guztiac.

Obispo Jaunen ordoren Ençrectore edo Vicario bacoitzac (dan bitartian) dauca escuride guztiztizcua, bere Parroquiaco Christaunai, emuteco Sacramentu santubac Confirmazinoco eta Ordenaco Sacramentubacaz astiangobestiac: Ençrectore edo Vicario Jaunaren ordoren santzen dira Sacramentu santubac emutera, Obispo Jaunagandic onetaraco escuridia artzen dauben beste Sazerdote guztiac; bada, Sacramentu santu Ordenacuac emuten badeuste ere Sazerdote guztiai, Confirmazinoco eta Ordenaco Sacramentubacaz astiangobeste Sacramentubac emuteco, escuridia, Eliza Armai Santaren Legueac, gauzac Eliza Santan Juan ditezen gorbino nasquilla bagauic eta ondo, eragozten deuste Sazerdote guztiai, ordendu bagaz beste bagauic Sacramentu santubac esque diruanai emutia, Obispo Jaunaren aurreragoco escuridezic ez daucaula; au aiquetan da premiña equiazco ordubetatic campora; nolabaiz Ençiotzaco ordubaz, eta escuridia daucan beste Sazerdotezic ez daquala, emun daiquie premiñan daquananai Sacramentu santu Penitenziacua, Comunioco Viatico Santuba, eta Estremaunzinocoa: baña Ençrectore edo Vicario ez diranSazerdote oneic (zubec esaten daquizuben legiez) predicazinuca, Meza, eta Confesinua bacarric daucain Sazerdote oneic ezin santu ditezeque, Ençrectore edo Vicario Jaunaren escuridecuac bacarric dirian, Sacramentu batzubec emutera, bezac onetaraco escuridezic emuten ez deustela; one-

ic dira eriotzaco ordubaren aurrian emun oi dirian Comunio santuba Viatico modura, eta Estremaunzinoco Sacramentuba, baita, ordu onetatic campora emun oi dirian, Bautismoco Sacramentuba, eta Matrimoniocoa; eta azquenengo Matrimonioco Sacramentu santu onetan aiñ gogorquiro gordetan da Legue au Eliza Santan, zeinda, ezconquetan badira Guizacumiaren edo Emacumiaren Erretore edo Vicario ez dan beste Sazerdote baten aurrian, utsa da onein Matrimonioa; ezcontzaca gueldiquetan dira, bardin Sazerdote onec ez badauca aurraz etararic onetaraco Obispo Jaunagandic bere escuvidia, edo ezcondu gura dauben Guizacumiaren eta Emacumiaren Erretore edo Vicario Jaunac, bietatic edozeñec (au da) naiz Guizacumiaren aldeticuac, naiz Emacumiaren aldeticuac emuten ez badeutsa Sazerdote oni onetaraco escuvidia: onela eta ez bestemodutan, Obispauco eta Sazerdozioco Ordenaren Sacramentuba arturic daucain, Guizacumiac daucai Eliza Santan escuvidia, ondo eguiteco, eta emuteco Christaunai Sacramentu santubac: eguia da; Eliza Santac beti ezagutu izan dau, eta ezaguquetan dau ala beragan, nola, bere Buru dan, Aita Santu Erromacoagan, Sacramentu santubac eguitiaren eta emutiaren gañian eracutsi deutsudan, vide onetatic urteteco, escuvide guztizcoa, errazoiac eta premiñiac ala escaquetan dauben guztian; baña au aiquetan da bacarric, Jesus Divinoac bere Esposa Eliza Santaren escura eta vorondatera, ondorengo demporetan Sacramentuben gañian erabaguiteco, itzi zituban, gauzetan eta ez bestetan, eta, Jesus Divinoac Sacramentu bacoitzari emun eutsan, izatiaren batere calte bagaric; bada gure Eliza Ama Santac, bere Esposo Jesus Divinoaren Jarralla ichu bat dan leguez, ez sartzen da, eta ez sartu diteque, deseguinquetara, Jesus Divinoac guztiz erabaguiric itzi zituban, gauzetatic batere.

Zazpi Sacramentu santu oneic ez dira beren artian bardiñac; berenartian bata baño bestia eszelenzia eta anditasun gueiagocuac dira; eta ala da Confirmazinocua Bautismocoaren aldian, Sazerdotearen Ordenacoa Matrimoniocoaren aldian, eta Comunioco Sacramentu santuba da guztien artian aguiriena, andiena, miragarriena, eta santubena; da (esateco modura) Sacramentu santu guztien muña, biotza, animia, azquena, Jabia, beste sei Sacramentubac bere Servitzari Laguntzat daucana; da azquenic beste Sacramentu guztien gañeco Sacramentuba, zeñaren videz Jesus Divinoac, bera dan guztia emunic, iztengaituban beragaz bat eguinic eta eguiten dituban gure biotzetan, eta bere Esposa Eliza Santan alditezquian miraric andienac.

Sacramentu onein artian iru dira, artzen dituben Animetan izten ditubenac, bacoitzac, bere arrasto mueta bat, eternidade guztian quentzen eta deseguinquetan ez dana; oneic dira Bautismocoa, Confirmazinocoa, eta Ordenaco Sacramentuba; eta ala iru oneitatic edozeiñ batec beiñ eguiaz artu ezquero, ezin bigarren aldian a bera artu leique; batec jaquiñian au eguingo baleu, eguingo leuque Sacrilegiozco pecatu icoragarria, eta ez leuque artuco Sacramenturic: batiatubac bada, confirmaubac, eta Ordenaubac emen eternidadian ere ondo

ezagunac izango dira.

Christaunari bere Animan zazpi Sacramentubac emuten deutsain, graziazco vizitzaiac dauca antz guztiz andia, emen Mundura jaioric, Corputz eta Anima daroian, vizitza muetiagaz; ecusten dozu, Aisquidia, Mundu onetan vizico danac lenengo eguiten dabena dala, bere Amaren sabelian sorturic bere demporan Mundura jaiotia; ondoren andi eguiñagaz eta indartubagaz dua; gaitz andiren batec artzen badau, ill ez dedin Medicubagana dua; gaitzac itzi ondoren egun batzubetan argal eta indar bagaric ecusten da, berriro indartu arteraño; vizitza oñian eta indar onacaz euquico badau, emun biar deutsa Corputzari bere janari osasuntsuba; au guztiau ecusten da bacoitzaren vizitza bacarrian; baña, nola iñor sortu ezin ditequian berez bere Amaren sabelian, eta jaioric ere Lagunac premiña dituban, argatic Guizona gueiquetaco Lurraren gañian, gauza guztiz premiñacua da, Guizacume eta Emacumeren batzubec alcarregana ezcontzaz batzeia; onela gueituric eta zabalduric Guizonac Munduban ezin vizi ditezque Eracustzalla bagaric, Aguintari bagaric, Legue Emalla eta Buru bagaric; ona emen, Aisquidia, nun daucazun, zazpi Sacramentubac Christaunari Jaungoicoaren aurrian emuten deutsain, graziazco vizitza guztiaren Ispillu ederra: Bautismoco Sacramentuban bat jaioten da bere Animan Jaungoicoraco: onela jaioric andi eguiten da Confirmazinoco Sacramentuban, onec emuten deutsan graziagaz errime indarturic gueldiquetan dala, Bautismuan artu zituban, Fede Esperanza eta Caridadeco iru Virtute Divino eta sobrenatural oneitan, eta Espiritu Santubaren zazpi duetan: pecatu mortalen bategaz gaiṡoquetan bada, bere Animaco Medicu Confesoriac Sacramentu Penitenziacuan quentzen deutsa pecatu mortalaren gaitza: pecatu mortalaren gaitza quenduric gueldiquetan da Animan pecatu mortal quendubaren arrastoa edo reliquia (au da) obra onac eguiteco argaltasuna, eta pecaturaco macurtasun gueiago; au deseguinquetan deutsa bada Estremaunzinoco Sacramentubac, illteco bildurragaz aurquiquetan dan, Gaiṡoari eguiten deutsan, beste mesedericascoren artian: Matrimoniac barriz gueiquetan ditu Christaunac Lurraren gañian; eta Ordenaco Sacramentubac azquenic Christaun onela gueitubai bere graziagaz emuten deuste Sacramentuben Eguilla eta Emallac, beren Eracustzalla eta Animetaco Medicubac dirian, Sazerdotiac, baita ere, beren Aguintari, Legue Emalla eta Buru dirian, Obispo Jaunac, guztien Buru dan, Aita Santu Erromacuagaz batera: eguia da; zazpi Sacramentubac emuten dauben, grazia izate mueta batecoa da berez; bada, ondo daquizun leguez, grazia santuau, naiz Sacramentu batec emuna dala naiz bestiac, ez da beste gauzaric, baizican izate Divino bat, zeñac eguiten gaituban Jaungoicoaren Seme eta Zeruco Heredero; ala ere Sacramentu bacoitzac emuten dau grazia santuau batac gauza bateraco, eta bestiac besteraco: aazturic gueldiquetan nintzan, Aisquidia, guztien artian andiena dan Sacramentu Comuniocoagaz, zeñac emuten deutsan Animiari Janari guztiz sendoa eta osasuntsuba; bada au bague illgo lizateque Jaungoicoraco, Corputza illgo lizatequian leguez bere janari mueta osasuntsu bagaric.

Jesus maitiac Sacramentu santu onein bitartez emuten deuscun grazia Virtutiacaz batera Animan ichasten dana, eta irauten

dabena da, pecatu mortalen bategaz galtzen ez dan bitartian; eta ala illteco demporan grazia santu onetan aurquiquetan dana salvaitan da, eta grazia au bagaric aurquiquetan dana condenaitan da; baña Virtutiacaz eta grazia santu onegaz gañera Sacramentu bacoitzian esquinten deuscu beste grazia mueta bat, Sacramentubac escaquetan dituban, obra onac beren demporetan ondo equiteco; grazia mueta au da, bere laguntasunecoa esaten deutsagun, grazia santuba; au ez da Animan ichachiric irauten dabena, bestia leguez, baizican Jesus maitiac bere demporetan milla bat modutara guere biotzetara bialquetan deuscuna, bardin guere pecatu eta gaiztaqueriacaz eragozten ez badeutsagu; eta Christaun bacoitzac bere escuban dauca, bere biotzian lecu emun edo ez emun Jesus maitiaren laguntasuneco inspirazino eta grazia santu oni, obra onac equiteco: grazia au da, Jaungoicoac Necazariari bere demporetan, Soroco langueiac equiteco, bialquetan deutsan, Egualdiaren antzeracoa; ecusten dozu, Aisquidia, Egualdi onari iragoten izten deutsan, Necazariac, tripiari azca eta gora beguira daguala, beste guztiac beren Soruetaco lanai viziro equiten deutsain bitartian, ezin etara leiquiala buruvide onic; beste onen beste guertaquetan da bada, Jesus maitiaren laguntasuneco grazia santu oni, bere biotzian lecu emun bagaric, iragoten izten deutsan, Christaun nagui eta zatarragaz; ez neque iguiñeco Necazariac anchituco dau bere Soruetan frutu onic, ez da ere, pecatubaren azpian aguinduricaco obra onac equiteco, iguiña daucan, Christaun naguiac bere Animiaren salvazinoric.

Sacramentu santubac bada, Aisquidia, ondo guertaturic datozen guztientzat grazia santubaren ur gozoa eta osasuntsuba emuten dauben, Iturriac eta alditezquian ugarienac dira; ala ere, ondo guertaturic datozen, Christaun guztiac ez daube bardin etaraten eta artzen Iturri santu oneitatic beren graziaren ur miragarrizco au, baizican batzubec gueiago eta beste batzubec guichiago, bacoitzac, nola daroian bere biotza guertaturic Fede Esperanza, Caridade, Humildade, eta Devozino gueiagoacaz edo guichiaggacaz, ala; bai, Aisquidia; egon bitez Erri baten, alditezquian uric gozoenac osasuntsubenac eta ugarienac emuten dituben, Iturri batzubec; ecusten dozu, Iturri aietara Ontzi andiaguaz doianac ur gueiago etaraten dabela eta guichiago, Ontzi chiquinaguagaz doianac; eta or obat ez daubela guztiac ur aietatic bardin edaten, baizican bacoitzac, nolaco Corputz aldia eta egarria daucan, ala.

Eliza Ama Santac ez dauca oituerarie, emuteco uso errazuazcora eldu bagaco Aurrai Bautismoco eta Confirmazinoco Sacramentu santu bioneic baño besteric; izan da Eliza Santan dempora, zeñian Aur onerianai emuten eusten Comunioco Sacramentu miragarrizcoa ere; baña, bere lecuban esango deutsudan leguez, Aisquidia, au errazue onen batzubecatic anchinaco demporetatic ona eragotziric dago pecatu mortalaren azpian; eta ala esan ditudan Bautismoco eta Confirmazinoco Sacramentu bioneicaz ostian beste Sacramenturic batere ezin emun leiquie Aur onerianai pecatu mortalaren azpian.

Egui erabaguia da Eliza Santan, Sacramentuba eguiaz Sacramentuba izateco, guztiz premiñacoa dala ala Eguilliaren aldetic, Sacramentuba equiteco, asmo edo gogo eguiazcoa, nola Artzalliaren aldetic ere, Sacramentuba artzeco, asmo edo gogo eguiazcoa; bien aldetico gogo eguiazco au bagaric Sacramentuba equiteco eta artzeco demporan ez dago batere Sacramenturic; bacarric aurraz eguiñic daguan Sacramentu santu Comunioco aren izatia ez dago eseguiric Artzalliaren aldetico asmo edo gogotic; Aur onerianac ez

daucai ezaguperaric; eta argatic ezin euquileiquie, Sacramentu-
bac artzeco, gogo edo asmo eguiazcoric; ala ere Eliza Santan Fede
santuco egui erabaguia da, Sacramenturen batzubec diriala, one-
rian Aurrac eguiaz eta beren frutubacaz artu leizquianac; eta
onerianac dira, esan ditudan, Bautismoco eta Confirmazinoco Sa-
cramentu bi oneic; argatic Aurrac ez bacarric artzen ditube eguiaz
Sacramentu bi oneic, baizican ere, emuten dituben, beren grazia mue-
tac eta graziagaz batera Virtute santubac eta Espiritu Santubaren
zazpi doaiac; Eliza Ama Santac berac bada ifinten deuste Aur
onerianai, eurac ezin daubena, Sacramentu santu bi oneic artze-
co; eta ala Aurrac artzen ditube Bautismoco eta Confirmazi-
noco Sacramentubac Eliza Ama Santaren Fede, Esperanza, eta
Caridadian, eta Vorondatian: bai; Aisquidia; gauza oneic onela
dira; baña, bardin batec, uso errazuazcoan sarturic, artu gura ba-
ditu, arteraño artzaca daucan, Bautismoco eta Confirmazinoco
Sacramentu bi oneic, eta orobat beste edozeiñ Sacramentu, aiñ
premiñacua dau, Sacramentuba eguiaz artzeco, bere Vorondatia-
ren aldetico asmo edo gogo eguiazcoa, zeinda au bague ez lizate-
que batere Sacramenturic guertatuco; eta, Sacramentubaren Egui-
llia edo Emallia danaren aldetico, aleguin guztia guelditucо liza-
teque Ceremonia utsian batere Sacramentu bagaric, eta Artzalliac
eguingo leuque Sacrilegiozco pecatu icaragarria: aurraz egui-
nic daguan miragarrizco Sacramentu Comuniocoa artuco dabe-
nac ere guztiz premiñacua dau, bera artzeco, vorondatiaren al-
detico gogo edo asmo eguiazco au, gura baditu anchitu Sacra-
mentubagaz batera bere grazia ugariac; bada beste moduz
Sacramentuba artuco leuque batere grazia bagaric, eta bere
condenazinoraco, onetan eguingo leuquian, Sacrilegiozco peca-
tu izugarriaren videz.

Edozeiñ Sacramentubaren Artzalliac bada, Aisquidia, beiñ
uso errazuazcoan sartu ezquero, gura badau, ondo guertaturic
artu ez bacarric eguiaz Sacramentuba, baizican Sacramen-
tubagaz batera bere grazia eta erru miragarrizco guztiac,
aurraz icasi eta jaquin biar dau, zer gauza dirian Sacra-
mentubac, eta zertaraco ifini zituban Jesus Divinoac Eli-
za Santan; baita ere zertaraco dan, berac artu gura daben
Sacramentu izentauba, eta zer moduz guertaturic artu bi-
ar daben Sacramentu izentau au, zeña escaquetan daben;
bai; eziñ iñorc euqui leique vorondatiaren aldetico gogo errazu-
azcoric eta eguiazcoric, lenaz ezaguquetan ez daben, gauza-
ren bat anchiquetaco; zergatic ez daquian, zer gura daben;
eziñ ere anchituco dau, ezaguquetan ez daben, gauza au,
bere oneraco izango dan, moduban, ez daquianac, ez nola
anchitu biar dan, ez da ere anchituric zertaraco dan: au
guztiau aurraz ondo icasiric eta jaquinic edozeiñ Sacramen-
tubaren Artzalliac, artzeco, demporan, bere vorondatiaren
aldetic, Sacramentuba artzeco, daucan gogo eguiazcoagaz
gañera egon biar dau bere biotzian edo Animan, artzen da-
ben, Sacramentubac escaquetan deutsan, moduban, onela
eta ez beste moduz anchituco ditu Sacramentubaren gracia eta
beste erru miragarrizcoac; bada gauza jaquiña da Eliza Santan,
onela bere culpaz guertaturic ez doianac, baizican sazue

dongan, errezivitan dabela eguiaz Sacramentuba, edoze-
iñ dala, Sacramentu Penitenziacua[redacted] ez, bere lecuban esan-
go deutsudan errazoiacatic, baña beste edozein bai, eta ez
dabela errezivitan, Sacramentu eguiaz artzen dabenaren,
batere graziaric, baizican eguiten dabela Sacrilegiozco pe-
catu icaragarri bat, eta, onela gaizqui artzen dan, Sacramen-
tuba izan oi dala, artzen dabenaren, condenazino gueiagora-
co; bai, Aisquidia; onelacuac bere escuz ifinten deutsa Sa-
cramentu santubaren Yturriari bere ichiquia, uric batere
emungo ez deutsan moduban, guerora ondoren penitenzia
eguiazcuagaz quentzen ez badeutsa ichiquia.

Jesus Divinoac bada ifini eutsan, bere Esposa eta gure
Ama dan, Eliza Santari zazpi Sacramentubetatic bi bacar-
ric, zuzenian pecatu mortalac parcaquetaco, eta bere grazia
santubaren videz gu, bere Etsai izatetic bere Aisquide izate-
ra, iragoteco; bi oneic dira Bautismoco eta Penitenziaco Sacra-
mentubac; eta ala Bautismoco Sacramentuba ifini eben, par-
caquetaco pecatu originalagaz batera batiaquetan danagan
aurquiquetan dirian beste pecatu mortal guztiac aurrenen-
go, baita ere pecatu venial mueta guztiac, beren pena eterno
eta temporal guztiacaz batera; eta ifini eben Penitenziaco Sa-
cramentuba, batiatu ezquero eguindaco, pecatu guztiac par-
caquetaco aurrenengo mortalac, baita ere ondoren venialac;
Sacramentu santu bi onei esaten deustegu Yllen Sacramen-
tubac; zergatic ifiniric dagozen, pecatubaren videz Jaungoi-
coaren aurrian illic dagozen, Animai graziazco vizitza mi-
ragarrizcua emuteco; eguia da, Aisquidia; Juan diteque bat
Sacramentu santu bi oneic errezivitara, Jaungoicoaren grazian
daguala acto Contrizinozco eguiazco baten bitartez, [redacted] eta
Penitenziaco Sacramentuba, lenagoco pecatu mortal bagaric
errezivitan dan guztian; eta onela aurraz grazian duaze-
nai Sacramentu santu bi oneic eguiten deustena da, ugaritu
eta gueitu, aurraz daroien, grazia: beste bost Sacramentu-
bac barriz Confirmazinocua, Comuniocua, Estremaunzinocua,
Sazerdotiaren Ordenacua, eta Matrimoniocua ifini zituban
graziazco estaduban dagozenentzat, ugariquetaco eta
gueiquetaco, lenaz daucain, grazia santuba; eta ala esa-
ten deustegu bost Sacramentu santu onei vizien Sacramen-
tubac; zergaitic dirian, leenaz graziazco vizitza santuba
Jaungoicoaren aurrian daucain, Christaunentzat, grazia
gueiquetaco, eta pecatu venialac parcaquetaco; eguia bada
ere, noiz baitzubetan badaucaila indarra, pecatu mortalac
parcaquetaco ere; baña [redacted]
[redacted] beti, onein videz parcatu oi dirian, pecatu mortal guztiac
autortu biar dira Confesoriari Penitenziaco Sacramentuban: one-

ic onela ſaquinic, guazen orain, Sacramentubac errecivi-
taco, demporan bacoitzac euqui biar daben, bere Animaco
sazue onaren gañian verba eguitera; ifini ez deguiezun,
Aisquidia, Yturri santu onei ſaquiñian eta zeure culpaz,
beren grazia santuco ur gozoa emutia, eragotzico deus-
ten, ichiquiac, eta eguin ez daguizun Sacrilegiozco peca-
tu icaragarriric.

Sacramentu Bautismocuac eta Penitenziacuac, Yllenac
esaten deustegun, bi oneic errezivitara ſuanditeque bat,
pecatu mortalian daguala; eta ala ez daube Sacramentu
bi oneic escaquetan artzera doian aldetic estadu graziaz-
coric, obiago bada ere, estadu onetan ſuatia Sacramentu
bi oneitara Contrizino eguiazco baten videz; baña damu-
tasun mueta au pecatu mortalian daguanarentzat ere
ez da premiñacua, Sacramentu bi oneitatic edozeiñ artze-
co, demporan; asco dau euquitia Atrizinoco damutasun
sobrenatural eguiazco bat; gauza ſaquiña da Eliza San-
tan, damutasun mueta onec ez daucala indarric, Contrizino eguiaz-
cuac leguez, bat, pecatubac parcaturic, estadu graziazcu-
an ifinteco; baña ifinten dau Atrizinoco damutasun onec
Anima, asco dan garaco, sazoian, Bautismoco eta Peniten-
ziaco Sacramentubac eguiaz errezivitaco, eta onein vi-
dez, pecatu mortal mueta guztien parcazinua eretsiric, es-
tadu graziazcora artzen ditubana iragoteco: onela doi-
ana Sacramentu santu bi oneitara, pecatu mortalian egon
agatic ere, Sacramentuba artzeco, demporan, Sacramen-
tubagaz batera gueldiquetan da estadu graziazcuan,
eta pecatubac parcaturic; argatic Sacramentu santu bi
oneic, artzen ditubanaren aldetic, ez daube escaquetan
estadu graziazcoaren sazue ederra; escaquetan dau-
be, bai, guichienetic Atrizinoco damutasun eguiazcoa; ba-
da au guichienetic ez daroianac ſaquiñian eta bere cul-
paz, errezividuco dau, bai, Sacramentu santu Bautismo-
cua eguiaz, bardin artzeco, vorondatiaren aldetico gura
edo asmo eguiazcua beucan; baña ez dau anchituco bere
grazia santuric, eta gueldituco da lengo pecatu origina-
lian, eta, uso errazuazcora eldu azquero, bere vorondatez
eguin zituban, pecatu mortal guztietan Sacrilegiozco bes-
te pecatu mortal bategaz gueiago, penitenzia eguiazcoa-
ren bitartez etara arteraño Yturri santu oni, bere culpaz san-
tu eutsan, ichiquia: Sacramentu Penitenziacua barriz, gui-
chienetic ez badarua Atrizinoco damutasun eguiazcua be-
re esque doianac, utsian ſausico da guztia; onela doianac
ez dau izango ez Sacramentubaren grazia santuric, ez
da ere Sacramenturic, eta biurtuco da Echera lengo peca-

tubacaz gañera beste Sacrilegiozco pecatu icaragarri bate-
~ gaz gueiago; zergatic Penitenziaco Sacramentu onen izatia
~ artzera doianaren aldetic dago bere pecatuben confesino
~ osoruan eta onein gañeco damutasun eguiazcuan, peniten-
~ zia cumplicaco, asmo eguiazcuagaz batera; argatic emen
ez dago batere Sacramenturic, artzera doianac ez badau-
ca guichienez Atrizinoco damutasun eguiazcoric.

Beste bost Sacramentu santubac, vizienac esaten de-
ustegunac, nola dirian Confirmazinocua, Comuniocua, Estremaun-
zinocua, Sazerdotiaren Ordenacua, eta Matrimoniocua,
bost oneic bada guztiac escaquetan daube artzera duazen
aldetic gura asmo edo intenzino eguiazcuagaz gañera es-
tadu graziazcuaren sazue ederra; eta ala pecatu mortali-
an jaquiñian, edo duda errazuazcuan, ete daguan edo ez pe-
catu mortalian, errezivitan ditubenac bost oneitatic edozeiñ,
errezivitan daube, bai, eguiaz Sacramentu santuba, baña
bere Yturriari, bere graziaren ur gozoa emutia, eragozten
deutsan, ichiquia errime sarturic; argatic onelacuac, Sacra-
mentuba arturic, ez daube artzen bere grazia santuric, eta,
bai, onela Sacramentu bost oneitatic edozein artzen dauben
bacoitzian, eguiten daube Sacrilegiozco pecatu icaragarri
bat: pecatu mortalian daguanac bada, edo duda errazuaz-
cuan, ete daguan edo ez pecatu mortalian, bost Sacramen
tu oneitatic edozein artu gura dabela, aurraz ifiñi biar
dau bere Animia estadu graziazco sazue ederrian, eta sa-
zue santu onetan errezividu Sacramentuba, gura badau
anchitu Sacramentubagaz batera bere grazia santuba; gra-
ziazco sazue miragarrizco onetan ifinteco, pecatu mortal ja-
quinecuan edo dudazcuan daguana, gauza erabaguia da
Eliza Santan, dala videric artezena, zuzenena, eta onena,
eria euqui ezquero, bere pecatu guztiac ondo confesaitia,
eta onela Sacramentu Penitenziacuaren bitartez bere peca-
tuben parcazinua anchiquetia; argatic Sacramentu santu
onein Emalla dirian Eliza Santaco Ministroac bost Sacra-
mentu santu oneitatic edozeñeren esque datozen guztiai
esaten deuste, aurraz guertatu ditezela Confesino on ba-
ten videz, onela Sacramentu santuba artzera datozenen
aldetic Ministroac, euqui daiquien, quezca mueta guztia
graziazco sazue ederraren gañian quendu daguien, ecu-
siric, nola naico sazoian lenago aurquitu zitezela, orain
datozela Sacramentubaren billa, ederturic Penitenziaco Sa-
cramentu santuban.

Corintioco Christaunai San Pablo Apostolubac escrivi-
du eusten lenengo carta sagraduban, aitaturic Sacramen-

tu santu Comunioeoa, iñorc, Zarubar eta durrian auzqui-
quetan dan, Janarinic senduen eta indartuben onegaz, Eli-
za Santac dituben bitartian, Jan ez-eguian bere condena-
zinoco juizio izugarria, comulgau gura dauben guztient-
~ zat againdu eben: beguiratu beguio (auzoaz) Guizonac
~ bere Burubari: Eliza Ama Santac ordutic aitu eben Apos-
~ tolu santu onen aguindu au aren Divina Magestadiaren
~ aguindutzat; eta Jentoco Zindadian euqui eben azque-
nengo Conzilio generalian esaten deusu, bere (au da)
~ Eliza Santaren beraren oituerac erabaguiten dabela, pre-
~ miñacua dala, comulgau gura, daberac alaco moduz co-
~ mulgau arrian, bere Burubari beguiaquetia, zeindape-
~ catu mortalen batec bere biotzetan salaquetan dituben eta-
~ tic iñorc ez dabela juan bian Comunio Sagraduba artzera
~ Penitenziaco Sacramentu bagarik bere pecatu guztien Con-
~ fesino on baten videz, jaitziagotic ere bere Burubari dau-
~ cala bere pecatu guztien gañeco Contrizinoco aldi tequian
~ damutasunic senduen bat: aquirian dago bada, Airsqui-
dia, pecatu mortalian daguanac, Jaun Divinoa errezi iduco badau, aurrez edertu bian dabela bere Animia Sacra-
mentu santu Penitenziacuan; beste moduz inountzico dau
bere condenazinoco Juizio izugarria; aquirian ere dago,
Comunioco Sacramentubagaz astiango vizien beste bat
Sacramentubac ere, artu gura dituben aldetic, escaque-
tan daubela estadu grazyazcua; eta equia bada ere, peca-
tu mortalian daguana ifiñi ditequiala estadu grazia-
co onetan Contrizinoco damutasun equiazco baten videz,
nola Contrizino equiazcoac berez dauccan, pecatu mortal
guztiac ondo confesautaco Sacramentu Penitenziacuan, as-
mo sendo, sendo bat, eta asmo sendo au bagarik ez daguan
Contrizino equiazcoric, zeraqueria andia izango lizate-
que, vizien Sacramentu sneitatic edozein, pecatu morta-
lian daguana, artzera, (suatia,) estadu graziazcora etorri dala-
co uste an Contrizinoco damutasunaren videz, bere peca-
tubac aurrez ondo confesaubagarik, enquisic eria onetaraco, eta confesau aleiquiala.

Aiquetara emun deutsut, Airsquidia, nola, emen Jaun-
zaren gañian beren Animen Salvazinoco egarri santuba
daucain, guztiac edan daiquien, premiña dauben, grazia
santuco ur gozoa, beren Salvatzalliaren Yturriac dirian,
zarpi Sacramentubetatic; eta orain Bautismoco, Comunio-
co, Penitenziko, eta Matrimonioco lau Sacramentu santu
onein gañian emutera nuatzu, Aita Astetec Sacramentuba-
co itzaren gañian guztiz ederquiro emuten deutsun, ezagu-
peria, zabaltasun zerbait queiagogaz.

Sacramentu Bautismocua

Esanic itzi deutsut, Aisquidia, ogueta irugarrengo ofiaren azquenian eta ogueta laugarrengoaren asipenian, nola Bautismoco Sacramentu santu au dan Eliza Ama Santa, Catolica, Apostolica, Erromacoco, zeña dan Jaungoico viziaren Eche vizia, sarrera, eta ate bacarra; baita ere esanic itzi deutsut ogueta amabi garren Ofiaren astian, nola ere Sacramentu santu au dan, Creduaren azquenerutz sinisquetan eta autorquetan dogun, pecatuben parcazinoraco; argatic Eliza Santacberac, bere Conzilio generaletan, Credo onetan laburtasunian eracusten dan, siniste eguiazco guztia zabaltasun gueiagogaz guri aiquetara emutiarren, Mezatan esateco eta cantaitaco, eracutsi eta aguindu izan ~daben, Creduan esaten deuscu onela: autorquetan dot Bau~tismo bat pecatuben parcazinoraco (au da) bein bacarricartzen dana, eta bat bacarra, Jesus maitiac, Fariseoa eta Judeguben artian aurre~nengua zan, Nicodemuseri bein batian esan eutsan: bat, ~berriro jaio ez badidi uragandic eta Espiritu Santubagandic, ~ezin sartu diteque Jaungoicoaren Erreinuban: Eliza Ama Santac bere Esposo Divinoaren verba santu oneitan beti aitu izan dau Sacramentu santu Bautismocua, eta bere premiña guztizcua, Zerubetan sartzeco: bai, Aisquidia; guere Mundu onetaco vizitzaric ez daguan leguez jaiotze bagaric, orobat ez dago Jaungoicoaren aurrian guere Animetaco graziazco vizitzaric Bautismo santu bagaric; emen vizitza santu onetaraco jaioten gara uragandic eta Espiritu Santubagandic; eta ala Bautismo santu au da Eliza Ama Santaren ate bacarra, bere Miembro izatera ecarten gaitubana, Jaungoicoaren Etsai izatetic bere Seme adoptivo, eta graziazcuac izatera iragoten gaitubana, guere Animetaco graziazco vizitza guztien asipena, eta zimentu guztiz premiñacua.

Bautismoco zimentu santu au bagaric ezin batec errezividu leique Eliza Santaco beste [redacted] Sacramentubac [redacted] (ez dot verba eguiten aurraz eguiñic daguan Sacramentu Comuniocoagatic) ezin ere bat Sazerdotiaren Ordenaco Sacramentubaren videz etorri liteque, Sacramentuben Eguilla eta Emalla dan, Eliza Santaco Ministro izatera (ez dot ere emen verba eguiten, premiña ordubetan Jentil batec eguiaz emun leiquian, Bautismoco Sacramentu onen gañian) eta ala batiatu bagaric daguan batec artu gura balitu beste Sacramentu santubac utsian guelditucо lizateque, ez Sacramentuben erruric eta ez Sa-

cramenturic artuco leuque, eta aurraz eguiñic daguan Sacramentu santu Comuniocua ere artuco leuque (Jaquiñian izan ezquero) bere condenazino gueiagoraco; onegaz beste guztiac bada guelditucо lirateque zeremonia utsetan Sacramentu bagaric; orobat Obispo Jaunac onerian batiatzaca bateri, batiaturic daguan, ustian Ordenaco Sacramentuba emuten asico balitza, utsian Jausico lizateque guztia, illic daguan bat ordenduco baleu leguez ez gueiago eta ez guchiago; eta au ondoren Sacramentuben Eguilla eta Emalla Jasarrico baliz, bere Sacramentu eguite eta emute guztia eta utsa guztia bat izango lizateque; ezin eguingo dau eguiaz Sacramentu bat, Jentilac eurac eguin eta emun daiquien, Sacramentu Bautismoco onegaz ostian: aiñ zimentu premiñacua da Bautismo santu au, batec Eliza Santaco beste Sacramentubac naiz artzeco, naiz eguiteco: baña au guztiau guertatuco baliz, batiaturic dagualaco, noz beraren culpa bagaco uste osoan eta onian, eguiaz batiaturic ez daguala, salvauco lizateque, eta Sacramenturic eguiaz artu ezagatic, eta onerianac Sacramenturic eguiaz emun ezagatic, Jaungoicoac, onelacuen Fede, Esperanza, eta Caridadiari beguiraturic, Sacramentubac garic [redacted] emungo leusquie bere grazia santuba [redacted], eta, pecatubac parcaturic, Zeruban bere Santuben artian artuco lituque, Christaun Catolicuen languei santu beste guztiai ondo arpegui emun, eta erantzun ezquero: bacarric bada guertatuco baliz, batzubec ezconquetia onerian, batiatu bagaco Errectore, uste onian daguan, baten aurrian, Jaquintsubac ez dagoza iritzi batian, orrelacuen Matrimonioa ete dan edo ez eguiaz Sacramentuba, gueienac badiñue ere, Sacramentu eguiazcua dala, izan ezquero, ezconquetan dirian, Guizona eta Emacumia batiatubac: baña, Aisquidia, onerian uts eguitiac, Eliza Santan edo iñoiz ez, edo guichitan guertatu oi dirianac, dira; eta ala, onei itzita, guazen aurrera.

Aiquetara emun deutsut, Aisquidia, eun eta ogueta irugarren ofiaren azquenian eta urrengoaren asipenian, nola, Erretore edo Vicario Jaunaren escuide bacarrecuac dirian, Sacramenturen batzubec, emutera, ezin sartu ditequian beste edozein Sazerdote, eta esan deutsut, Sacramentu santu onerianetatic bat dala Bautismocua; eta ala orain esaten deutsut, Eliza Santan Obispo Jaunacaz ostian Sacramentu santu onen Emalla bacarrac diriala Parroquietaco Erretore edo Vicarioac, eta, eurac gura ez daubela, eta ontzat ez daroiela, ezin beste edozein Sazerdote sartu ditequiala, Bautismoco Sacramentu santu au emutera; beren atsecabian batiatuco baleube beste Sazer-

dotiac, eguiaz batiaturic guelditucо lirateque; baña Sa-
zerdote batiatzallac eguingo leuquie pecatu mortal, eta oro-
bat, onetaraco ſaquiñian escuba emuten deusten, beste guztiac
eguingo leuquie pecatu.

Onela Parroquian guztiac artu biar daube Bautismoco Sa-
cramentu santu au Errectore Jaunaren escutic edo onen escu-
vidia daucan Sazerdotiaren escutic, batiatuco dana beriala
illgo dala, edo ill ditequiala, bildur errazuazcoric ez dagu-
an guztian; eta onela Parroquian emun oi dan Bautismo
~ santubari esan oi deutsagu aguiria (au da) Eliza Ama San-
tac, Bautismua emun aurreraco, emuteco demporaraco, eta
emun osteraco, ifiniric daucan zeremonia, erregu, eta, Diabru-
bari igues eraguiteco, Conſuro santubac eguinagaz emun oi
dan Bautismoa; bada Sacramentu santu au eguiaz eguiten
~ dau eta emuten dau Erretore Jaunac bacarric, Pontian urbe-
~ deincatuba batiaquetan danari burutic bera iru bider, Curut-
~ ze modura aldi bacoitzian, ezarten deutsanian esanagaz
~ batera, ura ezarri, bitarte guztian bein bacarric, Jesus mai-
~ tiac, onetaraco izentauric, itzi euscun, verba santubac, Sa-
~ cramentuba eguiteco eta emuteco asmo eguiazcuagaz, eta
~ Aita eta Ama Pontecuac batiaquetan danari escubacaz deu-
~ tsalla; orduban bacarric eguiten eta emuten da Bautismoco
Sacramentuba, eta leenago eta ondoren Errectore Jaunac edo
bere ordeco Sazerdotiac eguin oi dituben erregu, unzino,
Conſuro, eta zeremonia santu guztiac dira, ez Bautismoa,
baizican Bautismoa artzen dabenentzat ontasunez eta mis-
terioz betericaco erru andico gauza santu batzubec, eguin
ditezquianac eta eguin biar dirianac, batiaquetan danaren, osa-
sunac onetaraco lagunquetan daben guztian, eta alde batera
itzi biar dirianac, batiaquetan dana beriala illtera doiala,
bildur errazuazcua daguan guztian; batiatu bagaric ill ez
dedin:

Batiaquetaco daguana beriala illgo dan, edo ill dite-
quian bildur errazuazcoren bat daguanian bada, eta be-
re Corputz aldi zatarrac ez dabela emungo astiric, esan
dodan, Bautismo aguiria artzeco Parroquian Erretore
Jaunaren escutic, premiña estu onetan, an aurquique-
tan dan, edozeñec eguin eta emundeiquio Bautismoco Sacra-
mentu santu au; eta onela emuten dan Bautismo oni esa-
~ ten deutsagu Bautismo bacarrecua (au da) bacarrian
eta bera bacarric emuten dana, itziric orduban alde bate-
ra, Parroquiaco Bautismo aguiriraco Eliza Santac aguin-

duric daucan beste languei guztiai: onelaco estu ordu-
ban Bautismo bacarreco au artzen dabena, bardin aur-
rera vizi bada, eruan biar da aimbat lasterren Parro-
quiara, Erretore Jaunac ez berriz batiatu daguian,
bada bein eguiaz batiatu ezquerocua ezin bigarren
aldian batiatu lei, baizican, premiñiac ala escaturic, ba-
tiatu zanian, alde batera itzi zirian Bautismo aqui-
riaren, beste erregu, unzino santu, zeremonia, eta con-
juro guztiac batiaturic daguanaren gañian eguin da-
guian.

Jesus maitiac bada nola ifiñi eben Eliza Santan Bautis-
moco Sacramentu au aiñ premiña andicua, bat salvai-
taco, argatic batiaquetaco escuvidia emun eusten, Mundu onetan vizi dirian, Per-
sona mueta guztiai naiz Eliza Santaco Ministroai, naiz
ordentzaco Guizacumiai, naiz Emacumiai, naiz batiatu-
ric dagozen Christaun Catolicuac diriala, naiz Eregiac,
naiz beñere batiatzaco Judegubac edo Jentilac; onela
edozeiñ estu ordutan erraz izan zedin, anchiquetia batec
Sacramentu santu au: au Eliza Santan Fede santuco gau-
za erabaguia da; eta beste Sacramentubetan guertaque-
tan ez dana; bada beste guztien Eguilla eta Emalla eraba-
guiac dagoza: esan dot, Judegubac eta Jentilac ere bada-
ubela escuvidia, eguiaz Bautismoco Sacramentu au egui-
teco eta emuteco; baña au esan dot, beguiraturic bacar-
ric eguin daiquienari, eta ez, zer eguingo euquienari;
zergatic oneic, eta, Sacramentu santu onen gañian uts egui-
ten dauben, Eregiac gorroto larregui deutsai Eliza Santa-
ri eta bere Sacramentubai, gauza zuzenic eguiteco, aiñ pi-
sũ andicua dan, Sacramentu santu onetan; eguia da; ba-
tiatuco baleu oneitatic edozeñec nor bait, Eliza Santan ba-
tiaquetan dan, modura, eta, Eliza Santac onetan eguiten
dabena, eguiteco asmo edo gura eguiazcuagaz, eguiaz-
coa izango lizateque onerian Bautismoco Sacramentuba.

Oneic onela izan ezquero, gauza ona da, Christaun
guztiac, eta premiñacua, Seinguintzetan ibilli oi dirian,
Anramaiztac eta Ofiziale guztiac Jaquitia, Bautismo san-
tuba eguiaz eguiteco, eta emuteco, moduba, edozeiñ estu
ordutan, eta ez bestetan, Sacramentu santu au ondo emun
daguien: ara bada, Aisquidia, Jesus maitiac bere Evangelio-
an eracutsi euscun moduba, eta zeña bague ez daguan
~ Bautismoco Sacramenturic: ura ezarriagaz batera, bus-
~ titen dabela batiaquetan danaren Corputza, batiatzalliac
~ esan biar dau, Sacramentuba eguiteco asmuagaz, latineco iz-

~ cunian onela: ego te baptizo in nomine Patris et Filii et Spiri-
~ tus Sancti. Amen: Erderaz onela: yo te bautizo enel nombre
~ del Padre y del Hijo y del Espiritu Santo. Amen: eta Eusqueraz
~ onela: nic batiaquetan zaitut Aitiaren eta Semiaren eta Es-
~ piritu Santubaren izenian. Amen: eta edozein izcuniatan da-
~ la esan biar dira verba santu oneic guztiac, ura ezarriagaz,
~ batera, eta, ezarten deutsan bitartian, bein bacarric, bein esa-
~ nicaco verbia ondo, berriz esaten ibilli bagaric, eta verbatic
~ verbara luzapenic artu bagaric: Eliza Santac bere Manua-
leco liburu santuban aguinquetan deuste Erretore Jaunai,
batiatu daguiela, iru bider ura botiagaz, Curutze modura
eguiten daubela bota aldi bacoitza, batiaquetan danaren, bu-
rutic bera, bere verba santubac bein bacarric esaten dauben
≈ bitarte guztian onela: nic batiaquetan zaitut Aitiaren + (emen
≈ lenengo urbotatia) eta Semiaren + (emen bigarrena) eta Espi-
≈ ritu + (emen irugarrena) Santubaren izenian. Amen; batia-
quetaco modu au ez da premiñacua, Sacramentu au eguiaz
eguiteco, baizican Eliza Santac aguindu dabena, Bautismo
~ santuba obeto emuteco; eta ala errazoiac dacar, modu oneta-
~ ra batiaquetia estu ordubetan ere, al dedin guztian, gañerun-
~ tzan ez: orobat; Parroquietaco Ponteetan egon oi da ur bedein-
catuba, berariz, batiaquetaco, bedeincatuba, eta ur santu one-
gaz emun oi da beti, aguiria esaten deutsagun, Bautismoa;
baña ur mueta au ere ez da premiñacua, Sacramentu au
eguiaz eguiteco, baizican Eliza Santac aguinduric daucana,
Bautismo santuba obeto emuteco; eta ala estu ordube-
tan, ur onegaz ezin badau batec, batiatu, beste edozeiñ ure-
gaz naiz Yturricuagaz, naiz Ybaicuagaz, naiz beste edozei-
ñegaz, egarri danac edan leiquiana, eta ura, galtzaca daguana,
izan ezquero, batiatu leique, eta batiatu biarco leuque: oro-
bat; eracusten da Eliza Santan, ura ezarri biar dala batia-
quetan danaren burutic bera, burubagaz batera sorbaldac
ere zerbait bustiten deutsala; eta ala Jaquintsu guztien iri-
tziac baten dagoza, onela ezarriricaco uragaz verba san-
tubac esanagaz batera eguiaz eta ondo emunic gueldique-
tan dala Bautismoco Sacramentu au; argatic estu ordube-
tan ere aldan guztian onela ura ezarriagaz nor naic batiatu
biarco dau: orobat; izentau ditudan, ura ezarriagaz batera
esan biar dirian, verba santubetatic lenengua, zeña dan: nic,
eta azquenengua, zeña dan: Amen; ez dira premiñacuac, Sa-
cramentu au eguiaz eguiteco, baña jaquiñian esan bagaric iz-
teia beti izango da pecatu; beste verba santu guztiac aiñ pre-
miñacuac dira, zeinda eurac bagaric ezin eguin leique Bau-

tismo santuco Sacramentu au: orobat, Eliza Santan quez-
ca edo bildur errazuazcoren bat daguan guztian, eguiaz
emuna ete dan edo ez Bautismo santu au, edozein aldetic
soztu dedilla bildur errazuazco au, berriz batiaquetan
~ da onela: batiaturic bazoazgoz eguiaz, ez zaitut batiatu (aizu);
~ baña eguiaz batiaturiz ez bazoazgoz: Ric batiaquetan zaitut
~ Aitiaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian.
~ Amen; esaten ditubala verba santu, oneic, ura ez esaiagaz
batera: onela Sacramentu au barriztan bagaric, utzian lenaz eguiñic badago, gueldiquetan da eguiaz emunic: onela
bada uroigaz batiaquetan danaren Corputza bustitia, eta, bustiagaz batera, batiatzallac batiaquetan danaren gañian,
izentau ditudan, verba santubac esatia guztiz premiñacuac diran, eguiaz eguiteco Sacramentu au, eta ezuac
~ bagaric ez dago Bautismoric; eta esaeaz bat eguiaz
~ batiaturic gueldiquetia da, Jesus maitiac Nicodemusi esan ezan entsan leguez, bat berriro jaiotia uragandic
~ eta Espiritu Santubagandic, Zeruco Erreinuban sartzeco.

Bacarrecua bada, esaten deutsagun, Bautismo santu au estu ordu guztietan emun biar dau, batiatu biar danaren uzuian edo inguruban auquiquetan diruanen artian, ondoen emuten daguianac, batiatu biar danaren Aita
~ edo Ama izanagatic ere; baña naiz Aitiac eta naiz Amiac itzi biar deutsai, batiaquetaco, languei oni, batiaquetan
~ ondo daguian, beste edozein auquiquetan dan guztian, zegatic Eliza Santaco leguiac eragotziric daucai Gurasuai
≈ estu ordubetan ere bezen Ymiac batiaquetia, egon ezquero besteric batiaquetan ondo daguiona, naiz dala Guizacumia naiz dala Emacumia; eta ala oneitatic beste edozeñec emun biar deutsa, premiñan daguanari, Bautismo santuba, eta ez Gurasuac.

Bardin batiatu biar danaren inguruban auquiquetan badira batiaquetan ondo daguien Persona asco Guizon eta Emacume, errazoiac dacar, Emacumiac azquenengo izatia Bautismo santuba emuteco; orobat, Guizacumeen artian auquiquetan bada bestaco Eretore Jauna, onec eta ez bestec emun biar deutsa premiñan daguanari Bautismo santuba, Eretoriaren ondorenguac izan biar dau Sazerdotiac, onen ondorenguac Diaconuac, eta azquenenguac izan biar dau Guizacume ordentzaguiac, Bautismo santu au emuteco; baña au guztiau aitu biar da, bardin honestidadiac eragozten ez badeutsa Guizacumiari sartzeia, premiñan daguanari, Bautismua emutera; bada ordubau, batiaquetan ondo daguian, edozein Emacumec santu biar dau, Bau-

tismo santuba emutera, bertaco Jnnetore Jauna an aur-
quita agatic ere.

Çauvinic, zeiñ premiña andiena dan Bautismoco Sacra-
mentu au, Zerura juateco; zeiñ dan onen çquilla eta çinal-
la estu oxdubetatic ostian eta estu oxdubetan; eta zerme-
diz emun biar dan, eguiaz emuna izateco; guazen orain
esatera, nor dan batiatu biar dana, eta batiatu ditequia-
na.

Batiatu biar diza bada çliza Santaren Legue graziaz-
co onetan, Mundubat jaioten dirian, Adan eta Çaharen Jator-
ri guztiac, Corputzian Arimia daucain bitartian (au da) vi-
zi dirian bitartian, bardin, Zerura juatia, gura badanbe; zer-
gatic Legue santu onetan gauza jaquiña da, Zeruraco vidia-
ren asipen bacarra dala Bautismoco Sacramentu santu
au, eta, au artu aldaiquiela, eguiaz eta obraz artzeiari iz-
ten deutsainac, gura ez daubelaco, ezin salbau ditezkeiela;
bacarric bada, au bagaric salbau ditezque uso erraztiazco-
an santuric dagozen Persona aiec, zeñac, euquiric vorondate
exime bat eguiaz, biotzetic, eta benetan, Bautismo santu-
ba artzeco, guelditu ei dirian beren culpa bagaric batiatza-
ca, iste bagaco eriotziac anchiquetan ditubalaco; onelacu-
ac bada, bardin badaucai, vorondatez eguin dituben pecatu
guztien gañeco Contrizinoco damutasun eguiazcua, Jaungoi-
coaren aurrian Christauin Catolicuac diza, bere graziz santu-
ban dagoza, eta salbaitan diza; eta esan gura agatic, estuor-
du onelacuan beren buruba eurac batiatu eiquiela, au
ezin ditequian gauza da; bestec batiaquetan ez dituban bi-
tartian, utsa da Bautismua, eta utsian jausten dana: salbau
exe ditezque batiatzaca alegia, Jaungoicoaren Martiriaco eriotziagaz.
Çaan deutsut, Ausquidia, eun eta oguetabost gauzen of-
caren arpeguiaren azquenian eta bere ostiaren asipenian, çli-
za Santac daucala aitzera, emateco Aurrai Sacramentu
santu bi bacarric, eta, oneitatic bata dala Bautismo san-
tuba; baita ere, nola çliza Santac berac ifini ei deusten
Aurrai, eurac ezin daubena, eta premiña daubena, Sacra-
mentu bi onei eguiaz eta beren esku santubac errezivi-
taco; baña çliza Santac Aurrac batiaquetaco daucan aitze-
ra santu au gordetan dau bacarric Christauinen çuzpaeaz
eta ez batiatzaca esi dirian Infielen Aurracaz; bada be-
ren Guraauen gura ezian, iguintaurian, eta atzecabian
ez ditu batiatu gura onexianen Aurrac, illtera ez duazen
bitartian.

Sarritan aitatu dodan Manualeco Albiru santuban çli-

za Santac ucaqueran dau, batiaquetia bere Amaren sabel barruban daguan Aurric; eta ala Aurra Jesu-raco berriro jaio baizen, lenago izan bian dau jaioac; ba-corric bada, Seinquintza necesuetan guertatu oidan leguaz, Aurra, guztiz jaia bagaric, illgo dan bildur erra-zuazcua daguan guztian, aquinqueran dau, batiatu dedilla Aurra, bere Amaren sabeletic campora lenen-go etaraten daben, beroan escuban edo oñian, eta ondo-ren, ondo jaioten bada, berriro batiatu dedilla, lenago-co Bautismoa equiazcua izan ez bada, eun eta oqueta amargarren ofiaren artian esanic itzi dodan, modubau; baña gauco egueco Ofizialiac, on urtez bada ere, aurre-rago iragoten diza, eta batiaquetan ditube, guztiz guz-tiz Amen sabel barruban dagozen, Aurrac; zergatic be-zen ustian equia da, Busti ditezaquiala uragaz Aur onerian Corputzac, equi au diñuenen bendian badago ere: nic beiñic beiñ esaten deutsudana da, Airaquidia; bar-din Jmacumeren bat, Aurdun dala, illgo baliz, Eliza San-tac, aguin duric dau, ca idegui degnion Ofizialiac bere sabela, eta, vizirric badago. Aurra, batiatu dedin; San Ramon Non-natuaren Ama ill zan, bera sabelian eucala; idegui eu-tsain sabela, eta ecusirric Aurra vizirric, batiatu euban, eta etorri zan Aur au dempora gaz, Santu andi izate-ra, esaten eutsaila Nonnato, zeñac esan gura daben jaio bagacua; au zala, dempora asco da, Airaquidia; ordubau equin zana Jmacume onen Corputz illagaz sarritan equin izan da, eta gauco egunian ere eguten da. Eliza Santan, Aurdun diziala, illten dizian, Jma-curniacaz; eta ala bere Jesusoac, Gurasoac, edo bes-te edozeñec ez daube eragotzi bian iñolaco moduz, bai, equin bian daube beren aldetic dana, idegui dedin ona-zian Jmacume illaren sabela, eta batiatu dadin Aurra, vizirric badago, Jaungoicoaren ploniarac izan dedin eternidade guztian. batiatu bagacuen Corputz illa ez dau santu bat-tacu sagradu ban bestiac az batera.

Eliza Santac, uso arrazuazcuan santuric, dagua-nari ez daqui emuten ez Bautismo santuric, eta ez beste Sacramenturic, berac gura ez badau, eta Sacra-mentubaren esque ez badago; ergatic onerian Personac beren voromdatez gura izan bian daube, eta escatu bi-ar daube Bautismo santuba, onetaraco auziaz ondo guertaturic; bada Fede santuco gauza erabaguia da Eliza Santan, salvauco dana, bere voromdatez Jaungoi-coaren laguntzaragaz babera salvau bian dabela, eta ez

gurra eta gura ezian, Elizac castigubecac Christaun dongac astiquetan beldurtu ere, bere leguia gorde daguien, etaongi izan direzen. Gaurdic irizi deutsut eiun eta ogueta seigarrengo ofiaren arpeguian, Bautismoco Sacramentu au dala, Ilenac esaten deutsegun, bietatic bat, baita ere ofa orren astian, orrian Personac guichienez euguri biar dabela, Bautismo santuba artzeco, demponan, uso ezzazuazcoa eldu zaneric artezaño eguin dituban, pecatuben gañeco Atuzinoco damutasun sobrenatural eguiazcoa, obiago badau ere, euquitia Contuzinoco damutasuna; eta, onela guertatu bagaenac eguiaz errezibitan badaube. Bautismoco Sacramentuba, ez daubela errezibitan bere grazia santuric, guendu artezaño ondorengo penitenzia eguiazcoaren ridez, Sacramentubari zorondatez sartu eutsan, ichiquia: onexian Persona naguriac batiatu oi dira Infielen errietan; eta onelaxuac aurrez icasi biar ditube gure Feda santuco Misterioric aurrenengoac, batez ere aiec, zeñac ondo icasi eta eguiaz siniztu bagaric, ezin iñor salvau diteguian, nola dan laquibia eta siniesquetia, Jaungoico bacar bat dala, ecusten ditugun eta ecusten ez dituguin, gauza guztiac ezeberezetic eguin zituban a; siniesquetia, Jaungoico bacar onegan auziquetan dan, Firidade santisimoco Misterio adoragarria, guere azquen Fin zoragarria dan leguez, beragan siniesquetan daubela; eta azquenic siniesquetia, Firidade santisimoco bigarren Persona, zeña dan Semia, Guizon eguiñic, gugatic Cruztzian bere vizitza emanic, auzpazen eguinan vizturic, eta Zerubetara igorric, dala bitartheco bacarra, guere azquen Fin santuba archiquetaco; iru gauza oneic ez daquiana uso ezzazuazcoa eldu ezquero ezin salvau diteque; Misterio santu oneic beste ondorengo guztiacaz, batez ere Credoan dagozen leguez, aurrez ondo jaquin eta siniztu biar ditube, baita ere icasi biar ditube Aita guriaren Orazino edezra eta amar Mandamentu santubac; eta Bautismo santubaren ezin mirazgarriac; eta, ondoren zortzuric bere biotzian, bere zorondatez eguin dituban, pecatuben gañeco damutasun sobrenatural eguiazcoa edo ia Contuzinocoa, edo ia Atuzinocoa, berac escatu eta artu biar dau Eliza Santaco Ministroaren escutic Bautismo santuba, artu aurrian ucaturic biotzetic Demonioaren, Mundubaren, eta Araguiaren obra mueta guztiac eta emunic zerba, Mandamentubac asoco gordetaco, bere siniste eguiazcoa autortubagaz bateza Eliza Santari, Bautismoa emuten deutsan, Ministroaren aurrian; gueldiquetan diziala onela, batiatubac, ez bacarric, Jesus mautiac exacutsi eusun, siniste eguiazcoa, baita ere ifini eusun, bere leguez santuba gordetaco zorrian beren vizi guztian: bai, Aisquidia; pecatuben gañeco damutasuna-gaz ostiango beste esan dituban gauza oneic guztioc escatu eusun Eliza Santac, gu ere, Aurrac guiñala, batiatu guindubanian, eta, beste baten bitartez zerba emunic, gauza, esan dodan guztia gordetaco: Ido. nivic Aisquidia; eta no la obiaguac izango guinatequian, gañean baño, au scanitan goguan erabillico baguneu!

Esanic itzi deutsut bost garren eta seigarren ojan, nola sortu zan pecatu mortal Originala esaten deutsaguna, Adan eta Esaren Jatorri guztietan; nola guztioc dacargun pecatu au guere Jaioqueraz, naiz guere conzeprinoco demporan izan zitezela gure Gurasuac Christaun Catolico batiatubac eta santu andi batzubec, naiz izan zitezela iñoiz ere batiatzaco Infiel batzubec; baita ere nola, pecatu mortal Original au parcatzaca, iñor sartu ez dan, sartuco ere ez dan Zeruco gloriara: baita ere esan deutsut eun eta ogueta seigarrengo ojiaren arpeguian, ifini euscula Jesus maitiac Bautismoco Sacramentu au, parcaquetaco pecatu Original au, batiaquetan danagan aurquiquetan dirian, vorondatezco beste pecatu guztiacaz batera; argatic, Aisquidia, Aita Astetec ederquiro esaten deutsu, Bautismoco Sacramentuba dala, pecatu Originala eta, batiaquetan danagan aurquiquetan dan, beste edozeiñ pecatu parcaquetaco.

Bautismo santu onec bada, eguiaz eta ondo errezivida ezquero, parcaquetan deuste Aurrai bacarric Jaioquerazco pecatu mortal Originala, zergatic ez daucain beste pecatu vorondatez eurac eguiñicacoric; sortzen deuste beren Animetan Fediaren, Esperanziaren, eta Caridadiaren iru Virtute sobrenatural eta Divinoac, eta Espiritu Santubaren zazpi doaiac; izten ditu Animetan, batiatubac dirianen, arrastuagaz, eta emuten deuste, beren demporan Christaun onac izateco, indarrac; bai, Aisquidia; Aurrac ere Bautismo santuban gueldiquetan dira beren Animetan Ondasun onein guztien Jabe eguiñic, eta Jaungoicoaren Etsai izatetic bere Aisquide izatera iragoric, beren Amen sabeletic urtenic beriala Mundu onetaco Ondasun ascoren Jabe eguin oi dirian Aur batzuben antzera; Persona nagusiai barriz pecatu mortal Originalagaz gañera parcaquetan deuste, uso errazcuan sartu zirianetic arteraño, eguin dituben pecatu mueta guztiac beren pena eterno eta temporal guztiacaz batera, orduban illgo balira, Zerura zuzen Purgatoriora bagaric Juango liratezquian, modura, eta emuten deuste, Aurrai emuten deustela, esan ditudan, beste Ondasun mueta guztiac: gueiago; Bautismoa, aguiria esaten deutsaguna, danian, ifini oi dirian, Aita edo Ama Pontecoac aidetasun espiritual bategaz gueldiquetan dira Aide eguiñic batiatubagaz, eta onen Aitagaz eta Amagaz, eta, Aurrari bere demporan doctrina Christiana eracusteco, zorrian, ez baleuca besteric, norc eracutsi; orobat Bautismoaren Emallia, naiz dala aguiria esaten deutsagun Bautismocoa, naiz dala, estu ordubetan norc naic emuten daben, eta, bacarrecua esaten deutsagun, Bautismoco Emallia, gueldiquetan da aidetasun onegaz beragaz Aide eguiñic batiatubagaz eta onen Aitagaz eta Amagaz; eta aidetasun onec Eliza Santaco Leguetan Aita eta Ama Pontecuari eta Bautismoaren Emalliari eragozten deuste ezconquetia iñoizco demporan batiatu danagaz, eta onen Aitagaz eta Amagaz, eta ezconduco balira, utsian eta ezcontzaca gueldituco lirateque.

~ Bautismo santubac eguiaz parcaquetan ditu pecatu
~ Originala, eta, esan ditudan, beste arterañoco pecatu guztiac; au
~ Eliza Santan Fede santuco eguia da; ala ere orobat da Fede
~ santuco eguia, pecatu Originala parcatuagatic, onen erru donga
~ batzubec, eta onein artian pecaturaco sustraia eta macurtasuna
≈ oñian gueldiquetan diriala batiaquetan danagan; Fede santu-
≈ co eguia ere da, pecaturaco sustrai edo macurtasun au ez da-
≈ la pecatuba, baizican pecatutic sortuba, eta pecatura eruan
≈ gura gaitubana, baña batere calteric eguiten ez deuscuna eta
≈ eziñ eguin deiqueguna, gueuc gura ez badogu Jaungoicoaren
≈ laguntasunagaz batera, eta bai bere bildur santuban vizi dirian
≈ guztiai zabalquetan deustena vide guztiz erraza, andia, eta eder-
≈ ra, Zeruco gloriaraco irabazte ugariac anchiquetaco: egui santu
~ oneic ondo ezaguquetaco, Aisquidia, iracurri eguizu Araguiaren
~ aldetico etsaitasunaren gañian esanic itzi deutsudan guztia, ba-
≈ tez ere eun eta amazortzi garrengo ojiaren astian, eta eun eta eme-
≈ retzi garrengo oja guztian esaten deutsudana: eta guazen oraiñ
aurrera, Sacramentu santu Penitenziacuen gañian serba eguitera.

Sacramentu santu Penitenziacoa

Jaungoico gure Jauna bere Escritura sagradu guztian ez
da asperquetan, esatez eta aguinquetaz Mundu onetaco Pecata-
~ ri guztiai, eguin daguiela beren pecatuben gañeco penitenzia egui-
≈ azcoa; egunetic egunera luzapenic artzen, eta pecatuba pecatuba-
≈ ren gañian gueiquetan ibilli bagaric, beren pecatuben erruquiaaren
≈ Divina Magestadiac euquico deusten ustian, dalaco aiñ andia
≈ eta ondar baguecua bere guganaco erruqui santuba; bada us-
≈ te onec Ho! Aisquidia, eta zembat bider uts emuten deusten Peca-
≈ tariai! zergatic, Fede santuco eguia dan leguez Jaungoicoa-
~ ren guganaco erruquia dala ondar baguecua, orobat da Fe-
~ de santuco eguia, bere Justizia adoragarria dala ere neurri
~ baguecua; eta, Pecataria, penitenzia eguiazcoaren videz bera-
~ gana biurquetan danian, poztzen dan leguez bere ondar bague-
~ co erruquiagaz, orobat, Jaungoicoagan erruquiagaz batera eta
~ onen urrian aurquiquetan dan, bere ondar bagueco Justizia san-
~ tubac izutu eta larritu biar dau, pecatuba pecatuben gañian
~ eguiten vizi dan, Pecatari gogortuba: bai, Aisquidia; bere Erreinu
santuco azquenengo demporetan bere Seme Jesus Divinoaren etor-
rera santubaren gañeco barriac aurraz Judegubai emutera bial-
du eben San Juan Bautista gloriosuac ere modu onetan asi eben
~ bere langueia: eguin eguizube penitenzia; zergatic urreratu
~ da Zerubetaco Erreinuba: orobat onen ondoren bialdu eben bere
Seme eta gure Redentore Jesus Divinoac emun eutsan asipena
~ [illegible] bere eracustiari serba oneicaz euracaz, esaten ebela: eguin egui-
~ zube penitenzia; zergatic urreratu dan Zerubetaco Erreinuba: eta

beragana albizte donga bategaz etorri zirian Judegu batzu-
~bei esan eusten: bardin eguin ez badaguizube penitenzia
~guztioc orobat galduco zarai: beraz, Aisquidia, izanic Ze-
ruraco vide bacarra edo inozenzia edo Penitenzia, aguirian
dago, Bautismo Santuban arturicaco, grazia eta inozenzia
pecatu mortalen bategaz galdu daben, Christauna ezin salvau
ditequiala iñolaco moduz, biurtu bagaric Penitenzia eguaz-
cuaren videz Jaungoicoagana, nogandic pecatubaren vi-
dez igues eguiñic vizi dan.

Penitenziaren izenac berez ez dau aiquetara emuten beste
gauzaric, baizican, batec pensau, deseau, esan edo eguin da-
~ben, gauzaren baten gañeco damuaria, naiz gauza au, zeñaren
gañian artzen daben damuaria, izan zedilla donguia, naiz ona;
baña Jaungoicoaren eta Eliza Santaren izcunian Penitenziaren
izen onec aiquetara emuten deuscu bacarric, aren Divina Ma-
~gestadiari eguin deutsagun, pecatuben gañeco damuari egui-
~azco bat, eta, damuari onetatic sortzen edo jaioten dirian, bes-
~te campotico frutu edo obra eguiazcuac.

~Penitenzia santu au aitu diteque bi modutan, bata Virtu-
~tia dan aldetic, eta bestia Sacramentuba dan aldetic: Virtutia
~dan aldetic ez da beste gauzaric, baizican aren Divina Mages-
~tadiac gure Animetan sortu izan daben eta sortzen daben Virtu-
~te sobrenatural bat, maiquetan gaitubana, eguin deutsa-
~gun, pecatu guztien gañeco damuari eguiazco batera, eta, da-
~muari onetatic jaioten dirian, campotico obra eguiazcuac egui-
~tera; modu onetan aituric Penitenzia, Munduban Guizona sor-
tu zanetic, onacua da, eta guztiz premiñacua, pecatubaren vi-
dez Jaungoicua galdu daben, guztia, beragana biurturic, sal-
vaitaco.

~Penitenziaco virtute santu onen langueiac edo obrac di-
~ra bi modutacuac, batzubec dira biotzezcuac (au da) nobe-
~raren biotzian eta barruban eguiten dirianac, campora aguer-
~tu bagaric; nola dirian Contrizinoco eta Atrizinoco damuari-
~ac, guero bere lecuban esango ditudan leguez: bigarren lan-
~gueiac edo obrac dira, biotzezco languei edo obrac dirian, Con-
~trizinoco eta Atrizinoco damuari eguiazcuetatic sortzen eta
~jaioten dirian, eta, noberaren azaletic campora urten oi dauben,
~obra mueta guztiac, nola dirian pecatuben autormen aozcoa
~Jaungoicoaren aurrian, beguietaco negar malcuac, Pecatari-
~ac bere pecatubacatic Jaungoicoari emuten deutsan satisfacci-
~noco obrac, eta, bere arterañoco pecatubetaraco vidiai alde
~batera itziric, aurrera vizitza on bat eguiteco, artzen dituban,
~vide barriac: lenengo obra muetai esaten deustegu biotzezco
~penitenzia, eta oneitatic jaioten dirian bigarren obra muetai
~esaten deustegu campotico penitenzia: Penitenziaco virtute

santu au bada sortzen dau Jaungoicoac gure biotzetan, gue-
re pecatuben gañeco penitenzia mueta bi oneic, ala biotzezcua,
nola campoticua eguiaz eraguiteco; bata eta bestia aguinque-
tan oleuscu Vatute santu onec; argatic biotzezco penitenzia egui-
azcuac beragaz daucan leguez, (esan dodan) campotico peniten-
zia eguiaz eguiteco, vorondate edo gogo errime bat, orobat cam-
potico penitenzia au, alditeguian andiena eta miragarriena
izanagatic, utsa da, bardin faioten ez bada biotzezco pani-
tenzia eguiazcotic.

~Penitenzia, bigarren moduban aituric (au da) Sacramentuba
~dan aldetic, ez da beste gauzaric, baizican, Jesus maitiac bere
~Esposa eta gure Anma dan Eliza Santari ifiñi edo itzi eutsan, se-
~ñale bat, emuteco guri onen videz, batiatu ezquero eguiñicaco,
~pecatu mortal guztien aurrenengo, baita ere ondoren pecatu ve-
~nialen parcazinua, eta, aren Divina Magestadiaren Gracai iza-
~tetic bere Airquide izateza iragoten gaituban, bere grazia san-
~tuba: esan dot, dala Sacramentu edo Señale santu au ifiñia, emde-
co guri aurrenengo pecatu mortal guztien parcazinua; zergatic
oneic bacarric galdu eraguiten deutsai batezi Bautismo santu-
co grazia eta inozenzia, eta ez pecatu venialac, zeñen errua ba-
~corra dan leguez Caridade santuba zerbait guchiquetia, oro-
~bat bereu parcazinoraco Sacramentu santu Penitenziaco onegaz
~astian dagoza, Aita Astetec eracusten deuscun leguez, beste bede-
~ratzi vide, eta oneicaz ostian edozein Sacramentuc dauca errua,
~pecatu venialac parcaquetaco.

Penitenziac, onela aituric Sacramentuba dan aldetic, Jesu
Christo gure Jaunagandic onacua dau, Virtutia dan aldetic, Mun-
~duban Guizona criauba izan zanetic, onacua dan leguez: Jesus maiti-
~ac bada, bere Eliza Santaco Miembroac Legue graziazco onetan
~eguiten dituben, Virtute santu onen laguei edo obra mueta biac
~(au da) penitenzia biotzezcua eta campoticua, sauso zituban
~Sacramentubaren izateza eta anditasunera, arteraño ecusiez
~zana lenagoco demporetan, emuten eustela bere Discipulu
~Aposto lubai, eta, onein ondorengo Sucesoriac Ordenaco Sacra-
~mentubaren videz izan bia euben, Guizaeumiai escuridia,
~parcaquetaco, biotzezco eta campotico penitenzia eguiaz egui-
~ten dauban, Christaunai bereu pecatu guztiac, baita ere, parcat-
~zaco iziteco, penitenzia mueta bi oneic eguiaz eguin gura ez eu-
~ben, Christaunai: emendic da aguiri, Sacramentu santu Periten-
~ziaco onec beragaz dituben Penitenziaco virtute santuba, eta
~bere laguei edo obra mueta biac, eta euroc bagaric ezin egui-
~az izan diteguiala Sacramentu santu Penitenziacoric, batec, bio-
~tzezco eta campotico penitenzia eguiten daben guztian, errezi vitan ez

~badau ere Sacramentu Penitenziacua; zergaitic penitenzia mue-
ta bi oneic, Christaunac edozein demporatan eguin daiquianac,
dira Sacramentuba artu aurrian, artzeco demporan, eta ar-
tu ondoren, Penitenziaco Sacramentu au artzeco premiñacu-
ac baditu ere, eta, Sacramentu au eguiaz artzeco, gogo edoas-
mo errimia euracaz dacardenac.

Ecusi dozu, Aisquidia, zeiñ premiña guztizcua dan,
pecatu mortalian Jausi dan, Pecatariac bere pecatu guzti-
en gañeco penitenzia eguiazcua eguitia, salvauco bada;
baita ere ecusi dozu, zer dan Penitenziaco virtutia bere lan-
guei edo obra mueta biacaz, eta zer dan Sacramentu Peni-
tenziacua; ecusi daigun oraiñ, nolacuac izan biar daben
penitenzia onec, pecatu mortalian Jausi dan, Pecataria sal-
vaitaco, duiñ garacua izateco.

Guizona Munduban sortu zanetic Jesus maitiaren Legue
~graziazcua zaifinau bitartian, beren vorondatezco pecatu mor-
~talian Jausten zirian, Persona guztiac, Guizon eta Emacume,
salvauco bazirian, sortu biar euben beren biotzetan pecatu guz-
tien gañeco, Contrizinoa esaten deutsagun, damuari sobrenatu-
ral eta eguiazco bat; bada bacarric salvau zitezquian biot-
zezco penitenzia mueta onegaz, eta, emetic Jaioten dan, campo-
tico penitenzia santubagaz, euqui ezquero onetaraco dem-
pora, eta escuvidia; zergaitic, Atrizinoco damuaria esaten de-
utsagun, biotzezco penitenzia, izanagatic ere berez guztiz sen-
doa, eta campotico penitenzia ugariac bateri eraguiñagatic ere,
bera bacarric ez da iñoiz izan, pecatu mortalian Jausi dan, Per-
sonia salvaitaco, duin garacua; berac bacarric, Contrizinoco da-
muaria izatera, eltzen ez dan bitartian, ez dauca indarric, pe-
catu mortalac parcaquetacoric, eta, oneic parcaturic, bat
estadu graziazcuan ifintecoric; Contrizinuac barriz, Jaun-
goicuari batec gauza guztien gañeco deutsan, amoriotic Jaioa
dan leguez, sortzen dan instantetic Pecatariaren biotzian, pe-
catubac parcaturic, ifinten dau Pecataria Jaungoicoaren gra-
zian; Contrizinoco biotzezco penitenzia santu onec berez dau-
ca erru miragarrizco au Jaungoicoaganaco amorioaren al-
detic, bada ezin ditequian gauza da, Pecatariaren Animan ba-
tera aurquiquetia pecatu mortala eta aren Divina Magesta-
~diaganaco amorio eguiazcua; zergatic, Fede santubac eracus-
~ten deuscun leguez, pecatu mortalac quentzen deutsa Eguilli-
~ari amorio santu au, eta amorio santu onec Contrizinoco da-
~muariagaz batera estalquetan eta quentzen deutsa Pecata-
~riari bere pecatu guztiac, ugariac eta andiac izanagatic.

~Esan deutsut, Aisquidia: beren vorondatezco pecatu
~mortalian Jausten zirian Persona guztiac: zergatic Jaioqueraz

dacargun, pecatu original onec, berez mortala izanagatic, eta ze-
ruco gloria eragotzi agatic parcaquetan ez dan bitartian, nobe-
raren vorondatez eguiña ez dan leguez, ez deuscu escaquetan
penitenziaric bere parcazinoraco, baizican, aren Divina Mages-
tadiac Eliza Santaco Legue mueta guztietan onetaraco ifini izan
dituban, erremedioac artzeia bacarric, nola dan azquenengo
Legue graziazco onetan Bautismoco Santuba artzeia; argatic
ere pecatu originalagaz bacarric illten dirian Aurrac ez daube eu-
quico, Limbua esaten deutsagun, Infernuco toquian gloriaric, ez
da ere, beren vorondatezco pecatubacatic condenaitan dirianac
leguezco, batere atsecaberic; bada ontzat ezagutu eta emun-
go daube alde guztietatic Taungoicoaren euracanaco Justizia
santuba, eta bere Divina Magestadiaren glorian ez egotiac ezde-
uste emungo batere atsecaberic.

Jesus maitiac, bere Esposa eta gure Ama dan, Eliza San-
ta ifiñi ezquero, oraiñ daucan, azquenengo Legue graziazco
onetan, beren vorondatez pecatu mortalian Jausi dirian Perso-
nac salvaitaco duin garaco penitenzia eguiazcoric batere ez
dago Sacramentu Bautismoco eta Penitenziaco oneic bioc baga-
ric, artu aldaiquiela, artzeiari izten badeutsai, gogoric, artze-
co, ez daucailaco; eta, artzeco Sacramentu bioneic, gogo errimia
daucaila, salvau ditezque, bacarric beren culpa bagaric artzaca,
illten dirianian, daucaila, Contrizinoco damuaria esaten deut-
sagun, biotzezco penitenzia, edo, Atrizinoco damuari sobrena-
tural eguiazcua, quichienez daucaila, Martiri illten badira, Martirio santu-
baren gañian verba eguin dodanian, esanic itzi deutsudan leguez;
bada Jesus maitiaganaco eta bere Fede santubaganaco gorrotoz be-
re Etsaiac bateri, batiatzacaco, eta batere ezagupera bagueco, eta be-
re Amaren Sabel barruban daguan, Aur bat izanagatic ere, itzuli
eraguiten deutsain, bere zanetaco odolac guztizco erruba dau-
ca, parcaquetaco, ala batiatzaca daguanari, bere pecatu origi-
nala vorondatez eguinicaco beste guztiacaz batera, nola, batiatu-
ric daguanari, daucan, pecatu guztiac, Ychasuan ur tanta aña
millue pecatu mortal baleuca ere, eta onela itzuliricaco odolac
nor beraren Anima ederrago ifinten dau Taungoicoaren aurrian Sa-
cramentu Penitenziacuac baño, eta aiñ ederra, zein itzico leuquian
Bautismo santubac berac, batiaquetan danaren Anima.

Azquenengo Legue santu graziazco onetan bada, batiatza-
ca daguan, edozein Persona nagusic, esan ditudan, estu ordu onei-
caz ostian ezin eguingo dau Bautismoco Sacramentu bagaric, sal-
vaitaco duin gara, premiña daben, penitenzia eguiazcoric, eta, bai,
eguingo dau bacarric bere pecatu guztien gañeco penitenzia egui-
azco au, eun eta ogueta amabigarren ojiaren arpeguian esaten
dodan leguez, guertaturic Bautismoco Sacramentu santuba errezivi-

dubagaz beste bagaric; bai, Aisquidia; onela eta ez beste moduz eguingo dau bere pecatu guztien gañeco penitenzia eguiazcua, eta, Jesus maitiac Evangelio santuban aguinquetan deutsan, moducua; eta, penitenzia eguiazco onen bitartez Bautismo santuban, bere pecatu guztiac parcaturic, sartuco da, Mundu onetaco Ychaso aserratubaren ur gañian bere salvazinoco Portura (au da) Zerura Juateco, premiña daben, Jaungoicoaren graziazco lenengo Ontzi santuban, nundic ere Bautismo santubac Eliza Santaren izcunian dauca lenengo Ontzico Sacramentubaren izena.

Batiatuba dan Personiac bere vorondatezco pecatu mortalen aize izugarriagaz galdu badau bein, Bautismo santuco Portutic etara eben, Jaungoicoaren graziazco Ontzi santuba, aguirian dago, ezin Juango dala salvazinoco Portura, beste Ontzi bateri escuba ezarten ez badeutsa, eta an sarturic ez badua (da esatia) ezin onerian Christauna salvau diteque, berriro bere pecatu guztien gañeco penitenzia ala biotzezcua nola campoticua eguiaz eguiten ez badau, Jesus maitiac bere Evangelioan guztioi aguinduric itzi euscun, modura; Juan biar dau bada Penitenziaco Sacramentu santubaren Portura, eta portu santu onetan artu biar dau bere, premina daben, graziazco bigarren Ontzi santuba, nundic Sacramentu Penitenziaco onec dauca Eliza Santaren izcunian bigarren Ontzico Sacramentubaren izena: argatic onerian Christaunac ezin eguingo dau, bera salvaitaco premina daben garaco pecatuben gañeco penitenzia eguiazcoric Sacramentu Penitenziaco au bagaric, esanic itzi ditudan, estu ordubacaz ostian; alperric berac bacarric eguingo lituque, Zeruco Santu eta Santa guztiac Mundu onetan eguin zituben, penitenzia izugarri guztiac, bardin Penitenziaco Sacramentu santu au artu aldaiquiala, artzeiari izten badeutsa, gogoric ez daucalaco, onen penitenzia guztia izango lizateque guezurrezcoa, eta onerian Christauna condenauico lizateque; eta Sacramentu Penitenziaco au ondo errezividubagaz eta emen aguinduricaco penitenzia eguiñagaz beste bagaric eguingo dau onerian Christaunac, Jesus Divinoac bere Evangelio santuban, eguiteco, aguinquetan deutsan, bere pecatu guztien gañeco penitenzia eguiazcua ala biotzezcua, nola, biotzezcotic sortzen dan, campoticua: eguia da; Sacramentu santu onen Lagun onac, eta Jaungoicoac guztiz laztan eta maite ditubanac dira, onerian Christaunac Sacramentu Penitenziacuan eguiten daben penitenzia eguiazcuagaz gañera vorondatez eguin aldaiquian eta eguiten dituban, beste penitenzia mueta guztiac bere vizitzan; eta, vorondatezco penitenzia santu au, Penitenziaco Sacramentuban eguiten dabenagaz gañera, eguiteco Christaunac bere vizitzan, batez ere pecatu mortalen batzubetan Jausi dala ezaguequetan dabenac errazue asco dauca;

~Espiritu Santubac esaten dau: ez daqui Guizonac, (Jaungoi-
~coaren) amorioa ala [illegible] gorrotua merezi ete daben: gueia-
go; Fede santuco eguia bada ere, Penitenziaco Sacramentu onec par-
caquetan ditubala pecatu mortal mueta guztiac, sarritan eta
ustez ondo confesau baditu ere bere pecatubac, ez daqui egui-
az, parcaturic ete dagozen edo ez bere pecatubac; argatic Espi-
~ritu Santubac berac esaten deutsa onerian Pecatariari: ez zaite
~egon nai pecatu parcatubaren gañeco bildur bague; gueiago;
Sacramentu Penitenziaco au ez da aiñ erru andicua, nola dan
Bautismoco Sacramentuba; Bautismo santubac parcaquetan
ditu pecatubac beren pena mueta guztiacaz batera, ez deutsa
izten batiaquetan danari batere pena eterno edo temporalen zor-
ric; argatic Eliza Santac ez deutsa batiaquetan danari batere
penitenziaric erabaguiten eta emuten, zer eguiñ: Penitenziaco
Sacramentubac barriz parcaquetan ditu, bai, pecatu mortal
guztiac, eta oneicatic batec irabaziric eucan Infernuco pena eter-
noac, baña [illegible] izten dau Pecataria pena temporal baten zorri-
an, zeña irago biarco daben Mundu onetan edo Purgatorioan; ar-
gatic Confesoriac, Sacramentu santu onen Emallac, beti emun oi da-
ube emen penitenzia batzubec zor temporal onen satisfaccino-
raco, guero esango dodan leguez; errazue oneicatic Santu-
bac Penitenziaco Sacramentubagaz gañera eguiten zituben
eta gaurco egunian ere Christaunic ascoc eguiten ditube be-
ren vizitzan vorondatezco penitenziaric asco, eta onegaz
ostian eguiten daube aleguiña, irabazteco, Eliza Santac emu-
ten dituban, Indulgenzia mueta guztiac, Penitenziaco Sacra-
mentu onetan guelditu oi dirian, pecatu parcatubacatic pena
edo zor temporal guztien parcazinoraco edo satisfaccino-
raco; baña moduren batera esan daiquegu, penitenzia oneic guz-
tioc diriala, batec sarritan eta ondo errezivitan daben, Sacra-
mentu Penitenziaco onen erru santubac, ia batetic Sacramentu
santu onec indarrac emuten deutsalaco, penitenzia gueiagoco one-
ic eguiteco; [illegible] ia bestetic onerian Christaunac ez daquielaco,
onerian gauzaric eguiten, beren Confesoriai itanduric, oneic ont-
zat emuten ez deusten bitartian; bada beti ichu ichuban vizi dira,
eseguiric beren Confesorien iritzitic, eta beren biotzetaco irit-
≈ziac ticaturic; onela beren vorondatiaren gora berac ezertan utsic
≈eraguin ez deguien: onela vizi dan Christauna, bere vizi guztian
dabil bere pecatuben gañeco penitenzia eguiten, salvaitaco duin ga-
ra asco badau ere, Sacramentu Penitenziaco au eguiaz eta ondo er-
rezivitia, eta, Confesoriac erabaguiten deutsan Penitenziari on-
do erantzutia: eguia da; biotzezco penitenzia bere pecatubaca-
tic euqui biar dau Christaunac bere vizitzan, eta ez vizi epeltasun

andiaz.

Orainguiño esan deutsudanetic, Aisquidia, aguiñan dago, Sacramentu Penitenziaco au ondo exeziñdubagaz, eta, eman aguinduzkaco, penitenzia eguiñagaz, pecatu mortalian jausi dan, Christaurac eguiten dabela, Jesus maitiac bere Evangelioan aguinguetan deutsan, penitenzia eguiazcua; eta Sacramentu Penitenziaco au bague ezin eguin daiquiala penitenzia eguiazcoric; baita exe aguiñan dago, bigarren Ontzico Sacramentuba esaten deutsagun, Penitenziaco au, salbaitaco, aiñ premiña guztizcua dala, pecatu mortalian jausi diñan, Christaurentzat, zeinda dan, lenengo Ontzico Sacramentuba esaten deutsagun, Bautismoco a batiatzaca dagozen guztientzat: orain guazen esatera, nortzubec diñan Sacramentu Penitenziaco onen Eguilla edo Emallac: nortzubec Artzallac: zertan daguan Sacramentu santu onen izatia: zer demporetan edo noiz Sacramentu santu au artzeco, aguinguetan deuscuben ala Jesus Diñuac, nola bere Esposa eta guze Ama dan, Eliza Santac: eta axquenic, zer gauza diñan Indulgenzia santubac.

Pecatari bat, pecatubac parcaturic, justuba [illegible] eta a [illegible] na eguitia, da Taungoico guztiz poderosoaren obra, baña ez nola naicua, baizican bere obra guztien artian andiena eta miragarriena; argatic Eliza Santac esaten deutsa Orazino baten aren Diñna Magestadiari: eracusten dozu zeure poderio guztizcoa, parcaquetan beti, eta ezcuquia euquiten: bai, Aisquidia; pecatubac parcaqueta au aiñ bacanric izan da Taungoico baten escuride guztizcoaren obra miragarria, zeinda, Jesus maitiac perlesiagaz ipaturic eguan Guizon batgu, bere aurrera ecarri eutsaiñan, osasuna emun eguion, esan eutsaiñan: Guizona, parcaquetan zuizquizu zeure pecatubac: Judeguben arteco jaquintsubenac (au da) Escribac eta Fariseac, au entzutric, ausi ziñan beren biotz barrubetan esaten onela: nor da, blasfemiac esaten ditubanbacanic au? nork pecatubac parcatu daique Taungoicoac, baña (bacanic bacastec.?) aiñbesteraño icaratu ziñan, edo mira eguiñ euben, Jesus maitiari ori entzunagaz; eta au guztatu zan onela, zergatic Guizon madaricatuaiec ez euben ezaguitu guza Jesus maitia Taungoicotzat; baña Jesus maitiac, laster ikusi zituban Guizon zatar oneic, sendatubagaz ondoren guztien aurrian Guizon gaiñua, onembatagaz sinistu eguien, Guizonaren semiac encala escuridia, gaiñua sendaquetaco leguez, pecatubac parcaquetaco exe: alabadau, Aisquidia, Taungoicoaren Semia, eta Taungoico eguiazcoa, Guizon eguiazco eguiñic, Mundu onetan aguertu zanaiño, ez zan iñor escuri Guizacumen artian, pecatubac parcaquetaco, escuridenic encanic.

Jesus maitia bada izan zan, Mundubar pecatubac parcaquetaco, escuridia euquiteta esacutsi eben Guizona; baña (zuengo.

Pecatariacanaco erruquiac eretsi eben leguez aren Divina Magestadia, Guizatasuneco soñecua artzera, erruqui onec beronec eragotzi eutsan, bera izatia Lurraren gañian esquvide onetaco azquenengo Guizona; eta ala pecatubac parcaquetaco escuvide miragarruzco au zabaldu eta emun eusten bere Diszipulu Apostolubai, esaten eustela bein batian onela: ~edozeiñ gauza lotu daguizubela Lurraren gañian, izango dira ~lotubac Zeruban ere, eta edozeiñ gauza ascatu daguizubela ~Lurraren gañian, izango dira ascatubac Zeruban ere: eta bes~te batian onela: arzazube Espiritu Santuba: nortzuben peca~tubac parcatu daguizuben, parcaquetan zaizquie; eta nortzu~benac (parcatzaca) itzi daguizuben, (parcatzaca) gueldituba dira: lenengo aldico verba santubac esan eusten Jesus maitiac Apostolubai, ill baño lenago, euracaz vizi zala; eta bigarren aldico verba santubac barriz esan eusten, Yllen artetic viztu ezquero, Apostolubai aguertu zan, bein batian: Eliza Ama Santac bere Esposo Jesus maitiaren verba santu oneitan, batez ere, Yllen artetic vizturic, esan zituban, bigarren aldico oneitan berialatic aitu eta sinistu izan eben Sacramentu santu Penitenziaco au, eta onen videz pecatubac parcaquetaco, Jesus maitiac emun eusten, escuvidia, ez bacarric, verba aiec entzuten egozen, Apostolu Santubai, baita ere, onein Sucesoriac Sazerdotearen Ordenaco Sacramentubaren bitartez, Mundubac dirauban bitarte guztian, beren demporetan izan biarco euben, Obispo eta Sazerdote guztiai; onela Jesus Divinoac, berea bacarric zan, pecatubac parcaquetaco, escuvidia, Penitenziaco Sacramentu au ifiniagaz batera, emun eusten Apostolubai eta Apostoluben Suzesore Obispo eta Sazerdotiai, izten zitubala eguiñic, batiatubac izan ezquero pecatubetan jausi dirianen, Animetaco Jueztzat, beren oñetara pecatuben parcazinuaren billa etozen Christaun guztiai erabagui eguien beren Animetaco auzia, edo ia pecatubac parcatubagaz, edo ia parcatzaca itziagaz, edo ia onelaco edo alaco penitenzia mueta erabaguiagaz edo aguindubagaz: Ho! Jaungoicoaren Pecatariacanaco neurri bagueco erruquia! bada aiñ erraz eta aiñ ugaritasun andian emun deuste beren arteco, eta eurac duiñ argalac dirian, Guizon batzubei, pecatubac parcaquetaco, escuvidia, izanic bere poderio guztizcoaren obraric andiena eta miragarriena, pecatubac parcaquetia.

Onela Jesus Divinoac, ifiniagaz batera bere Esposa Eliza Santan Sacramentu Penitenziaco au, erabaguiric itzi zituban bere Emallatzat Apostolubac eta onein ondorengo Suzesoriac; eta ala Aita Santu Erromacuac Eliza Santa guztico Christaunai emun daiquie Sacramentu au, guztien Animetaco Artzain, Buru, eta Jueza dan leguez; Obispo Jaun bacoitzac bere Obispau barruco Christaunai; eta Errietaco Errectore Jau-

nac beren Parroquietaco Christaun guztiai, Erretore di-
rian bitartian; au guztia gauza erabaguia da Eliza
Santaco Leguetan, Obispo Jaun eta Erretore oneic, Aita
Santu Erromacuaren bendian vizi diriala, Eliza Santaco
Miembro leialac dirian bitartian, dongac edo gaizqui vi-
zi dirianac balira ere; bada beren gaiztaqueriac edo pe-
catubac ez deuste quentzen, bestiai Sacramentu onen vi-
dez beren pecatubac pecaquetaco, daucain, escuvidia; bai, Aisqui-
dia; au ere Fede santuco egui erabaguiada.

Eliza Santaco, esan ditudanacaz ostiango, beste
Sazerdote guztiac (ez dot emen verba eguiten Religino san-
tubetaco Aguintariac beren bendecuai Sacramentu au emuteco
daucain escuvidiaren gañian) esaten dot bada: beste Sazer-
dote guztiac, Sazerdotez ordendu zirianian, pecatubac par-
caquetaco artu euben, escuvidiagaz gañera premiña dau-
be bacoitzac bere Obispo Jaunaren aldetico escuvidia, nuen
Obispauban emun gura dauben Sacramentu Penitenziaco au,
beste moduz (au da) beren Ordenaco escuvide bacarragaz
eziñ eguiñ eta emun daiquie Sacramentu au eguiaz iñola-
co moduz, ez ondo eta ez gaizqui; beren eguiñ guztiautsian
Jausico lizateque, eta onelacuacaz confesaitan dirian guz-
tiac eriotzaco estu ordutic campora, gueldituco lirateque
Sacramentu au artzaca, eta beren pecatubac parcatzaca;
emen, eguiaz emuna izateco Sacramentuba, escuvide mue-
ta biac premiñacuac dira, Sazerdotearen Ordenacua, eta
Obispo Jaunarena; ezin Obispo Jaunac emun daiquio bere
escuvidia Sazerdotez ordendu bagacuari, ez da ere Sa-
zerdotez ordendubac emun daique iñori Sacramentu au
Obispo Jaunaren escuvide bagaric eriotzaco estu ordutic
campora; eliñot (eriotzaco estu ordutic campora) zerga-
tic Eliza Santaco Leguiac estu ordu onetaraco Sazerdo-
tez ordenduric dagozen guztiai emunic daucai escuvidia,
estu ordu onetan aurquiquetan dirian Christaun guztiai
emuteco Penitenziaco Sacramentu au, au bagaric conde-
nau ez ditezen: escuvide mueta bi oneic, aiñ premiñacuac
izatia, Sacramentu au eguiaz emuteco, bacarric Sacramen-
tu Penitenziaco onegaz guertaquetan dana da; baita (esateco
modura) Sacramentu Matrimoniocoagaz orobat guerta-tu ditezque
da: Sazerdote uts batec barriz eguin daiquian, beste edo-
zein Sacramentuc escaquetan badau ere Eliza Santan Obis-
po Jaunaren, aldetico escuvidia, Sacramentu Eguillia Erre-
tore ezdan guztian, escuvide au ez da premiñacua, Sacra-
mentuba eguiaz eguiteco, eta bai, ondo (au da) pecatu ba-
garic eguiteco; argatic beren Obispo Jaunen atsecabian emun-
go balitube beste Sacramentubac, izango lirateque Sacramentu
eguiazcuac, bai, baña gaizqui emunac.

Obispo Jaunac Sazerdotez ordenduric dagozenai ermu-
ten deuste, Penitenziaco Sacramentu au beren Obispantzat-an
emuteco, escumidia; Parroquietaco Jrietore Jaunac ere ezin
emun dauquie Sacramentu au gueiagoco bere Obispo Jaun-
aren escumide bagauic iñori, bere Parroquiaco ez danari, Parro-
quiatic campora Obispauco beste Jrietan: baña onetaraco Obis-
po Jaunac beguiraquetan deuste Sazerdotearen jaquinduria,
ontasun eta Virtute santubai; eta ala batzubei emuten de-
uste escumide au bacarric bere dagun Sazerdotentzat; bes-
te batzubei Guizacumentzat bacarric, naiz Sazerdotiac diala,
naiz ez; beste batzubei Guizon eta Jmacumentzat, baña Reli-
giosa ez dirian Jmacumentzat; beste batzubei azquenic emu-
ten deuste Religiosac dirian Jmacumentzat ere bai, bacoit-
zari, ondoen dala, dezitzuen, moduban: orobat daquie Obis-
po Jaunac emuten escumide au Sazerdotiaidenpora luzara-
agoraco edo laburragoraco, nola ondoen dezitzuen: onegaz
ostian Eliza Santaco Legueten erabaquiric dagoza pecatu
mueta asco, Aita Santu Jtromacuac bacarric, eta ez beste
Obispo edo Sazerdotec, pecatu aecatic izabazi izan ditzuben, pe-
nacaz Santaren batera parcatu daiquianac: orobat oi dira Obispau
bacoitzian pecatu mueta batzubec guztiz andiac, Obispo Jau-
nac bacarric parcatu daiquianac; au gueratuqueten da Eliza
Santan, ez, azqueneneco dan Sazerdote batec emun daiquian,
Sacramentu Penitenziacoa izdan guichiagocua dalaco, pecatu-
bac alditezquian andienac izanagatic ere parcaquetaco, Aita
Santu Jtromacuac eta beste edozein Obispoc emuten dabar, Peni-
tenziaco Sacramentuba baña, bada Sazerdote bezenac, eragotziric
ez baleuca, emungo leuquian Penitenziaco Sacramentuba, eta Sazer-
doteric gabenecuac, nola dirian Jtromaco Aita Santuba, eta Obispo Jaun
guztiac, emun daiquienac, bezenzuri bardiñecuac dira; bai zucan au
onela gueratuqueten da, zergatic Eliza Santaco Buru, Agintari, eta Gura-
so dirian, Aita Santu Jtromacuac eta Obispo Jaunac ala aguinduric
daucain Christandadiaren on gueiagoraco, emunic Jesus Jaunac
onetaraco escumidia, Pecatuac obzeratu ditzen eguiteric, aiñ par-
cazino necesaria daucaila, daquien, pecatu izugarri onetanac: erra
batian; nerañocua dan Sazerdote bacoitzaren escumidia ala bere
Obispo Jaunaren aldeticua nola Eliza Santaren Leguecen aldeticua,
antzaño eta ez gueiago dai Sazerdote bacoitza Sacramentu Peniten-
ziaco onen Jmalla, eta, auneraco santuco baliz, ez leuque eguingo
eguiaz Sacramenturic, eta, onelacuagaz confesaitan dan Pecatuba
gueldituco lizateque bere pecatubacaz, batere parcatzaca, eta beriz,
escumidia daucan, Sazerdotiari pecatu aiec confesaitaco, premiñagaz;
au guztia aiquetan da, Pecatuba eriotzaco ordu estuban auzquiquetan
ez dan bitartian.

Eriotzaco ordu estuban aurquiquetan dirian Christaun guztientzat guztiz erruquiorra da Eliza Ama Santa; bada, Sacramentu santu au bague iñor condenau ez dedin, emunic dauca escuvidia Sazerdote guztiai, Sazerdote izanagaz beste bagaric, emuteco Penitenziaco Sacramentu au, eriotzaco ordu estuban aurquiquetan dirian, Christaun mueta guztiai, eta batere laburtasun bagaric edozeiñ pecatu mueta, Escomunio edo beste edozeiñ onerian Eliza Santaren pena parcaquetaco; au aiquetan da, ez daguanian ordu estu artan, escuvidia onetaraco lenaz daucan, Sazerdoteren bat, edo, egonagatic, gura ez dabenian, emun Sacramentu santu au, premiña estuban daguan, Gaiñuari.

Eliza Ama Santac bada, Aisquidia, onela eta ez beste moduz eracusten deuscu, bere Esposo Jesus Divinoac, Sacramentu santu au ifini ebenian, emun eutsan, Christaun eguiaz batiatubai pecatubac parcaquetaco edo parcatzaca izteco, escuvide guztizco eta miragarrizco au; eta onela eta ez beste moduz eracusten deuscu, artzen daubela escuvide au guichienez Sazerdotez ordenduric dagozenac bacarric, eta ez bestec iñorc ere: escuvide santu au da Elizaco Guiltzeen izenagaz aiquetan doguna, edo orobat, Zerubetaco Erreinubaren Guiltzeen izen miragarria daucana; argatic, Eliza Santan Jesus maitiaren lenengo Bicario izan zan, San Pedro Apostolubaren Ymagina guztiai ifinten deuste escuban Guiltza biren Ymaginac, guri aiquetara emutiarren, beste Apostolubacaz batera, Jesus maitiagandic, Sacramentu au ifini eusten, demporan betez betezian artu zituban, Zerubetaco Erreinuco Guiltza santu bi oneic; argatic ere Guiltza bi oneitatic bata izan oi da baltza: beguira bada, Aisquidia, ez juatiagaz Sacramentu Penitenziaco onen videz zeure pecatuben parcazinuaren billa, Guiltza santu oneic Eliza Santan ez daucan, Sazerdotiagana, eta aiñ guichi, Eliza Santatic igues eguinic, bere Etsai biurtu dirianacana, Obispuac izanagatic; iracurri eguizu ogueta emeretzi garren ojiaren ostian eta berroguei garren asipenian esanic itzi deutsudana.

Ecusiric, nortzubec dirian Eliza Santan Penitenziaco Sacramentu santu onen Eguillac edo Emallac, eta zer modutan; oraiñ esatera nuatzu, Aisquidia, nortzubec dirian, edo izan ditezquian eguiaz bere Artzallac: batiatzaquia ezis izan diteque eguiaz Sacramentu santu onen Artzalla, eta orobat, eguiaz batiatuba izan ezquero, vorondatezco pecaturen bat edo veniala edo mortala eguin ez dabenic: bata

eta bestia (au da) eguiaz batiatuba izatia, eta batiatuba izan ezquero, vorondatezco pecaturen bat eguiñic euqui-tia aiñ premiñacuac dira, bat Sacramentu Penitenziaco onen Artzalla eguiaz izateco, zeinda gauza bi oneic ez dau-canac ez dauca gueiric, Sacramentu au eguiaz artzeco ez ondo, eta ez gaizqui; eta ala Maria Santisimac ez artu eben, eta ez artu eiquian eguiaz bere vizitzan Penitenziaco Sacramen-turic; zergatic bere vizitza guztian ez eben eguin pecatu venial bat dan chiquinenic ere, eta argatic ez eben euqui batere gueiric, Sacramentu au eguiaz artzeco; ez eben euqui, zer parcaturic Sacramentu oneo, eta emun ballaco ere, guz-tia utsian jausico zan batere Sacramentu bague: bacarric bada izan diteque eguiaz Sacramentu Penitenziacuaren Artzalla, batiaturic, eta uso errazuazcuan sarturic, voron-datezco pecaturen baten jausi dan, guztia, Animia Corputzi-añ daucan bitartian Mundu onetan: ecusi daigun orain, zer-tan daguan Sacramentu onen izatia, eguiaz eguiña eta emu-na izateco.

Ez deutsut, Aisquidia, orainguiño aitatu, ez da aurrera ere aitatuco, zer modutan, Sacramentuben Emalla dirian, Sa-zerdotiac guertaturic euqui biar dituben beren Animac, Sacra-mentubac eguiteco eta emuteco, demporan; bada au beren la-na da, eta ez zuria; zure lana, bai, da, juizio dongaric iñogatic ez eguitia, batez ere Taungoicoaren aiñ Ministro urrac diri-an, Sazerdote Taunacatic, zeure beguiacaz eta orduban ber-tan ecusten ez deustezun bitartian, betez betezian eta alde guz-tietatic pecatu dan, gaiztaqueria andiren bat.

Sacramentu Penitenziaco onegaz ostiango beste seirac ba-tec artu leizque eguiaz, eta gaizqui (au da) ondo artzen ditu-benai emungo leusquien, grazia santu bagaric; baña Penitenzi-aco Sacramentu au alde onetatic ere bacarra da; bada batec edo eguiaz artuco ez dau, edo eguiaz artzen badau, beti edo gueien bat artzen dau ondo, bere pecatu guztiac parcatuco e-deutsan, grazia santubaren ur gozoa emuten deutsala; eta au guertaquetan da bacarric emen onela; zergatic, beste sei Sacra-mentubac ez eguiaz artzeco, baizican ondo artzeco, premiña dan leguez, artzera doianac, bere biotza sazue onian guertatu-ric, eruatia, Sacramentu Penitenziaco onec, bera ondo artuba iza-teco, escaquetan daben Artzalliaren aldetico, sazue ona da guztiz premiñacua, eguiaz artuba izateco ere, ondoren esango deutsudan gauzetatic erraz ezagutuco dozun leguez: ecusi eguizu, esanic, itzi deutsudana eun eta ogueta bostgarren eta eun eta ogueta seigarren ofeen ostian eta urrengo bien asipene-tan.

Jesus maitiac, Sacramentu Penitenziaco au ifini eben, demporan, esan zitubala, izentauric itzi deutsudan, verba santu aiec aguirian ifinten deuscube, eguin zitubala aren Divina Magestadiac bere Diszipulu Apostolubac, eta onein Suzesoriac Eliza Santan Animetaco Jueztzat, emuten eustela Zerubetaco Erreinuco Guiltza santubac, pecatubac parcatubagaz ideteco Zeruco atiac, eguiazdamuturic Jaungoicoagana biurquetan zirian, Christaun Pecatari guztiai, edo, pecatubac parcatzaca, ichiric izteco Zeruco ate oneic euroc, aren Divina Magestadiagana eguiaz eta biotzetic biurquetan ez zirian Christaun Pecatariai; Animetaco Juez oneic ezin erabagui daiquie, pecatuben parcazinuaren esque datozenen artian nori Zeruco atiac idegui, edo ichiric itzi, ez daquien bitartian bacoitzaren biotzetaco barri; eta au ezin jaquin daiquie, pecatuben parcazinuaren esque datozenac eurac emuten ez badeuste osoro eta eguiaz beren Animetaco barri guztiac ala, eguin dituben, pecatu guztien gañian, nola, euracatic dacarden, biotzeco damuari eguiazcuaren gañian: emendic aguirian dago, nundic Sacramentu santu onec artzen daben bere izate guztia; ifinita dago bada Penitenziaco Sacramentu au Eliza Santan, emuteco Animetaco Juez oneic bere esque datozenai, Juez erruquior batec bere Tribunalian erabaguiten deusten antzera Gaitzeguillai beren gaiztaquerien gañeco auziac; argatic Animetaco Juez oneic Pecatariacaz Confesionarioan euqui oi dauben audienzia santu oni esaten deutsagu Eliza Santaren izcunian Penitenziaco Tribunala; Tribunale santu onetan Christaunac aguertu biar ditube, batiatubac izan ezquero, eguin dituben pecatu mortal guztiac, lenaz acto contrizinocoaren bitartez edo beste videren baten bitartez Jaungoicoaren aurrian parcaturic daucainac ere; zergatic Eliza Santan Fede santuco gauza erabaguia da, ez daquiala Jesus Divinoac Sacramentu onetatic campora, estu ordu batzubetan parcatu oi dituban, pecatu mortalac ere, iñori parcaquetan, ez daucan bitartian Pecatariac gogo errimia, bere pecatu guztiac Tribunale santu onetan autorquetaco eta aguirian ifinteco, eta onela beren parcazinoa anchiquetaco; argatic Pecatariac, salvauco bada, Tribunale santu onetan aguertu bagaco, pecatu mortal Bautismotic arterañoco guztiac emen aguirian ifini biar deutsa bere Animaco Juezari, parcatu deguion zuzen zuzenian Zerubetaco Erreinuco Guiltza santuben bitartez; bada au da Jesus maitiaren vorondate guztiz erabaguia.

Oneic onela Jaquinic, esaten deutsut, Aisquidia, Sacramentu santu Penitenziaco onec artzen dabela bere izate guztia ala bere Artzalliagandic, nola bere Eguilla edo Emalla dan, Sazerdote Jaunaren aldetic; Artzalliac ecarten eta ifinten deutsa onetaraco guei guztia Sazerdote Jaunari, eta Sazerdote Jaunac, ondo beguiraturic, confesinuaren azquenian eta Artzalliaren gañian esaten dituban Absoluzinoco verba santubacaz batera Jasoten dau Artzalliaren aldetico guei au Sacramentubaren izatera; artera-ño ez dago Sacramenturic, eta Sazerdotiaren aldetico verba santu oneic emuten deutsai Artzalliaren aldetico guei-ari (esateco modura) Sacramentubaren Anima, vizitza, eta izatia; onela bada Artzalliaren aldetico gueiagaz, eta guei onen gañian, Eguilla dan, Sazerdotiac esaten dituban Absoluzinoco verba santubacaz eguiten da Sacramentu Penitenziaco au; eta bata bestia bagaric ez dago Sacramentu onen izateric.

Aita Astetec, ondo daquizu, Aisquidia, nola bere doctrinaco miragarrizco Cartillan itanquetan daben: ¿Penitenziac zembat parte ditu, pecatubac parcaquetaco? da esatia: ¿Christaun Pecatariac eguin biar daben, penitenziac, izateco, Sacramentu Penitenziaco au artzeco, diuin garacua, eta Sacramentu onen videz pecatubac parcaquetaco, zembat parte ditu? eta guztiz ederquiro erantzuten dau, iru parte ditubala, eta oneic diriala biotzezco damutasuna, aozco confesinoa, eta obrazco satisfaccinua: bai, Aisquidia; Penitenziaco Virtute santubaren iru languei oneicaz eguiten dau Christaunac, Jesus maitiac bere Evangelioan aguinquetan deutsan, pecatuben gañeco penitenzia eguiazcua ala biotzezcua nola campoticua, eta ifinten dau, Sacramentu Penitenziaco au artzeco, dan garaco, gueia; eta penitenziaren iru parte edo iru languei oneic eta bacoitza banaan ain guztiz premiñacuac dira, zeinda oneitatic edozeiñ ez daucan, Christaunac ez dau artuco Penitenziaco Sacramentu au eguiaz ez ondo eta ez gaizqui; eta ala, Sazerdotiac millue bat Absoluzino emungo baleutsa ere onerian Pecatariari, guztiac Jausico lirateque utsian Sacramentubaren batere izate bagaric; zergatic Pecatariac ez daucan onetaraco gueiric.

Obrazco satisfaccino au, zeña dan Penitenziaren iru parte edo langueietatic bat, azquenengoa, eta guztiz premiñacua, Sacramentu au eguiaz artzeco, baita ere ondo, aitu diteque bi modutan; bata, Sacramentu au artzera doianac, Sazerdotiac bere pecatubacatic eguinduco deutsan, penitenzia

~edo obrazco satisfaccino au Jaungoicoari eguiaz emu-
~teco, daroian, gogo errimiaren aldetic: onela aituric obraz-
~co satisfaczino au, eguiaz baita ere ondo artzeco Peniten-
~ziaco Sacramentuba, da guei guztiz premiñacua: bigarren
~moduban aitu liteque, Pecatariac, Penitenziaco Sacramen-
~tuba arturic, Sazerdotiac pecatubacatic aguindu deuts-
~an, penitenzia edo obrazco satisfaczino au eguiaz Jaun-
~goicoari emuten deutsan aldetic: onela aituric obrazco sa-
~tisfaczinoa ez da guei premiñacua, Sacramentu au egui-
~az artzeco; bada orduraco Pecatariac arturic dauca Abso-
~luzinuaren videz Sacramentuba, baita ere Sacramentuba-
~ren videz bere pecatu guztien parcazinua; baizican da,
~artu daben, Sacramentu Penitenziacoaren pusca bat; eta
~ala Sazerdotiac aguinduricaco penitenzia edo obrazco
~satisfaczino au batec Sacramentuba artu ondoren Jaun-
~goicoari eguiaz emutiaau ez da premiñacoa, Sacramen-
~tuba artzeco, baizican, Sacramentu artuba osoturic izte-
~co.

Sacramentu onetaraco Pecatariac ifini biar daben aurrenengo gueia bada, Aisquidia, da biotzeco damuta-suna; damutasun onec, eguiazcua izan ezquero, beragaz dau, pecatu aiec, zeñen gañian damuturic daguan, bere vizi guztian ez berriz eguiteco, asmo edo gogo errime bat; vorondatiaren aldetico gogo errime au bagaco damutasu-na eta utsa guztia da bat, Penitenziaco Sacramentu au artzeco: ecusi dozu ere, ifini biar daben biotzeco damu-tasunaren ondorengo gueia dala aozco Confesinoa; aoz-co Confesino onec, nola izan biar daben osoac (au da) arte-raño confesatzaca daucan, pecatu mortal guztiena, oro-bat escaquetan dau aurraz lenengo langueitzat Conzi-enziaco esamina errazuazco bat, zeñar dan, batec, ondo confesatzaca daucan, pecatu mortal guztiac, ala eguiaz-cuac, nola dudazcuac bere Memoriara ecartia: emendic dator, Aisquidia, zubec obeto aitu daguizuben, Aita As-tetec laburtasunian eracusten deuscun, Penitenziac, peca-
~tubac parcaquetaco, daucan, iru partiac, guc zubei era-
~custia, Confesino on bat eguiteco, biar diriala bost gau-
≈za, zeñac dirian, lenengoa esamina Conzienziacoa, bigar-
≈rena biotzeco damutasuna, irugarrena proposito erri-
≈mia, laugarrena bere pecatubac osoro confesaitia (au
≈da) Aita Astetec esaten deuscun, aozco Confesinua, eta bost
≈garrena, Confesoriac aguinquetan daben, penitenzia egui-
≈tia (au da) Aita Astetec esaten deuscun, obrazco satisfaczinoa; eta ala guc zubei onela eracustiagaz eguiten doguna da,

Aita Astetec eracusten deuscun, pecatubac parcaquetaco, Penitenziaren iru partiac zubei aguirian ifintia: eta oraiñ, Aisquidia, Confesino on bat eguiteco, edo (orobat dana) Sacramentu Penitenziaco au eguiaz, baita ere ondo artzeco, premiña diriala, esaten ditugun, bast gauza oneic, bacoitza banaan, aiquetara emungo deutsut Jaungoicoaren laguntasunagaz batera.

Lenengoa bada da Esamina Conzienziacoa; au, Aisquidia, ez da eguiaz Sacramentu Penitenziaco onen gueia, baizican Pecatariari, guei au ondo guertaquetaco, aguinquetan dan languei premiñacua, eta pecatu bagaric ezin itzi daiquiana, eguin bagaric confesau aurrian, confesaitara doianac; zergatic gauza jaquiña da, ezin confesauco ditubala bere pecatu guztiac osoro, memorian ez badauca, ezin ere memorian euquico ditubala, confesau biar dituban, pecatu guztiac, Conzienzienziaco errazuazco esamina bat aurraz eguiten ez badau; argatic languei au, Penitenziaco Sacramentubaren gueia ez bada ere, bere Artzalliari pecatu mortalaren azpian aguinquetan dan gauza da; batec, aurraz esamina Conzienziaco au eguin bagaric, confesauco balitu ere. osoro bere pecatu guztiac, eguingo leuque pecatu mortal, confesino donguia, eta ez leuque artuco Penitenziaco Sacramenturic, ifini ebelaco bere buruba vorondate osoagaz, uts eguiteco, peliguru andian: bacarric bada esamina Conzienziaco au bagaric confesau diteque bat ondo, eta artu daique eguiaz Penitenziaco Sacramentu au, ustez uste bagaco ill biarrac izten ez deutsanian demporaric, bere Conzienzia esaminaitaco.

= Esamina Conzienziacoa, Aisquidia, (ondo daquizun leguez) ez da beste gauzaric, baizican batec bere pecatubac Memoriara ecartia; derautsagun sail onetan au eta ez beste gauzaric da esamina Conzienziacoa: eguingo dabenac bada confesau aurrian Conzienziaco bere esamina errazuazcoa jaquin biar dau doctrina Christiana ondo; bere Estaduban Jaungoicoac aguinquetan deutsan languei premiñacuac, salvaitaco; daucan Ofizioac edo cargubac zer aguinquetan deutsan eta zer ucaquetan deutsan; zer pecatu ecarri biar dituban Memoriara; noizetic arterañoco pecatubac; nundic ecarri biar dituban pecatubac bere Memoriara; eta zembat demporan egon biar daben, pecatubac Memoriara ecarten: oneic guztioc ez daquianac bere naguitasunez, eta, icasi aldaiquiala, jaquin gura ez ditubalaco, eguiten dau pecatu eta gueien bat mortala, eta ezin esaminauco dau ondo bere Conzienzia.

Doctrina Christiana ondo daquian Christauna berez dator, erraz eta neque guichigaz ezaguquetara, bere Estadu-

ban, eta Ofizio edo Carguban Jaungoicoac zer aguinque-
tan deutsan, eta zer exagozten deutsan, eguitia; doctri-
na Christiana au ez daquian, Christauna barriz berez da-
tor, ez jaquitera, eta ez ezaguquetara Jaungoicoaren Legue
eta Vorondate santuba edozein gauzatan, beinic bein premi-
ña, daben, gara, bere Jstadukan, Ofizioan edo cargubar aren
Divina Magestadiari ondo erantzuteco; gura agatic exe: eta
ala doctrina ez daquianac ezin ezagutuco ditu bere utsegui-
tiac eta pecatubac, eta ezin, ezaguquetan ez ditubar bitartian
pecatubac, eguingo dau esamina Conzienziaco au ondo; aygatic
doctrina, ez jaquitic da beste ez jaquite onein Kristiña eta cristauac,
Jsanic itzi deutsut lanoguetan bederatzi garren ofaren
artian eta urrengoaren arpeguian, zein argalac garian, eta zein
erraz jausten garian pecaturic ascotan: egui santu au gui
etacustez ez da aspergueta gure Jaungoicoa Jscritura
Sagradubar bere Adisquide santuben videz, Sa-
lomon Jarregue jaquintsubac, ifini eutsanian azquenen-
go escuba, Jaungoicoaren aguinduz Jerusalengo, Jem-
plo santu bacar miragarrizcoari, Legueco Sacrifiziobac
an bacarric esquinteco, santu zan Jemploan, eta (ordubar)
~Jaungoicoaren Adisquide andia zan leguez, escatu eut-
~soh aren Divina Magestadiari, arren, Jemplo artan ora-
~zino eguiten eutsain, guztiai autortu eguiela, esque zi-
~rian, mesediac, eta onein artian izentau eutsan, mese-
~detatic bat izan zan, eguiaz damuturic etozen, Peca-
~tarientzat beren pecatu guztien parcazinna, esaten
~eutsala onela: zergatic ez dago pecatu eguiten ez da-
~ben Guizonic (aiquetan da) Guizon eta Anza: Jspiritu
~Santubac esaten deusku: ez dago Lurrian Guizonsu-
~turic (an da) Guizon eta Jmacume, gauza ona eguiten
~daberic, eta pecaturic eguiten ez daberic: eta San Juan
Jsangelista eta Apostolu gloriosoac, erabaguiric itzi
~euscun egui au, esaten euscula onela: esan badaiqu,
~pecaturic ez daucagula, guerc guere buruboi guizurra
~esaten deustegu, eta eguiric guzan ez dago: autorque-
~tan baditugu guere pecatubac, leiala eta justuba da (Ja-
~ungoicoa) parcaquetaco guri guere pecatubac: Aposto-
lu santu oneic euroc exe Jspiritu Santubac indartu ezqui-
ro, grazia galdu ezin eiquien modubar, pecatu veniale-
tan jausi zitezequian, eta Jscritura Sagradubar aguiri-
an dago egui santu au: Doctrina Christiana ondo daqui-
anac erraz ezaguquetan eta sinisquetan ditu egui san-
tu oneic; baña doctrina ez daquianac Atzo ipuiñ andit-

-zat daucai egui santu oneic.

~Gabaz Catu guztiac arriac diriala, esan oi dan leguez, orobat doctrina Christiana ez daquienen pensamentu, deseo, verba, eta obra mueta guztiac beren bequietan ez jaquiñeco gau illunian bardiñac dirudie, naiz zuriac diriala naiz gorriac, naiz azulac, naiz baltzac; eta ala Ychu oneic, eguin ez badaube gure Parroquia baizen pecatu andiago eta lodiageren bat, ez daube ecusten beren Animetan batere pecaturic ez andiric eta ez venialic beren vizi guztian, izanagatic eurac edadeco Personac (au da) oguei, ogueta amar, berroguei edo gueiago urte daucainac, euquiagatic eguiñic beren vizi modu epel eta nola naicuan pecatubac ugari; onelacuac bada, aguirian dago, beren burubai guizurra esaten deustela, eta beren guizurracaz, eguia bera dan, Jaungoico santuba guizurtitzat etara gura daubela; eta milla vider onela confesauco balira, beren Confesinuac eta Auntzen gaberdico eztulac guztiac dira utsac; zergatic Pecatariac Penitenziaco Tribunale onetan pecaturen bat, bere gañian eguiaz damuturic, naiz dala pecatu mortala naiz veniala, naiz dala Confesino artacua, naiz lenago confesauta daucana, Sazerdotiari autorquetan ez badeutsa, ezin artuco dau Penitenziaco Sacramentu au ez ondo eta ez gaizqui; ezin ere onerianari Absoluzino santuric emun deiquis Sazerdotiac, eta eguiaz zer pecatu parcaquetaco? begoza Ychu oneic beren Echetan baquian, uts gueiago eguin bagaric, eta beren burubai eta Confesoriai neque gueiago emun bagaric, icasi arteraño aimbat lasterren doctrina Christiana ondo; eta, au icasiric, pecatu mortalaren azpian icasi biar dauben leguez, betoza aimbat sarrienetan, Sacramentu au artzera, confesino onbat eguiteco, premiña dirian, bast gauzacaz ondo guertaturic.

Doctrina Christianan dagoza gauza batzubec, Christaunac aic jaquin eta sinistu biar ditubanac nai eta naiez, salvauco bada; aiñ premiña guztizcua da, aec jaquin eta sinisquetia, zeinda uso errazuazcua daucan Personaric ezin salvauco da, jaquin eta sinistu bagaric, bere culpa bagacua
≈ izan agatic ere ez jaquite au; oneic dira, guere asipeneco,
≈ bitartecotasuneco, eta guere azquen Fin santuco ezagupera
≈ eguiazcoa emuten deuscuben Jaungoico gure Jaunaren
≈ iru Misterio santubac; zeintzubec dirian, iru Misterio san-
~tu oneic izentauric eta eracutsiric itzi deutsut eun eta
~ogueta amabi garren ojiaren arpeguian: oneic ez daquian Christaunac bada, Aisquidia, ezin zuzendu daique

bere biotza Jaungoicoagana, premina daben gara, eta salvau ditequian moduban; ezin ifinico deutsa Sazerdotiari Penitenziaco Sacramentu onetaraco gueiric, eta Sazerdotiac onerian Christaunari ezin emun leiquio absoluzinoric Arri bateri baño gueiago; argatic iru Misterio santu oneic jaquitia eta sinisquetia da aiñ premiña guztizcoa, Christauna salvaitaco: doctrina Christianaren lau partetan Aita Astetec bere Cartillan eracusten dituban, beste gauzac, uso errazuarcoan sartu ezqueroco, Christaunac pecatu mortalaren azpian icasi eta jaquin biar ditubanac, dira; baña, norberaren culpa bagaco ezinen batec eragotzi badeutsa, icastia, salvau diteque, oneic jaquin bagaric; argatic, oneic jaquitia, ez da premiña guztizcoa, bat salvaitaco, beste, esan ditudan, iru Misterio santubac jaquitia, premiña guztizcoa, bat salvaitaco, dan leguez; bacarric bada batec, icasi eta jaquin aldaiquiala doctrina Christianaren lau partiac, euquiric artaraco eria eta norc eracutsi, Christaun Arri guztietan guertatu oi dan leguez, bere naguitasunez, iguintasunez, edo arrotasunez icasi gura ez daben Christaunac eguiten dau pecatu mortal, batez ere alde onetatic bere Errectore edo Confesore Jaunac lenaz lotsaiatuba bada; eta ala onerian Christaunac, pecatu mortal onetatic urtengo badau, aimbat lasterren icasi biar dau doctrina Christiana ondo, eta eretsi pecatu mortal onen eta beste guztien parcazinoa Confesino on baten videz; beste moduz gaizqui confesauco da onela lotsaiaturicaco Christauna, bere Confesioac izango dira Sacrilegiozcoac, eta ezin eguiaz artuco dau Penitenziaco Sacramentu au; zergatic, icasi gura ez daben bitartian pecatu mortalaren azpian icasi biar daben, doctrina, eta, emendau gura ez daben, bitarte guztian daguan bere vorondate osoco pecatu mortalian.

Oneic onela dira, Aisquidia; argatic Obispo Jaunac emuten deustenian Sazerdotiai, Sacramentu Penitenziaco onen videz pecatubac parcaquetaco, escuvidia, aguinquetan deuste gogorquiro, doctrina itanquetia confesaitara datozenai, quezca edo bildurren bat daucainian ete daquien edo ez ondo doctrinia, ez daquianari eracustia, eta alde onetatic batere emienda bagaric datorren lenago lotsaiaturicaco Christaunari Absoluzinua ucaquetia; eta ala Sazerdotiac, languei eta mandamentu santu oni ondo erantzutiarren, beren oñetara confesaitara datozen ascori daquie doctrina itanquetan, baita ere ucaquetan absoluzino santuba, lenago lotsaitubac izanic alde onetatic, batere emienda bagaric doctrina ez daquiela dato-

zen guztiai; au, Aisquidia, ondo ezagutuco baleube Christaunic ascoc, ez leuquie jausoco, doctrina itanquetan dauben, Confesoriacanaco aiñ diadar garratzic eta saminic, nola jauso oi dituben.

Esamina Conzienziacua bada, Aisquidia, confesau aurrian ondo eguin gura daben Christaunac billatuco dau toqui bacar bat, eta an zuti belaunico, edo jasarriric daguala, zeñatuco da, ifiñico dau bere biotza Jaungoicoaren aurrian, laroqueta amabi garren ojatic asi eta laroqueta amaseigarren oja bitartian eracutsiric itzi dodan leguez; escatuco deutsa aren Divina Magestadiari bere arguitasun santuba, ezaguquetaco, ala berac eguiñic daucan, pecatubac, nola bere culpaz besteri eraguin deutsanac, eta orobat bere bendecuac berac ez eragotziaren videz eguiñ ditubenac; David Erregue eta Profeta santubac Orazino eguiten eutsan Jaungoicoari onela: pecatubac norc ezaguquetan ditu? nire (pecatu) ezcutucoetatic garbitu naizu; eta besteenetatic parcatu eguiozu zure Esclaboari: ifinico deutsa aren Divina Magestadiari bitartecotzat bere Criaturen artian maitien daben Maria Santisima, Ave Maria edo Salve bat errezaubagaz, edo San Joseph gloriosua, edo Aingueru Guardacua, edo beste edozein Santu edo Santa, zeñari deutsan devozino, errezaubagaz Paternoster, Ave Maria, eta Gloria Patri bat; eta ondoren asico da eguiten bere Esamina Conzienziacoa batere larritasun bague, bere biotza ezercho estutu bague, eta, bai, emuten deutsala, Jaungoicoaganaco confianza eguiazcotic jaioten dan, zabaltasun edo nasaitasunic aimbat andiena.

Onela asiric bere Conzienzia esaminaitaco lana, juango da, ecarriagaz Memoriara, confesau biar dituban, pecatu guztiac, eta, confesau biar dituban, modu artan bertan, (au da) eurac ziaro, banaan, eta (esaeria dan leguez) pillosic, zer pecatu, eta zembat vider, pecatu eguiazcuac eguiazcuac leguez, eta dudazcuac leguez, errazuazco esamina bat eguiñic, Memoriara ecarri aldaiquian gara; bada Jesus maitiac gueiago escaquetan ez deutsa; eta ezin badau Memoriara ecarri, zembait vider eguin daben onelaco edo alaco pecatu, guichi gora bera ecarri biar ditu gogora, guichi gora bera onetan aimbat urren emuten deutsala vider eguiazcoari: zer pecatu dirian, Christaunac

confesau biar dituban, eta zer modutan, esango dot, aozco Confesinoa aitaquetan dodanian.

¿Noizetic arterañoco pecatubac confesau aurrian batec ecarri biar ete ditu Memoriara? onen gañian erantzuten deutsut, Aisquidia, ecarri biar ditubala azquenengo Confesinotic arteraño eguin ditubanac, bardin errazueren bat, ez badago, barriztaitaco leenagoco Confesinoren batzubec, dongac izan dirialaco; bada orduban, gauza jaquiña da, zabaldu biarco dabela batec bere esaminia dempora guzti aietara, zeñetan vizi izan dan, Confesino dongac eguiten: confesino generala danian batec eguingura daben Confesinoa, aguirian dago, esaminiac ere izan biar dabela Confesinoaren antzecoac; baña onetaraco ez deutsa iñorc sinistu biar bere burubari, baizican egon biar dau bere Confesore aditubagaz, eta ez dau urten biar, berac esaten deutsanetic ala Confesinoaren nola esaminaren gañian.

¿Nundic batec ecarri biar ete dituban bere pecatubac Memoriara? gauza jaquiña da, Aisquidia, ecarri biar ditubala bacoitzac bere pecatubac Memoriara, zer gorde daucan, Legue mueta guztietatic, bere vizitzaiari beguiratubagaz doiala, gorde biar dituban, Legue mueta guztietaco ispillu ederrian, nun, zer uts, eta zembat vider, eguin daben; zergatic pecatuba, ondo daquizun leguez, ez da beste gauzaric baizican Jaungoicoaren vorondate erabagui eta aguinduba ausitia pensamentuz verbaz obraz edo deseoz; argatic zer gorde daucan Legue santuco ispilluban beguiratu biar deutsa bere vizitza iragoari, ezagutu eta ecarrico baditu Memoriara bere pecatubac, Leguetic Leguera, eta Mandamentutic Mandamentura iragoten dala, bere vizi modu iragoari ondo beguiratubagaz: zeintzubec dirian Christaun bacoitzac gorde biar dituban Legue muetac esanic itzi deutsut ogueta amabost garren ojiaren ostian asi eta ondorengoetan; onei gueitu deiquiquie, bacoitzari bere Ofizioac edo cargubac ifinten deutsan, Leguiac.

Esanic ere itzi deutsut, Aisquidia, ogueta amazazpi garren ojiaren ostian azquenerutz eta urrengoaren asipenian, zein Legue mueta izentaitan deuscun Jesus maitiac bere Evangelio santuban, ala onai nola dongai Juizio

generalian erabaguico deusten, Sari eternua aitaquetan deuscunian; eta eguiaz dira Legue mueta aiec, eta aien beste antzeco guztiac, Christaunac guichien ezaguquetan, eta gordetan ditubenac; onetaraco Jaquin biar dozu, Aisquidia, Legue edo Mandamentubac diriala bi modutacuac, batzubec zerbaiteguitia eragozten deuscubenac, nola dirian Jaungoicoaren Legueco amar Mandamentuben artian bigarrena, eta bostgarrengotic asi eta andic aurreraco guztiac; beste batzubec, zerbait eguitia, aguinquetan deuscubenac, nola dirian lenengoa, irugarrengoa, laugarrengoa, eta, Lagun Progimua guere Burubac leguez amaitaco, aguinquetan deuscun, Mandamentuba, arguitasun guztiagaz Jesus Divinoac ifiniric daucan leguez Evangelio santuban, eta ala lenengo Mandamentuban nola, Progimuen oneraco dirian, zazpi Mandamentubetan erraz ecusten dogun leguez.

Christaunac, ausiten ditubanian lenengo Legue muetac, erraz ezagutu daique bere uts eguitiac, eta pecatubac, Memoriara ecarteco; bada, eguin daben, gaiztaqueriac berac nori nai arpeguian emuten deutsa, eta esaten deutsa: emen nago: ausiten ditubanian barriz bigarren Legue muetac, eguin bagaric, eragotziric dagozen, gaiztaqueriaric, bacarric, salvaitaco, aguinduric dagozen, gauza onac eguitiari itziagaz, ez ditu ain erraz ezaguquetan, eta Memoriara ecarten ez ditu onerian pecatu muetaric asco, confesau aurrian; batec, euquiric, doctrina Christiana icasteco duin garaco, Potenziac, eta norc eracutsi, icasi eta Jaquin gura ezta egotia bere naguitasun, iguiñtasun, edo arrotasunaren videz, da, lenengo Mandamentu santuba ausiagaz, eguiten daben, pecatuba eta gueien bat mortala; eta nor da, pecatu mortal au ezaguquetan daben, eta esaminaco demporan Memoriara, ondoren damuturic confesaitaco, ecarten daben, Christauna? zer Familiaco Buruc bere ardura bagatasunaren videz bendecuac doctrina ez Jaquitiagan, eguiten daben, pecatu andia ezaguquetan dau, eta, eguiaz damuturic, confesaitaco, Memoriara ecarten dau? norc, bere bendecuen nola naico vizi modu nasaia gabaz eta egunaz eragotzi biarrian, euracana ichuturic eragotzi bagaric itziagaz bere ardura bagatusanaren videz eguiten daben, pecatu icaragarria ezaguquetan dau, eta Memoriara, ondoren damuturic confesaitaco, ecarten

dau?; norc, Progimoari bere premiña andietan, Carida-
dez aldaben laguntasuna ez eguiñagaz eguiten daben,
pecatu andia bere biotz gogortubagaz ezaguquetan
dau, eta, ondoren damuturic confesaitaco, Memoriara
ecarten dau? oneic guztioc bada, gaiztaqueria, eragot-
ziric dagozenac, eguiten ez dituben bitartian, gueien bat
uste daube, ondo vizi diriala, eta Jaungoicoaren Legue
santuba gordetan daubela, izanic Fede santuco egui
erabaguia, Christaunac, Jaungoicoaren Leguia gordi-
agaz pecaturic ez eguiteco, eragotziric dagozen, gaizta-
querietatic igues eguin biar daben leguez, eguin biar di-
tubala ere, salvaitaco, aguinduric dagozen, obra on guz-
tiac: Ho! Aisquidia; eta zembat bildur daucadan asco-
ren Esamina Conzienziacuacaz, baita ere beren Confesi-
nuacaz!

¿Zembat dempora irago biar ete daben Christaunac,
Conzienziaco esamina errazuazco bat eguiten? Ais-
quidia, norberaren vizi modubac, artu emunac, bere Me-
moria laburraguac edo andiaguac, eta azquenengo Con-
fesinotic arteraño irago dan dempora gueiaguac, edo gui-
chiaguac neurtu biar deutsai bacoitzari, Conzienzia-
co esamina errazuazco bat eguiteco, premiña daben
garaco, dempora au; onetaraco ifiñi biar dau, calteren
bat eragoztiarren, bere escuarteco artu emunac zuzen
eta artez Memoriara ecarteco, ifinico leuquian leguez-
co, ardura errazuazco bat.

Batzubec, esamina Conzienzienziaco au eguiten,
iruten daube lodiegui (au da) eguiñic daucain pecatu-
betatic guichi edo baterez ecarri oi ditube Memoriara,
eta, ecarten dituben pecatubac ere, ez oi ditube ecarten
Memoriara, eurac dirian leguez, eta, eguin zirian, duin
pillosic; au guertatu eta sortu oi da ia doctrina Chris-
tiana ez jaquitetic, ia norberaren vizitzaco nasaitasun
larreguitic: beste batzubec barriz irun oi daube meie-
gui (au da) eguin dituben pecatubacaz gañera eguin
ez ditubenac ere ezin billaturic, eta Memoriara ezin
ecarriric, ibilli oi dira; eta orobat, eguin dituben, peca-
tubai ere emun oi deuste anditasun gueiago, dauca-
in, baño: lenengoac bada, meiago, eta bigarrenac, lodiago
irutera, etorri biar daube, beren Confesore adituben esa-
na ichu ichuban eguiten daubela, eta bacoitza zuzenque-
tan dala, uts eguiten daben, aldetic; eta onela urtengo
deuste beren esamina Conzienziacuac errazuazcuac.

~ Norbaitec esan daique, Aisquidia: bardin ondo
~confesaitaco premiña badot, pecatu guztiac Memoriara
~ecartia (au da) zer Mandamentutan, zer modutan, eta
~zembat vider eguin ditudan, ¿nola izan alditeque, nic or-
~reic guztioc ondo Memoriara ecartia, izanic nire vizi mo-
~duba guztiz banatuba, dempora luzia confesau ez nai-
~zala, eta nire Memoria laburra? onela verba eguiten da-
benac bada, Aisquidia, ez dau oraindio ezagutu eta aitu
ondo, esamina onen gañian esan dodana: Jesus maitiac guz-
tiz ondo daqui, bacoitza noraño dan, eta noraño ez, eta
ez deutsa iñori escaquetan, ezin daben, gauzaric; bere al-
detic dana eguiaz eguiten daben, nori nai daqui parca-
quetan pecatubac Penitenziaco Sacramentu onen videz; da
ere guztiz erruquiorra; eta ala ez deutsa iñori aguinque-
tan, eguitia, bere Corputzeco eta Animaco osasunaren cal-
tian, eta bere ondasunen edo Ofizioaren calte andian izan-
go dan garaco, esamina Conzienziacoric; guichiagua dau-
ca ontzat; ez deutsa iñori aguinquetan, confesau daguiala, dau-
can, pecatu mortal guztiac, baizican, aurraz beguiraturic
aldaben moduric onenian bere biotzeco inguru eta biur une
guztiai, Memorian daucan, pecatu guztiac, eta ez beste-
~ric; ala eracusten deuscu Eliza Ama Santac, Trentoco Ziu-
~dadian euqui eben, azquenengo Conzilio generalian; arga-
~tic, onelacuac bere ezinbagan izten baditu ere milla bat pe-
catu mortal confesatzaca, ez da alde onetatic izango bere
Confesinoa donguia; bacarric, bai, onelacuac bere ondorengo
Confesinuetan, eguiaz damuturic, confesau biarco ditu aaztu-
ricaco pecatu mortal oneic, bere Memoriara badatoza; au
onela ez baliz, zer izango lizateque Aur ascoren Confesino-
acaz? onela verba eguiten daben, Christauna bada, Aisqui-
dia, egon bedi bere Confesore aditubagaz, eta onec nasai-
tuco deutsa biotza, eta ascatuco deutsa, esamina Conzi-
enziacua ondo eguitia, eragozten deutsain, Orapil guztiac;
Jarraitu beguio ichu ichuban bere esanari, eta guztiz eder-
quiro eguingo dau bere esamina Conzienziacua, confe-
sino on bat eguiteco, premiña dirian, beste ondorengo gau-
zacaz.

Esaminiari Jarraiquetan deutsa biotzeco damutasu-
nac; au da biotzezco penitenzia; au da Penitenzia santu-
bac, pecatubac parcaquetaco, daucan lenengo partia eta lan-
gueia; eta au da azquenic, confesaitara doianac Peniten-
ziaco Sacramentu onetaraco ifinten daben, lenengo guei guz-
tiz premiñacua, zeña bague ezin iñorc artuco dau Sacra-

mentu au ez ondo eta ez gaizqui.

Guraso on baten ona bere gaiztaqueriacaz galdu daben, Seme bat ezin berriz biurtu diteque, Aisquidia, bere Aita onaren graziara, eguin dituban gaiztaqueria guztiac gorrotaturic, eguin deutsan zatarqueriacaz damuturic, eta, eurac confesauric, parcazinua escaquetan ez deutsan bitartian, esquinten deutsala, edo emuten deutsala verba errimia, ez gueiago areriian zatarqueriaric [illegible] eguiteco, baizican aurrera, bere esanetic eta vorondatetic eseguiric, guztiz humil Seme on bat leguez vizi izateco; Jesus maitiac Evangelio santuban aitaquetan deuscun, Gurasuaren Semeric gaztiena, bere Senitpartia arturic, Juan zan, asco baxterrac icusiagaz, Guizarteco barri icastera, Juan oi dirian leguez, urrin batera; urtu zituban bere Senitparte guztiac, ugariac bazirian ere, bere atseguintasun eta Lujuria mueta guztietan vizi zala, bazterric bazter Guizon andi eta aguiri urtetiarren gaurco egunian dabiltzen gueienacaz guertatu oi dan leguez; artu eben ez euquiac, gosiac, eta ondamendi guztiac; sartu zan Charri Zaiñ, eta Charriendaco eguan Janetic ere ez eutsan inorc emuten, bere Sabel gosia betetaco; ecusi ebenian Seme galdu onec bere buruba negargarrizco vizitza onetan, asi zan bere gogoan iragoten: Ha! nire Aitaren Echian zembat Languin eta Servitzari vizi dirian, oguia ugari, zer Jan, daucainac; eta ni emen gosez illten nago! noian bada nire Aitagana; Juan zan; autortu eutsan bere gaizqui eguiña, eta, merezi ez beben ere bere Semetzat Echian artzeia, erregutu eutsan bere biotz guztitic, arren artu eguiala bere Servitzari edo Languintzat; Aita onac laztan estubat emun eutsan, ezagutu eta artu eben bere Semetzat, emun eutsan, bere Semia zan leguez, Jantzi onac eta ederrac, eta, galdutzat eucan, Seme au beragana biurtu zalaco onduric eta osasunagaz, atseguin artzeiarren, ill eben Chaal guizen bat, eta emun eusten biurtu zan Semiaren ongui etorrian Familiaco guztiai Jan edan ugaria: ona emen, Aisquidia, nun daucazun, Pecatarien eta, beren Aita guztiz erruquiorra dan, Jaungoicoaren artian iragoten dan, guztiaren Ispillu miragarrizcua, beragana, eguiaz damuturic, Sacramentu Penitenziaco onen videz biurquetan dirian guztian, eta ez nic asmauba, baizican, Jesus maitiac ifinten

deuscun, Ispillilba bere Evangelioan.

Pecatubaren videz Jaungoicoaren graziatic jausi dan Personiac, berriro aren Divina Magestadiagaz aisquidetasunac eguiteco, daroian vidia au da: aren Divina Magestadiaren laguntasunagaz sinisquetan dau aurrenengo, gauza guztien Eguilla dan, Jaungoico bacar santu bategan, salvaitaco, premiña dirian beste bi misterio santubacaz batera: dala ere Jaungoico au bere billa dabiltzenentzat sari Emalla ugaria; eta siniste onegaz asiten da juaten aren Divina Magestadiagana; bere Justizia adoragarriaren bildur santuba sortzen dau bere biotzian; eta ezaguturic, bere pecatubacatic irabaziric daucala betico pena zori gaiztocuac Infernubetan, botaten dau beragandic pecatubanaco gogo guztia, beguiraquetan deustela ia gorroto eguiazco bategaz, beren parcazinoa aren Divina Magestadiagandic eresteco uste oso eta errimiagaz; onela vizturic eta sendaturic bere biotza artzen dau, bere vizitza donguiari itziric, aurrera vizitza on bat eguiteco gogo errimia; eta azquenic emendic iragoten da, ontasuna bera eta ontasun guztien Iturria dan, Jaungoicoaganaco amorioa, eta bildur guztiz gozoa eta maitagarria bere biotzian sortzera, bere Seme eta Adisquide eguiazcuac euqui oi deutsain modura, ia aurrera bere asmo guztia dala, aren Divina Magestadia aimbat gueien amaitia, eta bere ofensaco pecatu guztietatic igues eguitia; eguia da, bere pecatubacatic benetan damuturic Jaungoicoagana onela biurquetan dan, Pecataria igarri bagaric, nundic doian, eta beinguan irago oi dau vide au guztiau, David Erreguiac Natan Profetaren lotsaia santubergaz beinguan irago eben leguez.

Pecataria, esan dodan, vidiaren azquenera eltzeen danian, Jaungoicoac, pecatu guztiac parcaturic, artzen dau bere graziara eta adisquidetasunera; bada dauca, Contrizinua esaten deutsagun, biotzezco penitenzia; baña Contrizinoo onec ez dauca onetaraco batere indarric, bardin beragaz ez badacar, ondoren (albadau) Sacramentuba artzeco gogo errimia; ala eracusten deuscu Eliza Ama Santac Trentoco Conzilio generalian; argatic batiatzaca daguan Pecatariac, iragoric Jaungoicoaganaco vide ori, albadau artu biar dau Sacramentu Bautismocua, eta batiatubac artu biar dau Penitenziacua: vide onen azquenera eldu bagaric, Pecataria barriz gueldiquetan bada, urren emuten deutsan, aurreragoco lecuban, onec bacarric dauca, Atrizinua esaten deutsa-

gun, biotzezco Penitenzia; eta eguiaz elduco da vidia-
ren azquenera Sacramentuba artubagaz batera, batiat-
zaquiac Bautismocua, eta batiatubac Penitenziacua, ez
arteraño emendic erraz aitu daiquezu, Aisquidia, Chris-
taunac Penitenziaco Sacramentu onetaraco ifini biar da-
ben, lenengo gueia dan, biotzeco damutasunaren gañian
ondoren esatera noian, guztia.

Eliza Ama Santac Trentoco bere azquenengo Conzi-
lio generalian eracusten deuscun leguez, Pecatariac, Sa-
cramentu onetaraco ifini biar daben, lenengo gueia dan, biot-
~zezco Penitenzia au da Animiaren damuaria eta gorrotua
~eguiñicaco pecatubaren gañian, aurrera pecaturic ez egui-
~teco gogo errimiagaz; eta erabaguiten deuscu, biotzez-
~co Penitenzia onec (eguiazcua izan ezquero) beragaz dau-
~cala ez bacarric pecatubac eguitiari izteia, vizitza bar-
~ri bateraco gogo errimia, eta aren asipena, baizican lena-
~goco vizitza donguiaren gañeco gorrotua ere: bai, Aisqui-
dia; au da biotzezco Penitenzia, eta, eguiazcua izan ezque-
ro, beragaz dauca, esan ditudan, gauza guztiac; eta, oneic
ez badauca, ezin izango da eguiazcua.

Oraiñguiño aimbeste vider aitatu deutsudunetatic,
~Aisquidia, Jaquiñic erraz euqui daiquezu, biotzezco
~Penitenzia au dala bi modutacua: bata da Contrizinua,
~eta bestia Atrizinua.

~Contrizinua da, batec eguin dituban, pecatubaren ga-
~ñeco damuaria eta gorrotua, ontasun guztiaren Iturria,
~pecutubac parcaquetaco, grazia beragaz daben, eta on-
~dar bagueco Ontasun guztiz maitagarria dan, Jaungoi-
~coari deutsan, gauza guztien gañeco amorioagatic, con-
~fesaitaco, aurrera pecaturic ez eguiteco, eta, aguinque-
~tan deutsain, obrazco Satisfaczinoa Jaungoicoari emu-
~teco, gogo errimiagaz.

~Atrizinoa da, batec eguin dituban, pecatubaren ga-
~ñeco damuaria eta gorrotua, euracaz Zeruco gloria
~galduric, bildur dan Infernuco pena izugarriacatic, eta
~pecatubac euracaz Animiari dacarden ichusitasun
~ezin gueiagoagatic, confesaitaco, aurrera pecaturic
~ez eguiteco, eta, aguinquetan deutsain, obrazco Satis-
~faczinoa Jaungoicoari emuteco gogo errimiagaz.

Contrizinoa bada, Aisquidia, Jaioten da, Pecata-
riac bere biotzian sortzen daben, Jaungoico ondar bague-
co onaganaco ~~[illegible]~~ gauza guztien gañeco amorio san-

tutic; Atrizinoa barriz jaioten da, Pecatariac Jaungoicoaren justizia adoragarriari daucan bildur santutic.

Contrizinoco damuaria Pecatariac bere biotzian sortzen daben berialatic, millueca pecatu mortalac baleuca ere, guztiac parcaturic, gueldiquetan da Jaungoicoaren grazian eta bere Adisquide eguinic; eta ala Pecatari onec beriala artatic dauca eguiaz bere biotzian aren Divina Magestadiaganaco ez bacarric sinistia eta esperanzia, baizican ere amorio eguiazcoa, eta argatic Espiritu Santuba vizi da bere Animan; baña Contrizinoco damuari onec iñolaco moduz ez dauca onerian erruric, bardin beragaz ez badacar, confesino eguiazco baten bitartez Sacramentu Penitenziaco au artzeco, gogo edo asmo errime bat; eta onela, Seme galduba zan, Pecatari au Contrizino eguiazcoaren bitartez, Penitenziaco Sacramentuba artzeco, gogo errimiagaz batera biurquetan da bere Aita Jaungoicoaren graziara eta adisquidetasunera, zeñac bere pecatuben gaiztaqueriacaz galduric eucan: oni Zeruco Ainguerubac berialatic, batez ere Contrizinoco damuariaren ondoren Penitenziaco Sacramentu au artubagaz batera, eguiten deutsai ongui etorri guztiz andia eta miragarrizcoa; eta ecusiric, Pecatari galdu au biurtu dala bere Aita Jaungoicoagana, eracusten daube Zerubetan poz eta atseguintasun zoragarrizco bat, esanic itzi dodan, Evangelioco Aitiac bere Familia guztiagaz bere Seme galdubaren ongui etorrian eracutsi eben, poz eta atseguintasun ezin da gueiagocoaren antzera; eta, gueiago dana, Jesus maitiac esaten deuscu bere Evangelioan, Ainguerubac Zeruban atseguin gueiago artzen daubela onerian Pecatari damutu bacar baten gañian, penitenziaren premiñaric ez daucain, laroqueta emeretzi Justuen gañian baño.

Atrizinoco damuaria bere biotzian sortzen daben, Pecataria barriz gueldiquetan da, bere pecatu mortalac parcatzaca, Penitenziaco Sacramentu au eguiaz artu arteraño: onerian Pecatariac dauca aren Divina Magestadiaganaco sinistia, baita ere esperanza eguiazcoa; baña ez dauca, pecatu mortalac, millueca balira ere, estalquetan dituban, eta guztiz deseguinquetan dituban, Caridade edo Amorio santuric, baizican, Esclabo batec bere Jabiari euqui oi deutsan antzeraco, bildur santu bat; eta bildur santu au berez ona bada ere, ez dauca indarric Sacramentu Penitenziacoaren laguntasun bagaric pecatu mortalic parcaquetaco, nola daucan, aren Divina Magestadiari bere Seme adoptibo edo graziazcoac eta Adisquidiac ecarten deutsain, amorioz betericaco bildur ~~[illegible]~~ bigun, gozo, eta maitagarriac, nundic jaioten dan Contrizino eguiazcoa Pecatariaren biotzian: eguia da; bildur santu mueta bi oneic alcarur emuten deutsai; bada Espiritu Santubac esaten deuscu: Jaungoicoaganaco bildurra da beraganaco amorioaren asipena: bai; Aisquidia; Erreitze bi, batac bestiagaz joten dabela, dagozenian; ecusten dozu, nola bataren azquena dan bestiaren asipena; bere bat (esateco modura) guertaquetan da, Atrizinoco damuaria daucan, Pecatariac Jaungoicoaganaco artzen daben, Esclabuen antzeraco bildur santubagaz; ucuquetan deutsai amo-

xiozco bildur santubaren Erreitziari, munduic faioten dan Contrizinoco damnoaria; dan Jaungoicoagana aroxioaren aripena; eta ez da aurrera iragoten; baizican gueldiquetan da, amoxiozco Erreitziari deutsala, eta Erreitze biac dagoza, bacoitza bere bonan, alcar joten daubela: ecusi eguzu aurrera goco eun eta berroqueta seiqarenco ofa guztian esanic itzi deutsudana eta au ecusi eguzu, zer vide dagoian, Jaungoicoaren graziará biurquetan dau, Pecatariac, eta zer gauza dirian Contrizinoco eta Atrizinoco damnoriac; andic erraz ezagutuco dozu, Contrizinoco damnoria daucan, Pecatariac iragoric daucala, Jaungoicoaren grazioza eta aisquidetasunera biurquetaco, premiña daben, vidia, ez onela Atrizinoco damnoria daucan, Pecatariac; au vidian gueldiquetan dá Jaungoicoagana co amoxio santubari nequetan deutsan, lenagoco toquian; agatic Atrizinoco damnori onec ez dauca beriac bacarric, pecatubac, Contrizinoac leguez, berialatic parcaquetaco indarric, onetaraco Penitenziaco Sacramentubaren laguntasuna premiña dau; eta, Sacramentu santu au artzaca, illgo baliz Pecataria onerian Atrizinoagaz, condenauco lizateque, salvauco zana, Contrizinoco damnoria eriqui baleu: onec onela izanic, Atrizinoco damnori au berez ona, Contrizinoa duiñonaizan ezagatic, asco da gueiric, beragaz quextatzaric Pecataria artzeco ondo Penitenzico Sacramentu au; eta Eliza Santan Fede santuco equi erabaquia da, Sacramentu santu onec ondo quextatzaric artzen daberaxi parcaquetan deutsala pecatu mortal guztiac, eta Jaungoicoaren etsai zana ifirten dabela bere aisquidetasunian eta grazian; bai; Atrizinoco damnori au daucan Pecatari seme galduba, Penitenziaco Sacramentu au artzaric berialatic, eta ez artzaño biurquetan da bere Aita Jaungoico onagana; exduban eta ez artzaño zeruco Atingurubac equiten deutsai bere ongui etorri nizagarrizcoa; eta azquenic exdubán eta ez artzaño bere Aita Jaungoicoac emuten deutsa, pecatubacaz galdu zitubán, Bautismoan artzaricaco, graziazco jantzi zuriac eta ederrac, Evangelioco Aita onac emun eutsan leguez seme galdubari bere eutsi equitziacaz damuturic, Echian ecusi ebenian, artzeraño Pecatari onec areri Divina Magestadiagana co eucan, Esclabo baten antzeraco bildur santuba eta amoxioaren aripena, Sacramentuba artzaric berialatic, iragoten dala, izatera amoxio equiazcoa, eta amoxioz betetzicaco bildur biguna eta miragarrizcoa, Aita on eta maitagarri bateri bere seme oneac eguiqui oi deutsain antzeraco a; eta Espiritu Santubaren gui da bere Animan

Equia da; Atrizinoco damnori onec baditu, bere etsai diriari, bere geroco batzubec, esaten deuscubenac, dala berez gauza donguia, eta Pecataria ontzen daben idurripenaren azalagaz Pecatari andiagoa eguinic izten dabena: boña Eliza Ama Santac, Trentoco Ziudadian eriqui eben, bere azquenengo Conzilio generalian guztiz tauric itzi zitubán hegue ichui oneic; bada Fede santuco equitzat erabaqui eben, Atrizino onec ez bacarric emuten ez deutsala guztiz onaxi ondubaren idurripenaren azala, eta ez dabela equiten Pecatari ardiagoa; baizican damnori au eguiaz data Jaungoicoaren doaia, eta Espiritu Santubaren indarri biguna) ez equiaz (bere Animan) vizi daroena, baizican (Animan vizi izatera) sartu guraric dabillen Espiritu Santubaren indarri biguna, zeragaz Pecataria c laguntzaric ideten daben beretzat vidia, justoa izatia (anchiquetaco) eta Atrizinoco damnori onec bere Penitenziaco Sacramentu bagaric ezarri ezin badaique Pecataria (pecatubac parcaturic) justuba izatera, orregaz guztiaz quetaquetan dau (Pecatari au) anchiquetaco Jaungoicoaren grazia Sacramentu Penitenziacoan: au da bada, Aisquidia, utsic equin ezin leiquian, Eliza Ama Santac, Atrizinoa, esaten deutsagun, biotzezco Penitenziaren gañian, guc exime sirisquetaco, erabaqui euscun, Fede santuco equia.

Gauza ona da, Aisquidia, Christaunac, pecatu morta-
lian jausi baño lenago, Jaungoicoari deutsan, amorioagaz
gañera erabiltia bere begui bien erdian beti josiric aren Divi-
na Magestadiaren justizia adoragarria eta izugarria, izan
dedin justizia santu au, bere Animiari pecatubetaco lo piñuban
jausten itzico ez deutsan, Aculu garratz bat, esaten deutsala
~bere burubari: nic pecatu eguiten badot, izan diteque niret-
~zat ez parcazinoric egotia, eta eternidade guztian Infernuco
~suzco toqui izugarrietan vizi biar izatia: baña, bein pecatu-
ban jausi bada, biurtu biar ditu bere Animaco beguiac, Jaun-
goicoac Pecatariari deutsan, ondar bagaco erruquira, eta, ar-
turic, parcatuco deutsan, esperanza errimia, biurtu biar
dau beragana Sacramentu Penitenziaco onen bitartez, esa-
~ten deutsala bere burubari: Jaungoicoaren erruquia, eta,
~pecatubac parcaquetaco, daucan, escuvidia ondar eta neur-
~ri bagacuac dira; ez dau gura nire betico condenazinoco eri-
~otza, baizican nire salvazinoco betico vizitza; orainguiño
~ez da eguin, ez da eguiten, ez da ere eguingo pecatu mue-
~ta aiñ dongaric Munduban, Sacramentu Penitenziaco onen
~videz parcatu ezin ditequianic, Ychasuan ur tanta dagozen,
aña vider eguin baditu ere batec; Jaungoicoa bera da, esa-
~ten deustana bere ao sagradutic: biurtu nadilla beragana
~nire biotz guztitic: ezin bada onela aguinquetan deustan Ja-
~ungoico, eguia bera dan, neurri bagueco onac itzico nau
~utsian, berac aguinquetan deustan leguez, beragana biurque-
~taco premiña dodan bere grazia santubaren arguitasuna
~eta laguntasuna bagaric nic onetaraco, nire aldetic dana eguiñic
~escaquetan badeutsat; eta oneic guztiac, Fede santubac era-
~custen deustan, egui erabaguiac dira: onela bada, Aisqui-
dia, pecatuban jausi dan, Christaunac, beguiraturic biotz guzti-
tic Jaungoicoaren ondar bagueco erruquiari, anchituco dau be-
re pecatubaren eta pecatuben parcazinua; onela anchitu zi-
tuben beren pecatu guztiz andien eta ugarien parcazinua
David Erreguec, Santa Maria Madalenac, Lapur onac, San
Pablo Apostolubac, San Pedro Apostolubac, eta, Zerubetan
millueca dagozen, Santu eta Santaric ascoc; Cain madarica-
tubac barriz Mundubaren asipenian quendu eutsan vizitza be-
re Anae Abel justubari; Antioco Erreguiac Jerusalenen eguin
zituban gaiztaqueria izugarriac; Judas Apostolubac saldu
eben dirubacatic bere Maisu Divinoa Jesus; iru oneic ezagu-
tu zituben eta autortu zituben beren pecatubac; damutu zi-
ran, baña gaizqui, eta galdu ziran; zergatic, izuturic euben pe-
catubacaz, Jaungoicoac ez eustela parcatuco, uste izan euben,
uste dollor eta zatar onegaz eguiten eutsaila aren Divina Ma-
gestadiari berriro pecatu bat arterañocuac baño andiagua.

Jaungoicoagana Penitenziaco Sacramentu onen videz biurtuco dan Pecataziac bada, Aisquidia, sorta bia dabe-
~ren lequez bere Animan biotzezco Penitenzia edo damuari au be-
~re pecatu guztien gañian, aren Divina Magestadiac parca-
~tuco deutsan, esperanza errumiagaz, orobat Penitenzia edo
~damuari onec, Sacramentuaco guzia izanbo bada, Jaio bia-
~dau, Pecataziac Jaungoicoari deutsan, gauza guztien gañeco
~amoriotic, edo bere Justizia adoragarriari eternidaderaco
~deutsan, bildur santutic; baña baldin biotzezco Penitenzia au,
~ascotan guertatu oi dan lequez, Jaioten bada bacarric, Pecata-
~ziac bere pecatu eta gaiztaqueriacaz bere burubari Mundu
~onetan ecarri deutsan, atsecabe, naibague eta calte andieta-
~tic, onelacoen biotzezco Penitenzia eta utsa guztia da bat;
~bere lapurreria eta gaiztaqueriacatic Justiziac arrapauzic
~urca mendiraco vidian daguana, Jocuban bere diru eta on-
~dasun guztiac galdu ditubana, Jan edan larregui agaz eta
~lujuriagaz bere osasuna galdu dabena, vide dongatic Sein-
~dun, eta bere pecatubaguinian darabillen finacuria, bere
~arpegui a lotsaz beteric, oneic eta onein aurrezco beste asco, be-
~rez datoza beren gaiztaquerien gañian damuquetara, etabiur-
~zezco Penitenzia aurrera; eta zertaraco onein Penitenzia?
~ezertaraco ez, Aisquidia, baldin ez badauca berte surtarric,
~euben burubai Mundu onetan ecarri deusten, atsecabe eta-
~ric itzi ditudanac baño; orago igo bia dau, eta Jaio bia dau
~Penitenzia biotzezco onec, aitatu deutsudan, surtarri bien
~arteco batetic edo bestetic, eguiazcoa izateco; eguia da, Ais-
~quidia; pecatubac beragaz ondoren Mundu onetan ere da-
~carren, samintasun au (quiero esango deutsudan lequez)
~guztiz ona eta edezza da, Pecataria bere pecatubetaco lo
~pürutic izatzateco, eta, biotzezco Penitenzia eguiazcoaren
~videz Sacramentu au aurrutic, Jaungoicoagana biurtic era-
~guiteco.

Pecatuben gañeco biotzezco Penitenzia onec, egon bia
dau, Jaungoicoari zor deutsagun, amoriozaren neurrian,
(esan gura dot) amaru bia dogun lequez aren Divina Ma-
gestadia biotz guztitic, aldogun gara, eta beste gauza
guztiac baño gueiago, orobat Pecataziac eraguin bia dau
bere pecatuben gañeco biotzezco Penitenziarric, aldaben an-
diena, zergatic pecatubac galdu eraguin deutsain be-
re Jaungoicoa, eta, zor eutsan, gauza guztien gañeco amo-
riosa; eta eguinian dago, ezin berriz Pecataria biurtu dite-
quiala Jaungoico santu oneganaco gauza guztien gañeco
amoriozco, au galdu eraguin deutsain, pecatuben gañian
artzen ez daben bitartian biotzezco Penitenziarric aldaben

andiena, eta, zor deutsan, gauza guztien gañeco amorioa-
ren antzecua, eta neurricoa; eta ala Jaungoicoac berac ere
Escritura Sagraduban neurri baten aguinquetan dau peca-
tuben gañeco biotzezco Penitenzia au, eta beraganaco amo-
rioa; Joel Profeta santubaren aotic aguinquetan deuste Pecata-
~riai: biurtu zaitezte nigana zeuben biotz guztian: eta oro-
bat amorioaren gañian aguinquetan deuscu Deutoronomio-
~co bere Liburu sagraduban: amauco dozu zeure Jaungoi-
~co Jauna zeure biotz guztitic: bai, Aisquidia; amorio santu-
bac eta pecatuben gañeco Penitenziac izan biar daube biotz guz-
ticuac, eta egon biar daube neurri baten: gueiago; Jaungoico
gure Jauna bacarric bere izatez da ona, gauza guztien ga-
ñian amau biar dogun ondar bagueco Ontasuna bera, eta
ontasun mueta guztien Yturri bacarra, orobat bada, Onta-
sun bacar au galdu eraguiten deuscun, pecatuba bacarric
bere izatez da gaitz bacarra, alditequian izugarriena, eta
biotz guztitic, aldogun gara, gorrotau biar doguna; argatic
ere, Pecatariac bere pecatuben gañian artzen daben, biotzezco
Penitenziac izan biar dau biotz guzticuac, aldaben andienac,
eta, Ontasun mueta guztien Jabia eta ondar bagueco Ontasu-
na bera dan, Jaungoico santubari zor deutsan, gauza guztien
gañeco amorioari erantzuten deutsana.

Nola dan, Jaungoicoari zor deutsagun, gauza guztien
gañeco amorioa, eta orobat, Pecatariac bere pecatubacatic
euqui biar deutsan, biotzezco Penitenzia aimbat andiena,
zor deutsan, amorioari erantzungo deutsana, bere neurrian
egongo dan moduban, ondo ezaguquetaco, Aisquidia, Jaquin
~biar dozu, bi modutan aitu ditequiala, guc gauzaren bat
~gueiago amaitia, eta orobat, gauzaren bat galduric, gueiago
~damuquetia; bata, gauzia onentzat amaitan dogun alde-
~tic, eta orobat, au galduric, gauzaric onena galdu dogula-
~co damuquetan gaian aldetic, gurago gueuquiala, beste edo-
~zein gauza galdu, galdu dogun, gauzaric onentzat gueuca-
~na, baño: bigarren moduban aitu diteque gueiago amai-
~ta eta damuqueta au indar senduagoaren aldetic, zeñagaz
amaitan dogun gauzaren bat, eta orobat damuquetan ga-
rian, onela amaitan dogun, gauza galtzen dogunian; baña
autuban edo guere escuban ifiñico baleuscube, gauza bie-
tatic zein galdu, edo, onentzat amaitan dogun, gauzia, edo, in-
dar senduaguagaz amaitan dogun, beste onentzat ez dau-
cagunen bat, guragoco gueuque galdu, indar senduagua-
gaz amaitan dogun, gauza, onentzat amaitan doguna baño;

ara, Aisquidia, nola guertatu oi dirian guere biotzetan, iragoten dirian, amorioaren edo damuariaren gueiago edo andiago mueta bi oneic: zuc daucazu zeure Ꝛmaztia, Seme Alabac, eta Servitzariac, eta beste alde batetic eguizu contu daucazula Zacur bat guztiz iratzarria, zeuc aiquetara emun gura deutsazun, edozein gauza eguiten deutsuna; buruban bada Juizioric badaucazu amauco dituzu lenengo amorio muetiagaz zeure Ꝛmazte, Seme Alaba, eta Servitzariac onentzat, eta ascoz gueiago, egunaz eta gabaz aimbeste zoraquetan zaituban Zacurra baño, eta orobat guragoco zeuque, Zacurra galdu dedin, esan ditudan, Personetatic beste edozein baño; bigarren amorio muetiagaz barriz (au da) beguiraturic, onei guztioi deustezun, amorioaren indar senduagoaren aldetic, amau zeique ascoz gueiago zeure Zacurra, esan deutsudan, beste edozeiñ Persona baño; eta orobat, Zacur au galduco ballatzu, Jauso zeique damuari gueiago (au da) indar senduagoco damuaria, esan deutsudan Personetatic edozeiñ illgo baliz baño; eta au guztia eguin zeique, Jaungoicoac bere Leguian aguinquetan deutsun, amorio santubaren calte bague; eguia da; ascoz obeto eguingo zeuque, amorio mueta biacaz gueiago amauco bazitu Persona orreic eta beste edozeiñ Zacurra baño (au da) zeure estimazinoraco onentzat gueiago amaitan dituzun leguez, amauco bazitu ere amorio indartsubaguagaz, eta senduaguaz Zacurra baño; bada onela egongo ziñateque ascoz urriñago, Progimuacanaco amorioa aguinquetan deutsun, Jaungoicoaren Leguia ausitetic.

Ꝛmendic erraz eta ondo ezagutuco dozu, Aisquidia, nola dan, Jaungoico gure Jaunari zor deutsagun, biotz guztico eta gauza guztien gañetico amorio aimbat andien au eta orobat amorio santu oni erantzungo deutsan Pecatariaren aldetico biotzezco penitenzia aimbat andien au: Jaungoicoari, (salvauco bagara) euqui biar deutsagu gueure biotz guztitic eta gauza guztien gañetico amorioric aimbat andiena, lenengo moduban aiquetan dan amorio muetia; eta onela amaitan dogu, guere vorondatiac erabaguiric dagozen bitartian, lenago galtzeco gauza guztiac guere vizitzac ere, aren Divina Magestadia pecatubagaz galdu baño; eta orobat Pecatariac bere pecatuben gañian artu biar dau amorio mueta oni erantzungo deutsan biotzezco Penitenziaric aimbat andiena; eta ala artzen dau biotzezco Penitenzia mueta au, damuquetan dan guztian alaco moduz eze, eguiteco baleuca eguiñic daucan pecatubac, gurago leuquian, bere vizitza bera baño, aiec eguin bagaric euqui-

tia; baña amorioa bigarren moduban aituric (au da) vizita-
sun edo indar gueiagoaren aldetic, zeñagaz gauzaren bat
amaitan dogun, aren Divina Magestadia biotz guztitic eta
gauza guztien gañian amaitia aguinquetan deuscun, Legui-
ac ez deuscu eragozten, euquitia beste gauzaren batzubei
vizitasun gueiagoco amorio au, eta orobac artzeia, eurac
galdubagatic, vizitasun gueiagoco damuaria edo biotzez-
co Penitenzia; au ecusten dogu sarritan, Jaungoicoaren
Aisquide eta Christaun ontzat daucagun, Personacaz; vizi-
tasun gueiagoco amorioa euqui oi deuste oneitatic batzu-
bec, laztan dituben, beren Gurasuai, beren Esposoai, oneic be-
ren Emaztiai, beren Seme Alaba, eta Senidiai Jaungoicoa-
ri baño; eta oneitatic bat galtzen bada, norañocua izan oi
da, maite eben, Personiac Jauso oi daben biotzeco damuariaren
vizitasuna? beren pecatubacatic iñoiz eracutsi ez dauben le-
guezco aiñ vizitasun andico damuaria; bai, Aisquidia; orre-
gatic ere oneic Jaungoicoa biotz guztitic eta gauza guztien
gañian amaitan daube, bardin eguiaz erabaguiric vizi ba-
dira, aren Divina Magestadia pecatubagaz galdu baño le-
nago galtzeco beren vizitzac, eta, aiñ viziro maite dituben,
Persona guztiac, igues eguiten daubela euracandic, pecatura-
co vidian ifini gura dituben guztian; eta orobat, pecatubagaz
Jaungoicoa galduric, Jausoco daube amorio santu onen an-
tzeco eta neurrico beren pecatuben gañeco biotzezco Peniten-
ziaric aimbat andiena, gurago leuquien guztian, pecatubacaz
Jaungoicoa galduric euqui baño, lenago, vizitasun gueiagoco
damuaria emungo eusten, beren vizitzac, eta, aiñ maite ditu-
ben, Personac galdu balitube batere pecatu bagaric: eguia da,
Aisquidia; Jaungoico gure Jaunac merezi dau gure biotzetaco
amorio guztia ala gauza guztien gañeticoa nola indar edo vi-
zitasun gueiagocoa, eta orobat, bera pecatubacaz galdu ezque-
ro, guere biotzezco Penitenziaric aimbat andiena ala gauza guztien
gañeticoa nola indar edo vizitasun gueiagocoa; David Erre-
gue eta Profeta Santubac bere pecatubacatic biotzezco Peni-
~tenzia aiñ guztizcoa Jauso eben, nun esaten deuscun: gabe-
~ro nire (beguietaco) negar malcuacaz bustico dot nire
~oia: argatic, San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsubac ai-
~quetara emuten deuscun leguez, Fede santubagaz vizi diri-
~an, Christaun Catolicuentzat lotsagarrico gauza da, negar
~andiac eguitia, Anima bagaric illic guelditu dan, Corputz
~bategatic, eta batere negarric ez eguitia, Jaungoico bagaric
~illic guelditu dan, Anima gaiñuagatic.

Pecatariac bada bere pecatuben gañian Jauso biar da-
ben, biotzezco Penitenzia edo damuari onec beguiratu biar
deuste, Memoriara ecarri dituban, pecatu guztiai, bacoitza-

ri banaan (au da) Pecatariac ez dau gueldi tu biar, biotzez-
co Penitenzia edo damuari au sortubagaz, bacarric Peca-
taria izandalaco, baizican sortzen daben, Penitenzia edo
damuari au zuzendu eta zabaldu biar dau, Memorian
daucan, pecatu guztien eta bacoitzaren gañian; oneta-
raco ez dau premiña Pecatariac, aimbeste vider biotzezco
Penitenzia edo damuari au sortzeia, zembat pecatu dau-
can Memorian, pecatu bacoitza aldian bat gorrotaitan da-
bela; baizican bere Espiritu eguiaz damutubaren beguira-
cune bacar bategaz zabalduco dau biotzezco Penitenzia,
damuari, edo gorroto au bein, Memorian daucan, pecatu guz-
tiacana, bat itzi bagaric gorrotatzaca; bada, Animiac gorro-
tau aldi bategaz bacarric eguin daiquian eta eguiten daben,
langueia da biotzezco Penitenzia au.

~ Nor baitec esango deust, Aisquidia: Jauna; bardin bio-
~ tzezco Penitenzia guei premiñacua bada Sacramentu one-
~ taraco, ezin nic artu neique Penitenziaco Sacramentu au;
~ zergatic gauza jaquiña da, biotzezco Penitenzia edo da-
~ muari onec eguiaz izan biar dabela, Sacramentuba ar-
~ tu gura dabenac eguinic daucan, pecaturen baten gañi-
~ an; nic eguin dot esamina Conzienziacoa (ustez) erra-
~ zue dan moduban; eta confesau aldi onetan ez dot billa-
~ quetan nire Animan pecaturic, zeñaren gañian jauso
~ daitquedan biotzezco Penitenzia edo damuari au; gueien
~ daucadana da nire oituera zatarreco pecatu venial bat-
~ zubec, zeñetan, iguiñ baditut ere, ustez uste bagaric sar-
~ ritan eta egunoro jausten naiz; eta ez da erraz, nic orrein
~ gañeco biotzezco Penitenzia eguiazcoa artzeia; bada oitue-
~ riac azpian arturic nauca: onela verba eguiten dabenac, Ais-
quidia, ez daqui ondo Sacramentu santu onen barria, ga-
izqui esaten dau, eta ez dauca errazueric: Sacramentu au
artu gura dabenac eguiaz, eta bere grazia [redacted] santu-
ba, eguinic bere esamina Conzienziaco errazuazcoa, ecu-
sico baleu ere confesino aldi artan eta andic aurreraco guz-
tietan (ezin ditequian gauza) bere Anima pecatubetatic Ze-
ruco Ainguerubac duiñ garbia, ez dau batere atzeratu biar,
eguiaz guertaturic, Sacramentu au artzetic; ara nola: ecar-
rico dau Memoriara, artezañoco bere vizitza bitarte guz-
tian, uso errazuazcuan sartu ezquero, eguinic eta confesa-
uric daucan, pecatu bat naiz mortala naiz veniala, baña
zeñaren gañian emendauric vizi dan; sortuco dau aren ga-
ñeco biotzezco Penitenzia, eta orobat, aldaben gara, bere oi-
tuera zatarreco pecatu venialen gañian; eta onela guertatu-
ric confesauco ditu bere oitueraco pecatu venialac eta ondo-

ren leenagoco pecatu confesauric daucana, zeñaren gañeco biotzezco Penitenzia edo damuaria sortu izan daben bere Animan, onela izan dedin pecatu au eta bere gañeco biotzezco Penitenzia au Sacramentu onetaraco guei eguiazcua, bildur dan ezquero damuari eguiazcoa sortzeiagaz bere oituela zatarraco pecatu venialen gañian; onembestegaz alde batetic uts emun leiquion, Sacramentuba izango dau eguiazcoa beste aldetic; argatic Sazerdotiac ere, esaten deuste onerian Christaunai, ifini daguiela damutasuneraco eta Absoluzinc santuraco gueitzat lenago confesauric daucain, pecatubat, eta onen gañian euqui oi daube buru ausiteric asco, gauza au nola dan, ez daquien Christaunacaz: pecatu beiñ eguiñicaco bat bacarragaz bada batec, aurrera (ezin ditequian gauza) Zeruban Santubac duin ondo vizi baliz ere, artu daique eguiaz Sacramentu Penitenziaco au aimbeste vider, zembat vider pecatu bacar ori, bere gañeco biotzezco Penitenzia eguiaz sorturic, confesau gura daben, egunoro bada ere; eta onela vizi danac beti dago bere pecatu bacarraren gañeco penitenzia eguiazcua eguiten, eta Sacramentutic Sacramentura gueitubagaz dua bere Animan Jaungoicoaren grazia.

Biotzezco Penitenzia au da bacarric Animiaren langueia, eta argatic guztia da obra Espirituala; ala ere batzubetan bere ugaritasunaren eta anditasunaren erruz irago oi da eta zabaldu oi da Corputzera, Pecatariari bere begui bietatic negar malco gozoac itzuli eraguiten deutsala; ala itzuli zituben beren begui bietatic Yturri bitic leguez negar malco ugariac beren pecatubacatic David Erreguiac, Santa Maria Madalenac, eta San Pedro Apostolubac, eta orobat gaurco egunian Pecatariren batzubec; baña au Jaungoicoaren doaia dan leguez, aren Divina Magestadiac emuten deuste due au batzubei, eta beste batzubei ez; eta bere begui biac arriac duiñ liorrac daucanac ez dau batere bere biotza estutu biar, ez dau batere atsecaberic artu biar, biotzezco Penitenzia eguiazcoric ez daucan ustian, pecatubacatic negar malcuac itzulten ez ditubalaco; ez, Aisquidia, iñolaco moduz orrelaco gauzaric; ez dago biotzezco Penitenzia eguiazcua negar malcuetan; ascoc daquie erraz pecatubacatic negar eguiten damuari edo biotzezco Penitenzia eguiazco bagaric, eta beriala biurquetan dira lengo pecatubetara; eta beste ascoc daucai biotzezco Penitenzia eguiazco au, beren begui biac Arriac duiñ liorrac daucaila; biotzezco damuari edo Penitenzia eguiazcoaren Aguiriric onena da bada, Aisquidia, lengo pecatubetara ez biurquetia, eta aurrera vizitza barrion bat eguitia: ecusi eguizu, due maitagarri onen gañian esanic itzi deutsudana iruroqueta amabost-

garren ofiaren ostian.

Pecatariac bada bere biotzezco Penitenzia au euqui biar dau sorturic bere Animan, guichienez Sazerdotiaren absoluzino santuba artzeco, demporan; argatic dempora onetan Christaunac daucai oituera, barriztaitaco beren damuari au, acto Contrizinocua esanagaz biotz guztitic; eta ala bardin Pecatariac artzen badau absoluzino santuba, biotzezco penitenzia au arteraño sortu bagaric, ez dau artzen Sacramenturic ez ondo eta ez gaizqui; baña guei au guertaquetaco, Jaungoicoaren laguntasunagaz batera, beinguan guertatu daiquiana, bada ere, ez dau iñorc ichaiñ biar absoluzinoco demporaraño; lenaz eguin biar dituban langueiac dira esamina Conzienziacua, eta biotzezco Penitenzia; eta batec eguin daique gauza bi oneic, confesauco dan, lenagoco arrasaldian edo gabian, eta onela sorturicaco biotzezco damuari edo Penitenzia asco dau, urrengo goizian ondo confesaitaco, eta eguiaz artzeco Sacramentuba, bardin bien bitartian pecaturen bategaz galdu ez badau biotzezco damuari au.

Sacramentu onen esque datozen, guztiac, itanduric bacoitzari banaan, ete dacarren bere pecatuben gañeco biotzezco damuaria edo Penitenzia, erantzuten daube: bai, Jauna: ez da billaquetan, au erantzuten ez daben, bat; baña ascoc aguirian daucai beren guizurrac; beren vizi modubac eta oituerac aiquetara emuten daube, miñian bacarric gorroto ditubela eta biotzian guztiz maite beren pecatubac; ez da bada Sacramentu onetaraco lenengo guei santu au miñezco gorroto, damuari, edo penitenzia; baizican biotzezcoa; onetaraco ez dau asco confesaitara datorrenac esatia, damuturic daguala, pecatubac eguiña; ez dau asco aoz acto Contrizinocoa esatia bacarric, ni, ascoc ala uste ete dauben, bildur naizan leguez; ez dau ere asco, biotzezco damuari edo Penitenzia au euqui gura izatiagaz bacarric; baizican eguiaz sortu biar dau bere Animan biotzezco damuari edo Penitenzia au; ete dagozen, Aisquidia, Christaunen batzubec, esamina conzienziacoa nola al eguiñic, gueiagoco bague beriala confesaitara duazenac, beiñ confesauricaco pecatubac confesaubagaz beste bague guztiac parcaturic gueldiquetan dirialaco sinistian eta ustian? beren vizitzaiari eta confesaitaco modubari beguiraturic esan leique, baietz.

Eguia da, Aisquidia; bere pecatubacatic eguiaz da-

muquetia gura daben, Christaunac vide andia dauca
eguiñic, eta urr emuten deutsa bere pecatuben gañeco biot-
zezco Penitenzia santubari; zergaitic onerian Pecatariac
guertaturic eracusten deutsa bere vorondatia aren Divina
Magestadiari, eta beraganaco esperanza errimiagaz eta
erregu humildiagaz escaquetan badeutsa bere arguitasuna
eta grazia santubaren laguntasuna, Pecataria condenau
dedin, gura ez daben, Jaungoico santu onec, eta bai, beraga-
na biurturic, salvau dedin, ezin utsian itzico dau; lagun-
duco deutsa, bai; eguin begui bada Pecatariac bere alde-
tic dana, pecatuben gañeco biotzezco damutasuna eguiaz
sortzeco, eta eguiaz damutuco da; ez da ez languei san-
tu au aiñ necosua, zeinda batzubec iduri eraguiten dau-
ben; eta onerian Christaunac bere aldetic dana eguinic oraindio baderitzo ere, ez dau-
cala biarlezco damuariric, betor batere bildur bagaric
confesaitara; eta Jaungoicoac absoluzino santuba artu
orduraco guertatuco deutsa bere Anima, Sacramentuba
eta bere grazia artzeco, premiña daben gara.

Jaungoicuac, gu salvaitaco, daucan bere grazia santuco
ordena sobrenaturalian aguinquetan deuscu, salvazino
au anchiquetaco, premiña dituguh, languejac bere ordena naturali-
an, Agustu onac artu gura dituban, Necazariari escaque-
tan deutsan, leguez artaraco premiña dituban, langueiac; ecusi
eguizu berroqueta amazortzigarren ojan, ondorenguaren ar-
peguian, iruroqueta bat garrengo ojiaren ostian, eta oqueta zaz-
pigarren ojiaren arpeguian, baita ere berroqueta amabi gar-
ren ojiaren ostian esanic itzi deutsudana: ecusiric ere dago, be-
re grazia santuco ordena sobrenatural onetan Pecatariari
aguinquetan deutsan, langueietatic bat, eta guztia sobre-
naturala, dala biotzezco penitenzia au.

Ecusten dozu, Aisquidia, Necazaritzaco Ofizioan
~ez dala, lanac eguitia, batec esatia: eguiñic daucat; eguin
~gura ditut: bada eurac eguiaz eguitia da bacarric, lanac
eguitia; orobat eta beste aimbeste biotzezco Penitenzia
bere Animan sortuco daben, Pecatariac eguiaz eguin biau-
~co dau languei santu au; itanduco deustazu oraiñ: ¿Jau-
~na; nola inguiratuco naiz, biotzezco Penitenzia au eguiaz
~nire Animan sortzeco, languei onetan? erantzuten deut-
~sut: zeure modura aimbat onduen eguin aldaiquezun
~Orazino Mentalagaz; bai, Aisquidia; Achur santu onegaz
ederquiro guertatuco dozu zeure Animaco soroa, sortze-
co biotzezco Penitenzia eguiazcoa.

Iquinic bada zeure errazuazco esamina Conzi-
enziacua, beriala ondoren asico dozu zeure Orazino
Mentala, aurraz iracurten dozula edo goguan tartzen
dozula meditazinoraco, zivere biotza Jaungoicoco
co amoriora eta pecatubacanaco gorrotora bigundu-
co eta vizituco deutsula, deritzozien, punturic onen
bat; eta auren gañian ondo meditaubagaz, iste
dot, errez billatuco dozula, esque zarian, biotzezco
Penitenzia au; bai, Aisquidia; gauza Jaquiña da, ezin
iñoxe sortu daiquiala bere Animan damuari edo biot-
zezco Penitenzia au, bacoitzac bere moduraco dis-
cursso santu batzubec antaraco aurraz eguiten ez
baditu; edo beretan onela guertaquetan ez dan one-
rian Pecatariari Jaungoicoac gura eta pura ez leguez
sartu bianco deutsa bere Animan biotzezco Peniten-
zia au, autso eta artuic; zeña izango lizatequian gra-
ziaco ordena sobrenatural onetan Jaungoicoari premi-
ña eta errazue bagaric milagro bat escaquetia.

Iturroqueta aurrangoaren ofatic ausi eta iturroqueta
aurrangoaren ofa, burutik billatuco dozu, Aisquidia, nola eguite-
ten dan Orazino Mental au, eta, meditaitaco, norentzat
nai abecatsat dirian, puntubac; oneitatic bada edozeñe-
gaz sortu daiquezu biotzezco Penitenziaric onena, zeña
dan Contuzinua, eguiten dozula onetaraco zerurgan
dana, Atruzinuan guelditu bagaric, Sacramentubaatz-
eco diun garaco, gueia, eta guei errazagua bada ez;
eguia da; puntu aitatic edozeñec ez deuste Pecatari
guztiai bardin bigunquetan beren biotzac; guztiac dira
onac eta santubac, baña ez Pecatari guztien Animetan
eztu baroliñecuac; dira Maiandi batera etzira oi dirian ja-
nariauen antzecuac, ez Maian dagozen guztiac guz-
tietatic jun daquien, baizican bacoitzac zale daretic
eta on eguingo deutsanetic; batzubei on eguiten deus-
ten, janariac beste batzubei calte eguiten deuste; ono-
bat bacoitzac, bere Animan erruts ubago bigunquetan
detuben, errazoiac puntu paten baño bestian gueiago billa-
quetan dibu.

Meditazinoraco izentau deutsudan puntu guztien
artian edozeina eta onena, Christauin Pecatoriari biotzez-
co Penitenziaric onena eta senduena sortu eraguiteco da,
Aisquidia, Jesu Christo, eta au, ultzez josirik, cruzifi-

~eseguia gure pecatubacatic; au izan zan San Pablo Apos-
tolubaren Jaquinduria guztia, Munduco Pecatariac biot-
zezco Penitenziaric onenera bigunquetaco; emen Pecatari-
ac billatuco ditu errazue mueta guztiac Jaungoicoagana-
co bildur eta amorio santuba, eta, emetic Jaioten dan, biot-
zezco Penitenziaric onena sortzeco; emen ecusico ditu, peca-
~turic eguin ez euben, Arriac puscaturic, Lurra icaraturic,
~eta Eguzquia illunduric beren Jabiaren egoera negargar-
~rizcoagatic, guri pecatubac parcaquetiarren; emen ecusi-
~co dau Jaungoicoaren ondar bagaco Justizia, eta pecatuba-
~canaco gorrotua, bere erruqui eta amorio larreguia Peca-
~tariacanaco; eta bere ondar bagueco ontasuna; emen ezagutuco dau, nola bere Curutzeco
egoera guztiac, besoac zabalic, buruba macurturic, eta bu-
larra ideguiric, eracusten deutsan Pecatariari, deutsan,
amorioa, eta Pecatariari ere amorioaren eta pecatubaca-
naco gorrotoaren esque daocola, laztan estu bat emute-
co; emen ezagutuco ditu, Isaias Profeta santubaren aotic
Pecatariari biotza erdibitu leiquion amorio larreguiaz
~betericaco esaten deutsan, errazue oneic: Semiac azi eta
~Jauso ditut; baña eurac alde batera itzi naube; Idiac eza-
~gutu dau bere Jabia, eta Astuac bere Jabiaren asquia; ba-
~ña Israelec ez nau ezagutu eta nire Puebloac ez dau euqui
~ezaguperaric: orobat Jeremias Profetaren aotic esaten deutsana:
~¿zer da, nire biotzeco maitiac eguin ditubala gaiztaque-
~ria asco nire Echian? bai, Aisquidia; Jaungoicoaren be-
tez betezeco vizi lecuco Echia da bere Seme Jesus maitia-
ren Humanidade edo Guizatasun santisimua, pecatubaca-
tic Curutzian, eta arteraño zatituric eta puscaturic ecusten
dozun, ori; emen azquenic Pecatariac ezagutuco ditu, Zeru-
co Ainguerubac eurac ere esan ezin daiquien gara, errazue,
bere biotza erdibiraquetaco aren Divina Magestadiaga-
naco amorioz, eta, eguiñ daben, pecatubanaco gorrotoz.

Lau Novisimuetatic edozeñec orobat eracutsico deut-
sa Pecatariari errazueric asco, sortzeco ez bacarric, Atri-
zinua esaten deutsagun, baita ere, Contrizinua esaten deut-
sagun, biotzeco Penitenziaric onena, lenengoa asco badau ere,
Sacramentuba artzeco; edozeiñ izango da, Fede santuba
daucan, Pecatariarentzat aculu zorrotza, pecatuco lo pi-
ñutic iratzarri eraguiteco, eta biotzezco Penitenziaric one-
na sortu eraguiteco: Isaias Profeta santubac itanquetan de-
~uste Pecatariai: ¿zubetatic nor vizico da su indartsubagaz?

~;nor (eternidade guztian iraungo dauben) gar beticoacaz.
Ha! Aisquidia; Fedea daucan Pecataria, eta, ondo dagua-
la, eun osoa ugeric bigunenian egoera baten iragoteco, bi-
otzic ez daucana guelditu bedi, daroian, vidian, eta erant-
zun beguio Profeta santu oni; Jaachi bedi considerazinua-
gaz suzco toqui izugarri aietara, eta bego an, bere pecatu
eta gaiztaqueriacaz irabaziric daucan sari izugarri oni
ondo beguiraquetan deutsala, eta, sari onen aazcarria dan
dañuco pena esaten deutsagun, tormentubari, zeña dan ondar
bagueco ontasuna bera, eta ontasun guztien Yturri bacarra
dan, Jaungoico bagaric eternidade guztian egon biar izatia,
beti beragandic madaricatuba; ontasunic batere bague, eta
gaitz eta atsecabe mueta guztiacaz barrutic eta campo-
tic inguraturic bego, bere considerazinuagaz izutu artera-
ño; eta, ezaguturic, sari au dala, bere pecatubacatic irabazi
dabena, ez gaizqui gura deutsan, baten escutic, baizican
ula guizi baten utsic eguin ezin leiquian, Justizia beragaz
daucan, eta amorioa bera dan bere Aita [redacted] Jaungoico ona-
ren escutic, igo begui sari onen iguesi Jesus maitiaren eta
cruzificaubaren besoetara, amau begui aimbat gueien
aren Divina Magestadia gauza guztien gañian, eta, bere neurri
bagueco ontasuna aimbeste ofendidu dauben, pecatubaca-
naco gorroto santubat artu begui: onela Pecatariac Novisi-
mo onegaz leguez beste edozeñegaz ere sortu daique Jaun-
goicoaren laguntasunagaz batera biotzezco Penitenziaric onena:
orobat batec, pecatu mortalic ez daucala, baizican pecatu
venial utsac, onein gañeco biotzezco Penitenzia eguiazcoa
sortu daique Jesu Christo cruzificaubaren, edo Purgato-
rioco penen gañeco considerazino santu batzubecaz, ecusi-
ric, Jaquinian esan oi dan, guizur chiquin bategatic ira-
bazten ditubala pena izugarriac eta dempora luzaroco
Purgatorioan; Ha! baquiaren amorioagatic esaten dirian,
guizur santubai pozturic vizi dirian Christaun zatarrac; eta
zeiñ nequez damutuco dirian! orobat diñot, Aisquidia, bes-
te edozeiñ pecatu venialetaraco oituera zatarrac maite di-
tuben Christaun epelacatic; eguia da; pecatu venial oneic con-
fesaitia vorondatezco gauza da, eta ez premiñacua; baña eu-
racaz bacarric artu gura badau Sacramentuba, ezin artuco
dau, beren gañeco biotzezco Penitenzia eguiazcoa ez bada-
uca, guei au bagaric beiñ ere artu ezin leiquian leguez; eta
pecatu venialen bat edo beste eguin bagaric vizi ezin badi-
teque ere Christauna bere vizi guztian, iguiñ izan biar ditu, eta
ez maite; bestela maite ditubanac pecatu venialac, pecatu
mortalic eguin bagaric ondo vizi danen ustian, oiñ baten
luzaeraric ez deutsa uts emuten, Infernura doian, vide
zabalari; aiñ guztiz ur emuten deutsa, eta, atzera pauso egui-
ten ez badau, laister sartzera dua Infernuraco vide zabal onetan.

Lau Novisimuacaz ostian Jaungoicoac Pecatariari
bere bacarrian eguin deutsan mesede temporal edo
Mundu onetacuac; Pecatariac pecatuben videz bere buru-
bari ecarri deutsan, gaitz, lotsari, eta atsecabe tempo-
ralac; eta orobat, bere pecatubacatic Jaungoicoaren es-
cutic etorri dequiquion, naibaguetasun temporalac
gauza oneic guztioc eta bacoitza banaan dira Aculu
guztiz indartsubac, ederrac, eta onac, Pecataria bere
pecatubetaco lo piñutic etarateco, eta beren gañeco biot-
zezco Penitenziaric onena sortu eraguiteco; egui au,
Aisquidia, ez da nic asmauba: David Erregue adulte-
rioco pecatuban jausi zan, Bersabe eritzon, Emacume ez-
condubagaz, eta ondoren, bere Esposo Vrias Capitan ge-
neralari, Etsaiacaz eucan, guerra baten bere vizitza
quenduco eutsain moduco, aguinte bat emun eben, eta
ala galdu eben vizitza Vrias inozente onec Etsaien es-
cutic guerran, Erreguiac onetaraco neurriac emunic eucan
leguez bere Egerzitoco Aguintari nagusiari: ecusiric Jaun-
goicoac David Erreguia Adultero eta Eriotzaguilla bat
eguiñic, bialdu eutsan, Natan eritzon, Profeta santuba,
lotsaiatu eguian, eguin zituban, pecatu eta gaiztaqueria
~ izugarri bi oneicatic; Profeta santubac bada Jaungoicoa-
~ren izenian aiquetara emun eutsan, bere escu santutic ar-
~tu zituban, Mundu onetaco mesede temporalac, nola Arza-
~in izatetic jauso eben Ysraelgo eta Judeaco Erregue izate-
~ra, eta nola, bere Etsai zan, Saul Erreguia quenduric
~eguin eben onen Erreinu eta gauza guztien Jabe; eta az-
~quenic esan eutsan: chiquiñac badira mesede oneic, guei-
~tuco deutsut (oneicaz gañera) ascoz andiaguac: onela sar-
~turic Natan Profetac David Erreguiari, Jaungoicoac eguin
~eutsan, mese onein Aculu zorrotza, ondoren arpeguian
~emun eutsan aren Divina Magestadiaren izenian, eguin
~zituban, pecatubac, esaten eutsala onela; zergaitic itzi
~dozu alde batera Jaungoicoaren leguia, pecatu eguitiar-
~ren nire aurrian? Amongo Semien ezpatiagaz quendude-
~utsazu vizitza Vriaseri, eta artu dozu bere Emaztia zeu-
~re Emaztetzat; argatic faltaco ez da zeure Echetic (nire
~justiziaco) ezpatia, alde batera itzi nauzulaco; eta ondo-
~ren aiquetara emun eutsan, eguin zituban pecatubaca-
~tic Jaungoicoac, bialquetaco, erabaguiric eucan Mundu
~onetaco atsecabe mueta asco; au izan zan Natan Profe-

tac sartu eutsan bigarren Aculuba; eta David Erreguia
izan zituban mesedetaco lenengo Aculubagaz, eta izan
biarco zituban atsecabetaco bigarren Aculu onegaz
aiñ gogotic eta benetan iratzarri zan bere pecatubeta-
co lo piñutic, nun Profetiaren errazue oneic entzunagaz
~ batera esan eben: pecatu eguin deutsat Jaungoicoari:
au entzunic Natan Profetac erantzun eutsan: Jaun-
~ goicoac ere quendu dau (bere aurretic) zeure [redacted]
~ [redacted] pecatuba (zan esatia) parcatu deutsu ze-
ure pecatuba; Ho! biotzezco Penitenziaric alzitequi-
an onena eta sendoena!

Jesus maitiaren aldamen bietan Curutzetan ese-
guiric egozen Lapur aetatic batacurutzian Josia izan
arteraño pecatuco lo piñuban beguan ere, ecusiric bere
vizi guztico gaiztaquerien saria bere gañian, miñ for-
titzac, lotsari andia, eta ondorengo eriotza, iratzarri
zan, eta biotzezco Penitenziaric onenaren videz biurtu
zan Jesus maitiagana; argatic bere Magestade Divi-
~ noaren aotic entzun zituban itz guztiz gozo oneic: ga-
~ ur nirequin egongo zara Paraisuan: ogueta amazortz-
zi urtian ugaturic eguan Guizon batec escatu eutsan
Jesus maitiari osasuna, baña orduraco, aimbeste on-
doezegaz aculaturic, sortu eben bere pecatuben gañeco biotzezco
Penitenzia; [redacted] Jesus maitiac, autorturic, esque zan,
~ osasuna, esan eutsan: beguira; sendatu zara; ia ezegui-
~ zu eguin nai pecaturic gueiago, oquerragoren bat
~ guentatu ezdequizun: perlesiagaz ugaturic eguan beste Gui-
zaiño batec, bere Corputzeco gaitzac aculaturic, sortu
eben bere pecatuben gañeco biotzezco Penitenziaric one-
na, eta escatu eutsan Jesus maitiari Corputzeco osasu-
~ na; argatic Jesus Divinoac erantzun eutsan: parcaquetan zaiz-
~ quizu zeure pecatubac; eta ondoren emun eutsan, esque
~ zan, Corputzeco osasuna ere: Judeguben arteco Escri-
bac eta Fariseoac arrapauric adulterioco pecatu lotsa-
garrian (beren Legue santuban eriotzaco pena eucan, gaiz-
taqueria zan) Emacume ezcondu bat, eruan euben Jesus
maitiaren aurrera, eta salatu euben; ecusi zan bada Ema-
cume au aimbeste Tenteren artian eta Jesus Divinoaren aur-
rian aculaturic, alde batetic aiñ lotsari andiagaz, eta bes-
tetic, vizitza quentzeco, Jesus maitiac aguinduco ete eben,
bildur izugarriagaz; ez diño Evangelio santubac, ordu-
ban zer irago zan Emacume onen biotzian; baña Jesus mai-
tiac, Salatzalla onei andic, lotsaturic, igues eraguinic, [redacted] Ema-

cume oni esan eutsan, berba gozoac aiquetara emuten
daube, bere pecatubaren gañeco biotzezco Penitenziaric one-
-na orduraco sorturic eucala; bada esan eutsan onela: ¿Ema-
-cumia; nun dira salaquetan zindubenac? ¿iñorc (eriotza-
-raco) ez zaitu condenau? erantzunic Emacumiac: iñorc ez
-Jauna: esan eutsan Jesus maitiac: nic ere ez zaitut conde-
-nauco; zuaz; eta ez eguizu gueiago pecaturic eguin nai:
orra, Aisquidia, Pecatariac Jaungoicoaren escutic izan ditu-
ban, mesede aguiriac eta bacarrecuac, eta bere burubari pecatuba-
catic ecarri deutsan, atsecabiac zeiñ onac eta ederrac dirian, Peca-
taria bere pecatubetaco lo pisutic iratzarteco, eta, biotzezco Peni-
tenzia eguiazcoaren videz Sacramentu au arturic, Jaungoicoa-
gana biurtu eraguiteco, eun eta berrogueta zortzigarren ofia-
ren ostian esanic itzi deutsudan leguez: ¿zerc Evangelioco Aita
onaren Semeric gaztienari, aiñ Erri urrinetan galduric ecusiza-
nian, gogora ecarri eutsan bere Aita ona eta bere Echeco ugari-
tasuna, eta araco vidia artu eraguin eutsan? ez bestec, baizi-
can, gaiztaquerietan urturic bere Senitparte aberats guztia, ez
euquitiaçzegaz estaldu bere Araguia, eta zegaz ill bere Sabele-
co gose andia; bada aguirian dago, aurrera juango zala bere
gaiztaquerietan, Senitparteco dirubac iraun baleutsai, eta ez
zala biurtuco bere Aita onaren graziara eta adisquidetasunera.

Onela, Aisquidia, Jaungoicoac daqui ecarten Pecatari asco
bere escu santuco zigorragaz beren pecatuben ezaguperara,
onein gañeco biotzezco Penitenziaric onenera, eta biotzezco Peni-
tenziaren videz beragana; ez daquiez ecarten guztiac lenengo-
tic amoriozco videtic, ecarri zituban leguez Santa Maria
Madalena, eta San Pedro Apostoluba: baña Ha! Aisquidia;
zembat Pecatari zori gaiztoco vizi dira Mundu zabal onetan! zem-
bat eta mesede aguiriaguac eta andiaguac artzen dituben
Jaungoicoaren escutic, osasuna eta errialen batzubec dauca-
in bitartian, aimbat gueiago poztzen dira pecatubetara, esaten
daubela, Espiritu Santubac beren izcunian esaten deuscun le-
-guez: pecatu eguin dot. eta zer atsecave guertatu dir niretzat?
eta zembat eta gueiago ¿Jaungoicoac estuquetan dituban beren pecatubaca-
tic emen bere escuco Zigor santubagaz, orduban gogorquetan
dira gueiago beren pecatubetan, pecatu izugarriaguac beraga-
tic eguiten ditubela, Lapur donguiac, Curutzian josiric egua-
la, eguin zituban leguez, Jesus maitiari blasfemia izugarriac
esanagaz; oneic bada ez batera daucai onic eta ez bestera; beguí-
ra bada, Aisquidia, onei ez jarraiquetiagaz zeure vizitzan.

Pecatariac, esamina Conzienziacuaren ondoren pecatuben gañeco biotzezco damuari edo Penitenzia au sortzeco lanqueia asiten daberian, ez deutsa erabaqui ~biar bere burubari: Atrizinoco Penitenzia errazago dozu ~eta asco dan gara ere bai, ondo confesauric Sacramentu ~au artzeco; eta ala astu equizu, Atrizinoco Penitenzia au ~sortzeco, onac dirian, videtaticerrazen bat: au izango lizatequie, Aisquidia, Pecataria labur ibiltia Jaungoicoaren tzat; equiaz bere Aita Jaungoicoagana biurtu gura daben Pecatariac equin biar dau berequan dana, sortzeco bere biotzian damuarric edo Penitenziaric onena eta andiena, escaturic onetaraco aimbat confianzaric andienagaz aiñ ¢mallia dan Jaungoicoari bere arguitasun santuba eta bere graziaren laguntasuna, eta onela equin eta jarraitu biar deutsa lanquei santu oni bere biotzeco aimbat zabaltasunic andienagaz, ezegaz estutu baganic; bada espiritueco estutasuna ezentaraco ere ona ez da, bequien aurrian daucana ere ecustia eragoxten dau; eta orobat lanqueiaren azquenian ez dau quelditu biar bere burubari bequiza jaquin eta ezagutu guraric, sortu dabela, deritzon, damuaria edo biotzezco Penitenzia ete dan Contrizinocoa ala Atrizinocoa; au izango lizateque gauza alper bat on baño calte gueiagocoa, eta ezin erabaquico lenguiana onetan jasarten dan; oic gozzoto izan bequie pecatubai eta armoniosa Jaungoicoari, eta betor bere izen santuban batere bildur bagazic bere pecatubac confesaitzera.

Biotzezco damuariari edo Penitenziari jarraiqueta deutsa proposito erriniac, ez gueiago pecaturic equiteco, zeña dan, Confesiño on bat equiteco, escaquetan dan, irugarren ~gauza: proposito errime au ez da beste gauzaric, baizican ~pecaturic ez gueiago equiteco, serondate erabaqui bat, ~edo (obeto esatiarren) Pecatariac, Animia Corputz bazzuban daucan, bitarte guztiraco artzen daben gogo equiaz~co eta erabaqui bat, ez pecaturic gueiago equiteco, ifinten ~dabela onetaraco esperanza gueiago Jaungoicoaren la~guntasunian, bere Animaco indarretan baño, burubazzuban ~errazoiaren arguitasuna daucan Necazariac Jaun~goicoaren laguntasunian bere besuetaco indarretan baño gueiago esperanza ifinten daben bequez.

Biotzezco Penitenzia equiazcuac berazgaz dau proposito au, eta, ez badauca, ezin izan diteque equiazcua; ecusi equizu, Aisquidia, esanic itzi deutsudana eun eta berrogueta seigarren ofiaren astian: esanic bada an,

zer dan biotzezco damuaria edo Penitenzia, gauza alper-
ra zirudian, nic zuri aitaquetia emen proposito errimia
bere bacarrian; ala ere aitatu deutsut, ia, artu dodan, sal-
lari jarraiquetiarren, confesino on bat eguiteco, premi-
ña dirian, bost gauzac bacoitza banaan aiquetara emuna-
gaz, ia zuri aguirian ifintiarren ascoren proposito guezur-
rezcuac, eta oneicaz batera bere biotzezco Penitenzia
guezurrezcoac.

Ascoren gogoa, pecaturic ez eguiteco, Aisquidia,
ecusten da, dala bacarric, Aratiztiac edo Resurreczino
santuco Pazcuac etorri arteraño; eta, dempora oneic nola
aguertu, Eliza Santac ifiniric baleuca leguez dempora
santu oneic, pecatu eguiteco, leen duiñ piso edo pisuago bi-
urquetan dira beren pecatubetara: beste batzuben go-
goa, pecaturic ez eguiteco, izan oi da, artaraco iñorc vide-
ric emuten ez deusten bitartian, edo, iñorc videric emun
ezagatic, eurac pecaturaco eraric ez daucain bitartian;
eta ala, nola bata edo bestia ecusi, corrica, pozic, eta
besuac zabalic duaza pecatura, David Erregue eta Pro-
feta santubac onerian Pecatariari esaten deutsan leguez:
~ecusten bazenduban Lapurra, beragaz corrica ziñuan-
~tzen, eta Adulteruacaz artzen zenduban zeure adis-
~quidetasuna: onelacuac izan oi dira asco vengativo, erroi-
duzale, ordi, lujurioso, maldiziente, lapur, eta murmu-
ratzallien gogoac, pecaturic ez gueiago eguiteco; eta oneri-
anac, batez ere Emacumiac, garbitu gura izan oi ditubo be-
~ren burubac, esanagaz: iñorc ifiñi ninduban, pecatu eguite-
~ra, gogoric ez neucala: artzeco dunen bat, zorduna, uts
eguinic bere artu emunetan, gueiago biurtu badeutsa, edo
orobat zorduna, artzeco dunac, uts eguiñic, guichiago art-
zen badeutsa, isillic eta pozic guelditu oi dira: orobat zer-
bait billaquetan dabenac, iñor beguira ez daguala, jau-
so oi dau beretzat, eta ez, Jabiari biurquetaco, gogoagaz;
orobat beste asco guztiz leialac dira, dabiltzen, Echetan, bes-
tec jaquin daiquian bitartian, norc artu daben, aguiri ezdan,
gauzaren bat; baña, eria euqui ezquero, gauzaren bat arra-
paitaco, iñorc jaquin eziñ deiquien moduban, damudaube
alaco eria galtzeia, eta arrapaitan daube; norc ezagu-
quetan ez dau, Aisquidia, onein eta onein antzeraco beste
guztien propositiuac, pecaturic ez eguiteco, eta beren biotzez-
co Penitenziac diriala erdi erditic guezurrezcuac, eta utsac.

Pecaturic ez gueiago eguiteco proposito onec, izango bada
~errimia eta eguiazcua, izan biar dau eraguiliac (dau da)
~Pecatariari, pecaturaco daucan, oitueratic edo videtic atze-

~ra eraguingo deutsanac, batez ere, Confesoriac peni-
~tenziaren azpian eragozten deutsan, videtatic, eta
~orobat artu eraguingo deutsanac virtute santubeta-
~co vidiac, batez ere, Confesoriac penitenziaren azpi-
~an aguinquetan deutsan, vidiac; baña, Aisquidia,
proposito au batere eraguillia ez bada, baizican Pe-
catariari bere oituera eta vide donguetan batere ica-
~raric eraguiten ez deutsana; nola izan diteque erri-
~mia eta eguiazcua? Ardaua len leguez ziia ziia eda-
tia, itzi eraguiten ez deutsan Ordiaren propositua no-
~la izan diteque eguiazcoa? bere Familiaren ardura ba-
garic, batez ere gabac egun biurturic, len leguez vizi dan
Gurasuaren propositua nola izan diteque eguiazcoa?
~i dagozen Echian pecaturaco vidia eta Laguna dauca-
in Servitzarien propositua, Eche artatic urten era-
guiten ez deusten bitartian, batez ere Confesoriac era-
~baguiric, nola izan diteque eguiazcua? pecaturaco
Laguna Familiaco Burubari, batez ere Confesoriac
aguinduric, Echetic bota eraguiten ez deutsan propo-
~situa nola izan diteque eguiazcoa? pecaturaco Lagu-
nagaz bateri len leguez aisquidetasunian vizi iza-
tia, eragozten ez deutsan propositua nola izan diteque
~eguiazcua? Lapurrari bere gaiztaqueriac edo oro-
bat bere ziquirri macarraco saldu erosiac itzi eraguiten
ez deutsan propositua nola izan diteque eguiaz-
~cua? pecaturaco Lagun bagaric pecatu andietan Jauste-
co oitueria urtetan daucan bateri Azazcal baten lodie-
ria bere oitueratic galdu eraguiten ez deutsan proposi-
~tua nola izan diteque eguiazcua? Ha! igaz leguez aur-
ten, etabeti baten vizi dirian, Lujuriazco subagaz quis-
calquetan beren bacarrian, Lapur, maldiziente, eta
Murmuratzalla madaricatubac! aguirian dago, bai,
Aisquidia, onein eta onein antzera vizi dirian beste
guztien propositua zeiñ guezurrezcoac dirian; zer-
gatic ez dirian batere eraguillac; argatic ere oneinguz-
tioen biotzezco damuari edo Penitenziac dira guezurrez-
coac.

Badacust, orain, Aisquidia, zeure buruban sortu
~dan, orapilla, eta entzuten zaitut esaten: Jauna, pro-
~posituac, eguiazcua izateco, aiñ eraguilliac izan biar
~badau, aguirian dago, leen confesauricaco pecatube-
~tan berriz Jausten dirianen proposito guztiac izan oi diria-

~la guezurrezcoac; bada eraguillac izan balira beren propo-
~situac, ez zirian berriz Jausico confesauricaco pecatubeta-
~ra: gaizqui esana da ori, Aisquidia; propositua izan di-
teque eraguillia, baita ere, proposito eraguilla au confe-
saitaco demporan euqui daben, Pecataria pecaturaco ma-
curtasunaren videz Jausi diteque berriz lengo pecatube-
tan, batez ere aetaco oituerarен baten sarturic beegoan;
egui santu au eracusten deust Jesus Divinoac bere Evan-
~gelio santuban, Apostoluben Buru San Pedroc itanduric
~izembat viderreraño parcatuco ete eutsan (pecatubac)
~Anaiari? zazpi viderreraño? erantzun eutsanian: ez de-
~utsut esaten (parcatu deguiozula) zazpi viderreraño,
~baizican iruroqueta amazazpi viderreraño, onembeste-
gaz aiquetara emuten eutsala, parcatu biarco eutsala
Pecatariari bere pecatubac, eguiaz guertaturic beren par-
cazinuaren esque etorren guztian: zer ecusten dozu, Ais-
quidia, zeure Necazaritzaco Ofizioan? gabian ugera
Juan aurrian artzen dozu gogo errime bat, urrengo egu-
nian goiz Jaguiric zeure Familia guztiagaz batera, eta
zeu aurrenengo zariala, onelaco edo alaco langueiri equi-
teco, eta onela aguinduric zeure Familiacoai, Jaguiten za-
ra euracaz batera egun sentian goiz, bazuaz goguan zeu-
can langueiari equitera, ecusten dozu Erbi bat, damu
dozu oni onela itzi biarra, artzen dozu escopetia, ifinten
dozu Zacurra bere susnan, eta zabiltz bere ondoren
egun guztian edo gueienian, oraiñ baño orain anchituco,
eta izten deutsazu alde batera zeure langueiari; esan
diteque orregatic, langueia equiteco, artu zeben, gogoa ez
zala izan eguiazcoa eta errimia? ez iñolaco moduz; baña
au sarritan eguingo bazeu, eizian ibilltiarren zeure langue-
iai alde batera izteia, eizeraco dempora ona daguan guzti-
an edo gueienian; eizeco ibilleracatic eguin baguric izten di-
tuzun, Necazaritzaco languei orreic equiteco, aurraz
artzen dituzun propositua eta gogoac nola izan ditez-
que eguiazcuac eta errimiac? iñolaco moduz ez; zergatic
ez dirian batere eraguilliac (au da) artu eraguiten ez deu-
tsuben, zeure biotza aimbeste osquetan deutsun, eizeco
ibillerai izteco, neurriac, eta batere icararic eraguiten ez
deutsuben, daucazun, oituera zatarretic urteteco.

Beguiratu eguiezu orain, Aisquidia, goian izentau-
deutsudan, Pecatari mueta guztiai, eta ecusico dozu, nola,
aurrera pecaturic ez equiteco, daucain, propositua diri-

an, Necazaritzaco langueiac equiteco, zeure bigarren proposituen antzecoac; eta argatic ez equiazcoac; zergatic batere eraguilliac ez dirian: baña bardin Pecatariac pecaturic ez equiteco artzen daben propositua bada, zeure, langueia equiteco, lenengo proposituaren antzecua, equiazcua, eta eraguillia da orduban bertan, guero ondoren noiz edo noiz pecaturaco macurtasunaren videz bere vizitzan jausi agatic pecatu aetan, zeñac ez gueiago equiteco propositua artu eben; eta ala onelaco Pecatariaren proposituac eta Confesinuac, ez badaucai beste alderen batetic errenen bat, ontzat emun oi dira; eta, proposito eraguilla au batec euquiagatic, lengo pecatubetan berriz jauste au gueien ecusten da, pecaturaco oituera dongan sarturic dagozenen artian; zergatic oitueriac berac, pecaturaco daucan, macurtasunari indar gueiago emuten deutsan; baña Pecatariac, ezaguturic, Jaungoicoaren grazia indar gueiagocoa dala bere oituera donguia baño, eta grazia santu onen laguntasunagaz batera bere escuban daucala, pecatubari eta pecaturaco oitueriari alde batera izteia, benetan au erabaguiteco, sortu biar dau bere Animan, ~~ateraño~~ sortu ez daben, biotzezco damuari edo Penitenzia equiazcoa bere proposito eraguilliagaz (au da) Confesoriac eracusten deutsan, vidiai jarraitu eraguiten deutsan, proposituagaz; eta onela ondo confesauco da; equiaz artuco dau Sacramentuba; eta laiŝter itzico deutsa ala pecatubari nola pecaturaco oitueriari, lenengo artan berriz eta berriz jausiagatic pecatuban; obe beingoan itzico baleuste, ascoc Jaungoicoaren laguntasunagaz batera beinguan itzi oi deusten leguez; eta ala beinguan ez izteia ez [redacted] da bere proposito donguia eta ez eraguillia izan danen aguiria.

Onembestegaz, Aisquidia, uste dot, asco dala zuretzat biotzezco Penitenziaren eta proposito errimiaren gañeco erautsiric eta eracutsiric: baña norbaitec erantzun leiquet: Jauna, ezaguquetan dot, biotzezco Penitenziac eta proposito errimiac izan biar daubela, eracutsiric itzi dituban, moducuac; eta ezagupera oneco Animaco Potenzia iratzarriac daucan Persona nagusiac eguin badaique ere, berorrec eracutsi daben leguez, ¿ nola izan diteque, ezagupera guichico Personac, nola

~dirian amalau edo amabi urtez beraqoco Yrniac, eta Anima~naco Potenzia lotu eta Laburreco Persona naguziac sor~tzeia biotzezco damuari edo Penitenzia, gueiago pecatu~ric ez eguiteco, bere proposito errimiagaz, beroriei eracutsi ~daben modubau? nola oneic ifini daiquie, Sacramentu onetaraco guztiz premiñacua dan, biotzezco Penitenzia~ren lerengo gueia bere proposito errimiagaz batera? nor nai dala bada, Aisquidia, onela erauntziten deusta~na, Jaquin biar dau, onerian Aurriac eta Persona naguziac guztiz ederquiro guertatu ditezquiala, Sacramentu au artzeco premiña dituebe, gueiagoac; Jaungoicoac bere inspirazino santubagaz arguiegui eguiten deutsa bacoitzari, bere erazupena nola dan; eta ala bere grazia santuba da guztiz biguna, eta edozein Persona muetacaz guztiz ondo datozena, bardin lecu emun gura badeutsai beren biotzetan; esateco modura Jaungoicoa Aurracaz Aux biurquetan da; guztiz laztan ditu; zergatic gueien bat inozenzia gueiagocuac dirian erazupena oneco Persona naguziac baño; eguiten dituben gaiztaqueriac ere bardinian ascoz chiquiñaguac dira, Persona naguziac eguiten dituben ac baño, beren erazupena laburragueren videz; zeinec ere ecusten ez dazube, zeiñ errez ecarten dituzuben escuna onerian Yrniac, eta andi eguinic zein berencoiac ecusten dituzuben, ascotan atsecabe andiac emuten deutsubela, ez onian eta ez gaitzian zeinzen escarera Jausi gura ez daubela?

Onerian Yrniac bada, errez Jausi oi dirian leguez beren umetasuneco aqueraquerietan, guztiz errez bigundu oi dira Jaungoicoaren laguntasunagaz batera beren ogueraquerien gañeco damuari edo biotzezco Penitenziara, eta, gueiago ez eguiteco, proposito errimera; eta onela confesau oi dira Jaungoicoaren aurrian, Sacramentu au eguiez artzen daubela, ascoz obeto Persona naguzi eta erazupena andico asco baño; eguia da; beren vizitasun, arazeria gueiago, eta erazupena guichiagoren videz errez datoza, beren proposituac urraqueta~ra; baña onregatic beren Confesinuac onac izan oi dira, bardin ondoban bertan, errez euqui daiquien leguez, badaucai biotzezco damuari edo Penitenzia eguiazcoa proporcionagaz batera, au guero beren umetasunian errez ausitera badatoz ere.

Onerian Vme edo ezagupera laburreco Perso-
nac beren bendian daucain, Guraso edo Familietaco
Burubac eguin biar daubena da, chiquitanic aurre-
nengo eracustia, salvaitaco, jaquitia, guztiz premi-
ñacuac diriala, eun eta oqueta amabi garren eta eun eta ber-
rogueta amabi garren ojetaco arpeguietan esanic itzi
deutsudan, iru Misterio santubac; oneic aimbat ondu-
en eracutsiric, gañeruntzaco doctrina Christiana ere aim-
bat onduen eta gueien icasi eraguingo deuste; sarritan
esan biar deuste, zer sari Jaungoico santubac emungo
deusten, illten dirianian, ondo vizi badira (au da) bere
Mandamentu santubac ondo gordetan baditube, baita
ere zer sari emungo deusten eternidade guztiraco, ga-
izqui vizi badira (au da) beren oquerqueria edo peca-
tubacaz Mandamentu santubac urraturic, esanac eguin
gura ez badeutsai; azquenic aimbat sarrien aiqueta-
ra emun biar deuste, nola Jesus maitiac, Jaungoicoa-
ren Semia izanic eta Jaunooicoa bera, Guizon eguinic
emun eben bere vizitza Curutzian gure pecatubacatic,
eta nola erosi zituban bere zanetaco odolagaz eurac
ere, beriac izateco, eta onela Jesus maitiaren ezagu-
pera santuba emunagaz batera viztu biar daube beren
biotzetan beraganaco amorio santuba; bai, Aisquidia;
beren Vmiai ondo gura deusten, Guraso Christaun onac
onela daquie eracusten chiquin chiquitanic Jaungoico-
aganaco ezagupera santuba, Tobias santubac bere ize-
neco Seme bacarrari chiquin chiquitanic eracutsi eutsan
leguez, Jaungoicoaganaco amorio santuba eta pecatu
mueta guztiacanaco gorroto guztizcoa euquiten: oneic
onela ereinic Vmien biotzetan, erraz da, onei sortu era-
guitia, confesino on bat eguiteco, premiña dirian, biot-
zezco damuari edo Penitenzia, eta, pecaturic gueiago
ez eguiteco, proposito eguiazcuac.

Gurasuac bada, oñez ibilten icasi barriac dirian
bitartian, beren Aurrac, escutic artu oi dituben leguez,
daroien, vidian juan ditezen zuzen, eta jausi bagaric,
orobat uso errazuazcuan sarturic andic aurreraco le-
nengo urte batzubetan (esateco modura) beren escutic
artu, eta eruan biar ditube Aur oneic, confesino on bat
eguiteco, premiñacotzat erabaguiric daguan, vide
guztitic; eta ala, confesaitara bialquetaco gogua artzen
daubenian, asi eraguingo deuste beren esamina Conzi-
enziacoa, eun eta berrogueta irugarren ojiaren arpe-
guian eracutsiric itzi dodan moduban, eta eraguin-
go deuste lan santu au, edo, obéto esatiarren, eurac emun

biarco deuste Vmiai beren esamina Conzienziaco au eguiñic; bada Gurasuac beren Vmien oquerqueriac, pecatu, edo gaiztaqueriac obeto daquie Vmiac eurac baño; onetaraco esango deuste: Vme; onenbeste dempora da, zu confesau ziñiala; eguin zeben, Confesoriac penitenziatzat aguindu eutsuna; andic ona eguin dozu pecatu au eta bestia onelaco Mandamentutan onelaco eta alaco demporatan, eta orobat onelaco edo alaco oquerqueria beste onelaco Mandamentutan; eta, au onela gogora ecarri eraguinic, esan biar deutsa onerian Vmiari, ecarri daguiala ere gogora, pecatu edo oquerqueria gueiago eguinic badauca, zer pecatu, eta zembat vider, albadau, eta, ezin badau, guichi gora bera onen beste vider aste bataz beste edo ill bataz beste, guichi gora bera onetan aimbat urren emuten deutsala vider eguiazcuari.

Gurasuac, bere Vmiari eraguinic onela esamina Conzienziacua, bere umetasunian eguin daiquian, aimbat moduric onerian, ondoren, sortu eraguiteco bere biotzian, eguin dituban, pecatu guztiacanaco gorrotua, edo biotzezco Penitenzia, eta poztzeco biotza gauza onetara, edo Virtute santubetara, eta pecatubaialde batera iztera, esango deutsa, nola bere pecatu eta gaiztaqueriacaz ofendidu daben, neurri edo ondar bagueco Ontasuna dan, bere Onguilla, Criadore eta Redentore Jesu Christo gure Jaun, Jaungoico eta Guizon eguiazcoa; bere pecatubacaz Curutzian Josiric vizitza quendu deutsala, ifini dabela beragana guztiz aserre, eta, bardin pecatu edo gaiztaqueria eguin ditubanacatic benetan damuturic, eta aurrera gueiago ez eguiteco, gogo errime bat arturic, guztiac osoro, eta lotsaz batere itzi bagaric, ondo confesaitan baditu, Jaungoicoac parcatuco deutsala bere arterañoco pecatu guztiac, bestela ez dabela eruango Zerura, baizican botaco dabela betico Infernura, nun Sugaz eta Zapoz inguraturic suzco Caldara goritubetan vizi viziric eta pillosic erretan, eta quiscarquetan egon biarco daben, eta Demonioac suzco tenaza goriacaz oraturic erabillico dauben gora eta bera: oneic edo beste onerian gauzaren batzubec entzunic Vmia erraz izutuco da, eta damuturic bere gaiztaqueriacatic Juango da parcazinuaren billa Jesu Christo cruzificaubaren besoetara, acto Contrizinoco bat biotzetic esaten deutsala, emen gauzaren batec bildurquetan dabenian bere Gurasuaren besoetara corrica Juan oi dan leguez

iguesi eta laguntasunaren billa: beste onen beste-
gaz itzi begui Gurasuac bere Vmiaren Confesinua
Jaungoicoaren grazia santuaren providenziara,
eta eniuan begui Confesore aditu batez oñetara, gue-
no esango dodan legez: baña onetaraco Gurasuac le-
nengo lenengotic Vmiai beren vizi guztiraco izu gauza
~ Jaquin eraguin eta eracutsi bear deuste; bata, ez da-
guiela confesau iñolaco moduz, eguin ez dauden, peca-
turic, Confesoriac, eguingo zituben ustiau, itandu aga-
tic ere bein, bizitan, eta gueiagotan, eguin ete dauden
~ edo ez onelaco edo alaco pecatu. bigarrena: eguin dau-
den, pecaturic ez daguiela iñolaco moduz itzi confesau
bagaric batere, gogoan euqui esquero, ez lotsaz eta ez
beste moduz, Confesoria gogoraquetan ez bada ere, itan-
quetia, eguin ete dauden edo ez arexian pecaturic. au
aiquetan da azquenengo Confesinotic arteraño co peca-
tubacatic; zergatic Confesinua izan oi da donguia, alaba-
tez confesau bagaac Jaquiñian, eguin ez daben, pecatu
mortalen bat, nola Jaquiñian confesau bagaric itzia-
gaz, eguinic dauden, pecatu mortalen bat; bada onela
confesaitan dirianac eguiten daube Sacrilegiozco peca-
tu mortal icaragarri bat, eta gueldiquetan dira, con-
fesau dituben, pecatu guztiacaz, batere parcatzaca; era-
gotzi bear deuste ere, izentaitia Confesoriari, pecatu-
~ raco izan dituben Laguntetatic iñor: irugarren eracut-
si bear deusten gauza beren Vmiai da, ez aitaquetia
iñolaco moduz confesinoco gauzaric ez beren Gurasuai,
ez beren Senidiai, ez beren Lagunai, eta ez beste edoze-
iñ Pasonari, Confesoriac berac aguinquetan ez deusten
bitartian erraxue onen batzegatic, nor bauteri gauzaren
bat esatia aimbat willan, bestec Jaquin ezin daiquien,
moduban: bai, Atsquidia; Gurasuac beren Vmiai le-
nengotic eta chiquitanic aimbeste gueiago eracutsi
bear deuste izu gauza oneic, zeinbateta gueiago ichas-
conaguac dirian, chiquitanic artu oi dirian, pitzuac
ala onac, nola zatarrac: Ta! eta zembat bildur dauca-
dan, Atsquidia, Vme ascoc chiquitanic, Gurasuac izu
gauza oneic ez eracutsiaren videz, beren vizi guztiaz-
co artzen dituben aitzura zatarracaz. Confesiñu san-
tuaco! baita ere zembat bildur daucadan asco Guraso
arduna bagacaz, ete daiçaarden edo ez beren Vmiac ugu-
tic etapa eta bero bezaric Confesoriari oñetara, au naiz
ezer esan bagaric, bauzicaz: Vme, confesaitara ju-
an bear deazu: Confesoriac guztia eguin bear daben ustian!

Pecaturic gueiago ez eguiteco proposito errimiari jarraiquetan deutsa Confesinnac: bai, Aiuquidia; batec bere pecatu guztiac osoro confesaitia da, confesino on bat eguiteco, premiña dan, lanparen gauza; iragoten para biortzezco Penitenziatic, emendic jaioten dan, azaletico edo compotico Penitenziara, zeña dan, bere pecatuben parcazinna anchitu guzia daben, Christaunac Sacramentu santu onetaraco ifiñi biar daben, guztiz premiñaco bípazen gueia, eta, Aita Artetec doctrinaco bere cantillan eracusten deuscun leguez, Penitenziac, Sacramentu onen videz pecatubac parcaquetaco, daucan, iru partetatic bigarrena (dan) aozco Confesinoa.

~ Aozco Confesino au ez da beste gauzaric, baizican ~Pecataziac bere pecatubac, bere Animaco Tueza dan, Con~fesoriari aoz aguerquetia, aen parcazinna erestecous~tian, Eliza Santuari Jesus maitiac itzi eutsan, Zerubeta~co Jaincubaren Guiltza santuben bitartez.

~ Aozco Confesino au da bi modutacua; bata da, Confesino batetic bestera bitartian batec eguin dituban, pecatuben Confesinna, eta au da, Eliza Santuan Christaunac ~gueien bat eguin oidauben, Confesino muetia: bigarrena da, batec uso errazaizcoan santu zanetic arteraño eguin dituban, pecatu guztien Confesinna, edo lenagoco urteren batzubetaco edo confesinoren batzubetaco pecatu guztien Confesinna; bigarren onri esaten deutsagu Confesino ~generala, eta lenengoari particularra.

Confesino general au ere da bi modutacua; bata guztiz premiñacua, Pecataria salbaitaco: bigarrena guztiz voluntatezcoa; eta da, batec premiña bagaric bere voluntatez eguiten dabena bere Animaren ontaraun gueiagoraco, jarraitzric edo billatzric onetaraco bere Con~fesoriaren iritzia: esan dot: jarraitzric edo billatzric one~taraco bere Confesoriaren iritzia; zergaitic Confesino general au, berez Pecatarientzat on andicua izanagatic, datoz izotera calte andicua batzubentzat, nola diran escrupulubetan eta bilobur lanreguian sartuac vizi dirianac; eta au ezaguquetia ez da nor bereren langueia, baizican, bacoitzac arturic daucan, bere Confesoré aditubaren langueia, zeñaren iritzia ichu ichuban alaguanza onetan nola beste edozeñetan esequiric vizi biar daben, ustric equin guia ez daben, Christaunac: equia da; amaortzi, eda oguei urtera erqueroco Christaun guztiac equin

biar leuquien languei ederra da vorondatezco Confe-
sino general au, batez ere beren estadubac, ia Matri-
moniocua, ia Religinocua, ia Abadetzacua artu aur-
rian, beren Confesore artubac eta aditubac, eragozte-
co, errazue onen bat ez dacusten bitartian; zergaitic
aguirian dago, dala Confesino general au eguiten dabe-
narentzat vide ona, sortzeco bere biotzian pecatubaca-
naco gorroto sendoagoa, eta vizitza barri eta santu ba-
teraco vorondate errimiagoa, baita ere ezarteco, artze-
ra doian, bere vizitzaco estadubari zimentu guztiz
eder bat, eretsiagaz Jaungoicoagandic indar ugaria-
guac, Estadubac berez dacarren, Curutziaren piñuba
Jausoteco eta eruateco aren Divina Magestadiaren
izen santuban, eta bere vorondate santuco languei
guztiac, Estadubac aguinquetan deutsanac, ondo egui-
teco; baita ere Christaunac Confesino generalaren lan-
guei eder onegaz deseguinquetan ditu eta botaten
ditu bere biotzetic, chiquitan eta arteraño eguin
dituban, Confesinuen gañian sortu aldequiquion,
quezca eta bildur mueta guztiac, bere eta bere Con-
fesoriaren ustian arterañoco Confesino particu-
larrac onac izanagatic ere.

Confesino general au dator izatera guztiz pre-
miñacua, bat salvaitaco, arteraño eguin dituban, Con-
fesinuac dongac izan dirian guztian; eta ala onerian
Pecatariac, salvau gura badau, eguin biarco dau be-
re Confesino generala guichienez dempora artaco guz-
tico pecatu mortalena, zeñian, eguin dituban, Confesi-
no banangoac izan dirian dongac, barriztaitan ditubala
guztiac baten, guertaturic onetaraco ondo; obe, bere
vizitza guztico Confesino generala, lenaz eguinic ez badau-
ca, eguingo baleu, ondo guertaturic barriztaitan dituba-
la Confesino general onetan ez bacarric (guztiz premiña
dan leguez) bere arterañoco Confesino donga guztiac, bai-
zican, [illegible] bere Confesore artu eta aditubaren ustian
onac izan dirian, beste guztiac ere bai, alde onetatic Con-
fesino generala vorondatezco bada ere.

Ezin bada iñor salvau diteque Confesino dongacaz;
zergatic ez dau artzen oneicaz Sacramentu Penitenziaco-
ric; gueldiquetan da, confesaitan dituban, pecatu guztia-
caz, batere parcatzaca; eguiten dau confesaitan dan
bacoitzian Sacrilegiozco pecatu mortal icaragarri bat;

ondoren, bestiac eguiten daubena eguitiarren, comulgai-
tan bada, eguiten dau Sacrilegio andiagoco beste pecatu
mortal bat; eta azquenic, urteetan badixau batec gaizqui
confesaitan dala, ausiten dau urte oro, Eliza Ama san-
tac ifiniric daucan, urtian bein confesaitaco, Mandamentu-
ba, baita ere Pazcua Resurreczinocuan comulgaitaco ifi-
niric daucan beste Mandamentu santuba; eta ala urte-
oro eguiten ditu desobedienziaco beste pecatu mortal bi
oneic; bai, Aisquidia; au guztiau da Confesino donguen
frutuba; ecusi eguizu eun eta berrogueta emeretzi garren
ojiaren ostian esanic itzi dodana, Gurasuac Aurrai beren
Confesinuetaraco eracutsi biar deusten, lenengo eta bigar-
rengo gauzen gañian: argatic ezin iñor salvau diteque
Confesino dongacaz; eta, salvauco bada, eguin biarco dau,
esan dodan leguez, bere Confesino generala.

Confesinuac datoza izatera dongac alderic ascota-
tic; esamina Conzienziacoaren aldetic, bat languei au be-
re guraz edo eguin bagaric edo guztiz gaizqui eguinic
confesaitan danian; ecusi eguizu eun eta berrogueta bat
garren ojiaren arpeguian esanic itzi deutsudana: doctri-
na Christiana ez jaquitiaren aldetic, bat confesaitan da-
nian ez daquiala iru Misterio santu aiec, zeñac jaquin
bagaric ezin iñor salvau ditequian, edo orobat beste
gañeruntzaco doctrina bere naguitasunez edo arrotasu-
nez ez daquiala, batez ere gauza onen gañian leenagotic
bere Confesoriac lotsiaturic badauca; ecusi eguizu esa-
nic itzi deutsudana, izentau deutsudan, oja orren berorren
arpeguian eta ostian, baita ere esanic itzi deutsudana ur-
rengo eun eta berrogueta bigarrengo oja guztian: biotzezco
damuari edo Penitenziaren aldetic eta pecaturic ez gueia-
go eguiteco proposito errimiaren aldetic, oneic ez daucala
bat confesaitan danian; ecusi eguizu esaten deutsudana
eun eta berrogueta seigarrengo ojiaren ostian, eun eta berro-
gueta amasei eta urrengo ojetan; an izentaitan deutsudanen
artian sartzeia ondo irabaziric daucai gorrotuan vizi di-
riala, gaizqui eruana eta fama quenduba biurtu gura
ezta vizi diriala, eta zor eguiazcuai erantzun aldaiqui-
ela, erantzun gura ezta vizi diriala confesaitan dirianac,
baita ere premiñan dagozenai diruric aurraz emun gura
ez daubela, gueiagogaz biurquetaco verbiaren azpian ez
izanenian, confesaitan dirian Logreruac: azquenic Confesi-
nuac datoza izatera dongac eguiaren eta osotasunaren al-
detic; eguiaren aldetic, bat, eguin ez daben, pecatu mortalen

bat eguin dabela, guizunez faquirian esanagaz, confesaitan danian; eta osotasunaren aldetic, bat, eguin daben, pecatu mortalen bat lotsaz esan bagaric, itziagaz confesaitan danian, guero esango deutsiolan leguez: baña, Aisquidia; bardin guztiz aquirian ez badago, batec eguin dituban, Confesinoren batzubec dongac izan diriola; esquiagatic ere onen gañian guezcaren bat edo beste, ez dau onen gañian iñoxe izan biar bere buruben Juez, baizican aguertu biar deutsa bere guezca, bere Animaco Jueza dan, Confesore artu eta adituban, eta ichuichuban farzaitu biar deutsa onen iritziari, eta orobat, berac batere guezcaric ez daucala, Confesoriac confesinotic etaraten dituban axterrenatic, bere Confesinoac dongac izan diriala, esaten deutsan guztian, farzaitu biar deutsa bere Confesoriaren iritziari.

Aurrera irago baño leen, Aisquidia, aiquetara emun gura deutsut, zeiñ premiña andico gauza dan, bacoitzac esquitiai bere Confesore artuba eta adituba, ibilli bagaric, aimbeste Confesore aldaquetan, zembat vider confesaitan dan; onetan Christauac bada, batez ere beren gogoco Confesore errez, aiñ eta laster beren oñetatic bialduco dituben billa dabiltzenac, vizi dira, beren Animai caltegaztiz andiac ecarteco, vidian; bai, Aisquidia; Mundu zabal onetan Christaun asco vizi dira, Confesoreric onentzat daucainac, aimbat laisterren eta aiñen beren oñetatic Pecatoria bialquetan daben, Confesoria, Meza Çmallaric faquintsubentzat eta onentzat daucain leguez, Meza santuba aimbat demporaric laburreniañ esaten daben, Sazerdote hala naicua: Ha! onelaxeac beren pecatuben pañeco zeiñ damuari quichi ezcutsi oi dauben! eta zeiñ neuez emendau oi dirian! obeto esatiarren, zeiñ dongaro confesaitan dirian! foten badaube Confesore aditu batez, eta onec, ezaguturic beren Animetaco gaitz andia, salvazinoco vidian ifintiarren, ucaquetan edo luzaqui etan badeuste Absoluzino santuba, emunic beren sendagarriac, eta aguinduric, biurtu ditezela berazgana onenbeste demporan barru, ordubat, bairetz, erantzunagatic, betico ezarten deutsai Cumutzia onerian Confesoriari; esaten daube: artuba nauca gueiago: eta, berazgana biurtu biarrian, izrengo confesaitaraño dato-

zenian, duaza Confesoreric nasaienen billa, euracaz con-
fesaitiagaz mesede eguiten deustenen ustian, eta, azque-
nengo Confesinuan zer moduz gueldituzirian, aitatu baga-
ric, gustora confesaitan dira; eta ojala guero, beren Lagun
artian dempora irago garri verbaitan asiten dirianian, ai-
tatuco ez balitube ala [redacted] Confesore bata, nola bestiac, bar-
re eguiñagaz beren artian, bata Confesore escrupulosotzat
eta estubeguitzat emuten daubela, eta, burubac leunquetan
deusten, Confesoriac guztiz edertzat: ez dago ez, Aisquidia, zer
mira andiric eguin, Jesus maitiac bere Evangelio santuban
esaten deuscunagaz, asco diriala, Infernuco vide nasaitic du-
azenac, eta guichi diriala, Zeruco vide estutic duazenac.

Animetaco Medicubacaz guertaquetan da, Corputzeco
Medicubacaz guertaquetan dana; bateri bere Corputzeco
umoriac, sarritan ecusiagaz, ezaguturic daucan, bere Me-
dicu artubac errazago igarrico deutsa bere ondoezai, eta
sendatuco dau laisterrago, bere barri lenagotic ez dequi-
on beste Medicu atze Jaquintsubago batec baño; au be-
rau bada, eta errazue gueiagogaz, uste eguizu, guertatu
oi dala, Aisquidia, Animetaco Medicubac dirian, Confeso-
riacaz; argatic euqui biar dau bacoitzac bere Confesore
artuba; eta ala ez daquit, zer esan, beren barruco barri
batere ez daquien, confesorien billa dabiltzen, Christauna-
catic, beti arpegui barriac ezagutu guraric:; zembat one-
laco ecusi oi dira! Ha negargarrizco ichupena! eguia
da; Christaunac escuvidia dauca, edozeiñ Confesoregaz
confesaitaco; ez dago ez au, eragotziric Eliza Santaco Legue-
tan; ala ere Jaquintsu guztiac eta aurrecoaldiac berac egu-
noro eracusten deuscube, zeiñ on andico gauza dan, ba-
coitzac euquitia bere Confesore artuba.

Confesorien langueia guztiz piñuba dan leguez, ecu-
si dozu eun eta oguita amazortzi garren ofiaren arpegui-
an, zembat gauzai beguiraturic Obispo Jaunac ifinten ditu-
ben Eliza Santan beren Confesoriac; ala ere escuco atzac bar-
diñac ez dirian leguez, orobat ere Obispo Jaunac ifinten di-
tuben, Confesore oneic, guztiac onac izanagatic, ez dira guz-
tiac bardiñac, ez da ere guztiac guztientzat onac; argatic,
Aisquidia, bacoitzac, ifinteco bere Animiaren salvazinoa
bere Confesoriaren escubetan, beguiratu biar deutsa, zeñec
onduen sendatuco deutsan bere Animaco zauriac, eta era-
cutsico deutsan aimbat zuzenen Zeruraco vidia; billatu biar

dau, Jaungoicoari bere laguntasuna escaturic, bere Confesoretzat, ez bacarric Olioagaz bere zauriac leundu eta bigunduco deutsana, baizican Olioagaz batera leundu eta bigundubagaz ostian Ardauagaz sendatuco deutsana, Ardaguaren indarrac miñ pusquin bat zaurian eguingo badeutsa ere; eta onelacua billatu ezquero, au artu biar dau bere Confesoretzat.

Batec, bere Confesore artuba eta adituba euquiagatic, ez dau euqui biar batere susumaric, demporaric ascotan beste edozeñegaz confesaitaco; nola dirian, berac presa izatia, eta bere Confesoriac Jente asco bera baño lenago euquitia, eta bere Confesoria beste gauza batzubetan ocupauric egotia, edo gaiñoric edo Erri erbestian izatia; zoraqueria andia izango lizateque, izteia artzeiari Sacramentu santu au bere devozinoco demporetan, bacarric ezin dabelaco artu bere Confesoriaren escutic; ez dau ez, Aisquidia, iñorc aimbesteraño lotu, eta (esateco modura) ezcondu biar bere Espirituba bere Confesoriagaz; ez ditu ere euqui biar ala bere buruba, nola bere Confesoriagaz confesaitan dirianac gueiagotzat eta obiagotzat beste edozeñegaz confesaitan dirianac baño; ez dau ere esan biar Jente edo Lagun artian iñolaco moduz; ni Vrlia Confesorena naiz, ez dago bera lezcoric; beste guztiac baño gueiago da bera; au izango lizateque umaqueria eta astaqueria andico arrotasuna, bardin gauza dongaagoren bat ez bada, onela esan eraguiten deutsana; ere dirian, Aisquidia, onerian Christaunen batzubec? Ha! bildur naiz Emacume beata guizurrezcoren batzubecaz: guztioc gara bada, bere odolagaz erosi guinduban, Jesu Christo gure Jaunarenac, ez besterenac, eta Confesore bacoitza da Jesus maite onen Ministroa.

Orobat, Aisquidia; bardin bat ezin erabagui bada, eguin daben, pecatu mortalen bat bere Confesore artubari, premiña daben, arguitasunagaz confesaitara, onetaraco lotsiac orapildu deutsalaco bere biotza, errazoiac dacar, orduban pecatubac confesaitara Juatia beste edozein Confesoregana, zeñagaz confesaitiac emungo ez deutsan aimbeste lotsaric; bada obere Confesore artubagaz gaizqui confesau erian, obe dau,

beste, ezagutaco ez daben, edozeñegaz ondo confesau: dempora oneicaz ostian jarraitu biar deutsa bacoitzac bere Confesore artubari, aldatu bagaric bere buruz edo gurariz, bere Animiaren calteco gauza barriren bat bere Confesoriagan ecusten ez daben bitartian; eta orduban ere onduen eguingo leuquiana, da, esatia arguitasun guztiagaz beste Confesore aditu bateri, zer gauza barri bere Animaren caltecua ecusi izan deutsan bere Confesore artubari, eta, esaten deutsanari, jarraitu: bai, Aisquidia; Familiaco Burubac eta Gurasuac ere onela esan, eta eracutsi biar deuste beren bendecuai eta Vmiai beren Confesore artuben gañian, Vmiai, Vme dirian bitartian, eurac emuten deustela, izango dituben, Confesoriac, eta, beren buruben Jave zerbait eguiten dirianian, amalau edo amabost urtetic aurrera, izten ditubela beren voronda-te eta escuvide guztizcora, artu daguien, onduen deritzuen Confesoriac: oneic onela esanic, biurtu gaitian, aozco Confesinoaren gañeco sallari jarraiquetara.

Aozco Confesino humilde bat, izanagaz ostian Sacramentu onetaraco guei premiñacua, da ere erru guztiz andicua, Jaungoicoa gueganaco erruquira bigunquetaco; argatic San Juan Evangelista eta Apostolubac esaten deuscu: confesaitan baditugu guere pecatubac, leiala eta justuba da (Jaungoicoa) parcaquetaco guri guere pecatubac: bai, Aisquidia; Escritura Sagradubac lecuric ascotan aiquetara emuten deuscun, erru santuba da au; baita ere da erru andicua, guere Animetaco puzunia eta gaitz guztiac campora botaric, obra onai eta Virtute santubai lecu eguiteco guere biotzetan; nundic ere San Agustin Elizaco Doctore jaquintsubac esaten deuscun: (leenagoco) obra dongueen Confesinoa da (aurreraco) obra onen asipena.

Pecatariac bada aozco Confesinoaren bitartez aguirian ifinten deutsa, bere Anima barruban ezcutuban daucan, zauri eta gaitz guztiac, sendatu leiquion, bere Animaco Medicu Confesoriari: Corputzeco zauriac eta gaitzac bimodutacuac dira; batzubec dira andiac, eta, Gaiñua illtera, dacardenac, bardin demporaz Ofiziale aditu bateri otsegui-nic, eta, zer daucan, eracutsiric, onen esan guztia aimbat onduen eguiten ez badau: beste batzubec dira chiquiñac, berez erraz sendaquetara, datozenac, eta onetaraco Ofizia-

~Liaper premiñaric ez daucainac; orobat dira Animaco
~zaurriac, zeñac diran, eguiten dituqun, pecatubac; bat-
~zubec andiac, Jaungoicoagonaco amorioa, eta bere gra-
~zia santuba galdu eraquiten deusculenac, eta betico
~condenaitara gacarderac, bardin emen vizi gatzan bi-
~tartian guere Animetaco Juez, Maiñu, eta Medicu
~dixian, Confesoriai aozco Confesino humilde baten videz
~guztiz aguirian ifinten ez badeustegu, eurac eguin
~dituqun duiñ, pillosic, batere gueitu, edo guichitu baga-
~zic, bacoitzac bere iac, besterenetan santu bagaric: beste
~batzubec dira chiquinac, zeñac, zerbait guichitu agatic
~Jaungoicoari deustraqun amorioa ez deuscu guztiz gal-
~du eraquiten, ez da ere bere grazia santuco vizitza; ar-
~gatic eurac bacarric ez gacarde betico condenazinoa;
~emendic datoz, lenengo pecatu muetac confesau biar
~izatia premiña guztizcoaren azpian, salvauco bagara,
~eta, bigarrenac confesaitia, vozondotezco gauza izatia,
~guere Arimen on guztiz andicua bada ere, eurac ondo
~confesaubagaz, Sacramentu au artzeia.

Pecatariac bada, Airoquidia, salvauco bada, premi-
ña guztizcoaren azpian confesau biarco ditu, uso erazu-
azcoa santu ezquero eguin dituban, pecatu mortal guz-
tiac, penzamentu utsez bere gogo barruban eguiñac badi-
ra ere, ala berez mortalac diranac, nola bere ustian ala
diranac, baita ere pecatu aiec guztiac, zeñacatic dau-
can guezca andiren bat, ete diran edo ez pecatu morta-
lac, ala confesatzaca daucanac, bere confesau aldi ba-
coitzian, nola, confesaunic euquiagatic, gaizqui eta don-
garo confesaunic daucan, guztiac.

Ez bacarric Pecatariac, salvauco bada, dauca premi-
ña guztizcoa, confesaitaco, eraun dituban, pecatu guz-
tiac, baita ere pecatuben circunstanziac, ez guztiac, bai-
zican zircunstanzia aiec bacarric, zeñen videz. Pecatari-
ac gaiztaqueria batzuc eta batera, ausi izan dituban
Mandamentu edo virtute muetatik santu asco; edo Man-
damentu edo virtute santu bat bacarra ausiagatic, bat-
dira pecatubagaz gueratzen badeustra Bozinoari, guere
vizi izateco moduban eta guere estimazinoraco bata
bestiagandic guztiz atziac diran, on muetatik bi edo iru:
edo, virtute santu bat bacarra ausiagatic, ausiten ba-
dau virtute santuba, guere Entendimentuco argitasu-
nac edo errazoiac ucaqueran daben bezez bezezeco, mo-

du mueta, batac bestiagaz zer ecusiric eta batere antzic ez dau-
cain, baizican bata bestiagandic guztiz atziac dirian modu
batzubetan: zircunstanzia onerianac bada, aurquiquetan di-
rianian, berez dacarde gaiztaqueria baten beste pecatu mue-
ta batzubec, bata bestiagandic guztiz atziac, zeñac ezin eza-
gutu leiquian Confesoriac, bardin Pecatariac aguirian ifin-
ten ez badeutsa pecatubacaz batera pecatuben zircunstanzia
mueta oneic; ara nola, Aisquidia, ezagutuco dituzun gauza one-
ic. Pecatu eguiten danian Virtute santu bat bacarra beste Virtu-
ren baten naste bagaric ausiten bada, da pecatu mueta bat ba-
carra, besterequin zer ecusiric ez daucana; Caridadeco Virtutia
ausi dabenac eguin dau pecatu mueta bat, Esperanza ausi dabe-
nac beste pecatu mueta bat, Fedia ucatu dabenac beste pecatu
mueta bat; Justiziaco Virtutia ausi dabenac beste pecatu mueta bat,
eta onela beste Virtute eta Mandamentu santu guztietan; confe-
sau biar dau bada Pecatariac ez bacarric eguin dabela pecatu
mortal bat, baita ere zer pecatu mueta, edo zer Virtu edo Manda-
mentutan; bai, Aisquidia; au gauza jaquiña da Eliza Santan:
bere bat gaiztaqueria bategaz ausiten ditubanac Virtute santu
oneic guztioc edo guciago, eguiten ditu aimbeste pecatu mortal,
zembat Virtute mueta batera ausi dituban, eta pecatu mortal ba-
coitza da bere muetacoa eta bestiaren antzic ez daucana, ara no-
la; batec Eche bateri su emuten deutsa, bere Tabiau deutsan, gor-
rotuagatic, eta etsiric Jaungoicoac berac ere ezin parcatu deiqui-
ola ain gaiztaqueria izugarriric; onelacuac bada gaiztaqueria ba-
tegaz ausiten dau Fedia, ucatubagaz Jaungoicoari, bere pecatu-
ba eta andiaguac parcaquetaco, daucan, ondar bagueco escuvidia,
ausiten dau ere onetan bertan Esperanza, eta pecatu mueta bi onei-
caz urraquetan dau lenengo Mandamentuba; ausiten dau ere Ca-
ridade santuba bost garrengo Mandamentuban, Progimoari deut-
san, gorrotoagatic; eta azquenic ausiten dau Justiziaco Virtutia
zazpigarrengo Mandamentuban, eguiten deutsan, calte izugarria-
catic; eta gaiztaqueria au eguiten badeutsa bere Gurasoren ba-
teri edo laugarren gradu barruco Aideren bateri, eguiten dau
beste pecatu mortal mueta bat Piedadeco virtute santuba ausi-
agaz laugarrengo Mandamentuban: esquinten deutsa batec Ja-
ungoicoari, gordeco deutsala Jai eguntzat Zapatu edo Eguba-
coitz guztiac, Eliza Ama Santaren Jai eguren bat jausten da
egun onetan, eta bere naguitasunez gueldiquetan da Meza en-
tzun bagaric, orra nun daucazun gaiztaqueria bategaz au-
siric Mandamentu edo Virtute santu bi, bata, promesaren videz
Jaungoicoari zor deutsan, Leialtasuna lenengo Mandamentuban,
eta bigarrena, Eliza Santari zor deutsan, Obedienzia izugarrengo
Mandamentuban: batec gaiztaqueriaz edo asmo dongagaz ezar-
ten deutsa escubac Apaez edo Religiosoren bateri, ausiten dau Reli-
ginoco Virtutia Sacrilegioa eguiñagaz lenengo Mandamentuban, bai-
ta ere Justiziaco Virtutia bost garrengo eta zortzigarrengo Manda-
mentubetan: Castidadia Jaungoicoari esquiniric daucan batec
eguiten dau Adulterioco pecatuba laugarren gradu barruco Ai-
deren bategaz, artan ifinten dabela artaraco gogoric ez eucana,
eta esanic vizitza quenduco deutsala, bardin artara jausi guraez
beben, onec Castidadia esquiniric daucan aldetic eguiten dau pecatu

mueta bat; beste bat Aidiagaz jausten dan aldetic, beste bat
Ezcondubagaz jausten dan aldetic; beste bat artaraco gogoric
ez eucanari pecaturaco escandaloa eta vidia emun deutsan al-
detic; eta azquenic eguiten dau beste pecatu mueta bat, arta-
raco bere vizitza galtzeco bildurragaz izutu daben aldetic: oro
bat guertatu diteque beste edozeiñ pecatugaz nasturic etortia
beste pecatu mueta batzubec, ausiten dirialaco batera Virtute
mueta asco; ezin bada Pecatariac confesino onic eguingo dau, zir-
cunstanzia mueta onerian guztiac Confesoriari aguirian ifini baga-
ric. Pecatariac pecatu edo gaiztaqueria bategaz Virtute santu bat
bacarra ausiagatic, quentzen badeutsa Progimoari, guere estima-
zinoan eta guere vizi moduban bata bestiagandic guztiz atziac di-
rian on mueta batzubec, zer on mueta quentzen deutsan eguiten
dau alaco pecatu mueta; ara nola; bere Min zatarragaz batec
ostetic besteri fama quentzen badeutsa, eguiten dau zortziga-
rrengo Mandamentuban pecatu mueta bat; eta, au berau eguiten
badeutsa ez ostetic, baizican bere aurrian eta arpeguian,
quentzen deutsa famagaz ostian onra ere, eta eguiten dau bes-
te pecatu mueta bat; bere bat osquetan badeutsa diruba, edo, di-
rubagaz erosten dan, gauza, eguiten dau beste pecatu mueta
bat zazpigarrengo Mandamentuban; quentzen badeutsa bere
vizitza edo osasuna eguiten dau beste pecatu mueta bat bast
garrengo Mandamentuban, eta pecaturaco vidia emunagaz
galdu eraguingo baleutsa Animaco vizitza graziazcoa, da
beste pecatu mueta bat; eta bardin Pecatari onec gaiztaqueria,
edo erroidu baten quenduco baleutsa Progimoari ontasun one-
ic guztioc, eguingo lituque beste aimbeste pecatu mueta, eta
azquenengo pecatubagaz ostiango beste guztietan ausiten dau
Justiziaco virtute santuba.

Pecatubac artu daique bere muetatasuna eguiteco mo-
dubaren aldetic ere, izanagatic Virtute bat bacarra pecatu-
bagaz ausiten dana, pecatuba eguiteco, modu oneic guere
errazoiaren arguitasunian bata bestiagandic guztiz atziac
dirianian, eta batac bestiaren antzic ez daucainian; ara nola;
Liberalidadeco virtutiac eragozten deuscu errazue bagaco dol-
lortasuna, baita ere errazue on bagaric guere euquiai jareguitia;
virtute au bada ausiten dabenac dollortasun larreguiaren
aldetic eguiten dau pecatu mueta bat, eta bigarren moduban
ausiten dabenac, eguiten dau beste pecatu mueta bat: bere bat
Templanzaco virtutiac eragozten deuscu, guichiegui jatia eta eda-
tia, baita ere ase eta betetarañaco jan edan larreguiac; guichie-
guian bada dago pecatu mueta bat, eta larreguian beste pecatu
mueta bat, eta modu bietan Virtute bat bacarra ausiten da: ara
beste modu mueta batzubec; ostetic fama besteri quentzen deutsa-
nac eguiten dau pecatu mueta bat, eta bere aurrian eta arpegui-
an quentzen deutsanac beste pecatu mueta bat, len esanic itzi
dodan leguez: batec osquetan badau zerbait, bere Jabiac gorderic
daucan lecutic, eta ez daquiala, eguiten dau pecatu mueta bat;
eta bere Jabiari gura eta gura ezian, videra urtenic, quentzen ba-
deutsa, eguiten dau beste pecatu mueta bat: bere bat Castida-
dia ausiteco modubaren aldetic Lujuriazco pecatubac
ere izan diteque bata mueta batecoa eta bestia bestecoa; eta oro
bat guertatu diteque beste mandamenturic ascotan: Pecata-
riac bada ezin eguingo dau Confesino onic, aguirian ifinten
ez badeutsa Confesoriari, esan ditudan, zircunstanzia
mueta oneic guztioc pecatubacaz batera. Pecatariaren voron-
date erabaguiac ere pecatu eguiteco demporan erabaguiten dau, zer
pecatu mueta, eta zembat dirian [illegible]

Badira, Aisquidia, beste zircunstanzia mueta batzubec, bere sustraian pecatu edo gaiztaqueria mueta bat dana dacardenac, iru edo lau edo gueiago pecatu izatera eta guztiac mueta batecuac, calte edo gaitz artzen dauben, Personen aldetic; bada batec pecatu mueta bategaz zembat Personai gaitz edo calte eguiten deusten, aimbeste pecatu eguiten ditu; ara nola; batec gorroto bategaz gaizqui gura deuste lau Personai, eguiten ditu bost garrengo Mandamentuban lau pecatu, guztiac mueta batecoac; laurai ezarten deuste maldizino andi bat, eguiten ditu beste lau pecatu; murmurazino bategaz batera quentzen deuste zazpiri beren famac, eguiten ditu zazpi pecatu, guztiac mueta batecoac zortzi garrengo Mandamentuban; verba edo gaiztaqueria ziquiñ bategaz emuten deuste bosteri pecaturaco vidia, eguiten ditu bost pecatu escandalocoac bere pecatubagaz gañera; tiro bategaz biri vizitza quentzen deuste, dira bi pecatu, mueta batecoac; iru Personac toqui baten naasi gorderic daucai beren dirubac, eta jaquindun dan, beste Persona batec osquetan ditu batera diru oneic, eguiten ditu iru pecatu, guztiac mueta batecoac: Pecatariac bada confesau biarco ditu zircunstanzia oneic ere, zeñac sustraian pecatu bat bacarra dana dacarden izatera iru, lau, edo gueiago mueta artan bertan; bestela ezin eguingo dau confesino onic; zergatic, salvauco bagara, ez bacarric confesau biar dogu, zer pecatu mueta eguin dogun, baizican ere zembat pecatu, eta zembat bider, mortalac izan ezquero.

Onerian, esanic itzi ditudan, zircunstanziacaz gañera badira beste zircunstanzia mueta batzubec, pecatu mueta bat bacarraren gaiztaqueria asco azi oi daubenac, eta asco guichitu oi daubenac; ara nola; batec osquetan ditu zazpi edo zortzi milla ducat; beste batec osquetan ditu zazpi edo zortzi errial; biac eguiten daube pecatu mueta bat, eta bacoitzac bat bacarra, lenengoac guztiz andia, eta bigarrenac mortala bai, baña guztiz chiquina lenengoaren aldian: batec Jai egun andi baten confesauric eta comulgauric ondoren edo egun barruban bertan pecatu mortal eguiten dau, zircunstanzia bi oneic (Jai egunian eta confesaitan eta comulgaitan dan egunian) aziten daube asco pecatubaren gaiztaqueria; eta beingoan aiquetara emutiarren onerian zircunstanzia muetac auraquitu ditezque edozeiñ Mandamentubetaco pecatubetan: Pecatariac bada Guizon jaquintsuric ascoren iritzian ezin confesino onic eguin daique, pecatubagaz batera zircunstanzia onerianac ere aguirian ifinten ez badeutsa bere Confesoriari; eta eguia esateco, Aisquidia, ¿nola lujuriazco pecatu mueta baten ordu osoan edo gueiagoan egon dan, Pecatari bat, minuto baten edo guichiagoan pecatu mueta a bera eguin daben, Pecatariagaz bardin ondo confesau diteque esan bagaric zembat dempora irago daben, pecatu eguiten? eta onen antzera aitu biar da, izentau deutsudan, beste Pecatariacatic ere: Jai egun osoan batere premiña bagaric biarrian jardun dabenac, eta ordu betian edo bian bacarric jardun dabenac ez daube biac bardin pecatu eguiten; onela eta beste moduric ascotara aziten da, eta guichiquetan da asco pecatu bat bacarraren gaiztaqueria, edozeiñ pecatu mueta izan dedilla.

Pecatu mortaletaraco vide edo ocasino urrian sarturic vizi dirian, Pecatariac premiña guztizcoaren azpian pecatubacaz batera aguirian ifini biar deuste Confesoriai, pecaturaco zer ocasinotan sarturic vizi dirian; bestela beren Confesinoac izango di-

ra dongac; ara nola; Fabernari Ordiac; bere Ziquirri Macarraco saldu erosietan lapurreria eguiten dabenac; Eche baten vizi diriala, Araguizco pecatubetan alcarregaz jausten dirian bi; eta onela beste ascoc, beste edozeiñ pecatu muetatan jausteco, vide urrian vizi dirianac confesau biar ditube pecatubacaz eta beren zircunstanziacaz gañera, pecatu aetan jausteco, ocasino urrac ere, zeñetan sarturic vizi dirian; eta ala, izentau dodan, Ordiac confesau biar ditu bere Ordiqueria guztiac, eta nola darabillen beti escuartian, zegaz orditu; bere bat bigarrenac confesau biar ditu bere lapurreria guztiac, eta nola, oneic eguiteco, vizi dan ziquirri macarraco artuemunacaz; ordbat irugarrenac, eta, irugarrenen antzera pecatu mueta aetan, edo beste edozeiñ pecatu muetatan jausteco, ocasino urrian vizi dirian, guztiac confesau biar ditube bata eta beste (au da) pecatuba, eta pecaturaco ocasino urra, zeñian vizi dirian: gueiago; pecatu mortal mueta baten sarritan jausteco oitueria daucan, Pecatariac confesau biar dau pecatubacaz batera, aetan jausteco, daucan oituera ere, beiñic beiñ, Confesoriac itanquetan deutsan, guztian; eta emendic da aguiri, zer eguin biar daben onerian Pecatariac, Confesoriac oituerarenn gañian itanquetan ez deutsanian ere.

Pecatariac vorondatez (au da) premiña bagaric confesau oi dituban, pecatubac dira pecatu venialac, eta, lenago ondo confesauric daucan, pecatu mortal guztiac; bada onein gañian eguiaz damuturic, eta, Confesino aldi artaco pecatu mortalic ez daucala, confesaitan ditubanac pecatu venialac, edo lenagoco pecatu mortal ondo confesau bat, artzen dau eguiaz Penitenziaco Sacramentu au, eta bere grazia; eta au onela eguin oi daube, sarritan confesaitan dirian, Christaun Jaungoicoaren bildur andico ascoc; ecusi eguizu, Aisquidia, eun eta berrogueta amargarren ojiaren ostian eta urrengoaren asipenian esanic itzi deutsudana. Aozco Confesino onec, ona izateco, euqui biar ditu guichienez beragaz lau gauza: bata, izatia eguiazcoa: bigarrena, izatia osoa: irugarrena, izatia damutasun eguiazcotic sortuba, eta damuari au zerbait aiquetara emuten dabena: eta laugarrena, Confesoriaganaco obedienzia beragaz dacarrena, izatia.

Lenengo euqui biar daben gauza Aozco Confesino onec bada da, izatia eguiazcoa (au da) batere guizur baguecoa: bai, Aisquidia; eguia bera dan, Jesus Divinoac aiñ gorroto andia badeutsa, jaquinian eta vorondate osoagaz esan oi dan, guizurric dan chiquinenari, pecatuba dan leguez; zer gorroto euquico ez deutsa, guere pecatuben parcazinoraco dan, Penitenziaco Sacramenturaco escaquetan deuscun, aozco confesino onetan jaquinian eta vorondate osoagaz Pecatariac guizurra esatiari? batere guizur bagaric eguia, bera dan duiñ pillosic, escaquetan da aozco confesino onetan, guere pecatubetaco Chiminoac sedaz jazten ibilli bagaric; argatic Pecatariac, salvaitaco, premiña guztizcoaren azpian confesau biar dituban, gauzen gañian guizurra jaquiñian Confesoriari esaten badeutsa, ez dau artuco Sacramentu au; eguingo dau, bai, Confesino donguia, eta Sacrilegiozco pecatu icaragarri bat: gauza onetan uts eguiten dau, eguin ez daben, pecatu mortalen bat eguin dabela, jaquiñian esaten deutsan, Pecatariac, edo, eguin dabenen, bat jaqui-

rian ucaqueten deutsan, Pecatariac: orobat uts eguiten
~ dau onetan, pecatu eguiazco, dudazcotzat, eta dudazcoa
~ eguiazcotzat jaquiñian confesaitan dabenac: orobat one-
tan uts eguiten dau bere Confesinuetan gauza garbiric esa-
ten ez dabenac, Confesoriac itandiagatic, eguin ete daben
onelaco edo olaco pecatu Mandamentu onetan edo bestian,
~ erantzuten dabela: batzubetan bai: izan liteque: edo: bain,
~ bai, Tauna: gueigoco arguitasunic emuten ez dau; eta esangu-
ra daben, beingo pecatu ori da, bere vizi guztian eguin daben, bacan-
za, berreun videz confesaunic daucana; eta, esaten ez deut-
san bitartian Confesoriari, dala, lenago confesaunic daucan,
pecatuba, Confesoriac uste dau, dala Confesino aldi antzeua;
eta onela uts eraguiten deutsa Confesoriari gauza grabi-
an; onelc guztiac bada, aquirian dago, ez daubela esaten, Con-
fesino santubac escaqueten daben moduza, eguia artez eta
~ zuzen, ez da ere erantzuten deutsanac Confesoriari: guichitan: Jo
goitic, Jo butic, beñere erantzute onetatic urteten ez dabela;
au gueien bat ez jaquinetic datoz; baña Confesore aditu
batec artzen baditu, eta eracusten badeustc, zer modux
beren Confesinuac eguin, beren confesaitaco modu donga
oni itzi bagaric, beste bategana duaza, lecenagocuari cu-
rutze bat eguinic; nola eguin dauque onelc Confesino onic?
ez daquit, zer esan batzuben Confesinuacatic; uste dau-
be, confesaitia ez dala beste gauzaric, bauzietan Confesoria-
ren oñetara juattia, eta an nola naico conversazinuan Confe-
soriagaz egotia; Ta! Ai Jesusdia!: orobat uts eguiten dau
onetan bere pecatuba guichiquietiaren bestetu culpa ezar-
ten deutsanac, bestegen pecatubac confesaitan dituben, cu-
rraso maldizientiac bere Amien aquerquerriai, Jesposac Amaz-
tiarai, Amaxtiac Jesposcrai, Cuñadadian uts eguin dabe-
nac artan ifini dabenaui, izaric beren pecatubac beren cul-
pa guztizcnac; Paraisuan Adanec bere pecatubaren culpa
ezarri cutsan bere Amazte Jesusi, Jesuc Diabruburi, baña
Jaungoicoac inurrai emun eustcn beren inabaziaren sauia;
onela emungo deuste ere, beren pecatubac ezagutu gura
ezta, bestetu culpa ezarten deustela, gaizqui eta guizunez
confesaitan dizian, guztiai: orobat azquenic uts eguiten
dau onetan, aldi artan pecatu mortalen bat edo beste dau-
~ cela, erantzuten dabenac Confesinoaren asipenian, ez dauca-
~ la aldi artaco pecatu mortalic, eta, Confesoriac itandunic

~ Mandamentuac Mandamentu, guztietan: ezetz: esantzuten dabenac, eta, guizunna aunetic onela ganza andian esanic, azquenian escrupulo modura bere pecatu mortalac aiquetura emuten ditubenac verba esdi batzubecoac.

Aozco Confesinuac euqui bian daben, bigarren ganza, ona izateco, da, izatia asoa: equiazcoa izatia (ecusi dezun leguez) da, Confesinuan batere guizunnic ez esatia, baizican equia zuzen eta artez pillos pillosic esatia; eta, osoa izatia, da, batec, equin ditubon pecatu mortalac equiaz autortubagaz gañera, esatia, zembat viden equin daben aldi artan pecatu mueta bacoitza; eta ala Pecatuac ez bacarric confesau bian dau, zen pecatu mortal equin daben, baita ere zembat viden, equinic onetaraco aurraz bere errazuazco esamina Conzienziacua; ecusi equizu eun eta berroqueta izugarren ofiaren, eta eun eta berroqueta bastgarren ofiaren arpeguetan esanic ibzi deutsudana: Confesinoa equiazcoa izatetic datzan, osoa izatera, ere equiazco Confesinua equiten ez daben, Pecatuzia berez datzan ere, ez equitera osoa; argatic onetan ere betez betezian utz equiten daube, Confesino equiazcoa equitiaren gañian utz equiten daubela, esandeutsudan, gueiena baita ere utz equiten dau onetan, equia, equin daben, pecatu muetaren gañian zuzen eta artez esanic, zembat viden pecatu mueta oni equin daben, jaquinian esan bagaric izten dabenac, Confesonia baztugatic ere itzanguetia, zembat viden equin eta daben: onobatbe
ze bisitatic campanaco / pecatubo pensamentu utsezco pecatuzat esaten dabenac, Aozco Confesinoaren osotasun au ez da, Guizonac
~ eta Eliza Ama Santac asmauba, eta aquinduba, baizi-
~ cain Jesus maitiac berac, Sacramentu au guze pecatuber
~ parcazinoraco ifiniagaz batera, aquinduzuic itzi eusceua,
~ ala dauca ezabaquinic Eliza Ama Santac berac Fray-
~ toco bere azquenengo Conzilio generalian Fede santuco
~ ganzatzat.

~ Pecatuac bada osono confesau biarco ditu bere pe-
~ catu mortal guztiac, esanic itzi ditudan, zircunstanzia mue-
~ ta guztiacaz, esaten dabela, zembat viden equin daben pe-
~ catu mueta bacoitza, errazuazco esamina Conzienziacoa
~ equinic, gogoan daucan gana, eta ez gueiago; zergaitic ba-

tetic ezin daben gueiago; eta bestetic Jesus maitiac ere aguin-
quetan ez deutsan gueiago; eta ala onec itzico balitu pecatu
mortalen batzubec naiz guichi naiz asco aazturic eta con-
fesatzaca, izango lizateque Jaungoicoaren aurrian bere Con-
fesinoa ona, eta confesaitan dituban pecatubacaz batera
confesatzacac ere parcaturic guelditucо lizaquio; eguia da;
onerian Pecatariac, comulgau aurrian gogoraquetan bada
aazturic pecatu mortalen bat, edo, confesau biar dan, zircuns-
tanziaren bat confesatzaca itzi dabela, biurtu biar dau Con-
fesoriagana, confesaitara, aazturic confesatzaca itzi eben,
pecatuba edo zircunstanzia; eta, onen gañeco absoluzino
santuba arturic, eta ez lenago Juan biar dau, errezivitara
Jesus maitia Comunio santuban: baña confesau ondoren
comulgau ere bardin bada fede edo uste onian, aazturic
confesatzaca itzi dituban pecatu mortalacaz batere gogo-
ratu bagaric, gogoraquetan danetic aurrera eguiten daben,
lenengo confesinoan confesau biarco ditu, bere ezin bagan
aazturic confesatzaca itzi zituban, pecatu mortal oneic beren
zircunstanzia, confesau biar, dirianacaz, salvaitia gura ba-
dau; zergatic, pecatu aaztubac confesau ditubanacaz bate-
ra parcaturic badauca ere, gauza Jaquina eta erabaguia
da Eliza Santan, Aisquidia, Pecataria, salvauco bada, aur-
quiquetan dala premiña guztizcoaren azpian, confesaitaco,
bere ezin bagan aazturic confesatzaca daucan, pecatu mortal
guztiac beren zircunstanziacaz, euracaz gogoratu ezquero;
baña artez esan biarco deutsa Confesoriari, zeintzubec dirian
pecatubac, lenago aazturic confesatzaca itzi zitubanac, eta zein-
tzubec confesau aldi artacoac.

Bere bat, Aisquidia, batec; confesinoa eguiten asiric,
beinguan verba eguiteco adoria galduco baleu, eta aurre-
ra bere pecatubac ez quiñuz eta ez beste moduz aiquetara
ezin emun balei, onela asiricaco aozco Confesino au
biotzezco Penitenzia eguiazcoaren laguntasunagaz batera
ona da Jaungoicoaren aurrian, eta, asco dan, gueia ere bai,
Sazerdotiaren absoluzinoaren bitartez Penitenziaco Sacra-
mentu au eguiaz eta ondo artzeco; eta ala, onec confesatza-
ca itzi dituban, pecatu mortal guztiac, millueca badira ere,
parcaturic gueldiquetan dira: beste aimbeste Gaiso̅ren ba-
tec confesaitaco ustiagaz ots eguiten badeutsa bere Confe-
soriari, eta, Confesoria etorri baño lenago verba bagaric guel-
ditu bada, quiñuren batzubecaz aiquetara emun biar deut-
sa Confesoriari ala, Sacramentu au artzeco daucan, vorondā-
tia, nola, zer confesau daucan, pecatubac; baña, ezin badau, ai-
quetara emun ez bata eta ez bestia, confesino escatu au as-
co da gueiric biotzezco Penitenziagaz batera, Sazerdotiaren
absoluzinoaren bitartez anchiquetaco Sacramentu Penitenzia-
coa, eta Sacramentubaren bitartez bere pecatu guztien parca-
zinoa, dagozenian gañetico Christaunen batzubec, esaten deut-
sainac Confesoriari, Gaiso̅ arc aiquetara emun eusten, Sacra-
mentu santu oneganaco vorondate erabaguia; bada ezin Sa-
zerdotiac ucatuco deutsa onerian Gaiso̅ari Absoluzino santu-
ba, eta onen bitartez, pecatu guztien parcazinoraco dan, Sa-
cramentu Penitenziaco au: orobat, bardin norbait, confesino-

ric escatu bagaric, etzinic eta batere verba bagaric billatuco ba-
liz, Sazerdoteren bat an aurquituric, oni aiquetara emun bi-
ar deutsa Corputzeco quiñu artez eta erabaguiacaz, Peniten-
ziaco Sacramentu au artzeco daucan, vorondatia, eta, onetara-
co bere pecatu guztien gañian daucan, biotzezco penitenziaedo
damuaria, pecatubac, edo guztiac, edo bat edo beste aiquetara
emuten deutsala; eta Sazerdotiac onerian Confesino mueta,
aozco izan ezagatic eta guichiago osoa, euquico dau ontzat,
eta, asco dan, gueitzat, emuteco absoluzinoa, eta onen bitartez
Penitenziaco Sacramentuba, eta eguiaz emungo deutsa: bardin
onerian Gaiso̅a arri baten antzera badago batere icararic emun ezin
dabela; edo gauza guztiz erabaguia ez bada, an daguan, Sazerdo-
tiarentzat, zertatic sortubac dirian Gaiso̅ onelacuaren icara eta qui-
ñu mueta aiec, sortubac ete dirian, Gaiso̅ac Penitenziaco Sacramen-
tuba artzeco daucan, vorondatetic, edo bere gaitzaren erru izugar-
riren batetic, Christaun Catolicoaren sinistian eta Leguean vizi
izan bada bere demporan, Sazerdotiac oni ere emungo deutsa
aldaben moduco Absoluzino santuba, ez, beste izentauric itzi ditu-
danai; duiñ erabaguia, baizican, Sacramentu onetaraco premi-
ña dituban, gueiac Taungoicoaren aurrian eguiaz bere biotzian
guertaturic badauca, intenzinoaren azpian, eta ez beste moduz;
bai; azquenengo ordu estu onetan ere onela beinic bein eracusten de-
uscube Taquintsuric gueienac guichiren batzubecaz ostiango
beste guztiac, ez dala itzi biar onerian Gaiso̅ari ere illten Abso-
luzino santu bagaric; zergaitic bere demporan Christaun Ca-
tolicoa leguez vizi izan dan, onerian Gaisoagatic beti uste izan
biar dogu, eguiaz gura dabela salvaitia, eta onetaraco ar-
tzeia Sacramentu Penitenziaco au; eta Gaiso̅aren biotzian gu-
re ustian aurquiquetan dan, Sacramentu santu onegana-
co vorondatia pecatuben gañeco damuariagaz batera euqui
oi da bada ez badaco Confesinotzat; esan dot: bada ez ba-
daco Confesinotzat: bada uste badogu ere, negargarrizco or-
du onetan aurquiquetan dan, Gaiso̅aren vorondatia ala
dala, ez daquigu eguiaz, ala ete dan edo ez; argatic Sazerdo-
tiac ere azquenengo Gaiso̅ mueta onerianai ezin emun daique
(esan ditudan) beste Gaiso̅ai duiñ Absoluzino erabaguiric,
baizican esanic itzi dodan, intenzinoaren azpian: baña verba
bagaco Gaiso̅ mueta oneic guztioc artu badaube ere Absolu-
zinoaren bitartez Sacramentu Penitenziaco au; zergatic Sazer-
dotiac errazoiagaz uste eben, gueiagoco verba bagaric berialatic
illteco vidian egozela, bardin Taungoicoac emuten badeuste ver-
bia, aoz confesau biarco ditube aoz confesatzaca, daucain, pe-
catu mortal guztiac, beren culpa bagaric aazturic confesatzaca
itzi ditubenacatic osa onen arpeguian esanic itzi dodan leguez.

Ezin dabenian bada Pecatariac, eguin aozco Confesino osoa,
onela artu oi dau Penitenziaco Sacramentu au; baña eguin aldai-
quian guztian, Aozco Confesino eguiazco eta oso au aiñ guei pre-
miñacua dau, zeinda au bagaric ezin artuco dau Sacramentu
Penitenziacoric; bai, Aisquidia; Aozco Confesino onec, eguin aldi-
tequian guztian izan biar dau eguiazcoagaz gañera osoa ere
bai; eta gauza bi oneitan utsic aimbat guichien eguiteco, Pecata-
riac chiquitanic oitu biar dau, berez confesaitara Confesoriaren
itaune bagaric bere pecatu guztiac, eta artez erantzutera Confeso-
riaren itauniai, eguiten deutsanian pecatuben zircunstanziac Jaquiteco,
zircunstanziac dinot, confesaitaco premiñacuac.

Nor berac, eta ez Confesoriac, daqui bere Conzienziaco, bazzi eta, pecatu guztiac osoro confesau bia ditubau ezquero, zoraqueria andia da, confesaitaco batec bere pecatubac, gueldiqueta iñillic, Confesoriac zer itandu deiquian, beguira; au da, Confesinoa ausco lazatu eraquiten daben, neque alper bat, eta, calte andicua izan ditequian, neque mueta bientzat ala confesaitan danentzat, nola Confesoriarentzat: neque gueiago eta alperra dana bientzat, aguiriau dago Airquidia; eta noxe ezaguquetan ez dau, izan ditequiala exe neque au bientzat calte andicua? ez dago Confesorenic, Pecatariari eguingo deutsana bere itaunniac aiñ erabaquiac, zeinda premina ditubau, bada beti edo gueienian eguingo deutsa bere itaunniac, premiña ditubau baño, labirraquiac, edo larreguiaquiac; eguia da; Confesoriac, guztiz beguiratubac izan biau dauben leguez beren itaunetan, guztiz azaletic jo oi ditube pecatubac batez ere Personaren batzubei eta pecatu muetaren batzubec, ez quichien eguin oi diziolaco, baizieen beren beguiac gauza dongatzaco ez izatzaitiaren; eta, deritzuen itaune premiñacuac eguinic, guelditu oi diza auxiera iago bagazic, bardin auxiera itaune gueiagoraco Pecatariac usainen bat edo beste emuten ez badeuste: oraiñ, Airquidia, zer deritzozu eta zer esaten deustazu, bere pecatubari jareguiteco, Confesoriac bere itaunetaco cacuagaz noiz oratu, deutsan, beguira daguan, Pecatariagatic? izi ete dizian Pecatarien batzubec, pecatu andirien batzubetan sarturic egonagatic, uste dauberac, ez diziala pecatubac, Confesoriac aien gañeco itaunetic eguin ez deustelaco? eta zer guentatuco da, bardin modu bagaco lotsa madarikaturen batec ucuquetan badeuste, beren biotzetan, guertatu oi dan leguez Personai gaztiagaz bacez ere, Gracuniagaz? Confesoriac bere itaunetaco cacuagaz araquetan ez badeuste euren pecatubai, eziquio ete dauben indarric, beren pecatubai aoz jareguiteco? Ha! eta zembat bildur daucadan aurcoren Confesinoacaz alde onetatic! onela Confesoriac sarritan eta sarritan quezcaz beterie aurquitu oi diza Jaungoicoaren aurrian, labirraqui izanaren ondez beren itaunetan, Confesinoac dongac utzi ete dauben edo ez, eta ez quichiago, itaune larreguiren ondez izatzaui ete deustan edo ez. Pecatariai beguiac gauza dongiotzaco; noiz noiz

ezaguquetan dau bada, neque au, alperra izanaoaz os-
tian, izan ditequiala ere calte andicoa bientzat ala
confesaitan danarentzat nola Confesoriarentzat.

Aurrac, confesaitan asiric, andic aurreraco urte bat-
zubetan, eguin oi ditube beren confesinuac Confesorien
itauniacaz; eguia da au, Aisquidia; bada ez dago bes-
te videric, dempora artan eguin oi dituben, Confesinue-
taraco; baña eguia ere da, Aur oneic chiquitanic andi
eguin ditezeneraco artu oi ditubela oituera guztiz za-
tar batzubec, bardin beren Gurasuac eta Confesore ar-
tubac eta aditubac gueldica eracutsiagaz ez badacar-
de, nola eguin beren confesinuac eubenez, Confesoriac itan-
du beguira guelditu bagaric; nundic sortzen diriala, us-
te dozu, eun eta iruroqueta bost garren ojiaren ostian eta
urrengo guztian izentauric itzi deutsudan Confesino one-
raco escaquetan dirian, eguiazcotasunaren eta osotasu-
naren gañeco uts eguite guztiac? ez bestetatic, baizican,
chiquinac zirianian artu zituben, oituera zatarretatic;
oiquetan dira, ni pecataria: esanic, iñillic gueldiquetan,
Confesoriaren cacuari beguira; ez eubenez confesaitan
icasten daube, eta ez Confesoriaren itauniai ondo eran-
tzuten; Bildotsa ostu ete dauben, itandu biarrian, Anchu-
mia ostu ete dauben, itandu deustelaco Confesoriac, aim-
bat confesatzaca izten daube; aiñ lañter bata eta bestia
erantzuten daube, eguin ez dauben, gauza eguin dau-
bela, eta, eguin daubena, eguin ez daubela: zer vide ba-
da, Aisquidia, obiagoric, ala Pecatariac nola Confeso-
riac Arantza dui oneitatic guztietatic urteteco, billatu di-
teque, bacoitzac berez pecatubac aoz eguiaz eta osoro
chiquitanic confesaitara oiquetia baño, Confesoriaren
itauniai beguira, guelditu bagaric, bere Conzienziaco
barri berac bacarric, eta ez Confesoriac, daquian ezque-
ro? eracutsi beguie Gurasuac beren Vmiai andi egui-
nagaz datozen eran, eguiten eubenez beren Confesi-
nuac aimbat erabaguienac, eguiazcoenac, osoenac
eta laburrenac, pecatubac ederquiro jazteco soñe-
coric eguiten ibilli bagaric, Mandamenturic Manda-
mentu esanagaz duazela, nun zer pecatu, eta zem-
bat vider eguin dauben; eta, ondoren zircunstanziaren
batzubec zer jaquin badagoza, aimbat artezen erantzu-
ten deustela Confesoriaren itauniai: ecusi eguizu eun eta
berroqueta emeretzi garren ojiaren ostian esan deutsuda-
na.

~Confesoriaren oñetan belaunico ifiniric bere Eliza-
~raco fantzi onagaz, eta ez, asco Jnacume etorri oi diri-
~an leguez, camisa edo chaoraneta manca utsian, confe-
~saitan asi ausrian zeñatuco da, eta esanic: ni pecata-
~ria: asico dau bere Confesiniua onela: Jaunia, onembeste
~dempora da, confesau nintzala; eguin neben Confesori-
~ac aguindu eustan, penitenzia, edo ez neben; eguin dot
~esaminia Conzienziacaua; badacart nire pecatu guztien
~gañeco biotzezco damuari eguiazcoa; ni naiz ezcondu-
~ba, edo libria, Sazitzaria, edo Gurasuen bendian vizi
~naizana; nire Ofiziba da au; eta onduren esango ditu bere
~pecatu guztiac, zer, eta zembat viden, auriten dabela bere
~confesiniua lenengo Mandamentutic. azquenenguagaz fo
~rteraño; orobat Eliza Ama Santaren Mandamentubetetic,
~bere Estadu, Ofizio, edo amalau Obra Misericordiazene-
~tatic, pecatu andiren bat edo beste aetan eguinic baodau-
~ca: onetaraco faquin biar dau Mandamentu bacoitzian Ja-
~ungoicoaren vorondatia; lenengo Mandamentu santuco pe-
~catubac izan oi dira, doctrina Christiana, icasi gura ezda-
~belaco, ez faquitia: lenagoco Confesinoco penitenzia bere cul-
~pac ez eguitia: Fedearen Esperanzaren eta Caridadiaren
~actuac urte guztian batzubetan eguin bagazic egotia, edo
~virtute santu oneitan beste utsen batzubec eguitia: promi-
~sac ez gordetia: Sacramentu santubac gaizqui artzeia: bast-
~garren, seigarren eta zazpigarrengo Mandamentubac urra-
~tubagaz eguin ditezquian Sacrilegioac: Mundubaren ga-
~ñian esanic itzi ditudan Atso ipuiñac eta Superstizino-
~co gauzac sinisquetia, edo eguitia, edo esaquitia besteri:
~Jaungoicoaren eta bere Santuben insultiazco Blasfemiac
~esatia edo eguitia: onela beste Mandamentubetan eta bere
~estaduta eta Ofizioan faquin biar dau Jaungoicoaren voron-
~datia, emendic ezaguquetaco, confesau biar dituban, bere
~utsegite eta pecatu guztiac.

Chiquitanic, confesaitaco, artu oi dirian oitzeza za-
tar oneicaz ostian, Pecutariari gueien utsegiten deust-
san gauza, Confesiniac, ona izateco, escaquetan dituban,
eguiazcotasuniari eta asotasuniari, da lotsa madaricatu-
ba; oneç bada Pecatari ascori quentzen deuste adoreguztia,
bere pecatubac osoro confesaitaco, batez ere pecatu mueta
batzubec, eta ez guichien eguin oi dirianac; eta lotsiac bein

eizpian artuzicaco Pecatoria ez da gueldituco Sacrilegiozco Confesino eta Comunio donza batzubecaz, baizican untzetan izaungo dau Sacrilegiozco pecatu icaragarri oneitan, eta osala bere vizi guztian onela izaungo ez baleu.

Pecatoriac bada, non nai dala, Osoai ascotaciac ozapildu gura deutsaniari bere biotza lotsa madaricatu onegaz, pecatuen bat, nola naicua dala, confesatzaca izteco, gauzaric asconi beguiratu biar deuste, lecunic ez emuteco bere biotzian lotsa madaricatu oni; benetan eta biotzetic saquin eta sinistu biar dau, pecatuen bat lotsaz confesatzaca itzi enian, obiago dabela milla vider, confesaitzea etorteco, nequeric artu bagaric, bere Echian guldi egotia; ecuri eguzu eiin eta inoiz quei gauzen osiaun ostian azquenerauntz eta ezzengozuen asipenian esaten dodana: baita ere sinistu biar dau biotz guztitic, confesiniari esaten daben, pecatunic dan chiquienic, ascoz quichiago mortalic eta aien gañeco zin cunstanziaric Confesoriac ez berari, eta ez Mundu onetaco Personazi aiquetara emundeiquisala ez aoz ez quiñuz eta ez beste modutan, ez esatiozuen vizitza quendu gura baleutsai ere, Pecatoriac berac, Confesino co gauzac aitorquetaco andic campora berari edo besteren bateri, Confesoriari ezzozue onen bategatic ao betian eta vzondate oso eta guztiz cuagaz onetzaco escuridia auzaz emuten ez deutsan bitartian; eta ala sinistu biar dau, Confesoriari esaten deutsan, pecatubac esaten deutsala Jaungoicoari bacarric, nozen Ministroa dan Confesoria, eta alde onetatic ez dabela izango atzecaberic dan chiquienic: baita ere sinistu biar dau, bere ain lotsa andico pecatubacaz ez dala batere icaratuco Confesoria; oec eta andiagoac berau muetacoac eta mueta oquerragocuac Confesoriac entzunic daucala toqui artatic bertatic, mundic confesaitan dagoan, eta, (quei ago dana) bera duiñ lotsatia edo lotsatiagoac zirian, bere ontzeco Christaunacandic: baita ere sinistu biar dau, Confesoria, zeñari confesau biar deutsan pecatubac, ez dala, pecaturic eguin ezin leiquian Zeruco Aingueru bat, batere beragaz erruquituco ez dana, baizican Jaioqueraz eta izatez dala bera duiñ argala bera duiñ pecatoria, eta Jaungoicoac itzico baleutsa be-

re escutic, eguingo lituquiana pecatu oiec, zeñac emuten deutsain aimbeste lotsa, dongaguac, eta gueiago ere; ez alperric, Aitzquidia, Jesus maitiac ifini euscun bere ordecotzat, Eliza Santaren eta Apostolu guztien Buruotzat, ain lotsa guichigaz, vizitza quendu ez eguiaen, bilduaiez: ivu videz Pilatoren echian berba icaturic, ondoren penitenzia sendoa eguin eutsan, San Pedro gloriosua: siniestu biardau azqueric, baña beretan, lotsaz pecatuen bat confesatzaco oraiñ izten badau, Juizioco eguunian Jaquingo deutsala bere aiñ lotsa andico pecatuba Munduu guztiac, bere Gurasuac, Senidiac, Adiszquidiac, eta Lagunac, eta auzqueituco dala Jesus maitiaren aurrian mutuburic, zer esantzun ez daquiala, eta bere batere erazue bagaco lotsa onen saria izango dala, suzco toqui izugarrietan Infernuban Demonioeccaz batera betiereztan egotia: gauza onei guztioi beguiratu biar deuste Pecatariac, Etsai ascotacuari bere biotza lotsiagaz orapiloquetan itzi baño lenago; eta, onei beguiraturic etsi etsian lotsaric gueien emuten deutsan, pecatuba bota beguiaurrenego Confesoriaren belarrietara, eta, au esanic, ondoreneguac erazago esango deutsa; onela bere vizitzaco Liburutic quenduco ditu pecatu guztiac, oraiñ eta Juizioco eguunian iñore Jaquin ezin deiquion, modubau; eta, lotsia onela botiagatic, bere saria izango da Ainguerubacaz batera seculaco vizitza zoriónecua Zeruetan: Ha! burubagaco Pecatariac! pecatubac Jaungoicoaren aurrian, bere Ministroaren bitartez confesatuaco, lotsa andiac euqui oi ditube, eta, equiteco pecatubac, batere lotsaric ez; nire Confesoretzaco uste ascuetan, Aitzquidia, billatu izan ditut bat baño gueiago, eriotzaco orduban beren vizitza guztico Confesino general eta guztiz premiñacua eguin biar izan dauben, Pecatariac, chiquitanic oitu ziriaiaco, lotsaz pecatuen batzubec confesatzaca izten; baita ere onein antzian ecusi izan ditut bat baño gueiago, illten, confesau gura bagaric, eta beren buruibai etsinic, esaten eubela: niriac eguin eben: niretzat ez dago Salvazionic: niretzat zeiñ confesau zein ez guztia da bat: emuten zitubela beren azqueneco barnasac izugarrizco izuniac onetan; Ha! eriotza izugarriac, eta nire beguiacaz ikusiac!

Aozco Confesinuac euqui biar daben, irugar-
ren gauza, ona izateco, da, izatia damutasun equi-
azcotic sortuba, eta damutasun au aiquetara emu-
ten dabena: gauza Jaquiña da, Aisquidia, campo-
tico Penitenzia, nola dan aozco Confesino au, utsa
aña dala, bardin bere sustraian ez badauca biot-
zezco Penitenzia edo damuari equiazcoa; Sacramen-
tu santu au Eliza Santan ez eguan demporan Cain, be-
re Anae Abel Justubaren illtzalliac, Antioco Erreguia-
ac, eta Judas madaricatubac confesau zituben beren
pecatubac; baita ere David Erreguiac, Evangelioco
Publicanuac, Fariseoagaz batera Jerusalengo Templo
santura, Orazino equitera, sartu zanac, San Pedro Apos-
tolubac, eta Lapur onac Curutzian autortu edo aoz
confesau zituben beren pecatubac; baña Jaungoi-
coac ez eusten beguiratu lenengo iruren aozco Con-
fesinoai; zergaitic ez eucain biotzezco damutasun
edo Penitenzia equiazcoric; eta, bai, beguiratu eusten
beste lauren aozco Confesinoai, eta, ontzat emunic, par-
catu eusten beren pecatu guztiac; zergaitic onein lau-
ren Confesinuen sustraia izan zan beren biotzetaco
damutasun equiazcoa; orobat bada, Sacramentu au,
ifiniric, zabaldu zan ezquero Eliza Santan, aozco Confe-
sino onec izan biar dau, Sacramentuba artzeco, duin ga-
raco gueia dan, damutasun equiazcotic sortubac, eta
damutasun au zerbait aiquetara emuten dabenac (au
da) Pecatariac esaten deutsala bere pecatubac Confe-
soriari, ez gauza iragoren bat bere Lagunen bateri esan-
go leusquion, liortasunagaz eta otzitasunagaz, baizi-
can Gaitzeguilla damutu batec Juezari bere gaiztaque-
ria autorquetan deutsan, moduban: eguia da; Pecata-
riac aozco Confesino au equiteco demporan ez badau-
ca biotzezco damutasun equiazcoric, eta, bai, Absoluzi-
no santuba artzeco, demporan, bere aozco Confesino au
dator ondorengo damutasun equiazcoaren videz, Sacra-
mentu au artzeco duiñ garaco, gueia izatera, baña
au guertatu ditequian, gauza bada ere, iñoiz ez, edo
guinitan guertatu oi dana, da; zergatic au onela era-
custen bada ere, eracusten da, arturic barrena demporaric luzienari, zeñaren barruban sortzeia Pecatari-

ac biotzezco damutasun eguiazcoa, asco daben, Sacramentu au artzeco, beguiraturic bacarric, izan ditequian, gauzari, eta ez izan oi danari; bada Eliza Santan Sacramentu santu onetaraco Pecatariari eracusten dan lenengo eta aurrenengo gueia da biotzezco Penitenzia eguiazcoa, eta onen ondoren beragandic sortzen dirian beste guei biac: ecusi eguizu, eun eta ogueta amairugarren ojiaren ostian azquenerutz eta urrengaren asipenian, baita ere eun eta berrogueta amaicagarren ojiaren ostian esanic itzi deutsudanac; orobat eun eta berrogueta seigarren ojiaren arpeguiaren azquenian eta bere oste guztian esanic itzi dodana.

Azquenic Aozco Confesinoac, ona izateco, euqui biar daben, laugarren gauza da, izatia, Confesoriaganaco obedienzia beragaz dacarrena, ala, Confesoriac Pecatariari aguinquetan deutsan, Penitenzia eguiteco, nola, eracusten deutsan, Zeruraco vide zuzenari jarraiquetaco: ecusi dozu eun eta berroguei garren ojiaren azpeguiaren azquenerutz eta bere ostiaren asipenian, nola obrazco satisfaczinoa aituric alde onetatic dan Sacramentu santu onetaraco guei guztiz premiñacua, eta aituric, Pecatariac Taungoicoari eguiaz obrazco satisfaczino au emuten deutsan aldetic, nola dan, ez Sacramenturaco guei premiñacua, baizican, Sacramentu onec, eguiaz arturic, bere osotasuneraco escaquetan daben, gauza.

Medicu edo Ofizialiaren aguinduba eguiteco gogoric ez daucan, Gaisuac alperric eta bere caltian ots eguiten deutsa; au berau eta ascoz gueiago guertaquetan da Pecatariagaz, doianian, confesaitara, Confesoriaren aguindubac eguiteco, gogoric ez daucala; ez dauca onerian Pecatariac zer juan, confesaitara; bada Sacrilegiozco pecatu icaragarri bat gueiago eguingo dau, eta beste mesederic anchituco ez dau: Corputzeco gaitzac eta beren sustraiac ez dagoza Medicubarentzat aiñ aguirian, nola Pecatariaren Animaco gaitzac eta beren sustraiac dagozen Confesoriarentzat; argatic batzubetan ecusten da, Gaiñuac Medicubaren aguindubac eguin bagaric sendaquetan diriala, eta eguiñagaz indar gueiago gaitzac artzen deustela; baña au, ezin guerta-

ru diteguian, gauza da, Jaungoicoagatic bere Confesoriaren aguindubac ichu ichuban eguiten dituban, Pecataria gaz; guztatu ere ezin diteque, Pecataria sendaquetia bere Animaco gaitzetatic bere moduco sendagarriacaz, ucaturic Confesoriari obedienzia, eta itziric alde batera, onec emun gura deutsan, sendagarriai; zugaitic Jesus maitiac erabaguiric daucan, Confesoriaganaco obedienziaren videz sendaquetia gure Animetaco zauriac, eta, izanic obedienzia au onetaraco ascoz obiagoa, Pecatariac bere voronda tez esquinideiquion, obraric onena eta Meza santuco Sacrifizioa bera baño, Confesoriaren uts eguite guztiac ere (noiz edo noiz eguin daiquian leguez) obedienzia ichu onen videz, pecatu ez dan guztian, Confesoriaren esana eguitia, datoza izatera Pecatariaren tzat on andiac, eta Jesus maitiac emungo deutsa onerian Pecatariari bere obedienziaren sari ugariac emen ere, argui eguiten deutsala bere Confesoriari, utsic eguin ez dagiuian, edo onen ordian, beretzat obiago dan, beste Confesore bat emuiten deutsala onerian Pecatariari: bai, Airguidia; Confesoriaganaco obedienzia ichuz onec dacar Pecataria, bere Animaco gaitz guztietic sendaquetaco, videra; eta obedienzia ichu au bagaric Pecataria galduric ibillico da; argatic Zeruco Santu eta Santtac aiñ laztan izan euben obedienzia ichu au, eta aba santidian nola jaquinduriaz ascotan eurac baño guchiago zirian beren Confesorien esanetic eta itzitzic eseguiric vizi izan zirian, eta aiñ Santu andi izatera etorri zirian: ez dau ez, obedezitan dabenac beñere utsic eguiten.

Sacramentu santu onetan Confesoriari zor deutsagun obedienzia da bi modutacua, bata guztiz premiñacena, salvaico bagara, eta au ecarri biar deutsagui gauza onetan guztietan, zeñac Confesoriac Animetaco Maisu, Medicu, eta Jueza dan aldetic erabaguiric izaten deuscun bere aguintiaren azpian eta penitenziatzat, ezian eta baian edo beste perrasquerietan berazaz ibilli bagaric, baizican isi isillic eguiten dogula bere aguindu guztia, ifiniric lenaz bere beguien aurrian gure Animetaco gauza guztiac, humildadiagaz, eurac dirian, modubau: bigarren obedienzia da voronda tezcoa, eta da, ecarten deutsagun gauza guztiac zeñac Confesoriac, batere aguindu bagaric, iztan dituban guere voronda tera: lenengo obedienzia ucaqueta da pecatu; baña ez da pecatu, bigar-

ren obedienzia au ez ecartia, humildadiagaz guertaquetan danian obedienzia ez ecarte au, ascoz obiago bada ere, obedienzia ecartia.

Pecatariac bere Confesino guztia eguin biar dau bere Corputzaren egoera artan bertan, zeñian asi eben (au da) belaunico, eta ez zuti, asco Guizacumec, Aisquidia, eguiten dozuben leguez eta gaizqui; zergatic Eliza Ama Santaren Leguiac ala aguinquetan daben; Emacumiac Legue au gordetan daube ondo, eta Guizacumeric gueienac ez; chiquinac zirianian, confesaitaco, zuti jaguiten eta egoten oituric, andi eguinic ere ondo deritzue, confesaitaco, zuti egotiari; baña gaizqui eguiña da, artaraco errazue onen bat ez daucain bitartian: eguinic bada bere Confesino guztia, egoera artan bertan (au da) belaunico egon biar dau Confesoriaren oñetan, Absoluzino santuba artu arteraño; Confesinuaren eta Absoluzinoa artu bitartian aimbat iratzarrienac eta humildienac egon biar dau, Confesoriac, Animetaco Maiñuba dan aldetic, eracusten deutsan, doctrina eta Zeruraco vidia icasten, Medicuba dan aldetic, aguinquetan deutsan, sendagarriac, eta, Jueza dan aldetic, erabaguiten deutsan, penitenziac goguan artzen, guztiac ondoren ziaro eguiteco; au eguinic, Confesoriac emuten deutsan, Absoluzinoa artuco dau, emun bitartian esaten dabela biotz guztitic acto Contrizinocua: nire Jesu Christo Jauna: eta ez dau jagui biar Confesoriaren oñetatic, penitenzia entzunic beriala, Confesoriac ezartera doian, Absoluzino santuba artu bagaric, bein baño gueiagotan ecusi dodan leguezzer eguiten dauben ez daquien, batzubecaz; ez dago, eta ezin izan diteque Sacramentu Penitenziacoric Absoluzino santu bagaric; zergatic Absoluzinuac, Pecatariac arteraño Sacramentu santu onetaraco ifini dituban, iru gueiai emuten deuste Sacramentubaren Anima (esateco modura) eta izatia; arteraño ez dago Sacramenturic; eta ala, Absoluzinua artzaca, doiana dua, Sacramentu Penitenziaco au artzaca.

Confesoriac bada, errazue onen bat ez daucan bitartian, Absoluzinua emun bagaric izteco, beti emun oi deutsa, Pecatariari; baña batzubetan, ecusiric, Pecataria ez datorrela ondo guertaturic, ucaquetan deutsa

bere Absoluzinua; beste batzubetan, quezca erra-
zuazcoren bat daucanian, ete datorren edo ez Pe-
cataria ondo guertaturic, luzatu oi deutsa, Abso-
luzinua emutia, eta, emunic bere sendagarri onac,
~ bialdu oi dau, aguinquetan deutsala, biurtu zai-
~ te nigana onenbeste dempora barru: bada Confe-
soriac dauca Jesus maitiaren aldetico escuvidia
Absoluzinua emuteco, eta emun bagaric izteco, er-
razoiac dacarrenian; eta ala Pecatariac, Confesori-
ac naiz ucaquetan deutsanian, naiz luzaquetan
deutsanian Absoluzino santuba, ez dau beguiric
baltzitu biar, ez dau demandan jardun biar Con-
fesoriagaz, ez deutsa ere Curutzeric betico eguin
biar, baizican sinisturic biotzetic Confesoriari, ichu
ichuban eguin biar dau, aguinquetan deutsan, guz-
tia: Pecatari gogortu edo ichu batzubec, gauza oneic no-
la dirian, ez daquiela, uste daube, Sazerdotiaren Ab-
soluzinua anchitu ezquero aldian daucaila, premi-
ña dauben, guztia; baña erdi erditic uts eguiten dau-
be; eta, Sazerdotiari emun eraguiñagaz, emun ezin da-
iquian, Absoluzinoa, aurreratuco leuquien, guztia
izango lizateque Sacrilegiozco pecatu icaragarri bat
eurac eguitia, eta Sazerdotiari ere eraguitia: gueiago;
Sazerdotiac, uste izanic, Pecataria ondo guertaturic
datorrela, Absoluzinuaren videz Sacramentu au ar-
tzeco, emungo baleutsa uste onian Absoluzino san-
tuba, gaizqui guertaturic datorrenian, Absoluzino au
utsian jausico lizateque, eta izango lizateque Pecata-
riaren calte guztiz andian, esan dodan leguez; arga-
tic, Aisquidia, nola iñorc Jaungoicoaren aurrian ezin
jaquin daiquian, ondo guertaturic confesau ete ditu-
ban bere pecatubac, edo ez, ala ez dau iñorc ere sinistu
biar Fede santuco gauza erabaguitzat leguez, bere pe-
catu guztiac aren gañeco Absoluzinua artu ezquero
parcaturic dagozela, eta Jaungoicoaren grazian aurqui-
quetan dala.

Sazerdotiaren aldetico Absoluzino au ez da,
Eregeren batzubec eracutsi izan dauben leguez, ze-
remonia uts bat, zeñagaz Sazerdotiac autorquetan
deutsan Pecatariari, confesau deutsan, pecatubac Jaun-
goicoac parcaturic izten deutsala, baizican da, Sazerdo-

te Confesoriac, Animaco Jueza dan aldetic, Pecatariari, entzunic bere pecatuben gañeco auzia, emuten deutsan, parcazinoco sentenzia bat; eta aiñ sentenzia indartsuba da Sazerdotiaren Absoluzino au, pecatubac parcaquetaco, zeinda, Sazerdotiac Absoluzino santuco sentenzia onegaz, eguiaz guertaturic datorren, Pecatariari parcaquetan deutsan, pecatu guztiac Jaungoicoaren aurrian parcaturic gueldiquetan dira, eta, Absoluzino au ucatubagaz edo luzatubagaz parcatzaca izten deutsan, guztiac parcatzaca gueldiquetan dira ere Jaungoicoaren aurrian: onela eracusten deuscu Eliza Ama Santac Trentoco bere azquenengo Conzilio generalian Fede santuco gauza erabaguitzat; eta ala esatia, dala Absoluzino au, esan dan moduco, zeremonia uts bat, da, Fede santubac ucaquetan deuscun, gauza: baita ere Fede santuco gauza erabaguia da, Sazerdotiac, pecatu mortalian egonagatic, ez dabela galtzen, Pecatariari Absoluzinoaren bitartez pecatubac parcaquetaco, daucan, escuvide santu au; eta Sazerdotiac, eta ez bestec daucaila escuvide santu au.

Ecusiric, Aisquidia, Sacramentu Penitenziaco onen izate guztia daguala Pecatariaren biotzezco damutasunian, Aozco Confesinuan, eta obrazco Satisfaczinuan, aituric, Jaungoicoari eguiaz emuteco, gogo erabaguiaren aldetic, eta, Sazerdote Confesoriac Pecatariari emuten deutsan, Absoluzino santuban, Jausoten ditubala Pecatariaren iru guei oneic Sacramentubaren izatera, ecusi daigun oraiñ, Pecatariac onela artzen daben, Sacramentu Penitenziaco onen erru miragarrizcua, eta ondoren, zer moduz Pecatariac osotu biar daben Sacramentu au, Confesoriac aguinquetan deutsan, Penitenzia eguiñagaz.

Sacramentu santu onec bada, eguiaz arturic, parcaquetan deutsa Pecatariari bere pecatu mortal guztiac, Ychasuan ur tanta dagozen aña, millue pecatu mortal baleuca ere, eta, asmau alditezquian, andienac balira ere, euracatic irabaziric eucan, Ynfernuetaco pena eternoacaz batera, izten dabela, Jaungoicoari pena tenporalen bategaz erantzuteco, zorragaz loturic: parcaquetan deutsa pecatu venialac: Jaungoicoaren Etsai zana

izten dau bere Aisquide andi eguinic, eta bere gra-
zian: indarquetan dau, aurrera pecatu mortalai
igues eguiteco, eta pecatu venialac guichitubagaz
eruateco: eta, bardin Pecatariac, Jaungoicoaren gra-
zian edo aisquidetasunian daguala, artzen badau
Sacramentu au, bere erru santuba da, gueiquetia
edo ugariquetia Pecatariari, len eucan, Jaungoicoa-
ren grazia santuba, eta indarturic izten dau gueia-
go, aurreraco pecatubetatic (esan dodan leguez) igues
eguiteco eta virtute santubetaco vidiai jarraiqueta-
co: bai, Aisquidia; au da Sacramentu santu onen er-
ru miragarrizcua, Pecatariac eguiaz eta ondo artzen
daben, guztian, Fede santubac eracusten deuscun le-
guez.

Ecusi daigun oraiñ, zer moduz Pecatariac, artzen
daben, Penitenziaco Sacramentu au osotu biar daben,
Confesoriac aguindu deutsan, penitenzia edo obrazco
satisfaczinoa Jaungoicoari eguiaz emunagaz; zeña
dan, Confesino on bateraco eracusten dan, azquenengo
eta bastgarrengo gauza; bada penitenzia au eguiteco go-
goa, Sacramentuba artzeco, premiñacua dan leguez, oro-
bat penitenzia au obraz eguitia da, Sacramentu artuba
osoquetaco, premiñacua.

Beren vorondateco leguera gaizqui eta obra onic
eguin gura ez daubela vizi dirian Eregiac eracutsi
izan daube, Jaungoicoac, Pecatariari parcaquetan deut-
san guztian bere pecatubac, parcaquetan deutsala ere
pecatubacatic irabaziric daucan, pena mueta guztiac, aren
Divina Magestadiari pena temporalen bategaz erantzute-
co zorretan itzi, bagaric, eta ez daquiala beñere parcaquetan pe-
catubac beste moduz; baña Fede santubac guizurtitzat
emuten deuscu ichu onein eracuste au; eguia da; batzu-
betan Jaungoicoac parcaquetan deutsa Pecatariari pe-
catubacaz batera, euracatic irabazi dituban, pena mue-
ta guztiac ere; ala Jesus maitiac parcatu eutsan Lapur
onari, Curutzian josiric eguala, esaten eutsala: gaur ni-
gaz egongo zara Paraisuan: ala parcaquetan deuste ere,
batiaquetan dirian, guztiai Bautismoco Sacramentu san-
tuban, bera ondo ezagutu bagaric arteraño eguin dituben,
vorondatezco pecatu eta gaiztaqueria guztiac beren pena
mueta guztiacaz batera; eta ala Bautismoco Sacramentu-

bac ez deutsa izten batiaquetan danari, parcaquetan deutsan, pecatubacatic penitenziaric zer eguin edo obrazco satisfaczinoric Jaungoicoari zer emun; Sacramentu Bautismotic campora bada ez da eguia, Jaungoicoac beti pecatubac parcaquetan dituban, guztian parcaquetan ditubala ere pena mueta guztiac; Eregien guizur au Jaungoicoac bere Escritura Sagradubaren lecuric ascotan beguien aurrian ifinten deuscu.

Jesus Divinoac bada itzi euscun guere pecatuben parcazinoraco Sacramentu Penitenziaco au, obrazco Satisfaczinoa emuteco, preminaren azpian errazueric ascogatic; eguiaz, Jaungoicoaren Justizia santubari beguiraquetan badeutsagu, errazoiac dacarrela dirudi, aren Divina Magestadiac ariñago artzeia bere grazia santura, batiatzaca beren ez Jaquiñian pecatu eta gaiztaqueriac eguin ditubenac, bein pecatutic eta Demonioaren bendetic etararic, eta arturic Espiritu santubaren doaiac, Jaquinian pecatubacaz berriro bere Templo edo vizi lecu santuba ziquindu eta ichusitu deutsainac baño batere lotsa eta bildur bagaric; oneic neque gueiagogaz, eta Jaungoicoari beren pecatubacatic satisfaczinoren bat emuten deutsaila, biurtu bior daube bere grazia santura Sacramentu Penitenziaco onen videz, Sacramentu Bautismocuaren videz bere graziara aren Divina Magestadiac artu zitubanian baño: onegaz ostian Jaungoicoaren guganaco neurri bagueco erruquiari ondo daoquion gauza da, guri, bein batiatubac izan ezquero, eguin deutsagun, pecatubac ez parcaquetia batere guere aldetico satisfaczino bagaric, erraztasun onen videz euqui ez daigun pecatubac gauza chiquintzat eta ezebereztzat, eta, euracanaco bildur santuba galduric, Egunetic egunera Jaungoicoaren injuria andian pecatu eta gaiztaqueria andiaguetan Jausi ez guindezen; zergaitic satisfaczinoraco pena mueta oneic illten daube guere biotzetan aurreraco pecatubetaraco gogoa, eta zintzuaguac eguinic izten gaitube, aiñ erraz berriro Jausi ez gaitian; sendaquetan deuscube, pecatubac itzi deuscuben, argaltasuna, eta indarquetan gaitube, virtute santubetaraco vidiari Jarraiquetaco: azque-

~nic gueze pecatuben satisfaccinoraco peria muetaren batzubec iragoten dituguniar eguiten gara, gure pecatubacatic aiñ neurri bagueco satisfaccinoa bere Aitari emun eutsan, Jesu Christo gure Jaunaren anhrezkiac, Jaquinic, beragaz batera gloriagaz santziac izango gaituela, emen beragaz batera pena muetaren batzubec iragoten baditugu; eta, gure pecatubacatic Jaungoicoari emuten deutsagun, obrazco satisfaccino au, eguiaz gueuc emuten deutsagunac, da, baña Jesu Christo gure Jaunaren bitartez dalaco bere errucuztia, Sacramentu Penitenziaco onetan emuten deuscun, bere pasio eta eriotza santuco merezimentubaren lagunta sunagaz, zeña bague gure satisfaccino guztia eutsian gueldituco lizatequie: bai, Aisquidia; oneic dira ez nic asmauricoaco erdarzoriac, beiziean Eliza Ama Santac Trentoco bere azquenengo Concilio generalian eracusten deuscunac, ifiria izateco Sacramentu Penitenziaco au, gure pecatubacatic obrazco satisfaccinoa emuteco, premiñoaren azpian; argatic Eliza Santan Sacramentu au emuten asi zanetic ona emun dan bacoitzian Confesoriac betí aguindu deutsa Pecatariari, penitenziaren bat edo beste zer eguin, pecatubacatic Jaungoicoari obrazco satisfaccinoa emuteco, edo gueiago edo guichiago, beguiraquetan deutsala Sazerdotiac onetaraco Pecatariaren persona muetiari, dacarren, pecatubai, eta pecaruben gañeco damuari andiagoari, edo chiquiagoari; eta ala emuten da gaurco eguinian Sacramentu santu au, emungo ere bai auxera Eliza Santan.

Pecatariac, eguinic bere Aotzco Confesinoa, izango dan leguez, zintzo eta iratzarriac egon biar dau, Sazerdotiac ondoren eracusten deutsan Zaruraco vidia icasten, eta entzuten zer aguinquetan deutsan penitenziaren azpian, eta zeñ izten deutsan bere vorondatera, Jaquinian bape oñetatic Jagui dadin, zer penitenzia pecatubaren azpian eguin biar daben artu daben Sacramentuba. osoquetaco; bada bere vorondatera Sazerdotiac izten deutsangauzac ez dira sartzen Sacramentubaren ostasunian, eta ala, oneic eguiteco gauza ona baida ere, eguin bagoaic izbeia ere ez da pecatu.

Sazerdotiac, aituric Confesinoa, ecusten badau Pecataria urtian bein edo birritan bacarric confesaitan dala, esaten deutsa, sarriagotan confesau dedilla, nola dan illian bein, illic biri bat, gueiago esan bagaric; au ez da penitenzia, baizican Pecatariaren vorondatera izten daben gauza: ecusten badau ardura baguia guizur chiquinetan, Gurasuacanaco perrasquerietan, edo beste onerian gauzaren batzubetan, nola dirian erru bagaco Maldizinuac, eta Etsaiaren izen zatarrac verbatic verbara, aguindu oi deutsa benetan, ez daguiala, aurrera alaco gauzaric esan edo eguin; au ere ez da penitenzia, baizican Taungoicoaren Mandamentubac Pecatariari barriztaitia, obeto aiquetara emutia, eta bere biotzian obeto josi eraguitia: penitenzia izango da, bere pecatuben satisfaczinoraco, eta bere Animaren sendagarriraco Sazerdotiac Pecatariari penitenziaren azpian aguinquetan deutsan, guztia; eta, bardin Pecatariac ondo aitu ez badeutsa, zer penitenzia aguindu deutsan, edo quezcaren bat badauca, eguiteco esan deutsan, gauzaren bat ete dan, bere vorondatera Confesoriac itzi deutsana, ala penitenziaren azpian aguindu deutsana, batere lotsa eta susuma bagaric itandu beguio Confesoriari, bere oñetatic jagui baizen lenago, eta batere aserratu bagaric itzico deutsa arguitasun guztiagaz erabaguiric bere penitenzia; bada Confesoriac gura dala, Pecataria Animaco quezca edo illuntasun bagaric bialquetia.

Sazerdotiac, Pecatariari aguinquetan deutsan penitenziac aguindu oi deutsa Animaco Jueza dan aldetic, eta Medicuba dan aldetic, Animaco Jueza dan aldetic, bere pecatuben gañeco satisfaczinua Taungoicoari emuteco dirian, Orazino, mortificazino, eta obra on beste edozein: Medicuba dan aldetic, Pecatariac, bere Animaco zauri edo gaitzetatic sendaquetaco, premiña dituban, sendagarriac; eta ala esaten da, penitenzia dala bi modutacua, bata satisfaczinocua esaten deutsaguna, eta bigarrena Medizinala esaten deutsaguna; lenengoagaz Pecatariac emuten deutsa Taungoicoari Jesu

Christoren gure Jaunaren bitartez pecatuben satisfaczinoa, eta bigarrenagaz, aurrenengo artzen ditu neurriac, pecatubetarako vidiari izteco, eta virtute santubetaco vidiari jarraiquetaco, eta ondoren emuteco deutsa Jaungoicoari pecatubacatic satisfaczinga.

Pecatariac bere pecatuben satisfaczinoa emuten deutsa Jaungoicoari Jesu Christo gure Jaunaren bitartez ez bacarric, Confesoriac penitenziatzat aquinquetan deutsan, mortificaziniac eta obracinac equiñagaz, baita ere oneicaz astian bere verandatez equiten dituban obra on mueta guztiacaz, eta (queriago dana) bera iguiñ ditubanac, naigabe, atsecabe, eta gaitz mueta guztiacaz, bardin Jaungoicoaren izan santuban pazienziatan iragoten baditu: Ho! nire Aitzquidia; eta aubeti eguan babeucai asco Gaitzac, eta, edozeiñ ezebarezqueriacaz aimberte estuquetan dirian, asco Christoain zatarric, zeiñ irabazte andiac equingo lituquiien Jaungoicoaren aurreraco! au Fedearen bitartez gauza erabaguia da, Aitzquidia; argatic Confesoriac, bere Absoluzinoa emun ondoren, Pecataria-~xi esaten deutsa: edozeiñ obra on eguin daguizula ~eta gaitz iragu daguizula izan bequizu pecatuben ~parcazinoaren (au da) satisfaczinoaren, grazianen ~queitasunaren, eta betico vizitzaianen sariaco: orobat emuten deutsa pecatuben satisfaczinoa Jaungoicoari, irabazten ditubanac, Indulgenzia santubacaz; argatic era Confesoriac, ezarririe Absoluzinoa, izentau deutsudan verba santu onein aurretic esaten ~deutsa Pecatariari: Jesu Christo gure Jaunaren [redacted] pasinoa, Santa Maria Virjinaren merezimentu santubatu, eta Santu guztienac: eta onein ondoren, esan deutsudan, beste verba santu guztiac; merezimentu santu oneic equiten daube Eliza Ama Santaren Fesoriac, mundu ontetan dauban Indulgenzia santubac, Sacramentu onen azquenian esango deutsudan legueaz, baña Pecatariac bere pecatubacatic emuteco satisfaczino mueta oneic guztiac, emuteco damporan egon biar dau Jaungoicoaren grazian edo aisquidetasunian.

Pecatariac bada pecatubaren azpian equin biar dau Confesoriac aquindurieaco, satisfaczinoa esa-

ten deutsagun, penitenzia an aimbat lasterren, eta bezala Penitenziaco Sacramentu au artzera etorri baitzan lenago, bardin ala eguin daiquiana bada; zergatic ez dacan errazoiac, berriz Sacramentubaren esque bat etortia, lenago arturic daucana, osotu aldaiquiala, osotu gura ezta daucan bitartian: satisfaczinoco penitenzia, bein Confesoniac aguinotu ezquero, batere eguin bagaric Pecatariac izteia, naiz dala penitenzia chiquina naiz andia, Guizon faquintsu asconen iritzian da pecatu mortal, zergatic beren ustian onezian Pecatariac eguiten deutsan Jaungoicoari insulta andia, bere Sacramentuba (aguinoturic daucan leguez) osotu bagaric itziagaz; ez diñue ala, gueiena eguinic, eguinza guichiren bat bada, eguin bagaric izten dabena; an pecatu venialtzat emuten daube: baña faquintsu guztien iritzian pecatu mortal da, penitenzia andia dan-an, eguin bagaric izteia.

Eliza Santaren lenengo demponetan oraingo penitenzien aldian emun oi zirian penitenzia ascoz gogorragoac eta andiagoac, eta ziran, Eliza Santaren leguetan pecatu mueta bacoitzagatic izentaturic eta aguinduric egozen penitenziac, eta ez eucain Confesoniac, gauco eguinian leguez, gura zituben penitenziac aguinduric egozenai alde batera itziric, emuteco, a sevvidere, ara oneitatic bat-zubec: Guiasuac, lotan egozela, beren aldamenecо Auzoa itoten beuben, zazpi urte asoetan barubac etorra biar zituben ur eta ogui utsacaz: guizunaren gañian Juramentu eguiten euberac etorra biar zituben berriz-guei eguinetan, edo iru urte asoetan barubac ur eta ogui, nolacuac zirian Juramentu guezurrezcoaren circunstanziac, ala: seigarrengo Mandamentuban Aragueco pecatubetan obraz Jausten zirianac etorra biar zituben barubac ur eta ogui zazpi urte asoetan, edo beren vizi guztian, nolacua zan obraczco pecatu mueta, ala: neurri edo piñu laburracaz. beren artu emunetan zenbait asquetan eubenac, asturicaco guztia biurtu-bagaz gañera, etorra biar zituben barubac ur eta ogui asqueta amar egun asoetan: eta onein antzeracuac zirian, baste edozein pecatu mortalegatic emuten zirian penitenziac; eta Eliza Santac ere denpora batean Indulgen-

zia ascoz guchiago emun oi zituban, gaurco egunian
emuten ditubanen, aldian.

Eliza Ama Santac dempora aetan aguindu
eusten Pecatariai obrazco satisfaczino edo peniten-
zia gogor oneic, beguiraturic beren Animetaco onari,
eta, Jesus maitiac, pecatubacatic penitenzia eguiaz-
cua eguiteco, bere Evangelio santuban aguinduric
itzi euscun, Mandamentu estubari, loturic izten
eustela alde onetatic Confesoriai beren escubac,
eragotziric, gura zituben, penitenzia muetac
aguinquetia; eta demporiaren demporaz, ecusi-
ric, nola escaquetan daben Pecatarien onac, ala
Juan izan da, bigundubagaz gogortasun au, eta
itzi izan ditu obrazco satisfaczino edo peniten-
zia oneic, bere Ministroac dirian, Sazerdote Con-
fesorien escuvide errazuazcora, baña beti oñi-
an izten dabela batere guichitu bague eta bate-
re calte bague, Pecatariac, bere pecatubacatic pe-
nitenzia eguiazcua eguiteco, Jesus maitiaren al-
detic daucan, Mandamentu santuba eta estuba;
eta nola Eliza Santa etorri izan dan bigundubagaz penitenzia gogor oneic, ala etorri izan da emu-
nagaz ugaritasun gueiagogaz bere Indulgenzia
santubac, onela Pecatariac, obrazco satisfaczino la-
burraguac bere pecatubacatic Jaungoicoari emu-
ten badeutsa, izabazten dituban, Indulgenzia san-
tubacaz emun deguion, Eliza Santaren lenengo
demporetaco penitenzia gogor aec eguiñagaz, emun-
go leusquion, garaco satisfaczinoa; bada moduren
batera edo bestera Pecatariac beti emun biarco deutsa
Jaungoicoari, eguin deutsan pecatubacatic escaque-
tan deutsan, obrazco satisfaczinoa; zergatic, Manda-
mentu santu au ifini euscun, Jesu Christo atzo zana
gaur ere dan leguez, eta beti aurrera ere izango dan leguez
bat, orobat beti, bere Espiritu Divinoagaz vizi dan,
bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santa onetan
batere guichitu bagaric dago penitenzia eguiazcoa-
ren gañeco Espirituba, egongo ere bai, Mundu onec di-
rauban bitarte guztian, laburtu baditu ere lengo penitenzia.

Oneic onela diziala, Arsquidia, aguirian dago, Eliza Ama Santac, itzi baditu ere obrazco satisfazino edo penitenzia oneic Confesorien escuridera, ez ditubala itzi aiñ escuride guztizcoa, zeinda Confesoriac beren escubar daucain gura dituben, penitenzia aziñacoa bialquetiac beren añetatic Pecatoriac; bada escuride onec izan biar dau errazuazcuac, eta errazoniac daucan, pecatu mortalagatic penitenzia gogorra emutia, eta ascogatic guziagoa, beguiratuc, Eliza Santac bere lenengo dempostetan emun euscun, Espilluba, orduban duiñ penitenzia gogorric emun ezagatic; eta orregatic euben nasaitasunezco vizi gura dauben, Pecatoriac, joten badaube, euben Ofizioari ondo esantzun gura deutsan, Confesoria errazuazcoa, gogorregui tzat daucai, eta, betico Cumtzia exarriric onei, duaza, guztiz aziñ, eta beren Animen calte andian bapatac leunduric bialduco dituben, Confesoriacana: Ha! Pecatorien ichustasun negargarrizcoa! zeiñ maite dituben beren pecatubac, eta zeiñ iguiñ, Eliza Ama Santac daucan, penitenzia eguiazcuazen gañeco Espiritubo, eta bere Esposo Jesus maitiaren aldetico Mandamentu estubo! oneic onela esanic, Confesoriac, Animetaco Tuerza dau aldetic, Pecatoriari aguinquetan deutsan lenengo penitenzia mueta edo obrazco satisfazinoaren gañian, guazen onen, zerbait esatera, Medicuba dau aldetic, aguinquetan deutsan, sendagarrien gañian, zeña dau, esanic itzi dodan, bigarren penitenzia mueta, eta emuten dana, Pecatoria berriz biurtu ez dedin lengo pecatubetara, eta argatic Medizinala esaten deutsagu ura.

Medicubac eta Ofizialiac aguinquetan deuste Saiñoai, eurac sendaquetaco, eta sendaturic berriz gaitz aietan ez jausteco, onac dirian, sendagarriac; eta alaBerria zuqui daben, Saiño batari, sendaquetan daucan, berriz jausi ez dedin gaitz antan, aguinquetan deutsai, izerdituric daguela ez dedilla iñolaco modutz gueldiric egon aize otzetan, lionquetiaren ala bere Corputzeco izerdia; eta sendatubagatic gordetan ez badau aguinte au, lauster ebasten da berriz Albaragaz olan esaten: orrabat bada, Arsquidia, eguiten daube

Confesoriac, oitzera danguetan eta pecatuaco vida urrian sarturic vizi dirian, Pecatariacaz; lenengo sendaquetan ditube Sacramentu santu onegaz beren Animetaco zauritatic, aguinduric beren pecatuben satisfaczinaraco lenengo penitenzia muetac, nola diran Oraziuna, Barubac, eta limosnac eta onein antzeco beste edozein obra on mueta; bada itu gauzac onetan, dagoza Animaren Sacramentubeg-etan Sanguia eta sendagauzi eder guztiac, laister artan sendaquetaco, daucan, gaitzetatic; baña, nola ordubau sendaturic izteiagaz, aurreraco sendagarriric aguindu bagaric, ecusten daben Confesoriac, onexian Pecatuia laister datozela berriz pecatutetan faustera, eta onela gaiñoquetara beze Animan, aguinquetan deutsa lenengo obrazco satisfaczino edo penitenziacaz astian aurreraco, Medizinalac esaten deustegun, bigarren penitenzia muetac eu.

Medizinalac esaten deustegun, bigarren penitenzia mueta onetic, emun oi dira bada, Pecatariac aurrera pecaturaco vidiari, zeñian sarturic vizi dan, itzi daguion; Oroliari, ez dedilla Fabernan sartu; bere san edanataraco Lagunai itzi daguiela; ez daguiola edan Andaozu eguinian biurritan baño, bazcaitan eta afaitan bacarric, eta ordubau era ordutico daben baño Andaco guichiago, ochoa erdic ordiquetan badau, cuartillu bat bacarric: seigarrenco Mandamentuban faustan daraui, uzten daguiola, pecaturaco Laguna daucan, Echetic, albadan, edo bota daguiola bere Echetic, botateco escuridezic badauca; ez dedilla bacarrian beragaz iñolaco moduz egon; ez daguiola bere Echian sartzen itzi; ez dedilla bera ere, bertaraco Echera, edo billatuco daben, toquira faquiran: Tocalariai eta Maldizino guillai itzi daguiela bere Jocuaco Lagunai; ez ditezela gueiago sartu Jocu Eche edo toquietan; aldian ez daguiela beñere ecarri errial batetic edo bitic aurrera; bada, Jocubari itzi exquero, berez datoza, Jocutic datozan, Maldizino eta beste pecatu mueta guztiai izbera; eta onela emun oi dira penitenzia Medizinai onetic, egon ditudanen antzera vizi dirian, beste Pecatari mueta guztiai; eta onexian penitenzia mueta Pecatariac ausiten ditubau bacoitzian, aguiten ditu pecatu mortal bi, bata Confesoriani zor deutsan obedienzia gauza onexian aurreraco, eta bigarrena Mandamentu artan, zeñe ausiteco, vida urrian vorondatez sartu dan.

Confessoriac, Animetaco Maisuba dan aldetic
ere, dauca, zer eracutsi, benagana datozen, Pecatari-
ai Zeruaco eta virtute santubetaraco vidia, eta
doctrina Christiana, ez daquienai; eta bardin ecus-
ten badau enor bait, ez daquiala, pecatu montala-
ren azpian jaquin biar daben, añaco doctrina, era-
custen deutsa, ordubau eracutsi aldeiquion gara,
eta aguinquetan deutsa, aimbat laisterren icasi
daquiala, pecatu montalaren azpian jaquin biar
daben, guztia; eta onexian Pecatariac sinistu biar
deutsa humildade guztiagaz, onela eracusten eta
aguinquetan deutsan, Confesoriari; eta eguin biar
dau, bere aldetic dan, guztia, icasteco, aguindu deut-
san, doctrina Christiana; bada beretan jaquinian
egon biar dau Pecatariac, ezin Confesoriac Absoluzi-
noric emungo deutsala, bere naguitasunez, arduna-
bapatasunez edo arrotasunez icasi bagoric daquian
bitarte guztian, pecatu montalaren azpian jaquin bi-
ar daben, doctrina, lenagotic bere Confesoriac onen ga-
ñian lotsaiaturic enguii ezquero; lenago eracutsiric it-
zi dodan legez.

Gsanic, zertan daguan Sacramentu Penitenziaco
onen izate guztia, bere erru misagarrizcoa, eta zer pe-
nitenzia mueta aguindu oi dauben Confesoriac, era-
iñ esatera nuatzu, Aisquidia, noiz, edo zer dempora-
tan artu biar daben Pecatariac pecatu montalaren azpi-
an Sacramentu santu au.

Sacramentu Penitenziaco au artzeco, aguinquetan
~deuscun, Mandamentu santuba da bi modutacua; bata
Jesus maitiaren aldeticua, eta Mandamentu Divinua
~esaten deutsaguna: bigarrena, bere Gspasa eta gure
Ama dan, Gliza Santaren aldeticua, eta Gliza Ama
Santaren Mandamentuba esaten deutsaguna; eta da Gli-
za Ama Santaren bost Mandamentuben artian bigarre-
na: Mandamentu bi oneic ala batac nola bestiac azpi-
an artzen ditube Guizon eta Gmacume, batiaturic eta
uso errazuazcuan santuric vorondate osoagaz peca-
tu montalian jausi dirian, guztiac; eta ala Christauen
sharianac gorde biar ditube Mandamentu bi santu one-

ic, artzen daubela Sacramentu au, artzeco aguinque-
tan deusten, beren demporetan.

Jesus maitiaren aldetico Mandamentu Divinu-
ac aguinquetan deuscu, artzeia Sacramentu Peni-
tenziaco au, illgo garian aurretic, aren Divina Ma-
gestadiac emuten badeuscu onetaraco dempora, eta
guc jaquinic, edo bildur errazuazcoa euojuiric, ur-
rian dala guere eriotza, confesaitaco eria badau-
cagu; bada gauza jaquiña da Eliza Santan, ez da-
bela Christaunac, juan biar Mundu onetatic Jesus
maitiaren aurrera, Sacramentu Penitenziaco au artza-
ca, artu aldaiquian, guztian, edo biotzezco peniten-
ziaric onena bagaric, [illegible] dan Contrizinua, Sacra-
mentuba eguiaz artu ezin badau.

Eriotzaco ordu estu onegaz ostian Mandamen-
tu Divino onec aguinquetan deuscu, guere vizitzan
eta osasunian ere artzeia batzubetan Sacramentu
Penitenziaco au, nola dan, eun eta oqueta zazpigarren
ojiaren arpeguian, eta ostian esanic itzi deutsudan, demporetan;
pecaturaco oituerian izteco, batec beste videric ez dau-
canian, Sacramentu santu au artzeia baño; argatic, oitu-
era donguetan sarturic dagozen, Pecatariai Confesoriac
ascetenemun oi deusten, Penitenzia Medizinala izaten
da, illian bein, amabostian bein, edo zortzitic zortzira
confesau ditezela, erabaguiric izten deusten, dempora
bitarte guztian; onenbeste dempora barru beragana bi-
urtu ditezela, confesaitara, edo pecatuban jausiric, an-
chiquetan dauben, lenengo eran; eta Pecatari mueta one-
ic gorde biar ditube Medizinal penitenzia santu oneic, aguinque-
tan deusten, Confesoriai Curutzeric betico ezarri baga-
ric: orobat Trentoco azquenengo Conzilio generalaren
aguinduz etara zan Catezismoco liburuban eracus-
ten da, artu biar dogula Sacramentu au, eguin do-
gun, pecatu mortalen bat gure gogotic edo burutic
juango dala, eta argatic aazturic confesatzaca itzi-
co dogula, bildur errazuazcoren bat daucagunian,
confesaitan dogula guere pecatu ori, aaztu bagaric
daucagun bitartian.

Yzentauric itzi deutsudan, dempora oneicaz go-
ñera Sacramentu santu au artzeco, sartzen da Eliza

Ama Santaren Mandamentuba, zeña dan, Sacramentu au artzeia, aguinquetan deuscun, bigarren Mandamentu muetia: Eliza Santa onec bada, bere Esposo eta gure Redentore Jesus maitiaren Mandamentu Divinoac guri obeto gorde eraguitiarren, bere escuvidiaren videz ifini deuscu Mandamenturic asco, batez ere, guztiz jaquiñac dirian, eta Eliza Ama Santaren bost Mandamentubac esaten deustegun, oneic:

Ondo daquizu, Aisquidia, bost Mandamentu oneitatic bigarrenac aguinquetan deuscula, urtian bein confesau gaitiala, edo lenago, illteco peligururic badaucagu, Aita Astetec bere doctrina Christianaren gañeco miragarrizco Cartilla laburrian eracusten deuscun leguez: aguirian dago bada, Mandamentu santu onec daucala bi dempora, zeñetan aguinquetan deuscun, artzeia Sacramentu Peniteritenziaco au, bata urtian bein, eta bigarrena, illteco, peliguruba daucagunian.

Urtian bein confesaitia, aguinquetan deuscun, Eliza Santaren Mandamentu au gordetan asiten dira Christaunac, zazpi urte osoac euquitera eltzen dirianian; zergaitic edade onetara etorri ezqueroco, guztiac uso errazuazcuan sartutzat euqui oi dira Animaco potenzia guztiz lotubetacoacaz ostiango beste guztiac, eta argatic beren ezaguperiaren videz eguin daiquien pecatu beren vorondatez; eta gauza jaquiña da Eliza Santan, bere Legue edo Mandamentubac azpian artzen ditubela uso errazuazcora etorri ezqueroco, guztiac, bardin, Mandamentubetan aguinquetan deustena, eguin aldaiquiena bada.

Eguia da; edade onetaco Aurretan eta aurrerago ere inozenzia andia ecusi oi da, eta beren Umetasuneco oquerqueriac, Christaun nagusietan pecatu mortal icaragarriac dirianac, datoza gueien bat beren ezagupera labur, edo vizitasun eta arazeria larreguiaren videz izatera pecatu venial; ala ere ez da au iñ gauza erabaguia, zeinda, edade onetan ez daubela iñoiz eguiten pecatu mortalic, eguiagaz esan daiquegun; beren Aurren salvazinuaren gañian ardura onecuac dirian, Gurasuac bada zazpi urtera ezqueroco beren Ume guztiac ecarri oi ditube Parroquiara, urteoroco confesinoco Eliza Santaren Mandamentu

au gorde eraguitera, eta Parroquietaco Erretore Jaun guz-
tiac edade onetara etorri ezqueroco beren bendeco Chris-
taun guztiai gorde eraguiten deuste Mandamentu san-
tu au; eta oituera au guztiz ona eta santuba da, naiz
urte barruban pecatu mortalen baten jausia, naiz jausi baguia
izan dedilla Christauna; argatic, Mandamentu santu au
gordetan ez daben, Christanac, azaletic baño gueiago izan-
go ez bada ere, bere barri dequioen, beste Christaun guz-
tiai emuten deuste escandalo guztiz madaricatuba;
eta alde onetatic ere, urte barruban pecatu mortalian
jausi ez dirian, Christaunac aurquiquetan dira peca-
tu mortalaren azpian, urtian bein confesaitia aguinque-
tan deuscun, Eliza Santaren Mandamentu au gordetaco,
premiña guztizcuan.

Eliza Ama Santac urtian bein confesaitaco Manda-
mentuba ifini euscunian ez euscun izentau Urteoro-
co Comunio santuraco leguez, urtiac daucan zer dem-
poratan confesau biar guiñian; eta gorde daiquegu Man-
damentu au, urte artaco pecatu mortalac confesauba-
gaz, urtiac daucan edozeiñ egunetan; ala ere nola dau-
caiñ Christaunac, Pazcua Resurreczinocuetan urteoro
comulgaitaco, Eliza Ama Santaren beste Mandamentu
bat, oitu dira, urtian bein confesaitaco, Mandamentu
au gordetara Pazcua Resurreczinoco demporan, con-
fesaitan diriala comunio santuba artu aurrian; eta oi-
tuera au ere guztiz ona da; bada dempora santu onetan
ondo confesaubagaz gorderic Eliza Ama Santaren, ur-
tian bein confesaitaco, Mandamentu bata, aurquique-
tan dira guztiz ederquiro guertaturic, Resurreczino-
co Pazcuetan comulgaitaco, daucain, bigarren Manda-
mentu santuba ondo gordetaco.

Urtian beingo Confesinoraco Mandamentu au Eliza
Santac lenengo artan ifini eben, aguindubagaz, Christa-
un guztiac urtian beingo Confesino au eguin eguiela ba-
caitzac bere Parroquiaco Erretore edo Vicario Jaunagaz;
baña gaurco egunian alde onetatic bigunduric dago
Mandamentu au; eta ala Christaun guztiac gorde dai-
quie, eta gordetan daube, urtian beingo Confesinoraco
daucain, Eliza santaren Mandamentu au, eurac derit-
zuen, beste edozeiñ Sazerdote Confesoregaz confesauba-
gaz, naiz dala Sazerdote Confesore au Religiosua, naiz Apa-
eza.

Confesaitean ez danac badu, urtian bein, Aisquidia, guichiroz urraquetan dau Eliza Ama Santuaren Mandamentu au, eta eguiten dau pecatu mortal; orobat urtian bein confesaitean danac, eta danian gaizqui, ausiten dau Mandamentu santu au, eta, au ausiagaz eguiten daben pecatu mortalagaz gañera, eguiten dau Sacrilegiozco beste pecatu mortal icaragarri bat, gaizqui confesaubagaz; eta ala bata nola bestia, urtia iragoagatic, aurquiquetan dira, Mandamentu oni, ondo confesaubagaz eta aimbat laistaren, eguiaz exantzuteco, premiña guztizcuan, bere denporan zorrari exantzun ez deutsana aimbat laistaren exantzuteco premiñan aurquiquetan dau modura; eta Obispau batzubetan (oneitatic bat da Calahorracoa) urtian bein confesaitiari bere culpaz eta naquitasunez izten deutsana gueldiquetan da bertatic escomulgauric escomunio naguisiagaz; diñot: bere culpaz eta naquitasunez: zergatic, errazue onen bategatic izten badeutsa urtian beingo Confesino santu oni, eta ez bere culpaz eta naquitasunez, ez dau eguiten pecaturic, ez dau ausiten Mandamentuba, eta ez da jausten ere, esan dodan, escomunio naguisian: baña onelacoac, aurraz ezaguquetan badau, bere denporan confesaitaco, izango dabela ezin eguiñen bat, auzreratu bian dau bere Confesinoa, eta onela gorde Mandamentu santu au.

Onen bestegaz iruste dot, Aisquidia, aitruco dozula daucazun, premiña guztizcua, confesaitaco eta ondo confesaitaco urtian bein; au da Mandamentu santu onen lenengo denpora, zeñian, aguinquetan deuscun Christoau guztioi, confesaitia; guiazen orain, zerbait esatera, Mandamentu onec daucan, bigarren denporaren gañian, zeñian aguinquetan deuscun, confesau gaitiala; bere bigarren dempora au da, illteco peliguban aurquiquetan gaixorecua.

Jesus maitiac, (bere Evangelio santuban iracurten dogun lequez) esanic Gaiño bateri, escatu eutsan, osasuna, esan eutsan: zuaz, eta ez eguizu gueiago pecaturic eguinnai; gauza dongagoren bat guertatu ez dequizun: emendic daguigu, Jaungoicoac, ez beti, baña bai batzubetan bialquetan deuscula Corputzeco gaitzac, eguin dituguin, pecatu eta gaiztaqueriacatic; onela, onian beragana biurtu gura ez badogu, gaitzian biurtu gaitian.

Eliza Ama Santac borda Inozenzio Aita Santu izen

onetaco irugarrengoaren demporan Letrango Conzilio general laugarrengoan ifini uscun urtian bein confesai-taco Mandamentuba; eta ondoren, ecusiric, izentauric it-zi deutsudan, Jesus maitiaren Evangelioco verba santu aietan, Corputzeco gaitzac batzubetan datozela, Anima-co gaitzac dirian, pecatubetatic, aguindu eusten Me-dicu guztiai, Gaiñuai, eurac sendaquetara ots eguiten eustenian, esan eguiela, ots eguiteco lenengo Anima-co Medicubari (zeña dan Confesoria) onegaz Sacramen-tu Penitenziacuaren bitartez sendaturic beren Animeta-co gaitzetatic (au da) pecatubetatic, Jaungoicoa eura-caz erruquitu dedin, eta argui eguin deguien Medi-cubai, ezaguquetaco beren Corputzetaco gaitzac, eta, ga-itz oneitatic sendaquetaco, premiña dituben, sendagarri eguiazcuac, Jaquiñic, gaitzaren sustraia quendu ezque-ro, gaitza bera errazago datorrela quentzera: eta aiñ gogorquiro ifini eusten Gaiñuen gañeco Mandamentu au Medicu guztiai, zeinda Mandamentu santu au, Ja-quindun eguiñic, aurrera gordetan ez euben Medicu-bai eragotzi eusten, sartzeia Jaungoicoaren Eche san-tuban edo Temploan, emun arteraño Eliza Santari be-ren emienda eguiazcuaren gañeco satisfaczinoa edo aguiria.

Clemente Aita Santu izen onetaco bostgarrenac, ecusiric, Medicubac ez eubela gordetan Mandamen-tu au, milla iruregun eta amaicagarren urtian beste Conzilio santu baten barriztau eusten mandamentu santu au ala Medicubai, nola Gaiñuai, baña ain gogor-quiro, zeinda eragotzi eusten leen esanic itzi dodan penaren azpian Medicubai, Gaiñuac, bein ecustera Jua-nic, bigarren aldian ecustera, eta sendagarriac emute-ra Juatia, Gaiñuac eurac confesau gura ezta dagozen bitartian.

San Pio Aita Santu izen onetaco bostgarrenguac barriztauric Mandamentu santu au, esanic itzi do-dan, gogortasun guztian, gueitu eusten gorde gura ez euben Medicubai beren penac, quentzen eustela beren Medicutzaco Ofizioa; eta aguindu eusten pena onein guztien azpian, Gaiñuacana ots eguiten eustenian, sen-dagarriac emuten asi baizen lenago, esan deguiela Gai-ñuai, confesau daguiela beren pecatubac Confesore egui-

~azcoari, Eliza Santa Erromacuan oiquetan dan, modu-
~ra; eta, au esaten deustenetic Gaiñuai, irugarren egune-
~tic aurrera ez ditezela gueiago Juan Gaiñuacana, bar-
~din beren pecatu guztiac (esanic guelditu dan modura)
~confesau dituben gañeco Confesoriaren autormena edo
~aguiria paperez eracusten ez badeuste.

Gregorio Aita Santu izen onetaco amairu garrenac,
~ecusiric, ala Medicubac nola Gaiñoac alde batera izten
~eutsaila Eliza Santaren Mandamentu aiñestu oni, bar-
~riztau zituban bere gañeco, esanic itzi ditudan, iru Legue
~oneic beren erru eta gogortasun guztian; orobat andic ona
Eliza Santaco Guraso Obispo Taunac beren Conzilio edo
Juntaric ascotan aguindu izan daube, Mandamentu
santu onen gañian emunic dagozen, Legue oneic osoro
gorde ditezela: baña Ha! negargarrizco gauza! Christa-
unac gordetan daube gueien bat Mandamentu au, con-
fesaitaco aguinquetan daben, bere lenengo demporan, ze-
ña dan urtian bein, confesaubagaz, eta, confesaitaco aguin-
quetan daben, bere bigarren dempora onetan, zeña dan
illteco peliguruban aurquiquetan garianecua, ala Me-
dicubac nola Gaiñuac gueien bat aazturic vizi dira
Mandamentu santu onegaz, ez daquita, noren culpaz
dan aazturic vizi izate au, ala Medicuben, ala Gaiñuen,
ala Gaisuen Echecuen culpaz.

~Esango deustazu, Aisquidia: ezin nic ondo aitu dot,
~urtian bein baño lenago confesaitaco, aguinquetan de-
~uscun, Eliza Ama Santaren Mandamentu au; bardin
~illteco peliguruban aurquiquetan bagara; zergatic ni-
~re ustian, eun eta iruroqueta amazortri garren ofia-
~ren ostian aiquetara emun deustan, Jesus maitiaren
~aldetico Mandamentu Divinua eta Eliza Ama Santa-
~ren beste Mandamentu onec biac dirudie bat, eta alda-
~uben Christaunac gueien bat gordetan daube Manda-
~mentu au, dempora artan confesaubagaz, eta Sacra-
~mentu Penitenziaco au artubagaz: ez, Aisquidia; ez di-
ra bat; ala dirudiela biac bat, eguiaz ez dira, baizican
bacoitza da bere banango Mandamentuba, biac batera ja-
ustia eta batera gorde biar izatia guertatu baliteque ere:
Jesus maitiaren Mandamentu Divinoa, Sacramentu Peniten-
ziaco au artzeco, aiquetan da, bat naiz osasunian dagua-
la, naiz gaisoric dempora guichi barru illgo dala, errazoia-

gaz bildur dan, demporaraco; eta Eliza Santaren Mandamentu au aiquetan da, Gaiñuen gaitza Medicubaren iritzian lenengotic andia, da Gaiñua illtera ecarri leiquiana dan, guztiraco, sendagarri onacaz Gaisva osatuco dala, Medicubac uste badau ere; bada onerian gaitzetan Mandamentu onec aguinquetan deuste Medicubai, esan deguiela Gaisuai lenengo ecustera duazenian, aurrenengo confesau ditezela, eta ondoren, confesauric dagozen, Gaiñoai sendagarriac emuten asi ditezela, eta ez lenago; au da Eliza Santaren Mandamentuba, aguinquetan deuscuna, confesaitia, lenago illteco peligururic badago, zeña dan, confesaitaco, erabaguiten deuscun, bere bigarren dempora: norbaitec euqui leique Mandamentu santu au gogorreguitzat; zergaitic asco Christaunec daquie, ugera etziten, eta Medicubari ots eguiten, Janari zerbait itziagaz eta egun baten edo bian oia gordiagaz berez iragoten dan, edozein ezeberezqueriagatic, gauza andiagoren bat dan ustian; onela verba eguiten dabenari ere erantzuten deutsat, Aisquidia, batetic Mandamentu santu au ez dala ifini Eliza Santan gaitz ezeberez eta chiquin oneitaraco, baizican, Medicubaren iritzian berez andiac dirian, gaitzetaraco, sendatuco dala Gaiñua uste badau ere Medicubac; eta bestetic Mandamentu santu au dala alditequian bigunena, ondoren esatera nuatzun, gauzetatic erraz ezagutuco dozun leguez.

Ez dot sartu gura, Juez izatera, erabaguiteco, aspaldico demporetatic gueien bat aazturic leguez daguan, Eliza Santaren Mandamentu onec gaurco egunian ete daucan edo ez, bere bigarren dempora onetan pecatu mortalaren azpian ala Medicubai nola Gaiñoai gorde eraguiteco, garaco indarric: baña nic daquidana da, Gaiñuen ala Corputzeco nola Animaco calte andiac Eliza Ama Santari ifini eraguin eutsaila Mandamentu au, eta, bein ifiniricaco, Mandamentu au aimbeste vider eta aiñ gogorquiro barriztau eraguin deutsaila; eta aguirian dago, calte oneic guztioc etorri ditezquiala, Medicubac mandamentu au gorde eraguiten ez deusten, Gaiñuen gañian.

Medicubac gaurco egunian Gaisuai eternidaderaco guertatu ditezela, esateco, gueien bat gordetan dauben, oitueratic etorri ditezquien caltiac Gaisuai eu-

rai beren Corputzetaco vizitzan eta osasunian dira oneic; gaisoric badago bat bere pecatubacatic, (au Jaungoicoac eta ez bestec daquian gauza da) eta demporaz Sacramentu Penitenziaco onen videz Jaungoicoagaz aisquideta sunac eguiten ez baditu, gaitza, indarra artubagaz doiala, dator vizitza quentzera, confesino on bat eguinic sendatu eta vizitequian, Gaisoari: bigarren caltia da; Gaisuac, ecusiric Medicuben oituera gauza onetan, entzuten deutsanian bere Medicubari: guertatu biar zara eternidaderaco: esaten dau beregan: niriac eguin eben; galtzen dau, sendatuco dan, esperanza; eta onela, etsiric bere burubari, dator errazago, dempora baño lenago illteco, videra eta biar bada sendatuco zara, bardin, Mandamentu onec aguinquetan daben leguez, aguindu baleutsa, confesaitaco, dempora artan, zeñian beste asco Gaiño, Medicuben aguinduz confesaubagatic ere, sendaquetan dirian: calte oneic bioc euqui zituban Eliza Ama Santac bere beguien aurrian, eta izentauric itzi euscun, Mandamentu santu au ifinteco, euqui zituban, errazuetzat, lenengo Mandamentu au emun eben, demporan, zeña guertatu zan milla berreun eta amabost garren urtiaren azquenerutz, esanic itzi dodan, Letrango laugarrengo Conzilio generalian.

Eliza Ama Santac, Mandamentu santu au emuteco, bere beguien aurrian euqui zituban, calte bi oneic ez dira bacarric Gaiñuen vizitza eta osasuneraco caltiac, baita ere dira beren Animen vizitzaraco caltiac eta andiac; esan eguidazu, Aisquidia; bardin Animaco potenziac zenbait eta ascatubaguac eta iratzarriaguac batec euquitia, obiago badau, confesaitaco; noiz dauca Gaiñuac bere Animaco Potenziac ascatubaguac eta iratzarriaguac bere gaitzaren asipenian, ala, gaitzac indar andia arturic eta eriotza (esateco modura) bere Ortzetara ecarriric, tronco bat eguinic daguanian? zer eguin aldaique bada Gaiñuac, Corputza aiñ ezeberezturic daucan dempora onetan? ez gauza asco, Aisquidia; zerbait gueiago eguin eiquian gaitzaren asipenian; erraz ezagutu daiquezu, bai, zeiñ errazue andiagaz ifini euscun Eliza Santac Mandamentu au, eta zeiñ calte andiac etorri ditezquien Gaiñuai beren Corputzetaco eta Animetaco osasunian, Medicubac, beren oitueriari jarraiquetiarren, Mandamentu au gorde eraguiten ez deusten bitartian; eta ala,

calte oneic beren buruben gañian ecuri gura ez dituben, Gaiñuac vide obiagoric onetaraco ez daucat, Eliza Ama Santac calte oneic enrocatic emunic eta aimberste viden barrixtaurric daucan, Mandamentu santu onen aguinduba eguitia baizen, beren ondoezen asipenetan, ecuriric Medicubaren sartu eta urten eta juan etorri ugariac, confesaitan diziala, Medicubac noiz aguindu deiguen, beguira egon bagaric, eta, onela ederquiro cuentaturic, aiñ premiñacua dan, Sacramentu Penitenziaco onen bitartez, izten ditubela beren vizitzac Jaungoicoaren escu santubetan, eta artzen ditubela, onetaraco Medicubac emuten deusten, sendagarriac.

Eliza Ama Santac bada, Aisquidia, iguin dau aldebatetic gure Animac estuquetia asco, pecatu mortalaren azpian ifinten deuscun, Mandamentubacaz; argatic ez deuscu aguinquetan pecatu mortalaren azpian, guere asmuian confesau gaitiala uztian bein baño gueiagotan; eta gure Animai deusten emuquiac batetic bez, ezin itzi deutsa, gu ecustia pecatu mortalian eta condenazinoraco vidian urte betian baño luzaruago; argatic ere ifini deuscu, urte oro confesaitaco, Mandamentu au, eraguzten deuscula pecatu mortalaren azpian, luzaquetia guere Confesinoa urte bete oso baño gueiago: baña, Eliza Santac bere espiritu guganaco bigun eta emuquionagaz, uztian bein baño gueiagotan confesaitaco, aguindu ezagatic, nore ezaguquetan ez dau, ondo beretan eta biotzetic gura dabela, gu aimbat sarrien confesau gaitian, gaubiquetan ditugula guere Animac aimbat gueiagotan, Penitenziaco Sacramentu onen Iturritic urteten dauben, ur garbi eta miragarrizcuacaz?

Ondo daguizu, Aisquidia, nola Aita Astetec bere doctrinaco miragarrizco cartillan itzenquetan dauben; Pecatuia pecatu mortalian sarri ezquero, beriala confesau bear dau pecatuba, parcatu dequion? eta erantzuten dau: ondo izango lizateque ala eguingo bau; zer eguingo dau bada? eta erantzuten dau: enquitia bere pecatubaren gañeco damutasun eguiazco bat, emendaitaco, eta, Eliza Ama Santac aguinquetan dabenian, confesaitaco asmo eguiazcuagaz: bai, Aisquidia; onela guizon jaquintsu onec aiñ ederquiro eracusten deuscu alde batetic Espiritu Santubaren sorondatia,

eta, Espiritu Santubac eracutsiric, Eliza Ama Santac dau-
can, vorondatia, eta bestetic, Eliza Ama Santa onec bero-
nec pecatu mortalaren azpian ifiniric daucan, Mandamen-
tu estuba: onetara datoza bada, Sacramentu Penitenzia-
co au artzeco, daucagun, Mandamentu mueta biac, ala
Jesus maitiaren aldetico Mandamentu Divinoa, nola Eli-
za Ama Santac, au obeto gordetaco, ifini euscun, bere Man-
damentuba, urtian bein confesaitaco, edo lenago illteco pe-
ligururic badago.

Eliza Santan Jesus maitiac ifiñi euscun, zazpi Sacra-
mentubac, guztiac, bacoitza bere aldetic gure Animac
ontzeco, eta, Sacramentu bacoitza zertaraco dan, arta-
raco indarrac emuteco, badira ere, esan daiquegu modu-
ren batera, guztien artian bi baccarrac (au da) Penitenzia-
co au, eta Comunio santucua dagozela ifiniric, gure
Animac ontzeco, eta guri, pecatubai itziric, virtute san-
tubetaco vidiari sarraiquetaco premiña ditugun, indar
santubac emuteco; bada Sacramentu Bautismocoa, Confir-
mazinocua, eta Sazerdotiaren Ordenacua, Christaunac
bere vizitza guztian bein baño gueiagotan artu ezin dai-
quianac, dira; Estrema Vnzinocoa, Corputzaren gaitz edo
ondo ez aldi bacoitzian bein bacarric artzen dana, eta osa-
sunian artu ezin leiquiana, da; Matrimoniocua, batec
bacarric artu ezin leiquiana, da, baizican Sazerdotiaren
Ordenacua bacarric Guizacumientzat dan leguez, au da
Guizacume batentzat eta Emacume batentzat; biac bate-
ra etorri biar daube, Sacramentu Matrimonioco auartze-
ra, bestela ez dago Sacramenturic; eta, beiñ eguiaz ba-
tec artu ezquero, ezin bere vizitzan berriz artuco dau,
bere vizitzaco Laguna vizi dan, bitarte guztian: baña Sa-
cramentu Penitenziaco eta Comunioco, bi oneic, gura ditu-
gun, egun guztietan artu daiquegunac, dira naiz osasuni-
an naiz gaiñuan, Eliza Santac bere Leguetan ontzat emu-
ten deuscun dempora, toqui, eta moduban izan ezquero
artzeia; gueiago; dira ere Sacramentu bi oneic, bere dem-
pora batera ezqueroco Christaun mueta guztiac artze-
co premiñacuac, ala Sazerdotiac nola Sazerdote ez di-
ranac, ala Religiosoac, nola ez diranac, ala Ezcondu-
bac nola Ezcontzacac, ala Guizacumiac nola Emacumi-
ac; eta ala beren Animen salvazinoco egarri eguiazcua
daucain, Christaun guztiac datoza, Eliza Santaren Man-
damentubac aguinquetan deusten baño ascoz sarriago-
tan, Sacramentu bi onein Iturrietara, eta edaten ditube

ugari, beren salvazinoraco dirian, grazia santubaren ur gozoac; onela eguizu zuc ere, Aisquidia, Zeruraco vidiari zuzen jarraitu gura badeutsazu.

Badaquizu, Aisquidia, zeiñ Mandamentu estuba daucain Confesoriac, confesinuan entzuten dituben gauzac isillic euquiteco; eta oraiñ jaquin eguizu, Mandamentu au Confesoriac duin bardin daucaila, besteren Confesinotic zerbait entzuten edo jaquiten dauben, aldameneco guztiac, naiz ustez uste bagaric entzun izan daubela, naiz berariz; eta berariz zain dagozenac, besteren Confesinotic zer entzun daiquien, beguira, eguiten daube pecatu mortal guztiz andia lenengo Mandamentuban, Sacramentubari injuria eguiñagaz, eta zortzi garrengo Mandamentuban, berentzat ezdan, secretoaren Jabe edo jaquindun eguitia, gura izatiagaz: gueiago; Confesoriac isillic egon biar badau, Confesinuan entzun dituban, gauzen gañian, errazoiac dacar, Pecatariac ere isillic egon biar izatia confesinotic campora, Confesoriaren eta bere artian irago dirian, gauzen gañian; eta ala onelaco gauzac batac bestiari dempora iragogarri edo beste asmo dongagoren bategaz esaten egoten dirian Ꝑmacumiac, Nescac, eta Mutillac, izentaubagaz ere beren Confesoriac, eguiten daube pecatu mortal, bardin beren ez jaquineco Choriburutasunac edo Astaqueriac eragozten ez badeuste, Jaungoicoaren aurrian ezaguquetia beren barriqueta dongueen gaiztaqueria andia; onelacuac gueien bat izan oi dira, Confesoriaren izcunia eta biotza ezaguquetaco, bururic ez daucainac, eta bai Miñ luziac eta zabalac, gaizqui aitu dituben, gauzac gaizquiago esaten ibilteco; bardin (dongago dana) pecatubetan eta pecatubetaraco oituera madaricatubetan usteldurric, daucain, beren biotzac esan eraguiten ez badeuste onerian gauzac; argatic bada eun eta berroqueta emeretzi garren ojiaren astian Gurasuac Aurrai chiquitanic eracutsi biar deustela, esan ditudan, iru gauzetatic bat da, ez aitaquetia iñolaco moduz besteri Confesinoco gauzaric andic campora.

Penitenziaco Sacramentu onec ez dau escaquetan, Comuniocuac leguez, Artzalliaren aldetic, baruric ego-

tia, artzeco, demporan; eta ala non naiz, osasunian egonagatic, artu dauqua Sacramentu au almorzau astian, bazcaldu astian, eta orobat arrosaldetan afaldu astian; bacarric bada Jiran biarco dau, Sacramentu au artzera, baru naturalian, au artu ondoren Comunio santuba artzeco, asmuagaz doianian, Çliza Santaren Leguiac (bere lecuban esanco deutsudan leguez) ala aquinquetan deustelaco, Comunio santuba artuco dauben, guztiai, Viatico moduba ez danian.

Çliza Ama Santaren leguetan osasunian dagozen guztientzat confesaitaco eta confesaubagaz Sacramentu Penitenziaco au artzeco, erabaquirric daguan, Joquiia da Jaungoicoaren edozein Çelta edo Templo santu, Christaun guztientzat, orazino eguiteco, Meza santuba esateco eta entzuteco, eta Sacramentubac emuteco eta artzeco, bardin ideten dana, izan ezquero; orobat, Sacramentu au artzeco, osasunian dagozenentzat erabaquirric dagoan, dempora da eguna zabalduric illundu bitarte guztia; arrgatic bada, Airquidia, ezin confesau zindezque Semuanen Çelestaco Oratoriosetan, ez da ere Religiosen Zeldetan, ezin ere confesauco zara gabaz: esan deutsut: osasunian dagozenentzat: zergatic Legue santu oneic ez dira aiquetan, ugaturic dagozen, Gaiñentzat, ez da ere uste uste bagaric illteco vidian aurquiquetan diliamentzat, ez da ere, osasunian egonagatic, dagozen Joquintatic, catiqu edo loburic dagozelaco, urten ezin daubenentzat; eta ala oneic guztiac confesau ditezque, eta confesaitan dira aldauben Joquian, aldauben egoeran, aldauben Jantziagaz edo estaviagaz, eta azquenic aldauben demporan: uste dot, Airquidia, onembestegaz asco dozula, Sacramentu Penitenziaco onen gañian zer Jaquin daucazun guztia, Jaquiteco; uste neben, laburrago izatia; baña nola alde batetic aiñ premiña andico Sacramentuba dan, pecatu mortalian Jausi diran, Christaun guztientzat, salvauco badira, eta beste aldetic asco bat ez dira zuloac ez daucaan Sacramentu onen gañian, euqui biarteguiren garaco, Jaquinduria edo ezagueraric, arrgatic lurzoru naiz, uste eta gura neben baño gueiago: oraiñ esatera nuatzu zenbait Indulgenzia santuben gañian.

Indulgenziac

Esan deutsut, Aisquidia, eun eta iruroqueta amabost garrengo ojiaren ostian, Pecatariac emuten deutsala bere pecatuben gañeco obrazco satisfaczinoa, Jaungoicoari irabazten dituban, Indulgenzia santubacaz ere; esan deutsut ere eun eta iruroqueta amasei garrengo ojiaren ostian, Eliza Ama Santa, nola etorri izan dan bigundubagaz bere lenagoco penitenzia gogor aiec, ala etorri izan dala emunagaz ugaritasun gueiagogaz Indulgenzia santu oneic: baita ere esanic itzi deutsut eun eta oqueta amasei garren ojiaren arpeguian, nola Christaunic ascoc, Sacramentu Penitenziacua artubagaz gañera, eta beste penitenzia gueiago equiñagaz gañera equiten dauben ere alequiña, alditu ben, Indulgenzia santubac irabazteco: oraiñ, Aisquidia, errazoiac dacar, nic zuri emutia Indulgenzia santuben gañeco ezagupera equiazco bat, laburizango bada ere; bada languei premiñacotzat daucat, nic zuri ezagupera au emutia batez ere dempora zatar oneitan, zeñetan Eliza Santatic camporaco Eregiac eta Eliza Santa barruco Christaun donga ascoc Indulgenzia santu onein gañian, beren Etsai equinic lenenguac guizur aguiricuagaz eta bigarrenac equiaren azalagaz barre baño besteric equiten ez dauben.

~Gauza jaquiña da, Aisquidia, Christandadeco gure Religino santuban, gure Eliza Ama Santac daucala bere Esposo Jesus maitiac autorturicaco escuvidia, Indulgenzia santubac emuteco: Eliza Santac guztiz anchinaco demporetatic eracutsi izan dabela Jaungoicoaren aldetic daucan escuvide au, Indulgenzia santubac emunagaz: azquenic Indulgenzia santu oneic emuteco eta irabazteco oituera Christaunentzat guztiz ona eta Obispo Jaunen junta edo Conzilio santubetan ontzat emuna Eliza Santan gorde biar dana dala: au guztiau Eliza Ama Santac berac Trentoco azquenengo Conzilio generalian milla bosteun eta iruroqueta irugarren urteco Avendubaren laugarren egunian Pio izen onetaco laugarren Aita Santubaren demporan eracutsiric eta erabaguiric itzi euscun, Indulgenzia santuben ga-

~ñian enequi biar dogun, siniste eguiazcotzat, berta-
~tic izten ebela escomunio naguriko pena izuganza
~ifiniric, Indulgenziac gauza ori batzubec diziala,
~edo, eurac emuteco, escuridenic Eliza Santan ez da-
~guela, esaten dauben, guztientzat: izanic bada onela,
Indulgenziaren gañian Eliza Ama Santac eracusten
deuscun, siniste eguiazcua, ecusi daigun onaiñ, zer
gauza dan Indulgenzia; zembat modutacua; nundic
uteten dauben Indulgenzia santu oneic; nore daucan
Eliza Santan, Indulgenziac emuteco, escuridia; eta
azquenic zer eguin biar dauben Christauac, Indulgen-
zia santubac iabazteco.

~Indulgenzia ez da beste gauzaric, baizican, peca-
~tu parcatubacatic Jaungoicoari zor deutsagun, pena
~temporalaren parcazinua: emendic da aguiri, Indulgenzi-
ac ez daucala indarric, batiaturic dagozenac eguiten ditu-
ben, pecatu mortalac, eta oneicaz iabazten dituben, Infernu-
taco pena eternoac parcaquetaco; bada onetarako Jesus mai-
tiac itzi eusun bacarric Sacramentu santu Penitenziacua;
eta Indulgenziac parcaquetan ditu bacarric, lenaz par-
caturic daucagun, pecatubacatic Jaungoicoari zor deut-
sagun, emen edo Purgatorioan iragoteco, pena temporalac,
baña ez nola naico pena temporalac, baizican batiaturic
eta uso eracusiazcoan santuric guere voromdatez eguin
ditugun pecatu parcatubacatic zor deutsagun, pena
temporalac; au esaten deutsut onela; zergatic lenago-
co pecatu guztiac Bautismo santubac parcaturic izten
ditu beren pena mueta guztiacaz batera, eta, pecatu ori-
ginalaren penac dirian, Mundu onetaco gaitz eta naiba-
gue mueta guztiac ala Animacuac nola Conputzecuac
beti oñian gueldiquetan dira, eta ez dago Indulgenzia-
ric, oneic parcaquetaco, eta gure gañetic quentzeco, inda-
ric daucanic: ecusi eguiza, Aisquidia, eun eta oqueta ama-
sei garren ofiaren arpeguian, eun eta iruroqueta amairugar-
ren arpeguiaren azquenean dtz, eun eta iruroqueta amalau
garren ofian, eta eun eta iruroqueta amasei garren ofiaren
ostian esaric itzi deutsudanac, ezagutu daguizun obeto
zer pena temporal dirian, Indulgenziac parcaquetan de-
uscun oneic.

Zuretzat, Aisquidia, asco dozu jaquitia, Indulgen-
~zia dala bi modutacua; bata osoa edo plenaria esaten

~deutsaguna; eta bigarrena parziala esaten deutsagu-
~na, eta dalenengoa baño laburragua edo motzagua.

~Indulgenzia osoa edo Plenaria esaten deutsagu-
~na da Jaungoicoari pecatu parcatubacatic zor deut-
~sagun pena temporal guztiaren parcazinoa; deritza
~osoa; zergatic Indulgenzia onec, irabazten dabenari,
quentzen deutsa Jaungoicoaren aurrian, pecatubac
parcaturic daucan, pena temporalaren zor guztia ala-
co moduz, eze au irabaziric bertatic illgo baliz pecatu
mortal edo venial bagaric, onen Animia Purgatoriora
bagaric zuzen juango lizateque Zerura.

Gueien bat Indulgenzia betezeco au Eliza Santan be-
ra utsic edo bacarric emun oi da, emuten danian, guei-
agoraco escuvideric Pecatarien oneraco Confesorient-
zat izentaitan ez dala: baña badira Eliza Santan dem-
pora erabagui pusquin batzubec, zeñetan, bere Buru
dan, Aita Santu Erromacuac daquian emuten Indul-
genzia oso edo betezeco onegaz gañera Pecatarien one-
raco beren Confesoriai grazia edo escuvide ugari-
aguac, nola dirian, absoluzino santuba Confesinuan
emuteco, escuvidia pecatu andien batzuben gañian
eta, oneicaz Pecatariac irabazi dituben, escomunio na-
gusi edo beste pena espiritual batzuben gañian, zeñeta-
tic absolvitaco escuvidia (eun eta ogueta amazortzi gar-
ren ojiaren arpeguian aiquetara emun dodan modura)
Eliza Santaco Legueac ucaquetan deusten; baita ere,
confesaitara datozenai beren promesac guichiren bat-
zubecaz ostiango beste guztiac beste obra on batzu-
betara aldaquetaco, escuvidia: escuvide zabalago
eta ugariago oneicaz datorrenian Indulgenzia oso
eta betezeco au esaten dogu, dala Jubileoa, eta ala
dauca Jubileo santubaren izena; eta demporaz jaquin
eraguin oi da Jubileo santu au Eliza Santa guztian
Christaunai: modu onetan ez datorrenian Indulgen-
zia Plenaria edo betezeco au, ez da beñere Jubileoa,
baizican Indulgenzia bera utsic edo bacarric; onela-
cuac dira Yllen lenengo Ygandietaco Indulgenziac, Ma-
ria Santisimaren eta Jesus maitiaren Jai egunetaco
eta Porziunculaco Indulgenziac; eta ala Christaun be-
~erenac beren ez jaquiñian gaizqui esaten daube: gaur
~edo urlia egunetan Jubileoa irabazten da: au esan de-
utsut, Aisquidia, onein antzera zuc ere uts eguin ez
daguizun, jaquinic, zer dan Indulgenzia utsa, eta zer dan Jubi
leoa.

~Bigarren Indulgenzia mueta, Parziala esaten deut-
~saguna, eta lenengoa baño motzagua edo laburragua,
~da, ez, lenengua leguez, pecatu parcatubacatic Jaungoico-
ari zor deutsagun, pena temporal guztiaren parcazinoa,
~baizican bere parte baten parcazinoa; argatic ere esa-
ten deutsagu ez Plenaria (au da) ez osoa edo betezecua,
~baizican Indulgenzia Parziala (au da) pena temporal
~onen parte baten parcazinua: onerianac dira, Eliza San-
tan emuten dirian, dempora erabaguico Indulgenzia
guztiac, nola dirian berroguei eguneco Indulgenziac,
laroguei eguneco Indulgenziac, eun eguneco Indulgen-
ziac, eta onein antzeraco dempora erabaguico beste In-
dulgenzia santu guztiac; Indulgenzia parzial oneic ba-
da parcaquetan deuscube, pecatu parcatubacatic Ja-
ungoicoari zor deutsagun, pena temporalaren parte
bat, eurac aiquetara emuten deuscuben gara, eta ez gue-
iago; berroguei eguneco Indulgenziac parcaquetan deus-
cu berroguei eguneco pena temporalac, laroguei egune-
co Indulgenziac parcaquetan deuscu laroguei eguneco
pena temporalac, eta onela emendic goraco dempora
erabaguico Indulgenzia Parzial santu guztiac aimbeste
demporaco pena temporalac parcaquetan deuscube, ze-
imbat dempora erabaguico dirian, eta ez gueiago.

Onenbestegaz usteco dozu, Aisquidia, Indulgen-
genzia Parzial oneic, irabazten ditugunian, parcaquetan
deuscubela, Purgatorioan irago biarco guituquian, aimbes-
te demporaco penac, zeimbat dempora erabaguico diri-
an Indulgenziac eurac (au da) berroguei eguneco Indul-
genziac, Purgatorioan berroguei egun osoetan irago bi-
arco guituquian, pena guztiac, eta onela onegaz gañera-
co Indulgenzia Parzial guztiac; baña au ez da onela ai-
tu biar; baizican beste modu batera: Jaungoicoari gue-
re pecatubacatic emun biar deutsagun obrazco satisfac-
zinuaren gañian verba eguin deutsudanian, aiqueta-
ra emun deutsut eun eta iruroqueta amasei garren
ojaan, zeiñ penitenzia gogorrac, Eliza Ama Santac bere
lenengo demporetan aguinquetan eben, eguitia pecatumor-
tal bacoitzagatic; penitenzia gogor onein ezaguperatic etor-
rico zara, Indulgenzia parzial onein erru guztia betez be-
tezian ezaguquetara.

Eliza Ama Santac bada, Aisquidia, emuten dabenian

berroguei eguneco Indulgenzia, irabazten dabenari
emuten deutsa Jaungoicoaren aurrian pecatubaca-
tic aimbeste obrazco satisfaczino, zeimbat berac ~~berac~~
emungo eutsan aren Divina Magestadiari eguiña-
gaz benetan eta biotzetic bere pecatubacatic berroguei
egun osoetan penitenzia gogor aiec, Eliza Santac bere
lenengo demporetan aguinquetan zituban modura; ai-
turic onela, berroguei eguneco Indulgenziac emuten
deuscun, pecatubacatic zor dogun, pena temporalaren
berroguei eguneco parcazinua, aituric dagoza onegaz
gañetico Indulgenzia parzial guztien parcazinuac; ora-
iñ, Aisquidia, Jaquin gura badozu, berroguei egun
osoetan eguiñagaz batec penitenzia gogor aiec, Eliza
Santac bere lenengo demporetan pecatubacatic eguitia
aguinquetan eben modura, Purgatorioco zembat egune-
taco pena temporalaren parcazinoa anchituco leuquian,
au iñorc eziñ erabaguico deutsu; zergatic Jaungoico-
ac bacarric daquian gauza da au, eta Jaungoicoagaz
ostian emen iñorc bestec Jaquin ezin daiquiana: esanic,
zer gauza dan Indulgenzia, eta zembat modutacua
zuc Jaquitia asco dozun gara, ecusi daigun orain, nun-
dic urteten dauben Eliza Santan Indulgenzia oneic.

Penitenzia edo obrazco satisfaczinuaren gañian
verba eguin deutsudanian, aiquetara emun deutsut
eun eta iruroguета amabost garren ojiaren ostian, nun-
dic urteten dauben Indulgenzia oneic Eliza Santan; bai-
ta ere ogueta amabi garren ojiaren ostian aiquetara
emun deutsut, nun daucain Indulgenzia santu one-
ic beren sustraiac, Santuben Comunioaren gañian ver-
ba eguin deutsudanian: orain ori berori aiquetan emu-
tera nuatzu zabaltazun gueiagogaz, obeto aitu daqui-
zun, nola dirian Eliza Santaco Indulgenzia oneic.

Gure Eliza Ama Santac dauca, bere bendera Je-
sus maitiac itziricaco, Fesoro espirituala; eta Mun-
dubaren asipenetic onaño vizi izan dirian eta bere az-
queneraño vizico dirian Justo guztien obra onac egui-
ten daube Eliza Santaren Fesoro espiritual, au aurrenen-
go sartzen diriala, obra on guzti onein buru, sustrai, eta
vizitza dirian, Jesus Divinoaren vizitza, pasino, eta eri-
otzaco neurri edo ondar bagueco merezimentu santu-
bac: esan dot: Justo guztien obra onac eguiten daube
Eliza Santaren Fesoro espiritual au: ez dozu emetic ai-
tu biar, Aisquidia, Justoen obra on guztiac eguiten dau-
bela Eliza Santaren Fesoro espiritual au; bada Fesoro es-

piritual onetan bacarric sartzen dira, Iusto bacoitzac beretzat premiña dituban baño gueiagoco eguiten di-
-tuban, obra on mueta guztiac; bai; Iusto bacoitzac egui-
-ten dituban eta beretzat biar ez dituban, obra onetaco
-merezimentu santu gueiagoco oneic bacarric sartzen
-dira, eguitera Tesoro espiritual au, eta ez iñolaco mo-
duz, bacoitzac beretzat edo beste bere vorondateco pre-
miñacoren batentzat guichi asco dituban, obra onetaco
merezimentu santubac; zergaitic oneic Tesoro espiritua-
lera bagaric artzen daube beren Juan vidia.

Au nola guertaquetan dan, ondo aiquetaco, Jaquin
biar dana da, Iaungoicoaren grazian gaozela eguiten di-
-tugun, obra on mueta guztiac daucaila erru mueta bi,
-edo (obeto esatiarren) erru bico merezimentuba; lenengoa,
-irabazteco Zeruco gloria eta bere ugaritasun gueiagoa:
-eta bigarrena, emuteco aren Divina Magestadiari, gue-
-re pecatubacatic zor deutsagun, obrazco satisfaczinoa.

Iusto guztien obra onac bada, beguiraturic lenengo er-
ru santuco merezimentubaren aldetic, aiñ beriac ditu
eguiten ditubanac, zeiñ da, guragatic ere, ezin iñolaco mo-
duz emun deiquio besteri merezimentu mueta au; bada
alde onetatic Iusto guztiac labur gueldiquetan dira be-
ren obra onetaco merezimentubetan, Iaungoicoac, eta, es-
quinten deusten, eternidade guztico zoragarrizco Gloriac
merezitan daubenen aldian; bai, Aisquidia; bacoitzari
aiñ errime Jarraituco deutsai Iesus Divinoaren Tribu-
nale santura, eguin dituban, obra on guztiac, zeinda
berac bacarric eta ez bestec eruango dau beren sariuga-
ria; eta ala alde onetatic Iustuen obra onetan ezer guel-
diquetan ez da Eliza Santaren Tesoro espiritualeraco;
zergaitic bacoitzac darua bere obra on guztiac bera-
gaz, eta beretzat, ez besterentzat.

Iustuen obra onac, beguiraturic bigarren erru san-
tuco merezimentubaren aldetic, eguiten ditubanare-
nac dira, eta eguiten ditubanac berac besteri carida-
dez emun deiquionac bere pecatuben satisfaczinora-
co; eta ala ascoc daucai oituera, beren obra on guztiac
eguiteco Iaungoicoaren aurrian Purgatorioco Animen-
tzat; baita ere edozeiñ Iustoc itzi daique bere obra on
guztiac edo parte Eliza Santaren Tesoro espiritual one-
taraco, edo, emen vizi dan eta bere pecatubacatic Iaun-
goicoari obrazco satisfaczinoa zer emun daucan, bere

Adisquideren baten daco, etaraten dabela bere obra onacaz Aisquide au bere Animaco zorretatic, bere dirutic emunagaz etaraco leuquian leguez Mundu onetaco zorretatic: Justuen obra onac bada, Aisquidia, beren bigarren erru santu onetaco merezimentubaren aldetic bacarric sartu ditezque, eta sartzen dira Eliza Santaren Fesoro espiritual onetan; Justo bacoitzac, bere pecatubacatic Jaungoicoari bere Seme Jesu Christo gure Jaunaren bitartez obrazco satisfaczino osoa obra onacaz emunic, aurrera beretzat premiña bagaco eguiten dituban, obra on mueta guztiac datoza eguitera Fesoro espiritual au, bardin eguiten ditubanac berac aurraz Jaungoicoaren vorondatiagaz batera beste videren bat emuten ez badeuste, len esan dodan modura: Justo guztien Buru dan Jesus Divinoaren ondar bagueco merezimentubac eguiten daube Eliza Santan ondar bagueco Fesoro espiritual bat, beñere agortu ezin ditequiana; beretzat premiña ez zituban; guztiac itzi zituban gure pecatuben parcazinoraco eta satisfaczinoraco, eta Eliza Santaren Fesoro espiritual onetaraco; merezimentu onein ondoren eta beren bitartez bere Ama Maria Santisimaren miragarrizco merezimentubac gueiquetan daube Fesoro espiritual au; onela gueiquetan da Fesoro santu au San Juan Bautistaren, San Joseph gloriosoaren, Apostolu santu guztien, eta Mundubaren asipenetic onaño izan dirian, eta bere azqueneraño izango dirian, Justo guztien merezimentubacaz: eta Jesus Divinoac itzi eben Fesoro espiritual au bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santaren bendera, eguiten ebela ez Fesoro onen Jabe baizican Emalla, Jean zedin emunagaz Sacramentu Penitenziacotic campora, pecatubacatic obrazco satisfaczinoa aren Divina Magestadiari emuteco zorretan aurquiquetan dirian, Christaunai: oneic onela Jaquinic, aguirian dago, Indulgenzia guztiac Eliza Santan urteten daubela, bere bendera Jesus Divinoac itziric daucan, obra onetaco Fesoro espiritual eta santu onetatic.

Ecusiric, Aisquidia, nundic urteten dauben Eliza Santaco Indulgenzia oneic, ecusi daigun orain, norc daucan Eliza Santan, Indulgenziac emuteco, escuvidia: Eliza Santa guztico Buru eta Jesu Christo gure Jaunaren Vicariod emen Lurrian dan, Aita Santu

Erromacuac dauca beiñic bein escuvide guztizcoa, Indulgenzia mueta guztiac emuteco ala Indulgenzia osoa edo betezecua, Plenaria esaten deutsaguna, naiz bera utsic edo bacarrian, naiz Jubileo santubagaz batera, nola Indulgenzia laburraguac edo motzaguac, Parzialac esaten deustegunac: escuvide bardiña daucai, Eliza Santaco Guraso dirian, Obispo Jaun guztiac, dagozenian alcarregaz, [redacted] Aita Santu Erromacuac ontzat emuten daben, Conzilio edo Junta generalian; Conzilio santu general onetatic campora Obispo Jaunac ez daucai batere escuvideric, Indulgenzia betezecoric edo Plenariaric, ez da Jubileoric ere emuteco; bacarric emun daiquie Indulgenzia laburraguac edo motzaguac, Parzialac esaten deustegunac, bacoitzac, Eliza Santaco Leguetan erabaguiric dagozen, demporetaco Indulgenziac, eta ez gueiago; Obispuac berroguei eguneco Indulgenziac, Arzobispoac laroguei egunecuac, Erromaco Cardenalac eun egunecuac; emendic goragoco Indulgenziac, nola dirian zazpi urtecuac, edo gueiagocuac, bacarric Aita Santu Erromacuac edo Conzilio general eguiazcuac emun daiquianac, dira, eta ez beste iñorc; eta Eliza Santaco Guraso oneic beti emuten ditube Indulgenzia santubac ez Sacramentu santu Penitenziacuan, Confesoriac Pecatariari bere pecatuben parcazinua emuten deutsan modura, baizican Penitenziaco Sacramentutic campora, beren bendera daguan, obra onetaco Tesoro espiritualetic, euracaz Christaunac urten daguien, beren pecatu parcatubacatic Jaungoicoaren aurrian daucain, pena temporalaren zor guztitic edo parte batetic, Aberats erruquior batec, zorracaz estuturic daguan, bateri emun deiquion modura, zor guztietatic edo parteren batetic urteteco, premiña daben gara diru: ecusi daigun orain, zer eguin biar dauben Christaunac, Indulgenzia santubac irabazteco.

Aurrera irago baño lenago aiquetara emun gura deutsut, Aisquidia, batec irabazi daiquiala Indulgenzia santubac ala beretzat, nola Purgatorioco Animentzat, bardin zabaltasun onegaz autortubac badira; baña bardin zabaltasun au bagaric [redacted] emui-

nac badira Indulgenziac, aiquetan dira bacarric vizientzat; eta ala ezin iñorc Indulgenzia onerianic irabazico ditu Purgatorioco Animentzat.

Christaunac bada, Indulgenziac irabazteco, eguin biar ditube obrac on aiec guztiac, zeñac beren Emallac aguinquetan dituben artaraco premiñacotzat; zergatic, nola Indulgenzia oneic urteten dauben Eliza Santaren Tesoro espiritualetic, eta Eliza Santa ez dan Tesoro onen Jabe, baizican bere Emalla, ez daqui Indulgenziaric emuten (esateco modura) duan, baizican, irabazi gura ditubenac eguin biar dituben, obra onen batzuben aldera; eta ala Eliza Santaco Gurasoac, Indulgenzia santubac autorquetan dituben guztian, beti erabaguiric izten ditube, irabazi gura ditubenac eguin biarco dituben, obra on eta erregu santu batzubec, eta Indulgenziac irabazico ditubanac, onetaraco aguinduric dagozen, gauza guztiac eguin biar ditu.

Indulgenzia danian osoa, betezecua, edo Plenaria esaten deutsaguna, escatu oi dau aurraz, confesaitia eta comulgaitia, eta ondoren onelaco edo alaco Orazino eguitia egun artan bertan, zeñian daguan autorturic Indulgenzia santuba; eta ala eguin biarco dau guztia, Indulgenzia irabazico dabenac; zergatic batetic bere pecatu mortal guztiac parcaturic Jaungoicoaren grazian ez daguanac ezin irabazi daique Indulgenziaric batere, eta bestetic, Indulgenzia autortu ebenac aguindu ezquero Confesinoa eta Comunioa languei premiñacotzat, Jaungoicoaren grazian daguanac ere ezin irabazico dau Indulgenzia au, bera irabazteco (aguinduric daguan leguez) confesaitan eta comulgaitan ez bada: eguia da; bardin Indulgenzia plenaria au Jubileoagaz batera edo Jubileo modura emuna ez bada, asco dau, irabazteco, lenagoco egunaren goizetic confesaitia eta comulgaitia, edo zortziti egunetic zortzi egunera confesaitaco eta comulgaitaco oituera santubaba euquitia, eguiten ditubala beste languei guztiac, aguinduric dagozen, dempora bitartian; orobat dempora oneitan confesaubagaz (comulgau bagaric) irabazico dau Indulgenzia Plenaria au, bardin, bera irabazteco, Confesinuagaz ostian Comunio santuric aguinquetan ez bada: Indulgenziac escaquetan ez badau ez Confesino-

nic eta ez Communio santuric, batec, euzac izabazteco, asco dau, Jaungoicoaren grazian daguala, eguitia, beren Ymallac aguinduzic dauzcain, obra onac; aurgatic, Confesino santuba guichienez aguinquetan ez dauben guztian, aguinquetan deuste izabazi gura dituben ai, biotzezco Penitenziazic onena, zeña dan Contuzinoa, santuric eguin daguiela onelaco edo alaco obra on, edo erregu santu, Parzialac esaten deustegun, Indulgenziazic guciencetan aguindu oi dauben modura.

Oraiñ, Aitzquidia, bazdin, Fede santubac eracusten deuscun legiez, Indulgenzia santubac Christauentzat on andico gauzac badira, eta Eliza Santan, euzac emuteco, escuzidia eguiaz aurquiquetan bada, eguin daiguin alequiñ guztia, aldituguin Indulgenzia eguiazcuac izabazteco, batez ere dempora oneitan, zeñetan Sacramentu Penitenziacuan aiñ penitenzia asiñac emun oi dizkian pecatuben satisfaczinozaco, Eliza Santaren lenengo dempoetan emun oi zizkianen, aldiz; bada Eliza Santan Penitenzia eguiazcoaren gañeco Espiritubа ez da andic ona ezer guichitu; beti bat da ordubaz, leen, eta oraiñ, eta izango ere bai Mundubaren azquenerañо; eta moduen batera edo besteta, Jaungoicoa pecatubacaz galdu ezquero, gordetan dogula penitenzia eguiazcuaren gañeco Espiritu aus, emun biar deutsagu euzacatic Jesu Christoren bitartez ainbat obrazco satisfaczinozic osoena; eta onetarako zer vide errazagoric, Eliza Santac aiñ ugaritasun andiaz esquinten deuscun, Indulgenzia santubetaco vidia bañó?

Esan deutsut: eguiñ daiguin alequiñ guztia, aldituguin Indulgenzia eguiazcuac izabazteco: zergatic dempora guztietan ecusi izan dira eta ecusten dira Christauin guizuntu batzubec, autortozic ez dagozen Indulgenziac ereiñ izan ditubenac, eta ereiten ibilten diziuac, onela Jaquinduria bagueco Christauin beren artian beren asmo dongac aurchiquetiaren Indulgenzien izen bacaneco Iztiagaz; onei bada eta beren guezurrezco Indulgenzia madaricatubai gozoto santu bat eruqui biar deustegu; eta bacazzic Jarraitu biar deustegu Indulgenzia santu eguiazcuai; onenzaez beteric dauca gu, Aitzquidia, Ylleri lehengo Igandiac, Maria Santisimaren Jesus Diuinoaren, eta Jaietaco Berria dizkian, Santuben Jaiegunac: ecusi eguizu ere izaroqueta zertzigaren ofiquenastian eta urrengoan, zer Indulgenziac dagozen Ave Mariaren-

ac errezaitiagatic.

Meza Santuco Sacrifizoa, eta Sacramentu Comuniocoa.

Guere Christandadeco Religino eguiazco-ac Eliza Santan eracusten deuscun, Misterio-ric andiena, santubena, eta Christaun eguiazco-entzat onic gueienecua da Meza santuco Sa-crifizioa, egunoro Christandade guztian Jaungoi-coari bere Templo edo Eche santubetan Sazerdoti-en escutic esquinten dana: da Misterio santu au Jaungoico guztiz poderosoaren, eta Guizonaga-naco amorioz izioric daguanaren obra miragar-rizcoa, Jesu Christo gure Jaunac Curutzian artu eben, eriotziaren Ispillu edo gogorazino vizi bat, eta erru edo merezimentubetan, Curutze santuban bere Aita Jaungoicoari gure pecatubacatic esqui-ni eutsan, Odolezco Sacrifizioa duiñ bardiña; da azquenic Jaungoico eta Guizon eguiazco Jesus mai-tiac, euscun amorioagatic, bere vizitzaiaren azque-nerutz artu eben vide miragarrizco bat, Mundu-baren azqueneraño Lurraren gañian gugaz eguno-ro gueldiquetaco Sacrifizio santu onen eta Sacra-mentu santu Aldareco edo Comuniocoaren bitartez.

Eliza Ama Santac bada, Aisquidia, orain dau-can, Legue graziazco azquenengo estadu onetan eza-guquetan ditu Sacrifizio mueta bi; bata Redenzi-nocua esaten deutsaguna: bigarrena Religinocua esaten deutsaguna: biac beren naturaleza edo iza-tetan bat dira; eta bacarric bacoitzaren mdubac di-ra bananguac, batac bestiagaz zer ecusiric ez dau-cainac.

Redenzinoco Sacrifizioa da, Jesus maitiac, Curut-zian ill zanian, esquini eutsana bere Aita Jaungoicoa-ri, itzulten ebela gure redenzinoraco bere odol adora-garria eguiaz eta Mundutarren beguien aurrian, esa-nic itzi dodan leguez bere lecuban: Sacrifizio santu au be-iñ bacarric guertatu zan, eta ez da gueiago guertatuco; be-

re merezimentubac izan zirian neurri edo ondar baguecu-
ac Mundu guztico pecatuben parcazinoraco eta satisfaczino-
raco; eta ala Sacrificio santu onen gueiagoco preminaric ez
dago; Jesus maitia illen artetic viztu zan, ez gueiago illteco;
ez dau gueiago gugatic eriotzaric artuco; artu eben eriotza
bacarragaz itzi euscun, salvaitaco, asco dogun gara merezi-
mentu eta gueiago; eta bacarric guc premiña doguna da,
Sacrifizio santu onetaco merezimentubac viabaztia, eta
anchiquetia, onetaraco Jesus maitiac berac erabaqui-
ric itzi euscun, videtatic gabiltzela.

Religinocoa esaten deutsagun bigarren Sacrifi-
zioa da egunoroco Meza santuco Sacrifizioa, Jesus
maitiac ill aurrian eta bere azquenengo testamentu-
ban itzi euscuna, izan zedin Eliza Santan, Mundu-
bac zirauban bitarte guztian, Curutzian bere Aitari
esquini biar eutsan eta ondoren esquini eutsan, Reden-
zinoco odolezco lenengo Sacrifizioaren Ispillu eta
gogorazino vizi bat, eta emun gueion Sacrifizio Santu onen vi-
dez aren Divina Magestadiari, zor deutsagun, ado-
razinoa, eta anchitu gueian lenengo odolezco Sacrifizio-
aren erru miragarrizcoac; gueldiquetan zala emen
Lurraren gañian gugaz eta guretzat, Meza santu one-
tan eguiten dan, Sacramentu santu Comunioco edo Alda-
recoaren videz; argatic oni esaten deutsagu Religinoco
Sacrifizioa, eta Jesus maitiac Curutzian bere odola
itzultiagaz eta eriotza artzeiagaz redimidu guindu-
baneco Sacrifizioari Redenzinocoa.

Jesus maitiac bada, Aisquidia, ecusiric, bere eriot-
za urreratubagaz etorrela, salduba izango zan, gau
artan bertan euqui eben bere Diszipulu Apostolu san-
tubacaz (onein artian zan Judas madaricatuba ere) Afa-
ri misterioz betericaco bat eta azquenengoa: afari san-
tu onetan garbitu eusten oñac beren Diszipulubai; afari
santu onetan eracutsi eben bere azquenengo voronda-
teco edo Testamentu barrico gauzaric miragarriena,
~(au da) artu eben Oguia bere escu santu eta guztiz po-
~derosoetan, bedeincatu eben, puscatu eben, eta emun
~eusten bere Diszipulubai, esanagaz: artu eguizube, eta
~jan eguizube; au da nire Corputza: eta Caliza artuba-
~gaz Escubetan graziac emun zituban; eta emun eusten

~Caliz sagraduba Diszipulubai, esaten eustela: ar-
~tu eguizube, eta edan eguizube; zergatic au da Tes-
~tamentu barrico nire Odola, ascogatic pecatuben par-
~cazinoraco itzulia izango dana: eta aguindu eus-
~ten bere Diszipulu Apostolubai, zeuroc ere eguizu-
~be au berau nire gañeco gogorazinoraco.

Modu onetan Jesus maitiac illgo zan aurretic eguin eben, Testamentu santu barri onetan eracutsi eben, Guizonari eutsan, bere neurri bagueco amorioa; ifini eben Meza santubaren miragarrizco Sacrifizioa, Curutzian Guizonaren Redenzinoraco bere Aitari esquini biar eutsan Odolezco Sacrifizioaren gogorazinoraco eta Yspillutzat; ifini eben Sacramentu santu Altaracua edo Comuniocoa; ifini eben Sazerdotien Ordenaco Sacramentuba, izten zitubala bere Apostolubac Sazerdote eguinic; eta emun eusten onei escuvidia, Sacramentu onen videz eguiteco, aurrera beren Sucesoriac izan biarco euben, Obispuac eta Sazerdotiac, onela Lurraren gañian Mundubaren azqueneraño iraun eguian Meza Santuco ~~Santuco~~ Sacrifizioaren videz bere ondorengo eriotzaren gogorazinua, eta Sacramentu Comuniocoaren videz bera emen gugaz guelditu zedin, gu bere vorondate santucuac eguitiarren, ucatu eraguinic guerezco vorondate donguia.

Sazerdotiaren izena aitu diteque bi modutan, bata bere zabaltasun guztian, batec egunoro bere pensamentubetaco, verbetaco, obretaco, vorondateco, eta bere biotz guztico Sacrifizioa Jaungoicoari esquinten deutsan aldetic; onela aituric Sazerdotiaren izena Christaun guztiac izan biar daube Sazerdotiac, eta dira, aren Divina Magestadiaren vorondatia eguiaz eguiten dauben, Guizon eta Amacume, Gazte eta Zar guztiac; alde onetatic beguiraturic Sazerdotiaren izenari San Pedroc eta San Juan Apostolubac aiquetara emuten deuscube, Christaun guztioc izan biar dogula Jaungoico gure Jaunaren Sazerdotiac: bigarren moduban Sazerdotiaren izena aiquetan da bere estutasun guztian, batec eguiaz arturic daucan aldetic, Jesus maitiac Afari santu onetan ifiniric itzi euscun, Sazerdotiaren Ordenaco Sacramentu santuba;

onela aituric Sazerdotiaren izena eta izana dira Sazerdotiac, Sacramentu au eguiaz artzen dauben, Guizacumiac bacarric, eta ez beste Christaunic batere, eta Eliza Santaco izcunian onerian Sazerdotiac aiquetan dira, Christaunen arteco Sazerdotiac aitaquetan dirian guztian; onerian Sazerdotiac bada, Aisquidia, eta ez bestec daucai Jesus maitiaren aldetico escuvidia, Sacramentubac Eliza Santan eguiteco, eta emuteco, Sacramentuben gañian esanic itzi dodan, moduban, eta orobat, Meza santuco Sacrifizio egunoroco au Jaungoicoari esquinteco: au esan deutsut, iñoizco demporan etorri ez zaitian, galtzera zeure Fede santuba eta siniste eguiazcua.

~ Afari santu onetan Jesus maitiac ifiniric itzi euscun, Sazerdotiaren Ordenaco Sacramentubaren videz Apostoluben Sucesoriac dirian, Obispo Jaunac eta Sazerdotiac bada, Aisquidia, Meza santuco Sacrifizio onetan consagraitan daube Jesu Christo gure Jaunaren Corputz eta Odol maitagarria; Consagrazinoco verba santubacaz batera leen Ogui zana iragoten da izatera Jesu Christoren Corputz sagraduba, baña bere Odolagaz, Animiagaz, eta Jaungoicotasunagaz, gueldiquetan diriala bacarric Ostian Oguiaren aczidentiac Oguiaren izate eta naturaleza bagaric, nola dirian bere coloria, usaina, saboria, eta Oguiac beragaz dituban beste aczidente mueta guztiac.

~ Sazerdotiac, Ostiaren gañeco Consagrazinoco verba santubac esanic, beriala macurquetan dau bere belaunar lurreraño, eta, berac adorauric lenengo Jesus Divinoa, Jausoten dau gora miragarrizco Sacramentu Altareco au, eta eracusten deuste, Meza entzuten dagozen, guztiai, adorau daguien eurac ere Jaun Divinoa; eta ez bacarric adorau biar daube aren Divina Magestadia aimbat amorioric eta humildaderic andienagaz Meza entzuten dagozenac, baita ere, zeremonia sagradu onen demporan, ecusi daiquien moduban, an inguruban edo videz edo egoeraz aurquiquetan dirian, guztiac; bada beren belaun biac lurrian ifiniric adorau biar daube Jaun Divinoa Altaraco Sacramentu miragarrizco onetan, eta egoera onetan bertan egon biar daube, adorau arteraño bere odol maitagarria, Sazerdotiac, consagrauric Calizeco Ardaoa, Caliz sagraduba Jauso eta bere toquian ifini, bitarte guztian, ondoren esatera noian leguez; bada Eliza Santaco Legue-

~ tan ala aguinduric dago, eta, Jaun Divinoarizor de-
~ utsagun, amorioac eta humildade santubac ala
~ escaquetan deuscube; argatic ere aguinduric dago,
~ Meza erasaten daguanac dempora bi oneitan Campa-
~ ñilliagaz ots eguin daguiala.

~ Orobat bada Sazerdotiac Caliziaren gañeco con-
~ sagrazinoco verba santubac esanagaz batera le-
~ en Ardaoa zana iragoten da izatera Jesu Chris-
~ to gure Jaunaren Odol maitagarria, baña bere Cor-
~ putzagaz, Animiagaz, eta Jaungoicotasunagaz,
~ gueldiquetan diriala bacarric Ardauaren izate eta
~ naturaleza bagaric bere Aczidentiac, nola dirian Ar-
~ dauaren usaina, coloria, saboria, eta Ardaoac eu-
~ qui oi dituban beste Aczidente mueta guztiac; eta
~ Meza esaten daguan Sazerdotiac berac lenengo ado-
~ rauric Jesus Divinoaren Odol maitagarria belaunico,
~ Jausoten dau Caliz santuban Sacramentu miragar-
~ rizcoa, Meza entzuten dagozenac, eta, ecusi daiquien
~ moduban, an aurquiquetan dirian, guztiac belaunico
~ adorau daguien ~~belaunico~~ amorio eta humildade guz-
~ tizcoagaz Jesus Divinoaren Odol maitagarria; eta ez
~ daube leenago zuti Jagui biar, Meza entzuten ez dago-
~ zela, Sazerdotiac Ostia consagrauba Jausoteco, dempo-
~ ran belaunico ifini zirian, guztiac; esan dot: Meza entzu-
~ ten ez dagozela: zergatic Meza entzuten dagozenac gor-
~ de biar daube aurrera ere, Meza=Entzulac gorde biar
~ daubela, bere lecuban esango dodan, Corputzaren egoe-
~ ra.

~ Jesu Christo guztia dago Ostia consagrauban, eta
~ bere edozeiñ ere puscatan; eta orobat Jesu Christo
~ guztia dago Ardao consagrauban, eta Caliz consa-
~ grauricaco Odol maitagarriaren edozeiñ ere pusca-
~ tan: Jesu Christo gure Jaunagaz batera aurquiquetan
~ dira ere Aitia eta Espiritu Santuba; zergatic Frinida-
~ de santisimoco iru Persona oneic, Jaungoico eguiazco bat
~ bacarra dirian leguez, ez dira aurquiquetan bata bestia
~ bague; eta Jesus Divinuac izten deutsa egotiari Sacra-
~ mentu santu Altareco onetan, Oguiaren eta Ardauaren
~ Aczidentiac ustelquetan dirianian: au da, Aisquidia, Eli-
~ za Ama Santac Meza santuco Sacrifizioaren gañian, eta

~Santisimo Sacramentu Altarecoaren gañian Christanda-
~de guztian beti bardin eta errimetasun guztiagaz eracutsi
~izan daben, siniste eguiazcua, bere Esposo Jesu Christo gure
~Jaunac azquenengo Afari sagraduban ifiniric itzi zituba-
~netic ona; eta erabagui izan ditu Eregetzat, siniste egui-
~azco au ucaquetara etorri izan dirian, Christaun guztiac.

Religinoco Sacrifizioa dan, Meza santu au esaten dan guztian barriztaitan da Eliza Santan Redenzinoco lenengo sacrifizioa, Jesus maitiac bere Aita Eternoari Curutzian esquini eutsana: Curutzian Jesus maitiac itzuli eben eguiaz bere Odol maitagarria, artu eben eguiaz gugatic eriotza; eta onela Jesu Christo esquini zan bere Aita eternoari gure Redenzinoco Sacrifizio santu lenengoan: Meza santuco, Religinocua esaten deutsagun, bigarren Sacrifizio onetan barriz Jesus maitiac itzulten dau bere Odol maitagarria, eta illten da, baña ez eguiaz Curutzian leguez, baizican Misterioan bacarric, guri aiquetara emuten deuscula, Mezaco Sacrifizioan consagraitan dan, bere Corputz eguiazcuagaz eta viziagaz, Curutzian eguiaz illic egon zan, Corputz au berau, eta orobat, ondoren consagraitan dan, bere Odol maitagarri eguiazcoagaz eta viziagaz, Curitzian eguiaz itzuli eben, Odol maitagarri au berau, eta itzuliric eguiaz guelditu zana illic; onela Meza santuba esaten dan bacoitzian barriztaitan da Redenzinoco lenengo Sacrifizio santuba, itzulten dabela Jesus Divinoac bere Odol maitagarria eta illten dala ez eguiaz, baizican bacarric Misterioan, esan do dan leguez.

Emendic aguirian dago, Aisquidia, Redenzinoco lenengo Sacrifizioa, eta Religinoco Meza Santuco Sacrifizioa (Sacrifizioa dan aldetic) biac beren izate edo naturalezan bat diriala, eta beren erru edo merezimentu ondar baguecuetan ere biac bardiñac diriala; zergatic Curutzian Aita Eternoari gure redenzinoraco esquini zan, bere Seme Jesus Divinoa bera dan Meza santuban esquinten dana ere; eta Sacrifizio mueta bi oneic, Jaungoicori esquinteco, modubaren aldetic bacarric dira bacoitza bere modu banangocuac, eta batac bestiagaz zer ecusiric ez daucainac.

Meza santuco Sacrifizioaren errubac dira iru;
~bata da, Jaungoicoaren aserre santuba gure pecatu-
~bacatic atzeraquetia eta itzunguitia: bigarrena da, Ja-
ungoicoagandic erestia Animaren salvazinoraco pre-
miña ditugun virtute santubac, baita ere, Animaren
caltian ez dirianian, Corputzeco osasuna, eta Mundu
~onetaco ondasun mueta guztiac: irugarren erruba da,
guere pecatu parcatubacatic zor dogun pena tempo-
ralaren satisfaczinua emutia Jaungoicoaren Justizia
bardiñari: eta ala Fede santuco egui erabaguiac era-
custen deuscu Eliza Santan, dala on guztiz andicogau-
za, Mezac esatia, etara, edo esan eraguitia ala Vizi-
acatic, nola Yllacatic; eta Jaungoicoac bacoitzari emu-
ten deutsa Meza santubaren erru oneitatic norberaren
siniste, devozino, eta ontasun gueiago edo guchiagocoa-
ren neurrian, izanic berez Meza santubaren erru one-
ic neurri baguecuac; bada Sacrifizioaren aldetic Me-
za santubaren merezimentuba beti bat da, naiz esan
daguiala Sazezdote batac naiz bestiac, beren artian
Jaungoicoaren aurrian ontasun bardiñecuac ez badi-
ra ere Sazerdote oneic; eta (gueiago dana) Meza santu-
bac ez dau galtzen bere merezimentutic ezer ere, peca-
tu mortalian egon agatic, Meza esaten daben, Sazer-
dotia; eta ala iñorc ez dau batere susumaric euqui bi-
~ar, edozeiñ Sazerdotiaren Meza entzuteco, Sazerdo-
~tia Eliza Santaco Ministro leiala dan bitartian, nola
naicua izan dedilla bere vizitzan, bardin aguirian
eta guztien aurrian gaizqui vizi dana ez bada; zer-
gatic onelacuaren Mezaric Christaunac ez daube ent-
zun biar, au ecusiric lotsatu dedin Sazerdotia eta itzi-
deguion aiñ lotsa bagaco bere vizi modu madaricatu-
~bari; esan deutsut, Aisquidia: Sazerdotia Eliza Santa-
~co Ministro leiala dan bitartian: bada Eliza Santaco Mi-
nistro leiala izatiari izten deutsan demporatic aurrera
zer moduz inguiratu biar zarian, esanic itzi deutsut
ogueta emeretzi garren ojiaren astian: orobat, Sazerdo-
tia bada, bere gaiztaqueria andiacatic Obispo Jaunac
Mezia quenduric, edo Escomunio nagusiagaz loturic
daucana, ez daube Christaunac onelaco Sazerdotiaren
Mezaric iñolaco moduz entzun biar Jai egunetan ere, eta,
norc esan daiquian, beste Sazerdoteric ez balego ere.
Sazerdotiac (escuvidia daucan leguez) emun edo

erabaguiagatic Meza Santubaren erru oneic batarentzat edo bestiarentzat, nola bere merezimentuba guztiz ondar baguecua dan, beste Christaun Catolicuac batez ere Fe-de vizi bategaz eta devozino eguiazcoagaz Meza entzu-ten dagozenac etaraten daube Meza santubaren erru oneitatic bacoitzac bere laguiña; Ychasotic ascoc ura etariagatic bacoitzac aldaben gara, orobat premiña dauben beste guztientzat gueldiquetan da asco dauben garaco ura etagueiago; beste aimbeste guertaquetan da Meza santuco merezimentubacaz esateco modura.

Ondo ezaguquetan dozu, Aisquidia, guere Enten-dimentuco errazoiaren arguitasunac berac eracusten deuscula, premiñacuac ditugula Jaiac esaten deuste-gun, egun batzubec, oneitan itziric alde batera Corputzagaz-co nequiari, eta guere atseepenac arturic, irago daigun demporaren batzubec Jaungoicoaren vorondateco obra onetan, eta, guere Animen salvazinoraco dirian, gauze-tan; argatic aren Divina Magestadiac bere Legueco amar Mandamentu santuben artian irugarrengoa dan, Mandamentuban aguindu eben, Astiaren azquenengo eguna santificatzia, Corputzezco neque guztiari alde batera itziric; onegaz ostian erabagui zituban beste Jai egunic asco, gorde biar zirianac; baña, nola Judegubaren Legue zar guztia deseguindu zan, Jesus maitiac Curutzian gugatic eriotza artubagaz batera, gueldique-tan ziriala oñian bacarric, Guizonagaz batera sortzeen dirian, amar Mandamentu santu oneic, nundic ere dau-cain Jaungoicoaren Legueco Mandamentuben izenagaz ostian Legue naturaleco amar Mandamentuben izena, bere irugarrengo Mandamentu au gueldítu zan, Jaiegu-nac santificatzeco, aguindubagaz bacarric, arterañoco Jai egun erabaguiac deseguinduric, eta, aurrera Legue graziazco onetan gorde biarco zirian, Jai egunac, eta, one-ic gordetaco, modubac bere Esposa eta gure Ama, dan, Eliza Santaren vorondate eta escuvide guztizcora itzi-ric.

Eliza Ama Santac bada, Jai egunetan Judegu ma-daricatubacaz Christaun Catolicoc bat izan ez guindezen, bere Esposo Jesus maitiagandic artu eben escuvidiaren videz itzi eusten alde batera Judeguben Legue zarre-co Jai egun guztiai, eta erabagui euscun, gordetaco, beste

Jai egun batzubec Misterioz betericacuac, baita ere erabagui euscun, Jai oneic gordetaco, moduba; emendic ezaguquetan dogu arguitasun guztizcuagaz, Jai egunac santificatzia, aguinquetan deuscun, irugarren Mandamentu santu au bere sustraian eta izate guztian dala Legue Naturaleco edo Jaungoicoaren Legueco Mandamentu santuba, eta, erabaguiric dagozen, Jai egunen, eta, oneic gordetaco, modubaren aldetic dala guztia gure Eliza Ama Santaren Mandamentuba; eta ala Jaungoicoaren edo Legue naturaleco irugarren Mandamentu au gordetaco, daucagun, Jai egun guztiac, eta, oneic gordetaco, moduba eta langueia guztiac dira, Eliza Ama Santac aguindubac; argatic bere escuvide guztizcoagaz gueitu edo guichitu daique Jai egun oneic, baita ere, oneic gordetaco, aguinduric daucan, moduba eta langueia gueitu edo arindu daique; onela ecusten dogu, izanic lenengotic oraingo Jai egun guztiac osoac, oneitatic batzubec ifini izan ditubala Jai erdi, Meza osoa entzuteco Mandamentu bacarragaz; baita ere ecusten dogu, Jai egun oneic gordetaco lenengo demporetan gogorquiro aguinquetan zituban, languei ascoac guichitu eta arindu ditubala, aguindubagaz gaurco egunian pecatu mortalaren azpian Jai egun osoetan ere, bacarric Corputzagazco biarric ez eguitia, eta Meza osoa entzutia, izten ditubala, Jai egunac ondo gordetaco, Meza osoa entzunagaz ostian eguin biar dirian, beste obra onac Christaun bacoitzaren devozinora; beguiratu beguioe ondo Eliza Ama Santaren eta Jaungoicoaren Espiritu eta vorondate oni, Jai osoetan goiz Meza bat gaizqui eta dollorquiro entzunic gañeruntzaco dempora guztia iragoten daubenac, eun eta ogueta bat garren ojiaren ostian izentauric itzi deutsudan, alperquerian, eta, emendic sortu oi dirian, gaiztaquerietan, an izentau deutsudan, obra onic batere eguin bagaric: ecusi eguizu ere ogueta amasei garren ojiaren ostian eta urrengoaren arpeguian esanic itzi deutsudana, Jai egun osoetan biarric ez eguiteco, daguan, Eliza Ama Santaren Mandamentubaren gañian.

Jaungoicoaren Legueco irugarren Mandamentuba bada, Aisquidia, gordetan dau, Eliza Ama Santaren aguinduco Jai egunac santificaitan ditubanac; santificaitan ditu, bere devozinoco beste obra onen calte bague biarric premiña bagaric eguiten ez dabenac Jai osoetan,

eta ala oneitan nola Jai erdi guztietan Meza osoa entzuten dabenac; biarric ez eguitia, eta Meza osoa entzutia Jai oso guztietan, dira gauza bi, pecatu mortalaren azpian aguinquetan deuscunac gure Eliza Ama Santac; eta ala bere bost Mandamentubetatic lenengoa da, Meza osoa entzutia Igandietan eta Jai egun guztietan.

Mandamentu santu au ondo gordeco daben Christaunac entzun biarco dau Meza santuba lenengo asi-penetic bere azqueneraño, Eliza Santac aguinduric daucan, egoera artan bertan daucala bere Corputza; eta aguinduric dauca, egon gaitiala aimbat reverenziaric andienagaz, lenengo eta azquenengo Evangelioac esan bitartian, zuti, eta beste Meza guztian belaunico belaun biacaz, eta ez, asco ecusi oi dirian, leguez Mezaric guelenian Jasarriric edo zuti; madaricatuba (diño Profeta santu batec) dala, Jaungoicoaren obra naguitasunagaz eguiten daben, Guizona: Corputzaren aldetico egoera au aiquetan da, bere ondo ezen batec escaquetan ez badeutsa egoera erosoagoren bat; bardin bada madaricatuba, Jaungoicoaren obra naguitasunagaz eguiten daben, Guizona; zer esango deustazu, Aisquidia, Sazerdotia Altarara Juan artian Eliz ateetan dempora luzaruan egon oi dirian, Christaun ascogatic? sartzen dirianian ere Elizan, sartu oi dira, iñorc pultzaca sartzen balituban leguez, eta urteten daube Campora, Sazerdotia Altaratic urten baño lenago; Meza entzuten dagozen bitartian, dagoza edo zuti, edo Jasarrita, eta beren Corputzac botaric, Jasar lecubac esquinten deusten, eraric onenian, albuetara beguira, arosinca, edo aldamenecuacaz verbaitan: Ho! Aisquidia; eta zeiñ gogo pisuagaz entzunicaco Meza! eta au eguin ezquero, Jai egunac ez dauca gueiago euracaz zer ecusiric; onelaco Christaunac [redacted] ete dirian madaricatubac, ala bedeincatubac? ojala bada onerian Christaun zatarrac Mezatara baño gogo pisuaguaz Jai egunetan Juango ez balira Fabernara, Aguardiente Feguitara, Jan edanetara, Jocura, danzara, zirquinzuluetara, Errondara, eta gauza oquerraguetara, onetaraco ifiniac balirian leguez Eliza Santan Jai egunic andienac: au bardin bada, Meza osoa entzutia, ez daquit, zer dan, Meza entzun bagaric gueldiquetia.

Corputzaren egoera humildiari erantzun biar deut-

sa ere, Meza entzuten daguanaren, Jantziac; Meza-
tara doianac beguiratu biar deutsa, nora doian, eta
zertara doian: dua Jaungoicoaren Eche santura, Ora-
zinoco Echera, zeñaren atiac beti ichiric dagoza Jaun-
goicoaren aurrian, sartu ez dedin Mundu onetaco
arrotasuna, eta bere usainic dan chiquinena; dua, bar-
riztaitara Meza esaten daben Sazerdotiagaz batera,
Jesus maitiac Curutzian bere odola itzuliagaz, eta
eriotza gugatic artubagaz redimidu guindubaneco,
Misterioric andiena eta miragarriena, eta alde one-
tatic ere urriñago igues eguiten dau Mundu onetaco
arrotasun mueta guztiac: oneic onela izanic, Aisqui-
dia, ¿zer deritzozu, asco Christaunec arrotasunez
puzturic, edo asmo dongaoren bat daucaila beren biot-
zetan, Jaungoicoaren Eche santura eta Meza entzu-
teco daroien, Jantzi edo soñecuai? ez daquit, onela-
cuac nola Meza ondo entzun daiquien: itzi deiegun
onei, eta guazen, guztiz bardinausiac dirian, beste Chris-
taun batzubecana; ¡Ho! eta zeimbat Christaun, ecusten
ditugun, Jai egunetan ere batez ere Jai erdietan Meza
entzutera, duazela Jantzi zatarracaz, ziquiñicaz,
eta lotsagarriacaz, Emacumiac beren Camisa edo
Charamela mauca loi utsian, Mantilla bat burutic
bera ifiniric, eta Guizacumiac beren Asteetaco Jant-
zi ziquiñacaz beren Arcondara mauca loi utsian,
Jaquetillaren bat sorbalda gañera botaric, maucac,
besuetan sartzaca, dindillisca dariela! ¿esango deus-
tazu, Aisquidia, oneic Christaunac diriala, eta Jaungo-
icoaren Eche santuban Meza entzuten daubela? ¿zeiñ
arpegui guichi euquico leuquien, itzal pusquiñ bat de-
utsain, Personaren bategaz ala egotera, Meza entzutera do-
ianaren Jantziac bada, Aisquidia, izan biar dau ez
arruac, ez da ere zatarrac, ziquiñac, eta loiac, baizi-
can onac, dezentiac, garbiac, eta humildadian apain-
dubac; orobat Pobriac beren Jantzi zatarrac aimbat on-
duen apaindubac, alde onetatic dan Pobrienac ere Me-
za entzutiari batez ere Jai egunetan izten ez deutsala;
Emacumiac egon biar daube Mezatan beti Mantillia-
gaz estalduric, errazue dan gara, eta ez beren burubac,
sorbaldac, eta guerriac aguirian daucaila, eta Guizo-
nac beti burubac zabalic, eta guztiac ala Guizacumiac
nola Emacumiac Camisiagaz eta Arcondariagaz gañe-
ra beren besuac Jantziric.

Meza santuba entzuten daguanac bada, onela bere Corputza guertaturic eta Jantziric, euqui biar dau Meza guztian bere Animia, ez Mundu onetaco gauzetan banaturic, baizican Meza santuco Misterio miragarriaganaco devozinuagaz eta atenzinuagaz aimbat onduen baturic eta loturic, ichiten deustela bere biotzeco atiac campoco gauzen gañeco quezca eta ardura mueta guztiai, Jaungoicoari escaturic, bere laguntasunagaz aldaben gara, baña beñere eta batere estutu eta larritu bagaric, bere culpa bagaric biotzac eguin deiquion, eta biar bada eguiten deutsan, iguescadacaz, ascuac izanagatic.

Onetaraco ifiñico da Jaungoicoaren aurrian, laroqueta amabi garren ojiaren arpeguian azquenerutz asi eta andic ondorengo ojetan esanic itzi dodan leguez, lenago devozinoz zeñaturic; artuco dau asmua Eliza santaren Mandamentubaren aguinduba eguiteco ondo; eta, nola Sazerdotia dan Eliza Santaco Ministroa, ifinita daguana Guizonen bitartecotzat Jaungoicoaren aurrian, eta, esquinten deutsan, Meza santuco Sacrifizio miragarrizco onetan bialquetan dituban aren Divina Magestadiaren aurrera Eliza santaren, eta Meza etara eraguiten deutsaneeren, batez ere Meza entzuten dagozen guztien, premiñac eta escavidiac, ala Meza entzuten Jasarten danac ifini biar ditu bere premiña eta escavide guztiac, Meza esaten daguan, Sazerdotiaren escubetan, bere gogoa, biotza, eta Espirituba bardinquetan ditubala Eliza Santaren eta Sazerdotiaren gogo, biotz, eta Espiritubagaz, oneicaz bat eguinic izten ditubala beriac; esango dau Sazerdotiagaz batera bere Confesinua Meziaren asipenian; eta ondoren Meziaren azquenerañо Juango da meditaubagaz Jesus maitiaren vizitzaco, eta pasino santuco batez ere Curutze santuco Misterioetan; baña onetaraco bururic ez badauca, eta iracurten ez badaqui, Meza santuba ondo entzuteco etararic dagozen, liburu labur batzubec beren Orazinuacaz, onerian Christaunac guztiz ederquiro entzungo dau Meza santuba, Errosario santuba Meza bitartian devozinoz eta atenzinoz errezaubagaz: onela Meza santuba ondo entzunic gueldituco da, batez ere, Sazerdotia comulgaitan danian, Meza entzuten daguanac eguiten badau Comunio espiritual bat, guero bere lecuban esango deutsudan,

modura: Ho! eta onela Meza entzuten dauben guzti-
ac Guizon, eta Emacume, ezcondubac, eta ezcontza-
cac, zarrac eta gaztiac zeiñ Sazerdote ederrac eta
Jaungoicoaren biotzecuac dirian! bada Meza esa-
ten daguan Sazerdotiaren escutic eta beragaz bate-
ra eurac ere beren aldetic eta aldauben modura guz-
tiz ondo esquinten deutsai aren Divina Magesta-
diari Meza santubaren Sacrifizio miragarrizcoau;
bai, Aisquidia; ez dot uste, onetan esaten deutsudala,
ez dan, gauzaric.

Eliza Ama Santaren Mandamentu au, Jai egun
guztietan Meza osoa entzuteco, aiñ josia eta ichachia
dago Jai egunari berari, zeinda Jai egunian bertan
Meza entzun aldaiquiala, bere culpaz entzutiari iz-
ten deutsanac eguiten dau pecatu mortal, urtiac
daucan Aste egun guztietaco Meza santu guztiac be-
rac bacarric, eta Ainguerru batec duin, ederquiro ent-
zungo balitu ere; eta orobat urte guztian batec beste
Mezaric entzungo, ez baleu Jai egun guztietacuac baño,
Jai egun bacoitzian bat, eta dana ondo, alde onetatic
izango lizateque Jaungoicoaren aurrian Santu andi
bat; ezin bada, Aisquidia, iñorc Jai egunian Meza
entzutiari itzi deiquio, esaten dabela beregan epelta-
~sun andiagaz: gaurco onen ordian beste egun baten
~Meza bi edo iru entzutia daucat: gueiago; Jai egunian
Meza osoa anchitu ezin izan dabenac, eta, Sazerdotia
Santusian edo Consagrazinuan daguala, edo guerua-
~go eldu bada, ez dau atzera biurtu biar, Mezia ira-
~go dala, esanagaz; baizican entzun biar dau peca-
tu mortalaren azpian andic aurreraco Meza san-
tu guztia, beste Mezaric ez daguan ezquero.

Jai egunetan Christaunac gorde daiquie, Meza
entzuteco daguan, Eliza Santaren Mandamentu au,
Meza entzunagaz Jaungoicoaren edozeiñ Eche edo
Templo santutan, zeñetan osasunian daguanac con-
fesaubagaz artu daiquiala Sacramentu Penitenzia-
cua, eun eta larogueta lau garren ojiaren arpeguian
esan deutsudan; eguia da; lenengotic Mandamentu au
Eliza Santan ifinia da, bacoitzac bere Parroquian Me-
za entzuteco, eta, andic campora Meza entzuten eben,
Christaunac Mandamentuba auriten eben; baña alde
onetatic Eliza Santac gaurco egunian bigunduric dau-
ca bere Mandamentu santu au; ala ere viziro gura dau,

Christaun guztiac Jai egunetan Meza entzun daguien
bacoitzac bere Parroquian eta Meza nagusia; ezin Eli-
za Santac erabaguiago eracutsi eiquegun guri bere vo-
rondate santu au, Trentoco bere azquenengo Conzilio ge-
neralian eracutsi euscun baño; eta au, Aisquidia, erra-
zue bigatic: bata da; zergatic Meza nagusia, pecatu
mortalaren azpian Meza entzun biar dan, Jai egun guz-
tietan Christandadeco Erretore edo Vicario Jaun guzti-
ac esan oi dauben bacoitzac bere Parroquiaco Christa-
un guztien oneraco, eta Erri batzubetan egun guztieta-
co Meza nagusiac Jai egunetacuacaz ostian: bigarren
errazoia da, Christaun guztiac entzun eta icasi dagui-
en Meza santu onetan bacoitzac beren Animetaco Mai-
ñu eta Arzainaren agotic Jaungoicoaren Legue eta doc-
trina santuba; ea bada, Aisquidia; ifiñi deutsut au guz-
tiau zeure beguien aurrian, zuc ere gorde daguizun zeu-
re Jai egunac, ez nun nai, eta edozein Meza entzunagaz,
baizican zeure Parroquian eta Meza nagusia entzuna-
gaz, goiz Meza bat ondo entzunagaz, eta zeure Parroquia-
tic campora, gorde badaiquezu ere, Meza Jai egunetan
entzuteco daucazun, Mandamentuba.

Asco dira, Aisquidia, Meza laburreguiac luziagoai itziric entzuteco, zaliac; baña zu ez zaite izan orrelacua; eta
Jaquin gura badozu, zein Meza dan laburreguia, nic
esaten deutsut, oguei minuto baño dempora labur-
raguan esaten dan, Meza errezauba ere dala laburreguia; baita
ere esaten deutsut, ez dozula beñere, Meza errezau-
ba izan agatic, luzeguitzat euqui biar, ordu erdi bar-
ruban asi eta azqueneraño esaten dan, Meza; ordu er-
diac barriz (guztioc daquigun leguez) ogueta amar mi-
nuto osoac dauca: usteco dozu biar bada, au nire bu-
ruz esaten deutsu dala; baña, onela uste badozu, uts
eguiten dozu; zergatic, Eliza Santac, Sazerdotiac Meza
errezauba ere esaten irago biar dauben, demporiaren
gañian emunic daucan, Legueac, eta, Legue onen gañian
verba eguiten dauben, Eracustzallac, ez batec, ez bic, eta
ez iruc, baizican guztiac eta guztiac ao batetic leguez ala
esaten deuscuben: Meza nagusi cantaubac dempora gueiag biar
dau.

Jai eguna izan agatic, dempora batzubec badira, ze-
ñetan, Meza entzun bagaric bat gueldiquetia, ez dan pe-
catu: ecusi eguizu onetaraco, ogueta amasei garren ojia-
ren ostian esanic itzi deutsu dana.

Erriren batzubetan dago oituería, Jai egunetaco baita ere Aste barruco beste egunen batzubetaco Meza nagusietan eta Yllen funzino egunetan ofrendan zerbait emuteco Altaraco Ministroai, nola dirian Oguia eta diruba, Arguizaia eta beste gauzaren batzubec; Ofrendaco oituera au Eliza Santan, oraindaucan, Legue graziazco estadu onetan lenagocua da Amarren Primiziac baño; Eliza Santac beti euqui izan dau oituera au santutzat, ontzat, eta Jaungoicoaren vorondateco gauza anditzat; onela aiquetara emuten deuscu beiñic bein, oituera onen gañian emunic daucan, Legue santu guztietan: iuregun eta gueiagoco urtetan Emperadoriac eta Erreguiac Jentilac zirian demporan Eliza Santa (esateco modura) beti egon zan Martirioaren azpian; eta dempora onetan Christaunac arturicaco oituería da Ofrenda santuraco oituera au, euqui eguien Altaraco Ministroac, zegaz vizi; arturic bada Munduco Aguintari oneic gure Fede santuba, eta Eliza Santac bere baquia alde guztietatic, ifini zirian Amarren Primiziac, baña Ofrenda santubaren batere calte bague; eta guertatu dana da, oituera santu oni Christaunac alde batera izteia; bacarric Erri chiquin batzubetan eta Christandadeco esquina batzubetan ecusten da gaurco egunian, eta oneitan ere guztiz guichituric, eta egunetic egunera guichitubagaz doiala.

Onela Eliza Santan Ofrendiaren oituera au azquetara etorteco, gauzaric asco guertatu dira; baña guztien artian guichien aztu eraguin daubenac ez dira, Guizaldi guztietan eta Erri andi guztietan ecusi izan dirian, Modaco Christaun barri, zatar batzubec, eta, biar bada egui santu au aurrenengo artez eracutsi biar eubenen, artecoren batzubec; oneic bada beti begui ezquerragaz beguiratu izan deuste Eliza Santaren oituera onai, eta, derautsadan, oituera onegatic barre eguiten daubela, esan izan daube, eta esaten daube, laroguei urteco Atso bat bere Lagun artian esaten lotsatuco lizatequian, errazoia: Animac dirubaren eta Oguiaren premiña ez dira, baizican gure obra onen: zer on eguin daiquie Animai, sepultara gañian ifinten dan, Oguiac, eta, izioten dan, Arguiac? Animac ez daquie Oguiric saten; Echeco Andrac zembat eruago au naiago Apaezac: onen bestegaz Christaun barri, barrichu, eta ichu oneic

uste daube, guizuztitzat etaratia, ofrendaco oituera
au santutzat eracusten deuscuben, Jesus Divinoa,
bere Esposa Eliza Santa, eta Zeruco Santubac; baña
Christaun zatar oneic eurac dira erdi erditic eta betez
~ betezian guizuztiac; noxe ez daqui Eliza Santan, zaz-
pi urteco Aur batec ere, Animac guzt obra onen pre-
~ miña diziala, eta ez dirubaren eta Oguiaren? Animac
~ ez daquiela Oguizic jaten?; Apaezac naiago daubela
~ aimbat Ofrendaric gueien euquitia?; dala Jaungoico-
ac iguiñ daben Ofrenda, Echeco Andrac beren eraque-
riagatic eta arrotasunagatic eguiten ~~eguiten~~ daubena,
Apaezacaz ondo euquitiagatic, eta oneic esan daquien:
~ urlia eta berendia Echeco Andra, bai, zeiñ zabalac, eta
~ Emallac dirian; bedeinca eurac?; baña noxe esan deuste
Christaun barri, modaco, barrichu, guizunti, eta zatar
oñelacoai, Eliza Santac Iller entierroetan aguinquetan
dituban, Arguí izioac ez daucaila beren Misterioa, eta
orobat, onein antzera Sepulturen gañian bacoitzac voron-
datez urte osoan edo gueiagoan izioten dituben, Argui-
~ ac?; noxe eracutsi deuste beren guizunac baño bestec,
oguia, Arguizaia, dirnba, edo beste, oiquetan dan, gau-
zaren bat Ofrendan emutia Altaraco Ministroai Meza-
tan, eta asmo agaz beragaz, zeñagaz lenengo Christau-
nac ifiñi euben oituera au, ez dala Jaungoicoaren voron-
dateco obra on ardi bat, eta Christaunac obra on onei-
caz etoara ezin daiquiala Animac beren premiñetatic,
eguiten badituzte Jaungoicoaren graxian dagozela? Me-
zal sarigie eta Ofrenda, saztri ~~eguiten~~ daycá bere sus mejiu eta antera.
Jesus maitia bein batian, Jerusalengo Templo santu-
diruba
ban Ofrendara, botaten egozenai, beguira egon zan; ez zitu-
ban ez lotsaiatu, onetan gauza ots bat edo dongaren bat
eguiten eubelaco: San Franzisco Sales Obispoa, jaquintsu-
boa, eta santuba izan zan eta oraiñaguacua, eta bere ben-
deco Christaun pobriac beren izendatic ofrendan emuten
eutsain Vrchaur, Gaztae, Oguí, eta onerian beste jan gauza
batzubec guztiac artzen zituban, eta emuten eutsan bere
Maiordomuari, etara eguion jan ordubetan beti Maira,
zirauben bitarte guztian, eta Santu andiac bere aurai-
an pozagoric ecusten eben, jan gauzaric ez eucan, ofren-
da santutic ecarten zituban, jan gauza oneic baño: itzi
eguiezu bada, nixe Aitzquidia, balde batera batere jaquin-

duria bagueco Jaquintsu ichu, barrichu, eta zatar-
rai, eta Jarraitu eguiozu, Jesus maitiac, bere Espo-
sa gure Ama Eliza Santac, eta Zeruco Santubac on-
tzat eta santutzat emuten deutsuben, zeure Parro-
quiaco Ofrendiaren oitueriari; eta ez zaite iñolaco
moduz lotsatu, diruba Ofrendan botatera Juaten diri-
an, Guizacumien artian aurrenengua izaten, eta oro-
bat zeure Emaztiac, errazue dan garaco, Oguia aurre-
nengo Ofrendara botatiagaz; iñoiz izaten badozu Apa-
ezacaz, iguiñ dozun, gauzaren bat, ez deutsazu iñola-
co moduz itzi biar oituera santu oni; ez dozu eguin
eta esan biar, asco Emacumec eta Christaun zatarrec,
besteric ezin daubenian, eguiten eta esaten daubena:
~Apaez oneic larreguian dabiltza, eta larreguiac gañez
~eraguiten deuste; beragatic ez dago, eurai ere Ogui-
~ric gueiago Ofrendara ez eruatia baño: orobat ez deus-
tezu iñoizco demporan itzi biar zeure Echeco Emacu-
miai, Jaungoicoaren Eche santura eurac edo bestec
eruan dituben, Ofrendaraco Oguietatic Echera atze-
ra ecarten, edo bertan, deritzuen, Emacuren batzu-
bei emuten; zergaitic au lapurretia eta Sacrilegioa
da, eta Jaungoicoari, Aur batzubec escubetan dau-
cain gauzacaz besteri Fati eguiten daquien leguez,
eracutsi, eta ez emutia, Ha! Jaungoicoari barre eguin
deutsainetatic iñor guelditu ez da, guelditucо ere
ez, bere ondo irabaziaren sari ugari bagaric edo le-
nago edo gueruago: onembestegaz itziric, Religino-
cua esaten deutsagun, Meza santuco bigarren Sacri-
fizioari, guazen orain, zerbait esatera Sacramentu
santu Comuniocoaren gañian.

Sazerdotiac, eguiaz Sazerdotiac dirianac, Sa-
zerdotiaren izena estutasun guztiagaz aiquetan dan
aldetic (au da) Jesus maitiac (izentau dodan) azque-
nengo Afari sagraduban ifini eben, Sazerdotiaren
Ordenaco Sacramentuba arturic daucain, Guizacu-
me, Apostoluben Suzesoriac bacarric, Jaungoicoari
Meza santuco Sacrifizioa esquinteco, escuvidia dau-
cain leguez, daucai ere eurac bacarric Eliza Santan,
Sacramentu santu Comuniocoa eguiteco eta emuteco,
escuvidia; au ere Fede santuco egui erabaguia da, ai-
turic egui au Sacramentu santuba eguiteco escuvi-
diaren aldetic; bada Sazerdotiac aurraz, eguinic da-
guan Sacramentu miragarrizco au Christaunai emu-

tiaren gañian izan dira Eliza Santan demporac, ze-
ñetan Sazerdote ez zirianac euqui dauben, Sacra-
mentu au emuteco, escuvidia, gaurco egunian era-
gotziric badago ere, Sazerdote ez dirian, beste guztient-
zat.

Ez bacarric consagraitan dau Sazerdotiac Me-
za santuban, Mezataraco dan, Ostia, baita ere onegaz
batera consagrau daique, eta consagraitan ditu, Al-
taran bere aurrian daucan, beste Ostia guztiac Chris-
taunen Comunioraco, eta Gaiñuen Viatico santura-
co; argatic Sacramentu miragarrizco oni Comunioco
Sacramentubaren izenagaz ostian emuten deutsa-
gu ere Altaraco Sacramentubaren izena; eta Sazerdo-
tiac dauca Jesus maitiaren Mandamentu Divinoa,
ez consagraitaco eta ez eguiteco Sacramentu Comu-
nioco au, Altaran esaten daben, Meza santutic cam-
pora: Sazerdotiac bada zein consagrau daguiala, Me-
zataraco dan, Ostia bacarra, zeiñ onegaz batera bes-
te milla, baten leguez milletan, andian leguez beste
chiquinetan ere guertaquetan da, Consagrazinoco
verba santuben bitartez leen Ogui zana iragotia, Jesu
Christo gure Jaunaren Corputz sagraduba izatera, eun
eta laroqueta amaica garren Ojiaren arpeguian eta os-
tian esanic itzi deutsudan, modura: onembestegaz
aguirian dago, Aisquidia, Meza santuco Sacrifizioa
Jaungoicoari esquinteco, escuvidia daucain, Sazerdo-
te bacarracdiriala ere Sacramentu santu Comuniocoa-
ren edo Altaracoaren Eguillac eta Emallac.

Meza Santuco Sacrifizioraco dan gueia da ere
Comunioco edo Altaraco Sacramentu miragarrizco
onetaraco gueia (au da) Oguia eta Ardaoa ur tanta
bategaz nastuba; ez da naste au alperric eguiten, ~~eguiten~~
~ baizican guri aiquetara emutiarren, Jesus maitiac
~ bere bularreco llaga santutic itzuli zituban, Odola eta
~ ura, eta, gugaz bere Guizatasunaren videz daucan, uni-
~ oa; Jesus maitiac berac ere, bere azquenengo Afari santu-
~ ban consagrauco eben, Ardaoa ala guertatu ebela, dago
~ sinistia Eliza Santan; baña ur tanta au beriala biurque-
tan da, nasquetan dan, Ardaoaren izatera, eta onela nas-
turicaco Ardaoa consagrazinoco verba santuben bitar-
tez iragoten da (esanic daguan leguez) Jesus maitiaren

Odol eguiazcoa izatera: ez da bada edozein Ogui
ez da ere edozein Ardao Meza santuraco gueia, bai-
zican Gariaren iriñagaz eguiten dan Oguia, eta ez Ga-
ragar, Ziquirio, edo beste Azi muetaren iriñagaz
eguiñicacoa; orobat Ardaoac izan biar dau Matsa-
ren uragaz eguinac, eta ez Madari, Sagar, edo bes-
te Vdari ren baten uragaz eguiñac; ez dira ere guei-
ac onetaraco Aguardiente, Mistela, eta Ardao egui-
azcoagaz ostiango beste edari mueta guztiac; eta
Oguia eta Ardaoa ere guei eguiazcuac dira bacar-
ric, beren izatia galtzaca daucain bitartian; ezin
gueibi oneic bagaric esquini leiquio Jaungoicoari
Meza santuco Sacrifizioric; eurac bagaco Meza
eta utsa guztia da bat; zergatic Jesus maitiac ala
erabagui zituban guei oneic euroc bere azquenengo
Afari santuban Misterio onetaraco; eta, Mezataraco
premiña guztizcoac dirian, guei bi oneic euroc nola
Sazerdotiac consagrau, ala gueldiquetan dira bi-
ac, bacoitza bere banan, eguiñic Altaraco edo Comu-
nioco Sacramentu; onela Mezataraco dirian guei-
ac dira ere Sacramentu Comuniocoraco gueiac.

Meza santuco Sacrifizioa ez da, guri zuzenian
emuteco, Animac ontzeco, dan, Jaungoicoaren grazia,
baizican, guc aren Divina Magestadiari esquin-
teco, emuten deutsagula onen bitartez, zor deutsa-
gun, adorazino santuba, eta esquer santubac, be-
rac egunoro eguiten deuscun, Animaco eta Corput-
zeco mesediacatic; eta gogoraturic Curutzeco gure Re-
denzinoco Obra miragarria, eresteco aren Divina
Magestadiagandic, eun eta laroqueta amabi garren
ojiaren ostian esanic itzi deutsudan, bere iru erru
santubac; Sacramentu santu Comuniocoa barriz da,
betez betezian eta zuzen zuzenian (beste Sacramentu san-
tu guztiac leguez) emuteco, gure Animac onac, eta one-
tic obiaguac eguiteco dan, Jaungoicoaren grazia; eta
ala, Meza esaten daben, Sazerdotiac, eguiten bada ere
grazia santu onen Jabe ugaritasun andian, ez dau
anchiquetan grazia santubaren gueitasun ugari au
Mezaco Sacrifizioaren aldetic, baizican Sacrifizio
onetan artzen daben Sacramentu Comuniocoaren
aldetic.

Sacramentu Comunioco onegaz ostiango beste sei Sacramentubac, batec artzeco, demporan eguiten eta emuten dirianac dira; eta, nola artu batec Sacramentu bacoitza, Sacramentu izatiari izten deutsa, gueldiquetan dala Artzallia Sacramentubaren erru santubacaz; baña Comunioco miragarrizco Sacramentu au aurraz eguiten dana, eguinic beragan diraubana, eta, batec artuagatic, Sacramentu izatiari izten ez deutsana da, Oguiaren eta Ardaoaren Aczidentiac diraubeu, bitarte guztian; eta ala Jesu Christo gure Jaun guztia dago Sacramentu onen Artzalliaren entrañetan, esan ditudan, Aczidentiac galdu, deseguindu, edo ustelda arteraño; eta, nola au guertatu, izten deutsa Sacramentu izatiari, eta Jesus Divinoac, emen egotiari: beste sei Sacramentubac, bacoitza zertaraco dan, artaraco erruba eta grazia Artzalliari emuten deutsai; Sacramentu Comuniocoan barriz Artzalliac ez bacarric artzen dau bere grazia Sacramentubagaz batera, baita ere gauza guztien Eguilla, guere Redentorea, Sacramentuben Autoria, eta grazia santubaren Jabia eta Emallia dan, Jesu Christo gure Jauna: emendic dator, izatia Sacramentu miragarrizco au Sacramentu santu guztien gañeticua, andiena, eta miragarriena, eta beste seirac onen Servitzariac, au ondo artzeco, guertatu biar gaitubenac; bai, Aisquidia; Mundu onetaco gure vizitza guztia, eta beste sei Sacramentubac dira, gu Sacramentu miragarrizco onetan errime ichasteco amorioz eta humildadez, guere Buru dan, Jesu Christo gure Jaunari, eta (esateco modura) gu aren Divina Magestadiagaz bat eguinic izteco: ecusi eguizu, esanic itzi deutsudan, gauzac ogueta amabi garren ojiaren ostian, laroqueta bat garren ojiaren arpeguian, eta eun eta ogueta lau garren ojiaren arpeguian, eta ostian.

Eliza Santaren ala Legue naturaleco nola Legue escrividuricoco demporetan Sazerdotiac esquinten eutsain Jaungoicoari Zecorracaz, Ydiacaz, Aumacaz, Egaztiacaz odolezco Sacrifizio mueta asco; eta oneic zirian, Jesus maitiac Curutzian bere

Aita Jaungoicoaren ondoragoz demporatean esquiñeco
eutsan eta eguaz esquiñu eutsan Odolezco Sacrifi-
zioaren idumiper edo Ispillu batzubez: baita Le-
gue naturaleco demporan, Abran Patriarca izi zala,
ecusi zan Melquisedec Jaungoicoaren Sazerdotia
eta batera Salengo Jaregnea, zeñac aiñ dempora ur-
rinetatic itzi eutsan, oraiñ daucagun, Meza santu-
co Sacrifizioaren Ispilluric alzitequijan arguiena;
eta argatic Altaraco edo Comunioco Sacramentubare-
na ere bai; diño bada Escritura Sagradubac Mel-
quisedec onegatic, esquiñu eutsala (Sacrifizioan)
Jaungoicoari Oguia eta Ardaoa; zergatic zan bere
Sazerdotia; eta bendizinua bera eutsala Abran Pa-
triarcari, Abran bera, Escuiac arpiraturic, biurtu za-
nian victoriagaz bere Echera; eta Eliza Santuaren de-
gue escribidurieaco bigarren demporan David Ere-
gue eta Profeta santubac arguitasun guztizcoagaz
aiquetara emun eutsan, Melquisedec Sazerdote au
izan zala, Mundura etorri bianco eben gure Salvetza-
lle Jesu Divinoaren Ispillu izi bat; ara nola Espiri-
tu Santubaren arguitasunez beterie esaten deus-
cun Aita Eternoaren bera Seme maitiagarioco izcu-
rria: Juramentu eguin deutsa Jaunac (bere Semia-
ri) eta ez da damutuco: (esan deutsa) zu zara Sa-
zerdotia Melquisedec (Sazerdotiaren) ordenaren
ondorecua: orobat, Legue naturaleco demporiaren
azquenenutz Moises Profeta santubac Jaungoicoa-
ren aguinduz etara zitubanian bere Jentiac Faraon
Egiptoco Erreguiaren bendetic, beren Aita Abran
Patriarcari bere Jatorrientzat esquiniric eutsan,
ondowunez beterieaco Lurrera Juateco, zer irago
eutsan, Baso montubau gosez ill ez zitezen, aren
Divina Magestadiac gaizoro zeruetic bialqueian
elustan, Mana eritzon, Janari zuri eta gozoa zan,
oraiñ daucagun, Sacramentu Comunioaoaren Espi-
ritu ezinda arguiagoa eta erabaiagoa..

Etorri zan bada Jaunaren Seme au (au da)
Jesus Divinoa, Guizon, eta Melquisedec Sazerdo-
tiaren ordenaren ondoreco Sazerdote eguiñic, egui-
az eguitera, eta obraz ifintera bere Espusa Eliza San-

tan, aren Divina Magestadiac Legue graziazco dem-
pora onetaraco aiñ dempora urrinetatic eta aimbeste
modutara esquiniric eta aiquetara emunic eucan,
amoriozco Misterio miragarri, zoragarri, eta andi
oneic; eta nola Misterio santu oneic izango zirian gu-
re Errazoiaren ezaguperatic aiñ ezcutaubac, eta Ja-
ungoico baten poderio guztizco bacarraren Obrac, aur-
raz eta lenagotic emun eusten bere Diszipulubai eta
Apostolubai, eguiteco eta Eliza Santan ifinteco, go-
gua eucan, Misterio santu onein barri guztiz erabaguiac eta aguiriac, ala Jaquinian egon zitezen aurraz, eta eguiteco eta ifinteco demporan batere icararic eguin ez eguien, baizican eguiaz eta biotzetic sinistu eguien aiñ miragarri andico gauza oneic; ara nola, Aisquidia, Jesus Divino onec bein batian esan eusten bere Diszipulubai, eta, entzuten egozen, beste Judegu ascori; San Juanen Evangelioan iracurten dan
~leguez: ni naiz vizitzaco Oguia. Zuben Gurasuac de-
~siertuban Jan euben Mana, eta ill zirian. Au da Zerutic datorren Oguia; emendic Jan badagui batec, ill ez dedin. Ni
~naiz, Zerutic Jaachi naizan, Ogui vizia. Bardin ba-
~tec Jan badagui Ogui onetatic, vizico da betico; eta, nic
~emungo dodan, Oguia da nire Araguia Mundubaren
~vizitzaraco. Au entzunic, Judegubac beren artian ezin
~ondo alcar artu euben, esaten eubela: ¿nola onec emun
~daique guri bere Araguia, Jaateco? esan eusten bada
~Jesusec: eguiaz esaten deutsubet; Jan ez badaguizube
~Guizonaren Semiaren Araguia, eta edan ez badagui-
~zube bere Odola, ez dozube euquico vizitzaric zube-
~caz. Nire Araguia Jaten dabenac, eta nire Odola eda-
~aten dabenac dauca betico vizitza; eta nic viztuco dot
~azquenengo egunian; zergatic nire Araguia eguiaz da
~Janaria, eta nire Odola eguiaz da edaria. Nire Ara-
~guia Jaaten dabena, eta nire Odola edaaten dabena da-
~go nigan, eta ni beragan. Bialdu ninduban leguez, vizi
~dan, Aitac, eta ni Aitiagan vizi naizan (antzera) orobat
~ere ni Jaaten nabena vizico da bera ere nigatic. Ogui au
~Jaten dabena vizico da betico: ezin, Aisquidia, aren Divi-
na Magestadiac bere vizitzan emun eiquian aurraz eta alde guztietara barri artezagoric, ezin ere itzi eiquian erabaguiago,

vizitzaren azquenerutz eguiteco, eta Eliza Santan ifiniric izteco, goguan eucan, Misterio miragarri onein gañeco egui santuba: onela Jaunaren Seme, eta Melquisedec eguiazco Sazerdote onec bere azquenengo Afari santuban eguiaz eguin zituban, eta itzi zituban ifiniric Eliza Santan, ain dempora urrinetatic eta aimbeste modutara esquiniric eucan, etaberac, emen vizi zala, ain erabaguiric aurraz esan zituban, Misterio andi eta santu oneic, eun eta laroqueta amar garren ojaan esanic itzi deutsudan modura; eta ondoren esquini eutsan Curutzian bere Aitari gugatic Odolezco Sacrifizioa, Redenzinocoa esaten deutsaguna.

~ Orainguiño esan deutsudanetic, Aisquidia, ~ erraz ezagutu daiquezu, zein miragarri andico Ja- ~ nari sendo eta gozoa dan Jesus Divinoa Sacramen- ~ tu Comunioco onetan, Animaco gose onagaz eta es- ~ tomango sendoagaz (au da) Jaungoicoaren grazian ~ dagozela, jaaten dauben, guztientzat; ez dauca bate- ~ re, zer ecusiric Corputzeco Janari mueta guztiacaz; ~ bada oneic, jaaten dirian guztian, datoza ucaqueta- ~ ra beren izatia, eta iragoten dira, jaaten dituban, Cor- ~ putzaren izatera; baña Comunioco Janari Divin onec, ~ bera ondo jaaten dauben, Anima guztiai ucatu era- ~ guiten deuste (esateco modura) beren izate guztia, ~ eta iragoten ditu bere izate Divinora, izten ditubala ~ eguinic beragaz bat, bere Espiritucuac, bere humore- ~ cuac, bere vorondatecuac, eta bere Esanguillac; guz- ~ tiz argalquetan deuste, eta illa leguez izten deuste pe- ~ caturaco, daucain, macurtasun guztia, eta izten ditu ~ guztiz sendoac eta indartsubac, Zeruraco vidiari ~ Jarraiquetaco; ez dago ez Munduban eta ez Zeruban ~ Janari Divino au baño senduagoric, eta, Zeruco vi- ~ diari errimetasun guztiagaz Jarraiquetaco, obeto ~ indartuco gaitubanic: Ho! guganaco amorioz zora- ~ turicaco Jaungoico baten Janaria! ¡Ho! Jesus Divino- ~ aren bere Aitaganaco obedienziatic sorturicaco Ja- ~ nari mirragarria, biurquetan eta emuten deuscuna ~ ugaritasun ascoz gueiagoagaz, gure lenengo Gura- ~ suac Paraisuan beren zori gaiztoco desobedienziaco ~ Janariagaz galdu eraguin euscuben, betico vizitza

~eta zorionecotasuna! bai, Aisquidia; Aingueruben
~Jabia eguin zan Guizonaren Janari, Guizona Janari
~onen videz eguin zedin Aingueru; Jaungoicoa eguin
~zan Guizon, Guizona Janari Divino onen videz eguin
~zedin (esateco modura) Jaungoico.

~ Janari Divino onen videz eta bitartez gure Eliza
~Ama Santa vizi da bere Esposo Jesu Christogaz ez-
~conduric, eta amorioz loturic; Martiri santubac eu-
~qui izan ditube gauza ezebezeztzat beren Martirioe-
~taco aiñ miñ garratzac eta andiac; Santu guztiac eguin
~dira Santu, beguiraquetan eutsaila Fede vizi bategaz
~Misterio santu onetan Jesus Divinoari, eta euracana-
~co bere amorio neurri bagacoari, gueldiquetan ziria-
~la eurac ere aren Divina Magestadiaganaco amorio
~viziaren su gozoagaz barrutic eta campotic izioric, be-
~ren neurri laburretatic urtenic, eta (esateco modura)
~aren Divina Magestadiagaz errime loturic eta bat egui-
~nic:; Ho! Sacramentu guztien gañeticua dan Sacramentu
~miragarrizco onen erru zoragarriac, amoriozco Ardao
~santubagaz bat orditurric izten daubenac! bai, Aisqui-
dia; au berau Sacramentu Comunioco onetan gaurco egu-
nian guertaquetan dana da, guertatuco ere da emen-
dic Mundubaren azquenerañoco Christaun eguiazco
guztiacaz: emen Jesus Divinoac, guztien Buru dala, ichas-
ten eta lotzen ditu beragana Christaunac, Maats orpo ba-
tec beragaz ondo ichaachiric, eta loturic daucan antzera
bere Adar berde guztiac, guztiacaz Corputz espiritu-
al eta santu bat eguiten dabela; nundic ere Apostolu
~San Pabloc esaten deuscu: zergatic Oguia bat bacarra
~dan, asco gara Corputz bacar bat, Ogui bacar oneta-
~tic jaaten dogun, guztioc: emen Jesus Divinoac aaztu era-
guiten deutsa Mundu onetaco ez bacarric gaitz eta at-
secabe mueta guztiac Christaun eguiazcoari, baita ere
bere Anima eta vizitza emengo ondasun eta atseguin-
tasun mueta guztiacaz batera, eta sartzen dau, beragaz
egoteco, gura vizi baten, esan eraguiten deutsala San
~Pablo Apostolubari leguez: gura dot Corputzetic urtetia,
~eta Christogaz egotia: zoragarrizco mesede onei eta gue-
iagori bada beguiraturic Sacramentu Comunioco onetan

Fede vizi bategaz San Agustin Elizaco Doctore Jaquin-
tsu eta andiac, bere neurritic urtenic leguez, esan eus-
~cun, Jaungoicoac, izanic guztiz poderosua, Jaquint-
~suba, eta ondar bagueco amorioa bera, ezin gueia-
~go eguin eta emun eiquegula, Sacramentu santu one-
~tan emun deuscuna, eta gugatic eguin dabena baño.

Gauza Jaquiña da Eliza Santan, Sacramentu
~miragarrizco onen Artzallac izan ditezquiala ba-
~carric, eguiaz batiaturic dagozen, Christaun Catolicu-
~ac, ala Guizacumiac, nola Emacumiac, Mundu one-
tan vizi diriala, Sacramentu Divinoa, baña, berari zor
dan, reverenzia guztizcoaren calte bague iraunsteco, ado-
~ria daucain bitarte guztian: esan dot: eguiaz batiatu-
~ric dagozen Christaun Catolicuac: ez, lenaz eguinic
egon oi dan, Sacramentu Divino au Christaun Catolico-
ac ez diranac artu ezin leiquialaco, artu artzeiarren;
bere Corputzeco Miembroarentzat leguez
~baizican zergatic aientzat bacarric, eta ez besterent-
~zat, ifinia dan, eta zergatic bere erru miragarriac
~ezin billatu daiquien batere sarreraric, Jesus Divi-
~noaganaco siniste eguiazcoa ez daucain, Personen
~biotzetan; onelacuai bada emutia Sacramentu Divino
~au, izango lizateque, Jesus maitiac bere Evangelioan
~eragozten deuscun gauza, Santuba Zacurrai emutia.

Eliza Santaren lenengo dempora aietan eta gue-
ruagocuetan ere bai Sacramentu Comunioco au emu-
ten zan, uso errazuazcuan sartzaca egozen, Aur
eguiaz batiatubai ere; Eliza Santaco Gurasuac, au
onela eguiteco, orduban euquico euben errazue onen
bat; baña ondorengo demporetan itzi eutsain, Aurrai
~Sacramentu au emutiari; eta Eliza Ama Santac berac
~Trentoco bere azquenengo Conzilio generalian eraba-
~gui euscun, onerian Aurrac ez daucaila batere premi-
~ñaric, Sacramentu Comunioco au artzeco; aspaldico
demporetatic ona bada daguan ezquero, Aurrai Co-
munioric ez emuteco, oituera, ezin iñorc urten dai-
que oituera santu onetatic bere buruz pecatu mor-
talaren azpian.

Comunio santuba artzeco demporan, Artzalliac
Corputzaren aldetic euqui biar daben, egoriac izan bi-
ar dau belaunico eta belaun biacaz, eta aimbat humil-

daderic eta devozinoric andienecoa, ifinten dabela bere Ocoz peian, eta aurrera bardin zerbait etaraten dabela, Comunio santuraco toquian artaraco egon oi dan, Zapi zuria, Sazerdotiaren escutic ustez uste bagaric sausico baliz, Zapian guelditquetaco Sacramentu santuba, Lurrera sausten itzi bagaric: orobat bere Jantziac izan biar dau, eun eta iruroqueta bederatzi garren osiaren asipenian, eta eun eta laroqueta amal au garren osiaren arpeguico azquenerutz eta bere astian esanic itzi deutsudan, moducuac: comulgaitaco demporia izan oi da egun sentitic asi eta eguardirañocua guichi gora bera, demporia, zeñian esan oi dirian Mezac: comunio santuba artzeco Toquia ere da (guero esango deutsudan leguez) Jaungoicoaren Templo edo Eche santuba, Christaun guztientzat bardin ideten dana, Meza santuba esateco eta Orazinoraco eguiña, eta emen ere, Sagrariva daguan, toquian, bardin batec entzuten daguan Mezan eguinicaco Sacramentuba gaz Comunio santuba artzen ez badau: au guztiau aiquetan da osasuna daucaila Carzelaren baten catigu ez dagozenaca; bada Gaiñoai eta Carzeletan catigu dagozenai emuten da Sacramentu au al dan moduric onenian, beguiraturic beti Jesus Divinoaren eta bere Esposa Eliza Santaren Legue eta Mandamentubai.

Oneic videz leguez, Aisquidia, onela aitaturic, esatera nuatzu, zer moduz guertatu biar garian Comunio santuraco ala Corputzaren aldetic nola Animiaren aldetic, eracutsiagaz batera, Sacramentu Divino onen gañian ala Jesus maitiac berac, nola bere Esposa Eliza Santac ifini deuscuben, Mandamentu santubac.

~ Jesu Christo gure Jaunac bada ifini euscun Sacramentu Comunioco onen gañian Mandamentu santu bi: bata da, Sacramentu Divino au artzeco, euqui daguien gure Animac beren sustentuba, eta vizitza graziazcoa, eta sustentu edo Janari Divino au bagaric illtera etorri ez ditezen, Corputzac beren Janari bagaric illtera datozen leguez: bigarrena da, Sacramentu Divino au artzen dogunian, artu daigula, estadu

graziazcuan gaozela, onetaraco aurraz confesino.
on baten videz Sacramentu Penitenziacua artzen do-
gula, ecusten dogun guztian guere biotzetan pecatu
mortalen bat, edo bere gañeco quezca errazuazcoren
bat; onela Jaungoicoagazco gure unioa Jesus Divino-
aren bitartez izan dedin eguiazcoa; ecusi eguizu,
eun eta ogueta zazpi garren ojiaren arpeguian eta osti-
an, eta eun eta iruroqueta amazortzi garren ojiaren os-
tian esanic itzi deutsu dana: oneic dira Jesus Divino-
aren aldetico Mandamentubac, Divinoac esaten deus-
tegunac, eta Comunioco Sacramentu onen gañian gor-
de biar ditugunac.

Eliza Santan gauza jaquina eta erabaguia da,
guztioc, illgo garian aurretic, gorde biar dogula Je-
sus Divinoaren lenengo Mandamentuba bere bigar-
rengo Mandamentubagaz batera, artzen dogula,
grazian gaozela, Sacramentu Divino au, albadogu,
eguiaz, eta, ezin badogu eguiaz, biotzagaz edo vo-
rondatiagaz, zeñari esaten deutsagun Comunio
espirituala; onela Jaun Divinoari ichachiric urten
daigun Mundu onetatic, eta Janari Divino eta guz-
tiz sendo onegaz indarturic igo daigun Jaungoico-
aren Zerubetaco Mendi eder eta goi artara; arga-
tic ere ordu onetan artzen dan, Sacramentu Comuni-
oco oni esaten deutsagu Viaticua, eta esan gura
dau, batec vidiari indar onacaz equiteco, artzen
daben, Janaria.

Jesus Divinoac ez bacarric ifini euscun bere
Mandamentu santu au ordu estu onetaraco, baita
ere, ordu onetatic campora guere vizitzan osasun
onian gaozen, demporetaraco; eta ala eriotzaco or-
dutic campora ere guere vizitzan eta osasunian
or amar amabi urtetic aurrera aurquiquetan ga-
ra, salvaitaco, premiña guztizcuaren azpian, Sa-
cramentu Divino au batzubetan artzeco, eta pre-
mina guztizco au itzi euscun Jesus maitiac bere
lenengo Mandamentu santu onetan; beinic bein one-
la aiquetan da Eliza Santan bere Esposo Jesus mai-
tiaren Mandamentu Divino au; eguia da; ez eus-

eun Jesus Divinuac erabaquita itzi, zer dempora-
tan comulgau biarco guiñian, baizican, ifiniric bere
Mandamentu santuba ala guere vizitzaraco nola
guere eriotzaco orduraco, beste gauza guztiac era-ba-
quitia Sacramentu Divino onen gañian, itzi eben bere
Esposa Eliza Santaren escuvidera eta vorondatera.

Aren Divina Magestadia bada Sacramentu
santu Communioco onetan erruzivitaco, aguinquetan
deusceun, Mandamentu santu au zeiñ estu ifini eus-
cun Jesus maitiac, salvauco baguinian, ecausi dozu,
Aisquidia, berreun garren ofiaren arpeguian; baita ere
ofa artan bertan entzuten deutsazu Jesus maitiaries-a-
~ten alde batetic [illegible]: Jan ez badagaizube Guizona-
~ren Semiaren Aragui, eta edan ez badaguizube be-
~re Odola, ez dozube euquico vizitzaric zubecaz: eta
~bestetic esaten: ni naiz Zerutic jaachinaizan Ogui-
~vizia: batec jan badagui Ogui onetatic, vizico da be-
~tico: eta orobat azquenerutz: ni jaaten nabena, vizico
~da bera ere nigatic: eta: Ogui au jaaten dabena vizico
~da betico: ecausi dozu ere eun eta laroqueta amargar-
ren ofiaren arpeguian eta ostian, nola Jesus maitiac
~berac ere Afari santu artan egozenai emun eusten jaa-
~ten ebere Corputz Sagradubaren Sacramentuba, bai-
~ta ere edaten bere Odol maitagarrizcuaren Sacramen-
~tuba; eta onela Christaurac lenengo dempora aietan
asi ziran comulgaitan, izatian batera dabozen, Sa-
cramentu biacaz, eta oituera santu onec iraun eben
Eliza Santan arte ascoetan: Eliza Santac, ecusiric Je-
sus maitiac eraqui eben, verba eguiteco, moduba, ifi-
ni ebenian, salvautaco, guztiz premiñacotzat, bera Co-
munioco Sacramentuban artzeco, Mandamentu au,
alde batetic aguinquetan ebela artzeia bere Corput-
zeco Sacramentubagaz gañera bere Odol maitagarriz-
cuaren Sacramentuba ere, eta beste aldetic esquin-
teh ebela betico vizitza, bere Aragui edo Corputza
jaaten ebenaric, bere Odol maitagarria aotan artu baga-
~ric, Eliza Santac (diñot) ecusiric au onela esana, eta
~Jesus maitiaren Espiritu equiaxcoac eracutsiric, lenengo-

~tic beti bardin eta errime sinistu izan dau, comul-
~gaitaco daucagun Mandamentu au ala bere Cor-
~putz sagraduco Sacramentubagaz nola bere Odol
~maitagarrizcuarenagaz bacarric aiquetan dala,
~eta aitu biar dala, Meza esaten dauben, Sazerdo-
~tientzat, eta ala oneintzat, Mezatic campora co-
~mulgaitan dirianian, nola beste Christaun mueta
~guztientzat, Mandamentu Divino au ondo gorde-
~taco, asco dala comulgaitia Jesus maitiaren Cor-
~putzeco Sacramentubagaz bacarric, izanic Fede
~santuco egui erabaguia, Sacramentu bietatic edo-
~zeñegaz bat comulgau dedilla, artzen dabela Jesu
~Christo gure Jauna, bera dan, guztia.

Onela comulgaitaco oituera au orduban santu-
ba bazan ere, nola ez zan premiñazcua, baizican vo-
rondatezco gauza, Christaunac, ecusiric errazue onen
batzubec, etorri zirian comulgaitara bacarric Je-
sus Divinoaren Corputzeco Sacramentubagaz, zeña
dan guztientzat comulgaitaco moduric erosuena; eta
itzi eutsain comulgaitiari bere Odol maitagarrizcoa-
ren Sacramentubagaz: au da, Eliza Santan aspaldi-
co demporetatic ona daguan, comulgaitaco, oituera eta
~moduba; eta Eliza Santac berac Frentoco bere azque-
~nengo Conzilio generalian erabagui eben, Oituera au
~gorde zedilla aurrera ere Leguetzat Christaunen
~artian, eta ez eguiala iñorc urten bere buruz Legue
~onetatic Eliza Santaren beraren escuvide barri baga-
~ric: eguia da; izan zirian batzubec, Conzilio santu
~onetan eguin eubenac, Christaunen lenengo oituera, co-
~mulgaitaco, berriro viztu edo barriztau zedin, esca-
~vidia; baña, Conzilio santu artan aurquitu zirian,
~Obispo Jaun Eliza Santaco Gurasuac itzi euben, es-
~cavide au erabaguitia, Aita Santu Erromacuaren
~escubetan, eta onec itzi eben comulgaitaco mudu
~edo oituera au, len eguan, moduban; verba guichitan
aiquetara emutiarren: Sazerdotiac, Meza esaten dau-
ben guztian pecatu mortalaren azpian comulgau biar
daube Jesus Divinuaren ala Corputzeco nola Odol mai-
tagarrizco Sacramentubagaz: Sazerdotiac eurac Meza-

tic campora eta beste Christaun guztiac comulgaitan dirianian, comulgau biar daube pecatu mortalaren azpian bacarric Corputz Divinoaren Sacramentubagaz; au dalaco Eliza Santaren oituera, eta gordetaco, Leguetzat aguinduta daguana: onela comulgaubagaz nor naic gordetan dau ala bere vizitzan nola eriotzaco orduban, Jesus maitiac, comulgaitaco, ifini eben, bere lenengo Mandamentu Divino au: eta azquenic onela comulgaitan danac artzen dau Jesu Christo gure Jauna, bera dan, guztia; eta, betico vizitza anchiquetaco, premiña daben, grazia guichiago artzen ez dau Comunioco Sacramentutic, Odol maitagarrizcoaren Sacramentuba artu ezagatic.

Jesus maitiaren bigarren Mandamentu Divinoa da (esanic guelditu dan leguez) Sacramentu Divino au artzen dogunian, artu daigula, estadu graziazcuan gaozela, onetaraco aurraz Confesino on baten videz Sacramentu Penitenziacuan garbiquetan ditugula guere Animac, ecusten dogun guztian guere biotzetan pecatu mortalen bat, edo bere gañeco quezca errazuazcoren bat, izanagatic ere pecatu au, orduban bertan eguin daben, Confesino santuban aazturic eta bere culpa bagaric confesatzaca itziricaco, pecatuba; bada comulgau aurrian gogoraquetan bada pecatu onegaz, biurtu biar dau Confesoriagana, eta, confesauric eta Absoluzino santuba arturic, Juan biar dau ondoren comulgaitara; baña, pecatu onegaz gogoraquetia bada comulgau ezquero, ez dauca orduban bertan zer biurtu confesaitara, baizican au confesaitia itzi daique beste Confesino aldi bateraco: ecusi eguizu, eun eta iruroqueta seigarren ojiaren ostian azquenerutz, eta urrengaren arpeguian esanic itzi deutsudana: bai, Aisquidia, comunio santuba artuco dabenac onela guertatu biar dau aurraz bere Animia, eta onela guertatzaca comulgaitan bada bat, batere onic Comunio santutic anchitu ezagaz ostian etaraten ditu calte izugarriac; bada eguiten dau pecatu mortal bat, penitenzia eguiazcuaren gañian daucan, Mandamentu Divinoa ausiagaz, eta onegaz ostian gaizqui Sacramentu Divino au artubagaz eguiten dau Sacrile-

giozco beste pecatu mortal bat, San Pablo Aposto-
lubac aiquetara emuten deuscun leguez, Judas salt-
zalla madaricatubac eta Jesus maitiaren eriot-
za Guillac eguin zituben pecatubac duiñ icaraga-
rria, eta bardiña; eta, iraunsten daben Sacramen-
tubagaz batera, iraunsten dau betico condenazinoa
bere Burubarentzat.

~ Gauza jaquiña da, Aisquidia, Eliza Santan,
~ iru Comunio mueta ecusi oi diriala Christaunen
~ artian: lenengoa da donguia, (esan dodan leguez) guer-
tzaca daguan Christaunac artzen dabenian Sacra-
mentu Divino au bere zori gaiztoan: Ho! eta zeiñ bil-
dur andia daucadan, asco ete dirian onerian Comu-
nioa eguiten dauben Christaunac! ascoc, beren vizit-
za nasaiac eta Mundubac, ichuturic, iraunsten ete
dauben Janari Divino au batere ardura bagaric, bes-
tiac eguiten daubena, eguitiarren, eta, videz aoa za-
balic eta arnas estuca doian, batec, aidian dabilt-
zen, Elchuac bere arnasiagaz iraunsten dituban,
modura! alperric Christaunac artuco dau onela Co-
munio santuba, comulgaitaco, Mandamentubac es-
tuquetan dabenian, naiz dala Divinoa, naiz Eliza
Ama Santarena; ez dau gordetan, ausiten dau one-
rian Comunioagaz, eta leen aña zorretan gueldique-
tan da, aimbat lañterren erantzuteco Mandamentu-
bari, ondo guertaturic berriro comulgaubagaz: Ho!
eta zembat pecatu eta zeiñ icaragarriac eguiten di-
tuban Christaunac Comunio donga bategaz!

~ Bigarren Comunio mueta da ona; eta da, Jesus
Divinoaren bigarren Mandamentubac aguinque-
tan daben leguez, guertaturic Christaunac artzen
dabenian Sacramentu Divino au bere grazia santu-
bagaz batera, eta bere vizitza, edo zori on beticora-
~ co; eta, lenengo Comunioari bacarric eguiazcoa esa-
~ ten deutsagun leguez, batere grazia bagaric bacar-
ric Sacramentu Divinoa eguiaz artzen dabelaco be-
~ re zori gaiztoan, ala esaten deutsagu bigarren oni
~ Comunio eguiazcoa eta espirituala, edo biotzezcoa;
Sacramentu Divinoa eguiaz artubagaz ostian eta

batera artzeen dabelaco bere grazia santuba ere vi-
zitza eta zori on beticoraco: artzen daube bada, Ais-
quidia, Sacramentu Divino au ala Christaun dongac,
baña beren zori gaiztoan, nola Christaun onac baña
beren zori onian.

Jesus maitiac bere bigarren Mandamentu Divino
onetan aguinquetan daben leguez, Comunio santuba
artzen daben Christaunac jaaten dau Janari Divino
au bere Animaco Estomangu edo Sabela ondo dau-
cala; eta onela Sacramentu Divino onec bere grazia
santubagaz emuten deutsa Animaco sustentu guztiz
sendoa; baña, Aisquidia, nola Jesus Divinoaren gra-
ziac Sacramentu onetan neurri bagacuac dirian, ala
aimbat graziaric ugarienac anchitu gura dauban
Christaunac ez bacarric juan biar dau bere Anima-
co sabel onagaz (au da) ondo guertaturic, Jesus Divinoa Sa-
cramentu onetan errezivitara, baita ere juan biar
dau gose andiagaz (au da) bere biotzeco amoriozco
su andi eta humildiagaz beteric; ecusten dituzu
Aurrac, gose dirianian, zeiñ gogo sendoagaz artzen
dituben beren aoetan beren Amen Fiti burubac; zer
Ama ecusten dozu, bere Araguitic jaaten emuten be-
re Aurrai, guztiz maite izanagatic? ¿eta zeimbat
Ama ecusten ez dituzu, etaraten ditubenac beren
Aurrac Ynuntzara, ucaturic, Jaungoicoac aientzat
emuten deusten, sustentu ugaria? Ha! Guizonaga-
naco amorioz ichuturic zagozen Jesus Divinoa! zu
bacarric zara, zeure Araguia eta zarian guztia ja-
aten emuten deuscuzuna; jaateco aguinquetan de-
uscuzuna, baña ez nola nai, baizican amaitan zaitu-
gula, iñoren premiñaric ez daucazula, gu bagaric
ezin vizi bazindezquian leguez: Ho! Guizonaganaco
amorio neurriric ez daucana! Ho! amorioa Ama guz-
tien beren Aurracanaco amorioagaz gañeticua.

Animaco gose onagaz bada Janari Divino au jan
gura daben Christaunac, Aisquidia, onetaraco vide
errazagoric billatuco ez dau, Orazino Mental labur
bat eguitia baño, comunio santuba artu aurrian, consi-
deraitan dabela, nor eta zer dan bera, eta, nor eta zer dan

bere biotzeco Jertatuya datozenea, bere Jabe izateco
guzia sizi bategaz, Fede santubaren arguitasuna
dauzauen artian noz izan diteque consideracino
oneicaz gosetuco ez danic? ara Eliza Ama Santac
berac, Aisquidia, zer esaten deusten bere Minis-
tro Sazerdotiaren aotic, Communio santuba artzera,
datozenai, Sazerdote onec, arturic eta Jaunsonic be-
ren auzrian Sacramentu Divinoa, esaten deustenian:
ara Jaungoicoaren Bildotsa: ara Mundu co peca-
tubac quentzen ditubana: au esanic bein Sazerdo-
tiac artzen dau, comulgaitara datozen guztien Per-
sona; eta guztien eta bacoitzaren izenian erantzuten
deutsa, escubau daucan, Jesus Divinoari: Jauna, ez
dot merezi, sartu zaitian nire Echapean, bauzcan
aguindu eguzu bacarric ozz, eta izango da senda-
tuba nire Animia: eta, au onela erantzunic iru vi-
der, artzen dau bacoitzac ondoren Sacramentu Di-
vino au Sazerdotiaren escutic, Sazerdotiac bacoitza-
ri esaten deutsala artzeco demporan, berdizino la-
bur bat ezarriagaz batera: Jesu Christo gure Jau-
naren Corputzac gorde begui zure Animia betico
vizitzaraco. Amen: comulgauric guztiac, azquenian
Sazerdotiac Eliza Santauen izenian ezarten deuste
guztiai bere berdizinoa esanagaz batera: Jaungoi-
co guztiz poderosoaren Aitiaren eta Semiaren eta
Espiritu Santubaren bendizinoa jaachi bedi zuben
gañian, eta egon bedi beti. Amen: Sazerdotiaren lesen-
go verba santubac comulgaitara datozenai esaten
deustenac dira, San Juan Bautistac beragaz epoze-
nai esan eustenac aldi biz, ecusiric Jesus Divinoa,
bera eguian, beguiratz etorrela; argatic Santu glo-
rioso onen Imagina beti ifinten deuscube, escubatia-
an Bildots bat berari begira daucala, eta besteco
biatzagaz Bildots au eracusten daguala; eta comul-
gaitara datozen guztien eta bacoitzaren izenian Sa-
zerdotiac Jesus Sacramentubari esaten deutsoni
bigarren verbac dira, Evangelioco Soldadu Aquinta-
riac esan eutsoenac Jesus Divinoari, escatu eutsoe-
nian asarrua, ugaturic eucan, bere Corlabo batentzat,
entzunic aren Divina Magestadeari, erantzuten: neu
etorrico naiz eta sendatuco dot: eta Jesus Divinoac,

ecusiric Guizon au aiñ ezeberezturic bere aurrian eta aiñ siniste andicua, bertatic autortu eutsan bere Gaiñoa-rentzat, esque zan, osasuna, eta Gaiñoa eguan toquian ordu artan bertan guztiz sendaturic ecusi zan: Ho! nire Aisquidia; eta Soldadu Aquintari onec leguez comulgaita-ra datozenac ezebereztuco balitube beren burubac Jesus sacramentaubaren aurrian!

Orobat, Aisquidia, Jesus Divinoa Comunio san-tuban artu ondoren, zeure Buruba ucaturic aren Divina Magestadiagaz (esateco modura) amorioz bat eguinic gueldiquetaco, vide obiagoric eta erraza-goric ez daucazu Orazino Mental labur edo zerbait luziagoa eguitia baño; ecusi eguizu iruroqueta amaica-garren ojiaren ostian azquenerutz eta urrengoaren asi-penian esanic itzi deutsu dana; bai Aisquidia; onela Janari Divino onec guztiz sendaturic itzico zaitu, eta (gueiago dana) asia eta betia, baña goguan batere jo bagaric, eta bai aurrera Janari Divino onegana aim-bat sarrienetan etorteco zaleturic, pozturic, eta gosetu-ric: Ha! eta zein guichi onela izten dauben bat Mundu onetaco Janariac eta atseguintasunac! bada zembat eta batec gueiago anchiquetan dituban eta daucan, aim-bat gueiago goguan joten daube.

~Comunio Divinoa bada eta Sazerdotiaren bendi-zinoa arturic beguiratuco deutsazu zeure burubari, nor zarian, eta zer zarian, eta ondoren, zugana etorri dan, Jesus Divinoari, aazturic, eguin deutsazun, peca-tu eta esquer baguetasun guztiacaz; beguiratuco deutsazu zeure Burubari, Sagrario bat (obeto esatiar-ren) Zeru eder bat eguinic, inguraquetan zaitubela, zeure entrañetan dacusten, eta zugaz batera beren Ja-bia adoraitan dagozen, bere Ainguerubac, gura vizi bat daucaila, zu ere beren Lagun, eta aren Divina Ma-gestadiaren eurac leguez Servitzari leial bat izan zai-tian: itandu eguiozu Jesus Divinoari; Jauna; nigandic zer gura dau? zertara nigana etorri da? eta entzungo deutsazu erantzuten bere Evangelio santuban, ez naiz besteren esque zeure biotzaren baño: ez naiz etorri Lur-rera beste gauzatara, Guizonaren biotzera (amorioz-

≈eco) su gozoa bialquetara baño; eta zer gura dot bes-
≈te gauzaric, izio dedin baño? itzi eguiozu bada, Ais-
≈quidia, Jesus Divino ori izio daguian zeure biotzian
≈su gozo au; ez eguiozu alde eraguin su oneri gaz san-
≈tubari zeure buru iritzitasuneco eta arrotasuneco
≈aize indarrari eta atzagaz; ez eguiozu esquini zeu-
≈re biotza Goztaña arre bat eguinic, baizican humil-
≈dade santubagaz ondo toleztaurric; ez eguiozu ere
≈esquini zeure biotzari Mundu onetaco ondasuna-
≈canaco amoriosagaz eta vowndatezco pecatu venia-
≈len oituera zatarracaz ezetzuric, baizican guztiz gai-
≈tzuric, liortzuric, eta arindurric ezetasun mueta guztie-
≈tatic; eta ecusico dozu, zein zoratzuric gueldituco dan
~Jesus Divinoa zeure biotzagaz, eta zein errez iziaco
~dan zeure biotzian aren Divina Magestadiagana-
~co amoriozco su gozoaren gaz santuba; ecusico do-
~zu ere, zein biguna gozoa eta donosua dan Jesus Di-
~vinoa Sacramentu santu onetan, David Profeguc eta
~Profeta santubac aiñ ugurieco demporetatic aiquetara
~emuric itzi euscun leguez, eta San Pedro Apostolubac
~bere demporaco Christauin bazri batzubei eman euste
~leguez.

Gueiago; nola Sacramentu santu eguztiac diran
baren izatez señale batzubec, aiquetara emuten de-
~uscubenac ez bacoaric, emuten deuscuben grazia,
~baizican ere gogora ecarten deuscubenac, Jesus Di-
~noaren Cruzifize santuco eriotza, eta, Mundu onetatic
urreten daguenaco grazioren sozitzat esquinten
~deuscuben, betico vizitza Zerubetan; ala Sacramentu
santu Comunioco onec ez basoaric bere izatez, baita
ere Jesus Divinoaren ao sagradutic, berte Sacramen-
tu guztiac baño aquiziago eta indartzubago douca,
izu gauza oneic aiquetara emuten deuscun, señale
eder bat izatia; ecarten deuscu gogora Cruzifizco
eta
eriotza, aiquetara emuten deuscu, emuten deuscun,
grazia, eta, esquinten deuscun, Zerueco vizitza beti-
coa; ecusi eguizu cein eta laztasueta amorezaren
~ofiaren artian bere asieran, eta bezcain zarren ofia-
ren arpeguian esanic itzi deutzudana; ona emen
bada, Aisquidia, nun daucazun amorio andaz bagu
~oaren Poztez arquen bapaenac; itandu eguiozu-

-sus Divinoari comulgau ondoren; Jauna, zerc emun
-eraguin eutsun Curutzian aiñ miñ garratz eta lotsa-
-ri izugarrien erdian zeure vizitza? ¿zerc, Jauna, ze-
-ure Curutzeco eriotza au niri gogora ecarri eraguite-
-co, illgo ziñian aurretic eguin zeben, Testamentu san-
-tuban itzi eraguin eutsun ziñian guztia Comunioco
-Sacramentu miragarrizco onetan? Eta entzungo deu-
-tsazu erantzuten: Guizonari deutsadan amorioac ifi-
-ni ninduban ala nire vizitza emutera; eta iñorc ezin
-euqui daique, bestegatic bere vizitza emun eraguiten
-deutsan, amorioa baizen andiagoric; eta, ni naizan
-guztia, nire bildur santuban vizi dirianai, Janari emun
-eraguin eustan, amoria, Curutzeco mirarien gañeco
-gogorazinoraco, norañocua izango ete zan, zeuc asmau
-baño ez daucazu: bai, Aisquidia; au da Jesus Divino-
-ac erantzuten deutsuna; eta ez badaucazu bururic, as-
-maitaco, norañocua izan zan Jesus Divinoaren guga-
-naco amorioa Sacramentu onetan, San Agustin Eliza-
-co Doctore Jaquintsubac eta onegaz batera Eliza Santa
-guztiac diadarca eta aoa betian esango deutsube eun
-eta bat garren ojiaren osteco asieran esanic itzi deutsu-
-dana: Ho! Aisquidia; zure ordu orretan aurquitu baliz
Emacumetatic Jaio dan Santuric andiena San Juan Bau-
-tista, esan ebenian Jesus Divinoagatic: ez dot merezi be-
-re Oñetaco lotzaquiac ascaquetia! zu zagozen ordu
-orretan ecusi baleu bere buruba, zer esango ete eutsan
-Jesus Divinoari? zer bere Ama Ysabel Emacume santi-
-ac esango ete eutsan Jesus Divino oni, zure lecuban egon
-baliz, beragaz Aurdun zala Maria Santisima bere
-Echapeian ecusi ebenian, eta guztia eze berezturic
-esan ebenian; nundic niri aimbeste mesede zeinda ni-
-re Tabiaren Ama datorren nigana? zer, ecusi baleu bere
-entrañetan bere Animiaren Panari eguinic ez bere Tabia-
-ren Ama, baizican bere Tabia bera? Ha!

Aimbeste gura daben ezquero Jaun Divino onec,
Comunioco Sacramentubaren videz, guc gogora ecartia,
Curutzian eta arteraño gugatic eguin zituban, mirariac
guztiz ederquiro eguingo dozu, Aisquidia, comulgau
ondoren zerbait meditaitan badozu Curutzeco mirari

onein gañian, edo, aiquetara emuten deutsun, bere gra-
zia santubaren gañian, esaten deutsunian: zu nigan za-
goz, eta ni zugan: edo, esquinten deutsun, betico vizitza
zorionecoaren gañian, esaten deutsunian: vizico zara
betico eta nigatic; eta nic virtuco zaitut azquenengo egu-
nian: ¿Jauna, zer da Guizona, zuc aiñ zeure goguan eta
biotzian sarturic euquiteco? ¿ni zure iguesi Mundu-
co ondasunai eta nire gogo dongaco atseguintasu-
nai Jarraiquetiarren, eta zu, nire preminaric bate-
re ez daucazula, bacarric deustazun, neurri bagaco
amorioagatic nire ondoren eta nire billa, ni Zeruco
glorian zugaz batera eternidade guztian ondo ecustiarren?
ez bedi bada, Jauna, emendic aurrera eguin nigan
nic gura dodana, baizican zuc gura dozuna; eta one-
taraco, zure laguntasunaren premiña daucadan
leguez, sendatu naizu, Jantzi naizu, eta bete naizu
zeure Espiritu Divinoagaz; zeure Criatura guztia-
caz ete zeure Zanetaco Odolagaz erosi nauzu; za-
rian guztia emun deustazu Sacramentu Divino one-
tan; eta mesede oneic guztiocatic nic, Jauna, zer emun-
go deutsut edo esquinico deutsut? ona emen, Jauna,
daucadan guztia eta naizan guztia; sari onegaz eros-
ten nauzu; ez dacar bada errazoiac nic sari laburra-
guagaz zu erostia, izango bada zure eta nire arteco
saldu erosia (esateco modura) bardiña: onela bada
Aisquidia, comulgau ondoren zeure Orazino Mentala-
ri, deritzozunian, azquena emun aurrian ecusico
dozu, zer oituera dongac pecatu venialetacua izan-
agatic ere zeure Animan sustrairic gueien ezarri-
ric daucan; eta eguingo dozu, iruro gueta amabost
garren ojiaren arpeguian eta ostian esanic itzi deut-
sudan leguez:

Onela arturic Comunioco Sacramentu Divino au,
Aita Astetec esaten deutsu, Aisquidia, dala gure Ani-
men sustenturaco, eta grazia gueiquetaco; baña, nola,
aiñ miragarria dan, Sacramentu onen gañian aiñ ezagu-
pera laburrian izten gaituban, argatic zeure Anima-
co beguien aurrian ifini gura izan deutsut, Jesus mai-
tiac Sacramentu Divino onetan guganaco amorioaren

su gozoagaz izioric eracusten deuscun azquen baga-
co Bazterretatic, Bazter pusquin batzubec, ala zuc ere
jaquin daguizun, inguraquetan, gura dozun eta aldozun
gara, Bazter santu oneic, nundic zeure biotza izio dai-
quezun Jesus Divinoaren amoriozco su gozoagaz, jaqui-
nic, beti labur guelditucо zariala, eta eziñ beñere etorri-
co zariala, amaitara Jesus Divinoa, berac amaitan zai-
tuban gara; ecusi eguizu, iruroqueta amairu garren
ojiaren ostian azquenerutz eta urrengoan su gozo, eder,
eta argui onen gañian esanic itzi deutsudana; eta zeu-
re biotzeco nasaitasun aimbat andienagaz eguin egui-
zu, an eracusten deutsudan leguez; ariñ eta estu za-
biltzela Bazter santu oneic inguraquetan, guertatu ezde-
quizun, zeure beguien aurrian, eta biar bada zeure
escu artian daucazun, gauza ezin ecusiric, eta ezin
billaturic ibiltia; eta bardin Jesus Divinoac atzeratuco ba-
leutsu zeure biotzetic noiz baitzubetan su gozo eta argui
au, naiz dala, zu noraño zarian, ecustiarren, ascotan egui-
ten daquian leguez, naiz dala zeure ardura baguetasun-
en bategatic, ez deutsazu orregatic iñolaco moduz, comul-
gau ondorengo Orazino mental santu oni itzi biar, zeu-
re Confesore jaquintsubaren iritzi bague; ez deutsa-
zu ere iñolaco moduz lecu emun biar zeure biotzeco
estutasuneri beñere, beñere, eta beñere; ecusi eguizu
iruroqueta amabost garren ojiaren ostian esanic itzi dut-
sudana.

Asco Christaun, Aisquidia, ecusi oi dira, Confe-
soriaren oñetatic corrica, edo Paternoster edo Ave Ma-
riaren batzubec iraunt siric aimbat ariñen eta lasterren, Comunio
Divinoaren billa duazenac, eta orobat Comunio santu-
ba arturic Jaungoicoaren Eche santutic urteten daube-
nac beriala, Comunioa emun daben Sazerdotiaren az-
quenengo bendizino santuba artzeco asti bagaric; Ha!
Christaunen ichutasun edo esquer baguetasun izugarrid.
ez zaite zu, Aisquidia, iñoizco demporan onerianetati-
cua izan; eta aiñ esquer bagueco Christauna; bada au
da Fede santubaren arguitasunagaz vizi dirianen
artian begui onacaz ecusi ezin ditequian zatarqueri-
aric alditequian andiena, Christaunac onela eguiteco
errazue onen bat ez daucan bitartian.

Beste Christaun batzubec ecusi oi dira, uste daubenac, pecatu andiren bat eguiten daubela, comunio santuba artu ondoren aoco chuba botiagaz baruba ausi baño lenago; baña onela uste dauben guztiac erdi erditic uts eguiten daube; ez dago batere pecaturic, Mandamentu edo Legueren bat aüsiten ez dan bitartian; eta Eliza Santan ez dago Legue edo Mandamenturic, comulgau ondoren aoco loia baruba ausi baño lenago campora botatia, eragozten deuscunic: eguia da; norc naic ezaguquetan dau, gauza ona dana, Jaun Divinoa arturic andic ordu lauren batian churic ez botatia, Sacramentu Divinoari zor deutsagun, reverenzia guztizcoagatic, aren puscaren bat iraunts bagaric aoan gueldituric balego, chubagaz batera Lurrera jausi ez dedin: Ha! Mari Gargajuen escriupulubac! eta zeiñ obeto eguingo leuquien onerian Christaunac, Comunio santuba artu aurrian eta artu ondoren egongo balira dempora pusquin batian Orazino Mentalian, esanic itzi dodan leguez, naastu bagaric beren Animac ezeberezqueriaco Amaraun oneicaz: ea bada, Aisqudia, zuc ez eguizu batere quezcaric artu, batere pecatu ez dirian, ezeberezqueria onerianacaz; baizican (esanic itzi deutsudan leguez) ala Comunio santuba artu aurrian nola artu ondoren Orazino Mental santu onen bitartez erabagui eguizu zeure biotz (au da) vorondate guztia Jesus Divinoaren vorondate santura, anchitu daguizun, neurri bagacuac dirian, Sacramentu miragarrizco onen mesedetatic aimbat mesederic ugarienac.

Comulgau aurrian eta comulgau ondoren Orazino Mental labur baten bitartez onela Christaunac ez erabaguitetic beren vorondate guztia Jesus Sacramentaubaren vorondate guztizcora sortzen da ascoren vizitza epel eta Christaunen artian aiñ lotsagarria dana; urteten daube Comunio santutic, daucaila beren biotzac leen duiñ ichachiac beren oituera zatarretara, pozturic, Ynfernura bat botateco garaco pecatu mortalac ez dirian, ustiagaz: Ha! zeimbat onelaco dagoza gaurco egunian, nola soñu ala

dañza eguiten daubenac! Parroquian Seminarioac deiautsa, ara duaza: Atabal, Dambolinac, Mutil eta Neska pillac otsa daube, çorrica duaza esnacaña: Jai eguin andiren bat danian esaten daube: gaur eguin andia da, confesaubagaz eta comulgaubagaz Indulgenziac irabazi biar ditugu: iñorc zatarque-riaren bat esan edo eguin badeuste, ezin zuzendu dira, axi parcaquetaco, eta bai beti errazuez beteric dabiltza, beste aimbertegaz edo gueiagogaz beraii ere erantzuteco: Faberrara eta Çirondara iñorc otz eguiten deuste; ara duaza, eta urlia eta bezperdia Mutil esnatsu norañó diiian ecusteco neurriagaz eta gogoagaz: zerbait billaquetan badaube, iñor beguira ez daquala, berentzat jaunsten daube; gueiago ez billaquetia, damu: ecusten baditube, beste batzubec dabiltzela esnac baño aguiriago edo esnac duiñaguiri, Gaztaña asko batzubec eguiñic ez daucai baquerric beren ezpiracaz, aien neurria igo, edo aien neurria iraago artian: daucain zerrai erantzuteco ez neurriric eta ez gogoric artzen daube: anega bico zacuba beti beteric darabilde sorondatezco guizonacaz, batez ere, baquiaren amoriogatic esan oi ditube, guizon santubacaz; eta euqui oi ditube guizon onenac aimbat santubagotzat, zembat iguiñago dauben, beren gañian ecusten lengoarrengo, seigarrengo, edo zazpigarrengo Mandamentu santuba. Ai! ez zan Jesus Divinoa etorri Mundura, baque muneta au ifintera, baizican desequinquetara: beren burubac Picheleta batzubec eguinic, berentzat adoraazino billa dabiltzen legez, Sacramentu Divino onen aurretic iragoten dixionian, guztiz auiñ duaza, beren burubetaco auze otsoac egonaz daroiela, Jesus Divinoari beguiraquetaco, eta berenbelaunac Luzeraño macurquetaco asti bagaric, beren belaunai icasa ichuri bat eraguiñagaz bacarric, aurco balizlegez, Amacume gazte, moduzco, eta buru eutzi bat izatia, ucaquetaco Jesus Divinoari Sacramentu miragarrizco onetan. Fede santubac errazoiac berac, eta Aliza Ama Santac guztiai aguinguetan deusceuben, adoraitacs modubu: beti danic beren ogetatic Diabrubu, Demo-

niza, Caquia, Zapua, Pestia, eta, iñorenlotsaniraco diriran, beste onenan esaera asco, beti beren aserriac beren biotzetaco ontzitic gañez eguiten deustela, Atzo ipuineco gauza balizan leguez, Christain bacoitzac bere eguneroco Cuzutzia pazienzia santubagaz Jesus Divinoaren izenian errotia, Zerura fiatia gura badau; eta, gueiago dana, onenian gauzacatic escrupulo guichi eguin oi daube, eta aleguin guichiago, eitzera zatar onea alde batera izteco: onelacoac bada, Atsquidia, diza epelac; edagoza edo pecatu mortalian, edo, pecatu mortalian lauzter jauzteco, vidian; daucai Comunio santuco Janari Divino au indar guichico Janaritzat, eta azquenic dator, pecatu mortalian Comunio Divinoa artzera, eta onegatic ascotan gaiso quetara, eta demporabaño leen illtera, San Pablo Apostoluba Corintiarrai arpeguian errun euzten modubau, beren artian gaisoquetan eta illten zirian, ascogatic; zer beste mesederic anchitu aldaiquic Comunio santu onetatic Arimea dollor, zeguen, eta esquez bagueco oneic?

Grabaguiten baditugu bazniz comulgau auzkian eta ondoren Orazino Mental labur baten videz guezen voronda tiac Jesus Divinoaren voronda te guztizcoa, eguiaz eta biotzetic gozoto izango deustegu ala vizitza epel oni, nola, emendic sortzen dirian, voronda tezco pecatu mueta guztiai, chiquinac edo venialac izanagatic ere; bada ala deuste gozoto Jesus Divinoac bezac: oneic bai, Atsquidia, diñola Jesus maitiaren gogoco Arimac, estomangu onagaz eta gose andiagaz guertatubac, ala Janari Divino au artzeco, nola arturic bere neurri bagueco indarrac guztiz sendatubac, indartubac, aziac, eta betiac urteteco, babere goguan jo bagaric, eta, gueiago dana, ainbat sarrienetan Janari Divino onen billa biurquetaco poztuzic; Arima onelacoetan, bai, daquiala Jesus Divinoau, bere amoriozco su gozo, bigun, eta argui, bat bere neurritic campora eta orditurik leguez, baña bere, zintzotasuna gueiturik, izten daquiana, izaten.

Grabaguidaigun bada, Atsquidia, comulgau auzkian eta ondoren onela gueren voronda tiac Jesus Divinoaren voronda te guztizcoa, ucaturic guerien zatar

queria guztiac; zergatic onela erabagui ezquero gueren vorondatiac, aren Divina Magestadia Comunioco Sacramentu miragarrizco onetan da gure Animen sustenturaco, eta grazia gueiquetaco; da bere Adisquidien Janari sendoa, eta Lurrian eta Zeruban billatu alditezquian Janari mueta guztietatic senduena; da gure Animen vizitza beticoa; da amoriozco Vztarri biguna, beragaz loturic euquico gaitubana, eguiten gaitubala bere Esposa eta Corputz espiritualaren (au da) gure Eliza Ama Santaren Miembro viziac, bata bestiaren eta bere Senide maitiac, eta bere Aita Jaungoicoaren Seme biotzecuac; da, gure Anima gozagai (au da) berez gozagac dirianai ondo oraturic daguan, Mentu Divinoa eta miragarrizcoa; da, gu, virtute santubetaco frutu miragarriac emun eragui[redacted]beco, Maats adar eder batzuben antzera, berari errime ichachiric gaucan, Maats Orpo Divinoa; da azquenic amoriozco subagaz beti izioric daguan Labe goria, gure biotzac, Lurrera bialquetara etorri zan, amoriozco su gozo onegaz izioric eta gorituric izten ditubana: bai, Aisquidia; onela egongo gara Jesus maitiagan eta bera gugan; Jantzico gara (San Pablo Apostolubac esaten deuscun eta gura daben leguez) Jesu Christogaz Soñeco bategaz leguez; euquico dogu bere Espirituba; izango gara beragaz bat (esateco modura) Arguizai zati bi, ontzi baten eta batera urtzen dirianian, bat izatera datozen antzera; izango gara bere Esanguilla humildiac, bere vorondatecuac, eta bere humore Divinocuac; eta azquenic Mundubaren azquenengo egunian Jesus Divino onec beronec viztuco gaitu, eta beragaz batera, eta, guztien Buru dala, sartuco gaitu Corputz eta Anima bere Aita Jaungoicoaren betico Glorian.

Eliza Santan Christaunen artian ecusi ai dan irugarren Comunio mueta da Comunio espirituala esaten deutsaguna: Comunio espiritual au ez da beste gauzaric; baizican, batec bere Espirituco entendimentubagaz, eta vorondatiagaz bacarric eguiten daben, Comunioa, Sacramentu Divinoa bera artu bagaric; ara nola; biztzen dau baten bere biotzian aldaben gogoric sendo-

ena, Jesus maitia Sacramentu Comunioco onetan errezivitaco, guertaquetan deutsa bere Animaco Ostatuba beraganaco aldaben humildaderic eta amorioric andienagaz; Sacramentuba, eguiaz artubagaric, biotzeco goguagaz bacarric artzen dau, eta, eguiaz artu baleu leguez, beguiraquetan deutsa Jesus Divinoari bere Animaco Ostatuban, erabaguiten dabela (bigarren Comunio muetaren gañian esan dodan leguez) bere biotz guztia Jesus Divinoaren vorondate guztizcora: au da bada, Aisquidia, Comunio espirituala eguitia.

Comunio espiritual au ondo eguinic da Jesus Divinoaren aurrian gauza bat guztiz ederra, zeñaren bitartez, Sacramentuba bera eguiaz arturic, batec, izango leuquian, Sacramentubaren graziaric anchiquetan ez badau ere, irabazten ditu aren Divina Magestadiaren aurrian Zeruco Gloriaraco merezimentu guztiz andiac; sendaquetan dau bere biotza Fedian, Esperanzan, eta Caridadian, Humildadian eta beste virtute santu guztietan, eta illic leguez izten dau, pecaturaco daucan, macurtasuna: gueiago; noberaren culpa bagaco ezinen batec eragotzico baleutsa bateri, Sacramentu Divino au artzeia, Mandamentu naiz Divinuac, naiz Eliza Ama Santarenac aguinquetan deutsanian, ez dago orduban bertan vide obiagoric, Mandamentubaren aguinduba eguiteco, Comunio espiritual ondo eguin bat baño comunio eguiazco eta espiritualaren ordian; bata ezin badau, bestia.

Christaunac gueien eguiten daquie Comunio espiritual au, Meza santuba entzuten dagozela, Sazerdotiac Comunio santuba artzen dabenian; bada Meza santuba aimbat onduen entzuteco, eta bere erru miragarriac aimbat ugarien anchiquetaco vide obiagoric ez dago, eguiaz comulgaitia baño, Meza esaten daben, Sazerdotiaren escutic, Eliza Ama Santac gura daben leguez, edo, au ezin badaube,

Comunio espiritual bat ondo eguitia baño, eurac entzuten dagozen, Meza esaten daben, Sazerdotia comulgaitan demporan; esan deutsut, Aisquidia, eun eta laroqueta amabost garren ofiaren arpeguian eta bere asiaren asiperian, zer moduz entzun biar dan Meza santuba; queitu eguiozu bada modu ari, Meza entzuten zagozenian, Comunio espiritual au, errazue onen batec eragozten deutsun guztian, Meza artan eguiaz comulgaitia, gauco eguinian errazue guztiz ascoc eragotzi deiquezuben leguez, Eliza Ama Santac biotzetic gura badau ere, Meza santuba entzuten dagozen, guztiac eguiaz comulgau ditezen Meza artan bertan, esaten daguan Sazerdotiaren esautic eta bera comulgau ondoren: eta, onela entzuten dozun, Meza, Comunio santu bata edo bestia eguiragaz, izango da guztiz ederquiro entzuna; eta Meza entzuten dauben guztian, Christaunac onela entzun biar leuquie Meza, Comunio santu bata edo bestia eguiten daubela, eta ez beste moduz.

Esan deutsut, Eliza Ama Santac biotzetic gura dabela, Meza entzuten dagozen Christaun guztiac Meza artan bertan eguiaz Comunio santuco Sacramentuba artzeia; baña au aitu biar da, eta aiquetan da, Meza entzuten dagozenai errazue onen batec eragozten ez badeuste, Meza artan comulgaitia; bada Eliza Ama Santac berac ere ez dau gura, Christaunac comulgau ditezen, Meza entzuten dauben guztian, onexian errazue onen bat egon ezquero, ez comulgaitaco: bai, Aisquidia, au ala da.

Eguneco Comunioco Sacramentu Divino au artzeia ez da Christaun guztientzat, guragatic ere, eguneco comulgaitia; au noberaren Confesore artu eta aditubac, ecusiric bere estaduba, bizi moduba, eta espirituba, erabagui biar deutsan, gauza da: guziaga; batec, Sacramentu Divino au artzen daben, eguinian ezin precatu mortalaren arpian bigarren aldian artu leique, Sazerdotiac iru Meza esan dauquien eguinian izanagatic ere; au ere Eliza Santan gauza saquiña

da; oraiñ; bardin, devozinoz eta ustez osasun onian
Comunio Divinoa artu daben, egunian bateri etorrico
ballaco ill biarra, alaco uste bagaric eguala, Guizon
Jaquintsubac, ecusi agatic Jesus maitiaren Manda-
mentu Divinoa, ordu onetan Sacramentu Divino au
Viatico modura artzeia, Christaun guztiai aguinque-
tan deustena, ez dagoza guztiac batian beren iritzi-
etan, artu ete daiquian edo ez onerian Christaunac
bigarren aldian egun artan Sacramentu santu au,
eta orobat ete daucan edo ez onerian Christaunac,
egun artan bigarren aldiz comulgaitaco, premina-
ric, Mandamentu Divinoac ordu artan comulgai-
taco guztioi aguinquetan deuscun ezquero; onen ga-
ñian bada ez dagoza Guizon Jaquintsubac baten; ba-
tec batera eracusten edau eta bestiac bestera; eta ala Ais-
quidia, zuc eta zulaco Jaquinduria bagueco Chris-
taunac onelaco orduren baten aurquituco bazinai,
eguin biar dozubena da, ichu ichuban eguitia, zeu-
ben Confesore aditubac edo Erretore Jaunac esa-
ten deutsubena; argatic ere, Aisquidia, Christaun
on ascoc comulgaitan dirian guztian, artzen dau-
be Sacramentu Divino au, Viatico santutzat izan
dequien, asmuagaz, gueiagoco bagaric aren Divi-
na Magestadiac ots eguiten badeuste egun artan
bere Tribunale santura: gueiago; berreun eta bigarren
ojiaren arpeguian esanic itzi deutsudan leguez Co-
munio santuba emun oi da bacarric, guztientzat
bardin ideten dirian, Jaungoicoaren Templo edo
Eche santubetan; eta ecusten dozu, nola albo Her-
mita edo Parroquia labur batzubecaz ostiango bes-
te guztietan gaurco egunian dagozen Altara as-
co, eta, oneitan Meza esaten dauben, Sazerdote as-
co, eta onegaz gañera beren Sagrarioac eta Sacra-
mentu Divino onenesque datozen guztiai emuteco
premiña dirian gauza guztiacaz guertaturicaco
Foqui erabaguiac; gauza Jaquina da bada; zeresa-
nac eta begui luzetasunac sortuco liratequiala Eli-

za Santan, bardin aimbeste Sazerdotec, Meza esaten dauben guztian, eta Altara guztietan Comunio santuba emun biar baleube, Meza entzuten, dagozenai, batez ere, Persona aguirien batzubei onela Comunio santuba emunic, beste batzubei esango ballate: ~zuaxte Sagrariora, eta an bertiacaz bateza comul~gauco zarai: bai, Aisquidia; Eliza Santan aldeonetatic sarritan sortu izan dira zer esanac, beguiluzetasunac, eta erroidubac; eta onelaco demporetan Obispo Jaunac, baquia ifinteco, artu izan dauben, vidiada, guztiac bardin eguitia, bioldubagaz guztiac Sagrariora Comunio santuba artzera, eta eragotziagaz Sazerdotiai, Sagrarioco Altaratic campora Meza esaten dauben, beste edozein Altaratan Comunio santuba emutia, Meza entzuten, dagozenai, onela Comunio santuba emutia ez dan guztian albo Lurritetan edo Parroquia labirretan, nun gueien bat egon oi dirian [redacted] Altara bat edo bi, eta Sazerdote bat bacarra, Meza esateco; eta argatic ezin oneitan sortu ditezque zer esan onezianic: orra, Aisquidia, zembat errazue on daucan Christaun bacoitzac, ez artzeco eguiaz Sacramentu Divino au, Meza entzuten daben guztian, eta bai bacarric eguiteco bere Comunio espiritua la Meza santuba entzuten daben bacoitzian; zergatic Christaun bacoitzac eguneroco entzun daique bere Meza santuba naiz bat, naiz bi, au, edo gueiago, ezia euqui ezquero, eta, bacoitzari bere Listadubac eta Ofizioac aguinquietan deutsain, langueien calte bagaric dirianian; orobat eguin daique bere Comunio espiritual au, baru naturalian egon ezagatic, egun guztietan noiz gura eta zembat bider gura; ezin barriz Sacramentu Divino au, iñoleco modurik artu daique eguiaz Christaun bacoitzac aimbeste vider, zembat vider entzun daiquian Meza santuba, eta eguin daiquian bere Comunio espirituala: oneic onela esanic, guazen orain, zerbait esatera, Eliza Ama Santac ifinitic daucan, Mandamentu santuben gañian.

Eliza Ama Santac bada, Aisquidia, Sacramentu Divino onen gañian emunic daucan, Legue edo Mandamentu santu guztien artian bi bacarrac dira, gaurco egunian guretzat aurrenengotzat ezaguquetan dirianac, eta pecatu mortalaren azpian gorde biar ditugunac: lenengo Mandamentuba da, aguinquetan deuscuna, comulgaitan garian guztian, Sacramentu Divino au artzeia, Corputzaren aldetic baru naturalian gaozela; baña Mandamentu au ez da aiquetan, Jaun Divinoa Viatico modura artu oi dogun, ordubetaraco; egunac eta gabac daucain edozein demporetan anchitu gaiala ordu onec, Sacramentu Divino au Viaticotzat artu biar dogu, baru naturalian egon ezagatic, eta (queiago dana) Jaun Divinoa artu aurrian eta artu ondoren Corputzeco osasuneraco edo vizitza luzaquetaco dirian, Janariai edo Edariai itzi bagaric.

Baru naturala, derautsadan, gauzan da, lenagoco gaberditic comulgau arteraño ez irauntsitia gauzaric dan chiquinenic naiz Janariaren naiz edariaren modura; eta ala ausiten dau batec baru natural au, dempora bitarte onetan edozein gauza irauntsiagaz Janari edo edari modura, alditequian guichien izanagatic, eta, irauntsiten dana, Janari edo edari gauzia izan ezagatic ere, irauntsite au vorondatezcoa dan guztian; baña, bardin bateri, berac gura ez dabela, campotico gauzaren bat eztarrira sartuco ballaco, eta irauntsico baleu, besteric ezin dabelaco, onelacuac ez deutsa orregatic itzi biar bere buruz Comunio santuba artzeiari, baizican esan biar deutsa bere Confesoriari, zer modutan aurquiquetan dan, eta ichu ichuban eguin biar dau Confesoriac esaten deutsana, alde onetatic bere biotzeco batere quezca bagaric Comunio santuba artzen dabela, Confesoriac, artu daiquiala, esaten badeutsa.

Jesus maitiac, Janic bere Diszipulubacaz batera, Judeguben Leguian, urteoro Jateco Familietaco Burubac beren Familiacaz batera, aguinduric eguan urte barruco Bildots Aria (au zan Judeguben Pazcuaco Bildotsa, eta Jesus ala crucificaubaren nola Sacramentaubaren Ispillu vizia) Janic bada onela Judeguben Pazcuaco Bildots au onetaraco aguinduric egozen zeremonia mueta guztiac gordiagaz; eta emunic onegaz gañera gau artan bere

Diszipulubai bestetaco Afari errazuazco bat, azquenerutz artu zituban bere escu guztiz poderosoetan. Ogia eta Ardaoa, eta, consagraturic, eun eta laroqueta amar garren ofar esaten dodan leguez, comulgau zituban bere Diszipulubac; aguirian dago bada, Comunioco Sacramentu Divino au artu eubela Apostolubac lenengo artava Jesus maitiaren escutic, afaldu ezquero, eta arratic bazu naturalian, eta ascoz guichiago ez egozela.

Lenengo artan bada, Aisquidia, Christauruac, erausiric, nola eguin eben Jesus maitiac, Sacramentu Divino au emuten eustela Diszipulubai afaldu ondoren, emun eutsain eurac ere Sacramentu santu au artzeiaii gabeco eta afaldu ondoren; baña oituera onetatic ondo laister sortu zirian Eliza Santan errazuetic camporaco zatarqueriaric asco; uzuago bazaric San Pablo Apostolubac bere denporan ecusi zituban zatarqueria onexianac sorturic Corintioco Christauren artan; eta lotsagarriatu zituban garrazquino; eta ala Eliza Ama Santac, orpo orpotic quentzeiaren zatarqueria oneic, artu eben, vidia izan zan, eguin sentitic aurrera Mezac esatia, Comunio, santuba esquen zirian Christauruai emutia, eta ala Meza Escolla Sazerdotiai, nola Sacramentu Comunioco au artuco euben Christauruguztiai, bazu naturalian egonzitezen, aguinquetia; eta Eliza Santac eguin eben au onela, bere Espero Jesus Diruac onetaraco eta gueiagoraco emun eutsan, escuvidiaren bitartez, eta begiraturic, Sacramentu Divino onetan Jesus maitiari zor deutsagun, reverenzia guztizcuaii; onela bazu naturalaren gañeco Mandamentu santu au izan zan ifinia Eliza Santan ala Meza esaten dauben Sazerdotientzat, nola comulgaitan diruan beste Christauruguztientzat, Viatico modura ez dan guztian.

Eliza Ama Santac Sacramentu Divino onen gañian edade batera ezqueroco Christauruguztientzat ifiniric dauican, bigarren Mandamentuba, eta ezin eguinen bategaz ostian guztioc pecatu mortalaren azpian gorde biar dogun, da, comulgau gaitiala urteco Pazcua Resurreczino cuetan, eta bacoitza bere Parroquian: bai, Aisquidia; bigarren Mandamentu santu onec ikusi gauza

~ erabaguiten ditu, zeñac dirian ujeoro comulgaitia; Pazcua Resurreczinoco demporan; eta bacoitza bere Parroquian; eta iru gauza oneic bacoitza bere banan pecatu mortalaren azpian gorde bear dirianac dira: eguiazda; bacoitza bere Parroquian comulgaitiaren gañeco Mandamentu au aiquetan da bacarric gauzco eguerian Sazerdotiac ez dirianentzat; bada Sazerdotiac demporan santu onetan Parroquiatic campora Meza santuba esanagaz orobat gordetan daube Eliza Santaren bigarren Mandamentu au, oitueria onetaraco daqualaco.

Ecusi dozu, Aitsquidia, berreun eta bigarren ofizaren ostian azquenerutz eta urrengoaren asipenian, nola Jesus maitiac aguindu euscun, artzeia Sacramentu Divino au eriotzaco ordutic campora ere batzubetan guere vizitzan ere; eta, nola erabagui ez euscun, zenbat vider eta zer demporetan artu biarco gueben, itzi eben au erabaguitia bere Espos a Eliza Santaren escuvide guztizcora, zeñarena dan, bere Mandamentuben bitartez Mandamentu Divinoac guri aimbat ondoen gorde eraguitia.

Christandadeco lenengo demporetan eguneroco comulgaitan zirian Christaunac, entzuten euben, Meza santuban; eta ala ordutan Eliza Santac ez eucan, zer gorde eraguin Christaunai Mandamentu Divino; bada euvac, Eliza Santaren aguindubari beguira egon bagaric, guztiz ederquiro aurreraquetan zirian, Jesus maitiaren aguinduba eguitera; baña, nola Christaunac otzitubagaz, eta oituera santu oni itziagaz juan zirian, ala Eliza Ama Santa ere bere demporetan juan izan da, Comunio santubaren gañeco Mandamentubac ifiñiagaz; lenengo astan bada, ecusirie, Christaunac itzi entzaila beren eguerian beingo Comunio santubari, aguindu euscen guztiai, comulgau zitezela Jai egun guztietan, entzuten euben, Meza santuban: au ere otzitu zan; eta aguindu eben, Christaun guztiac comulgau zitezela urtian iru vider (au da) urteco iru Pazcua santubetan; au ere otzitu zan; eta azquenic aguindu eben, bacarric Pazcua Resurreczinocuetan comulgau zitezela uso erraznazcoroco Christaun guztiac urteco, bacoitza bere Parroqui-

an; eta onela dua gaurco egunian Eliza Ama Santaren Mandamentu au.

Pazcuaco demporiari, Comunio santuba artzaca, bere culpaz iragoten izten deutsan, Christaunac eguiten dau pecatu mortal; eta orobat, dempora santu barru onetan gaizqui comulgaitan danac eguiten dau Sacrilegiozco pecatu icaragarriagaz gañera beste pecatu mortal bat, gordetan ez daubelaco batac eta bestiac Eliza Ama Santaren Mandamentu au; bada gauza jaquiña da Eliza Santan, ez dala gordetan Mandamentu au, gaizqui comulgaubagaz; eta ala bata nola bestia, Pazcuaco dempora erabaguia iragua izan agatic, pecatu mortalaren azpian aurquiquetan dira, aimbat laisterren eta ondo comulgaitaco, premiña guztizcuan, bere demporan zorrari erantzun ez deutsanac aimbat laisterren erantzun biar deutsan leguez; orain eguia da; urte ascuetaco Comunioaren zorra jausiric daucan, Christaunac guztiai baten erantzuten deuste, Comunio santuba bein bacarric ondo eguiñagaz, urtian beingo Confesino santubagaz guertaquetan dan leguez.

Eliza Santa guztian Pazcuaco dempora au, urteoroco Comunioaren gañeco Mandamentu santu au gordetaco, asiten da Aste santuco Igandiatic, eta dirau, Pazcuetatic lenengo Igandia irago arteraño; eta ala Pazcua Resurreczinoco dempora santu onec, aguinquetan dan, Comunio santuraco dauca amabost egun erabaguiac; dempora barru onetan bada Christaun bacoitzac Comunioco Sacramentu Divino au artu biar dau, gordeco badau Eliza Ama Santaren Mandamentuba, bardin bere culpa bagueco ezineguinen batec eragozten ez badeutsa, edo bere Confesoriac luzatu eraguiten ez badeutsa, Comunio santuba artzeia, dempora au irago arteraño, zergatic, dempora onen barruban comulgaitaco, gaizqui guertaturic billatu daben: eguia da, Aisquidia; Obispo Jaun bacoitzac dauca escuidia, luzaquetaco bere benduco Parroquietan dempora santu au, laburreguia dala, deritzon guztian; eta ala daucat entzueria, zure Errian dempora au asiten dala Aste santuco Igandiatic zortzi eguneztenago Obispo Jaunaren aguinduz; zergatic dagozen

Christaun asco eta Parroquia bat bacarra: azque-
nic leenaz ezaguquetan daben Christaunac, eziñiño-
laco moduz comulgau ditequiala Pazcuaco dem-
pora santu onetan, esan biar deutsa bere Erretore
Jaunari, zer modutan aurquiquetan dan, eta bere
vorondatez aurreratu biar dau Comunio santu-
ba artzeia, eta onela gorde biar dau Eliza Ama San-
taren Mandamentu au, gueroraco itzi bagaric; ecusi
dozu ere zeure Errian eta Parroquian, nola Obispo Jau-
nac dempora oni, laburreguia deritzonian, ezarten de-
utsan bere guei garria aurretic, eta ez astetic.

Vrteoroco Confesinoaren gañeco (guichienez)
Mandamentuba, eta orobat guichienez Pazcua Re-
surreczinoco demporan comulgaitiaren gañeco Man-
damentuba, biac batera ifiniac dira Eliza Santan,
uso errazuazcuan sarturic dagozen, Christaun Ema-
cume eta Guizacume guztientzat; ara, Aisquidia,
nola esa[illegible]en Eliza Santa, Mandamentu
~bi oneic ifinteco [illegible]: Guizacume eta Emacume
~guztiac uso errazuazcora etorri ezquero confe-
~sau beguie guichienez urtian bein beren pecatu-
~bac beren Erretore edo Vicario Jaunari, eguiten
~daubela aguinduricaco penitenzia, eta artzen
~daubela reverenziagaz guichienez Pazcuan
~Comunioco Sacramentuba; eta bardin onela
~eguin gura ez badaube, izan ditezela beren vi-
~zitzan (Jaungoicoaren) Templo santutic botiac,
~eta eriotzan ere ez dequiela emun beren Cor-
~putzai, Eliza Santac Christaun illten dirianent-
~zat erabaguiric daucan, Sepulturaric: onela
bada [illegible] ifini zitu-
ban Eliza Ama Santac Mandamentu bi oneic ba-
tera uso errazuazcora ezqueroco Christaun guz-
tientzat; ecusi eguizu eun eta laroguei garren ofia-
ren arpeguian azquenerutz eta bere ostiaren asipe-
nian, eta eun eta laroguieta bigarren ofiaren arpe-
guian, zer demporatan aguindu zan urtian beingo
Confesinoa; eta orobat ecusi eguizu eun eta laroguei
garren ofiaren arpeguian Obispau batzubetaco pena
ala eguin gura ez daubenentzat.

Eliza Ama Santaren verba eguiteco modu onetatic bada, Aisquidia, lenengo beguiratu baten dirudi, Mandamentu bi oneic ala Confesinoaren nola Comunioaren gañian batera eta bardin artzen ditubela azpian Christaun guztiac, uso errazuazcuan nola sartu, beriala, eta ala, Confesinoaren gañeco Mandamentuba gordetaco premiñan aurquiquetan dirian, Christaun guztiac aurquiquetan diriala, Comunio santubaren gañeco Mandamentuba gordetaco ere, premiñan; baña ez da ala guertaquetan; Confesinoaren gañeco Mandamentuba dator anchiquetara eta azpian artzera Christauna lenago uso errazuazco bardinian ere, Comunioco Mandamentuba baño; zergatic Aurra ascoz lenago dator errazoiaren arguitasun bardiñian, ezaguquetara Taungoicoaren vorondatia bere Mandamentu santubetan, eta pecatuben gaiztaqueria, Sacramentu Divino onen mirariac baño; bada onetaraco aurrecoaldiac berac eta Taquintsu guztiac errazoiaren arguitasun andiagua escaquetan daube, pecatu eguiteco eta pecatubaren gaiztaqueria ezaguquetaco baño; emendic dator, Eliza Santan ecusten dozun, oituera, Aurrai gorde eraguiteco urtian beingo Confesinuaren gañeco Mandamentuba, zazpi urte osoac euquitera eltzen dirianetic, beriala, eta urtian beingo Pazcuaco Comunio santubaren gañeco Mandamentuba barriz or amar edo amabi urte daucainetic aurrera; onela aiquetan da beinic bein, Mandamentu bi oneitaraco Eliza Santac escaquetan daben, uso errazuazcoa: eguia da; Sacramentu Divino au emun oi da eriotzaco orduban Viatico modura Aur gaztiaguai ere; Penitenziaco Sacramentuba artzen dauben ezquero, baña ez Eliza Santaren aguinduz eriotzaco ordutic campora Pazcuaco demporan edo beste moduz.

Amar urtez beragoco Aurrac, bardin ez badaucai Animaco Potenziac guztiz ascatubac eta iratzarriac, gueien bat ez daucai, Janari Divino au ezaguquetaco, premiña dauben, garaco errazoiaren arguitasunic; eta ala errazoiac ez dacar, eriotzaco ordu-

tic campora onetaraiñ Sacramentu Divino au emu-
tia, Aurrentzat premiñacua ez dau ezqueró; eut-
zaco oridubau barriz emun oi da onetaraiñ ere, Pen-
tenziaco Sacramentuba artzen daubenac izan ezque-
ro, (nire ustez) ez premiñacua daubelaco, bai zicau
beren erruquiz, ecusiric, ezin artu leiquiela beren
sizitzan, eta eraqui daiquiela Sacramentu Di-
no onen eragupera, asco ezagaitic, purquinen bat,
Sacramentu santu onen grazianen videz izan de-
zen sendatubac, eta Zerubetan gloria queiago-
aren Jabiac: baña, bardin Aurrac ez badira Anima-
co Potenzietan guztiz lotubac, ez daucar errazoiac, Co-
munio santuba ez artzeia, aunabi urte enquuitera
etorri ezqueró: onetaraco Gurasoac ondo eraicut-
si biar deuste baña guztiz ondo beren Aurrai doc-
trina Christiana, eta Jesus Sacramentaubagaraco
devozinoric aimbat aradiena, lenengo Comunio santu-
ba eguin aurrian; queiago; ez ditube ecarri biar beren
Aurrac lenengo Comunio santu onetara [redacted] A
urte beteco Confesinuagaz, asco Gurasoc arduira
bagoc eguin oi dauben leguez, baizicau aurreco
urte artan ecarri biar ditube, confesaitara sarria-
gotan, onela guertaturic etorri ditezen lenengo Co-
munio santura zimentu onagaz (aun da) pecatuba-
caraco aimbat gogotonic andienagaz, eta Jesus sa-
cramentaubagaraco amoriorric aimbat senduena-
gaz; ete andic aurrera, Asteguidia, sarriagotan eca-
rri biar ditube, confesaitara eta comulgaitara, urtian
bein baño, nola edadian aurrera jucuagoz, eta sarria-
go, illian bein confesaitaco eta comulgaitaco, oituera
santuba artu eraguiteraño, Gurasoac eurac beren
Aurrai, gauza on guztietan leguez, onetan ere beren
obracaz aurretic ejacusten deustela oituera santu
onetaraco vidia; bada Gurasoac, eurac ez daucair,
oituera onac neguez artu eraguiñgo deuste beren
Aurrai.

Jaungoicoac aguindu eutsan Abran Patriarca
santubari, urten eguiala bere Erritic eta Aiden artetic,
eran eutsan, gueltuco zitabala bere Jatorriac Zeru-
co Izarrac aiña, eta emungo eustela berentzat vizitzan

teco Bazter andiac, eta beren frutu mueta guztietan guztiz aberatsac, eta ugariac, eta onetaraco deseguinduco zitubala, aetan vizi zirian, Jente Pecatariac: Patriarca santubac bada Jaungoicoaren esana eguitiarren urten eben bere Emazte eta Familia guztiagaz bere Jaiat Erritic eta Lurretic, nora ez equiala; ibilli zan Bazterric Bazter Jente atzien artian, eta, onetan ebillela, ill zan; orobat bere Seme Isac Patriarca santuba, izten ebela bere Sucesoretzat bere Seme Jacob Patriarca santuba; au bada, ebillen Errietan, gosiac arturic, bere amabi Semegaz, onein Emaztiacaz, eta Ume guztiacaz Jaachi zan Egiptora, nun eguan aurraz Juanic bere amairu garren Semia Joseph santuba, Faraon Erreguiaren urrengo Aguintaritzat; eta argatic emen gosiaren bildur bague billatu zituban gauza guztiac ugaritasun andian; emen Jaungoicoac gueitu zituban Familia oneic ezinda gueiagoraño; demporiaren demporaz sortu zan Egipton Faraon Erregue onen ondorengo beste Erregue bat; au ere Faraonen izenecua, Jacob eta bere Seme Joseph santuben entzueraric ez eucana; ecusiric onec, aimbeste gueituric Jacob santubaren Familia au bere Jatorrietan, emun eutsan estuquetiari Jente au moduric ascotara, guichitu albeguian: Jaungoicoac bada, erruquituric bere Jentiaren egunoroco naibaguetasun negar garrizcuacaz, etara zituban Erregue madaricatu onen bendetic bere Adisquide andi eta Profeta Moises santubaren bitartez, onetaraco eguiten eustela ala Faraon Erreguiari nola bere bendeco Egipzioaz guztiai bere poderio guztizcoagaz atsecabe andietaco mirari mueta asco eta izugarriac; eta onela Jaungoicoaren Jente Santu onec, Egipton sartu zanetic urteteraño iragoric Cautiberioan lareun eta ogueta amar urte, urten eben bere esclabitudetic; eta Moises Profeta santuba aurretic vidiaren Eracustzalla ebela, ibilli zan Desiertuban orra eta ona berroguei urtian, eta sartu zirian ondoren, Jaungoicoac Abran Patriarcari bere Jatorrientzat esquini eutsan, Promisio-

Lux atseguintasunes betian.

Moises Profeta santubac bada Jaungoicoaren aguinduz esan eusten bere Jentiai, (Martico Ydarguiaren) amalau garren egun[redacted] Familia bacoitzac ill eguiala urte barruco Bildots Ari bat, onen odolagaz busti eguiala, bacoitzac, bera vizizan, Echeco atiaren bimbral biac eta buruba, eta ondoren erre eguiela, eta san eguiela guztia, eta erabagui eusten moduba ere, nola san biarco euben; esan eusten ere, gaberdi artan inguru bat emungo eutsala Egipto guztiari Jaungoicoac (bere Ainguerubaten bitartez) eta parcaturic Bildotsaren odola beren Ata burubetan eucain Eche guztiai, ifinico ebela negarra beste guztietan: gaberdi artan Ainguerusantubac, Bildotsaren odol bagaric ecusi zituban, Eche guztietaco Semenagusi edo lenengo saio guztiai quendu eusten beinguan vizitzac Faraon Erreguiaren Palaziotic asi eta dan Pobrieneraño-co Eche guztietaco, eta orobat Ganau mueta guztietaco lenengo saioricaco Ordots guztiai: ecusiric Faraonec eta bere bendeco guztiac arteraño co negar garri guztien aazcarria zan azquenengo negar garri au, beriala etara zituben beren bendetic urrengo goizian, astiric emun bagaric, erretaco videraco premiña zituben Azcarriagaz saguiricaco Oguiac, alzituben Azcarri bagaco su Opillacaz; eta Israeltar onei bacoitzac beren Echetan eucain Zidar eta Yrre gauzaric onenac emun eusten, aimbat laisterren suan zitezen, gura euben, lecura: onela Israeltar santu oneic urten euben Egiptoco Esclabitudetic (Martico Ydarguiaren) amabast garrengo egunaren goizian; eta, Jaungoicoaren mesede andi au iñoizco demporan beren Jatorrietan aztu ez zedin, Moises Profeta santubac Jaungoicoaren aldetic aguindu eusten, urte oro Ill onen amalau garren egun au gorde eguiela Guizaldi guztietan Jai anditzat, eta Eguzquiaren sarreratic Sarreraraz; [redacted] ill eguiela Familia bacoitzac bere urte barruco eta errencura bagueco Bildots Aria, eta erreric san eguiela guztia, urrengo eguneraco ezer itzi bagaric, Jaungoicoac gaberdi ar-

tan Egipto guztian eguin eben inazoriagaz, eta oneri
ridez goiziarmaz Cautiberiotic etaratiagaz beti gogo-
ratu zitezen, eta mesede onegatic beti esquer onecu-
ac aguertuzitezen aren Divina Magestadiaren aur-
pian: au zan, Aisquidia, Judeguben Pazcua, eta Pazcua-
co eguna, urtiac eucan, eguin guztien artian andiena,
santubena, eta aquiniena; eta aostian Jaungoicoac
aguindu eusten Moises santubaren bitartez, Pazcua-
co egun andi onetan eta bere ondorengo sei egunetan
(au da) zazpi egun oso oneitan ez eguela lan iñoizco
demporan, ez da ere enqui beren debetan Azcarria-
gaz eguiñeaco Oguiric, baizican Azcarri bagaco su
Opillac bacarric; eta au ere aguindu eusten oneta Jaun-
goicoac, Guizaldi guztietan urteoro Pazcua santu one-
taco demporan beti gogoratu zitezen, nola beren Gura-
suac etsaia zirian Faraoinen Cautiberiotic azcarri ba-
gaco Oguiacaz, azcarriagaz eguiteco eta erretaco, as-
tiric emun ez eustelaco Egipzioarrac: Pazcua aguna, zan Iguzquiaren
sarrera, bien bitarte guztia, izanic lurrengoa, Garmadau, garren eguneco.
Israeltarren Cautiberio au Egipton Faraon Errequia-
ren bendian; emendic etoratia Jaungoico guztiz podero-
so baten escu indartsuban; onen beticogogorazinoraco
Pazcuaco egun eta Jai andia urteoro (esan dodan) modu-
ban gordetaco, Jaungoicoac aguinquetia; Cautiberio-
tic urtenic ez berala sartzeia, Jaungoicoac Abran Pa-
triarca santubari bere Jaunetan esquini eutsan, Pro-
misioco Lur zorionecuan, baizican benagoz ibilbia
Desiertuban orra eta ona nai baqueta sur ascogaz, nur-
dic norat eta noiz ibilli. Jaungoicoac berac eracusten
eustela Moises santubaren bitartez eguraz Lañozco
Columna bategaz eta gabaz Suzcuagaz, premiña au-
ben guztia videraco, Jaungoicoac berac guertaquetan eus-
tela; beren nai baquetan Jaungoicoari gaizqui erardzun
eutsain guztiac Desiertuban illic gueldiquetia, eta ber-
tze guztiac berroqui garren urtian Cautiberiotic urtenic
Promisioco Baxter zorionecoetan sartzeia, oneic guztioc,
Aisquidia, dira gure Religinoco aurrenengo Misterio
santu eta andi quetien idurripen eta Espillu eder eta gu-
tiz argui batzubec; ar gatic aren Divina Magestadiac
bere Escritura sagraduban aimbeste videz aitaque-
tan deusen gauza oneic, eta orobat bere Ministroac Pulpito-
tic.

Jesus Divinoac bere Cumutzeco eriotziagaz desegui-
du eben gure eriotza, eta Judeguben Pazcua beren Legue
zan guztiagaz batera; bere Odol maitagarria itzuliagaz
etara guinclubau Demonioaren bandetic; eta Ylleratetic
viztubagaz biurtu ginscun guere betico vizitza galduba;
baña Demonioaren Cautiberiotic gu onela etorrate au beti
goguaro eraqui gueian, illgo zan aiurretic (ceinsi dozun le-
guez) Janic Judeguben Pazcuaco Bildotsa, itci ginscun Paz-
cua obiago bateraco gueia, eta Zeruco promisioco Lurre-
ra juateco, azcarri bagaco Jgui obiagua, Jaaten emuten
ginstela Aitari santu artan bere Divinpububai, esanagaz:
~zeuroc ere eguizube au nire gañeco gogorazinoraco: Eli-
za Santac bada, deresquinduric gueldiquetan zan, Judegu-
ben Pazcuaren orde ifini eben Pazcuatzat, Jesus maitia
Ylleratetic viztu zan, eguna, au da, urtiac dauncan, Jai
eguric andiena, eta aiñ andia, zeinda berac gueiegui egu-
neco barubacaz auzpez guertatu gaitiala, aguinquetan
deuscu Eliza Santac, Pazcua barriaren Jai au gordetaco,
Jaaten dogula dempora santu onetan pecatuben azcarri
bagaco biotzacaz, Munduco pecatubac quentzen ditubau,
Jaungoicoaren batere errencura bagueco Bildots eguiaz-
coa, eta azcarri bagueco Jgui Divinoa (au da) Jesus Di-
vinoa, bera dan, guztia.

Jguia da, Airquidia; Eliza Santac bacarric aguinque-
tan deuscu, comulgau gaitiala Pazcuaco dempora santu
~onetan; baña esaten deuscu: guichienez: eta Trentoco bere
azquenengo Conzilio generalian aiquetara emuten deuscu,
~guiaco leinguiala, Guc Comunio santuba artzeia entzuten
~doguu, Meza santuban: ez da ez, Airquidia, gure Pazcua
barrico Bildots Divino au Judeguben Pazcuaco Bildotsa
leguez, urtian bein bacarric jan ditequiana; bada, Sazerdo-
triac eguneco Meza santuco Sacrifizioan esquintzen, eta ja-
aten doubena, eta beste edozein Christauinec ondo guerta-
turic jan daiquiana, da: ea bada, nire biotzeco Airquidia;
gorde eguzu Pazcua barrico Jaiandi au, bere dempora;
barruban ainbat onduen comulgaubagaz, eta onegaz asti-
an guichienez Ylliau, bein eta urteco Jai eguu auzenen-
go guztietan jan eguzu, Munduco pecatubac quentzen di-
tuban, Jaungoicoaren Bildots santu au, eta azcarri baga-
co Jgui Divino au; onela erabillico dozu eta gloriaz be-
teco dozu zeure Corputzian, Jaungoico eta Gizon eguaz-
coa dan, Jesus maitia; izango da beraau eguna eta gaba
zeure vidiaren Gracuetzalla; eta indartuco zaitu zeure
Animan, izago zaitian Mundu onetako zeure vizitzaco
Desiertutic, pecatubacaz illic quelditu bagaric, Jesus,
zeña dan zure promisioco dun eguiazcoa eta zoriones-
nun atsequintaraunez alde guztietatic inguraturic vizi-
co zaitian betico, illteco, eta beste edozein atsecabenic
dan chiquienenic izango dozun, batere bildur bagaric

Matrimonio santuco Sacramentuba

Orainguiño esan deutsudan guztia, Aisquidia, utsa da, bardin artu dozun Matrimonio santuco vizitzan Jaungoicoaren vorondatera vizi ez bazara; argatic artu dot ere asmua, zuri zeure Emaztiagaz batera zerbait esateco Sacramentu santu onen gañian, ala jaquin daguizuben obeto, zer Legueren azpian vizi zarain, eta zer saill artu dozuben, eta bioc izan zaitezen Familico Buru eta Guraso Jaungoicoaren vorondatera, emuten deutsuben, Aurrac Zeuraco azi eta eziten dituzubela: onela salvauco zarai alazeuroc, nola zeuroen Ymiac; iragoco da Guizalditic Guizaldi bestera zeuroen Jatorrietan Jaungoicoaganaco bildur santuba Mundubaren azqueneraño; eta izango da zuben Echia guztiz errimia emen eta eternidadian.

Matrimonio santuba, Aisquidia, premiñacua bada ere, Guizonaren naturaleza Mundubaren gañian deseguindu ez dedin, eta onetaraco Jaungoicoac aguinduric badauca ere Mundubaren asipenetic, Guizonac eta Emacumiac ezcondu ditezela, beti Eliza Ama Santac aitu izan dau eta eracutsi izan dau, Jaungoicoaren eta Naturaleziaren aldetic, ezconquetaco, daguan, Mandamentu au dala ifinia Guizacume eta Emacume guztientzat, baña iñor bere banaan eta bacarrian azpian artzen ez dabena, eta ezconquetaco premiñan ifinten ez dabena; bada eguia da, Guizacume eta Emacume asco izan agatic ezcondu gura ez daubenac, Virginidadeco vizitza obiaguari jarraiquetiarren, beti Lurraren gañian onein ordian vizi izan dira, vizi dira, eta vizico eredira azqueneraño beste Guizacume eta Emacume gueiago, Matrimonioari jarraiquetan deustenac; eta ala asco, ezcontzaca, viziagatic Jaungoicoaren vorondatia obeto eguitiarren, ez dago batere bildurric zer euqui, Jaungoicoac Mundubari bere azquena emun bitartian Guizonaren naturaleza deseguinduco danic Lurraren gañetic; obiago lizateque guichiago balira ezconquetan dirianac, eta oneic ezconduco balira, obeto guertaturic, eta beguiraturic, zer legueren azpian sartzen dirian, eta gogo obiaguagaz, Matrimonioac beragaz dacarren, Legueac ondo gordetaco; ez gueuque ez onela ecusico, ecusten ditugun aña gaiztaqueria eta negargarri bazterretan.

Apostolu San Pabloc, Matrimonio santubaren gañian itauneren batzubec eguin eutsain, Corintioarrai esan eus-
~ten: gura neuque, zubec guztioc vizi zaitezen, ni nerau vizi nai-
~zan leguez (au da) guztioc, Matrimonio santubac ontzat emun-
~oi dituban, gauza aietan ere, alde batera itziric atseguintai-
~sun mueta guztiai, Castidade guztizcoaren virtutiari jarraitu-
~co bazeutsai; berda bera ere ezcontzaquia zan; zergatic vizit-
za onetan (gauza jaquiña da) ez dago Christaunentzat gauza
zorionecoagoric, beren Animac eta biotzac, itziric alde batera,
Matrimonioac beragaz dacarren, Mundu onetaco quezcai, eta
itzunguiric Araguiaren su guztia, Jaungoicoaren vorondatia
nola obeto eguin daiquien, eta Zeruco atseguintasun eternuen
gañeco consideracinuagaz jasiric eta pozturic erabiltia ba-
ño: eta ala Apostolu santu onec beronec onegaz ostian Matri-
moniaren gañian esan eusten, verba santubetan guztiz era-
~baguiric itzi euscun, ala Matrimonioco, nola ezcontzaquen
~vizitzaia Christaun bacoitzarentzat bere banan dala guz-
~tiz vorondatezco gauza: ezconquetan dirianac ezcondu-
~bagaz ez daubela pecaturic eguiten, baizican ondo egui-
~ten daubela, eta ezcontzaca gueldiquetan dirianac obeto
~eguiten daubela: argatic Eliza Ama Santac Trentoco be-
re azquenengo Conzilio generalian erabagui euscun Fede
~santuco gauzatzat, ezcontzaquien vizitza bardiñian Jaun-
~goicoaren aurrian dala obiagua eta merezimentu gueiagocoa
~ezconduben vizitzaia baño.

Oneic onela badira ere, Aisquidia, ez daucazu, batere zer
damutu, Matrimonio santuco estaduba artu zebelaco, itzi-
ric obiaguari; bada Corintioarrai onela eracutsi eusten, San
~Pablo onec beronec esan eusten ere: bacoitzac bere due banan-
~gua Jaungoicoagandic dauca, batec gauza bateraco eta bestac bes-
~teraco: ondo equian, bai, Apostolu andi onec, ez dala Christa-
un guztientzat eguiña, ezcontzaca vizi izatia; argatic esan
~eusten ere: Guizon bacoitzac euqui begui bere Emaztia, eta
~Emacume bacoitzac bere Guizona, Araguizco pecatubetan jau-
~si ez ditezen: obe da ezconquetia, bere Araguia eta Anima Lu-
~juriaren subagaz erreric eta quiscarturic erabiltia baño: Ho!
eta, Aisquidia, batere ardura bagaco asco Gurasoc obeto beguira-
tuco baleutsai doctrina santu oni! obeto lagunduco leusquie,
bai, beren Seme Alabai, beren demporetan, eta gazte dirian bi-
tartian, Matrimonio santuco estaduba artzera; ez lirateque
ez vizico aiñ pozic, nola vizi oi dirian, eurac, gura dauben, na-
saitasunian vizitiarren, diruric zer etara, eta zer emun ez dau-
cainian beren Seme Alaben ezcontzetaraco, esaten daubela be-
~ren, burubac oneguitiarren, baña guezurrez, lagunduco gueusquie, eria
~baletor; ¿eta ezconduta bere zer daucai? gaizquiago baño izan

go ez liratequе; ez leuquie, ez, beren Seme eta Alabac, Mundutar-
rac daquiela izan ezagatic, aimbeste vider izaeurrico beren biot-
zetan betico condenazico sentenzia: Ito! eta onetan arditza baga-
co eta beren Vmiacarraco batere erruqui bagaco Gurasso zaharrac
zeiñ estu aurquitico dirian, Jesu Christoren aurrera duazenian!
orain eguia ere da; bardin Seme edo Alabaren batzubec beretan
eta biotz çuztitic etaciesten badaube Matrimoniorraco iguiartsu-
na, eta au berau aiquetarra emiten badaube Jaungoicozco beren
vizitza gañeruntzacuan, Gurasuac baquian itzi biar deuste, eta po-
zagoric gueldidu biar daube, beren Vmiac voxondoatez ezcont-
zaca ecusten ditubela, Mundubac ezcontzaric andientzat dau-
canac beren Vmiai eguinic baño; eta aldauben gara lagundu bi-
ar deuste onetan Vmiai, naiz Mundubau ala gueldidu gu-
ra daubela, naiz Apaez, naiz Religioso, naiz Monja izatia
gura daubela: eta zer esan diteque Gurasso madaricatu aieca-
tic, zeñac itzi oi deusten beren Vmiai nola nai, billatu dagui-
en eurac beren Ezcongueiac, izanagatic ere beren Castida-
diaren calte izitegarrian. Ita! amoniozco ezcontzac gueien bat
negarrezco vizitzac eurracaz dacarderiac!

San Franzisco Sales Obispoac, ezcondu gura eben, bere Semitza-
~ri baterri, emaric onetaraco bere bendizinoa, esan eutsan: Re-
~liginetan leguez Matrimonisan ere baleço bere Novizau
~ritia, ez liratequе aimbeste Ezcondu izango: ala ere berriz
esaiten deutsut, Aisquidia, ez zaitiola iñoizco demporan
damutu, Matrimoniaco estaduba artu dezulaco, itzaric obia-
guari; zergatic beiñ Matrimonio santuco Sorman santu ezque-
ro, Soro onetan pozic eta gogo onagaz emen biar ditizu zeure
izerdiac eta negulac; zeure salvazinoraco premiñoz ditizuzan,
fruitu gozoac architu daguizun, ifini bagario zeure buru-
ba bestien Soro obiagoaai begnira, zertu ez deguizun zeure biot-
zian Matrimonio santubagaraco iguintasunic; aseizan oi da, Ama
madarcatubac, gu galtzeco, artu oi daben, asmoric dauque-
na eta ezcutubera, bacoitzari bestien vizitza mueta obiagot-
zat siniestu eraguitia, berac bere salvazinoraco jarraitu bi-
ar deutsana baño: Ezcondubai ifini oi deuste beguien aurrian,
batez ere beren estu ordubetan, Apaezen, Religiosen, Monjeen,
eta Mundubau ezcontzaca dagozenen, vizitza era gueiagocoac,
~esaten deustela: zoriontsuac eurac; zeiñ onetan buru ausitz gui-
~chi daucain! eta onai esaten deuste beste aldera; baña zuc, Aisqui-
dia, ez eguiozu siniestu Diabru guezurtiari; onrau eguizu,
bai, aien vizitza mueta obiagoa zeure Matrimonio santu-
co baño oscoz gueiago, baña aien vizitza mueta obiagua
baño oscoz gueiago, edo (obeto esatiarren) bacarric baztar eta
maitez izan eguizu zeure Matrimonio santuco vizitza; zerga-

tic, zeure Emaztia vizi dozun bitarte guztian, edo beragaz
bacarric uztarturic vizi biar dozu, beste Emacumeren
bategan zeure biotza ifini bagaric, eta orobat ezcontzaquien vi-
zitza mueta artu bagaric, edo Ynfernura juan; ez daucazu, ez, Ais-
quidia, Zerura juateco, beste videric, zeure Emazte bacarra-
gaz Jaungoicoaren vorondatera uztarturic vizi izatia baño;
~ San Pablo Apostolubac esaten deutsu: ¿ loturic zagoz Emaztiari?
~ ez zaite ibilli, nundic beragandic ascatu zindezquian billa: ezin
itzico deutsazu bada, daucazun, Emaztiari; eta alargunduric
guelditucо bazina, orduraco esaten deutsu Apostolu andi onec,
≈ ez zaitiala ibilli beste Emazteren baten billa, ez, ucaquetan de-
utsulaco, berriz ezconquetaco, escuvide guztizcoa, alargundu-
ric gueldiquetan zarian guztian, eta bai, Jaungoicoaren aurri-
an ascoz obiago dalaco bardiñian, alarguntzaian berriz ezcontza-
ca vizitia: au berau aiquetan da zeure Emaztiarentzat, zu aur-
raz illic, alargunduco baliz: bai, Aisquidia, onela da Eliza Santa-
ren sinistia, eta, siniste au ez daucanac, betezian ucaquetan dau Fedia.

Irugarren aldiz esaten deutsut, Aisquidia, ez zaiti-
ala iñoizco demporan damutu, Matrimonio santuco uztar-
riagaz lotu ziñialaco; bada Matrimonioa, bere obra guzti-
etan santuba dan, Jaungoicoac berac, eta ez bestec eguiña,
eta ifinia da, eta argatic guztiz santuba eta onra andico
gauza da, San Pablo Apostolubac aiquetara emuten deus-
cun leguez: Paraisuan izan eben bere lenengo asipena, Jaun-
goicoac, gure lenengo Aita Adan Guizacumiaren bularreco
Saiatz azur batetic etararic gure lenengo Ama Eva Ema-
cumia emun eutsanian Adaneri bere Lagun eta Emaztet-
zat, aiquetara emuten eutsala Espiritu Santubac, nolacu-
ac izan biar eben Matrimonioaren Legueac, bere ondoren-
go guztiai eracutsi eguien; eta ala, Aisquidia, Mundu za-
bal onen gañian vizi garian guztien Guraso oneic izan zirian
Guizacume bat eta Emacume bat bacarra, bata bestiari
Matrimonio santubaren uztarriagaz lotubac; bai, Aisquidia;
Matrimonioac aiñ onra andico asipen santuba dauca: one-
gaz ostian Jaungoicoaren Seme vizia eta Jaungoicoa bera, Gui-
zonaren Seme eguiña, Jesu Christo gure Jauna bere Dis-
zipulubacaz eta bere Ama Virgina Maria Santisimagaz
batera, Canaa eritzon, Galileaco Erri baten Ezcondu barri bat-
zuben eztaietara, eurac onetaraco ots eguinic, juan zan, eta,
Mairaco eucain, Ardao guztia usturic eztaietan egozenac,
bere Ama Maria Santisimac esan eutsan Jesus Divinoari:
~ Ardaoric ez daucai: au entzunic Jesus maitiac aguindu eben,
~ bete eguiela urez beren ontziac: beriala esana eguin euben Servi-

tzariac; eta Jesus maitiac emun eutsan bere ondar bague-
co poderio guztizcoagaz ur oni guztioni Ardao guztiz onaren
izatia Ezcondu barrien eta Maian egozen beste guztien atse-
guintasun errazuazcoraco; zer honra gueiago gura dozu, Ais-
quidia, emun eguion Jesus Divinoac, arturic daucazun, Ma-
trimonio santuco estadubari? berac ere, bere Ama Virgina-
ren entraña garbietan Espiritu Santubaren obraz eta virtutez
Guizon eguin bazan ere, artu eraguin eutsan bere Ama Maria
Santisimari ezcontzaz bere Esposotzat San Joseph gloriosoa,
Eliza Santaco Gurasuac batez ere San Bernardo gloriosoac era-
custen deuscuben, errazueric ascogatic.

Gueiago: Estadu mueta bacoitzac dauca, bera eder-
quetan dauben, eta onraz betetan dauben, bere banango On-
tasun mueta batzubec, Jaungoicoac emunac, eta beste Esta-
du muetac ez daucainac; bere bat Matrimonio santubac, bera
guztiz ederquetan dauben, ontasun mueta andiac eta Jaun-
goicozcuac dauca, beste Estadubac ez daucainac, alaco
moduz eze, bera da Eliza Ama Santaren beste Sacramen-
tu santuben artian eguiaz Sacramentu bat; bada Jesus
maitiac, arteraño Contratu baten izatia baño besteric ez eucan Ma-
trimonioari emun eutsan Sacramentu eguiazcoaren izate
guztiz andia eta miragarria, izten ebela ederturic, bere Espo-
sa eta gure Ama dan, Eliza Santa beste Sacramentubacaz
batera Matrimonio santuco Sacramentubagaz ere; eta ala
San Paulo Apostolubac, nola Apostoluben Buru San Pedroc
guztiz ederquiro escribiduric itzi zituben, Matrimonio-
ac, Sacramentu eguiazcoa dan aldetic, daucan, anditasu-
na, baita ere Estaduba dan aldetic, Ezcondubai escaque-
tan deusten, languei mueta guztiac; zergatic, Espiritu San-
tubac argui eguiñic, ondo ezaguquetan euben, zeiñ on an-
diac etozen Eliza Santari, Christaunac eguiaz Jaquinic,
Matrimonioaren santidadia gordetatic, eta bere languei
santubac ondo eguitetic, baita ere zeiñ calte izugarriac
sortu oi dirian Eliza santan, Christaunac Matrimonioa-
ren santidadia eta bere langueiac ondo ez Jaquinic euqui-
tetic, bein Matrimonio santubaren estaria artu ezquero, us-
te daubela, Araguizco atseguintasun mueta guztietara-
co escuvidia daucaila, eta onela, guizurra sinisturic, [illegible]
asco ziquinqueriacaz beren Animac Jaungoicoaren aur-
rian ichusiquetan ditubela.

Gueiago: ecusten dozu, Aisquidia, Mundu guztian za-
balduric daguan, Eliza Ama Santaren Miembroric gueienac

vizi diziala, zu leguez, Matrimonio santuban; Jesus Divinuac ere artu zituban bere Diszipulu eta Apostoluetzat, Matrimonio santuban vizi izan ziran, Guizacumiac, oneitatic bat izan zan San Pedro bera; orein artian bozituban, Virginidade santuco Estadu obiaguan vizi ziranac, nola zan San Juan Apostoluba eta Evangelista gloriosua; ala ere bere ondeco, Apostolu guztien, eta bere Esposa Santa guztiaren Buru ez eben ifini San Juan Apostoluba, baizicen, Matrimonio santuban vizi izan zan, San Pedro gloriosua; bai, Aisquidia; oneguaz artian ecusten dozu, zeinbac Guizacumec eta Emacumec, Matrimonio santuban vizi dizala, igo dauben santidade guztiz andiya, orain guc, Aldare-tan ifinten dauscubey, bere, Imaginen bitartez Santutzat adoraitan ditugula, eta guere premineta, Santu. auen bitartez Jaungoicoaxi meseda eskaquetan deutsagula; baita ere ecusten dozu, nola Matrimonio santubac emoten deutsan Eliza Santari, bera sarraren gañian zabalquetaco, eta gueiquetaco, gueiac (aui da) Aurrac, gueldiquetan diziala oneic bere Miembro eguiazcoac eguiñic Bautismo santuco Sacramentubaren bitartez; nola oneicaz beteetan daben Zeruba Santu* Ofizio mueta guztiac besoz, Eliza Santa beria, Eleicia, Probinzia, Ziudade, eta Lur guztiac Ministo, Aguintari, eta Erreustzalla onacaz, eta Guiasoac Seme Alabaz endoac eta ezcutzubac, az bey neque, ondo ez, eta zarrazuan ezuqui eta amorio andiagaz laguntquetan deustenac; bai, Aisquidia; oneic guztioc eguiac dira.

Azquenic, Aisquidia, Matrimonio santuba da, ala Eliza Santaren, nola Mundu onetaco Aguintari dirian, Printzipe, Erregue, eta Emperadoreen leguetan vide bacartzat ezaguquetan dana, bat Mundu onetan batere latsa bagazia, eta bai onra andian jaioteco; eta ala Legue mueta guztiac oneindaco daucai autoritate beren honra eta antasun mueta guztiac, eurac bacarric ezaguquetan ditubela Seme Alaba eguiazcotzat; Matrimonio santuco videtic, campora jaioten dirian, guztiac barriz eurac daucade beren latsa andia, eurai eta beren ondorenguai jarraiquetan deustena; bada ala Eliza Santaco, nola Munduco Aguintarien Leguezac onela Matrimoniotic campora jaioten dirianac ez ditube ezaguquetan Seme Alaba eguiazcotzat, baizican euqui oi ditube Guraso bagaco eta isil Ametzat, ifinten deustela lotsai andico izen mueta batzubec, beren vide bagaco Guraso zatarren gaixtaqueria mueta edo andiagoa edo chiquiagua aiqui-

tara emuten ~~emuten~~ daubenac; eta ucaquetan ere de-
uste onerian Ymiai onra eta ontasun mueta guztiac edo
gueienac ez, eurai deusten, gorrotoagatic, bada aguirian dago
Aurrac eurac ez daucaila culparic, onela Jaioteco, baizican beren
Guraso zatarren gaiztaqueriari deutsain gorroto guztizcoagatic,
eta ez eguitiarren onerian gaiztaqueria, onra guztizcoa beragaz da-
ben, Matrimonio santubagaz bat: orra, Aisquidia, zembat erra-
zue on daucazun, artu dozun; Matrimonio santubaren gañian be-
ñere zeure vizi guztian ez damuquetaco, baizican eguiaz eta biot-
zetic maite izateco Estadu santu au, eta, berez obiaguac dirian,
Estadubac baño maitiago: bai, Aisquidia; Erle bacoitzac bere Er-
lautzian biarra eguiten daben leguez, Christaun bacoitzac ere Jaun-
goicoaren vorondate santuba eguiten necatu biar dau pozic, artu-
ric daucan, bere Estaduban: esanic oneic onela videz leguez Ma-
trimonioaren gañian, ecusi daigun oraiñ, zer gauza dan Ma-
trimonioa: zembat modutara aitu leiquian: zer moduz Chris-
taunac guertatu biar dirian, Mtrimonio santuba artzeco: onela
arturicaco Matrimonio santubaren erruba: zembat eta zeintzu-
bec dirian ontasunac, zeintzubecaz Jaungoicoac ederquetan da-
ben Matrimonio santuba: nola ezcutuban arturicaco Matrimoni-
oa ez dan eguiazcoa, baizican utsa edo utsa baño gaiztoagua: eta
azquenic zeintzubec dirian Matrimonio santuban ala Guizonaren
aldetico nola Emaztiaren aldetico langueiric aurrenengoac.

~ Matrimonio santuba da, Legueac eragozten ezdeusten,
Guizonaren eta Emacumiaren ezcontzaz alcarreganaco batze-
ia, edo [illegible] bat eguinic gueldiquetia, beragaz daucana, bien ar-
tian ascatu ezin ditequian, vizitza mueta bat: Matrimonioan
bada, Aisquidia, eguiazcoa izan ezquero, dagoza, ezconque-
tan dirian, bien vorondatiac, artaraco erabaguiac; bien voron-
date onein campotico autormena aoz, edo beste moduz, beste
edozeiñ artu emunetan guere artian ecusi oi dirian, contratu-
ben antzera; ezcontzaco contratu onetatic Ezcondu bien artian
sortzen dan, uztarria, vizi dirian, bitarte guztian loturic izten
~~izten~~ ditubana; eta ezcondubac alcar araguiz ezaguquetia;
ala ere, Matrimonio eguiazcoan guertaquetan dirian, gauza
guzti onein artian, Ezcondu biac beren vizi guztiraco lotzen
dituban, eta biac bat eguinic izten dituban, uztarriac bacar-
ric dauca Matrimonio eguiazcoaren indar eta izate guztia;
argatic esan deutsut, Matrimonioa dala Guizacumiaren eta
Emacumiaren alcarreganaco batzeia edo bat eguinic gueldique-
tia, Ydi bi uztarri baten azpian loturic eta bat eguinic guelditu
oi dirian antzera, beren Burdia eruateco: esan deutsut ere, Gui-
zacumiaren eta Emacumiaren alcarreganaco batzee onec izan

~biar dabela ezcontzaz; zergatic Guizacume eta Emacumen ar-
teco alcarreganaco batzeia, beren vizi guztian alcarreneac iza-
teco, ezcontzaz ez bada, baizican beste edozeiñ modutan, ezin
izan diteque beñere Matrimonio eguiazcoa; eta ala onerian
Guizacumiac eta Emacumiac, alcarri itziric, Jaungoicoagana
biurquetan ez dirian, bitarte guztian vizi dira pecatu mortalian,
~eta Infernuraco vidian: bere bat esan deutsut, Matrimonioa
~dala, Legueac eragozten ez deusten Guizacumiaren eta Emacu-
~miaren alcarreganaco batzeia; zergatic Guizacume eta Emacu-
me aiec, zeñai Legueac eragotziric daucain beren arteco ezcont-
zia, ezin eguiaz batac bestiagaz Matrimonioric artu edo eguin
daiquie; eta artzen badaube ere, onein Matrimonioa utsian
Jausten da, ez da eguiazcua, eta ez dauca batere erruric ala-
co moduz, eze ezconduco balira bi uste onian, Legueac era-
gotziricaco Matrimonioa artu eubela, Jaquindun eguiten di-
rian berialatic bacartu eta batac bestiari itzi biarco leusquie:
onerian Legueac izan ditezque Naturaleziaren aldetic, Ja-
ungoicoaren aldetic, baita ere Eliza Ama Santaren aldetic;
bada Fede santuco egui erabaguia da, Eliza Santac, ere Perso-
naren batzuben artian Matrimonioa guztiz eragozten dau-
ben, Legueac ifinteco, escuvidia daucala; eta ala ecusten da
Eliza Santan, laugarren graduban Aide dirianac ezin ez-
condu ditezquiala; Guizacumia, amalau urte osoac euqui
arteraño ezin ezcondu diteque, orobat Emacumia amabi ur-
te osoac euqui arteraño; Emacume alarguna bere Esposo de-
funtubaren laugarren graduco Aiderequin, orobat Guizacu-
me alarguna bere Emazte zanaren laugarren graduco Aidere-
quin; orobat, araguizco pecatuba obraz eguin dauben, Perso-
nac ezin ezcondu ditezque, pecaturaco izan dauben, Laguna-
ren Aiderequin bigarren graduraño: orobat Adulteroa bere
pecaturaco Emacume Lagunagaz, eta au bestiagaz ezin ezcon-
du ditezque, bardin Adulterioa nasturic beguan, Legueac era-
baguiric daucain, beste gaiztaqueria mueta batzubecaz: oro-
bat, ezcon verbac eguiaz emunic daucan, Guizacumia bere Ez-
con Gueiaren Aizpagaz, eta beste aimbeste onerian Emacumia
bere Ezcon Gueiaren Anaiagaz ezin ezcondu ditezque: bere bat
Aita eta Ama Pontecuac besoetan artu euben Aurragaz eta
onen Gurasuacaz ezin ezcondu ditezque; eta onela beste asco-
ren artian Legueac guztiz eragotziric daucai Matrimonio san-
tuba: orain badira beste Legue mueta batzubec, Matrimonioa era-
gozten daubenac, baña ez guztiz (au da) Matrimonioa pecatu
mortalaren azpian eragozten daubenac, baña, Christaunac,
Legue onei alde batera itziric, ezconquetan badira, beren Ma-
trimonioa errutsutzat emuten daubenac; onela ezcon verbac al-
carri eguiaz emunic daucain Nesca Mutillac ezin bestegaz ez-

condu ditezque, baña, ezconquetan badira; eguingo daube pecatu mortal izugarria, eta ezconduric guelditucо dira: bere bat, batec bere bacarrian eguin badeutsa Jaungoicoari, Religinuan sartzeco, edo, ezcondu bagaric, Castidade guztizcoa gordetaco, promesa, ezin ezconduco da, baña, ezconquetan bada, Sacrilegiozco pecatu izugarria eguinic, ezconduric guelditucо da, eta bere Matrimonioa izango da errutsuba, ez onela Religinoan profesa eguiña, edo Epistolaz ordenduricaco Apaeza bada; bada onerian Guizacume edo Emacume bat ezconquetia eta utsa guztia da bat, edo (obeto esatiarren) utsa baño ascoz dongagua: bere bat Christaun Catolicua ezin ezcondu diteque, Eliza Santaren Fedea ucaturic vizi dan Erefe, Apostata, edo Zismaticoagaz, au lenengotic eguiaz batiatuba bada ere; baña ezconquetan bada, eguiaz ezconduric guelditucо da, pecatu mortal guztiz icaragarri bat eguinic; ez ala, beñere eguiaz batiatuba ez bada, nola dirian Judegubac, Jentilac, eta Bautismoa gaizqui eguiten dauben Eregeren batzubec; bada onerianetatic edozeñegaz ezconquetan bada Christaun Catolicoa, utsa da bere Matrimonioa, ezcondu bagaric gueldiquetan da: onela bada, Aisquidia, Matrimonio santuba artuco dauben, Guizacumiac eta Emacumiac izan biar daube, beren artian ezconquetia, Legueac eragozten ez deusten, Persona muetac: azquenian esan deutsudan, verba aiec: beragaz daucana, bien artian ascatu ezin ditequian, vizitza mueta bat: aiquetara emuten deuscube, Matrimonio santuco uztarria, zeñagaz Guizona eta Emaztia loturic gueldiquetan dirian, dala iñolaco moduz ascatu eta deseguindu ezin ditequiana, Matrimonioac dirauban bitarte guztian (au da) bietatic bat ill arteraño; ecusten dozu, Aisquidia, nola, uztarrian lotzen dituzun, zeure Ydi biac daucain ibillera bat, eta nola batac bestiari lagunquetan deutsain, eruaten, ezarri gura deustezun, Burdia, biac, loturic daucazun, bitarte guztian, beren gañetic ascatu, edo quendu ezin dauben, vizitza mueta bat bacarra daucaila; onein artzera bada da, Matrimonioco uztarriagaz loturic vizi dirian, Guizon eta Emaztiaren arteco vizitza mueta bat au.

Esan deutsudan gauza oneitatic bada, Aisquidia, aguirian dago, Matrimonio santubaren izate eta indar guztia daguala, Ezcondu biac loturic izten dituban, uztarri onetan; baña, uztarri au sortzeco, eta beragaz loturic gueldiquetaco Guizona eta Emaztia, aiñ premiñacua da bien vorondate guztizcoa, onetaraco erabaguia, eta batac bestiari campotic aoz autortuba, zeinda bien onerian vorondate bagaric ezin sortu diteque ez Matrimonioco uztarriric, eta ez Matrimonioric; ez da asco, Guizonac aurrian daucan Emacumia Emaztetzat artzeia, biar da

ere, Guizonac onela bere Emaztetzat artzen daben, Emacume onec beronec atzeia orduban bertan Guizona bere Esposotzat; bien vorondate guztizcoac, onetaraco erabaguiac, eta aoz edo beste moduz campora eracutsiac, eta batac bestiari autortubac aiñ batera etorri biar daube; ezin bestela sortu diteque ez Matrimonioco uztarriric, eta ez Matrimonioric; bai, Aisquidia; onela Emacumiac esquinten eta emuten deutsa bere Persona Jaquina eta ezagutuba, aurrian daucan, Guizonari Emaztetzat, eta Guizonac, au ontzat emunic, artzen dau bere Emaztetzat; eta orobat Guizonac esquinten eta emuten deutsa bere Persona Jaquina eta ezagutuba, aurrian daucan, Emacume ezagutubari Esposotzat, eta Emacumiac, au ontzat emunic, artzen dau bere Esposotzat, ~~beste~~ onenbestegaz gueldiquetan diriala biac, Matrimonioa arturic, eta Matrimonioco uztarriagaz loturic; eguia da; ezcondu ditezque biac aurrian egon ezagatic; eta ala ascotan ecusi oi da, bata bestiagandic urrin dagozen, Personac ezconquetan diriala, Escribaunen aurrez besteri emunicaco, escuvidiaren bitartez, beste edozeiñ Contratu guere artu emunetan eguin ditequian antzera.

Ecusiric dago bada, Aisquidia, bien vorondate erabaguiac, alcarregaz ezconquetaco, batac bestia Senar Emaztetzat artzen daubela, orduraco ~~[illegible]~~, eta ez gueroco demporetaraco campotic aoz, edo beste moduz eracutsi, eta autortu biar diriala; zergatic, gueroco demporetan alcarregaz ezconquetaco, batac bestiari eracutsi oi deutsain, vorondatiac, eta, onetaraco alcarri emun oi deutsain, verbac ez ditu Matrimonioco uztarriagaz lotzen, baizican alcarri esquinten deutsai gueroraco Matrimonioa; onela gueien bat Matrimonioaren aurretic eguin oi da, eta eguitia, gauza guztiz ona da, aurraz aimbat moduric onenian erabaguiteco, guero Matrimonioco vizitzan izan leiquien, gora berac; argatic, onela ezcondu aurrian batac bestiari Matrimonioa gueroraco esquinten deutsainac, batac bestiaren Corputzaganaco, Matrimonio eguiazcoac emun oi daben, escuvideric batere ez daucai: eguia da; batac bestiari pecatu mortalaren azpian gorde biar deutsai, alcarregaz ezconquetaco, emunic daucain, verba, ala Guizacumiac Emacumiari, nola Emacumiac Guizacumiari; bai, Aisquidia; onetan biac bardiñac dira, eta ez ascotan, Chepechac baño garoiñ gueiago ez daucain, Emacume batzubeiaitu deustedan leguez, Emacumiac ecarri daiquiala Guizacumia Justiziaz, beragaz ezconquetara, baña ez Guizacumiac Emacumia, beronec gura ez dabela, Emacumiac Animaric eta Legueric batere, zer gorde, ez baleucain leguez; baña bietatic edozeiñ, ezconquetaco emunic daucan, verbiagaz damu

turic, besteren bategaz ezconquetan bada, eguingo dau pe-
çatu mortal icaragarri bat Justiziaco virtute santuba, usia-
gaz, eta ezconduric gueldituco da.

Bardiñ, Aisquidia, Matrimonioa alcarri gueroraco es-
quinten deutsain, Nesca Mutillac batac bestiaren Corputzagana-
co ez badaucai, Matrimonio santubac emun oi daben, batere escuvi-
deric, aguirian dago, zein Astaqueria andia dan, onerian Guizacume
eta Emacume batzuben ustia; larran dabiltzen Astuac baño Astua-
go eguiñic iragoten dira, Astuac eurac asmau ezin leiquien, ziquin-
queriaric asco alcarregaz eguitera, eta (gueiago dana) Matrimonio
santuban pecatu mortaltzat ucaquetan dirianac, esaten daubela be-
ren Animen calte andian eta guezurrez: gu onezquero alcarrenac
gara, eta, Mundiraco ezagatic, Jaungoicoraco ezconduric gaoza:
au onela Jaquinian esatia eta sinisquetia da, Fede santuba betez
betezian ucaquetia: ez da ez, Aisquidia, Matrimonio santuba, Gui-
zacumiac eta Emacumiac alcarri gueroraco batac bestiari eguiten
deutsain [illegible] Corputzen esquinte uts bat, baizican da emute
guztizco eta oso bat, zeñagaz Emacumiac berialatic eguiten
daben Guizacumia bere Corputzaren Jabe, eta orobat Guizacumi-
ac berialatic eguiten dau bere Corputzaren Jabe Emacumia alaco
moduz, eze, Matrimonioa eguiaz artzen dauben berialatic,
aurrera biac alcarrenac dira, ezin deseguinduco daube,
arturic daucain, Matrimonio santuba, ez dago gueiago da-
mutasuneraco lecuric; eta, damuturic, bacarquetan badira
ere, eta bata bestiagandic berreun milla legua vide iguesi
Juanagatic ere, biac guztiz errime alcarri loturic gueldi-
tuco dira Matrimonioco uztarri santubagaz; eta bietatic
edozeiñec, bere vizitzaco Laguna vizi dan, vitarte guztian
eziñ eguingo dau bestegaz Matrimonioric, eta eguiten ba-
dau, bere Laguna illic dalaco uste onian izan agatic ere, be-
re Matrimonioa eta utsa guztia da bat: au ere, Aisquidia,
Fede santuco egui erabaguia da.

Matrimonioan biac alcar batac bestia beren Corput-
zen Jabe guztizcoa eguite onetatic dator, San Pablo Aposto-
lubac Corintioarrai esan eustena, ez euquitia Guizonac be-
re Corputzaren gañeco escuvideric, baizican bere Emazti-
ac, ez da ere Emaztiac bere Corputzaren gañeco escuvideric,
baizican bere Guizonac; bai, Aisquidia; onela Matrimonio
santuban gueldiquetan dira Guizona bere Emaztiaren Corput-
zaren Jabe, eta Emaztia bere Guizonaren Corputzaren Jabe,
biac Aragui baten, Aragui bat eta Corputz bat eguinic, nun-
dic ere gure lenengo Guraso Adanec Ezcondubacatic Espiritu
Santubaren arguitasunagaz esanic itzi euscun: izango dira bi

~Araqui baten.

Guizonac Matrimoniuan bere Corputzaren Jabe bere Emaztia, eta Emaztiac bere Corputzaren Jabe bere Guizona equite onetatic zortzen da bien artian Matrimoniuco zorra esaten deutsaguna, batac bestiari, benetan eta estu escatu ezquero, pecatu mortalaren azpian autortu biar deutsena; arrgatic San Pablo Apostoluac Corintioarrai esan euste~ten: Guizonac autortu beguio zorra Emaztiari, eta orobat ~Emaztiac bere Guizonari: baña zor escatu au pecatu mortalaren azpian autortu biar dana bada ere, gauza laquiña da Eliza Santan, voronda tezco gauza dala, Ezcondubac bere Laguna zor au escaquetia, eta, bien voronda te asoacar izan ezquero, vizi ditezquiala beren vizi guztian, beñere alcarri zor au escatu bagaric, onela [redacted] beren vizitza guztia iragotia, gauza guztiz necesoa bada ere: bere bat da gauza laquiña Eliza Santan, Matrimoniuco zor au batac bestiari escatubagatic, izan ditezquiala bestiaren aldetic errazue onen batzubec, batere pecatu bagaric zor escatu au ez autorquetaco; oneic guelen bat izan ei dira Emaztiaren aldeticuac, eta zeintzubec diriran oneic eracustia beren dempoetan, da Confesoruen langueia: baita ere gauza laquiña da Eliza Santan, Matrimonio santuban zor au escaquetaco, eta escuvidian autorquetaco premiñan biac, Senar eta Emazte, diriala bardiñac; batac añaco escuvidia dauca bestiac ere, bata baño gueiago bestia ere ez da, ez da ere guchiago; baña zor onepaz asteriango beste gauza guztietan Guizona da bere Emaztiaren, eta Aguirtari; bai, Arisquidia, au ere Fede santuco equia da. Buru

Eliza Ama Santac, Apostolu San Pablo gandic icasiric, ~esaten deuste ezconquetan diriranai, ez dequiela alcarri Matrimoniuco zor au escatu Ygandietan eta beste Tai ~egun aurrenengoetan, Confesiruco eta Comuniuco egunetan, ~Gaizumaco egunetan, Cuarta Femporetaco, eta, ustiac di~tubar, gañerantzaco Bazu egunetan; ezpatic ifiniric da~ezen egun santu oneic, Chiurtaunac Jaungoicoari orazi~no, eta pecatubacatic penitenzia, eta negar equiteco; baña au onela esatiagan ez deuste ifinten ezcondubai, pecatuaren azpian gonde biar dauben, seque edo Mandamentuzic; baizican bacarric aiquetan emuten deuste, zertaraco ifiniac diriran egun santu oneic, eta bere voronda tia nolaeua dan, ezcondubac egun santu oneic Jaungoicoaren voronda tesa aintbat ondurien gordetaco; eta ala egun santu oneitan alde onetatic ezcondubei antian utz equiteren bat guztatuco baliz, edo izango ez lizateque batere pecatu, edo, izan erian, izango lizateque guztiz chiquiña eta veniala, eta danau ere zorra

escaquetan daberaren aldetic; bada eguin zuntzu oneitan ere
zor escatuba pecatubaren azpian auttortu biar dana da; eta
ala, oni beguiraturic, eguin onelacuetan zor escatuba auttor-
quetan daben ezcondubac ez bacarric pecaturic batere eguiten
ez dau ez chiquiñic eta ez andiric, baizicar izabazten di-
tu Jaungoicoaren auzzian mereximentubac: ala ere Ezcondu-
bac Eliza Santaren voluntate au leialtasun guztizcoagaz gorde-
tan badaube, eguin zuntzu oneic inagoten ditubela, batez ere, co-
mulgauco dirian, auzzietico izu eguiteagatic, Matrimonio-
co zor onialde batera itzric, guztiz ederiquiro eguingo daube; zer-
gatic onela eguiñagaz, ecinsico ditube beren gañian, Matrimoni-
oac beragaz daucan, ontasunac eurac Jaungoicoaren grazia-
ren eguinetic eguneraco ugaritasun gueiagogaz, eta, virtu-
te santubetaco vidiari obeto jarraiquetan deutsaila, ez ba-
carric inagoco ditube beren eguinac biotzeco baquian eta pozic,
baita ere euracaz beti eunsico daube, vizitza beticua Zeru-
betan Jaungoicoaren ontasunagaz batera anchiquetaco, utsian
izten ez daquian, esperanza eguiazcoa eta errimia; bai, Aiz-
quidia; au ere ez da guizunna: auzzeragó esango deutsut, Aiz-
quidia, zer asmogaz eta nola ezcondubac escatu eta auttortu
biar deutsain alcarri beren Matrimonioco zor au, izan dequi-
en beren Animen salvazinoraco.

Guré lenengo Aita Adaneri Mundubaren asperian Jaun-
goicoac ez euntsan emun Emazte gueiagoric bat bacarra ba-
~ño; diño Escritura Sagradubac: (lenengotic Jaungoicoac)
~eguin zituban Guizon (bat) eta Emacume (bat); oneic zui-
an Adan eta Eva; onenbestegaz aiquetara emuten euscula
aren Divina Magestadiac, Matrimonio santubac izan biar
dabela Guizacume bacar baten eta Emacume bacar baten
artian; au bereau aiquetara emun euntsan Adaneri berari,
eta Adanec bere ondoxengo guztiai, Matrimonioaren gañian
~esaric itzi eberian: Guizonac itzico deutse bere Aitari eta
~Amari, eta ichatsico da bere Emaztiari; eta izangó dira bi
~Aragui baten: ez eben esan: bere Emaztiai: ez da ere: izangó
~dira iru edo lau edo gueiago Aragui baten; baizicar: izan-
~go dira bi Aragui baten: au bereau aquiniagaan aiquetara
emuten deusku Jesus Divinoac bere Evangelio santubar, esa-
~ten deuscunian: edozeñec bota daguiala (beragandic) bere
~Emaztia, eta beste bat artu daguiala, Adulterioa eguiten dau
~bere Emaztiaren gañian; bere bat Emaztiagitzinic bere Guizo-
~nari, beste batergaz ezcondu badedi, eguiten dau Adulterioa:
ezin bada, Aizquidia, Emacume batec batera bere Matrimoni-
oan eraguii dauque Guizon bat baño gueiago, ez da ere Guizon ba-
te Emacume bat bacarra baño gueiago; eta bacoitzac bere vizit-
zaco laguna vizi daben bitartian bertegaz ezconquetan bada,

utsa da bere ezcontzaia; onela da bada Jaungoicoaren vo-
rondate erabaguia; eta uste daubenac, ez daguala Legue-
ric, Guizon batec bere Matrimonioan batera euquitia Emaz-
te bat baño gueiago, ucatu edo eragozten dabenic, ucaque-
tan dau be Fede santuba, Eliza Ama Santac berac Trentoco be-
re azquenengo Conzilio generalian aiquetan emuten deus-
cun leguez: argatic, Aisquidia, Guizacume Jentilen bat bi-
urquetan bada gure Fede santura, bardin, oi dirian leguez
onein artian batzubec, Emazte bat baño gueiago badauca
bere Matrimonioan, aguinquetan deutsa Eliza Santac, ba-
carric guelditu dedilla, artu eben, lenengo Emaztiagaz, eta
itzi deguiela, onen ondoren artu zituban, beste Emazte guz-
tiai.

Eguia da, Aisquidia; Eliza Santaren ala Legue natura-
leco nola Legue escribiduricaco Estadu bietan Matrimo-
nio santuba Jausi zan bere lenengo edertasun onetatic; ba-
da Escritura Sagraduban ecusten da, gure anchinaco Gu-
rasoric ascoc euqui zitubela batera Emazte bat baño gueia-
go, eta onela Emazte ascogaz batera ezconduric egon zirian
Guraso oneitatic batzubec izan ziriala santu eta Jaungoico-
aren Aisquide andiac; bai, Aisquidia; au ala da; eta Guizon Justo oneic
batera Emazte ascogaz, Jaungoicoaren Aisquide andi izatia-
ri itzi bagaric, ezconduric vizi izan bazirian, au eguin euben
onela Jaungoicoaren beraren escuvidez, eta Jaquinian, Emaz-
te bat baño gueiago Guizon bacoitzac euquitia batera, eragoz-
ten eusten, Jaungoicoac berac, Legue onen erruba beren gañetic
Jausoric, emuten eustela artaraco escuvidia: baña Jesus maiti-
ac bere demporan biurtu eutsan Matrimonio santubari, lenen-
gotic eucan, eta gueroco demporetan galdu eben, edertasun au,
guztiz eragotziric izten ebela, aurrera Guizon batec batera Emaz-
te bat baño gueiago euquitia, eta, daucan, Emazte bacarra be-
ragandic botatia; bada, onerian itauneren batzubec Matrimo-
nio santubaren gañian eguin eutsain, Fariseoai erantzun eus-
~ten aren Divina Magestadiac: ¿ez dozube iracurri, lenengotic
~Guizona eguin ebenac, Guizacumia eta Emacumia eguin zitu-
~bala? eta esan eben: onegatic itzico deuste Guizonac Aitari eta
~Amari, eta ichatsico da bere Emaztiari; eta izango dira bi Ara-
~gui baten; eta ala ez dira bi, baizican Aragui bat: au entzu-
nic Fariseoac ez zirian isildu, baizican, beren errazoiagaz urten
guraric, aurrera eruan euben beren auzia; baña Jesus maitiac
laister isildu zituban Guizon zatar oneic, esaten eustela: ezzan
~izan (Matrimonioa) lenengotic onela: eta ondoren, ofa onen ar-
peguian izentauric itzi deutsudan, beste verba santu guztiac;
onela, Aisquidia, Jesus maitiac itzi eben guztiz erabaguiric Ma-
trimonio santuba Guizacume bat eta Emacume bat bacarren ar-
tian, eta, lenengotic izan eben, bere edertasun guztizcoan.

Çsanic onela, zer gauza dan Matrimonioa, zertan da-
guan bere izatia eta indarra, eta, emendic ezcondubenartian
sortzen dan, bata bestiaganaco zorra, ecusi daiguin orotiñ, ze-
imbat modutan aitu ditequian Matrimonioa.

Bi modutara, edo bi aldetatic, Aisquidia, aitu daiteguMatrimonio au;
bata, guere Naturaleziac berac eracusten daben, Guizona eta
Çmacumia alcarregana batzeia dan aldetic; bada aquirian da-
go, Guizona eta Çmacumia ez contzaz alcarregana batze auez
dala, Guizonac asmamiricaco, gauza, baizican, Jaungoicoac
Guizonari emun eutsan, izate murietiac berac eracusten da-
ben, gauza: bigarrena, Sacramentu santuba dan aldetic; bada
Fede santuco equia ere da Eliza Santan, Matrimonioa dala
equiaz zazpi Sacramentubetatic bat, Guizonaren eta Çmacu-
miaren ez contzaz alcarregana co batze oni batere colteric equi-
ten ez deutsana, baizican bere gratia santubagaz edertu, on-
du eta serdoquietan daben, onela, ez contzaz alcarregana bat-
zen dirian, Guizon eta Çmacumiac aimbat onduen gonde da-
guien Matrimonioco Legue santubac.

Matrimonio santubac, lenengo modura aitu ric ere, izan
eben bere lenengo asipena Paraiso terrenalian gure lenengo
Gurasso Adanegan eta Çaragan, eta artu eben bere izate gue-
tia ez bestegandic, baizican zuzenian Jaungoaren beraren es-
cutic; bada aren Divina Magestadiac, Adan Paraisuan lo egi-
ala, quendu eutsan Saiatz ezur bat, aren lecuba bete eutsan
Aragui, Saiats ezur oni emun eutsan Çmacumiaren iza-
tia, emun eutsan Adaneri onela equiricaco Çmacume au be-
re Lagun eta Çmaztetzat, eta equiñicaco Guizacume bacar
eta Çmacume bacar onei ezarri eusten bere bendizinua, eta esan
eusten: azi zaitezte, eta gueitu zaitezte; eta, aiquetan emu-
nic Adaneri, Matrimonioco Legue eman eragui n eutsan ere be-
re ondorengo guztientzat: oneic onela esanic Escritura Sagra-
duban, eta Jesus Divinoac berriro esanic (San Mateoaren Evan-
gelioan iracusten ditugun leguez) guztiz aquirian ifinten deusu-
be, Matrimonioac, lenengo modura aitu ric ere, artu ebela bere
izate guztia bacar bacarric Jaungoicoaren escutic, eta ez beste-
ren escutic: bai, Aisquidia; au Fede santuco equi erabaguia
da.

Lenengo modu onetara aitu ric Matrimonioa da Guizasuni-
aren eta Çmacumiaren arteco, bien voluntatez erabaguizica-
co, contratu ots bat, guere artu emunetan eta saldu eraxietan
erabagui oi ditugun, beste edozein contratuben antzera; onela
izan eben Matrimonioac contratu baten izate bacarragaz.
Eliza Santan, Murdubaren asipenetic Jesus Divinoac Sacra-
mentubaren izate miragarrizcoa (jaunso artzaño); eta or obat
gauco equirian ere, Eliza Santatic campora vizi dirian, Jes-

til eta Judeguben arteco Matrimonioac Contratu baten iza-
tia baño besteric ez daucai.

Matrimonioac, Contratu uts bat dan aldetic ere, berez
dacar, Ezcondu biac beren vizitza guztian loturic izten ditu-
ban, eta ascatu ezin ditequian, uztarria; zergatic Jaungoico
gure Jaunac, Contratu mueta au erabagui ebenian Paraiso-
an gure lenengo Gurasoetan, ez bacarric erabagui eben, Guiza-
cumen eta Emacumen artian ~~[illegible]~~ bacarric izan biarco eben,
Contratutzat, baita ere ifini eutsan Contratu mueta oni betico
uztarria, eta, loturic izten ditubanen gañetic, ascatu ezin dite-
quiana; bai, Aisquidia; au eguia da, eta Fede santuco eguia,
Eliza Ama Santac Frentoco bere azquenengo Conzilio genera-
lian erabagaric itzi euscun leguez; eta ala alde onetatic Ma-
trimonioco contratu au, guere beste artu emun eta saldu ero-
sien gañian eguin oi ditugun, Contratuben artian guztiz baca-
rra, eta beste edozeñegaz batere antzic eta zer ecusiric ezda-
ucana, da; edozeiñ artu emun eta saldu erosi eguin diteque
Guizacumetatic Guizacumetara eta Emacumetatic Emacume-
tara, eta orobat bein eguiña deseguindu diteque, eguin zan,
modura, bardin eguiña damuturic, guztien vorondatez, egui-
tia, erabagui euben leguez, deseguinquetia ere, guztien vo-
rondatez erabaguiten badaube; Matrimonioco contratu onec
barriz izan biar dau Guizacume bacar bategandic Emacume
bacar bateganacuac, eta, bien vorondatez guztiz erabaguia
izan ezquero, iñolaco moduz ezin deseguindu daiquie, biac,
edo bietatic edozeiñ damuturic, bien vorondatez erabagui gu-
ra baleube ere, eguiña deseguinquetia; emen eguiña eguiñic
gueldiquetan da, eta ez dago damutasuneraco batere lecuric;
argatic Jesus Divinoac, berr eun eta ogueta laugarren ojiaren osti-
an aitaturic itzi ditudan, Fariseo zatar ai Matrimonioco uztar-
ri onen gañian esan eusten: Jaungoicoac lotu dabena ez be-
gui Guizonac bacartu: eta urrinago Juan bagaric egui onen
billa, guere errazoiaren arguitasunac berac eracusten deus-
cu, Matrimonioac, Contratuba dan aldetic ere, izan biar da-
bela, ascatu edo deseguindu ezin ditequiana; bada onela ez
baliz, Aisquidia; ¿zer baque ecusico lizateque Matrimoni-
oetan? zer leialtasun bata bestiaren artian? ¿zer garbitasun
Aurren artian, zeiñ zeiñena dan eguiaz, Jaquiteco? ¿nola Aur
oneic ondo azi eta ezico lirateque? eguia da; Moises Profe-
ta Santubac Eliza Santaren Legue escrividuricaco demporan
esan eusten Jaungoicoaren aldetic Judegubai, Guizon ez-
conduren bat iguiñquetan bazan bere Emaztiagaz, bota ei-
quiala beragandic, emunic onetaraco paperez bere aguiria,
nola beragandic botaten eben; baita ere, aiquetan emun eusten, onela botaricaco Emaz-
tia ezcondu zitequiala beste bategaz; eta Fariseo zatar aiec
arpeguian emun eutsain Jesus Divinoari, Moises santubac Ma-

rimonioaren gañian emun eusten, nasaitasun onegaz; baña Jesus Divinoac erantzun eusten: Moisesec emun eutsuben escuvide ori (beguiraturic) zeuroen biotzeta gogortasunari: eta: ez zan izan (Matrimonioa) lenengotic ala: eta: Jaungoicoac lotu dabena, Guizonac ez begui bacartu: ecusi eguizu berr eun eta ogueta laugarren ojiaren arpeguian eta ostian esanic itzi deutsudana.

Matrimonioac, bigarren modura aituric (au da) Sacramentu santuba dan aldetic, dauca bere asipena eta izate guztia Eliza Santan, Jesus maitiac Sacramentubaren izate miragarrizcora Jauso ebenetic ona; bada aren Divina Magestadiac ez bacarric biurtu izan eutsan Matrimonioari bere lenengoco edertasun guztia, baizican ere gueitu eta ugaritu eutsan edertasun au miragarrizco moduban, emunagaz Sacramentubaren izate guztiz andia eta santuba; eta ala Matrimonioac, bere lenengo asipenetic berez badauca ere, Guizacume bacar baten eta Emacume bacar baten artian izatia, eta, biac beren vizitza guztiraco loturic izten dituban, uztarri errimia, ascoz gueiago, senduago, eta errimiago dauca edertasun bi mueta oneic, Sacramentu santuba dan aldetic; bai, Aisquidia; au ere egui Jaquiña da Eliza Santan.

Gure Eliza Ama Santac, oraiñ daucan, Legue graziazco estadu onetan ifini zan, berialatic beti bardin eta errime sinistu, eta eracutsi izan dau, Matrimonio santuba dala eguiaz Sacramentuba, eta zazpi Sacramentubetatic bat, egui au eracutsiric izten euscula Apostolu San Pabloc, Efesoco Christaunai esan eusten, verba santubetan; bai, Aisquidia; gure lenengo Aita Adanec, Paraisuan lotatic iratzarriric, ecusi ebenian bere aturrian bere Emazte Eva, Espiritu Santubac argui eguinic, esan zituban, lenengo verbac izan zirian oneic: au oraiñ (da) nire Ezurretatic (sorturicaco) Ezurra; eta nire Araguitic (sorturicaco) Araguia; au izentauco da Guizon Emacumia; zergatic Guizonagandic artuba izan dan; eta ondoren esan zituban berr eun eta ogueta laugarren ojiaren arpeguian eta ostian izentauric itzi ditudan, verba santubac; oraiñ entzun eguizu, Matrimonioa dala eguiaz Sacramentuba guri aiquetara emutiarren, Efesoco Christaunai San Pablo Apostolubac esan eusten, verba santubac: Guizonac amau biar ditube beren Emaztiac beren Corputzac leguez: bere Emaztia amaitan dabenac, bere buruba amaitan dau; zergatic iñorc iñoiz gorrotoric izan ez deutsa bere Araguiri, baizican viztzen eta gozaquetan dau, Christoc Eliza leguez; zergatic garian bere Corputzeco Miembroac, bere Araguitic eta bere Ezurretatic (sortubac); onegatic itzico deutsa Guizonac Aitari eta bere Amari, eta ichatsico da bere Emaztiari; eta izango dira bi Aragui

~baten: Sacramentu au andia da; baña nic esaten dot: Christo-
~gan eta Elizagan: aguirian dago bada, Aisquidia, San Pabloc
~esan zituban verba oneio: Sacramentu au andia da: esan zi-
tubala eguiaz Matrimonioagatic; eta lenagoco verba santu-
~betan eta azquenengoetan: baña nic esaten dot: Christogan eta
~Elizagan: aiquetara emuten deuscu, Jaungoicoac ifinirica-
co Matrimonio au, eta bere uztarriagaz Ezcondu biac bat egui-
nic izten ditubana, dala Jesu Christoren eta bere Esposa eta gu-
re Ama Eliza Santaren artian daguan Matrimonio espiri-
tualaren iduripen santu eta eder bat, eta Matrimonioa alde
onetatic dala Sacramentu andia (au da) misterio guztiz andia
eta sagraduba aiquetara emuten deuscun Señale mueta san-
tu bat; zergatic gure lenengo Aita Adan beste Guizacumeren
obra bague Lurretic Donzella bategandic leguez sortuba izan
zan antzera, Jaungoicoaren Semia ere, arturic gure Natura-
lezaco Guizatasuna bere Ama Virginaren Errai garbietan Espi-
ritu Santubaren, eta ez Guizacumiaren obraz, aguertu zan
Mundu onetan, Animetaco Esposo miragarrizco bat eguiñic, be-
re Esposa Eliza Santaren billa, eta onen amorioz itzuliric be-
re odol adoragarria, guztiz zurituric eta ederturic izteiarren
pecatubetaco loitasun guztietatic, emun autsan bere odolezco
ereztuna, eta ideguiric bere Bular sagraduba[redacted] artu eben
Eliza Santa au bere Emaztetzat, bere Bular ideguitic urten euben,
ur eta odoletic sortuba, gure lenengo Ama Eva bere Guizon Adanen
Bularretic sortuba izan zan antzera; bai, Aisquidia; onela Jesus
maitia eta gure Ama Eliza Santa, Matrimonioan guertatu oidan
leguez, guelditu zirian biac eternidade guztiraco errime loturic
alcarri Espiritu Santubaren amoriozco uztarri gozo, bigun, eta
sendoagaz gure Naturalezaco Guizatasun eguiazcoaren bitartez.

Aitatu deutsudan Apostolu San Pabloren verba santu one-
ic bada, Aisquidia, aiquetara emuten deuscube Matrimoni-
oan Guizonagaz Jesus Divinoa, Emaztiagaz Eliza Santa; Gui-
zona dala Emaztiaren Buru, Christo Eliza Santaren Buruba
dan leguez, eta Emaztiac egon biar dabela bere Guizonaren ben-
dian, Eliza Santa Jesus maitiaren bendian vizidan leguez, ecar-
ten deutsala bere Guizonari beti amoriozco itzal santubat, Eliza
Santac Christori ecarten deutsan leguez; eta Guizonac amau bi-
ar dabela bere Emaztia; zergatic Jesus maitiac amau eben
Eliza, onen amorioz emun eben bere vizitza, eta Eliza santa
au, bera dan, guztiagaz Sacramentu santu Comuniocoan beste
Sacramentubacaz gañera viztzen eta gozaquetan dau, onen bes-
tegaz Apostolubac aiquetara emuten deustela Guizon ezcondu-
bai, zer amorio mueta euqui biar deusten beren Emaztiai, beren
Araguiac dirian leguez: Hai, nire Aisquidia! bardin Ezcondu-
bac beren Matrimonioan Misterio santu au ondo ezagutuco ba-

leube, eta ondo ezaguturic beren beguien aurrian sarritan
eiequico baleube, zeiñ ederquiro icasico leuquien Misterio
santu onetatic, nola vizi, eta nola Jaungoicoaren vorondatia
eguin Matrimonioaren alde eta esquina guztietan! ez lirateque,
ez, ecusico Ezconduben artian aimbeste gaiztaqueria, nola ecu-
si oi dirian; ez da ere Senar Emazten artian alcarreganaco eta beren
Seme Alabacanaco, bacarric Araguiac eta Mundubac eracusten
dituben, eta Errazoiac betez betezian ucaquetan dituban, aimbeste
amorio ichu eta zatar, eurac aurrenengo dabiltzela, eta ondoren
ecusi gura ditubela beren Seme Alabac, ibilten Pichileta batzubec
eguinic, eta pusica puztu bat duiñ arroac eta aizez betiac beren
biotzac darabildela, aiquetara emutiarren: nor nilaco? nortzubec
guri ur emutecoric? eta nolacuac izan biar ete daben, bere Emaz-
tia eta Vmiac onela darabillen, Guizonac? zer bait bada; ez da
bertan beracoa; aguiri dau, Guizon arretazcoa dana, eta nun bai-
ten suba daucana: Ha, Aisquidia! Jesus Divinoac ez euqui de-
utsa, eta ez dauca bere Esposa Eliza Santari onerian batere
amorioric, baizican amorio mueta bat, guztia santuba, guztia
garbia, batere ez azaleticoa, baizican guztia barruticoa, Eliza
Santa bere Esposaren biotzian sortu eraguiten dabena aren Divi-
na Magestadiaganaco amorio sendo bat, Araguiaganaco, eta
Mundubaganaco errazuazco gorroto andi bat, eta pecatu mue-
ta guztiacanaco, chiquinac izanagatic ere, alditequian gorroto-
ric andien bat: bai; Aisquidia; Guizon Ezcondubac ere amorio
mueta au eta ez besteric euqui biar deuste beren Emaztiai eta Vmi-
ai, amau gura baditube, Jesus maitiac amau eben eta amaitan da-
ben leguez bere Esposa Eliza Santa, eta eguin gura badaube Ja-
ungoicoaren vorondatia Matrimonioaren alde eta esquina guz-
tietan, Matrimonioco Misterio guztiz miragarri eta andi onetan
Apostolu San Pabloc eracusten deusten leguez.

Matrimonioco Sacramentu andi onec bada, Aisquidia,
ez bacarric aiquetara emuten deuscu, esanic itzi dodan,
Jesu Christoren eta bere Esposa Eliza santaren arteco Miste-
rio guztiz andi eta miragarrizco au, baizican ere, Sacramen-
tu eguiazcoa dan leguez, ondo guertaturic artzen dauben,
Christaun Catolico guztiai emuten deusten bere grazia san-
tuba, zeñagaz onetic obiaguac eguinic Ezcondubac vizi dite-
zen beren artian baquian, eta azi daguien Zeruraco Seme
Alabac; bai, Aisquidia; au ere Fede santuco egui erabaguia
da; onetan dago Sacramentubaren izate, indar eta erruba-
[illegible]; eta ala Matrimonioac emungo ez baleuste bere grazia san-
tuba Christaun Catolicoai, Eliza Ama Santac ez eben ezagu-
tuco Matrimonioa Sacramentu eguiazcotzat eta zazpi Sacra-
mentu eguiazcuen artetico bat; entzun eguiozu Eliza Ama San-
tari berari, zer erabagui euscun Trentoco bere azquenengo Con-
zilio generalian Matrimonioco Sacramentu eguiazco onen ga-
ñian: Ezcondubai emuten deuste ere bere grazia santuba,
ederquetan eta sendaquetan deustela grazia onegaz alcarrega-
naco daucain amorioa, eta, biac bat eguinic izten dituban asca-
tuezin diteqiian, uztarria, eta izten ditubala Ezcondubac eu-
rac santubaguac eta obiaguac eguinic; eta, Sacramentu ado-

~ ragarriac Eliza Santan ifini zituban, Jesus Divinoac berac
~ irabazi euscun bere eriotza santubagaz Matrimonioarent-
~ zat ere mesede eta erru miragarrizco au: au da, Eliza
Santac Matrimonioco Sacramentu eguiazco onen gañian, guc
benetan sinisquetaco, eracusten deuscun, egui erabaguia, eta
egui erabagui au ucaquetan dabenac ucaquetan dau Fede san-
tuco eguia, eta Eregia da.

Grazia santu onen videz gueldiquetan dira Ezcondu biac, ba-
tac bestiaganaco amorioagaz loturic, eta biac bat eguinic; Emaz-
tia vizi da pozic eta batere quezca bagaric, Guizonaren al-
detic ecusten daben, beraganaco leialtasun eta voronda-
te onian, bere bat Guizona, bere Emuztiaren aldetic ecusten da-
ben, beraganaco leialtasun eta vorondate onian; eta ala batac
nola bestiac emuten ez deutsai beren biotzetan batere lecuric
Persona atziacanaco (pecaturaco dan) amorio dongari, ez daere
Persona atzien aldetic euracanaco Araguizco amorio zatar-
reri, onela urteten deustela beren ezcontzaiac guztiz onra an-
dicuac, eta beren Matrimonioac guztiz santubac: aitaturic Ma-
trimonioa ala Contratuba dan aldetic, nola Sacramentuba dan al-
detic, ecusi daigun oraiñ, zer moduz guertatu biar dauben Chris-
taunac, Matrimonioco Sacramentu au artzeco.

Aurrera irago baño lenago esan gura deutsut, Aisquidia, no-
la Gaztiac ezcontzaric autortu biar ez deutsain iñori, ez da ere iño-
gaz ezcondu, beren Gurasuen edo Guraso ordecuen, zeñen bendian vizi
dirian, ezcutuban, oneic ez daquiela, edo, jaquiñian badagoza ere, gu-
ra ez daubela, beren vorondate dongan, eta atsecabe gaiztoan; bai;
Gaztiac beren Gurasuai onelañaco onra eta itzal santu ecarri biar
izatia, nori nai bere errazoiaren arguitasunac ezagutu eraguiten
deutsan, gauza da; argatic Eliza Santan Legue naturaleco
demporan Escritura Sagraduban ecusten da, anchinaco Gu-
raso santu aiec beren Seme Alabai eurac eguiten eustela be-
ren ezcontzac, eta Legue graziazco azquenengo dempora
santu onetan ere beste onen beste aiquetara emuten deuscu
~ Apostolu San Pabloc, esanic itzi euscun verba santu oneitan: bere
~ Donzella ezcontzaz lotzen dabenac ondo eguiten dau; eta lotzen
~ ez dabenac (au da) ezcontzaca izten dabenac obeto eguiten dau:
eguia da; Apostolu andi onec esan zituban verba santu one-
ic, Gurasuai eta Christaun guztioi eracustiarren, leen esanic
daucadana (au da) ezcontzaquien vizitzaia bardiñian Jaun-
goicoaren aurrian obiagua dala Ezcondubena baño; baña, guri
au eracusteco, Apostolubac, euqui eben, izcunia onetan guztiz
ederquiro aiquetara emuten deuscu, Gaztiac beren ezcontzetaraco
eseguiric egon biar daubela beren Gurasuen vorondate-
~ tic; bada ez diño: ezcontzaz lotzen dan Donzelliac ondo egui-
~ ten dau: baizican esaten dau: bere Donzellia ezcontzaz lotzen
~ dabenac (au da) ezcontzara bere Donzellia emuten daben, Gurasoac
~ ondo eguiten dau: onegaz guztiagaz Gurasuac ez daquiela, edo
beren atsecabian ezconquetan badira Gaztiac, ezconduric guel-
dituco dira; eta Gaztiac onetan, laugarrengo Mandamentu-

ba urratubagaz, neurtzalla guztiz bardiña, eta ez batere az-
corra, ~~ez~~ dan, Jaungoico gure Jaunari gueien bat eguiten de-
utsai pecatu mortal, bardin Gaztiac onetaraco errazue
onen batzubec ez badaucai, batzubetan euqui leiquien le-
guez, batez ere Gurasuac beren Ymiacanaco erruquiorrac,
eta Jaungoicoaren vorondatera, ez badira, baizican beti eu-
benetic juan biar daubenac naiz dala oquer, naiz dala zu-
zen, ascotan ezcontza onac eragozten deustela, eta biotze-
tic eta errazoiagaz iguiñ dituben ezcontza muetac eraguin
gura deustela, beguiraturic onetaraco beren Buruben on gue-
zurrezcoren batzubei, eta ez beren Ymien on eguiazcoari,
eta beste batzubetan, ezcondu guraric vizi dirian, Seme
Alabai eragozten deustela ezcontza mueta guztiac naiz
onac naiz dongac, eurac nasaiago vizi ditezen; onetara-
co onerian Gurasuen Seme Alabac ez daube gaizquiric sinis-
tu biar beren Gurasuacatic, baizican gorde biar deuste beren
lecuba (au da) beti autortu biar deuste, zor deusten, amori-
oa, onra, eta itzal santuba, eta, aguirian ifiniric beren Con-
fesore artu eta aditubai eguia, bera dan, duiñ pillosic, aien
esanera jausi biar daube ichu ichuban, eta onela utsic eguin-
go ez daube.

Ezconduco dirianac bada, Aisquidia, eguinic onela be-
ren Gurasuacazcua, Jaungoicoac gura daben leguez, zuzen-
du biar ditube beren vorondatiac eta vorondateco asmoac
Matrimonioraco Jaungoicoaren vorondate eta asmo santura,
escaquetan deutsaila biotzetic aren Divina Magestadiari,
artzeco dagozen, Matrimonioa bete daguiala graziaric aim-
bat ugarienacaz; Tobias Aita eta Seme santuben demporan
vizi zan, Sara eritzon, Emacume guztiz santa bat, eta bere Gu-
rasuen Alaba bacarra eta beste Senide bagaric (guchitan gue-
rtatu oi da[redacted], aiñ Eche oneco Alaba bacarrac aiñ San-
tac urtetia) beren Gurasuac ezcondu euben Alaba bacar au
zazpi vider, eta zazpi aldietan ezconduric lenengo gabian
Domonioac, ala Jaungoicoac guraric, ezcondu aldi bacoitzi-
an ito eutsan bere aldameneco Guizona; Tobias santu gaztiac,
artian ezconguei eguala, euqui eben, zer juan bere Aita Tobi-
as onaren aguinduz urrin batera, artzeco batzuben billa; Ja-
ungoicoac berac bialdu eutsan bere Ainguerru San Rafael
Gazte oni, eracutsi eguion vidia, eta lagundu eguion, Echera
biurtu arteraño; videz eldu zirian Emacume aren Echera, eta
eldu aurrian esan eutsan Ainguerru San Rafaelec Tobias
gaztiari (onec ezequian, Ainguerruba zanic, baizican uste eben,
zala beste videzcoren bat) emen vizi da urliaren Alaba bacar
bat, Sara deritzona; eta, esanic, onegaz ezcondu biar ebela,

~ Tobiasec eracutsi eutsan Ainguerubari, eucan, bildurra,
~ Emacume agaz ezconquetaco; zergatic orduraco beucan
~ entzuera, zer eguin eusten Demonioac bere lenagoco Gui-
~ zonai, eta bildur zan, beragaz ere beste aimbeste guerta-
~ tuco ete zan; orduban San Rafael gloriosuac esan eut-
~ san Tobiaseri modu onetan: eracutsico deutsut, nortzubec
~ dirian, zeñen gañian Demonioac euqui daiquen escuvidia;
≈ Matrimonioa bada alaco moduz artzen daubenac, eze bota-
≈ ten daube Jaungoicoa euracandic eta beren biotzetic, eta (ba-
≈ carric) duaza (Araguizco) beren atseguintasunaren billa,
≈ ezaguperaric ez daucain, Zaldiaren eta Mandrien antzera,
≈ onein gañian dauca Demonioac escuvidia: baña zu eta Ema-
≈ cume ori egongo zarai iru egunian orazinuan; eta ondo-
~ ren esan eutsan: irugarren eguna iragoric, artuco dozu
≈ Virginia Jaungoicoaren bildurragaz, atseguintasunaga-
≈ tic baño gueiago (izan daiquezun) Aurren amorioz, Abra-
≈ nen Generazinoan anchitu daguizun bendizinua (zeure)
~ Semetan: onela eguin euben Ainguerubaren esana Ezcon-
guei santu bi oneic, eta Demonioac batere escuvideric ez
eben euqui, Tobias santu oni gaitzic eguiteco, arterañoco
zazpi Guizonai leguez: Ho! nire Aisquidia; Ezconguei guz-
tiac sarritan ezcondu aurrian ecusico balira, San Rafa-
el Ainguerubac Matrimonioraco eracutsi euscun, Ispillu
≈ eder onetan! ez lirateque, ez, ecusico aimbeste amoriozco
≈ ezcontza, eta ondorengo negarrezco vizitza; ezconguei ac
eurac ere, alcarregaz betico batzeco Matrimonioan, gueiago
≈ beguiratuco leusquie Animetaco Virtute santubai, eta biac
≈ oituera eta vizitza mueta batecuac izatiari, bai, Corputze-
~ co edertasunari, eta beren euqui andiai baño.

Gure lenengo ~~lenengo~~ Gurasuac beren Matrimoniotic ba-
tere Aurric izan ez euben, pecatuban jausi baizen lenago;
baizican, euqui zituben, Aur guztiac izan zirian pecatu-
ban jausi ezquerocuac; onela aiquetara emuten deuscu
Escritura Sagradubac, eta onela da ere Eliza Santaren si-
nistia; eta, nola pecatu eguin ezquero, pecaturaco macur-
turic guelditu zan Guizon guztia, Matrimonio santuba ar-
~ razquero guelditu zan ere, Guizonac (au da) Guizon eta
~ Emacume, euquiteco Araguiaren suba errazoiaren bendi-
~ an, Matrimonioaren videz igues eguiten dabela Lujuri-
~ azco pecatu mueta guztietatic; ecusi eguizu, berreun eta
amazortzi garren ojiaren ostian San Pablo Apostolubaren
aotic esanic, itzi deutsudana.

~ Matrimonio santuba gueiago ere da, Naturalezia-
~ ren Leguiac aiquetan emuten daben leguez, Guizacume eta
~ Emacume bacar bat alcarregana baturic, batac bestiari lagun-

tasuna eguiteco pozian, alcarri lagundu deguioen, erraza-
go eruaten vizitzaco naibaguiac eta zartzaroco argaltasunac,
batez ere gaurco egunian, zeñian, Sacramentuba dan aldetic
emuten deusten, grazia santubagaz onetaraco guztiz sendatu-
bac izten dituban Ezcondubac.

Matrimonioa bada, Aisquidia, bere lenengo asipenetic
Jaungoicoac ifinia da bacarric, Guizonac gueiquetaco; eta, Gui-
zona pecatuban jausi zanetic aurrera, esanic itzi deutsudan,
beste gauza bi oneitaraco ere bai; emendic da aguiri, zer mo-
duz eta nola zuzendu biar dituben beren vorondatiac eta
vorondateco asmuac, Jaungoicoaren bildur santubagaz
Matrimonioa artu gura dauben, Ezconguei guztiac; bai, Ais-
quidia; beti beguiratu biar deutsai, artu gura dauben, Ma-
trimonioari iru gauza santu oneitaraco, zeñetaraco (esan
deutsudan leguez) aren Divina Magestadiac ifiniric dau-
can Munduban, escaquetan deutsaila biotzetic bere grazia
santubaren laguntasun ugaria: baña aurrenengo gauzari, ze-
ña dan, Aurrac eguitia, ez deutsai beguiratu biar nola nai,
egunoro ecusi oi dogun leguez, baizican, Aurrac eguinic, on-
doren Jaungoicoac Gurasuen aldetic escaquetan dituban, lan-
gueisantu mueta guztiacaz batera; Ho! nire Aisquidia! eta
zeimbat daguan, zer esan alde onetatic! batzubec bacarric gura ditu-
be Aurrac, izteiarren, eurac ez dirian demporaraco, beren eu-
qui eta ondasun andien Jabe; baña ez ditube gura izan bi-
ar Aurric onetaraco aimbeste, nola izteiarren virtute santu-
ben eta obra onen Jarralla eguiazco batzubec: beste batzu-
bec gura ditube Aurrac, eguin eguitiarren, eta, eguiñic, alde
batera izten ditube, Campoco Pistia baten Vmiac baliran ba-
ño gueiago, beguiraquetan ez deustela ez beren Corputzetan
eta ez Animetan, zabiltzai aldozuben moduban, eta nor baitec
mantenduco eta jantzico zaitube: batzubec eta bestiac, Aisqui-
dia, beñere ezconduco ez balira, obe.

Ezconduco dirianac, onela zuzenduric Matrimoniora-
co beren vorondatiac, eta vorondateco asmuac Jaungoicoaren
vorondatera eta asmora, eta eseaturic aren Divina Magesta-
diari bere grazia santubaren laguntasuna, guertatu biar ditu-
be ere beren Animac, Matrimonioco Sacramentubaren andi-
tasunac escaquetan deusten gara; bada Eliza Santaren
Legue escrividuricaco demporan, zeñian arteraño Matri-
monioac ez eucan Sacramentubaren izateric, bardin San
Rafael Ainguerubac Tobias eta Sara aiñ Ezconguei santu-
bai aguindu beusten, ecusi dozun, duiñ ederquiro guerta-
turic, artu eguiela beren arteco Matrimonioa, ¿ gaurco egu-
nian, zeñian dan Sacramentuba, nola guertaturic, uste do-
zu, Aisquidia, juan biar daubela Ezcongueiac, Matrimonio
santuco Sacramentu andi au artzera?

Sacramentu santu eta andi au da, vizienac esaten de-
ustegun, bost Sacramentubetatic bat, Sacramentuben gañian
erautsi deutsadanian esanic itzi dodan leguez; eta ala, bera
artzeco dagozen, Ezconguei guztien aldetic escaquetan dau,
estadu graziazcuan egotia, artzeco, demporan, edo (orobat da-
na) ezconquetan dirianian; eta onen bestegaz artuco daube
Sacramentu au pecatu bagaric, eta anchituco daube bere
grazia santuba; argatic pecatu mortalian edo bere gañe-
co quezca errazcoaren bategaz bat daguala, gueiagoco
bagaric ezconquetan bada, eguiten dau Sacrilegiozco pe-
catu mortal icaragarria; artzen dau, bai, eguiaz Matri-
monioco Sacramentuba, eta eguiaz ezconduric gueldiquetan
da, baña Sacramentubaren grazia santu bagaric; zergatic
bere vorondatez ifini eutsan ichiquia, graziaren ur gozoa
emuteco dan, Iturri miragarrizco oni; eta onelacuac anchi-
tuco dau bere grazia, penitenzia eguiazcoaren bitartez, ezcondu-
ric aurrera, estadu graziazcoan lenengo ifinten danian: Ez-
conguei biac bada, onela pecatu mortalian dagozela, ezconque-
tan badira, biac gueldiquetan dira ezconduric, bai, eta Sacra-
mentuba arturic, baña bere grazia bagaric, eta Sacrilegiozco
pecatu mortal bana eguinic, eta bietatic bat, estadu graziazco-
an dagoala, eta bestia pecatu mortalian, ezconquetan badi-
ra, lenengoac artzen dau Sacramentu au bere graziagaz
batera, eta bestiac Sacramentuba bacarric grazia santu ba-
garic, eta, bai, Sacrilegiozco beste pecatu mortal bat bere Ani-
miari ezarriric.

Ezcongueiac bada, Matrimonioco Sacramentu au art-
zeco, demporan estadu graziazcuagaz beren Animac guer-
taturic euqui biar dituben ezquero, onetaraco, pecatu mor-
talen bategaz edo bere gañeco quezca errazuazcoren bate-
gaz aurquiquetan dirian guztian, vide obiagoric eta arteza-
goric ez daucai, Sacramentu santu Penitenziacuan Confesi-
no eguiazco baten bitartez beren Animac garbiquetia ba-
ño, ondoren, premiñacua ez bada ere, errezivitan daube-
la Jesus Divinoa Sacramentu santu Comuniocoan; bai, Ais-
quidia; onela gueien bat guertatu oi dira ezcondu aurrian ez bacar-
ric, pecatu mortalian aurquiquetan dirian, Ezcongueiac, ba-
ita ere, pecatu mortalaren gañeco quezca errazuazcoric ez
daucain, Ezcongueiac [redacted], alde guztietatic, eta, aldau-
ben gara, botatiarren beren biotzetatic quezca mueta guztia,
ete dagozen edo ez guertaturic, Matrimonioco Sacramen-
tu santubac escaquetan daben, gara, eta erestiarren Jesus
maitiagandic, Matrimonioco aldapac iragoteco, premiña di-
tuben, bere grazia santuco indarric aimbat ugarienac: gueiago
esaten deutsut, Aisquidia, ez leuquiala iñorc ezcondu biar, bere
vizitza guztico Confesino general bat ezcondu aurrian eguin baga-
ric, Confesinoaren gañian esanic itzi dodan modura.

Çeuric, Aitsquidia, zer modiz Çerconqueiac ezeondu auzdian zuzendu biar dituben voromdatiac eta voromdateco asmoac, eta guertatu biar dituben beren Animac, Matrimonioco Sacramentubac escaquetan deuster, gara, ecusi daiçun oraiñ, zeiñ dan, ondo guertaturic artzen daubenendaco Sacramentu santu onec daucan, erruba: oraiñ çuiño esan deutsudanetic erraz ezagutu daiquezu, zein dan eruu aia; beiñic beiñ pasgaquetan deuste Sacramentu santu onec Çerondubai beren pecatu venialac, eta emuten deuste, berreun eta ogueta zazpiçaren ofiaren arpeguian eta astian aitatu deutsudan, grazia mueta gueiago edo guichiago, nola Çerconquetan diuinac daucain guertaturic beren Animac; aitatic Aita Artetec doctrinaco bere miraçarrizco liburu laburrian, itanduric, zertaraco dan Sacramentu Matrimonioco a, erantzuten dau: ezconquetaco, eta emuteco Çerondubai grazia, oneçaz vizi ditezen baquian, eta azi daquien Zeruraco Criaturac; bai, Aitsquidia; Zeruraco Criaturac, eziten dituben gurtiz ondo Christandadeco Religino eta Vrtute santubetan, eta ez Infernuraco, beren Animac ezertan ezi bagarric, iziten deustela, urteten Mundubaren eta Arçaguiaren Jarraillaichu batzubec: Sacramentu onec bada emuten daben grazia santu au da, bigarren grazia sraten deutsaguna (au da) ondo guertaturic ezconquetan diuinai auraz daucain, grazia santuba gueiquetan eta ugariquetan deustena, vizienbat Sacramentubac emun oi dauben leguez: arzquerric Sacramentu santu onec iziten ditu loturic Çerondi biac beren vizi gurtiraco, ascatu ezin ditequian, urtarriagaz, Matrimonioa eguiaz artzen dauben gurtian, pecatu mortalian dagozela artubagatic ere: onenbestegaz uste dot, Aitsquidia, ezaguturic eta saquinic gueldituco zaiala, zeiñ dan, Matrimonio santuco Sacramentu onec daucan, erruba; eta oraiñ guaren, zerbait esatera, bere bacarrac dituban, Ontasunen gañian, zeinbat, eta zeintzubec diran.

Çeuric itzi deutsut, Aitsquidia, berreun eta ogueigarren ofiaren arpeguian, nola Estadu mueta bacoitzac daucan bere banango ontasun mueta batzubec, bera onraz eta edertasunez betetan daubenac, eta Jaungoicoac emunac, bere bat aren Divina Magestadiac autortu deutsa Matrimonio santubari beretzat bacarric, eta beste Estadubac, berez obiagoac izanagatic, ez daucain, ontasun mueta batzubec onra eta edertasun gurtiz andiunac: oneic dira izun, Aurren, Seidtasunaren, eta Sacramentubaren Ontasunac esaten deustegunac, zeñacaz Jaungoico gure Jaunac, ontzat eta santutzat emunic, Sui çaeuniaren eta Çmaoiuniaren Corputzac Matrimoniodan alcarregana batzeia, Matrimoniotic campora erraxue andiagaz ica-

tzuic daucan, gauza, arinquetan eta biguinquetan deuste Ꝟconbubai, beren Matrimonioac beste aldetic emun oi deuste (San Pablo Apostolubac esaten deuscun leguez) Arazquiaren atsecabiac (ori da) beren ezbutasun, naibagueta sun, eta quezca mueta guztiac; onela Ꝟconbubac, alde batetic Arantzac badaucan, eta qui daguien ere beste aldetic ontasun onein beren pozgarriac, gozaqueta co onela beren Arantzen zauriac; bai, Aisquidia; maminа ezinagaz eta ezinza maminagaz.

Matrimonioaren lenengo eta aurrenengo Ontasuna da bada, Aisquidia, Aurrac (ori da) Guizon ezcondu bacoitzac bere Ꝟmazte eguiazcoagandic eraqui oi ditubanSeme Alabac; Matrimonioaren izatia ez dago Ꝟconbubac alcar Aragui ezaguquetiagan, ez da ere onetatic Seme Alabac izatiagan; bada gure lenengo Gurasoo bi aien artian, onetara etorri baizen lenago, Matrimonio eguiazcoa eguan; iracurten da ere, eguiaz ezconduric ezcondurie vizi izan dirian, Santu batzuben vizitzetan, beren vizi guztian vizi izan ziriala, Matrimonioaren zorra bien zorondate osoacaz alcarri beñere escatu eta autortu bagaric, onela beren Virginidadia ala obraz, nola persamentuz eta zorondatez osoo eta guztiz ederiquiro gordetan eubela, Jaungoicoaren zorondatia Matrimonioco estaduban ere obeto eguitiaren, vizitza mueta oneriara Ꝟconduben artian guztiz necesria bada ere; eta argatic gueiago, Ꝟconbubac mixa eguiteco, vizitza mueta, jarraiquetaco eta gordetaco, vizitzai mueta baño: bere bat izan oi dira Matrimonio eguiazcoric asco batere Aurbagacuac, Jaungoicoac ala guraric, Ꝟconbubac, beren aldetic dana, artaraco eguin agatic; baña Matrimonio santuba (Fede santuco egui erabaguiac eracurten deuscun leguez) aurrenengo da, Seme Alabac enguiteco; eta onetaraco, Ꝟcontzacai ucatzric daguan, escuvidia emuten deuste Ꝟconbubai; beraz, Matrimonioa santuba eta ona izanic, Aisquidia, eta aurrenengo Seneac edo Alabac enguiteco, eguirian dago, bere lenengo Ontasuna dala, Aurrac emutia; emendic ere ezaguquetan dogu, Aisquidia, arguitasun guztizcoagaz, zeiñ pecatu mortal izaragarria dan, Ꝟconbubac, Aurra izateco, beren aldetic dana, eguinic, ondoren eguitia zerbait, Aurric sortu ez dedin, edo Aur sortuba desegindu dedin; bada lenengoa da Criotzaguillien antzeco pecatu mortala, Aurrari sortzeco vidia eragotzinic, bere surtzaian vizitza quentzen deutsaula, eta bigarrena Criotzaguillien pecatuba betez betezian, Aurrari, bere Amaren Sabelian daucan, vizitza quentzen deutsaula; bai, Aisquidia; Basoco Piztiac izanagatic ere, beren Naturadeziac eragotzinic, ez bata eta ez bestia eguiten dau be.

Matrimonio santubac bada ez dau emuten nai etanco ez Aurric, baizican emuten deuste Ꝟconbubai, Aurraciza-

teco, euregan dana eguiteco, escuvidia, andic aurreracua Jaungoicoaren Providenziaco escu santubetan gueldique-tan dala; ezin izan diteque Matrimonio eguiazcoric oneri-an escuvide bagaric, ez da ere, onetaraco Ezcondu bien al-detic guztiz premiñacua dan, guei bagaric (esan gura dot) Matrimonio santubac, eguiazcoa dan guztian, beti emuten deuste Ezcondubai escuvide au alaco moduz, eze ezconque-taco demporan onerian escuvideric alcarri ez emuteco, gogo era-baguia baleucai, edo escuvide onen videz, Aurra euqui oi dan modura, euregan dana eguiteco, gueiric ez badaucai biac, edo bietatic batec, utsa da onein Matrimonioa; ez lizateque ez izango eguiazcoa; zergatic lenengoai eragozten deuste, ala ezconquetia, Matrimonio santubaren beraren Legueac, eta bi-garrenai eragozten deuste Naturalezaco Legueac, Matrimo-nio santuco Leguia gordetaco zor escatubaren eta autortuba-ren videz, premiña dan duiñ garaco, gueia beren Personai ucaturic: baña, onerian gauzac Ezconduben artian guztiz pisu-bac dirian leguez, bardin norbaitec, ezconduric, bere Matrimo-nioaren gañeco quezca errazuazco eta andiren bat bere biot-zian Josiric ecusico baleu, Munduco Criaturari, batez ere uste onian daguan vizitzaco bere Lagunari, daucan, quezquiaren usainic, dan chiquinenic, emun bagaric, egon biarco leuque be-re Confesore artubagaz eta aditubagaz, eta, oni Confesinuan ascaturic bere biotz guztia, ichu ichuban eguin biarco leuque, berac esaten deutsan, guztia, ula guizi baten urten bagaric Con-fesoriaren esanetic; beste moduz ezin urtengo leuque aiñ nart-za anditic Animaco zauri andi bagaric.

Esan deutsudanetic aguirian dago, Aisquidia, no-la Aurrac dirian, Jaungoicoac Matrimonioari autorturic daucan, lenengo Ontasuna, Ezcondubai, euregan dana egui-nic eta aren Divina Magestadiari escaturic, emuten bade-uste; eta ala Ezcondubac ezagutu biar daube Aurren onta-sun au Jaungoicoaren mesede anditzat; bai, Aisquidia; au eguia da; eta sinistu gura ez badeustazu, entzun eguio-zu Apostolu San Pablori berari, zer esaten deuscun Ezcon-duben pozeraco Aurrac eguitiaren gañian, eta au ez bere buruz, baizican Espiritu Santubaren aotic; ara bere verba santubac, San Timoteo Obispo eta bere Diszipulubari bialdu eutsan, carta sagradu baten esaten ditubanac: Emacume (ez-conduba) salvauco da Semeac eguitiaren videz: da esatia: Emacume ezcondubac (orobat da Guizacume ezconduba) Aur-rac eguiñagaz eta eguiñaren bitartez irabazico dau, eta anchi-

tuco dau bere Animaren salvazinoa: ¿zer gura zeuque, Aisquidia, Apostolu andi onec gueiago jauso daguian Aurren ontasun au Ezconduben pozeraco, batez ere, onetan estuasunic, ordu charric, naibagueric, eta atsecaberic andien eta ugarien euqui oi dituben, Emacume ezconduben pozeraco? eguia da; Aurren Ontasun onec ondoren escaquetan deuste beren Eguilla Guizacume eta Emacume Ezcondubai beren Animen salvazinoraco beste languei muetaric asco, Gurasuen gañian verba eguiten dodanian aiquetara emungo deutsudan leguez; bada ez da asco, Ezcondubac, salvaitaco, Aurrac Mundura emutia, baizican mantendu eta jantzi ere biarditube, eta Zeruraco azi eta ezi biar ditube, etaraten ditubela Christandadeco Religino santubaren eta Virtute santuben Jarralla eguiazco batzubec, Job, Tobias eta beste Guraso guztiz santu batzubec (Escritura sagraduban ecusten dogun modura) beren Vmiacaz eguin euben leguez, eta Apostolu San Pabloc berac eta Escritura sagradu guztiac, Vmiac daucain, Ezcondubai diadar eguiten deusten leguez.

Matrimonio santubaren bigarren Ontasuna da Leialtasuna, edo Leialtasunecoa esaten deutsaguna: Leialtasun au da, Ezcondubac, ezconquetan dirianian, alcarri esquinten deutsaina, beren vizi guztian bata bestiari leialac izateco, beren artian Matrimonioaren Leguea gordetan daubela, zor escatuba ucatu bagaric, ucaquetaco, errazue onen bat ez daguan guztian, eta ucaturic biotzetic pensamentuz, verbaz, eta obraz Persona atriacanaco Araguizco atseguintasun mueta guztiac; eta, Matrimonioac escaquetan dituban, beste gauza guztietan bere bat batac bestiari ondo lagunquetan deutsaila: bai, Aisquidia; ezconquetan dirianian ez daube esaten onerian gauzaric; ez daube esquinten ere aoz onerian Leialtasuneco ontasunic, baña bai obraz, Matrimonio santuba artubagaz beste bagaric; zergatic Matrimonioa artzen dabenac artzen dau, Matrimonioaren izatiac berac escaquetan daben leguez; eta Matrimonio santubaren izatiac aiñ betezian dauca beragaz Leialtasuneco Ontasun au, zeinda bat ezconduco baliz, Leialtasun onen bendian ez vizi izateco, gogo erabaguiagaz, utsa izango lizateque bere Matrimonioa, ezcontzaca gueldituco lizateque: Matrimonioaren Leialtasuneco Ontasun au ecusten dogu betez betezian eta arguitasun guztizcuagaz, gure lenengo Aita Adanec Matrimonioaren gañian esan zituban, eta Jesus Divinoac Evangelioan barriztau zituban, verba santu oneitan: argatic itzico deutsa Guizonac Aitari eta Amari, eta ichatsico da bere Emaztiari; eta izango dira bi Aragui baten: eta orobat, San

Pablo Apostolubac esanic itzi euscun, verba santu oneitan:
Emaztiac ez dauca bere Corputzaren escuvideric, baizican
Esposoac; bere bat ere Esposoac ez dauca bere Corputzaren
escuvideric, baizican Emaztiac: norc bada, Aisquidia, verba
santu oneitan guztietan ecusten ez dau, Matrimonioaren izati-
ac betez betezian beragaz daucala Leialtasuneco Ontasun
au, eta Ezcondubac, Matrimonio santuba artubagaz beste
bagaric, esquinten deutsaila alcarri, Leialtasuneco Ontasun
au gordetia, eta, au ez esquinteco, gogo erabaguia daucaila, ez-
conquetia eta utsa, guztia dala bat? oraiñ eguia da; beiñ egui-
az arturicaco Matrimonio santuba ez da deseguinquetan, eta iñola-
co moduz deseguindu ere ezin diteque, Ezcondubac ondoren
nola nai, eta beren artian batere Leialtasun bagaric vizi agatic,
onerian vizitza mueta, Munduban sortu alditequian, vizitza-
ric zatarrena eta madaricatubena bada ere Ezcondu bien
artian; bacarric bada ezconquetaco demporan, alcarreganaco
Leialtasun santu onen bendian ez sartzeco, gogo erabaguiac
eragozten dau Matrimonioa; zergatic gogo onerianac, Leialta-
suneco Ontasuna quendubagaz, au bagaric izan ezin ditequi-
an, Matrimonioa ucaquetan dau betez betezian ezconqueta-
co demporan, eta, artzera doian, Matrimonioari quentzen deut-
san bere izate guztia.

Ecusi daigun orain, Leialtasuneco Ontasun onec zer aguin-
quetan deusten Ezcondubai: aurrenengo eta betez betezian aguin-
quetan deuste, batac bestiari zor escatuba autorquetia, errazue
onen bat ez daucain guztian, ucaquetaco, eta Persona atziacana-
co Araguizco amorioari beti eta guztiz ichiric erabiltia beren bi-
otzac, Amorio madaricatu onen gañeco usaiñic dan guichienic
iñori naiz verbaz, naiz pensamentuz, naiz obraz emuten ez de-
utsalla, eta orobat besteren aldetico onerian usaiñeco amo-
rio mueta guztia biotz guztitic gorroto daubela; bai, Aisqui-
dia; au eta ez besteric da San Pablo Apostolubaren verba
santu oneitan aiquetan doguna: Guizonac autortu beguio zor-
ra Emaztiari, eta orobat Emaztiac bere Guizonari: Emaztiac
ez dauca bere Corputzaren escuvideric, baizican Guizonac;
bere bat ere Guizonac ez dauca bere Corputzaren escuvide-
ric, baizican Emaztiac.

Guizonac bada bere Emaztiaren gañian daucan, escuvi-
de edo Jabetasun au aiñ oraturic eta ichatsiric dago Guizonari
berari, zeinda, guragatic ere, ezin beragandic bota leique, ezin Ja-
regui leiquio; bere bat guertaquetan da, Emaztiac bere Guizo-
naren gañian daucan, escuvidiagaz edo Jabetasunagaz; arga-
tic, Aisquidia, Ezcondubac, bere vizitzaco Laguna vizi dan, bi-
tartian, bestegaz eguiten badau Araguizco pecaturic, da peca-
tu guztiz icaragarria, Adulteriocoa esaten deutsaguna, eta, be-

re vizitzaco Lagun onaren biotza atsecaberic alditeguian andi-
enagar sarric izten daben, pecatu mueta; eta Leialtasun santu-
co ontasun au betez betetziar auxiten dabena.

Adulterioco pecatu icaragarri au, noiz dala Guizonac
eguiña, noiz Emaztiac eguiña, auxiten dau, Leialtasun santu-
baren aldetic berez bardiña da; bada, batac aña, bestiac ere auxi-
ten dau Ontasun santu au, ez gueiago eta ez gutxiago; baña gue-
ien bat Emaztiaren Adulterioa izan oi da askoz andiagoa, beragaz
batera dacarren (aguirian daguan gauza) calte andiagoaren al-
detic; bada, Emaztia Adulteriotic Aundun guelditu ezguero, onei-
an Aurra Matrimoniocotzat iragoco lizateque;; eta emetic zein cal-
te izugarriac etorrico ez lizaquiie Matrimonioco beste Seme eguiaz-
coaj, edo Senar Emaztiaren Aideric izanenai? bai, Aisquidia; cal-
te oneic eta gueiago etorri ditezque Emaztiaren aldetico Adul-
teriotic, emetic Aundun guelditu ezguero; zergatic, onerian Au-
rraren videbagatasuna aguirian ifinteco, premiña dan, gaxbita-
suric iñundic gueien bat etara ezin leiquiar; bada onetara-
co vide guztiac gueien bat beti ichirric ecusi oi dira Mundu
onetan, eta guztiz guichitan guertatu oi da, asco eta prem-
iña dan garaco, gaxbitasun erabaguirric batec billaquetia eta
emutia; eta ezgatic onerian Aurra ascoren calte andian da-
tor gueldiquetara Matrimoniocotzat, baita ere emetic Emazta-
ren aldetico Adulterioa andiagua Guizonarena baño.

Adulterioco pecatu au Ezcondubenartian aiñ izugar-
ria da, zeinda Jaungoicoac, pecatu onegatic Israeldar osoai eta
Familiai eracutsi izan deuste bere aserre santubaren Zigor go-
gorra; Jeremias eta Ezequiel Profeta santubac pecatu au ar-
pequian emun euxten Jesusalentarrai, gueiago izupasrien vi-
dez arren Divina Magestadiac, bere Jente maitia escura ecarte-
co, gogoa artu eberian, onela esaquiñian egon zitezen, zergauza-
gatic Jaungoicoac eracusten euxten negar gorri aiñ izugarri-
ac, eta, beren Arimetaco begniac ideguirric, gaiztaqueria oni itzi
equiten: Job santubac esaten deuscu Adulterioagatic modu ona-
tan: au da gaiztaqueria eta pecatu gutxi ardia; da suba, (bat)
iraunsten dabena galdu arteraño, eta Jatorri guztiac sustrai-
tic etoraten ditubana; bai, Aisquidia; Espiritu Santubac ere esa-
ten deuscu, Adulteroen Matrimoniotic aienaubo dala Ja-
torria.

Gueiago: vizitzaco Lagun onaren biotza aiñ atsecabean-
diagoiz sarric izten daben pecatu mueta da au, zeinda Je-
sus maitiac Evangelioan bera bacarric aotan artzen dau;
Ezcondubac bata bestiagandic bacaroquetaco, eta (esaten do-
gun legez) vizi Alargun gueldiquetaco, bacoitza bere al-
detic, eta bacarrian; eta ala, Aisquidia, Adulterioco pecatu one-
gatic Guizon oriac dauca escuidia Jesus Divinoaren aldetic, bo-
tatzeco bere albotic bere Emazte Adulteria, eta ono bat Emaxte onec,

bere Guizon Adulteroa bere albotic botateco eta alde batera iz-
teeco, escuvidia: eguia da; Eliza Santac ezaguquetan ditu Ez-
conduben artian Adulterioaren erruco beste pecatu mueta bat-
zubec, zeñacatic, Jesus maitiac aotan artzen ez baditu ere, ba-
ta bestiagandic bacartu ditezquian batere pecatu bagaric, bacar-
tu gura daben, Lagun onaren aldetic; baña, nola dan Ezconduben
arteco baqarqueta au aiñ gauza guztiz piñuba, eta onetaraco guz-
tiz ondo gorde biar dirian, Eliza Ama Santac emunic daucan, Le-
gueac, iñolaco moduz ez dau ezconduric daguanac bere buruz
bacartu biar bere vizitzaco Lagunagandic, baizican, batere Cam-
paaric iñun lo bagaric, bacarric aguertu biar deutsa bere biot-
za bere Confesore aditubari, eta ichu ichuban eguin biar dau be-
re esana, emetic ula guizi baten urten bagaric, Infernuraco vidia-
ri Jarraitu gura ez badeutsa; baita ere, bere vizitzaco Lagun Adul-
teroagandic onela bacarquetan dan, Ezcondubac etsiric egon bi-
ar dau, ezin bestegaz ezcondu ditequiala, beragandic botarica-
co Lagun Adulteroa vizi dan bitarte guztian, ez da au ere beste-
gaz, bera bota daben, Lagun ona vizi dan bitartian; zergatic, Ma-
trimonio santuban biac bein lotu zituban, uztarria ez da iñolaco moduz
deseguinquetan Ezconduben artian, Adulterioco pecatubagatic
bacartubagaz; au Fede santuco egui erabaguia da Jesus Divino-
aren Evangelio santuban, iracurri eguizu berreun eta ogueta lau-
garren ofiaren arpeguian barrenerutzesanic itzi deutsudana; bai;
bere Emaztia botaten daben eta beste bat artzen daben guztiac Adul-
terioa eguiten dau; ondo ezaguturic eucan egui santu au Apos-
tolu San Pabloc ere Corintioarrai esan eustenian: Emaztia lotu-
ric dago (Matrimonioco) Legueari, bere Guizona vizi dan, dem-
pora guztian; baña ill badedi bere Guizona, Leguetic ascaturic
dago: eta esan eustenian: Matrimonioagaz loturic dagozen,
onei aguinquetan deustet, ez nic, baizican Jaungoicoac, Emaztia
ez dedilla bacartu (bere) Guizonagandic; baña bacartu badedi,
egon dedilla ezcontzaca, edo (adisquidetasunac eguinic) biur-
tu dedilla bere Guizonagana: orra, Aisquidia, nola Apostolu
andi onec, errazue onen bategatic bere Guizonagandic bacarque-
tan dan, Emaztiari izten deutsan bere escura, vide bietatic zein
gura artu, edo bestegaz ezcondu bagaric vizi, edo bere Guizona-
gana biurtu; argatic Eliza Ama Santac ere Trentoco bere az-
quenengo Conzilio general santuban erabaguiric itzi euscun
Fede santuco eguitzat, ez dala deseguinquetan Matrimonio-
co uztarria, Ezcondubac bata bestiagandic Adulterioagatic
bacartubagaz.

Adulterioco pecatu onegatic bere vizitzaco Laguna (esan
dodan modura) botaten daben, Ezcondubac pecaturic eguiten ez
dau; bada Jesus Divinoa da, onetaraco escuvidia emuten deutsa-
na; onegaz guztiagaz ez dau aztu biar, San Agustin Elizaco Doc-
tore Jaquintsubac esaten deutsanagaz; ara, Aisquidia, bere verba

~ santubac: ¿zergatic Guizon Catolicuac (beragana) artuco ez
~ dau, Elizac (bere Miembro ontzat) artzen daben Emaztia?
~ ¿edo zergatic Emaztiac parcatu biar ez deutsa Guizon Adulte-
~ roari, baña damutubari, zeñari Christoc ere parcatu deutsan?
bai, Aisquidia; au ederquiro esanic dago, eta guztiz ederqui-
ro eguingo dau, esan oni Jarraiquetan deutsan, Ezcondubac,
beragana artzen dabela, Adulterioagatic botaric daucan, vizi-
~ tzaco bere Lagun, eguiaz damutuba; zergatic, Espiritu Santu-
~ baren aoan buru bagacua bada ere, Emazte Adulteria bere al-
~ botic botaten ez daben, Guizona, au aiquetan da, gaiztaqueri-
ari, ondo iritziric, itzi gura ez deutsan, Emaztiagatic.

Ez deutsut, Aisquidia, oraindio aiquetara emun, peca-
tu onec daucan, gaiztaqueriaren anditasun guztia ala Jaun-
goicoaren aurrian, nola Munduco Aguintarien aurrian; bada
aren Divina Magestadiac berac Judeguben Legue zarrian (au
da) Eliza Santaren Legue escribiduricaco demporan aguindu eut-
san Moises bere Adisquide eta Profeta santubari, eriotza emun
eguiela, Adulterioan Jausten zirian, biai; au berau aguinduric
daucai beren Leguetan Munduco Prinzipe eta Erregueric ascoc;
Españan bertan urrinago bagaric, onenbeste aguinquetan dau-
ben, Legueac emunic badira, aspaldico demporetatic ona aazturic
badagoza ere; eta, gueiago dana, Legue mueta guztiac Eriotzaguil-
lientzat daucain, eriotza parcaquetan deutsai Guizon ezcondu-
bari, bere Emaztia Adulterioan billaturic, lenengo suban Adul-
teroari vizitza quentzen badeutsa; bai, Aisquidia; Eliza Ama
Santaren Leguiac ere onerian Eriotzaguilliarentzat guztiz bigu-
nac dagoza, ez ontzat emuten daubelaco, Adulteroari lenen-
go suban onela vizitza quentzeia, zeña dan pecatu guztiz ica-
ragarria, eta aimbat icaragarriagua, zembat eta Corputzeco
vizitza pecatuban quendubagaz batera Infernubaren ondar-
rera botaten daben bere Anima gaiñua, baizican, zergatic Legue-
aren Emallac uste dauben, Guizon ezconduba lenengo su artan, aiñ
atsecabe andiagaz bere biotza erdibiraturic, ez daguala beregan,
eta ala quentzen deutsala Adulteroari bere vizitza, zer eguiten
daben, ez daquiala: orra bada, Aisquidia, Ezcondubac, Leialta-
suneco Ontasun eder au galdubagaz, eguiten dauben, Adul-
terioco pecatuba zeiñ andia eta izugarria dan ala Jaungoi-
coaren beguietan, nola, bere Justizia santubaren Ministro
dirian, Mundu onetaco Aguintarien beguietan, eta zeiñ atse-
cabe andiagaz eta izugarriagaz beteric, Josiric, eta ichuturic
izten deutsan bere biotza vizitzaco Lagun onari, eta azque-
nic nola dacarren Familiac, Jatorri edo ondorengo Belaun
bagaric gueldiquetara, eta onela Lurraren gañetic guztiz
deseguinduric iztera.

Ezcondubac Escritura Sagradubaren izcunian bi Ara-

gui baten dagoza; eta ez dira bi, baizican Aragui bat; arga-
tic Matrimonioco Leialtasun onec aguinquetan deuste ere Ez-
condubai, bacoitza egon dedilla, berea daben, toquian, bata besti-
aren toquira izagoteco auterizte bagaric (au da) Guizona bere
Emaztiaren eta Familiaren nagusi, Aguintari, eta Buru, bere la-
guntzat eta ez Esclavatzat ezagutuquetan dabela Emaztia, bere
premina guztietan, aldaben, laguntasuna eta esia emateza, ma-
cuquetan dala errespet eta amorioz; orobat Emaztia bere Gui-
zonaren bendian, bere aguindubac amorioz, humildadez, eta
batere maimaŭ eta edo perrauskeria bagaric eguiten dituba-
la, eta iñolaco moduz gura ez dabela santu Guizonaren na-
gusitasun eta aguintetan; ~~etan~~ bada Echeco aguintia artzen
~ daben Emaztiagatic esaten deusu Espiritu Santubac, dala be-
~ re Guizonaren Etsai: orobat Guizon excondubari esaten deutsa:
~ ez eguiazu emun Emaztiari zeure gañeco escuidezic, santu
~ ez dequzun zeure escuidetan, eta lotsatu ez zaitian: eta bes-
~ te lecu baten: ez eguiezu emun escuidezic zeure gañian Semia-
~ ri eta Emaztiari, Anaiari eta Adiskuideri: Guzti ere, cuare-
~ nengo pecatuban sarsiric, eta ondoren bere Guizonari saustec
~ vidia emunic, esan eutsan Jaungoicoac: egongo zara Guizonaren
~ bendian; orgatic ~~San Pablo~~ Apostolu San Pablo c diodan eguiten
~ deuste Emaculme excondu guztiai, izi ditezela beren Guizonen
~ bendian; eta Guizona dala Emaztiaren Buruba; eta, onela izi di-
~ ziala Excondubac, bacoitza, berea daben, toquian, ondoren aqui-
~ quetan deuste Leialtasun santu onec, biac Aragui bat diranle-
~ quez, beti alcar amau daquiela; bada, Aiskuidia, Excondubac
Jaungoicoa eta beren Zuubagaz gaizoric eta beste Personaric Mun-
du onetan ez daube aimbeste amau biar, nola bacoitzac berevi-
zitzaco Laguna; baña, Excondubai Leialtasun santubac aguin-
quetan deusten, alcarregana co Amorio onec izan biar dau, ez;
Adulteroac alcarri deutsain, Amorioaren antzera ichuriac,
ichubac, eta zotarrac, bizican gaibiac, arguiac, eta santubac;
~ bai, Aiskuidia; San Pablo Apostolubac esaten deutsube: Gui-
~ zonac, amau eguzube zeuroen Emaztioc, Christoc ere amau
~ eben leguez Eliza: ~~[illegible]~~, nolacuac, izan biar daben, zeuroen
Emaztiai euqui biar deustezuben, amorio onec, esanic itzi de-
utsut bereun eta oqueta seigarrengo ofoan, eta urrengo oqueta
zazpigarrengoaren arpeguian: Jesus maitiac, bere buruubaren
onari eta esiari batere beguiratu bagaric, bacarric Eliza Santa-
ren ona bere beguien aurrian eucala, artu eben bere Esposat-
zat, eta aimbeste atsecaberen videz, eutsan ondar bagueco amori-
oz, guztia (esateco modura) dereguindu zan, eta ezeberezi zan,
Cuidatzian sarsiric bere vizitza emuteaño: Gorra, Aiskuidia, zeure
Emaztiagandaco amorioraco zer Espillu ifinten deutsun beguien aurri-
an Apostolu andi onec.

Matrimonio santubaren irugarren Ontasuna da, Sacramentubaren Ontasuna esaten deutsaguna; au ez da besteric, baizican, Ezcondu biac betico loturic izten dituban, Vztarria, eta bien vizitza bitarte guztian deseguinquetan ez dana: Vztarri oni esaten deutsagu Sacramentubaren Ontasuna, ez, Matrimonio santubac bere lenengo asipenetic, eta argatic, Sacramentuba izan baño lenagotic, ez eucalaco beragaz uztarri au; bada lenengotic beragaz eucan; baizican, zergatic, Jesus maitiac Matrimonioari emun eutsanetic ona Sacramentubaren izatia, guelditu zan Sacramentubaren erru indartsubagaz arteraño asco argalduricaco Vztarri santu au guztiz errimia eta sendua; eta emendic dauca Vztarri santu onec Sacramentubaren Ontasuneco izena; bada ecusi dozu berreun eta ogueta seigarrengo eta onen urrengo ojaan, nola aren Divina Magestadiac emun eutsan Matrimonioari Sacramentubaren izatia, emuteco onen videz Ezcondubai bere grazia, eta izan zedin Sacramentu au bere eta bere Esposa Eliza Santaren arteco amoriozco eta miragarrizco Matrimonio espiritualaren Ispillu eder bat; bai, Aisquidia; Jesus maitia, gure Guizatasuneco Naturaleza artubagaz, ichatsi zan Eliza Santari, eta beragaz lotu zan eternidade guztiraco ondar bagueco amoriozco Vztarriagaz, eta ezin bacartuco da bere Esposa Eliza Santa onegandic; bere bat, Aisquidia, Mundu onetaco Matrimonioac Sacramentuba dan aldetic, aiquetara emungo badeusca Christoren eta Eliza Santaren arteco Vztarri miragarrizco au, euqui biar dau bere Vztarria guztiz errimia, sendoa, eta iñolaco moduz, Ezcondubai bata bestiagandic bacarquetan, itzi ezin deiquiena; eta argatic Vztarri onec dauca Sacramentubaren Ontasuneco izena: Vztarri oni beguiraturic esan euscun San Pablo Apostolubac, Jaungoicoaren aguinduba dala, Emaztia Guizonagandic ez bacarquetia; eta Guizonac Emaztia ez beragandic botatia, eta, errazue onen bategatic bacarquetan badira, ezcontzaca vizi ditezela, bietatic bat ill arteraño.

Matrimonioco Sacramentubaren Ontasun onec bada, Aisquidia, aguinquetan deuste Ezcondubai (ecusi dozun leguez) beti alcarregaz izatia, eta iñolaco moduz bata bestiagandic ez bacarquetia; eta, noiz baiten errazue onen bategatic bacarquetara baletoz, ezcontzaca egotia bacoitzac, bere vizitzaco Laguna vizi dan bitartian; argatic, Aisquidia, Sacramentubaren Ontasun santu onegatic esaten deutsut Aurren eta Leialtasuneco Ontasunacatic esanic itzi deutsudana (au da) Ontasun mueta bi oneic bagaco Matrimonioa artu gura daubenac ezcontzaca gueldiquetan dirian leguez, izanic Mugarri onegaz arturicaco Matrimonioa eta utsa guztia bat, bere bat bi ezconduco balira, Sacramentubaren Ontasun oni ifiniric, bera Matrimoniotic botateco, Mugarria, esaten daubela: gu ezconquetan gara, baña urte bian edo iruban bacarric alcarregaz izateco; eta andic aurrera bacoitzac euquico dau, gura dabena, eguiteco, escuvidia, berriz beste bategaz ezconquetaco ere: guelditico lirateque ezcontza-

ea; beren Matrimonioa eta utsa guztia bat; bada onela Matrimonioa artu gura daubenac, bereac dituban, iru Ontasun santu oneic bagaric, gura daube, ezin ditequian, gauza (au da) Matrimonioa bere izate bagaric; eta onelacuac, leen duin ezcontzaca gueldituric, eguingo leuquie bacaitzac bere aldetic Sacrilegiozco pecatu mortal icaragarri bana, Jesus maitiaren Sacramentu andi au aiñ zatarquiro ostico peian erabilliagaz.

Sacramentubaren Ontasun oni (au da) Matrimonioco Vztarri oni beguiratu deiquiogu dempora bitan: bata da, Matrimonioa arturic Ezcondubac beren zorra escatu eta autortu bagaric dagozen, bitartecua: bestia da, Ezcondubac, Matrimonioa arturic, zor escatuba autortubaren videz, Aurra izateco duiñ gara, alcar ezaguquetan dirianetic aurreracua: Sacramentubaren Ontasun santu au bada, Aisquidia, izanic berez Ezcondu bien vizitzan beticua eta deguinquetan ez dana, dator guztiz deseguinquetara Ezconduben lenengo demporan, bardin Ezcondu bietatic bat, Eliza Santac ontzat emunic daucan, Religinoren baten sarturic eta Novizio urtia iragoric profesa eguiten badau; eta ala, onela profesa eguiaz eguin ezquero, Munduban guelditu zana irago diteque, beste bategaz ezconquetara; bai, Aisquidia; au eguia da, eta, Eliza Ama Santac Trentoco azquenengo bere Conzilio generalian erabaguiric itzi euscun, eguia; Ezcondubac au onela eguitiagan ez leuquie eguingo, orainguino Eliza Santan Ezconduben artian guertatu ez dan, gauzaric; guertatu da, bai, guichitan bada ere: baña Eliza Ama Santac bere Legue santubetan aguinquetan deuste Ezcondubai, eguingo daubena eguin daguiela, ezconduric, Ylli bi barru, gura dabenac, Religinoan sartu, edo, artu daben, Matrimonioari jarraitu; ezconduric aurreraco Ylli biac irago ezquero ezin sartuco da iñor Religinoan, bere vizitzaco Lagunac gura ez dabela, arteraño sartu zitequian leguez; emendic da aguiri, Matrimonioco zor escatuba pecatu mortalaren azpian autortu biar dana bada ere, ezconduric Ylli bi barru onetan Ezcondubac beren escuban daucaila, zor escatuba naiz autorquetia, naiz ucaquetia, alcarri ucatubagaz batere pecaturic eguiten ez daubela; bere bat Ylli bi barru onetan bein Matrimonioco zorra autortu ezquero, Aurra izateco duin gara, ezin sartuco da Religinoan ez bata eta ez bestia; zergatic jareguiric beren vorondatez, beren mesederaco dempora barru onetan eucain, escuvidiari, artu euben eta erabagui euben Matrimonioco vidia, eta sartu zirian Matrimonio santuco Legue guztiaren azpian.

Matrimonio santuba bigarren demporara eldu ezquero, naiz dala ezconduric Ylli bi barruban, naiz Ylli biac irago ezquero, Sacramentubaren Ontasun au eziñ iñolaco moduz deseguindu diteque Ezcondu bien vizitzan, biac beren vorondatez Religinoan sarturic bata Fraile eta bestia Monja profesa eguingo beleube ere; bada Vztarri au, Matrimonioa bigarren dempora onetara iraguagaz, leen baizen ascoz errimiagua eta senduagua gueldiquetan da alaco

moduz, eze ez dago batere videric, bera deseguinquetaco Ezcon-
du bien vizitzan; bacarric dator deseguinquetara, bietatic bat illten
danian eta ez arteraño; bai, Aisquidia; au ere egui Jaquiña da
Eliza Santan; eta ala Ezcondubac, bigarren dempora onetara ira-
goten dirian berialatic aurrera, aurquiquetan dira premiña guz-
tizcuan eta pecatubaren azpian ala zor escatuba autorquetaco,
nola Matrimonio santuco beste Legue guztiac gordetaco: oneic one-
la esanic, guazen orain, zerbait esatera Matrimonio ezcutucoaren
gañian.

Matrimonio ezcutucoa da Guizacume batec eta Emacume
batec eguiten daubena, iñorc ez daquiala, iñor beguira ez dagua-
la; eta argatic guztiz ezcutuban eta isillic: lenagoco demporetan as-
co Christaun zatarrec eguiten zituben onela beren Matrimonioac.
¿eta emendic zer guertaquetan zan? nola beren nasaitasun larregui-
ac artara ifinten zituban, ala erraz eta laister bata bestiagaz asper-
turic, beren lenengo nasaitasun madaricatubac ecarten zituban,
batac bestiari iztera, eta ondoren beste edozeñegaz ezconquetara
lengo modura, eta onela vizi zirian beti Adulterioco pecatuban; oro-
bat guertaquetan zan; lenengo isillic eta ezcutuban ezconduric, apel-
taldiac emuten eustenian, batac bestiari izten eutsain, eta ondoren
ezconquetan zirian aguirian beste edozeñecaz, eta onela etozen, be-
ren vizi guztian vizi izatera Adulterioco pecatuban; bada beren le-
nengo Matrimonioa, isilla eta ezcutucoa zan leguez, eurac biac ba-
carric equien, eta aren gañeco barriric eta azterrenic iñorc bestec
emun ezin eiquian; aguirian artu euben Matrimonioac eroian
guezurrez bere indarra, eta Adulterioco gaiztaqueria au era-
gozteco, videric ecusten ez zan.

Eliza Ama Santac beti eta biotzetic aldite quian gorroto-
ric andiena euqui izan deuste onerian Matrimonio ezcutucoai;
beti eta Apostolu santuben demporatic ona. aguindu izan dau
bere Legue santubetan, Christaunac artu daguiela Matrimo-
nioco Sacramentu au Sazerdotiaren bendizinuagaz; ala ere
Matrimonio ezcutuco oneic, Eliza Santaren aiñ atsecabe an-
dicuac izanagatic, beti izan dira eguiazcuac eta errutsubac,
Eliza Santac berac quendu [illegible] ez deusten bitartian berenerru
eta indar guztia; bai, Aisquidia; au guztiau eguia da.

Ecusiric bada, Aisquidia, Eliza Santac, Christaunen ar-
tian, itziric alde batera bere Legue santuba, egunetic egunera
gueiquetan ziriala Matrimonio ezcutucoac, eta, oneitatic sortzen
zirian, Adulterioco gaiztaqueria madaricatubac, oneic eragoz-
teco, artu eben, vidia izan zan, orpotic eta sustraitic quentzeia
onerian Matrimonio zatarrac, bere Legue santubetan ucatuba-
gaz beren ~~eta~~ erru eta indar mueta guztia; eta ala Trentoco be-
re azquenengo Conzilio generalian Eliza Santac quendu eus-
ten aurreraco Matrimonio ezcutucoai beren eguiazcotasun, erru,
eta indar mueta guztia, erabaguiten zitubala Matrimonio ustrat,
eta onela ezconquetan zirianac ezcontzacatzat; eta aguindu eben,

~ aurrera Christaunac ezcondu zitezela Ezconguei bien edozeñe-
~ ren Parroquiaco Vicario edo Erretore Jaunaren aurrian, edo be-
~ re escuvidia onetaraco daucan beste edozeiñ Sazerdote Jauna-
~ ren aurrian, onegaz gañetic beste Festigu bi guichienez beguira
~ dagozela, eta erabaguiric itzi eben, onela artzen ez dan, Matrimoni-
~ oa batere indar, eta erru bagacoa, eta onela ezconquetan ez diria-
~ nac ezcontzacatzat; eta, aurrera iñor uts equite onetan jausi ez ze-
din, aguindu eben, Legue santu eta barri au jaquin eraguin
zedilla Eliza Santaco Parroquia guztietan, eta onela jaquin era-
guiten zanetic ogueta amar egun osoac iragoric gorde zedilla,
arte bitartian eguiten zirian Matrimonio ezcutucoac gueldique-
tan ziriala beren errubacaz; eta dempora onetatic aurreraco guz-
tiac batere erru bagaric: onela Eliza Santac, asperturic Matri-
monio ezcutucoaren videz christaunac eguiten zituben, aimbeste gaiztaqueria-
caz, itzi zituban onerian Matrimonio iñill eta zatar guztiac dese-
guinduric orpo orpotic eta sustrai sustraitic, eta erabaguiric
itzi eben, Matrimonioac aurrera euqui biarco eben, aguiritasun
mueta guztia, eguiazcoa eta errutsuba izateco: argatic bada,
Aisquidia, andic ona aguiritasun mueta onegaz guztiagaz ez-
conquetan ez dirian, guztiac iñillic eta ezcutuban ezconque-
tan dira, eta beren Matrimonioa eta utsa guztia da bat, edo
utsa baño dongagua; zergatic onetan eguingo leuquien peca-
tu mortal icaragarri bat, eta leen duiñ ezcontzaca gueldituco
liratequian: bai, Aisquidia; au ere eguia da: iñor bada Matrimo-
nioaren ustiagaz, izenagaz, eta azal utsagaz guelditu ez dedi-
lla Matrimonio eguiazco bagaric, utsian, ezcontzacaca, eta peca-
tu mortaleco vizitza muetan.

~ Orain badaquit, Aisquidia, esango deustazula: bardin Ma-
~ trimonio ezcutuco au, dongaro artuba bazan ere, eguiazcoa eta
~ errutsuba izan bazan, Eliza Santac bere erru eta indar guztia
~ quendu ez eutsan, bitarteco demporan; nola izan zitequian Ma-
~ trimonioa Sacramentuba? eta Sacramentuba bazan; nola izan zi-
~ tequian eguiazcua, eta errutsuba Matrimonio ezcutuco au, Sa-
~ cramentu santu onen Eguilla dan, Ministro bagaric? onen gañian
erantzuten deutsut, Aisquidia; Fede santuco egui jaquiña eta
erabaguia da Eliza Santan, Matrimonioa dala eguiaz Sacra-
mentuba, eta, Sacramentuba dan aldetic, daucala, bere Eguilla
dan, Ministroa; baña, zein dan Ministro au, ez da gauza jaqui-
ña eta erabaguia Eliza Santan, beste sei Sacramentu santuben
Eguillac jaquinac eta erabaguiac dirian leguez: Eracustzalla
batzubec (eta dira guichienac) esaten deuscube, Sazerdotia,
beste Sacramentuben Eguilla dan leguez, dala ere Matrimonio-
co Sacramentu onen Eguillia, eta ala, izentau dodan, dempora
artan Sacramentu onen Eguilla bagaric iñillic eta ezcutuban artu-
ricaco Matrimonio au ez zala eguiaz Sacramentuba, baizican
ezconquetan zirianen arteco Contratu uts bat Sacramentubaren

batere izate bagaric, eta onela onerian Matrimonio ezcutuco au
zala orduban eguiazcoa eta errutsuba ez Sacramentubaren
aldetic, baizican, Contratuba zan, aldetic, gaurco egunian ere
eguiazcoac eta errutsubac dirian leguez, Eliza Santatic campo-
ra vizi dirian, batiatzacuen arteco Matrimonio guztiac: beste Era-
custzalla batzubec (eta dira gueienac) ao batetic esaten deusau-
be, eta uste dogu, lenenguac baño errazue gueiagogaz, ez dala
Sazerdotia Sacramentu Matrimoniocoaren Eguillia, baizican
ezconquetan dirianac eurac, Sacramentu onen Artzallac dirian
leguez, diriala ere bere Eguilla eguiazcoac, alde batetic Eguillac
eta beste batetic Artzallac: onela aituric gauzia ez da neque, Ais-
quidia, ezaguquetia, nola dempora artan Matrimonio aiñ isilla
eta ezcutucoa izan zitequian eguiazcoa, eta errutsuba, baita
ere Sacramentuba, artzeco demporan, ezconquetan zirianac
baño, besteric egon ezagatic aurrian: goguan euquico dozu, Ais-
quidia, zer esan deutsudan eun eta ogueta laugarren ojiaren
arpeguian, eta, biar bada, beste lecuren baten ere bai Matrimo-
nioco Sacramentu santu onen Emalliaren gañian; baña jaquin
biar dozuna da, ez neutsula nic ala esanic itzi, zuri erabagui-
tiarren estutasun guztiagaz, zeiñ dan Eliza Santan Matrimo-
nioco Sacramentu onen Emallia edo Eguillia, baizican bacarric
zuri aiquetara emuteco asmuagaz, nola gaurco egunian
Sacramentu santu au Eliza Santan artzen dan, eta artu biar
dan; eguiazcoa eta errutsuba izateco; onela eta ez beste moduz,
gura dot, aitu daguizun ala zuc, nola beste edozeiñ Yracurtzal-
lac, an esanic, dauicadana, moduren batera aiquetara emuten
nebela, ezcongueien Parroquiaco Vicario edo Erretore Jauna, edo
onen escuvidez beste edozeiñ Sazerdote zala Sacramentu Ma-
trimoniocoaren Emalla.

Aurren Ontasuna izango bada, Aisquidia, Ezconduben
salvazinoraco, ez deutsai Ezcondubac alcarri escatu biar Ma-
trimonioco zorra Araguizco atseguintasun utsagatic, baizican
asmo agaz beragaz eta gauza aietaraco, zeñegaz eta zeñeta-
raco Jaungoicoac ifiñi eben lenengotic, eta gaurco egunian ifiniric
daucan Matrimonioa Mundubaren gañian; zeintzubec dirian one-
ic, ecusi eguizu, berreun eta ogueta zortzigarren oja guztian etaur-
rengoaren arpeguian esanic, itzi deutsudana: bai, Aisquidia;
atseguintasun utsagatic Matrimonioco zorrari jarraiquetia pe-
catu mortala ez bada ere Ezconduben artian, beti da pecatu, eta,
Ezcondubac izanagatic, eguin biar ez daubena; entzun eguiozu
Apostolu San Pablori, zer esaten deusten Guizon ezcondubai:
Emaztiac daucainac (diño) izan bitez, ez baleucain leguez: esan
santu au orobat aiquetan da, Guizonac daucain, Emacumeentzat;
argatic San Geronimo Elizaco Doctore jaquintsubac esaten deu-
tsa Guizon ezcondubari, beste aimbeste esanic aiquetan dala Ema-
cume ezcondubarentzat bere Guizonaganaco: Guizon jaquintsu-

~bac (ain da) Jaungoicoaren bildurrezcoac amaxi biar dau Jmaz-
~tia exeaxnazco amoxioagaz; ez Araquizcoagaz; sacatuco ditu
~Araquiaren asticadac; eta ichuturic ez deutsa itzico bere Burubu-
~ri jaunsten zoxiaren esque; ez dago gauza ichuriagorie, Jmaxtia
~ainaitia baño Adultera (baten) antzera: gauza jaquiña da Eliza
Santan equi au.

Oneguaz astian Jzcondubac, gura badaube, beren Animac salvau, Aurrac equinaxen bitartez, oietaraco premiña dau, Matrimonioco zoxiari jaxraitu biar deutsai, estadu graziaz-cuan dagozela, eta, exaxsiac ontzat emun oi ditubau, modu-toqui, eta demporetan leenagoco Aurraxen batexe calte ba-gue, aurrera sortu alditequian, Aurraxentzat vidia, dau gui-chienian, exagotzi bague, eta beste Lagun Proginori, beren arti-ar ona dau, gauzagaz pecatuaco videxic emun bagaxic: oneix gañian iñoiz quezcaxen bat badauca Jzconduxen batec, esan be-guio bexe quezquia Confesiniaau bexe Confesore aditubau, eta onec etaraco dau bexe quezcatic, Jaungoicoaxen voxondate san-tuba exacutsiagaz; ez daube Jzcondubac, Aisquidia, batexe lotsa-xic enequi biar, beren biotzetaco quezcac aquixian ifinteco beren Confesoxiai; bada oneic dauca ifinixic Jesus Divinoac, bexe voxon-date santuba exacusteco ezcontzaeai eta ezcondubai, bacoitzari, bexe vizitza muetiac aquinquetan deutsan leguez.

Bildua naiz, Aisquidia, eta ez guichi, Jzcondu asco ete dagozen uste guezurrezcoan, bein ezcondu ezquero, Matrimo-nio santubac ontzat emuten deustela, Diabrubac gogoxa ecarri deiquien, edozein atiseguintasun mueta; baña, onelaconic badi-xa, guizurra siniesturic vizi dira, eta uts eguiten daube; ez zixi-an ez, ezcondu zixaxian, baxa bestiaxen Corputzaxen Jabe eguin, beragaz edozein zatarqueria eguiteco: Matrimonio santubac se-nax Jmaxtien axtian gauza asco ontzat emuten ditu, Jzcontza-quientzat pecatu mortalaxen azpian ucaturic dagozenac, baña ez guztiac; badira, bai, Senax Jmaxtien axtian gauzaric asco, Matrimonio santubac betez betezian ucaquetan ditubaniac, bat-zubec pecatu venialaxen azpian, eta beste batzubec pecatu mor-talaxen azpian; gauza bacoitza nola dan, quezquiagaz auzqui-quetan dixian, Jzcondubai beren demporetan exacustia, da beren Confesore adituben laguneia: guaxen oraiñ esatera, zeintzubec dixi-an Guizonaxen auxxenengo Lagueiac, eta ondoxen zeintzubec dixian Jmaxtiaxenac.

Guizonac bada, Aisquidia, beguiratu biar deutsa beti bexe Jmax-tiari, ez, diaux exosinicaco, Jesclaba bat balen leguez, baizican bere vi-zatzaco Laguna, eta Jaungoicoac emuna daben leguez; gure lenengo Aita Adanec exe alaixentau eben bexe Jmaxte Eva; eta ala emun biar deutsa bexe Jmaxtiari bexe, datozquion, honza, eta ez deutsa exacutu

biar batere dollorqueriaric bere premiña eguiazcoetan, eta, eguiten deutsan, errazuazco escavide guztietan: onetaraco badaquizu, Aisquidia, gauzia ez datorrela berez Echera, eta diruba beti etaraten dabenac, eta ez sartu, laiñter ecusico deutsala bere ondarra; argatic Guizonac beti erantzi biar deutsa zeri edo ari bere escubac, oguia irabazteco, onac dirian, Langueiren batzubei, oñian euquiteco bere lenagoco Ondasunac, premiña eguiazcoetaraco aldabena aurreraquetaco, bere Familiarentzat premiña dirian errazuazco Oguia eta Jantzia irabazteco, eta azquenic, gaiztaqueria mueta guztien Yturria eta sustraia dan, Alperqueriari igues eguiteco: onegaz ostian nola Guizona dan bere Emaztiaren Buru eta Aguintari, ez dau larregui sacatu biar bere nagusitasunagaz eta aguintiagaz Emaztia; ez dau beti beretic juan biar, naiz dala zuzen, naiz oquer; nic onela gura dot, eta onela eguin bedi: gauza ona da, Emaztiari ere entzutia, zer esaten daben, eta, errazue badauca, bere esanari jarraiquetia; eta batzubetan Guizonac alde batera itzi biar deutsa, Emaztiaganaco daucan, aguintiari, pecatu ez dirian, gauzetan baquiaren amorioagatic, beren arteco ezari eta baiari luzapenic emun bagaric, bere Emaztiaren argaltasun gueiagoac biotzic aimbat zabalenagaz eta bigunenagaz eruaten ditubala, eta pecatu mueta guztiacanaco gorroto aimbat senduena bere biotzian sortu eraguiten deutsala.

Oraiñ Emaztiac entzun beguie beren Langueiac, Apostolu guztien Buru zan, San Pedro Apostolubaren aotic; ara zer esaten deusten: Emaztiac vizi bitez beren Guizonen bendian, bardin (Guizon onein artian) aurquiquetan badira siniste bagacoren batzubec, Emaztien (aldetico) vizitza onaren (predicazino iñillaren) bitartez salvau ditezen: ez beguie erabilli campotic Vlien eta soñeco jantzien edertasun larreguiric, baizican, ezcutuban daguan, biotzeco Guizona (au da) Jesus Divinoa egon bedi josiric (beren biotzetan), Jaungoicoaren aurrian aberatsa dan, Espiritu baquioso eta onaren beticotasunian; zergaitic demporetan (ecusi izan dirian) Emazte Santac ere, Jaungoicoagan esperanza ifiniric, onela ederquetan zirian, beren Guizonen aguindubac eguiten zitubela, Sara (Emaztiac) eguiten eutsan leguez bere aguindu guztiac (bere Esposo) Abran Patriarcari, izentaitan ebela (bere) Jaunaren (edo Jabiaren) izenagaz: ¡Ha, nire Aisquidia! eta zeiñ betezian eta biotzetic lotsaiaquetan dituban, Modiaren aize utsagaz, Camalue Pistia zatarraren antzera, puzturic vizi dirian, Emazte zatar, perrasca, ibildaun, buru iritzi, eta berecoi guztiac! bai; Camalue Pistia zatar au ere beti vizi da aize utsagaz, eta gueiago dana, zeimbat toquitara aldaquetan dan, aimbeste soñeco aldaquetan ditu; bada edozeiñ lecutara doiala, daguan, lecubaren antza artzen dau bere Corputzeco azal guztian alaco moduz eze, batec, bere beguien aurrian euquiagatic, nequez igarrico deutsa, nun daguan, eta zer dan; orobat bada Emacume zatar oneic, Modiaren aize utsagaz vizi diriala, aldaquetan ditube aimbeste soñeco, zembat

moda eçusten ditubenbeçuien auxuian; diruditz ez, diziranac; eta ez diruditz, biotzeco Guizon ezcutucoa dan, Jesus maitioc escaquetan de- usten, antzecoac: Jesus maitiaren Ama Virgina Maria Santisima ere Munduco eta Zeruco Criatura guztien artian santidadez jc eta jaquindu- riaric andienecoa zan; ala ere Jaungoicoac emun eutsan bere Aponta- ri, Buruzeta Esposotzat, bera baño quichiago zan, San Joseph gloriosoa, guztiz santuba bazan ere; eta Jesus Diruna, Aux zan demporan, Jau- si ez zedin Erodes Erregueren escubetan, artu biar zituben vide edo neuriaren gañean San Joseph gloriosoac, eta ez Maria Santisimari aguertzen zan Zeruco Aingueruba, esaten eutsala, zer eta nola eguin biar eben; onela Señora aii, Aux Diruaren Ama eguiazcoa bazan ere, beguii luzetasun batere bague vizi izan zan ichu ichuban eta biotz guztitic eseguiric, bere Buru eta Esposo zan San Jose gloriosoaren esa- netic eta voromdatetic; eta beste moduz ezin izan zitequian aiñ Jaun- goicoaren biotzecoa, eta Zeruco eta Lurreco Criatura guztien artian biotzecuena; modiaren aize madarikatuba ere ez zan beñere sartu bere biotzeco atetic barrura.

Onegaz ostian Emaztiaren Lanqueia da, Eche barruco eta Eche inguruco gauza zee guztiai ondo eta arduraz beguiraque- tia; aien zaiñ leiala izatia; eta Eche barruco eta inguruco zer eguin zee guztiai aapequi emutia, eta escubac ezartia, eçuiten ditubala gauza guztiac bizcor, ondo, ezkoidu eta alamentu bagaric, biotzeco baquian, pozic, Jaungoicoagan eta Jaungoicoagatic, eta ez Echeco- ac eta Aizcoac beragatic zer esan daiquienagatic, ez goiaca da- billen Erota azi bateri antzera, aiñ eta guztiac beiñ ian, baizi- can, bata eguinic bestia, gauza bacoitza bere demporan, ezer eçui- ten ez baleu leguez, eta gauza guztiac beren demporetan eguinic izten ditubala: onetaraco Emaztiac beti Eche barruban egon biar dau, ez bere Guizonaren aguinduz nai eta nai ezian, baizicar bere vo- rondatez, batere bapuric baltzitu bagaric, eta susuma bagaric; ez dau ere uste biar Echetic pzemiña bagaric, eta ordubanere be- re Guizonac daquiala, eta autorquetan deutsala; bai; beiaun pozo ona daucan, Emazte ibildaunac gueien bat usaiñ char- ra baratu oi dau aldeien batetic edo bestetic: amau biar dau bere Guizona Jaungoicoagan eta Jaungoicoagatic eta Jaun- goicoagaz ostian beste edozeiñ Prozimo baño gueiago; bere bat amau biar ditu bere Ume guztiac eguiaz Jaungoicoagan eta Jaun- goicoagatic, noiz baitzubetan estu ordubac inguratu agatic ere, ver- ba zatarric beñere esaten ez deustela, ascoz guichiago maldizionac, baizican bere Espasaren laguntasun agaz batera azi ezi, eta eroa- ren ditubala Christandadeco Religiño santubaren eta Virtute san- tuben Jaraalla eguiazco batzubec; zergatic gure Jaungoicoa eta Jabia guztiz santuba dan: azqueneic Guizon eta Emazte sizi biar daube, beren estu ordubetan, nai beguietasun eta argaltasun mue- ta guztietan alcar baiac bestiaui emuiten deutsaila, pecatu ba- garic emun aldaiquien, ainbat eraxic gueien; bai, Arsquidia, Jto! eta zeiñ begui edarracaz beguiraquetan deusten Jaungoi- co gure Jaunac, onela Matrimoriio santubaui bere jun Ontasu- netan biotzetic jarraiquetan deutsain Guizon eta Emazte on- do alcar artu batzubei! ez da ain nic asmaurricoico eguia, Arsqui- dia; Espiritu Santubac berac esaten deutsu, Lurraren gañean Ja- ungoicoaren voromdaterie gueienecoac diruan jun gauzetatic bat diziala Guizon eta Emazte ondo alcar artu batzubec: ala gueita dequizula zeure Matrimonioan, daucazun, Emaztiagaz.

Matrimonioa utsian edo pecatu mortalian artzera iñor
irago ez dedin, ez, Jaquiñian, eta ez, uste onian, Aisquidia, Eliza
Ama Santac bere azquenengo Conzilio general Frentocoan aguin-
~du eben, Parroquietaco Vicario, edo Erretore Taunac beren Parroquie-
~taco, eta orobat, beren Parroquietan egoeraz vizi izan dirian, Ezcon-
~guei guztien Matrimonioac aurraz Jaquin eraguin deguiela beren
~Parroquianoai Meza santubetaco demporan iru Tai egunetan bata
~bestiaren ondoren (au da) Jaquin eraguiten asiric Tai egun baten
~andic ondorengo Tai egun bietan, bat uts eguin bagaric, iru vider,
~iru Taietan, Tai bacoitzian beiñ, iñorc badaqui Ezconguei bien arte-
~co gauzaren bat, alcarregaz ezconquetia eragozten deustena edo
~guztiz edo pecatu mortalaren azpian, esan deguion demporaz
~Vicario Taunari: bai, Aisquidia; au onela aguinduric dauca Eliza
Santac; eta onela ecusten dozu, zeure Parroquiaco Erretore Tau-
nac Jaquin eraguiten deutsubela Tai egunetan Meza naguisiaren
Ofertorioco demporan Pulpitotic Ezconguei guztien izenac eta apel-
lidubac, beren Gura suenac ere bai, aimbat errazen ezagutu dai-
guizuben, nortzubec dirian, ezconquetaco dagozenac, eta, bardiñ
iñorc badaqui beren arteco gauzaren bat, alcarregaz ezconque-
tia eragozten deustena, berari demporaz esan deguion, eta
onela eragotzi daguian Erretore Taunac, Eliza Santaco Legue-
ac ucaturic daucaiñ, Matrimonio mueta guztia; argatic ere Eli-
za Santac, Legue au guri onela ifintiagan, gura dau, aimbat
aguirien eta aimbat gueiagori Jaquin eraguitia Ezcongueien
Matrimonioac, Matrimonio utsac, edo pecatu mortalaren azpi-
an ucatubac onela obeto eta errazago eragoztiarren; daquienac
bada, Aisquidia, dabiltzen, Ezconguei bien arteco Matrimoni-
oa dala, ucaturic dagozen, onerianetatico bat, esan biar deut-
sai Vicario edo Erretore Taunari, aiec ezin ezcondu ditezquiala
alcarregaz onegatic edo agatic, beren errazoia emuten deutsai-
la; ez da au, iñori gaitz eguitia, baizican Eliza Ama Santaren aguinduba,
pecatu mortalaren azpian gorde biar dan leguez, gordiagaz Ezcon-
gueiai eurai ere on eguitia: berreun eta oqueta bat garren ojiaren os-
tian eta urrengaren arpeguian izentau deutsut, Christaunai ezcon-
quetia eragozten deusten, Legue batzubec; baña ez dira aiec bacar-
rac; badira gueiago ere: orobat bada Confirmazinoco Sacramentuban
Padrino edo Madrina izan dana ezin ezcondu diteque confirmaubagaz
eta onen Aitagaz edo Amagaz: Bautismo santubaren Emallia, estu
orducoa, izanagaticere, ezin ezcondu diteque batiatubagaz, ez da
ere onen Aitagaz edo Amagaz: Emacumia, beragaz ezconquetaco, os-
tu daben, Guizonac ezin beragaz Matrimonioric eguingo dau, bere bendetic
urtenic Emacumiac nasaitasun guztizcoagaz bere vorondate osoco
baiezcoa eracusten ez deutsan bitartian; eta onerian Guizacume la-
purichusi, zatan, eta madaricatubac baditube Eliza Santaren aldec-
tic beste pena andi batzubec ere; ez da, ez, Aisquidia, gauza au, bar-
re eguiteco, gauza: orobat bardiñ iñorc vide bagaco gaitz andiren ba-
ten bildur eguiazcoagaz ifinten badau Personaren bat, Vrliagaz edo beren
diagaz ezconquetara, utsa da onerian Matrimonioa; ezcontraca gueldique-
tan dira; baña onetaraco gaitzac izan biarco dau ez edozeiñ, baizican, biotz an-
dico Personiari ere icara eraguin deiguion, moducoac: badira, Aisquidia, Le-
gue gueiago, Matrimonioa ucaquetan daubenac; baña oja aietan eta emen
izentau deutsudanac dira gueien gogoan euqui biar dirianac, Matrimonio
ucatubac eragozteco.

Zembat vider Ezconduba alargunduric gueldiquetan dan aim-
beste vider biurtu diteque beste bategaz ezconquetara; bada Jesus maiti-
ac emuten deutsa onetaraco batere laburtasun bagueco escuvidia;
eta ala Apostolu Santubac, eta Eliza Ama Santa guztiac iñori be-

ñeze ez deutsai ucatu onezian escuvidezic; onegaz guztiagaz, nola Apostolu San Pablok, ecusiric, Jaungoikoaren aurrian dala asco obiago, berriz ezconquetia baño, ala alaba alarguntzunic vizi izatia, esaten deutsan Guizon alarguntzari: ez zaite ibilli (beste) Emaztezen billa: Eliza Santaco Gurutziac gueien bat urrutiratzen zatozkio ontzen deuste bigarren Matrimonioai eta ardie aurreracoai; bada bildur dira, ez diriala ainbeste videz ezconquetan, Matrimonioai, berezac dituban, iuri Ontasun santubetan deutsain, amorio on, eta gaubiagatic, baizican bezen Arauguiari, Matrimonioan bada ere, aldaruben, nausaitasun guztia emutiagatic; eta, eguia esateco, Aiuquidia, Matrimonio bietaco edo gueiagoetaco Vrniac batera batu ditezenian; nun da bezen azienaren? nun da bezen arteco, eta onein videz senar Emaztiaren arteco bagvia, alcarreganaco amorioa, eta leialtasun santuba? gueien bat Paga adarrian, Aiuquidia; bai; ala beinic beiñ exacusten deuscu egunoro aurrecoaldiac.

Eliza Santac eta bere Gurutziac bada ez deuste ucaqueetan Alarguntzai, esque diriau, Matrimonioa; baña ez deuste besterik eguiten, ezconduric, Emaztiac exabilli biar daben, Jesutzuna bedeincaquetia baño, bedeincaquetaco demporan Vicario edo Jesutzar Jaunac Jaungoikoari escaquetan deutsala bere grazia santuba, Jesutzuna exabillico daben, Emaztiac gordetzan deutsala bere Guizonari leialtasuna, iraun dezzuian baquian, eta aren Divina Magestadiaren voronduatiare eta onela vizi dedin bere Guizonagaz alcarregenaco amorio santuban: au da Alarguntzai, Matrimonioa autortubagaz gañera eguiten deusten, mesede guztia: lenengoco Matrimonioa barriz Ito! eta zeiñ laztan, zeiñ maite, eta zeiñ biotzcoa dauben! beti beguiraquetan deutsai lenengoco Matrimonioni exin da Begui edezagoacaz: bai, Aiuquidia; ezconquetan diran, Alarguntzai eguiten deusten mesediacaz gañera, deucai lenengo Matrimonioarentzat bacarrik, bigarren eta ardic aurreraco Matrimonioentzat ucaturic deucain, mesede guztiz ardia; au da Espozo eta Esposaren mesedeçko Meza santuba esaten deutsagun; au da Meza mueta bat, Eliza Santac ifiniric deucazu, Jaungoikoagandic lenengo Ezcondubentzat ezesteco, aren Divina Magestadiaren biotzeco eta voronduate guztizco Ezcondu batzubec izateco, premiña dituben, grazia eta bendizio mueta guztiac, nundic ere esaten deutsagun Matrimonioaren bendizinoco Meza: ona, Aiuquidia, zeiñ begui onacaz beguiraquetan deusten Eliza Santac lenengo Matrimonioai, [redacted] bada aiñ ugaria da, Jaungoikoari onein oneraco eguiten deutsan, escaviddia, eta aiñ laburra Matrimonio bigarrenentzat, batez ere Emaumirian aldetic bigarrenac dituanian, lenengo Matrimonioco Guizon Alarguntzarentzat ez dago ere arazotzric Sazerdote baren Ordenaco Sacramentuba; bai bigarrenentzat. Matrimonioaren bendizinoco Meza santu diretan Eliza Santac ifirten dau Guizona escumaco aldetic, eta Emaztia ezquerreco aldetic, alderic aquirienian eta onrauic gueienecuenian Guizona, Emaztiaren Buru eta Aguintari dau leguez; Guizona buruba

zabalic, eta Emaztia buruba estariric; zergatic au dan, Aposto-
lu San Pabloc Guizacumiai eta Emacumiai eracutsi eusten, egoe-
ra, Orazino eguiteco demporan, esaten eustela, onetaraco Corintio arrai, Gui-
zonarentzat lotsagarrico gauza zala, buruco ulia aziten izteia,
ebatia lotsagarrico gauza dan leguez Emacumiarentzat: lotzen
ditu Guizon eta Emazte estola zuri bategaz, Guizona sorbalda
gañetic, eta Emaztia buru gañetic, aiquitera emuten deustela, one-
la lotzen dituban, Estola sagradubagaz beren Matrimonioco Vztar-
ri santuba, beren vizi guztiraco loturic itzi zitubana, vizi dirian
dempora guztian euqui daguien gogoan, eta irago ez ditezen iñolaco
moduz, urraquetara, eta deseguinquetara beren gañetic Vztarri
santu au; Guizonari ifinten deutsa Estola au sorbalda gañetic eta
Emaztiari buru gañetic, aiquetan emutiarren, biac Vztarri baten
bendian vizi badira ere, ez diriala escuvide bardiñecuac, bai-
zican Guizona dala Emaztiaren Aguintaria, eta Emaztiac erabi-
lli biar dabela beti buruba bere Guizonaren aguintiaren azpian: Es-
tola au da zuria, bere zuritasunagaz aiquetan emutiarren Ezcon-
dubai, vizi dirian bitarte guztian gorde biar dauben, Animetaco
Ontasun garbia eta zuria: ifinten deuste ere beren escubetan Can-
dela izioac, onegaz aiquetan emuten deustela Ezcondubai, Taun-
goicoagan daucain, siniste eguiazcoa beti bizturic eta izioric era-
billi biar daubela, Caridade eguiazcotic sortzen dirian, obra ona-
caz: onela dagozela bada lenengo Ezcondu barri oneic, Erretore edo
Vicario Taunac edo onen escuvidez beste edozeiñ Sazerdotec, Espo-
soaren eta Esposaren mesederaco dan, Meza santuco Sacrifizio one-
tan esquinten deutsa aren Divina Magestadiari bere Seme Jesus
Divinoa, onen bitartez eresteco, aurrian dagozen, Ezcondu barri aient-
zat Zeruco bendizioric eta graziaric aimbat ugarienac.

Christaunac, urtiac daucan, edozeiñ demporatan ezcondu di-
tezque, ala ere Eliza Santac pecatu mortalaren azpian eragotziric da-
uca, Ezconduben bendizinoraco dan, Meza santu au Avenduco le-
nengo Igandiatic asi eta Erregueen Tai eguna irago arte bitarte
guztian, eta orobat Auts egunetic asi eta Resurreczinoco Pazcua
egunaren zortzigarrena irago bitarte guztian; eta Eliza Santac ez
bacarric eragozten dau dempora santu bi oneitan bendizinoco Meza
santu au; baita ere eragozten deuste Guizon ezcondubai, ecar-
tia dempora bi oneitan beren Echeetara Noviac aguiri andico la-
gunacaz, eta Lagun ascogaz, Eztai aguiriac eta andiac eguitia,
eta dantzac eguitia; baña, negargarrizco gauza dana, Christau-
nac beren ezcontzetan Eliza Santaren aguindu au ostico pera bo-
taten daube, beren eraquerietaraco bardiñac eguiten ditubela dem-
pora santu bi oneic urtiaren beste dempora guztiacaz, Eliza San-
tac dempora bi oneitan ucaquetan baleu leguez bacarric bendizino-
co Meza santu au, eta ez besteric: gueiago, Aisquidia; Eliza Santac
esaten deuste lenengo Ezcondubai, Meza santu onetaco bendizi-
noa artu baño lenago ez ditezela irago Matrimonioco zorra alcar-
ri escaquetara eta autorquetara; eguia da; gauco egunian Era-
custzallac uste daube, Eliza Santac ez deustela Ezcondubai aguin-
quetan azquenengo gauza au pecatubaren azpian: onenbestegaz, Ais-
quidia, emuten deustet azquena ala Matrimonio santubari, nola nire
eracustiaren lenengo partiari.